

EUSKERAZKO IDATZ-LANAK



**EUSKERAZKO**

**IDAZ -LANAK**



NIRE EUSKERAZKO BIGARREN TXANDAKO IDAZ-LANAK DIRA, OLAZAR ta URIBE`tar  
MARTIN`eri EZKER.

IDAZ-LAN GUZTIAK, BERAK ZUZENDUTA DAGOZ ETEN-BAKO ALEGIN BATEN, EUSKAL  
IDAZLEAREN ITXURA ON-BATEN AGERTU NAITEN.

BERARI NIRE EZKER-MIN AUNDIENAK.

BERE LAGUNTZA AIN EDERRA IZAN DALAKO.

NIRE BIZITZA JAINKOA`ri BEGIRA,

EUSKAL-SEN EDERRENEAN IRAUN DAGIAN.

"ZER eta EUSKERAZAINTZA" ALDIZKARIENTZAT IDATZITA DAGOZ IDAZ-LAN AUEK:  
2.001`eko AGORRILLA`ren 8`tik, 2.005`eko AZAROA`ren 17`rarte.

EUSKADI`ri LAGUNTZEKO`en ASMAKIZUNEZKO ALEGIÑEAN, MAITASUN GUZTIAGAZ  
EGINDA DAGOZAN IDAZ-LANAK DIRA.

MARTIN`ek ESATEN DAUAN-LEZ: "EUSKALDUNAK GOGAKETA SAKON-SAKON BATEGIN  
BEAR DOGULA, DANOK BATERA ASKATASUNEZKO ELBURUARI BEGITZEKO. EKINTZAN  
ALKARREKIN JOAN GAITEZAN, GURE EUSKALERRI MAITE-AU ASKATU GURA BA-DOGU".

"ASKATASUNA, NOR-BEREN ARDURAZKO ORDAIÑAK

ESKATZEN DITU.

ETA NIK, BADAKIT EUSKALDUNAK ARDURADUNAK GARALA".

I.....-	GAURKO JOKABIDEA EUSKALERRIAN.....	1
II.....-	NAFARROA ETA ERRIOXA ALDETIK.....	3
III.....-	BATZANGOA (GLOBALIZACIÒN).....	5
IV.....-	GORBEIA`ko GURUTZEA.....	23
V.....-	ZER DIRA EZKERRA TA ESKOIA POLITIKAN ?.....	25
VI.....-	LAGUNEN ARTEKO ALKAR-IZKETA.....	30
VII.....-	AGINDUAREN ORDEA.....	33
VIII.....-	ADIÑEKO`en BIDAIA.....	36
IX.....-	IZKUNTZA ETA GIZARTEA.....	42
X.....-	EUSKARA`ren IXILEKO ESKUTAPENA.....	45
XI.....-	LUR-GORRI NOR DOGU ?.....	49
XII.....-	EUSKALERRIAREN ETSIAK.....	53
XIII.....-	LATERRI ESKUBIDEKOAK, ALA....?.....	59
XIV.....-	EUSKALDUNAK EUROPAN.....	61
XV.....-	DEMOKRAZIAREN DENBORAK.....	86
XVI.....-	BERRIAGA.....	90
XVII.....-	LUR-GORRI NOR DAGU ?.....	94
XVIII.....-	GAURKO DEMOKRAZIA.....	99
XIX.....-	ALDERDI ABERTZALE EUSKALDUNAK.....	106
XX.....-	GIZA-IZTIA.....	109
XXI.....-	GAURKO ARAZOAK.....	112
XXII.....-	EGIA`ren BORROKA.....	116
XXIII.....-	ZERGAITIK O.N.U.? (EUSKALDUNAK GAUR).....	122
XXIV.....-	EUSKAL LEGE-ZARRAK O.N.U`ren ARGIAK ?.....	129
XXV.....-	EUSKALERRITIK ZEAR.....	137
XXVI.....-	GAURKO BARREGARRITASUNAK.....	141
XXVII.....-	ASKATASUNA ta MENPEA. ASKATASUNA BIZKAIAN.....	146
XXVIII.....-	OPARITX`en EGUNA`k.....	189
XXIX.....-	ZORNOTZA`ko JAKINTZA eta EDERTI-GIROKO ALKARTEA`ren ETOR- KIZUNA.....	191
XXX.....-	SASIJAINKOAREN ARIA.....	192
XXXI.....-	BUSH, IPAR-AMERIKETA`ko LENDAKARIA.....	199
XXXII.....-	ARDURA.....	202

XXXIII...-	GAURKO GERTAERAK.....	205
XXXIV...-	BEREZITASUNA`ri LOTSIA.....	208
XXXV...-	ADIÑEKO BIDAI BATEN IBILALDIA.....	213
XXXVI...-	EUSKALERRIA EUROPA-ALKARTUAN.....	223
XXXVII...-	EUSKALERRIA - EUROPA.....	268
XXXVIII...-	EUSKADI`ren ASKATASUNA - ESPAÑA - EUROPA.....	274
XXXIX...-	EUSKALERRIA ZELAKO JOKUAN SARTUTA DAGO (I).....	280
XL.....-	EUSKALERRIA ZELAKO JOKOAN SARTUTA DAGO (II).....	282
XLI.....-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (I).....	284
XLII.....-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (II).....	286
XLIII...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (D.I.C.) (III).....	288
XLIV...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (IV).....	290
XLV...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (V).....	292
XLVI...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (VI).....	294
XLVII...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (VII).....	296
XLVIII...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (VIII).....	298
XLIX...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (IX).....	300
L.....-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (X).....	302
LI.....-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (XI).....	304
LII.....-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (XII).....	306
LIII...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (XIII).....	308
LIV...-	EUROPA`ren ERKIDETASUNA (XIV).....	310
LV.....-	IZKUNTZA`ren ZENTZUA.....	317
LVI.....-	EUSKALERRIA ta INGURUKO ERRIAK.....	322

Ez daust bildurrik emoten azterketa au lau aizetara zabaltzeak, etzaiak bere gogoetan artuta, gure aurka ibiliko dauelakoan. Neure ustean alderantzizkoa dalako. Alde batetik: " Euskaldunak erri-bat garalako Ludi onen arrazoizko egitan ". Beste aldetik: " Espainolak eta Frantzezak, euren arrazoiz-kanpoco izakeraren asmakizunean, ez dabelako on-artzen gure izatea edo Nortasuna, eurak izateko.

Eurak, txikerrak garela esaten dabe. Eta guri ZER !, ez gara ba ?. Ludi onen izaerak ez dira neurtzen Nortasuna daukien gauzetatik ba ?. Orregaitik, Mundu onen arrazoi bidetik neurtu egin bear dira eskubide eta beartasunak, Nortasunaren ardurak diranak, Nortasunaren artean osotu bear diralako. Baiña zori txarrez, Norkeria agertzen jaku, eta OR ! agertzen dira gure arteko borrokak; bai etzaiaren aurka, nai gure artean. Eta oso gogorrek gaiñera.

Etzaiaren aldetik: " LA UNIDAD DE DESTINO EN LO UNIVERSAL " eta " POR LA GRACIA DE DIOS " izkera goratuakaz izkutuko sineskerietan sartu gure gaitue, eta orregaitik Aznar`ek esaten dauan lez " PUEBLO INMADURO " gu garelakoan, euren " DESTINO`RA " sartu arte. Baiña estalgarri oiek banan-banan kentzen dautzesuz..... eta Zirilloak egite eben ber-bera da: berenak batu eta besteenak ere bai, ganbara bete arte. Askenean erdiak baiño geiago usteldu daitezcan; eta ez bakarrik aldamenekoak gozeaz geratu, bai bera ere gosetuta txarto zainduagaitik. Bai-ta beti ere keiñadura bardifekin aldameneko jazarraldiari, Zirillo baiño askoz makalagoa dalako, burue zartadaka apurtu dautzelakoan.

Gure arteko borroka ere, bardin edo antzeko bat da !: azkarregi, edo beti lasterka askatasuna lortzeko gabiltzalako, askatasunak berak ! bear dauan egokitasun gertakuntza barik. Eta ori askatasuna lortuta ere, betiko borrokaren bidea da !. Dana dala, gure gaurko estai-bada onek, askatasuna lortzea atzeratu egiten dauela bai !!, eta gure artean egokitasun txarra, urduritasuna, bata besteen ikus-eziña eta abar asko sortzen dauana ere bai !!, danok batera joan ez egitearren. Eta orrek, ziur gauza bi oneitatik bat esan gura dauela, biak ez-ba dira: " edo kasko-arifñak garela " zati aundi baten beintzat, edo " ELBURUA " ez dala bardifia danontzat.

Eta emen benetan konturatu bear gara, GURE ERRIAK bizi ontan EUSKAL-SINISME-NA aurrera eroateko, beti !! elburu bi sakratu lez daukazela: bata " JAINKOA " eta bestea " LEGE-ZARRA ".

JAINKOA: azken baten BERAGANA joan bear dogulako, BEREN LEGEA, Ludi onek oñarrituta daukana, ondo edo oker beteta.

LEGE - ZARRA: Erri-zarra izateagaitik ondo baiño obeto ikasi dauelako, Iza-

di onek daukan LEGEAZ OÑARRITUTA joan bear dauela aurrera. Antziñan konturatu zalako, ERAK ezberdiñak izateaz-gain, amai-bakoak izan leikezana, beti !! sus-traiekin, Ludi onek daukan OÑARRIEKIN bideratuta izan bear diralako gure ekin-tza guztiak; beste guztia bide maldatsu-bat besterik ez dalako: burua, eskuak, anakak apurtu eta eriotzak egiten diran lekua baiño ez.

Euskaldunak gogaketa sakon-sakon bat egin bear dogu, danok batera ELBURUARI begitzeko, ekintzan alkarrekin joan gaitazan gure EUSKALERRI MAITE au ASKATU gura ba-dogu.

Albo baten itzi daiguzan besteen arrazoiak, guk gureakaz joan bear garelako, eta LEGEZ bete daiguzan gure ardura nagusiak.

" ASKATASUNA BEREZ AGERTUKO JAKU "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`AN AGORRILLA`REN 8`AN

Noz-bein oparitxo bat bear dogula-ta (alangoak dira batzuetan aitzakiak), Olazar`tar Martin`eri esan neutson, Nafarroa eta Errioxa aldetik ostera bat egin bear gendula. Martin`ek baietza emon ondoren eta bion erdian bide-mapak kokatuta: Tuteran, Kaskante, Fitero, Zerbera, Kornago, Biko`ko Santutegia, Arnedo eta or ingurutik dagozan erritxoak ikusi gure ebazala esan eban, eta Agorrilla`ren 28`an goizeko amar ta erdietarako ipini gendun ospatzeko ordua ta egun ori.

Tuteran geratu giñen leenengoz, oparitxo bat artzeko eta bide batez erria ikusteko. Erritik ibili giñanean, Eleiz nagusi edo Katedralagaitik itandu gendun, eta bertara eldu-giñanean, Lekaide`en edo Kolejiata Erromaniko-Gotiko bixi eder baten aurrean aurkitu genduzan. Oso polita bera kanpo aldetik, baiña barrua ikusteko ateak itxita egon ziran lez, ez gendun aukerarik euki.

Erritik ibili giñanean, etxe ta kale barriztuak bai barrizten ere asko ikusi genduan. Itzartzen dabizela esan leike ango mugi-aldiagaitik. Diru-arloan ere, konturatu gintzazan arro-arro bizi dirala, gure oparitxoaren ordaintza ostetik. Poztu giñen kaleetako izenetan Gudal-Nagusien eta Espaina`ko aipamenik ez egotea, eta bai benetan poztasuna Euskaraz berbetan entzun gendunean euren batzar-tokian nai ardotegia izan eta kalean ikurrin batzuk. Badago bai !, Tuteran zeozer irikitzen dabillena Euskal etorkizunerako.

Arratsaldeko ordu biak eta erdietan eldu giñan Fitero`ra eta " Bar restaurante Casa Blanca`n " bazkaldu gendun. An ibili zan 87 urteko gizon bat danak agurtzen, baten bategaz berba egin-gurean eta gure aldameneko mai baten jesarri zan; antza, bere ezagun bategaz. Euren maitik, nungoak garien itandu euskun; Martin`ek: bera abadea zala eta biok Bizkaitarrak garela esan ondoren, akaita artzen genbiltzala gure maira etorri ziran. Ez naz gogoratzen euren izenakaz, baiña 87 urtekoa Naparra eta espainolista zutsua zan, bestea, azpitik Euskaraz unetan egiten ebalako beren jakituria erakutsiz, ez gendun bera beartu gura eta alkar-izketa guztia leenengoarekin izan zan. Berak, gudaren bitartez berriz erabagi bear zala ostera ere gure arazoa, eta guk ezetz, mai inguruan txolkada urrupatuz arrazoirra joan bear gendula. Txolak, berak ordaindu ebazan, eta urten gendunean, agur-bero ta samur bategaz itzi genduzan alkarizketan, jate-etxearen aurreko aterpean. Itzi genduan bai !, zetaz berba egin.

Konago, Errioxa`ko erritxorantza joan giñanean, goi-aldean gaztelu bat ikusi gendun eta bertara joan giñan; an ibili zan artzain bateri galdetu geuntson gaztelu ura zer izan zan, eta Luna`tar Albaro`k egindakoa zala esan euskun. Ez dot usten egia danik, leenengo Nafar-Errioxa`ko lurrean dagoelako eta balekite



Gaztelarren aurka mugak zaintzeko eginda dala; beste aldetik, Luna`tar Albaro Aragoien jaio bazan ere, Gaztelar oso-osokua zalako.

Andik, ikuspegi aundia eta zabala dago, baiña ikusten dana eta Kalaorraraiño Errioxa`ko bidetik ikusi genduna ez zan izan gurentzat atsegia; guztiz errekarroko igaduran, basa-mortu bat lez dagoelako

An eta bidean Kalaorratik etxerantza etorri giñanean, gure alkar-izketaren itaun bakarrak ainbesteko alperkeria ikusiz: " Baiña zelan gureko dabe baldar auek euria egin dagian, zugaitz landarak ez ba-dabez landatzen, euren mingain egarritzuaz, Ludi onen lege bereziari ez badautsie eskatzen ur-geza euriaren bitartez jauzi daiten ?. Emen ikusten da, asko izan direla lur onetatik gauza asko artu dabezanak, lurrari ezertxo be ordaindu barik. Zer egiten dabe Nafarroa eta Errioxa`ko Aldundiak ?; auek izan ziran.

Egia da, Euskal Errioxa ta Nafar lurrak, Euskaldunen eskuetan egon bear direla, bereziak berezitasuna gorde eta zaindu egiten daualako; baiña arrotzak eta arrotzaren eritzikoak, mozkiñaz bakarrik arduratzen dira, badakielako egunen baten " ALDE " egin bear dabela, eta orregaitik ainbesteko lapurkeri.

Saiatu gaitezana ba, gure Nortasunaren ardurak berrezkuratzen, Euskalerrri zoragarri bat ikusteko, eta Europa`ko izar aundiena izanda, benetako bizi-ordez-kari eder bategaz gozatu daigun.

OR ! EUSKALDUNEN INDARRA ETA KEMENA EUSKADI ASKATZEKO.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`an AGORRILLA`ren 30`an

- BATZANGOA = GLOBALIZAZIOA -

---

AURKEZPENA:

- \* Arrastion, itzaldi onetara etorri zarien guztiori, eta on-egin daigula danori, onen mamitik ulertzen dogunak.
- \* Zergaitik BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA`ren gaia itzaldi onetan:
  - a) .- Oifarteko menperatasuna aurrera eroateko, zapalkuntzaren ERA barri-bat dalako.
  - b) .- Eta bere ulermenak garrantzi aundia daukalako, gure ardurak askatasunaren bidean sendoagotu daitezcan, gure EUSKALERRI maite au azpikeri guztietatik atara daigun.
  - d) .- Eta Olazar`tar Martin`ek, gure alkar-izketaren bitartez, gai onen ulermen azalpena nik bete bear nebala esan ebalako.
- \* Gai au, ziur nago, galdera askokoa dala, eta orregaitik gura neuke, azkenean, bear diran galderak egitea; beren ausnarretik, ulermenean daukaguzan illuntasunak argitzeko. Bai-ta, asken baten pozik urten daigun solas-itzaldi onetatik.
- \* Asi gaitazan-ba, gaurko BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA`ren itza nolako azalkuntzaz agertzen jakun adierazkizunean; nere ustez zeozer ostonduta daskarrelako, Erri-gizon/emakumea`ri betiko iruzurra egiñaz, batzuen onepeneke gogoakaz bete daiten.

SARRERA:

Gizon arroaren asmakizun-ekintza Ludi onetako edesti guztian, beti izan da jainko-lez gizartean agertzea. Nai berak edo euren ustez geien dakielako, eta bai indar geiagorekin tresnatu egiten diralako, arrotasunezko asmakizunak euren gogo-almenakaz beteteko.

Baiña bizi-gai onetan, danak jaioten gara NOR-BEREN ardurazko babesgoan, eta ardura orrek bakarrik, mugatzen dabez iñoren babeskeri asmo oiek.

Orregaitik gaur eta beti ainbeste zezio, ardurazko ekintzak beren lekura eroateko.

Eta ori, beti gertatu dana Mundu onetan da. Bereziduna sekula ez da joan erasoan, bai alderantziz beren sinismenari eta lurrari eutsi arrotz-menperatza-illearen zalekeriari; eta orregaz Ludi onen ikaragarritzko mapa bat egin leike ikusteko, nola Europa`ko sasi-jainko erregeak batez-be, eurak gura eban guztia menperatzaile arloan egin eben Erriak euren aginpean oinkatuta eukiteko, gero milla zatitan apurtu eta bertan itzita, gaur ezereen lotsa-barik esateko: jakintzaren arloan atzeratuta irugarren maillan geratu dirala. Ez dira geratuko ba...?, euren esku-artekoetari ainbeste lapurtza egin ez gero eta sinismenean ain naazpilduta itzi ez gero ?. Orrek kalteok ez dira konpontzen egun batean, ez gizaldi askotan ere, euren Nortasunezko berezitasunak apurtzen diralako eta menperatzaile eritsia an geratzen dalako, konponketako bideak oso saillak biur-tuz.

Begitu bestela gaur oraindifo Ipar-Ameriketako indiarrek euren erreserbetan edo gordetze lekuetan menperatuta. Ego-Ameriketan Espainol`ak eta Portugez`ak egin ebezan triskantzak berezitasunezko erri ezberdinetan, esku-arteko balio guztiekin eta sikologikoki. Indian, Afrikan, Asian...; danez gain, argi-argi ikusten dana dala, kolonizatutako erri guztiei: asko, larregi eta larritasun aundiakaz esango neuke nik, kosta egiten jakiela Nortasuna berriz berrezkuratzea, ain gizabide (civilizaciòn) aundiak ziranai, Indioak, Moruak, Inkak eta abar asko, euren bizitzarako jakiturizko oitura guztia zatitu eta nazpildu ebelako.

Euskalerria`ri ere bardin gertatzen jako, nai-ta gu eten bako borrokan ibi-li orain ere daukagun Nortasunaren izaera bizirik iraun dagian, bera desagertu ez-gero Euskalerraren eriotzea dalako.

Euskaltasuna Paris`en ingurutik Ebroraiño bakarrik ?. Gaztelarrak be Euskaldunak ziran, bestela zer ziran Berriak ?, Auñamendi guztia, bestela zer izan ziran Ilerdatarrak ? (Lerida), Espaina osoan dagozan Euskal izenak ?. Euskera-zaintzan ba-dago agiri bat, Bizente Latiegi eta Latxagak aurkitutakoa, nola Aragoi`en (izena berak esaten dau zer dan) 1.608`an San Martiñeko azokan debekatzan Euskeraz egitea. Kukula`ko Donemiliane ere or dago, Euskera`ren abia

izan zana. Burgos`en Iparraldea, Medina de Pomar, Villarkayo, Valle de Mena, Valpuesta, Valdegobia bakarrik ?.

Dana dala, leenengo erromatarrak, Godo`ak eta Maomatarrak, gero gure Napar erregeak egin eben Euskal Lurraldearen banakuntzaz Euskal Nortasuna galdu ebe-netik eta askenean erregeak Eleizagaz batera ekarri eben Latin menperatzaillea gaitik, Lurralde oiek naastuta geratu ziran, gaur gure Erria Adur`etik Ebrora`iño bakarrik geratuta, gaiñera erdibituta Espaina eta Frantzez`en joko zikin baten barruan, gu Espainol`ak eta Frantzezak gariela esan ez.

Argi ikusten da, BATZANGO edo GLOBALIZAZIO bat gure dabela BEREZITASUNA alboratuta. Zertarako ?. Len ostu eta apurtu dabena ez dabe ordaindu eremutako lurraldeak bertan itziñta alde eginda ibili diren toki guztietatik, orretarako ?. Mundu onen irudia euren eskuetan, Iletargiaren baiño irudi zuriagoagaz itziko leukie JAINKOA`ren LEGE`ak itziko ba-leuzkie, Mundu onetan Gizaki`ren berrizkuntza guztia: " NOR-BEREN ARDURAZKO BABESGOAN JAIOTEN GARALAKO " !! Orregaitik bertiko zezioa eta borroka: edo..." JAINKOA`ren LEGE`pean ardura guztiaz bizi ", edo " gizon-menperatzaillearen agindu-pean ". Nik ez daukat iñungo zalantzarik " JAINKOA DALAKO NIRE BURUZAGIA ETA ELBURUA ".

Asmakizun orren eritziko gizon/emakume eta taldeak asko dira gaur egunean, eta euren eskuetan daukiez gaurko jaurkintzak, espatak, gure buru gaiñetan ezarrita. Baiña Mundu onen gizon/emakume guztien ardurazko ulermenean argi geratu zan, Mundu`ko II`garren guda nagusien ostetik: giza ar/emearen eta Errien esku-bideakaz arduratu bear gintzala leenengo, Mundu onetako lege-ekintzaren lanean; bakea bein-batez ezarri daiten JAINKOA`ren LEGE babesean.

Euren ekintza oso gogorra ta indartsua da, aukera asko eukinda erak aldatzeko, gizartean babesaren egarriak sortu daitezcan, eurak sasi-jainkoaren buru izateko, eta danon gaiñean ezarrita: diruak, bereinkapenak, zigorrak eta parkamenak banatzeko.

Gaurko lotsagabeko ERA: xautzailletasunezko-gizartea da; Nortasunaren ardurak menperatu egiten dauazana. Eta berezitasunezko gizon/emakumearen babesgo ardurak baztartuz, euren gai-babesaren egarriak izartzen dabezanak, izugarritzko sorotasunaz, danak !! ezeren edo utsaren billa bideratuta.

JAINKOA`ren bidea berrezkuratu bear dogu nai-ta nai-ez, gure bizitzak zuzenezko zentzuakaz beteteko, eta gogoak bete daiguzan BERE LEGEAN, ez !! bakarrik bakez bizitzeko, bai iltzeko ere BERE ZORIONEAN.

Orregaitik ez dogu ontzat artu bear BATZANGO au, oiñarteko menpekotasuna aurrera eroateko, zapalkuntzaren ERA barri bat dalako.

Eta, arrazoibide ori eskaiñiko dautsuet, Ludi onen gizarteko edestiari laburpen-bat eginda.

## EDESTIA:

\* Europa, Afrika eta Asia`ren erdiak Erromatarren menperatuta euki ebazan, eriotzeko, bai etsaimendeko ta joputasunezko indarrakaz zapaldu edo oinkatuta.

\* Egoera negargarri ortatik urteteko, erlijiozko bide-barri baten bidez erabagia artu zan: Erri-gizon/emakume`en arteko lotsagizuna konpontzeko eta ainbesteko mokorkeri ta aberetasuna geratzeko.

Su aundi bat lez, laster zabaldu zan, barri-on ori ekarten ebalako; eta indar aundia artu eban, on-artua izan zalako. Orduan ere aituten eben: Esku-bideak " batzuenak bakarrik ez zirela izan bear, arrazoizko bidetik gura ba eben jokatu.

Geroago, Erromatarren menperatasuna amaitu zanean, eta erlijio barri orren barnean ainbeste eritxi ezberdin egoteagaitik, Konstantino aundiak 325`an leenengo Eleiz-Batzar Naguzirako deitu eban, eta andik aurrera, berak Sortaldeko Kaisergo agintea artuz, Eleiza Katolikuari eskubide asko emon eutsozan Mendebaleko agintean, Arriano`ak alboratuz edo gaitz-etsituta.

\* V`garren gizaldian, Godo`ak etorri ziran, eta aukerari eben menperasunezko indarra berriz Europako Mendebal ontara. Ortik aurrera berezitasuna menperatzeko beti egon dira zirikatzen.

Leobijildo`k, beren seme Rekaredo`ri esan eutson, Espaina`ren batasuna bere menpean gura ba-eban euki, Katolikotasuna besarkatu bear ebala.

587`an Arrianismoa utzi eta 589`an Espaina`ren leenengo errege katolikoagaz, berak deituta, III`garren Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusia bete izan zan, eta andik aurrera gaur arte dago Europa eta Mundu guztian berezitasunaren menperatasuna; Eleiza, leenengo eurakaz eta gero eurak menperatuta, beren Nortasunetik Kaiser-jaun eta erregetzari lar emon eutsielako, indarririk gabe geratu da. Batetik, menperatasun gogoetan indartu, eta bestetik, Moral, Oituran edo Etikan utzitu.

Ez da olan geratzen, kaisar-jaunak eta erregeak indarrez beteta, XVIII`garren gizaldian, berezitasunari aitzokada edo sastakada emon gure dautsoelako; eta ekitaldi ori 1.789`an asita Mundu`ko guda nagusiaz 1.945`an amaitzen da. Gauzak ararte egon ziran lekuan aginte-arloan itzi ziran, baiña erabagi aundi bat artu zan: andik aurrera, guda geiagorik ez zala egongo, eta Demokraziaren arrazoi indarragaz konpondu bear zirela, Erri-gizon/emakume bereziak eta berezitasun guztiak daukazan arazoak. Baiña oraindiño, nai-ta kaisar-jaun eta erregetza parlamentariozko mallara jetsi, diruak daukan indarra, euren eta euren eritxiko eskuetan dago, berezitasun guztia sasi-jaunko xautzailletasunera bideratu naian. Ez da oraindiño gizartean lenagoko aitor-semblearen menpekotasuna (sociedad valvasora) desagertu ez !!; ori dalako orain ere, nai-ta beste izen bategaz agertu, gaurko " GLOBALIZAZIOA "; naguzitasunezko arro-uzkeri oiek, ez diralako ezertxo be aldatu.

\* GAURKO JARRERA:

Gerla edo guda denborak gogorrak dira, eta orain arte gure Europa onetan ez dabe balio izan, menperatsunak sendotzeko baiño.

Baiña, geiago ezin dan leku batera eldu dira: alde batetik, gudarekin aurrera ekin ez-gero, Ludi onen gizadia eriotzeko galbidean kokatuta geratzen dalako. Beste aldetik, ulermeneko jakintza gero ta geiago dalako, menperatzaillearen gezurrak, gero ta garbiago, Mundu onek daukan LEGE BEREZIAREN aurka geratzen diralako.

Gaur, gauzak txarto egiten ba-Dira, bitzaren antzera, gaiñean argi-argi geratzen dira; eta menperatzaille egikera ez da sekula ere ona izan gure Mundu ta Errian oiñarteko edestian. Gizakiren eta Erri-bereziaren lotsagizunezko ardurak ezerezean geratzen dira, beste batzuen eskuetan geratzen diralako, eta denbora orrek beti !, joputasun eta etsaimendekoak dira zalantzarik gabe.

Orregaitik, menperatzailtasunaren ostean, gezurra ain agirian geratu eta iñoren uler-eziñera eldu diralako, orma baten aurka jota-lez geratzen dira, eta Gizon/Emakume Abertzaleen gaitik, " DEMOKRAZIA " euri-lez agertzen da. Denbora auek dira guk gozatu bear doguzanak, askatasun maillan arlo aundiagoak lortzeko eta poz aundiagoaz danon lanekin, LEGEAK berezitasunaren alde kokatzeko. JAINKOAK ipini dauzkuzan LEGE`en aldera doa au. AU DA-BA BEREZITASUNAREN AUKERA.

Baiña, euren ekintza aurrera gura dabe eroan, eta orretarako beste izen batetegaz gura gaitue iruzurtu: " BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOA`rekin ".

Ikertu daigun-ba lenengo, ipini daben BATZANGO ori gure baimenik gabe, zergaitik ezin dan on-artu. Eta orretarako bost arrazoi ipiniko doguz.

- a) .- Agertu jakun BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOA zer dan.
- b) .- Zer izan bear leuke BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOAK.
- d) .- Nortzuk izan bear dira BATZANGOA`ren arduradunak.
- e) .- Ludi onen gizadiak daukan Nortasuna.
- f) .- Euskalerrriaren NORTASUN-BIDETIK, zer esan gura dau BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOAK.

Asken baten, g) .- Ondorioagaz ziurtatzeko.

\* a) .- AGERTU JAKUN BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOA, ZER DA:

Edestian ikusi dogun lez, erdi-mende guztian gaurko denborak kontuan artuta, gizakiren ekintzarako asieratik ipini ziran leenengo gogamen onak, beren oituraren gaiñean Kristau moralala, bai beste erlijifioenak ere ipinita; Gaiak bear dabean aldakuntzatan, Etika`kin edo Morala`gaz orekan egon daitezcan, EGAZ egin dabela; Ludi onen gizadian ezberdintasun aundiak sortuz, gaur agertzen garan lez.

Ez da arritzekoa, kontuan eukiten ba-doguz: Erdi-aro orren denbora guztian, ia gaur arte, jakintzaren mailla aundira, gutxi baiño ez zirala eltzen. Eta gure bizitzan, arrotasunerako tentaldi edo zirikadak ain aundiak diran lez, gaur Munduan dagozan erakunde guztiak jokoza kanpo agertzea. Alde batetik erlijioak: gizadiaren jakintasuna, etorkizuneko oinkada bakoitzean goratzen doiena, gogoe-tan euki barik, eta euren ziñezkintzak dabiezelako, utzik geratu dira. Beste aldetik, Laterriko jaurkintzak: Erri-berezien Nortasunezko Berezitasunak kontuan euki gabe, aurrera gura dabe joan, askeneko 212 urtetik onantza (162 urte gure errian) egin daben antzera. Eta euren ekintza, ezeren LOTSA-BARIK aurrera eroaten dabelako, OR !! Mundu guztian agertzen diran borroka latzak, Gizadiaren eta Erri-Berezien Nortasunezko ardurak ez diralako kontuan artzen. " ARDURADU-NAK BA`GARA !!, ARDURAN ZEOZER EGITEKO JAIIO GARA, EZ ? ".

ORDUAN... , AGERTU JAKUN GAURKO BATZANGO A DO GLOBALIZAZIOA ZER DA ?.

Izugarrizko larderi (imposiciõn) bat.

Ludi onen asieratik, Erri-gizon/emakume`en etorkizunean eguneroko oinkada`-kin, aurrera doia geratu barik, eta geratu ezin leikena JAINKOA`ren AGINDU`az batera.

Bide ortatik, Mundu onen ezaguntza gero ta aundiagoa dalako, goi-maillako ikasketak eta berri-ekarleak esker. Bai txikerragoa ere, gizon/emakumeen arremantako argibideak ondoratuz, aalmenak ugaritu eta aberastu egiten diralako.

Erri bakoitzaren jakintzak, Erri guztien artean erakutsiaz, obeto alkar-uler-tzen asi garelako: Erri-ezberdiñeko jendarteetan, arremant sendoagoak lortzen ditugu; eta diru arloan, laguntza askoz geiagorekin, bearrezko diran egarriak asetu eta lurak eremutik berrezkuratu, iñorentzat sabel-zorriko goserik ez da-iten egon, lortzen dira.

Guzti-au, Mundu onek daukazan Erri-ezberdiñeko gizon/emakumearen berezko berezitasuna da, danok jaioten garan arduraren eskubideak diralako.

Eta..., guzti ori beartuta izan bear leuke?: EZ !!, IÑOR ez dalako NOR, beste baten ardurazko eskubideak eskuratzeko. Alderantsiz BAI !!, gure bearrezko antolamendu ekintzagaz aginduta, danon gaithean askatasunezko elburu-lez ipin-ten doguzan erakundeak, izan bear diralako arduradun bakarrak, danon artean on artuta, Erri guztiak bakean bizi gaithean.

Orduan..., BATZANGO au, zer edo zergaitik **da goian** esaten doten lez " IZUGARRIZKO LARDERI BAT ? ".

XVIII`garren gizalditik onantza, kaisar-errege eta eritzi bardiñeko inguru-an dabizenak, Mundu onen gizarte edo jendarteak, mailladuna gura dabelako izan gaithean, espataren indarragaz, Laterri Menperatzailleak beartuta ipini dabez, Erri-Berezien gaitetik.

Eta menperatasun orrek emoten dauan indarragaz, Erri-bat zuzentzeko bearrezkoak diran legearen itur buruak euren eskuetan dagoz, Erri orren baime-

nik gabe. Eta berezitasun-ori lapurtzen dauana, euren menperatzaille dan joko aurrerantza eroatekotan da, diruaren eta jaurkintzaren laguntzaz, aukera ezinbestekoa dalako. Orregaitik, diruaren iturria da leenengo lotzen dabena guda-loztearen keiñadurakin, euren eritzien alde egon daiten, Izadi onen berezitasuna zapalduta.

Orain arte olan izan da, baiña gaurko DEMOKRAZIA, 1.945`an ONU`ren bitartez erabagi zana eta 1.966`an Abendua`ren 16`an berriz onartu egin zanaren bitartez, Europako Laterri menperatzaillearen guzurra, ezin dabe aurrerantza eroan, Moral edo Etika arloan berregarrizkoa dalako, bitze lez, argi-argi, danak ikusi leiken lekuan, gaiñean geratzen dalako.

Orregaitik, euren eritzia aurrera eroateko Europa eta Ameriketako Laterriak alkartu dira, Mundu onen mendebaleko erri-jakintza aundiena daukienak, ta goimallako zibilizazioa esaten jakonari, Erri-berezien artean, ekintza demokratiko on-bat lortu orduko. Eta orregaitik ibili dira " PRESAKA " euren eskuetan dagozan diruaren iturriak, berezitasunezko diranai argibidearen aalmenak mugatzeko. " ORI DA !! GAURKO BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOA ".

Baiña barre egitekoa dana, Munduko II`garren gerla irabazteko, geiago egin ebana eta geiago alegindu zana 1.945`an eta 1.966`an ONU`ren babesean, berezitasunaren eskubideak zaintzeko, gaur bera izan daitela eta beren indarraren babesean, menperatzaillearen aterpea.

A ta guzti ere, bardin-bardin da, atzoko guzurra txikerragoa eta Laterrietan bananduta egon arren, gaur Munduaren-beste aundiagoa da, eta ostondu ezifiekoa, bai barregarrizkoa. Nik uste dot, denbora askorako ez dala izango, ABERTZALEAK EGIZKO EKINTZA BAT EGITEN BA-DOGU, erpea gogor-gogorra euki arren, eta pekatua alangoa dalako, LOTSA-AUNDIAZ izango dira.

" ANAI-ARREBOK, AU-DA BEREZITASUNAREN AUKERA EDERRENA, ASKATASUNA LORTZEKO ".

\* b) .- ZER IZAN BEAR LEUKE BATZANGO EDO GLOBALIZAZIOAK:

" Erri-gizon/emakume ezberdin arteko antolamendu edo erabagi on-bat. Aurre-ra begituta, Ludi onen gizakiak adi egon daitezcan, bear dabezan oinkada-onak emoteko, bear diran denboratan ", zalantzarik gabe.

Baiña zer gertatzen da...,Mundu onen gizartean agertu daiten ainbeste zezio edo matraka ?: INORK !!, edo " NORTASUNEZKO ITZAK bere esangura-mugatuan batzen dauan adiera lez...", ez dagoala beren lekuan kokatuta. Orregaitik ainbeste zurruburu (desuniðn), eziñ-egon (desasosiego) eta etsimendu (desesperaciðn).

\* Argitu daigun ba, begituaz, nola dagozan Mundu onen Lege-Erakundeak, beren jendartea bakez, bai bizitza bera zergaitik dan, eta gure ulermenean sortzen dituan egarriak asetuz, JAINKOA`ri begira lan egin dagian.



Orretarako begituko doguz:

- a) .- Gizaren bearrezko antolamenduak.
- b) .- Erriaren edo Laterriaren Jaurkintzak.
- d) .- Erlijioak.
- e) .- Gizaren artean ordezeko dirua.

Emen egiten doten zeazketa guztia edestiari buruz, Euskalerrriarena Europa barruan izango da oiñarri-lez, beste erri guztiena ere bardiña dalako. Menperatzailleak, danontzat gura dauan bizidura euren jator-zaletasunaz, jendarteko bizitza mailladuna izan daiten, oiñarriren gabekeri bakarria daukielako, Izadi onek daukan LEGEA`ren aurka.

a) .- GIZAKIREN BEARREZKO ANTOLAMENDUAK:

Aberetasunak ere, beren antolamendua dauka, gogorkerian bear bada, abere mota bakoitzeko izatasuna geroko bizian (supervivencia) iraun dagian landararen antzera, JAINKOA`ren LEGEA dalako gure babes-biziarentzat.

Baiña gu, aberen gorputza eukinez gain, beste gauza bat gara: arrazoiak emoten dauskun Nortasunezko ARIMAK gara, guztiok !, ardura bardiñekin jaioten garanak, JAINKOAK emondako Legeen aurrean.

Ortik aurrera asten dira danon arazo guztiak, gure ekintzak BERE Legearen adostasunean egon bear diralako; bestela..., gaurko-lez, aberetasun sutsuan agertzen garalako.

Arazo orreik gutxi ba-dira, bizitz-ibilkeran taldetu egin giñan, orduko ulermenean, nor-beren aalmenak geiago izango zirelakoan. Etorkizunerako kontuan euki barik, arrazoi orreik, nolako arazoak ekarriko ebazan aurrerantzean. Jakin ez, eta orduan ere ziur nago, goian esan doten arrazoi bakarria ez zala izango.

Dana dala, talde oien kidetasuna adostasunean, eta euren arteko bear-bearezko antolamendutik, sendi aundiak egin zirala, Nortasun arloa ugarituz: gizon/emakumeagaz asita ezkontzatik oiñarrizko sendia agertzen dana, Auzoarena, Lurraldearena eta guztion ABERRI-BEREZIAK sortzen diranean.

Banandu ziran talde guztien Nortasunezko zertzeladak, bardin-antzekoak dira danetan, nai-ta azalaren margoak ezberdiñak edo nabartasunezkoak izan, baiña oso ezberdiñak bakoitzaren zentzuzko ulermenean bizitzaren ekintzarako, artzen dabezan zertzeladak berezitasunezkoak diralako.

Erriaren Nortasunezko zertzelada berezi oneik, beren seme/alaben ordezkari-tzako bidetik lortzen dira, gizon/emakume eta erriari izaera bakarria emoten datu-soenak, euren arteko egin-bearrak ikasiz eta oituratuaz, Nortasun berezi bat emoten dautsielako.

Nor da !!. Noren eritziekin edo baimenarekin da..., ezberdintasun guzti orrekin, danak batera dirala, zorro baten barruan sartu gura gaituna ?. Olan balitz..., milla zatitan urten dagian ?. Ez dago Mundu-ontan indarrik, ori men-

peratasunaren bidez egin leikenik, berezitasun guztia alkartzen bada. Zorotasun handia bai alderantziz. Eta ori da azken baten, gaur dakarren " BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOA ".

Ikusi dogu ba, antolamendua bearrezkoa dala, eta nolako berezitasunak agertzen diran, nai-ta nai-ez JAINKOA`ren LEGE-BIDETIK. Euren giza-gai bidetik ostera, danak klonatuta zorro barruan sartzeko adi, menperatzail-asmakizunaren morroiketarako.

#### b) ERRIAREN EDO LATERRIAREN JAURKINTZAK:

Euskalerriak, millaka urtetik onantza daukaz Erri-Batzarrak elburu eder bat egaz JAINKOA ETA LEGE ZARRA ". Gaur lege orreik biztu-gura doguz, demokrazi osokoak diralako JAINKOA ELBURU izanda. LEGE ZARRAREN bitartez, Erriak ainbeste ikasita bizitzan zaarra dalako, eredu-lez Euskalerrri onek ikasi dagian, gure izaera gaur bizirik egoteko, indar guztia euren-gandik datorrela, beti ASKATASUNAREN amets-bizian bizitzari oratuta. Ortaz ez dago zalantzarik Europa ta Munduaren izar handia dala. Arro egoteko ba-da ere.

Baiña baleiteke, gaur Nor-Bera izatea ifloren babes-barik, Mundu onetan pekatu handia edo gaizpidekoa izatea. Benetako arduradunak izanda, balio gutxiko edo gizon/emakume babesekoak diranai (menperatzaille eritzikoak diranak), berez beti zirikatu egiten dautsielako, eraso edo albora bultz egiten dautsenen antzerara geratzen dira, euren arduratan neikoa ez diralako. Gizon/emakumeen berezitasuna galdu dabelako edo gal-bidean dagozelako, euren gogoetan ez dabe ontzat artzen, eta gaur gizartean egoera-larri ortan geiago diralako, bai gizarte erakundeetan, lan tokietan eta abar..., or !! ikaragarritzko arazoa eta lana Aber-tzaleentzat. Eleizak badauka bai ! or zer ikusi, gero ikusiko dan lez.

Gizon/emakume maillan, orren izaerara ez da berez eltzen, gizon/emakume bi-ziaren ez jakintasun aundira eldu garelako. Edozein gizartean, Nortasun-bako bizi-kikildu baten kokatzea edo ezartzeak, beti babes-billa, ez dauka ifungo zentzurik. Okertasun ori lortzeko, eraso-aldi aundi bat eta denboran luzea egon dalako baizik.

Gure Errian argi-argi ikusten dana da! Askatasunaren bidean erdizka gabiltzalako, erbestetik arrotz asko etorri diranean, nai-ta apur-apurka euri Nortasunezko bidea irakatsiz, bagoaz askatasunaren bidea zabaltzen; baiña uste dot alegiñeko maillan, goragoko mailla baten estutu bear doguzela alegin oiek. Aita Santik esaten eban: Euskalerrriak arerio asko daukazela; Olazar`tar Martin`ek: denbora luzekoa dala eraso-aldia; eta Latxaga`k (Jose M<sup>a</sup> San Sebastian): buru gogorrekoak dirala. Baiña ori berori egia izan da, Euskalerrriak Nortasunezko arduradunak asko daukazelako, Mundu onetan zeregin handia dauka, jakinda gaiñera, atzetik, beste erri berezi asko itzartzen asi dirala.

Arazo-aldi ori, antziñetik datorrena da, gure kaisar-erregetzak Euskal-Ber-

rezitasuna galdu ebenetik onantza; erri guztiak bardin sortuta. Andik 1.789`  
ra zirikitasauna bakarrik izan zan, berezitasunak bere lekua beti berrezkuratu-  
ta; baiña, menperatzaille zaleak, euren alde indarra eta dirua euki ebezan  
lez..., espataren indarragaz, gaurko jaurkintzak Laterri-lez daukaguz, errita-  
rren baimenik gabe. European, gaur dagozan Laterriak, BAT ! bera esanda-be,  
legezkoak ez dira.

#### d) ERLIJIOAK:

Giza seme/alabak Mundu onetan agertu gintzaretik dagoz, beldurrak eraginda.  
Orduko denboratan ainbeste su, estanda eta lur-ikaren bitartez; konturatu  
ziran, Mundu onen gaitetik zeozer edo JAINKO`ren bat egoala, eta " ORTZI "  
izendatu eben Euskaldunak.

Kristo aurretik denbora askoz geiagoan, konturatu ziran, gizakiaren ekintzak  
bir-lotu edo berriz lotu egin bear zirala zentzu baten egon daitezkan; baiña  
alegin aundiena, Kristautasuna sortu zaretik izan zan. Kristauak banatzen joan  
ziran, Konstantinok batu ebazanak 325`an Europa`ren Mendebaleko kaisar-menpera-  
tasunean, eurak buru izan da.

Afrika eta Sortalde erdikoakaz, oso ezberdiñak ziralako, euren gandik urrun-  
tzen joan ziran, eta 622`an Maoma`k Islam erlijioa sortu eban.

Erljio danak, nai-ta gogorapen on-batetik sortuak izan, ezberdintasuna go-  
gortzeko, danak !, menperakotasun zuri-atz (estigma) zikiñakin jaio ziran. A-ta  
guzti ere, ez da arritzekoa menperatasunezko zauri-atz orrekin erlijiozko lege-  
ak betetea, etsaimendeko denborak ziralako. Baiña arritzekoa dana: banandu  
ziranetik, bakotzaren jainkoa, bestearena baiño egiz-aundiagokoa dala esanez,  
ikaragarritzko borroken bitartez, gaur gagozan denboran bi-milla urte geroago,  
ulermeneko aldiak aundiagoak diranak eta orregaitik argitsuagoak ere, askatasu-  
na JAINKOA`ri begira askoz errezago bideratu leikena, menperatzailleko zuri-atz  
eta buru-gogortasun bardifñekin agertzea. Geiagorekin ez bada.

Orrek esan gura dauana: menperatzail gogo-oiek, babesen egarriak ugaritu  
egin eta gaur egun ere egiten dabezanak, erlijio guztietan ikutu barik dagozela.  
Beste aldetik, danak lotuta eukiteko dogma`ren arauz, arrokerian irakatsi eta  
abar en denborak, gaurko denboratik urrun dagozela, bide oso-oso galduta.

Orregaitik, Nizea`ko erabagiak ez dira aldatu eta Toledo`koak ere ez, Elei-  
za kaisar-erregetzaz batera datorrelako, eta orregaitik Eleizak ez dauka inda-  
rrik euren aurka Nortasunezko bidetik; adibidez: " Berezitasunak, eskubide  
osokoak dirala esateko; gaurko KLONAZIOZKO BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOARI " la-  
gunduz.

Eleizaren Nortasun-gabeko izatasun orrek, beste erlijioakaz batera, baleki-  
te eurak izatea errudunik andienak, irugarren gerla negargarri-ori sortu daiten.

Erliajioak danen arteko baimenekin jaio ziran, gure gaitetik JAINKO bat da-goala esateko, eta izadi onen giza-ekintzak BERE LEGE barruan eraginda egon be-ar diralako. Bestela ikaragarritzko naazketetan jaustena garelazkiurtatzeko, bai-ta oituran berriz-lotzeko berezitasunezko legeak agintzen dauan lez. Seku-la ez ! gizonen arro-uzkerirako.

Gaurko zalantza or dago. Izango dira, naiz-ta oituraz gain, Morala, Etika, edo EKANDURA bideratzeko ?. Ez dago onartzea, gerokoak konponduko dabela, guk ostera ere Mundu onetan berriz agertzerakoan, ori berori sekula ez dogulako ja-kingo, eta gure gaurko ardurak diralako.

Erliajioak egin bear dauana, jaiozan betiko arazoaren ardurarekin JAINKOAREN LEGEAN egon daitezcan zaindu, eta Mundu onetan erperatuta dagozan BEREN LEGEAZ BEREZITASUN guztiagaitik, ardurazko lotsagizun aundiekin " ESAN " LEGE osokoak dirala ekintza guztietarako; leenengo asmakuntzatik orretarako jaio ziralako, eta LEGE ori ez dalako aldatu, JAINKOAREN LEGEAK ez diran-lez aldatu.

#### e) GIZAKIEN ARTEAN " ORDEZKO DIRUA ":

Gizon/Emakume guztiak, ordezkartzaren arduraz jaioten gara, eta ori da eri-otzararte lotsagizun aundiaz eroan bear dogun kurutze aundia.

Orregaitik sortu gendun gure artean dirua, ordezkartzaren erreztasunerako.

Baiña danon artean dabillen-lez, gure ekintza-txar edo on-egitea badaroi-beragaz, diruaren izaeraz-gain, bere ibilkeran, gure txarto edo ondo egitea era-kusten daualako; leku batzuetan itoteko-lez dabizelako diru orren ugaritasunaz, eta beste leku batzuetan itoten, arnasea ezin dabelako artu, diruaren murrizta-sunaz.

Ba-dago esaera bat, ondo baiño obeto erakusten dauana, Errietan eta Munduan nola erabili bear dan dirua, leku batzuetan ez daiten lar pillatu eta beste ba-tzuetan ain gitxi egon ez daiten, jendartean ainbeste zoritxar ez daiten sortu: " Gure Errian eta Munduan diruaren ibilkeran, gure gorputzetan odola ibiltzen dan antzera izan bear leuke ". Gorputz ezberdin bi diralako bai !, baiña lege bardifiekkin ibili bear diralako. Errietan eta Munduan, gorputzaren antzeko ara-zo bardifiekkin sortzen diralako JAINKOA`ren LEGE`en bitartetik, odola aske eta os-topo barik ez bada ibiltzen.

Ez da makala azalpen ori, baiña nik esango neuke " DIRUA ": " Gizon/Emaku-me`en arteko ordezkartzaren Morala`n, Etika`n edo Ekandua`ren, DIRDIRA " dala. Gaur ain txarto dabillena NORBERKERIAREN bitartez.

Diruak ez dauka nortasunik, ordezkartzaren adierazpena dalako; eta esaera orrek esan gura dauana: gure jendarteko Morala nola dagoan gaurko egunean, be-ren atzetik ainbesteko arifieketarekin ibiltzeko. Eta ori, Munduko Laterriak ondo baiño obeto dakiena da, eurak goian egonda eta diruaren iturriak eskuetan daukezala, xautzailetasunera bideratzen gaituelako gaurko GLOBALIZAZIOAREKIN.

\* d) .- NORTZUK IZAN BEAR DIRA " BATZANGO EDO GLOBALIZAZIOAREN "ARDURADUNAK??:

Len b) arloan, " ZER IZAN BEAR LEUKEN GLOBALIZAZIOAK ", esan dogun lez: Erri-Gizon/Emakume ezberdin arteko antolamendu edo erabagi on-bat. Aurrera begituta, Ludi onen Gizon/emakumeak adi egon daitezcan, bear dabezan oinkada onak emoteko, bear diran denboratan ", Nortasunezko berezidunak zalantzarik gabe. Askatasun guztiaz eta beartasunezko ekintza barik, bearaldiko gogotasun orren erabagiak bete egin bear leukielako. Aldebatetik: danon egarriak asetzeko, erreztasun aundiagoak agertzen diralako; Nortasunak, Nortasunaren ardurak zaintzen dabezelako, eta berezitasun izaerak, ago zabalean eskatzen daualako. Bai jaiotasunaren lotsagizunezko arduratan, aundiena dalako. Beste aldetik: berezitasunaren Nortasunak ez ba-dira, NORTZUK !! zainduko dabez euren ardurak ?. Berezitasun gabekoak ?. JAINKOA`ren LEGEZ kanpo dabizenak euren aberriak sortzen, berezkoak menperatuta ?. Oiek arduratuko dira..., len egin eben lapurketak KOLONIZAZIOA`rekin..., Mundu onek daukazan Erri-berezi guztien esku-artekoak lapurtu, bertan itzi, eta ostera ere euren lurrak berrezkuratu daiezan, bizitzaren ardurak ondo beteaz eta JAINKOA`ren emon dauskuzan aalmenak bizitzeko berrezkuratu daiezan ?. Nik sarritan esan dot: " ALPERRAK ASKEAREN GAIÑEAN DAGOZELA ", eta orreik dira asken baten, sasi-jainko bideak zabaltzen dabizenak " POR LA GRACIA DE DIOS ".

Oien eritzikoak, bizi au aurrerantza beti beartuta eroango dabe, berezitasunaren arduratik kanpo dabizelako, " BATZANGO edo GLOBALIZAZIO auk espataren arrazoiak gure buru gaiñean ipinita ".

Ez dago zalantzarik, Berezitasunaren ardurak, Berezitasunak bete egin bear dituala, JAINKOA`ren LEGE-bidea berrezkuratzea gura ba-dogu.

\* e) .- LUDI ONEN GIZADIAK DAUKAN NORTASUNA:

Mundu onen jaiotasun guztia berezia da, JAINKOA`ren agindua dalako eta Iza-di onetan BERE LEGEA erperatuta ipini daualako.

Zergaitik?: gurentzat izkutuzko edo mixteriozko gauza beti izango dana da !. Mundu onetan beintzat. Baiña or !, daukagu BEREN LEGEA danontzat bardiña dana, eta badakigu beragandik kanpo, dan guztia ez-bearra dala, gaur sortzen jakun lez.

Danok jaioten gara ardura eta beldur bardiñekin, bai itxaropen bardiñakin ere. Baiña banandu gintzazan, eta oiñarri bardiñak eukinda, Erri bakotzean euren sendiak asi zituen JAINKOA`ren lotsagizunean, gauza bakotzari bere izena emonda, beren era bereziekin izkuntz berezi bat lortuta; ulermenean aalmenak ugarituaz bake aundiagorekin Mundu onen ardurak beteteko, eta asken baten JAINKOA`ren gana garbi joateko.

Eta au da oiñarrizko asmo-azterpen edo egitamu-saioa berezitasun guztiaz agertu jakuna. Orduan..., NOR da NOR Mundu onetan, beren jainko bakarraren

izenean, euren ardura bereziak, sinismen ta guzti zapaltzeko ?.

Orrek esan gura dauana, menperatzailtasunezko BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA` rekin, ez dirala arazoak konpontzen, alderantsiz, neurrian aundiagotu baiño ez, eta baleiteke ortaraiño eldu bearra dagoela ulertzen asteko; artean, JAINKOA` ren LEGEA`ri uko egin, gure lotsagizunari ezetza emonda, diñoguzan ardurak bete egiten gabizelako. Nola...?.

\* f) .- EUSKALERRIAREN NORTASUN BIDETIK, ZER ESAN GURA DAU BATZANGOAK, EDO GLOBALIZAZIOAK ?:

Euskalerrria`ren bizitza oso luzea izan bear da, beren izkuntza ainbesteko obekuntzaren maillara eltzeko.

Erri zabala eta aundia ere izan bear izan dau, ainbeste arazo aldetik, ora-in ere Euskal-lur ontan bizirik agertzeko.

Sekula erasoan ez da joan, eta orregaitik denboraz, bestien ainbesteko eraso aldetik, murriztuta, ain lur txikerrean geratu gara. Baiña..., Mundu zabalean beti !, on-artuak izan gara, berbearen sinismen aundi-koak Euskal-gizon/emakumeak garalako.

JAINKO zale, ardura guztiaz gara fede aundikoak, eta SABINO`k esaten eban lez: BIOTZ GARBIKO GIZON/EMAKUMEAK.

Nundik atara leike on-guzti orren zentzua ? : Nire ustez Euskara ber-beran dago on-guzti ori, berak batzen ditulako leenengo denboretatik gure berezitasu-naren izaerak gaur arte, eta aurrera begituta Euskal izaerararte.

Nola izan leike ori ? : Euskara berak oiñarritatik asita daukolako, Euskal-erriaren bizi-ekintzan on-jakintasun guztia, beren erainkintzarako (construcc-iõn arquitectõnica). Euskeraren adierazkizun garbia eta zeatza batzen daualako Erria`ren sinismenetik.

Eta ori, Euskaldunen artean ikusten dana da, adibide bi ipini-az: alde ba-tetik, Euskaldunen artean ba-gagoz alkar izketan zeaztasun baten gora-berak, ziur egon, egia dana, edo egi-lez ulertzen doguzanak, argi-argi geratuko dirala nai-ta bietatik baten batek on-artu ez; baiña alde bietako arrazoizko ulerme-nean, argi geratu dala bai !. Eta orretarako ez doguz bear alkar-izketan den-bora luzeak, Euskararen UNE edo zentzunak laster kokatzen gaitulako ulermen one-an. Beste aldetik: Erritik kanpo gabiltzanean, esan leike gure zentzunezko sokatik aske gabiltzala; sarritan, danoi gertatzen jakulako nigandik asita.

Bai Espainan edo Frantzian ere, esan leike " BULA " egoki bat daukagula orretarako.

Eta orren arrazoia erreza da ulertzea: gauzak ondo egiteko, alegindu bear zaralako arrazoizko edo zentzun-zeaztasuneko gogorapenekin, eta Euskararen ze-aztasunak, berak alegintzen edo beartzen zaitulako gauzak ondoen egiteko, nor-berak jakin barik nundik-nora datorren agindu ori.

Niretzat, orren arrazoi bakarra, nai-ta izkuntz-ikerlarien bearra izan,

erreza da ulertzeko adibide txiker bategaz: Gazteleraz, astearen egun izenak, ezer ere ez dabe esaten beren ezaguntzagaz, oitura ezberdiñeko jainkotatik artuta dagozelako izen oiek; gastelarrak galdera aundi bategaz buru gaiñean itxita: " LUNES ", astearen zentzuz ezertxo ere ez dauana esan gura.

Baiña Euskeraz " ASTE-LEENA`k " esangura zeatza dauka, eta astearen leenengo egunean kokatzen gaitu.

Euskera`ren Etxea ez da edozelan jausiko, sinismeneko etxe-gai onakaz egin da dagoelako.

Gaztelarena eta Frantzezena adibidez, erromatarrak ekarri eben latin menperatzailleagaitik, Godoren izkuntza, moruarena, eta ez gaitezaz astu Euskararekin. Naaztetasun aundia ikusten dan lez izkuntz orretan, erri sendo bat izateko, eta lotura gitxi daukazenak euren joandako denborarekin berezitasunezkoak izateko.

Orregaitik da euren eta gure artean, ain ezberdintasun aundia ulermenean, Erriak daukan eskubideakaz. Guk, gurea zaindu eta gogortu egin bear doguna biotz guztiaz, askatasuna lortzeko.

Mundu onetan, menperatzaille asko izan dira, erri ezberdiñak eta erritartean naastu egin dauzanak, euren legeakaz jarraitzeko, eta erriaren gaiñean espatak jarri, ez euren aginduak beteteko bakarrik, bai izkuntz-bereziak desagertu daitezaz, gurea, gaur ekintza orretan dagoana.

Ori da Mundu onetan betiko borroka, eta ori da berezitasunaren ardura nagusia askatasunaren bidean; JAINKOA`ren aurrean, BEREN aginduaren zeaztasunean agertzeko ZORIONA.

Euskalerriaren Nortasunezko bidetik, ezinezkoa da on-artzea BATZANGO edo GLOBALIZAZIO onen ekintza, menperatzaillea dalako.

Euskaldun Erria, berez askatasun osokoa da, beren UNE askatasunaren amets bizian, bizitzari ebatuta daualako, eta Iparagirre`gaz Gernikako Arbolakin Munduaren askatasuna gure daualako.

Askatasuna lortu egin bear da eguneroko ekintzagaz; Euskera`rena ere bai, ori dalako, eta or ! daukagulako altxorra lortzeko.

Ziur egon zaitie, BATZANGO edo GLOBALIZAZIO ori on-artzen ba-dogu....., Euskera eta beragaz Euskal-Askatasuna, bai beste erri guztiena ere, desagertuko dala.

BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA, EUROPAK daukazan erri-berezi guztiakaz egin bear dan gauza da. Erri bakoitzaren askatasuna lortzeko leenengo, eta benetako BAKEA danon artean. Eta ziur egon zaitie, Mundu onetan dagozan irugarren mailako Erriak, orduan, eta orduan bakarrik, euren egarriak asetzeko, benetako laguntza artuko dabela, BEREZITASUNA, ARDURADUNA DALAKO MUGA-BARIK.

Eta emen, askeneko baztar arloan.... .

\* g) .- ONDORIOA:

Lan onen sarreran, leenengo ikusi doguna BATZANGOA edo GLOBALIZAZIOA`ri buruz, edestiari laburpen bat eginda: menperatasun ori Erromatarrak ekarri ebela, Kristautasunak askatu gure ebana; baiña Eleiza indarrik gabe geratu zan lez, goi-maillako oiek, nola espataren indarrez 1.945`erarte iraun eben, DEMOKRAZIA`ren kutxa zabaldu zan arte, berezitasunaren eskubideak bere lekuan kokatzeko.

Dana dala, menperatasunezko asmo ori, ez dala oraingoa, antziñetik datorrela, jendartearen Nortasunezko ekintza mailladuna izan daiten; eta eurak esaten daberen lez: gizon/emakume odol-urdiñak daukien oberenetakoak gaitik bideratuta " POR LA GRACIA DE DIOS " .

\* GAURKO JARRERAREN ARLOAN: Gerla guztiak, menperatasuna sendotzeko izan dira; baiña gaur, Mundu onek dakienagaz, euren guzurra zelan bitzaren antzera gain-gaiñean geratzen dan, danon ikus-lekuan; bai ere, indar guzti onen ostean eta Abertzaltasunari esker, DEMOKRAZIA euri lez agertzen dala.

Azkenean, gaurko BATZANGOA ikertzeko, erazko asterketa bat egin bear izan dogu, nolako asmorekin datorren ekintza ori jakiteko.

\* a) .- Baztar arloan: AGERTU JAKUN BATZANGOA ZER DAN JAKITEKO..., leenengo ikusi dogu, Kristautasunak Oituraren gaiñean ipini ebazala Morala edo Etika, egaz egin ebala, Ludi onen jendartearen ezberdintasun aundiak sortuz, orduan, jakintzara gutxi baiña ez ziralako eltzen; eta sasi-jainkotasunerako ain tentaldi aundiak eukin da, nola gaurko erakundeak joko kanpo agertzen diran: betiko berezitasuna eta gaurko jakintza, aundia dana, gogorapenean ez daualako aukiten.

Bai BATZANGO au, izugarritzko larderi bat dala, Erria`ren eta gizon/emakumearen Nortasunak ez daualako ontzat artzen, eta eurak beartuta, euren eskuetan ardurak guztiak eskuratuaz.

Baiña argi ikusi doguna: berezitasunaren aukerazko denborak dirala auek askatasuna lortzeko, arrazoizko lan on-batekin.

\* b) .- Baztarrean: ZER IZAN BEAR LEUKE " BATZANGOA EDO GLOBALIZAZIOAK " .

Emen ikusi doguna: " Erri-gizon/emakume ezberdin arteko antolamendu edo erabagi on-bat. Aurrera begituta, Ludi onen gizakiak adi egon daitezcan, bear dabezan oinkada onak emoteko, bear diran denboratan. Eta berau ziurtatzeko, erazko asterketa bat egin dautsagu itan oneri: a) Gizakiaren bearrezko antolamenduak; b) Erria`ren edo Latèrria`ren jaurkintzak; d) Erlijioak eta e) bastar arloan: Gizakiren artean ordezeko diruan ", bananduta.

\* d) .- " Nortzuk izan bear diran BATZANGO edo GLOBALIZAZIOA`ren arduradunak: Nortasunezko Erri-bereziak izan bear dirala ikusi dogu, Beresitasunaren



ardurak, Nortasunezko Bereziak bete bear dituelako.

\* e) .- Arloan, LUDI ONEN GIZADIAK DAUKAN NORTASUNA; eta emen: jaio egiten diran guztien Nortasuna eta ardura ikusi dogu, gero Erri-berezietan batuta. Erri-baten seme/alaben Nortasun bereziak, azkenean Erriak batzen dabezelako beren berezitasunean.

\* f) .- Azkeneko bastar-arloan, EUSKALERRIAREN NORTASUN BIDETIK, ZER ESAN GURA DAUAN BATZANGO EDO GLOBALIZAZIO ONEK: eta emen ikusi doguna: Euskalerriak ta ifungo Erri-Bereziak, ezin dauala BATZANGO au ontzat artu, Frankok egite eban lez, goitik beera eginda dagoalako Erri-Bereziak kontuan euki gabe. Erri Bereziak alkartuta izan bear diralako Mundu onetan BATZANGO egilleak, benetako arduradunak obeto bete egiten dabezelako euren egin-bearrak, NORKERI GUZTIAK ALBORATUTA.

\* Eta amaitzeko, emen daukagu lan eder bat, Olazar`tar Martin`ek emon eustana eta nik ondorio onetan sartzen dotena, nire lana argiago geratzen dalako alde batetik, eta bestetik, ziurtasunean sendoagotu egiten daualako.

- ERRIEN BATZANGOA EDO GLOBALIZAZIOA -  
=====

Munduan diran kulturai edo jakintza-motai begiratzen ba`dautsegu, laster ikusiko dogu jokera bizi-bizi bat: Batzangora edo globalizaziñora jokerea.

Errien sorreran beti izaten dira leiñuak. Erriak klan edo sendien alkartzetik sortzen dira. Sendiak ezin dau bere egitekoa bete beste sendi batzukaz batzan izan ezik. Auzoa sortzen da. Auzoak ezin dabe lortu euren elburua bakar-tadean, erria sortzen da. Erriak ezin dabe lortu euren elburua banaka, eskualdea sortzen da. Eta erriak kultura bat, erlejiño bat, izkuntza bat, lan-era bat, ekonomi bat daukanean, or agertzen da aberria. Eta aberriak nai izan ez-kero laterria sortzen dabe, erromatarrak euki eben antzeko aginterria.

Ona emen adibide batzuk:

Arabeak, Mahoma`ren aurretik, leiñuetan bizi ziran eta Mahoma`ren irakatsiak alkartu ebazan, laterri aundia izan arte.

Isrraeldarrak, Jakob`en amabi semeen ondorengo lez, amabi leiñutan bizi ziran eta ez ziran erri bat izatera eldu Dabid erregearen aldira arte. Eta gero be leiñuak euren indarra euken.

Erromatarrak etorri baiño lenago Iberia erdi-ugartera begiratzen ba`dogu, leiñuak aurkituko doguz: Ilerdatarrak, arebakoak, lusitanoak, zeltal, iberoak ... Ez ziran eldu batzan bizi izatera, erromatarrak dana zapuztu ebelako.

Gure Euskalerrian be Kristo`ren aurreko idazleak esan euskuen lez, baskoiak, barduloak, karistioak eta autrigoiak bizi ziran, beroiak be urrean.

Batzan edo globalizaziñoan bizi izateko gogo onek bare alderdi onak daukaz, batez be alkar-laguntza, baiña baita beronen alderdi txarrak be. Batzan jokatzera sartzen danak beti bere nortasunaren zati bat galtzen dau. Orren aurka jokatu bear da beti. Nortasuna ez da galdu bear, guztiak alkartuta bakotxak berea zaindu baiño.

Gauza ederra da batzango Europa bat, baiña aberri bakoitxaren nortasuna, jakintza, ekonomia, izkuntza eta abar galdu barik, onei indar barria emoten jakela.

España`k ori egin ba`eban, gaur Euskalerrria España izango zan bear ba`da, baiña españatarren jokoa leku guztietan izan da naguzikeria. Ameriketan ziran jakintza guztiak zapuztuten alegindu ziran eta beti jokatu dabe gure aberriari bere nortasuna kendu eta España`ren batzango globalizaziñoa sartzera. ori ez da benetako globalizaziñoa edo batzangoa.

Munduko erri guztiak, zelan edo alan, ONU`n batzea nai da. Asmo ederra !. Baiña orretarako Munduko aberrien nortasuna kontuan artu bear da.

. . .

Ona emen errien arteko batzangoa edo globalizaziñoa lortzeko ezarri bear diran gitxiengo baldintza batzuk:

- 1ª .- Aberriaren nortasuna zaindu.
- 2n .- Batzangoa gogoz sortu eta ez goitik bera ezarri.
- 3n .- Batzango ori apurtzeko eskubidea ez galdu.
- 4n .- Aberri guztiak dakazen balioak onartu. Munduko kultura alkartzeko aberri guztietako jakintzak, izkuntzak, folklorea ta abar indartu bear dira.
- 5n .- Ondasunak bazkide guztien artean zuzen banandu.

. . .

Ona emen batzango edo globalizaziño onek ekarri dauzan edo leikiguzan ondoren baragarri batzuk:

Ameriketan langin zur bateri bururatu jakon beizaiñen edo bakeroak deritxen prakak zabaltzea eta ona emen mundu guztian guztiok praka bardiñak eukitearen jokerea. Barregarria benetan, baiña asmatzaille arentzat irabazbide izugarria. Batzangoa guztiok bardin jaztea ete da ?.

Eta beizaiñen edo bakeroen jazkera bardintsua barregarria ba`da, txandalak alde batera itzita, begiratu daigun zelako praka baragarriak ikusten diran, mundu guztian bardiñak, alde guztietatik boltzaz beterik, lar nasaiegi, dana dari-ola dagozela dirudi. Baiña or dago batzangoa edo globalizaziñoa ?. Or ez dago nortasunik.

. . .

Españatarrak, buru jabetza edo autonomia eskatu gendunean, erabagi baragarrri bat artu eben, euren izkeraz " cafe con leche para todos ". Buru jabetzak guztientzat baiña bardiñak. Zelan ba ! Errialdeak bardiñak ez ba`dira ?. Zelan ori, batzuk iñoz eskatu be egin ez ba`dabe olako ezer ?.

Eta gaur be orrantza joten dau Aznar`en burubideak. Onek guztientzat beizaiñen edo bakeroen prakak nai dauz, guztientzat bardiñak. Nortasuna ?. Ori España`ren eskubidea da, ez lurraldeena. Iñoz ez dabe ikasi eta, antza dagopanez, ikasiko be ez.

" ANAI-ARREBOK, AU-DA EUSKALERRIAREN AUKERA EDERRENA, ASKATASUNA LORTZEKO ".

Eta au da, nik esan-bear izan doten guztia " BATZANGO edo GLOBALIZAZIÑOAREN buruz.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`ean URRIA`ren 11`an

Legun baten DEIA`n irakurri neban, Azaroa`ren 9`an, idaz-lan eta alkar-iz-keta eder bien batez, nola ospatzen dan Gorbeia`ko Gurutzea`ren jaso zanetik 100 urte betetea 1.901`an Azaro`an 12`tik - 2.001`an Azaroa`ren 12`rarte.

Postu nintzan benetan, Bizkaitarrak eta Araba`rrak ainbesteko maitasunean daukagulako Gurutz eder ori alde batetik, eta nire gaztetako oroipenetik ainbeste gauza eder gogoratzen dodazelako bestetik.

Araba eta Bizkaiko mendi aundiena izanez gain (1.482 m.), badauka bai erri-tarren artean askatasunezko biozkada ederra, beren ikur-irudiagaz.

Gure gaztetako denboratik ointzurarte, nai ardotebietan, baskal berezietan edo edozein ospakizunetan, abesti asko abestuten gendun sentipen edo samur-ara-ziz, biotza guztiz zimurtuta askatasunaren itxaropenekin batzuetan, eta alai ta osasuntsu, bai irri ta farra ere bestetan. Oroitzapen orretan, sekula ere esan utsunik egongo Aranburu`tar Luis`ek atara eban abesti ederrarentzat " EN EL MON-TE GORBEA ", askoz beranduago Euskera`ra itzuli zana eta andik aurrera Euskeraz poz aundiaz abestuten genduna.

Gorbeira ainbat bider joan naz, aitagaz, lagunakaz eta bai ere nire emaste-arekin.

Bide asko dagoz Gorbeira joateko gure aldetik: Murgia, Murua, Barazar, Zea-nuri, areatza ta Orozko`tik. Niri geien egokitu jatena Areatza`koa izan da be-ti, nai-ta danetik joan Murua`koa izan ezik.

Oso ederrak dira mendi inguruak eta ederragoa Gorbei mendia, beren izuga-rrizko ikuspegiak, eta ondo baiño obeto ikusten dan gure askenetako guda-tokia Franko`ren aurka: Gorbeia, Sabigain eta Intxortak.

Lagun aundi bat euki neban, Onaindia eta Baseta`tar Santiago Aita, arro-arro esaten ebana: " Bera, irurogeita amabost bider igon zala Gorbeia`ren Gurutze-raiño ".

Argi dago, Gorbeia`ko mendiaren ikur-irudia, gure biotzetan gauza aundi-bat dala. Baiña, ez nago batera zuekin, Ferreira`tar Nagore eta Gartzia ta Uribe`tar Iñaki, esaten dozuenean, Iñaki`k: " zuk lan egiten asi-arte ifork ez ebala Kurutzea ikertu "; eta zuk Nagore: " oraintsurarte ez dogula jakin gauza aun-dirik Gorbeia`ko Gurutzea`ren inguruan ". Erriak badakielako nun aurkitu leike-zan zeaztasun oiek, Erriko gauzak Errian bertan dagozelako.

Beste gauza bat da: gure izaeraren aurka egiten dauskuezan menperatasunezko indarrarekin, gauza asko egiteko daukaguzela oraindik, bestela begitu nola dau-kagun Euskera bera, eta nolako indarrak egin bear izan diran, gaur daukagun apu-rra lortzeko, eta zenbat indarrezko alegiñak egin bear doguzan oraindiño gure

Nortasunezko Euskal-gorputz izaerari emoten dautson berezitasuna osatzeko.

Gauza onek, txikitatik ikastolan ikasi bear diran gauzak dira, Bizkai`tarrak eta Araba`rrak batez be, eta ziur egon zaitie, irakasle baten batek batuko dabezala zeaztasun oiek ikasleai irakasteko.

Egia da beste aldetik, gure Errian alperkeri galanta dagoala oraindiño, asko diralako lorez-lore dabizenak ezer egin barik.

Euskal bizitza, zuen antzera, gauza txikerrakin betetan dalako erlearen lana eginda, lorez-lore mozkiña batuta eta Euskal-Etxeko abian kokatuta Euskal-Ezti ederra agertu dagian.

Nagore-Iñaki, esker-milla zuen talde eta zuei, benetan arduratzen zarielako etxeko gaixotasunagaitik, eta bide batez zirikatu inguruan dabizen anai/arreben gogoak bizkortu daitezcan, danon alegiñaz askatu daiten gure Euskalerrri maite au.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`ean AZARO`aren 20`an

Asko keskatzen nau gure Etxe Nagusiaren larri-aldi onen egoerak; arritu egiten nabe, ez dodazelako ulertzen: " nola egon leikez etxe bateko semeak ain urrun euren etxeke sinismenagandik ".

Keskatu, arritu eta etsaipeneko larri alditan sartzen nauana da. Geiago, lengo egun baten lez, entzun nebanean abertzale aundia dan aotik eta urteetan ondo sartuta dauan emakume bateri, galdetu daustanean: " ia, nik sinisten baneban gure Euskalerrri maite onek, berriz askatasunik ikusiko ete eban ". Nire erantzuna, arrituta egon arren bera gandik galdera ori entzuteagaz, baiezkorra, zalantzarik gabe izan zan, eta askenean: " JAINKOA`gaz eta BEREN LEGEA`rekin ziurtasun eta sinismen aundia daukalako, naiz-ta gaurko naazpiltasunak beste gauza bat erakutsi ", esanda.

Euskalerrria oso zaarra da sinismen-bakoa izateko, eta gure arbasoengandik ondo baiño obeto jantzita izaeraren sinismenean eta emondako arrazoi aundiakaz " EUSKAL-ETXE NAGUSIEN bidetik JAINKOA`ri begira izan bear dirala, gure bizitzaren nai-ta naiezko ordezkari ekintzak bideratuta ". Ardura aundiena bera izanda: " NORTASUNIK GABE EZ DAUALAKO ARRAZOIAREN EDO ARIMAREN ARLOAN IÑUNGO BIZITZARIK ".

Baiña orretarako une baten geratu bear gara lenengo, oldozpen edo gogorapen oiek zuzentzeko. Begitu gure arteko naazpiltasuna eta zoramena bakeratzeko bigarren, eta zentzu onean Etxe Txikerratik asita, EUSKALERRIA edo danon dan ETXE-NAGUSIA askatu daigun.

Indar aundiak daukaguz aurka, xautzailetasun au batez be, baiña beste alde batetik ikusita eta gure ezbai edo zalantzak eraginda, erbestetasunetik gauza asko artzen doguzalako, gure izaeragaz zer-ikusirik ez daukienak eta gutxiago, gure arbasogandik oiturazko zentzuakaz jantzitakoarekin. Galdera bat agertzen da emen: " gure EUSKALERRIAN zer dira ESKOMALDEKO eta ESKERRALDEKO itzak ?.

Itaun oneri erantzuteko, edestian begiratu daigun labor-laburrean jakiteko: nola naazpiltzen gaitun burutasun edo gogamen orrek leenengo, eta zelan gure Errian ez daukagun ifungo zentzurik, gaur gogamen orrekaz jokatzeko gure ardurazko arrazoietan, bigarren.

Nundik nora dator ESKUMALDEKO itz ori ? : Mundu onen kaizar-jauntza edo erregetza, eta batez be Europa onetan, euren Izaeraren Nortasuna galtzen asi zirrannetik XI`garren gizalditik onantza, eta jakin barik lenengoetan nora edo nungo lekura elduko ziran arrotasunezko bide ortatik, sasi-jainkotasunean agertzen dira XVI`garren gizaldean. XVIII`garrenean aitzokada edo sastakada emon gura dautso gizartearen eta Errien Nortasunak kontuan euki gabe, gizadia malladuna

izan daiten, eurak edo erregetza ori goi mallako trangoan ezarrita sasi-jainko lez: euren ustean bereinkapenak, diruak, zigorrak eta parkamenak morroitasunari banatzeko.

Espataren bitartez eta beren keiñadurakin, Europa guztian gaur, berezitasunean nortasun-gabeko jaurkintzak daukaguz eta batez be Euskalerrian, batzuen Nortasun gabeko eritsiagaitik naazte baten sartuta gure nai-ez, eta urten bear dogun lekutik len bait-len.

Jaurkintza orretan, sasi-jainko eritsiaren oiek eta eritsi bardifeko eleiztar apaizen indarra be aleginduta: erlijioaren sinismenetik " AITAREN ESKUMALDEAN EZARRITA " eurentzat atara dabe, eta orregaitik jaurkintzan eskumaldean ezartzen dira; " orregaitik esaten dautsie eskomaldekoak dirala ". Gaur, gordetzaillearen itzagaz lotuta gure dabe agertu, baiña ez dauka zer ikusirik, eskomaldeko itz ori menperatzaillearen izaeraz lotuta daualako.

Orregaitik gure Erriaren gaur, ez dauka zentzurik eskomaldekoak garala batabesteari esateak: abertzaletasuna menperatzailetasunagaz, Nortasuna Nortasun gabekoakaz, berezitasuna berezitasun-gabekoakaz naaztuten gabiltzalako. Gure Erriaren Nortasunean: gordetzaillearen edo euslariaren ertxikoak izatekotan aldebatetik, eta alderdi-gabeko kementasunagaz edo azkartasunagaz besterik berba egin geunke, argitasun geiago egon daiten gure artean, eta ori izan bear dalako asken baten gure alegiñearen itxura, danok zentzu baten agertzeko, eta danok batera ELBURU LEZ EUSKADI ASKATZEKO.

EUSKO ALDERDI JELTZALEA eskuindarra dala esan gura dau ?. Orren gogamena olan dala gogoratzen dauanak, ez dauka nun dauan burutasunik, ez Euskaldun izatea zer dan be. Orko gogamenetik urten bear dogu len bait-len, lupetzartetik argitara irteteko.

Eta ESKERTIAREN itzak zer esan gura dau ? : eskerraldean ezarrita egon zirenak bakarrik ?. ARANA eta GOIRI`tar SABINO Bizkaiko Aldundian leenengoz aurki lekua lortu ebenean, ez ziran eskomaldekoak menperatzaillearen eritxikoak bakarrik, zortzi taldek osotuten eben Aldundiaren jaurkintza, karlista eta fueristatik asita danak ziran Espainol menperatzaillearen aritxikoak.

Zergaitik ? : sasi-jainko kaizargo eta erregetza XIX`garren gizaldian gogortasun guztiaz, diru gutxigaz gura eben langilleai ordaintzea, sendiak eta bizitzeko diran gauzak kontuan euki gabe. Erantzun baten ordez SINDIKATU edo langilleen elkarteak sortu ziran Inghlaterra`tik asita langillearen babes-ekintzarako; eta Laterri menperatzaillearen aurka izan zan lez, Berezitasunaren Nortasuna edo Erriak kontuan euki barik, orren maillan izkatu ziran. Langilleak ez eben ulertu, menperatzailetasuna ez zala etorten lan-tokiko jaun edo ugazabagandik Laterrien jaurkintzatik baiño, eta bigarren erantzunagaz, okerraldi berean SOZIALISMUA sortu zan, bereala, goiko mailla aundiagoko batera igon-da, " ERRI-ARTEKO SOZIALISMUA " ain zuzen, betiko okerra aundiagotuz; Erri berezien

eskubideak zapalduta egon zirenak kontuan euki gabe. Gaur ortxe dagoz sozialistak jakin barik nundik nora dabizen, eta ez dira gai atzera begiratuaz okerrak zuzentzeko; orregaitik dagoz gaur erotasun guztiagaz euren eta danon etsai aundienagaz besarkatuta. Ez dira konturatzen arazo guztia kaizargoaren eta erregetzaren arrokeriagaz ipinitako Laterri menperatzaillaren bidetik dirala. Eta aituko dabe..., DEMOKRAZIA, bakotzari berea emonda osotzen dala ?. Nungo edo zeren Nortasunari ordea ?.

Eta bai SOZIALISMOAK ta bai KOMUNISMOAK menperatzaile eritxikoak zirela, berezitasunaren aurka edo JAINKOA`ren bidea alboratuta ziurtatzeko, adibide bat ipiniko dot, ERRUSIA gai lez artuta Estaliñen denboratan: Stalin, ERRUSIA`ko Laterrien agintzarekin 1.927`ko XV`garren batzarrean jabetu zanean, 1.928-1.929 erreboluzioan edo iraultetan, goitik-bera egiteko erabagia artu eben, eta zori txarrez, orrek esan gura dauana " DENBORAN GUTXIAN " da.

Kulak deritxon nekazarietatik asi zan, nekazari aberatzen ordezeko esangura eroaten ebelako izan orregaz, nekazariaren jakintzan ere aberatsenak ziralako.

Orrek, Staliñen gogoetan esan gura eban, euren lurretatik eta etxeetatik atara bear ebazala, nekazari lagunarte aundiak lortzeko, eta Siberia`ra bialdu debekatzaille edo lapurren antzera. Gero elkarte orretan bizi ziranak, langille arrotzen antzera biurtu ebazan, ezeren eskubide barik. 120.000.000 nekazari beartuta geratu ziran egitamu onen bitartez, 240.000 lagunarteko lan-etxe`etan Laterria`ren agindupean.

1.929-1.930`eko egitamuan, Ukranian bakarrik 33.000 sendi atara ebazan euren etxeetatik, 200.000 arima gutxi gora-bera, asko eta asko Siberia`ko bidean il zirenak.

Ez noa luzetzen Staliñen denborako azalpen au, baiña zeaztasun bi emongo dautzuedaz: 14.500.000 il zirela 1.928-1.934`rarte gosez eta otzez. Eta Ukranian bakarrik 5.000.000; Ukraina`ko gizarte guztiaren laurena.

Staliñek berak esan eutson Churchill`eri urte batzuk geroago: " egitamu ori, nazi`ren aurkakoa baiño gogorragoa izan zala eta gizartearen ordaiña euren bizi-tzakaz 10.000.000`en ilkatakoko kopurua izan zala.

Izkuntzakaz ere, bardin-bardin egin eben Kaizar`en denboratik asita, ERRUSIA`ren izkeldi dirala esanez.

Dana dala, ERRUSIA`ren Nortasun aundia lortzeko, nundik batu bear ebazan Nortasunak ?: inguruan egon ziran Erri ezberdiñen Nortasunetik eurak Nortasunik gabe itxita nai-ta nai-ez.

Ori da Sozialismua ?: ori, eskumaldekoen antzera Menperatzaile osoa izatea da !, eta ERRUSIA errudenezko aria`ren astarnatik tiratu ezgero, kaizargo edo erregetzarena baiño askoz aundiagoa eta galtzaileagoa da.

Orduan zer esan gura dau " EZKERTAR " itzak ?: Eskumatarren antzera menperatzailea dala zalantzarik gabe. Eta orregaitik ikusten doguz gaur, gurentzako artean diran aurkari nagusienak " ESKUMALDEA eta ESKERRALDEA " besarkatuta,



Menperatzailetasunarekin alkartzen diralako.

Eskumatarrak eta Eskertiarrek BIAK !!, BEREZITASUNEZKO NORTASUNAREN aurka doaz JAINKOA`ren LEGE`ak alboratuz. Eta ekintza ori Guztiok ! dakigu ondamen-dia eta etsipena dala, ERRUSIA`ri gertatu jakon antzera; edestiak, okerreko bideak artzen diranean, ordaiñak, zigor-gordintasunik aundienetan irakasten da-uskuzalako. Eta biak, BETI !! ezin dan geiago lekura eltzen diralako. Gaur Mundu guztian argi geratzen dan lez, Ameriketatik asita, guzurra gaiñean argi-argi geratzen danean.

Ortik agertzen da argi eta garbi, bear-bearrezkoa dala, arauaren azpiegitu-rak JAINKOA`ren LEGEA`kaz moldatuta egon bear direla ( PARA LA ORDENACIÒN DEL DERECHO-DEBER = POSITIVACIÒN DE LAS LEYES NATURALES ); Izadi onen legeak aske-nerarte betikoak diralako.

Gure Euskalerrri maite onek, ez dau merezi bere seme/alabak alangoko amets-okerretan ibilterik gutxik baiño jakin barik; eta gutxiago gure artean borro-kari. Geiago jakin bear dogu arerioari aurka egiteko; eta egarri ori, Euskal-Errotatik zurrupatuaz asetzen da. Sekula ez !! arrotasunetik.

Edertu agertu eban politikako eskoia eta ezkerra zer diran, gero, lenengo Lendakaria izango zan Jose Antonio Agirre`k, Madrid`eko korteetan Maurak egin-dako itzaldi bateri erantzuteko. lenengo, giroa agertuko dogu eta gero bere berbak, baiña ez itzez itz, apur bat laburtuta baiño.

" Ni Eusko Alderdi Jeltzalekoa naz eta gure esaldi nagusia " JAUNGOIKOA ta LEGE ZARRA " da. Eskoi eta ezker berba baragarri onein artean, guk bide argia daukagu: GIZABIDEKO KATOLIKUTASUNA.

-Eskoikoa izatea demokraziaren aurka egotea ba`da

GU EZKERREKOAK GARA.

-Eskoikoa izatea indar zapaltzalleen alde egotea ba`da

GU EZKERREKOAK GARA.

-Eskoikoa izatea ba`da erlijioa ta politikea bat egitea

GU EZKERREKOAK GARA.

-Eskoikoa izatea ba`da eleiz eta erri-agintaritzak bakoitza beren lekuan ez egotea

GU EZKERREKOAK GARA.

-Eskoia izatea ba`da gizarte-arazoetan atzerakoiak izatea

GU EZKERREKOAK GARA.

-Eskoia izatea ba`da langilleen aurrerapena galeraztea

GU EZKERREKOAK GARA.

-Eskoikoa izatea ba`da gaurko aginpidedunak alboratzea

GU EZKERREKOAK GARA.

-Eskoikoa izatea ba`da ekonomian zuek zoazen lekura be ez eltzea  
GU EZKERREKOAK GARA

BAIÑA

-Ezkerrekoa izatea ba`da familiaren eskubideak kentzea  
GU ESKOIKOAK GARA.

-Ezkerrekoa izatea ba`da eleizak erretea, eleizaren aurka jokatzea  
GU ESKOIKOAK GARA.

" ASKATASUNA LORTU GURA DOGU DAUKAGUN INDAR GUZTIAZ; BAIÑA ORI, ZENTZUNEZ-  
KO LANAREKIN LORTZEN DA ".

" GURE ARTEKO EKIMENAK, ERRI BAT BEZALA IZAN BEAR DIRALA, ESAN GURA DAU  
GUZTI ONEK ".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.001`an ABENDUA`ren 14`an

## LAGUNEN ARTEKO ALKAR-IZKETA

Gaur ere arritu naz Zornotzako gizon bategaz, euki doten alkarizketaren bitartez. Bera Bilbon bizi da eta Zornotzan sarri egoten da beren etxeko gauzen gora-beran.

Nire lagunaren adiskide eta auzoa da, abertzalea dala ere esaten dau eta Eusko Alderdi Jeltzalea`ren bazkide badala esaten dau; " gure alderdia baiño oberik ez daualako Mundu osoan, berak daukan zentzunezko moralak eta jatortasunagaitik ".

Baiña artean, Espainola ba-dala esaten eustan, eta gure alkarrizketa ez neban luzatu gurako ortik aurrera, jakin ez ba-neban beren gurasoak abertzale jatorrak zirala, langille onak eta beronei be senidetasunaren maitasuna ain sakon bere sentikieran sartuta dautsoela.

Len esan doten lez bera Bilbon bizi da ezkondu. Alaba bi daukiez ikasketa nagusiak eginda eta bat osagillea dana, bestea esan eban zer zan baiña ez naz gogoratzen. Dana dala, baleiteke berak Ingelesa Gaztelera baiño obeto jakitea, Euskera ere badaki, baiña ez dabe barbarik egiten, eta or dauka arazoa. Europa guztitik ere asko ibili da bere lana egiteko. Ikusten dogunez, goi-maillako jakintza da sendi orretan dagoana. Orregaitik aztertu bear dogu, zergaitik ain oiñarri onak eukinda, agertzen dan bigarren Nortasun ori gogamen orretan.

Orretarako iru egi-irudiagaz aztertuko ditugu beren adieraztasuna, gitxi gora-beran jakiteko, gure erriko seme/alaben gogoetan nola sartzen diran gezi-pozoitsu oiek:

1` go.- Sendiaren eredia.

2` gn.- Bizi dan ingurua.

3` gn.- Nor beraren Erri-jakintza edestitik zear.

Lenengo etxeko eredia obeagorik ezin izan, len aitatu dodan lez, gurasoak fededun eta abertzale zintzoak ziralak.

Etxe nagusian edo Errian ere, ondo baiño obeto senitasun artean bizi ziranak guda aurretik eta osteko denboratan. Ume izan zala guda aurretik ikastolara joaten zan ikasketak euskaraz lantzeko, eta guda ostetik, benetako erriaren miña beren Askatasunagaitik.

Bigarrena, ikasketa nagusiak amaitu ebazanean, Bilboko banketxe batera sartu zan lan egitera eta andik Madril`ko banketxe batera: erbesterako merkataritzaren nagusi urte askotan.

Gure alkar-izketan: Euskalerrriak gaur baiño askatasun andiagorik ez dauala sekula eukin; Berezitasunaren Abertzaletasuna eskakizuna dala beti; eta arrituta dagoela bera dauan zaindardararekin, bizitzarako ainbeste ontasun eukin da Espaina barruan, iñundik iñora ez dagoalako irten biderik ortik aurrera, esaten eustan.

Euskalerrriko edestitik ikututen ibili nintzan, merkataritzaren arloan batez-be, eta amen argi ikusten neban, gure Erriko merkataritzaren eginkizunetan lortutako elburuak, Espainolaren izenpean biurtzen ebazala. Gaur, PP`koek esaten dabe ber-bera.

Gure solaseko alkar-izketaren une batzuetan, berotu eta ia asarratu egiten zan, baiña nik oiñarriaren azalpenakaz erantzuten neutson, eta ikusten neban urduritasun aundiagoan sartzen zala, minduta lez; geiago beren burua jakintsu len emoten ebalako.

Gure alkar-izketa ezin amaitu, eta gu biok baskaltzera joan bear genuela esan neutson. Berak gu-biokin egon gurako ebala, Zornotzara sarri etortzen dalako. Guk baietz esan ondoren banandu gintzazan.

Baiña emen galdera aundi bat, ez dalako lenengoa aidean geratzen da: "gogamen ori, diruz ondo jantzita dagozelako izango da?":

Olan balitz ez zan ainbeste asarratuko, eta erreza garbitasun on bat egitea, beren sendia gurasoakaz batera gogoratu ez gero.

"Madril`goakaz eta erbestetik denbora luzean ibili dalako?":

Ori ere laster menperatuko geunke, gure Erriaren alegin onak azaldu ez gero.

"Espaina-menperatzaillaren arauen artean denbora luzean ibili dalako?":

Ori izan leike, Guzurraz apur bat zikinduta urtetea, denbora luzean lupetzartean ibili dalako. Baiña ori ere garbitzen erreza edesti apur bategaz igurdi ez gero.

Dana dala, niri urduritu egiten jatena, lenengoa ez dala nik olan dagozenak ezagutzen doazelako, eta jakin Erri-jakintzaren mailla ortan erdi-purdika dagozenak, euren Berezitasunaren Nortasuna oztu edo galdu egin dabazelako bizitzaren ekintzatik zear.

ORREGAZ APUR BAT GEIAGO ARDURATU BEAR GEUNKE  
TRESNERI ONA DAUKAGULAKO, ETA EUSKAL-GORPUTZAREN  
OSASUNA BEAR DOGULAKO.

Argi-gorri onen ditzira da idaz-lan onen arrazoia edo eragillea .

ATUTXA` tar PAUL

ZORNOTZAN 2.002` an OTSAILLA` ren 12` an

Latxaga`k, Euskerazaintza`ren batzar baten: 36`ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteagaitik zeozer egin bear gendula, bestela aiztuta geratuko dirala ainbeste zor dautsegunak esan eban.

Batez be Euskalerrriak beti jakin bear dau bere seme/alabak beragaitik len zer egin eben eta gaur zelan dabizen, bai nolako alegiñak egiten dabezan Erri guztien artean Euskalerrria izar aundi bat lez agertu daiten.

Eta orretarako jakin bear dogu nortzuk ziran, zelako lana egin eben eta zelan alegindu ziran euren " LUR AMARI " " EUSKADI MAITIA`ri " ezkeintzeko euki ebezan gorputz gazte eta ederretatik azkeneko odol tantaraarte, euren bizitzak iraun dagian JANGOIKOAK naikoa dala esan arte !.

Lanak banandu ziranean, nire ardurapean geratu ziranak Sabino Arana kultur-elkartea ta, Santxo Jakintsua`ren iraspenak Elorrio ta ingurutako errriak, Elgeta azkenerako itxita, ikerlari lana izan ziran.

Elgeta`ra joateko, Latxaga`k esanda, Peña`tar Lorentzo`ri laguntza eskatu neutson, eta onek eguna ta ordua ipinteko esan eustan.

Ni aurretik joan nintzan Elgetako alkar-ikustea osotzeko, eta alan batu giñan, ezkerretik asita argazki onetan agiri garenak:



1ª.- Peña eta Etxebarria` tar Lorentzo.

2ª.- Elgoro ta Arrizabalaga` tar Mª Angeles (Udaletxeko idazkaria ).

3ª.- Telleria eta Lamarain` tar Antoni (13 urtegaz laidotua izan zana).

4ª.- Garai eta Aranzeta` tar Bitor (izkillatua izan zan Joxe Bizente` ren semia, eta oroi-arria` ren egillea).

5ª.- Iturrikastillo eta Azkazibar` tar Antonio (izkillatua izan zan Iturrikastillo eta Aranzabal` tar Jorje abadea` ren illoba).

6ª.- Atutxa` tar Paul (argazkilaria).

Ikerkuntzaren lanak amaituta, Lorentzo` ri esan neutson, danak entzun dagien: " liburuen amaieran ostera be etorriko giñala , eta euren " ia egia izaten dan " erantzunagaz agurtu giñan.

Gaur, 2.002` an Loraila` ren 21` an goizeko 11` etan, gure arteko gogoetan berbea sinismen aundikoa dalako, danak ostera be batu gara Elgetan, liburuak Udal liburutegian eta euren artean banatzeko.

Ostera be joan gara oroi-arri aundia dauan lekura argazkiak atarateko, baiña oraingoan liburuakaz.



Argazki onetan Mª Anjeles ez da agetzen, lanpetuta egon zalako, eta betiko lez ni, argazkari` ren lanak egin dodazelako.

Danak poztu giñan, eta ostean Antoniok, beste oroi-arri bat ikusi bear gendula esan eban, eta ara joan giñan.

Ikusiaz batera eta DEIA` n zeozer irakurri nebalako, gogoratu jatan: " Ez da izango Beldarrain Komandanteak ipinitako oroi-arria ez ?.

- Bai !, bera da, esan eban Antonio`k.



Antonio`k: ikusten dozuen lez....., apurtuta dago. Guk barriztu egin gura dogu, baiña gaiñean dagozan idatziak ez dira ulertzen eta guk ez dakigu ziur zer ipinten eban. Bekoak bai, eta erderaz idatzita dagoz gaiñera: " aqui se detuvo al invasor " eta gertakizunaren eguna. Ba goikoa ziur dala berori Euskaraz idatzita, guztiak ulertu dagien.

Argazki pare bat atara gendun oroi-arriaren egoera baragarri orregaz baten batek edo arduradunak diranai jakin dagien berrezkuratzeko, bertan gertatutako eginkizunak alan eskatzen daualako, eta ez aaztu: " Euskalerria`ren askatasunagaitik bertan il ziran Euskal semeak gogoratzeko ! ".

Beste oroi-arribat be ikustera eroan ginduezan Antonio`k eta Bitor`ek, au Aranzeta eta Egizabal`tar Xabier`en oroimenekoa izan zan.

Badago bai !, euskalerrian zegaz gogoratu eta arduratu Euskalerria`ren bizitza gazteai berrezkuratzeko bizi-bizi beti egon daitezkan, eta ardura orregaz apur bat geiago maitatu daigun.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.002`an LORAILLA`ren 21`an



Bidai ona eta ezkertzekoa BIZKAI'KO ALDUNDIA'K beste erriak ezagutzeko emoten dautsen aukera ta laguntza gure antzera adiñekoak diranai.

1'go ezeren bereizte barik eginda dagozelako eta 2'gn gizartearen ezbardintasunari aukera aundi bat emoten dautsoelako nortasun arloan obeto konpondu gaitезan lotsagizun aundiaz danon izaeraren ardurak zainduta, ostera orretan ondo baiño obeto ikusten dana.

Bidai onen izaera Lourdes'en osabeagandik ezagutu gendun, baita zelan egin bear gendun eskaerea.

Dana dala, non agertu zan gure izen-abizenak sarituak izan dirala, bidai ori txangolari edo ikusketari egiteko, itsasoaren goi-mallako neurrian baiño beragoan dagozan erriai, Olanda batez be, bere lurak zati aundi baten beintzat itsasoaren neurritik 4' m. beragoan dagozalako.

Orrela, Loraila'ren 9'an goizeko zortzi ta erdietan Donostikoa zan berebil-bus batera igon gendun Paris'era joateko.


Berebil-bus orren gidaria Euskalduna izan zan, Jon bere izena eta gidari ona, jatorra eta txantxetarako zaletasun aundikoa.

Gure taldearen gidari-zuzentzaille Juan izan zan Balentziarra bera eta ondo baiño obeto jakin eban zelan jokatu bear eban gulako talde baten.

Egun oneik adiskidetasunean iraun dagien, talde ortan norberak jakin ez arren arroak, jakintsuak, aurkari, susmurtsu (rumorosos), espatsu (celosos), ixterbegi (envidiosos), griñagabe (indiferente) suar edo arduratsu agertu arren.

Bidai onetan, nor-bera edo bikoteak beti alegintzen gara edo dira inguruko errikoakaz eta olan alkartu giñen Martinez`tar Karlos eta beren emazte Ruiz`tar Agelines, Santurtzikook direnak; Angulo`tar Maria Isabel eta beren senarra Mari-Juan`tar Klemente, Deuston bizi diranak; Longarte`tar Lander

eta beren emazte Fernandez`tar Marina be Deustokoak; eta Barroeta`tar Lourdes ta ni "argazkilaria" Zornotzakoak.



*Olanda'n ibilaldiak onelako'ak dira:*

- *Erri zarrak eta barriak ikusi*
- *Adiskide barriak egin*
- *Atsedena ta poza*

Elkarte polita egin gendun danak benetakoak agertu giñelako alde batetik eta iñungo zalantza gabekoak bestetik, beste guztiak be, or inguru baten agertuaz.

Bilbo`tik Paris`era oso bide luzea da berebil-bus baten egiteko, baiña Juan en azalpenagaitik, ordu-birik ordu-bira geratu bear izatea, eta gure artean ezagun barriak izateagaitik, bidai ori ondo baiño obeto eroateko gauza da.

Bazkaldu Burdeos`en egin gendun eta apaldu Paris`en. Goizeko gosaria artu gendun eta Brujas`era joan giñen, lenago " Bryggia " deitu zana; erri-txiki eta batua da, beren erdi-aroan edo erdi-

mendeetan oso izkutuzko erria izan bear zana, eta merkataritzaren portu-ospetsua zana. Oso polita da.

ze Bazkaldu bertan egin gendun eta DANTE`ra joan giñan.

me Ango gauza politenak ikusi eta BRUSELAS`era zuzendu genuen bidea.



*Argentina'tik etorritako "GEARLE" ta emaztea izan genduzan bide lagun*

Emen, goizeko gosaria artu eta erria ikustera joan giñanean, Juan gidariari esan neutson: beren azalpenak " kaizar-jaunak eta errege ziran gizon/emakumeak aundiak ziran lez agertzen ebazala, iñoz plater bat apurtu bakoak izan ba-ziran lez ". Bai ondare politak eta ederrak guretzat itzi dabezala " esaten dozu.

Beren erantzuna: " oneik gauzak diralako politenak geratzen jakuzanen artean ez ba ? ".

- Baiña azalpen oneik beste gauza batzuk ere eskatzen dabez !: nun ostutako diruagaz eginda dagozan, erritarren arteko egoaldiak nolakoak ziran eta abar asko.

- Eta ori ?.

- Edestiaren azalpen argitsua, erri-gizaren edesti zeatza izan bear leukelako, bestela erdi-aroan beti egongo gara kokatuta

txarto egiñeko gauzak ez ba-dira azaltzen. Errege ta morroitasunaren bizitza agertu daiten, eta batez be jakiteko zelako zorigaiztotan bizi ziran erritarrak. Edesti orregaz menperatzaille kaizar-jaunak onak ziralakoan azalpen zabalkuntza egiten dozulako, orduko globalizazioak onartuaz, eta gaurko batzangoa edo globalizazioa naazte baten sartu ona dalakoan menperatzaille zikin bat danean.

- Juan izildu zan eta erantzun barik geratu gintzazan.

- Egia esanda, alkar-izketa onen itaun ta erantzunak itz bigaz amaitu ziran, berak ondo baiño obeto ulertu ebalako, nik esan neutsonen: azalpen oneik " gizabidezko edestian " izan bear zirala gaztelu onein edertasunak azalduta. Orregaitik berak ez eban itaun geiago egin eta nik zirikatu be ez.

- Baiña ortik aurrera, gure artean edo EUSKADIN bizi garan en artean politikako gora-berak diran lez gure gogoaren leenengo gauzak ardurazko gogapenetan, banaka banaka asi iatezan ondora etortzen eta leenen sozialismoan sartuta dagoan bat. Gizon onek ulertze eban gizon/emakumeen bai-ta sendiaren nortasuna, baiña ez eban ulertzen aberrien nortasunak nundik agertzen ziran, berezitasun-gabeko jaurkintza-menperatzailleak ontzat artzen ebazalako, eta batez be Espainola. Azkenean lortu neban berak aitutea nortasuna berezia dala gogai (concepto) guztietan eta aberriak oituragaz eta izkuntzagaz batzangotu egiten dirala, ez batek edo talde baten esanagaitik , gutxiago indarragaz galazota.

Basauri`ko andra-gizon eskonduak be urbildu jatazan, oneik ondo ulertzen eben Euskalerrriaren arazoa, baiña izkuntzaren arloa ikutu gendunean, andra onek esperantoagaz esan eban eta or euki nebazan berarekin gora-berak aituazo arte: asieratik etorkizunean millaka urtetik onantza egiten dan izkuntza dala ederrena eta orregaitik bere izaeran jakituri geien ta garbia daukona dala Euskeragandik asita, emakume/gizonen buruak argi

eta ankak zentzun aundiz eta ondo kokatuta lur gaiñean eukiteko.

RH`gaitik be itandu neutson eta beren erantzuna: Arzallus`en gauzak dira orreik . Orduan esan neutson, ia Arzallus`ek odol mota ori eukinda bere babesean joango bazan jakinda, berea danontzat balio dauana eta berentzako odol mota ori baiño ez balio dauana, ain gitxi egonda gaiñera. Asi nintzan azaltzen antropologikako ikerketatik datozela jakituri oneik eta Hitler`en antzeko menperatzaillak ibiltzen dabezala bakarrik itz orreik elburu zikin onekaz, gaur Espainol menperatzaillak dabizenen antzera, egia naastuteko.

Ez zan bera bakarrik, gure maian iñork ez ebalako jakin zergaitik zan Euskaldunen babes ori.

Bruselas`en egun guztia bete gendun, bazkal ostean Lobaina goi maillan-ikasteko erria ikustera.

Belgika atzean itzita Holandara sartu giñan, Rotterdam-Delf-Bolendam eta La Haya ikusteko. Bolendam`en kokatu giñan, andik Amsterdam`era joateko. An, lasaitasun aundiz ibili giñan erri guztia ikusten, errekatatik be ibili gintzazan ontzi eder batean eta bai " Barrio Rojo " deritxon kaleetatik be.

Goizeko gosaria Bolendam`en eginda Marken eta Haarlem`era joan giñan gero ostera be apaltzen eta lo egiten Bolendam`era joateko.

Holanda`ko Bolendam`etik ostera Belgika`ko Amberes`era joan giñan. An Gotzai-Eleiz nagusia eta erria ikusi eta bazkaldu egin gendun, arrastian Paris`era joateko. Eta bertan, arratzaldeko azken orduetan urten gendun Paris argitsua ikustera.

Etxera itzultzeko eguna eldu jakun, eta goizetik jagita bai gosaria artuta be Paris`tik urten gendun goizeko zortzirak ziranean Poitiers`en bazkaltzeko, baiña Juan`eri gogoratu jakon denbora euki geunkala eta Loira`ko gaztelu ederrak ikustera eroan ginduzan.

Bidai zoragarria izan da eta ondo baiño obeto danon arteko giza-bidea beteta. Argazki asko leku guztietan artu genduzan etxean gogoratzeko. Eta janariakin geien Bolendam`eko apariak, mota askoko barazkiakaz eta ondo apainduak be izan ziralako, nai gazta asko erabilli, ondo dakie gauza ona zer dan janariak gertutzeko. Beste janari guztien artean, ni oilasko eta lur-sagar edo patata prejituakaz gogoratuko naz denbora luzean.

Beste gauza bategaz be konturatu nintzan: Espainolak zelan egiten daben euren edakunde edo zabalkundea ezagunak izan daitezcan, nai-ta eurak ondo baiño obeto jakin. Euren gauzak liburututa eta ondo apainduta argazkiakaz Gazteleraz salgai ipintzen dabezelako.

Euskalerrriak ezin leike olango gauza edo antzeko bat egin, guri itaun egiten dauzkunean " nungoak garan ", Euskaldunak garala erantzun egiterakoan jakin dagian nortzuk garan ?.

Oarpen asko artu nebazan zoragarritzko bidai onetan, eta argi ikusi dotena, zabalkuntzan lan geiago egin bear dogula Europako erritarrak zalantza barik jakin dagien, Euskalerrria Europako erri zaarrena izatez gain bizi-bizirik dagoela orain be.

Gure Nortasuna beteten daben zertzeladen jakiñak, edo zertzelada oneik zergaitik direzan olan, Euskal gorpuan jakin arloan be, ikusi dogu ez dirala osasun aundikoak, eta orrek esan gura dauana, gure ardurazko alegiñak, beste goi-maillako zillo baten estutu bear doguzala: " GURE EUSKALERRI MAITI ONEN ASKATASUNA LORTU GURA BA-DOGU ".

ATUTXA` TAR PAUL

ZORNOTZAN 2.002`an LORAILLA`ren 21`an

## - IZKUNTZA ETA GIZARTEA -

Gizon/emakumeak, arrokeriak menperatuta geratzen asi ziranetik, bizitzako leengo denboretan utzetik asita, egiten asi ziran gaur daukien altxorra arrazoizko esku-arteko tresneri guztia, eta arlo bakotxak euki bear dauan berezitasuna edo nortasuna, galtzen dabe gizon/emakumearen naaztutasunezkoen neurrian. Eta berau ziurtatzeko begitu daigun gizon/emakumeak daukien tresnarik ederrena euren bizitzarako " IZKUNTZA ".

IZKUNTZA: gizarteak daukan balio aundienetako tresnea izkuntza da, eta bera da gizarteak indarrik aundienagaz babestuten dauana, aldeerantziz izkuntzak eurak babesten dabelako, arrazoiak neurrizkoak izan daitezcan Ludi onen lur gaiñean.

Baiña gizartearen izkuntza, oso gogai edo gogamen zabala da, orregaitik beren leiñu neurrira eroan bear dogu.

Leenengo denboratatik banandu gintzazan, baiña a ta guzti be erriak egin ziran eta onek be naikoa ez ziran lez euren babeserako eskualdetik aberriak sortu ziran, ekonomi bat, erlejiño bat, izkuntza bat, lan-era bat eta oitura bat gizarte orren sinismenetik lortu ebelako.

Baliteke, giza semea leenengoetatik artoa izateagaitik, gizartearen kalte guztien iturria bera izatea, arrotasunezko bizitza lortzeko, inguruan dagozenak menperatuta egon bear diralako.

Eta orrek esan nai dauana, arro orren edo erri-arro orren bizitzan ibili dan ezberdinezko lekuetatik artu dabezan berezitasunak ezberdiñak dirala: izkuntzan itz esberdiñak izendatu debezelako; erlijiñoan be bai; tokiaren berezitasunagaitik beren berezitasuna; orregaitik oituraren berezitasunak ezberdiñak dira aberri artean, eta arrotasunaren

menpean dagozan lez, euren aberriaren erritartean menperatasuna lortuta, beste erri batzuen menperatasuna gure dabela; adibidez: erromatarrek Europa menperatzen asi orduko, Europaren sarkaldeko edo mendebaleko erdi guztia Euskalduna izan zan, orregaitik geratzen dira euskerazko itzak erreka, mendi, eta errietan, lur guztian (cromagñon).

Erromatarren latiñagaz erritarrak aituteko, naaztetasunezko izkuntz ergel bat sortu zan, iñungo neurririk ez daukana eta zeozer geiago egingo eben ostean agertu ziran leiñu germano-indoeuropearrak ere, azkenean godoak ugazaba lez geratuta; baiña or daukie zaldar aundi bat gizaldi askotan ezin izan dabena menperatu, orregaitik geratzen da Euskerea akats orreik neurrian sartzeko eta gizartearen bizitza zuzentasunera eroateko, okerrak zuzendu gura ba dira, gure egikerak bakez eta JAINKOA`ren ardurapean iraun dagien.

Baten batek esan dau..... " UNA IMAGEN VALE POR MIL PALABRAS ? ".

Zergaitik esango dabe ori...?.

Daukien izkuntzak ez daualako mugatzen gauzeari emongura jakon ezaugarria ezagunak izan daitezcan...?.

Or !! non agertzen dan menperatzailearen okerrezko ekintza, " ESTOCADA " itz-erroz ez daualako esaten ezertxo be, eta Gaztelarrak orregaitik joan bear dabe irudia begitzera jakiteko zer dan. Baiña " AIZTOKADA " esaten badautsagu ez dogu bear irudirik, gure buruetan, itzak iruditu egiten daualako AIZTOKADA`ren " ezaugarria.

Bardin sortzen da astearteko egunakaz: " LUNES ", nungo irudira joan bear zara ikusten jakiteko astearen leenengo egunagaitik gaudela berbetan ?. Baiña " ASTELEENA " esaten badogu, badakigu astearen leenengo eguna gaitik gagozela berbetan iñungo irudirik ikusi bear barik.



Menendez Pidal`eri 1962 edo 63`an eguerdi baten irratitik entzun neutson, Gaztelera`ri 1.971 Euskerazko itz sartu bear jakozala Gaztelera oiñarritzeko.

Orrek esan gura dauana, menperatzailetasunezko indarrakaz beartzen dana, oker geiagoan sartzen dala. Kalte aundiena giza`ren ARIMETAN eginda, arbasoengandik datorren jakitasuna gure erreztasunerako naaztu egiten dalako, gauzak gero ta okerrago egiñaz, gaur sortzen dan lez.

Berezitasunera joan bear dogu Nortasunak zendotzeko zeaztasunean, eta orretarako ez da bear " ESPERANTO`rik " giroa geiago okertu daiten, ostera be atzean daukaguzan astarnari begitu baiño gure barriak zuzentzeko. OR EUSKARA !! BEAR DIRAN ZUZENKETAK EGITEKO.

Orregaitik EUSKALDUNOK ez lorik artu Munduan dagoan gauza ederrenetariko aundi bat ez daiten galdu. Beste errientzako argitasunaren bidea ez daiten emendatu edo itzaldu, JAINKOA`ren bideak berreskuratzea gura ba dogu.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.002`an BAGILLA`ren 3`an

## -EUSKARA`ren IXILEKO ESKUTAPENA -

Euskeraren eskutapena Askatasunean esarrita dago iñungo zalantza barik. Aldiko leiñu, sendi edo gizartearen bizi-ekintzako on-alegiñen bitartez asita, bera dalako leenengoetatik EUSKALERRIAREN BIDERAKUSLEA. Argi ta agiri-agirian daroa danon aurrean Askatasunaren Ezkutapena.

Munduko bizi onetan argi ikusten dana, apur-bat izkuntzaren aldetik sakon begitu ez gero, garrantzi aundiko gauza bat da: gizon/emakume, sendi, auzo, lurralde eta aberritarren jardunkeratan zelan ibiltzen diran euren bizi-jokaldietan, oituragaz, legeaz, erlijioan, izkuntzagaz, ordezkaritzan, askatasunagaz eta azken baten euren artean zelako erreztasunagaz bizi diran.

OITURAGAZ: Mundu eta Europa onetan daukaguzan espatak beartuta, nortasun-gabeko laterri onein alegiñagaitik, oituran apur-bat naaztuta gabiltz, euren alegiñezko lege-bidetatik artzen doguzanak gure oiturak apurtzeko diralako, eta emen esan bear da, gure alegiñak beste goiko maila baten estutu bear dirala.

LEGEAKAZ: Eurenak dira, eta orregaitik ez ondo txarto baiño. Menperatzaillearen gogamenak maltzur-oituraren gordetzailleak diralako eta guk, zori-txarrez uste dot, gure oiturazko legeak maltzurkerirako alboratu egiten doguzala, eurenak artuta obeto ibiliko garelakoan; baiña ekintza orrek gure nekea bakarrik luzatzen daualako, guk gure alegiñetan Euskal-Oiturazko legeen bidetik bideratu bear doguz, nai-ta bide zikin ortatik joan bearrezkoa izan, gure askatasuna lortu gura ba-dogu. Euren arteko legeetan, gureak izarrak izan bear diranak, eurenak lotsatuta itziteko.

ORDEZKARITZAN: Beti esan dot, eta berezitasunean legea dana da, abz izkitegitik izki baten ezean bagabiltzala, gure esanetan ta idaz-lan guztietan, itz orren eza beti agertuko dala. Eta gure ordezkartzako eginkizunetan be bai.

Bardin sortzen da idazten gabiltzan arlo guzti oneitan, euren legetik edo baragarrizko esanetatik artzen ba-doguz gureak alboratuta, gauza bi esan gura dabezala: indarrik ez daukagula alde batetik edo guriak aztu jakuzala bestetik, eta orren neurritik gure Nortasuna desagertzen joango dala.

Nik, gure Euskalerrian ezagutu dodaz gure artean benetako denborak ordezkartzaren arloan, eta nola bai zelan asi gintzazan lotsea galtzen, oso garrantzizkoa dan ordezkartzaren arlo nagusi onetan. Eta eginkizun au BASERRIA ta EUSKERA galtzen asi gintzanetik dala.

EUSKERA: Mundu`ko izkuntzen bat da, baiña izkuntz guztien artean zelakoa da ?.

Itaun oneri, nai-ta nai-ez beste itaun bategaz erantzun bear: Mundu onetan eta batez be Europa onetan, zenbat erri dagoz euren Kromañon asieragaz oraindiño, izaeragaz eta izkuntzarekin ain lotura estuak daukazanak ?.

Orregaitik egia da, Euskal izkera, izaera ta askatasunaren neurrian, Euskalduna legezko jatorrizkotasunean besteakin mugatu edo nabarmendu ezberdintasunean egiten dala.

Baiña berezitasun au txarra da....., Mundu onetan gaur dagozan batzangotasunezko, batzuendu egiteko (pluralizar) edo askoren artean daukaguzan arazoak konpontzeko`en iritziakaz ?.

BAI !!, menperatzailletasunezko iritziaren asmakuntzan dabizenentzat, eurak izateko NORTASUNEZKO ARDURATAN besteak ezerezean itzi bear diralako. Sasi-jainkotasunean bizi gura ba dabe.

EZ !!!, batzangotasunezko, batzuendu egiteko (pluralizar) edo askoren artean daukaguzan arazoak konpontzeko`en eritziakaz

NORTASUNAREN ARDURAK ZAINDUTA. Orduan danak kontuan eukiten diralako arazoak konpondu daitezkan, danon ardurai aukera emonda, bakotzaren arduratan bearrezko ekintzak zentzuzko osasunean bete daitezkan, bakez bizi gaiteskan.

Orduan zer ikusirik dauka Euskerea`k Euskal izaera, nortasuna eta askatasunarekin ?:

Bera dalako, burdin, arri ta areari kare-baltzak emoten dautson aukera gorptz burdin-saltsarrizko baten antzera Erria izateko.

Izkuntza edo gure goraberan Euskara dalako Euskalerraren asieratik orain arteko Oroimena alde batetik, bestetik, Euskal egitamuren alkargotik argitzen dan esangura osoa, Euskalerriko izaeraren sinismena dakarskulako, berak daukalako itzez-itze Euskal etxekuntza`ren (construcción) erainkintza (arquitetocnika) arbasoen jakinduririk aundienagaz eginda, eta berak batzangotu egin euskulako ERRIA izan gaiteskan JAINKOA`ren betiko agindutara.

Oraindik, Europa ontan berak dauka, gure ekintzetan benetan ulertu gaiteskan itzaren esangura ondoen eta zeatzen bananduta, gauza bakotzarentzat bere itz berezia ta bakotzari bere esangura zeatza emoten dautsolako.. Orregaitik gure itzak danak iruditzen dabez gure buruetan, gauzaren esangura iñora begitu barik, eta orregaitik euskaldunai laguntzen dausku berbakoak izaten, bere magalean sendotasuna eta zeaztasuna bakarrik sartzen diralako.

Izkuntzak, Mundu guztian NORTASUN BEREZIA emoten dausku eta daukaguzan zertzelada guztietatik bera da garrantzitsuena, berarekin beste guztiak ezagutzera emoten doguzelako.

Orregaitik menperatzailleak leenengo apurtu gura dauana IZKUNTZA eta beren IKAS-BIDEAK dira, danak naaste baten

sartzeko euren agindupean, daukaguzan oiñarri ta bizitzaren antolamendurako tresneri guztiak erlijiotik asita euren alde kokatuta, daukiezan sasi-elburuak lortzeko.

Gizartearen batzangoak beti !, arduradunen arteko erabagiak izan bear dira zalantzarik gabe, eta gaur daukaguzan Laterriak geienetan **NORTASUNEZKO ARDURATAN MENPERATZAILLEAK DIRA.**

Antziñetik sasi-jainkotasunezko gogamen orregaz, izkuntz geienak naaztuta geratu dira eta baragarrizko izkuntzak sortu, itzak bear dauan indarra iruditzeke deseginda, izkuntz menperatzaileak daukiezan sasi-jainkozko izenakaz aldatuta: "LUNES-ASTELEENA", gauza aundiak egiten dagozelakoan. Zelako **ASTOKERIAK!** eta betiko okerra dana. Lurrera bakarrik begitzen dagozelako; eta betiko denboretatik dakigu: "GOIKO JAINKOA`ren LEGE`ak" lur onetan bete egin bear doguzala. Baiña eurak ekin !!. Eta ori da daukagun betiko borroka Ludi onetan.

Ortik urten bear dogu nai-ta nai-ez **JAINKOA`ren** bidea berrezkuratu gura ba dogu bakea lortzeko eta azken baten benetako arduradunaren artean **MUNDU** onek bear dauzan zeaztasunezko erabagiak artzeko.

Badakigu ba anai/arrebok, **EUSKERA** garrantzi aundienetarikoa dala, eta orrek esangura dauana, gure alegiñak beste goiko malla baten lotu bear doguzala.

Alegintzen bagara, asken baten "EUSKALTASUNAREN eta EUSKALERRIAREN ASKATASUNA" izango da agertuko jakuna **EUSKARA`ren IXILEKO EZKUTAPENETIK.**

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.002`an BAGILLA`ren 27`an

- LUR-GORRI NOR DOGU ? -

Donosti`n: Mitxelena aretoan 36`ko " GUDALDIAN, SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTE`ak " aurkespenean.

Azkarraga eta Mozo`tar Joxe M<sup>a</sup> " LUR-GORRI ".

-Nor dogu ?.

Esan bear dot, poz aundiz arritu nintzala gai au ezarri eustenean eta benetako biotz-ikara emon eustala, ikusiz, gazte areik LUR-GORRI`gandik asita euki eben Euskalerrigaitik ainbeste " SINISMENENKO MAITASUNA " eta zelan maitatzen eben oiñarrizko senditik asita Euskalerriak daukan senidetasun guztia.

Kontuan euki bear dogu, maitasunean ain malla aundia lortzeko, bera bete egiten daben osotasunezko oiñarrian....., osagarriaren izaerak, sinismenean neurri bardiñean euki bear dirala, leenengo ulertuta eta bigarren on-artuta, beren borondateagaz ainbeste eta ain ikaragarrizko ekintza egitean, beren Erri-bidetik JAINKOA`ri eskeintzeko.

Nortasunezko izaeran, ikaragarrizko zentzua eta zeaztasuna ikusi dot euren borondateetan. Eta kontuan euki bear dogu ABERTZALETASUNA ez dala: " MAITASUN " orrek daukan indarraren zabalkuntza baiño besterik ez !, nor-beraren ekintzetan.

Bakarrik ?, esango leuke ez dakian batek.

BAI !, BERA dalako dana !.

Gaur, menperatzaileak apurtzen dabiltzana. Eta eurak daukien indar guztiaz nai dabena..., gure gazteak naazte orretan sartzea da, eurak garaille agertzeko, daukien sasi-jainkotasunezko asmakuntzan iraun dagien.

Menperatzaille orreik eta batez be Espainola`k, legearen erak! sorotasunezko aldakuntza baten dabiz naaspiltzen, baiña dan guztiori alperrik, Mundu onek bere EGILLEA`gandik daukazan LEGEA`k ez daukielako aldamenik.

Gure gazte gizartea, bai gazte ez diranak be, gaur naaztetasunezko era orretan errez jausten dira, gezi pozoitzu orreik,era askotan mozorrotuta datozenak, eta zeaztasunezko ardurak itxuragabetu egiten dabezanak geien, iruntzi egiten dabezelako, eta olan dala ikusteko, ez da besterik begitutea baiño, gure senidetasunari.

LUR-GORRI ez zan jeusten xautzailletasunetan (konsumismoetan) eta lege itxuragabeko era orreitan; eta ori erakusteko, liburuan datorren adibide batzuk esango dautsuedaz: 1934`ko urte orretan, Espaina`ko gobernuak, leiaketara atara ebazan legebildumaren talde teknikoetan lan egiteko, eta 4.000 naikideren artetik leenengoa izan zan. Danak arrituta geratu ziran, Madril amets-garriaren leen-maillako lan-bideak alboratu, eta Oñatin zan, bigarren maillako ikastetxera etortea eskatu ebenean, bere aberriko ardurak maite ebazalako.

Beren etxeko ardurakaz guztiz bat eginda egon zalako, ez eban euki atsedetik Euskal Alderdi Jeltzaleak bear eban guztirako: berriketarako, biltzarretarako, ainbat aldizkarietara beren idaz-lanak argitzeko, aolkari eta lagun lez..., eten-bako ekintza baten.

Ondo baiño obeto jakin ebana, Mundu eta Euskalerrri onetara, ez zala agertu eten-bako opor, ikast-arte, edo lan-uztera izan zan. Ain MAITASUN aundiko mutil onek JAINKOA`gan sinismen osoa euki ebalako, eta ondo baiño obeto ulertu ebalako, Mundu onetan JAINKOA`ren LEGEA`k beteteko etorri zala

BERA` gana igon gura ba-eban, beren etxetik asita EUSKALERRI  
zan bere etxe nagusiaren ardurak beteta .

Eta ori benetan erakusten dau beren azkeneko mesuan guraso  
eta anai/arrebai, eriotzara joan orduko.

Gurasoa`ri, azkeneko zati au.

" Zuen semearen azken agurra irakurteko... kemena izan ".  
Gudari-sail`en aurrean lasai, geldi, espaiñetan dar-dar txikiena  
euki gabe, ez eta neure taupadan be, erru-gabeko barru garbiak  
emoten dauan lasaitasuna, leporatzen daustiezan erruakaz...  
EPAILLE NAGUSIA`ren gana noa, au-da egizko AGURRA !.

Ez negarrik egin nire eriotzari; zuen arimetan.... poztasuna bizi  
daitela , nire bizitzan unetxo oneitan bizi dan lez. " ZELAKO  
EDERTASUNA ".

Nire eriotzagaitik ez dot-nai asperkeri (venganza) bat ere.  
ABERTZALETASUNA eta ADOREA. ABERTALETASUNA !. Ori  
da, neuk eskatzen dodan asperkeri bakarra !.

Betirautasunera-arte. AGUR, gaur, iñoz-baiño geiago  
maitatzen zaituen zuen semeak.

JOXE MARI

Espainolak izkillatu ebenean, 21 urte euki ebazala kontuan  
artuta, arrituta geratu bear gara gaur guztiok, mutil onek euki  
eban kemenezko MAITASUNAGAZ. Orduko Abertzaletasunaren  
antzekoa euki bear dogu: Gizon/emakumeak, zar eta gazteak,  
abade, lekaide/lekaime`ak. Eta urrezko denbora aiek  
berrezkuratu bear doguz....: gure gazteak izan dagien LUR-  
GORRI, LAUAXETA, AITZA, AITZOL, OTAÑO eta ainbat  
abar`en antza, EUSKADI`ren ASKATASUNA lortu gura ba  
dogu.



Eta orretaz konturatuko gara...., kontuan jausten ba-gara,  
iñoren arduratik kanpo, gure ardurak bete egin bear doguzala.

Ni, arrituta geratu nintzan LUR-GORRI` rekin.

ATUTXA` tar PAUL  
ZORNOTZAN 2.002` an AGORRILLA` ren 26` an

Nik, lagun aundi bat euki neban, " Aita Santi ", gure alkar izketan esaten eustana: " Euskalerria`k ARERIO asko daukaz...".

Leenengo egunetan ez nintzan konturatzen, bere berbak nora-arteke ikusmena eukingo eben, nigaz bere ekintza, ixiltasuna eta ikasteko liburuak emotekoa zalako, eta benetako arrazoia euki ebala urte oneitan ikusten asi naz.

Noz bein gure edestiari ikus-arin bat emoten dautsot, Olazar`tar Martin`ek ezkatzen dauztanean, ZER`erako idazlanak egiteko. Ziurtasunean osoz edo geiena billatzen dot.

Baiña Espainol`ak esaten dabenean, eta batez be gaur Oreja`tar Martzeliño`k " Euskalerria`k sekula ez dauela euki gaur daukan askatasuna ", euren lotsagabeko menpetasunak aurrera eroateko, neure barruak irikitzen ipinten dira, ez dagoalako esku-biderik ainbeste guzur ezeren ardura barik esateko. Orrek guzurrezko maltzur gauzak faziztak baiño ez dabezelako esaten.

Orregaitik oraingoan bir-ikaste zeatzago bat emon dautset, belarri orreri esateko: erromatarrak etorri arte askatasun osoan bizi gintzala. Eta erromatarrak ekarri eben asmoak, euskal leiñu batzuri euren aurka sortutakoak ikusita ta gero, eurakaz elkar-aditu giñala naaztetasun barik, euren aldaz-beerako porrotean, gure Euskalerrriaren izatea Euskera eta Nortasunak berrezkuratuta.

Irugarren gizaldian Bandalo`ak eta Alanoa`k etorri ziran gugaz zer ikusirik euki ez ebenak. Eurakaz batera Suevo`ak etorri ziran, gero V`garren gizaldean Godoa`kaz leenengoetan eta gero Godo`ak bakarrik ibili menperatasunezko ekintzetan, gure askatasuna oso osoa izan zala, nai euren menperatasunezko

gogoen artean eta euren erregetza artzerakoan, errege gaiaren zin-itza emoterakoan, arauen arteko bat " ET DOMUIT VASCONES " esan bearrezko esatea euki ebala.

Ararte Godoa`ren aurka, Euskaldunak gudarako antolamendu bakoak izan ba ziran be, zaar-batzarretatik buruzagiak gudarako taldeetan asi ziran ezartzen; eta eurakaz gure borrokak iraun eban, Godo`aren erregetzak iraun eban aldian.

Aldikada baten..., Espainol idazle batzuk asi ziran esaten "ASTURIAS`eko " erregeak izan zirala Godo-erregetzaren ordezkook, eta gure Kanpion`tar Arturo`k bidera urtenda esan eutsoen: " EMEN JABE-GAI BIDEEN BAT EGON IZAN BAZAN BE, IKUS-EZIÑARENA IZANGO ZALA; ETA GOGO ANDIENETARIKO BAT, EUREGANDIK MENDERAKATUAK EZ IZATEA " izango zala.

Arabitarrek etorri ziranean eta Iruñean sartu 718`an, eurakaz alkargo baten bitartez Euskaldunak azpiratu egin zirala zerga bat ordainduz. Geroago " Ocba " mauritarra Euskaldunak ez ebelako ordaintzen 734`an ostera sartu zan Iruñean indarrez beterik, eta joan zanean bertan mauritar indarrak itzita, Euskaldunak ostera be jabetu zirala. Andik aurrera Euskaldunak askatasun osoan bizi ziran, nai-ta I`go Abderramanetik asita eurekin borroka batzuk egin bearra izan.

Gure erregetza eta beraz gudarako antolamendua Aritza eta Jimenez`tar Iñigo`rekin asten da eta II`garren Enrrike`gaz amaitu Auñamendi`ko Egoalde onetan.

Oreja`tar Martzeliño`k sekula ez dauana esango, orduko Napar-erregeakaz erriak Nortasunezko antolamenduak egiten ebazala. Ez da gutxiago: 1504`an Isabel katolikoa il zan eta orduan, Gaztelarrak Fernando, beren Aragoiko erreñura bigaldu ebela, Juana beren alaba Austriako Felipe " el hermoso`rekin " eskonduta egon zana Gaztelatar`en erregetzara igonda.

Oneik, Nafarroa`ko erregeakaz 1506`an Agorrilla`ren 27`an adiskidetasunezko elkargo bat sinatu ebela Fernando`k ezer jakin gabe, au oso asarratuta geratuz.

Fernando bitartean Foix`tar Germanarekin ezkondu zan eta seme bat euki eban. Oneik, Frantzia`ko erregetzaren oiñordezkoak izan ziralako ortik aurrera, Espaina`ren aberrikoari ikaragarritzko urduritasuna sartu jakiela, eta bereala Felipe " el hermoso " ori, ur apur bat edanda il zan, Juana zoratu, Germana il zalako bai gero semea be, Fernando`ri deitu eutsien Gaztelarren erreñuan errege ordezkoa izateko. Zergaitik ez...., Cisneros Kardinalari ?.

Felipe erregea il da, Frantzez eta Gaztelartean gudaren keiñadura sortu zan, eta Fernando`k orren egoeraren unetxo gozatu eben Naparrak zigortzeko. 1512`an Uztailla`ren 21`an Alba dukearen guda indarrak Iruña aurrean geratu ziranean eta iñungo borrokarik gabe Uztailla`ren 25`an uriko giltzak emon eutzezan Alba dukea`ri. Azkeneko alegiñal " Maian ", Fransizko Xabier`en sendia eta Nafarroa`ko erregeakaz ados egon ziranarekin egin ebena, baiña 1513`ko Jorraillean jausi ziran Gaztelarren eskuetan. An dago oroit-arria " MAIA " erritxoan borroka ori oroitzeko.

A ta guzti, Fernando`k nai-ta guda eskubideakaz ezarri beren ekintza, Done Fransizko Xabier`en aitari, legezko Nafar-errege aldekoa izan zana indar guztiaz, beren errege-aolkularitzari il arte ekin eutson. Nafarroa`ko Forua`ri zin-egin eutson 1513`an Epaila`ko 23`an, eutsi egingo ebela Nafartarren jaurkintza guztia, gero 1515`an Tudela`n sinatu zan alkargoarekin. Nafarroa`ren legezko erregeai andik aurrera antolatzeko, ekintzaren bideak moztuta.

Fernando 1516`an Urtarrilla`ren 23`an il zanean, Nafartarrak ostera be gudarako aupatu ziran, baiña Jimenez de Cisneros`tar Francisco ordurarte Toledo`ko kardinal nagusia eta fede-zain

(inquisidor) aundiena, gero errege-ordea izendatu eben, eta beren koronel Villalba`rekin Nafarroa`ko gaztelu, eleiza eta dorre guztiak moztu ebazan, ainbat Nafar ilda eta ereiñeko lurak suagaz kiskilduta. Triskantza au eginda, Villalba Koronelak Cisneros`eri idatzi eutson: " Navarra està tan baja de fantasia despuès de que vuestra señoria reverendísima mandò derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza " .

Zisneros, 1517`an Azaro`ko 8`an il zan, eta Nafartarrak osterara be gudarako aupatu ziran, Noain`en 1521`ean Bagilla`ren 30`ean guztiz apurtuta geratu ziranak, Espaina`ren I`go Karlos, Alemania`ko V`garrena eta IV`garren Nafarroa`ko erregea andik aurrera izango zanaren eskuetan geratu zana.

Eta Nafarroa`ko IV`garren Karlos izan da..., Naparrak Espainolak dira ?. Nai-ta ostean Nafarroa`ko IV`garren Karlos`ek, Beenafarroako`ak bertan itzi edo ukatu, Auñamendiak berezko mugen antzera geratu daitezana..., Euskaldunak Espainolak eta Frantzezak gara ?. Beenafarroan ortik aurrera be Euskal erregetzak iraun eban.

Eleizak indar asko auki arren, erregeak ziran egilleak, eta oneik baleiteke apurka apurka gura ebela Erri Berezien Nortasunak urtu edo ezeztatu daitezana, zentzunezkoak jakin ebelako, gizarte eta Erria`ren Nortasunak ez dirala berez urtzen, il da ezin ezik. Orregaitik dabiz gaur be ainbeste eratarara saiatzen.

Orregaitik Nafarroako IV`garren Karlos, V`garren Alemania`koa eta I`go Espaina`kotik asita azkeneko Austria`tarren arte, Euskalerrriak askatasun osoa euki dau, nai-ta bidean asarre batzuk euki arren, bere Jaun edo errege`az sinatutako alkargo edo itzarmenaren bitartez .

Eta aspertu ziralako itxaroten, berezitasunezkoak ez gintzalako urtzen, V`garren Felipe borboia ipini eben, ia gudaren bidez, Ugarte-erdi onen berezitasun guztia desagertuteko naian

(gaur be ori asi dira egiten elkarteko legearekin, Batasuna`ren aitxakiaz).

Ortik aurrera indarraren bidez gura eben, berezko erriak eta izkuntzak desagertu daitezcan; eta ekintza orretan ainbat borroka, eriotza, espetxe, negarra eta abar euki doguz, GUK ZUTIK agertuz, Nortasunak eta izkuntzak noz askatzeko agertu, euren indarraren aurka. (Nai-ta gure artean be etzaiaren lanak baten batzuk egin: " sujeto politikoak ez garela " esanez. Zelan gabiltz ?. Biziagaz batera ez gara ezer !!).

Gaur erregetza ia desagertu arren Europa guztian, menperatzail asmakizunezkoak gudaloztearen laguntzaz, daukaguzan iñungo arrazoi gabeko Laterri oneik ezarri dauskue espatak buru gaiñetan daukaguzela. Len esan doten lez " por su destino en lo Universal "; eta gaur, gagozan denboratan, barregarrizkoa da ori.

Orregaitik " OREJA " orreri esan bear jakona: Euskalerrria eta batez be EUSKADI iñoz !, ez dala makurtuko beren askatasuna lortuarte, ori dalako JAINKOA`ren agindua, danez gain danok "ARDURADUNAK" izan gaitezcan, BERAK garan guztiak Ludi onetara ardurazko gauzak egitera BIALDU gaitulako.

"ABERRIA MAITE DOGU, AITA`REN GANDIK DATORRELAKO ".

Eta etorren asmakizuna argi ikusten da Cisneros`egaz: erromatarren Kaizar-jaun Konstantino aundiak 325`ean Nizea`ko Eleiz-Batzar nagusia batu ebanetik katolikotasunari indar guztia emonda, besteak sinis-austera botata, gero Godoa`ren Rekaredo`k Toledo`ko Eleiz-Batzar naguzia 589`an batuta bardin egin ebana, beranduago, Afrika`ko kruzadetan egin ziran astokeriak Maoma`ren erlijiñoen aurka, bera azkoz geiagoan aundiagotuz; bealdeko Ameriketan egin ziran lapurketak, ilketak eta egin ziran naastetasun guztiakaz katolikotasunaren izenean, goitik-beera nortasunik gabe itzita,

gaur guztiz nora-ezean dabizenak, bideak aurkitu barik. Cisneros`en alegin nagusiak ziran Eleiza`ren katolikotasun (Universalidad) jabetasunagaitik.

Eta katoliko= latin katholikos`etik datorrena da, eta berau Griego Kata`r= ulertza esan gura dauana, eta holos= dan guztia esan gura dauana. Itz ori artuta, erabagia artu eben esateko: katolikotasuna bakarrik zala Universal, egizkoa eta ziurtasunezkoa Ludi onetan. Orregaitik Arrianotarrak, moroak eta abar alboratuta, beren eritziz bera dalako egian dagoan bakarra, ortik agertzen dira: " la misiòn del catolicismo " " el destino en lo Universal " " la misiòn en lo Universal " eta ainbat abar.

Argi eta garbi ikusten dana, guztiz berezitasunaren aurka dala asmakizun guzti au; eta gaur oraindiño dauan " arra " ori dala, batzuk bakarrik ondo bizi daitezana. Baiña danok ondo-bizi ezin izanik, eten-bako borroka dala, danok gura nai-ez ardurak zaintzeko jaio garalako.

II`garren Juan Paulo`k, Ameriketako babesean gaur Munduan ezarri gura dauan batzangotasuna salatzen dau, baiña konturatuko dira...., eurak daukiezan katolikotasunezko legeakaz menperatasun orreik lortzen alegintzen dirala ?.

Orregaitik gure EUSKADI maite onetan gaur, ez dogu bear indarkeririk, eurak orren atzakiaz, dagozan Laterrizko maillan arrazoitu baiño ez diralako egiten indarra erabiltzeko, eta orren babesean indarra erabiliaz iraun egiten dabelako daukiezan menperatzail asmakizunetan. ABERTZALETASUNA eta JAKINTASUNA baiño besterik ez !. Ta danok bat eginda, erakutsi guzurrean dagozela, len-bait-len askatasuna lortzeko.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZAN 2.002`an IRAILLA`ren 1`ean

ESATEN DABE DEMOKRAZIA ZABAL-BATEN GAGOZALA, BATZUEN ARRAZOIAK AURRERA EROATEKO EURAK NAI DABEN ERARA. AIN SAKONA ETA ONDO ERPERATUTA DAUAN MENPERATZAILTASUNAREN "ARRA" IZANGO ETE DA BA....?. ALA BELDUR DIRA OIÑARTEKO MENPERATASUN BIDETIK LORTU DABENA (DIRUAN) ETA BETI EUKI DABEN AGINTARITZA ORKO BIDETIK, DEMOKRAZIAREN BIDEZ, GEIEN JAKITEN DAUANAK ETA ZEINGEAGOKO LEIAKETETAN IRABAZTEN DAUANAGAITIK ALBORATUTA GERATZIA ?. ALA BELDUR DIRA BENETAKO ARDURARI AURRE EGITEKO ?. BALEITEKE OKERREKO BIDEA ERREZAGOA IZATEA?. ETA EMEN ARGI IKUSTEN DANA DA: GAUR DIRUAK DAUKAN IZAERA ORDEZKO EGINKIZUNETAN, EZ DALA GIZON EMAKUMEAK LEENENGO GOGAMENETAN IPINI EBAZAN TRESNERI ORREN ORDEZKO ARDURAK ZAINTEKO GAUR DAUAN NORKERIEI AUNDIKERIA GORATZEKO BAIZIK. NIK USTE DOT ORI BAIÑO GEIAGOTSUAGO DALA MORAL-PSIKOLOJIA BATEN ALDETIK BEGITUTA, EUREN IRUDIMENEAN AZITAKO MENPERATZAIL-AGINTARITZAKO "AR" ORI EZ DAUTSIELAKO ITZITEN BEREZITASUNEZKO ARRAZOIAK KOKATU DAITEZAN EUREN GOGAMENEN IRUDIMENEAN, MUNDU ONEN BAKEA EGIZKOA IZAN DAITEN, BEREZITASUNEZKO-GIZADI BATEK, BEREZ DAUKAZAN LOTSAGISUNEZKO ARDURAKAZ ONDO BETETA BAKEZ JARRAITU DAGIAN ARAZO GUZTIAK ONDOEN KONPONDUTA, ALDE BATETIK. BESTETIK: DIRUA EUREN ESKUETAN DAGO EUREN JABETASUNEZKOA IZAN BALITZ; ETA ORREGAITIK DIRUAK EZ DAUKA BEAR DAUAN JOAN-ETORRIEN ASKATASUNA.

BARREGARRIA DA, GAUR IRAKURTEA (DEIA - 2.002' AN EPAILLA' REN 20' AN 13' GARREN ORRIALDEAN), NOLA PP'KOAK EZ DAUKIEN EZEREN LOTSARIK, PETER ZENARRUZARI, EUSKALERRIKO "AUTODETERMINAZIOAGAITIK" IDATZI EGINGO DAUTSIOLA ESATEKO: "NO ES PROCEDENTE RECONOCER EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN DE EUSKADI, COMO NO ES PROCEDENTE QUE IDAHO PUEDA AUTODETERMINAR LOS DERECHOS DE LOS INDIOS" (NER-PERCE) "CON RESPECTO A ESE ESTADO". ETA OR! ARGI-ARGI, NON AGERTZEN DAN EURAK ERE BADAKIELA, JOKOZ KANPO DABIZELA JOKATZEN EUSKALERRIAREN AURKA.

NOLA IZAN LEIKE, GAUR EGUNEKO DENBORATAN, JAKINTSUAK DIRANAK ETA EDOZEIÑEK ULERTU LEIKENA, EUREN JOKOA ERRI-BEREZIEIEN AURKA MENPERATZAIL-ILTZAILLE DALA...., EZEREN LOTSA BARIK ESATEA ?. GAURKO INDARRA EUREN ESKUETAN DAGOANA EZ DALA GIZADIAREN ARDURAK BABESTEKO, EUREN SASI-JAINKOTASUNEZKO ELBURUAK BETETEKO BAIZIK ?.

ZELAN LORTZEN DABE EGINKIZUN ORI ? : GAURKO ERREGETASUNEZKO-LATERRIAK EDO LATERRI-BURUAK DAUKIEN INDARRAGAZ ETA DAUKIEZAN ESPATA INDARTSUEI BIDETIK BEREZITASUNAREN BURU-GAIÑETAN IPINITA DAUKIEZELAKO, EGINKIZUN ORREN BIDEZ XAUTZAILLETASUNEZKO BIZI-EKINTZA BATEN BEARTUTA SARTZEN GAITUE, ARTEAN BEAR DOGUZAN MORALA, EKANDUAK EDO OITURAK MILLA ZATITAN APURTZEN DABEZALA, GIZARTEA' REN GIZON/EMAKUME, SENDI, AUZO, LURRALDE ETA ERRI-ABERRIEN ULERMENERAKO BIDE ARGITSUAK IZAN BEAR DIRANAK, EUREN EKINTZAGAZ ILLUNTASUNEZKO BIZI-EKINTZA BATEN SARTZEN DABEZ, MUNDU ONEN SASI-JAINKOTASUNAREN EKINTZARAKO.

ETA GAURKO EKINTZA ORREK ARGI ERAKUSTEN DAUANA EUROPA ETA MUNDUAN, GAURKO LATERRIAREN JAURKINTZAK EZ DAGOZELA GIZON/EMAKUME, SENDI, AUZO, LURRALDE ETA ABERRIAREN BABESERAKO, LUDI ONEN BEREZIZKO LEGEAK ERAKUSTEN DAUSKUN LEZ JAINKOA' REN AGINDUAK BETE DAITEZAN, IRITSI EDO ERITXI BATZUEN GAI-AMESKERIRAKO BAIÑO EZ; ORREGAITIK DAGO DANA ANKAZ-GORA EZEREN ZENTZU-BARIK.

ARRIGARRIA DA JAKITURI GEIAGO EZ EUKITEA, ORREK GAUZAK ERRIEN AURREAN ITXURAGABETUKO BERBA BIGUNAGOAKAZ EZ ESATEA, AIN GORDIN IZAN BARIK. BAIÑA BA-DAGO BESTE BIDERIK EDO BERBARIK GAUR ERRIAK IRUZURTZEKO ?.



MUNDU ONEN IPAR-MENDEBALEAN, IRUZURREZKO BERBA OIEK ASKO ESATEN DIRA ETA EZBERDINTSUAK, DEMOKRAZIA ZABAL ETA AUNDI BATEN GAUDELA ESATEKO, BAIÑA NIK ESANGO NEUKE ATAL-GABEKO BERBAREKIN: "DEMOKRAZIAN EZ DAGOALA IÑUNGO BIDERIK « BAKOITZARI BERE » EMON EZIK "; ORDEZKARITZA GUZTIA, ITZ BERDINTSU, ALAKOTSU EDO ANTZEKO BERBAKAZ BAKARRIK ORDAINTZEN DALAKO.

ORDUAN ZEOZER GEIAGO EGIN BEAR LEUKIE MUNDU ONEN BABESERAKO, ERREGE-LATERRI EDO LATERRI-BURU'EN NAGUSIEN ARTEKO JAURKINTZAREN AGINTARIAK, ETA LENENGOENA IZAN BEAR ZANA: " BEGITU ", IKUSTEKO NOLAKOAK DIRAN DAUKAGUZAN LATERRIZKO JAURKINTZAK ETA EUREN EGINKIZUNARI, " AITUTEKO EDO ULERTZEKO " ERRITAR GUZTIAREN BAKE-EGARRIAK ZERGAITIK DIRAN ETA NUNDIK AGERTZEN DIRAN.

BIGARREN: " IKUSIZ " JAKITEKO ARLO GUZTIAK BEGITUTA EUROPAN BAI MUNDUAN ERE, BAIÑA GURE ERRIAN BATEZ BE, ZERGAITIK DIRAN AINBESTE ZEZIO, ERRIARI LAPURTZA BERE ANTOLAMENDUAN, TRSIKANTZAK, NORKERI, MENPETASUN, ZIKINTASUNA ARTU-EMONETAN, OITURA, MORAL EDO EKANDUEN UTSUNA, EUSKAL-ETSAI, ETSAIMIN (ENEMIGO MORTAL), ETSAIMENDE (SERVIDUMBRE-PRISIÒN); AINBESTE ZURRUBURRU (DESUNIÒN), EZIÑ-EGON (DESASOSIEGO) ETA ETSIMENDU (DESESPERACIÒN) EGON DAITEN; EUREN IKUSPEGI ORREGAZ BEREALA EROANGO-LEZKIOLAKO AZMO-ASTERPEN BATERA, ETA AIN-LASTER, GIZON/EMAKUMEAREN EDO ERRITARREN ARTEAN " ZERGAITIK " AGERTZEN DIRAN ORREK BIORKERI-AUNDIAREN AZTERKUNTZARA. BEREALA IKUSIKO LEUKIE, ARAUETATIK ASITA, GAUZA GITXI DAUZELA EGON BEAR DIRAN LEKUAN, MUNDU ONEK DAUKAZAN LEGEAK GUK GAITZEKO EDO ARAU-LEZ ARTU BEAR DOGUZANAK GURE BEARREZKO EGINKIZUNETAN BEREZITASUNAREN ORDEZKO-ZENTZUAN AGERTU DAIGUZAN.

BEREZITASUNAREN NORTASUNAK IZAN BEAR DIRA ARDURADUNAK, BEREZ ORDEZKOAK DIRALAKO ETA MUNDU ONETAN EZ DALAKO JAIOTEN " IÑORK " BETE-BEAR ORREN ARDURAGABE, GAIÑERA LOTSAGIZUN AUNDIAGAZ; BETE-BEAR ORI BAKOTXAREN " ESKUBIDEA " NAI-TA NAI-EZ DALAKO. ORREGAITIK, GAUR DAUKAGUZAN JAURKINTZA-BURU GEZUR-EZARLEKO AUEK EZ DIRA GAUR EUROPAN BEAR DOGUZANAK, EUREN JAIOTATIK EZ DIRALAKO BAKEAREN BIDEZKOAK, MENPERATZAILLEAK BAIÑO, DANON ARDURATIK KANPO JOKATZEARREN, EUREN AMESKERIAK BETETAN.

EUSKALERRIAREN JOKOA BEREN ASKATASUNAGAITIK BIDE ONETATIK IZAN BEAR DA, ILLUNTASUNETIK URTETAKO, " ARGIA TA INDARTSUA " BATEZ, ERRIAREN OIÑARRIAK EUREN LEKUETAN EZARTZEKO ASKATASUNA AGERTZEN DANEAN ETXEA ONDO ETA URRENEZ-URREN AGERTU DAITEN BEREN EGINKIZUNETAN; ETA KONTUAN EUKI LASTER IZANGO DALA ONDO, ARGIA TA BENETAN JOKATZEN BA-DOGU, MUNDUKO AGINTARIAK ETA EUROPAKOAK BATEZ BE, BAI GIZON/EMAKUMEAK ERE ASI DIRALAKO KONTURATZEN, ARDURAK BERE LEKUAN KOKATU BEAR DIRALA ZIURTASUNEAN GURA BADOGU BETE DAITEZAN; ETA MUNDU ONEK IKARAGARRIZKO EGARRIA DAUKA DAUKAZAN ARAZOAK KONPONDU DAITEZAN, GERO TA GEIAGO ITXARON EZ-GERO OKERRAGO IZANGO DALAKO.

EBERRI EGUNA DA DOMEKAN OSTERA ERE, TA GU "BANANDUTA ", DATORREN URTEKO "ABERRI-EGUNA " IZAN DAITELA EUSKALERRIAREN EGUNA BEREN SEME/ALABAK BATERA, ARGIA ETA ZINTZO JOKATZEN DABELAKO.

ATUTXA` TAR PAUL

ZORNOTZAN 2.002` AN EPAILLA` REN 27` AN

## - EUSKALDUNAK EUROPAN -

### AURKEZPENA:

- Arrastion, itzaldi onetara etorri zarien guztioi, eta onen mamitik ulertzen dagunak on-egin daigula danoi.

- Zergaitik EUSKALDUNAK-EUROPAN beti danik edo jaiotzatik, bertan dagozela esan bearra ?.

a) .- Menperatzaillaren leenengo lana euren asmakuntzak aurrera eroateko, berezitasuna desagertzea da; iñor ez dagon bizi-lekuan eurak bakarrik ba-dagoz arrazoia daukielako " EURAK DIRALA " angoak, esaten dabenean.

b).- Beste aldetik, euren guzurrezko alegiñak ezeztuteko, gure egia azaldu bear eta or ! non argitu bear diran, JAINKOA`ren LEGEA`gandik nai-ta nai-ez artutako berezitasunak, sasi-jainko jokoetan dabizenen aurka. Euren asmoetatik berezitasuna menperatu gure dabelako sasi-jainko lez bizitzeko. Ia lortzen dabiz..., antziñatik sendia`k dakarren beren irudizko-izaera apurtzen dabizelako, dan guztia naaste baten agertu daiten, ainbat kostata sinismenean egindako antolamendua apurtuz.

e) .- Eta Olazar`tar Martin`ek, gai onen ulermen azalpena nik bete bear nebala esan ebalako.

d) .- Orregaitik, Euskaldunen Nortasuna eta izaera Europan oso ezagunak izan eta dirala argitzeko zazpi zatitan azalduta banatuko doguz, azkenean laburpen baten bidez ikusteko, zelako ondorioak agertzen jakuzan.

- 1` go.- Sarrera labur bat, idaz-lan au zelako gogoagaz idatzita dagon azaltzeko.
- 2` gn.- Kromañon denborak.
- 3` gn.- Erroma` tarrak.
- 4` gn.- Bisigodo` ak.
- 5` gn.- Kristautasuna eta Erlijiñoa.
- 6` gn.- Mauritarrak.
- 7` gn.- Gure Askatasunaren Azkeneko Denborak.
- 8` gn.- Laburpena.
- 9` gn.- Izkuntza.

• Gai au, ziur nago galdera askokoa dala, eta orregaitik gura neuke, azkenean, bear diran galderak egitea; beren ausnarretik, ulermenean daukaguzan illuntasunak argitzeko. Baita azken baten pozik urten daigun solas-itzaldi onetatik.

Asi gaitazan ba, gai onen mamia ikertzen.

## - EUSKALDUNAK EUROPAN -

### SARRERA:

Guzurra dala esan leike , gaur egunean esan bearrekoa izatea, Euskaldunak bizi dirala Europa deritxon lur-nagusi onen ego-sartaldean; eurak diralako zaarrenak lur onetan sendi-aberridun berezi bat lez, edo izaneko leiñuak esku-alde baten batuta bakotxak bere Nortasunarekin eta

bakotxaren borondateakin alkartuta batzango baten, bakotxaren eta danon ardurak lotsagizun aundiagaz ondoen aurrera eroateko.

Bere edesti luzean, ainbat leiñu-zapaltzaille eta kaizar-erri menperatzailleak igaro dira gure Euskalerrri maite onetatik, gu emen, "gure etxean" geratuta, gero labur-labur ikusiko dan lez

Baiña geien lortu gurako neukena alde batetik auxe zuei erakustea da: zelan asieratik asten dan apurka-apurka (eztaibada edo zezio oso gogor barik) gizonen aundikeria igoten, norkeriak daukazan indarrakaz galerazota, eta denboraren etorkizunezko igaroan, gaur gagozan negargarrizko Nortasunaren uzteltasun egon-aldirarte.

Beste aldetik erakutsi: zelan edestitik zear norberena ez dana lortzeko, edo norberaren ardurapean ez dagoana lortzeko, gaiak daukan diztiraz erakarrita eta mozkortuta agertzeagaitik, ibiltzen diran "GUZURRAK", beti bardiñaK dirala, Ludi onetan ez dagolako beste erarik edo almenik gauza orreik: gizon/emakumeak, lurraldeak, bai daukiezan mozkiñ-eta-eskutartekoak-menperatzeko.

Bat dalako Ludi onek daukan LEGEA bere izaeran erperatuta, eta naita... era ezberdin askokoak izan guzurraren almenak LEGE NAGUSIA`ren aurka, GUZUR bat bakarrik dalako bere aurrean.

Baita, edestiaren etorkizunean ikusiko doguzan denbora loratsuak izan zirenak ikuspegian, inguru guztietatik lorez beterik agertu gurean eta osteko denboratan ugaritasunezko lore orren edertasunerako egiten ziran lan-erinduagoak, argitsu edo biribiltasun itxura eder baten eginkizunak agertu daitezcan gizon/emakumea`ren poztasunerako; itxura eder orren azpi aldetik zelan agertzen eta entzuten ziran zigorraren arrantzak, oñaze, min eta nekea ugari, gizon/emakume eta erriak menperatuta eukiteagaitik; gizon/emakume batzuen sasi-jainkotasunaren jokoa poztuteko bakarrik gaurko denborara arte.

Gaur be, ori gura dabe, gizartea mailladuna izan daitela, beti izan diran gai-zaleak olan izan daiten euren poztasunerako.

Baiña neure ustez, geien poztuko gaituna, gaurko denboretan eginkizunaren zeaztasuna azaltzea izango da, gaur dakigunagaz argi-argi ikusten dalako, gauzak txarto egiten ba-dira, Ludi onek daukan legearen aurka dirala.

Menperatzaileak, egin bearrezko gauzak, euren legeakaz eginda joan daitezala gura dabe, Mundu onen berezitasunezko legeari jaramon egin barik, eta ori ezinezkoa da, "GUZURRA " ta gauzak txarto eginekoaren antzera bitzaren lez..., gain-gaiñean doazelako, gaur dagoan jakituriagaz errez eta argi-argi ikusi leikena iñungo alegin barik. Nai eurak, guzur-orreik daukien indarragaz gure aurretik erabili EGI aundi bat izan balitz bezala. " Barregarria " da, baiña olan da ! ". Noiz arte ?. Euren lotseak eraginda naikoa dala esan arte..., baleiteke gure alegiñakaz batera olango egoera baragarri bat agertzea, baiña ekintza ori izkillu barik eta bakez izan bear dan gauza da indarra euki dagian. Izkilluaren indarrak EGIA`ri, neurri berean indarra kentzen dautsolako.

Ba-dago beste arlo bat azalpen guzti oneri(beraren beste garrantzizkoa dana) izaera emoten dautsona, burdindun saltsarri (cemento armado) edo burdin, arri ta areari kare-baltzak (cemento) emoten dautson aukera gorputz burdindun saltsarrizkoa izateko danaren antzera, eta arlo ori izkuntzarena da, garrantzi aundikoa gure arremanetan aitu gaitzean eta gauza guztiak erreztasun aundiz bakoitza bere lekuan kokatzeko.

Erriak eta gizon/emakumeak txarto ibiltzen dira, ez badabe eukiten zeaztasun aundiko eta ondo zaindutako izkuntza bat. Gauza guztiaren antzera, txarto, erdizka edo beste esangura batzukin eukiten badabe euren izkuntza, euren gizarteko orekan egon bear diran gauza guztiak, danak ! orren akatsakaz agertuko jakiezelako aurrean. Izkuntza, erriaren sinismenean ekintzako-bizitzatik sortuta dagolako. " Zelangoa izkuntza; alangokoak eurak euren sinismenean ".

Euskaldunak, gure fedeagaitik eta berbakoak izateagaitik ezagutzen gaitue Mundu zabalean, eta ori ikertuko dogu azken baten, ikusi daigun

zelako garrantzi aundia daukan gure izkuntzak une onetan daukaguzan arazoak eta Munduan dagozan arazoak argitu ta garbitu daitezcan.

Asi gaitzezan ba zeazten gure Euskaldun bizia Europa`ko Euskal-lur maite onetan, argi ikusi daiten ondo ezagunak garala Europa osoan zalantzarik gabe.

Eta orretarako, Cromañon denboratik asita gaur arte edesti labur baten bidez, ikusi daiguzan zergaitik gaur sortzen diran eta jakuzan ain sinesgarrizko arazo oneik; Izadi onek daukazan legeetatik, batzuen jabetasunezko aburumen, iritzi edo usteagaitik guztiz urrun gizarte-ekintzetan bizi garalako.

### - KROMAÑON DENBORAK -

Badaukat eskuartean arlo au azaltzeko Arinda`tar Anes`ek azkeneko egun onetan emonda (2.002`an Uztaila`ren 27`an) bere lan batetik, zer esaten dan gaur, jakintsuen ikerketaren bidez, orduko denboratan gertatu ziranari begira: " EL EUSKERA Y LOS GENES BASKOS EN LA RAIZ DE LA VIEJA EUROPA " Indoeuropearren aurretik.

Baita nortzuk esaten daben gauza orreik, goimallako ikerketa ordez, orrein jakintza arloan: " Hamel`tar Elisabeth, berrien-idazlea; Wennemann`tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratiko), eta Foster`tar Peter, Cambridges`ko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea " diranak.

" Spectrun Wisenschf " Aleman aldizkari jakintsuan argitzen dabe ezagutzera emoteko, eta aldizkari au, Ameriketako " Scientific Amerikan " aldizkari biurkerazko alakoa da.

Irurak bat egiten dabe, eta baieztatuten dabena auxe da: " Europa`ren oiñarrizko gizartean edo jendearen geneetan %`tik 75 Euskaldunak dirala, eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea dala.

Onek esan gura dauana, " Euskaldunak, Europa izateko, Euskal geneak eta izkuntza emon dautsozela "da !. Ez da gutxi, esaten dau Anes`ek.

Altuna`tar Jesus`ek bere maixu-lana dan ikerketaren idaz-lanean "Euskal Edesti-Aurreko 150.000 urteak " liburuaren bidez Euskal asierak argitu egiten dauz.

Liburu orretan Josu`k esaten dauana gauza askoren artean " azkeneko izotzaldia edo Europa`ren "WURM" deritxon izotz-aldian, aberetasunezko giza-izaeraren azkeneko aldaketagaz agertzen dana eta "Cromañon" giza deituten jakonari, gaur daukagun itxuran agertu zana, "Magdalenense eta Aziliense" arteko denborak dirala, 15.000-10.000 urte Kristo baiño ariñago.

Dana dala, Aleman jakintsu oneik esaten dabena: orduko Europa`ren gezaltzean, eiztariak gezaltze orren ondorioz izotz-oreiñak (Reno) eta Mamutzar (Mamut)`en iges-aldian edo atzerakada egitean euren atsegiñezko giroan egoteko, Euskal eiztariak Europa`tik zabaldu zirala eta orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik Euskara`ren oiñarrizko itzak: "Aran, Ibar, Ur", eta abar asko.

Emen Zatarain`tar Ambrosio jakintsua izan zana aitatu bear dot, beste zertzelada bat azaltzeko. Euskal-Aleman "DUDEN" iztegia egiten egon zanean (argitu barik dagona, azkeneko zuzenketaren bearrean, denborarik ez ebalako euki), neuri, itz-zerrenda luze bat erakutsi eustan Euskal eta Aleman itzak, esaera eta idazkera bardiñak daukiezanak. Or !! ikaragarritzko Euskal lan bat bertan itzita, eta berrezkuratu bear zana.

Euskaldunak Europa onetan EZ EZAGUNAK eta NORTASUN-GABEKOAK IZATEKO, asiera txikerra da ba !!.

Arrinda`tar Anes`ek diño: "jakin aundiko gizon bi onein eta emakumeen esanetan, ez daukiela adimen edo ezagumenen gabetasunik, EDESTI-AURRE, ODOLA eta GENEAK, gaur gaiaren inguruan dakigunagaz ikerketaren bidez, ezagutzera alan emoten dabelako.

Or banandu ziran, eta bakardadeko denboraren igaro-bidean leiñu barriak sortu ziran, bakartasun orretan eta tronkaletik urrun, gai-gauzai bakotxak beren ulermeneko sinismenean ulertzen eben itzakaz izena emonda, banazeko berezitasuna gura nai-ez artuta.

Ekintza orren egikeran sortu ziran gaur dagozan erriak gure Europa maite onetan, batzuk andikerira jokutzen eta beste batzuk bakez bizi gurean, arroaren erasoai eusten. Eta garai ortan, joera onetatik Munduan bakea lortzeko gai ziranak agertu ziran, edo erromatarrek alan esate eben beintzat; baiña erromatarren bakea beste erri guztiak menperatuta euren bakea goitik bera sartuta zan (pax romana), eta orain bi milla ta bosteun urtean era berezi ori sortu zanetik berezko batzangotasunaren aukera guztiak apurtuta, gaur be ekintza bardiñakin gabiltz, arrotasun ori ain zitara dalako, nai-ta, erabilitako erak oso esberdiñak izan sasi-jainkotasunezko gogoaren asmoak ez dira aldatu.

Batera erlijioño barria eta barriak sortu ziran orduko urduritasunaren txinpartak geratu ta bakeratu naian, baiña sendoagotu baño ez eben egin, berezitasunezko arduradunai, JAINKOA`ren LEGEA`k erakusten dauskun lez bideak moztuta.

Gaur, egoera bardiñean agertzen gara, ez daukagulako duintasunik erdi-mendeko asieran artu ziran erabagiak aldatzeko, gaurko jakintasunak agintzen dauskun lez..., JAINKOA`ren agindua arduraz beteteko leenengo, eta zentzunezko gizon/emakumeak garala bigarren esateko, jarraian ikusiko dogun lez.



- ERROMATARRAK -

Keltiar, Iberoak eta Keltiberoak (La Tene 500-100 k. a.) Euskalerrian egon ziran Roma jaio zan denboretan, iru leiñuen batzangotasunetik 753 urte Kristo baiño ariñago: Ramnes, Tizio`ak eta Luzereak. Onein artean eraiki eben, gero Roma-kuadrata deituko zana Palatino mendian.

Erregetza aukeratu eben danon agintari lez eta lenengoetatik gudarako asi ziran eratzen edo apaintzen borondate aundiagaz, euren babeserako leenengo, eta euren taldea indartsu ikusi ebenean, beste inguruko leiñuari eraso eginda azpiratzeko.

Gure lurretara sartu orduko, III'ko gizaldiaren amaieran Kristo baiño ariñago, Keltiar eta Iberoak, gu baiño jakinduri askoz aundiagokoak ziranak Euskalerriaz batzangotu ziran, eta euren nortasuna galdu eben, erromatarren etsai sutsuak ziralako. Orregaitik oneikaz borrokatu ziran, adibidez: kalagurris`en, leenengo Euskaldunakaz beren lurraren aberastasunagaitik, gero erromatarrak erreustu edo ezeztatu menperatzeko egin ebena Euskaldunen laguntzaz, (ortik dator gazteleraz esaten jakon " HAMBRE KALAGURRITANA"; saguetatik asita, abereak, larruak, bai illak be jan egin ebezalako). Erria eta lurak Euskal eskuetan, andik aurrera geratu ziran, eta Keltiberarrak euki eben Numantzia azkeneko zaintokian, erromatarrak Kristo baiño 133 urte ariñago erraustu egin ebenagaz Euskalerrria eurakaz bat eginda geratu zan. Ariñago eta ostean, Euskaldunak ondo ikasi ta ikusi ebelako erromatarren indarra aundia izan zala aurre egiteko, eta gaiñera ikusita zer egin eben sartaldeko Auñamenditik sartu ziranetik, bakez artu ebezan, bestela aurre eginda, euki eben antolagabeko indarrakaz erriaren eriotza izango zalako. Ez zan lenengoena, Keltiarrakaz be, bardin egin ebelako.

Orregaitik burua guztiz makurtu barik on artu ginduezan, euren gudalozteetan be lerrokatuta. Lurra lantzeko ekarri eben tresneri guztia

on artu eta erabilten ikasi, eta era ortan abar asko. Ez eben on artu ekarri eben guztia, nai-ta euren artean bizitzarako erabil bearra izan, baiña bai Euskal ulermenean on artzen zana.

Ainbat erromatar gudalozteetan borrokatu ziran Euskaldunak; eta auek, goiko muturrean egon da Augusto`k bere gudari-talde zaintzalea guztiz Euskalduna izan eban, eta aldatz-beran asi ziran orduan be, beste kaisar jaun edo inperatore`kin ere bai. Galba`k (Servio Sulpicio 68`an K.Ostean) Euskal koorte oso bat euki eben, 300`etik 600`era gudari taldea izan leikena.

Gaur Iruña danak, len Olkairun izena eukan, gero Ponpeyo udako borrokak amaituta, Olkariun`era joan zan negua igarotzeko eta Olkariun gaiñean, Ponpelo andik aurrera izendatuko zana jaso eban, 75 urte Kristo baiño ariñago.

Euskal izkuntzarentzat, ordain aundia izan arren Keltiar, Iberiar eta erromatarren menperatasunagaz, euren tresnerizko jakintzatik izen asko artu bear genduzelako, Euskal-izkeraren oñarria edo beren gorputzeko erraiñondoaren oreka eta antolamendua, osasun aundiagaz geratu zan; naita erriberako erritxo batzuk Ebro-ibai ingurutik, jauntxo` en artean latiñegaz Euskera galdu, Euskal nekazaritzan izan ezik. Erromatar porrot`en ostean, Euskera guztia ostera be berrezkuratuta geratu zan. Eta Euskal askatasunaren egarria iñoz... ez ebalako galdu, gaur aukera aundia daukagu berriz izkera eta izatasuna ostera berrezkuratzeke, Euskadi ta Askatasuna danon artean arrokeriak alboratuta ELBURU lez artzen ba-dogu.

### - BISIGODO`AK -

BisigoDO`ak 409`an sartu ziran, eta 409`tik 415`era erromatarrak euki eben guda-indar guztia amaitu eben erdi-ugarte onetan.

Erromatarrak deseginda, Euskaldunak beren Nortasuna berreskuratzen asi ziranetik (arin egin zana), euki eben borroka nagusia berdintasuna lortzeko izan zan, Euskal-apal eta Euskal-aberatzen artean (gudalozteetan erromanizatutakoak). Erroma`tar izaera ori ez zalako ezkontzen Euskal Askatasunaren Berezitasunagaz. Aberatsak euren norberkerian nortasuna galdua euki ebelako, guztiz erromatarren eritzian egoteagaitik ziran borroka gogor areek, gaurko lez.

Godó`ak 415 urtetik aurrerantza, guda sutsuan borrokatu ziran ugarterdi onetan erromatarren kaisar-jauntza euren agindu-pean eukiteko.

Erriak zuzentzeko ekarten ebezan erromatarren jaurkintzazko erak antolatzeko, Godó`ak 476`an guztiz desagertzea lortu eben, eta 481`etik aurrera Euriko`gaz asita, Espaina`ko menperatasunaren billa asi ziran.

Euskalerrian Godó`ekin ez zan gertatu erromatarren aurka gertatu zana, ez da antzekorik be. Erromatarren gudalozteetan ibilita zeozer ikasi gendulako, beti aurka egin geuntson, eta oneik erromatarren antzera gudarako antolamendu aundia euki arren, gure mendietan sekula ez ziran sartu. Bai alderantsiz buruko min aundiak artu, gure arbasoak bertatik sasi-gudan ekiten ebelako, mendiak etxea lez artuta babeserako.

Godó`ak, Euskalerria menperatzeko ez eben ekarten erromatarren ainbesteko indarrik, eta nai-ta 300 urte luzeetan ekintza gogorrean ibili, gure Nortasunarentzat ez eben garrantzi aundirik euki.

Gure Erriaren edesti lez esan leike: " godo`akaz euki genduzan guda-borrokak iraun ebela, godo`aren erregetzak iraun eban aldian " ; nai-ta eurak beti esan bearrezko esatea izan errege bakoitzaren edestian: "ET DOMUIT VASCONES ".

Emen be argi ikusten dana, Euskaldunak nai-ta nai-ez, oso ezagunak izan bear giñela Europa guztian, Batez be, orduan, gure lurak askoz zabalagoak izan ziralako.

- KRISTAUTASUNA ETA ERLIJIOA -

Erromatar kaisar-jaunen sasiainko menpekotasunaren izaera, eta gizartean aberetasunezko eginkizuna ezereen lotsa barik izateak, Kristautasunak ekarren moralai edo ekanduzko zendotasun alegin barriari ezin bestean lagundu eutson, eta kristautasuna jendartean, sutauts`en antzera zabaldu eta onartua izan zan Europa osoan , Afrika`ko iparrean eta danez gain Ekialde erdian.

Gaiñera, ezereztuteko euki ebazan (202`an Septimo Severo) jarraipenak, askoz geiago goratu eben; ez berak indarra euki ebalako, bai erromatarrak berez menpekotasunaren sortzailleak ziralako eta goibera oso baten sartuta egon ziralako.

I Konstantino 306`an igon eban kaisar-jauntzara eta Bizanziora eroan eban erromatarren uri-nagusia, Konstantinopla andik aurrera deituko zana. Baiña leenengo, Galeno`k 311`n Sardika`ko legearen bidez askatu ebazan Kristautasunaren jai-arauak, Konstantino`k 313`an Milan`eko agindua emon ebanagaz Valerio`k baiztatu eban.

Amabi urte beranduago 325`an, Nizea`ko Eleiz-Batzar nagusia batu eben bere agindupean, eta bertan Arriano`ren irakaspidea baztartuz katolikotasuna (latin katholikos`etik datorrena, eta orokar edo guzientzako dana. Eta berau Grekoera`tik: Kata`r= Ulertza esangura dauana eta: Holos= dana, edo dan guztia esangura dauana) besarkatu eben.

Eritzi au ez dogu galdu bear ikusmenetik, gero Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusiekin sortu zana VI gizaldian zergaitik izan zan jakiteko, eta XV gizaldiko katolikotasunagaz zer gertatu zan, oraindik eta gaurko askatasunaren bideak debekatzen dauazana.

Erromako kaisar-jaun guztiak Konstantino`tik asita, Juliano eta Eugenio ezin ezik, kaizergo menperatzail aginpidea Eleiza`gaz batera indartu gura eban, eta orregaitik danon buruetatik gaiñeratu eben itz katolikotasun ori, eurak eritzi ori sinestu ez arren. Eta ortik aurrera Eleiza izan da 1453 urtean Europako kaizar-jauntza gorde eta zaindu egin dauana, indarra batzuen eskuetan bakarrik egon daiten, beti asmakizun zikin orren barruan (Espaina`n Rekaredo`kin 589 urtetik onantza Toledo`ko Eleiz Batzar Nagusietan= concilios).

Batera, Konstantinorekin Kaisartzza eta Eleiza JAINKOA`ren ordezkoa zala Ludi onetan erabagia artu zan, eta ortik aurrera or !! ibili dira sinis-egiakaz gora ta bera dana naastuten.

Euskaldunak erromatarrekin beti konpondu ziran euki eben sinismenarekin, eta alan irauan eben kristautasuna besarkatu arte. Gaur be konpontzen da, bere sinismenean JAINKOA`ren egarri betea daukalako; orregaitik daki, kristautasunak berezitasunaren aurka dagoala, Nizea`n 325`eko urtean artutako leenengo asmakizunak ez diralako alboratu, eta eritzi orren bidetik doalako gaurko Globalizazioa Ameriketako kaisar-jaun barri`en babesean. Orregaitik erlijioaren utstasuna, nai-ta Europa eta erri guztiko gizon/emakumeak JAINKOA`ren egarri izan.

Gaur Europa`k eta Mundu`ko giza guztiak badakigu, danok ardurak zaintzeko jaio garala lotsagizun aundiz. Baiña betiko lez, badagoz guztiz oker dagozenak, esaten dabelako: " eurak danon ardurak zaintzeko naikoa dirala ". Eta ez-badozu gura euren eritzia on-artu: " KURUTZERA ".

Lenago asmakizun orreik izkutuan eroaten ziran, erritarren artean gitxik baiño ez ebalako jakin irakurten eta idazten. Baiña gaurko gizarteak asko daki lez..., eta aundiena: JAINKOA`ren LEGEA`kaz beartuta, Nortasunaren egarrizko ardurak eragiten diralako, NORBERKERIKO guzurak, berez, eta agiri agirian danon begi-bistan geratzen dira.

" ORDUA DA MUNDU ONETAN ZUZENTASUNEZKO ERABAGI-ON  
ETA SENDO BAT ARTZEKO ". BESTELA, GAURKO ZIBILIZAZIOA:  
"NEGARGARRIZ, BARREGARRIA IZANGO DA ".

- MAURITARRAK -

Gure erriaren askatasunarentzat, eta ez guretzat be, arabiarrek ez eben euki gal-zori edo ezetako galbiderik, nai-ta leenengoetan Iruñean zeozer en asmoak euki, baiña gure alegiñekaz gogo ori laster joan jakien.

Nik esango neuke askoz geiago artu genduela eurogandik guk emon baiño; danez gain jakituria, eta ez gaitazan aaztu, gure Nafarroa`ko erreñua sortzeko, Banu-Qasi sendi mozarabe aldetik, Ebro-ibai ur-bastarrean kokatuta egon ziranak, nolako laguntza artu gendun 824`an.

Eta emen ikusten doguna, European bakarrik ez gintzala izan oso ezagunak Iparraldean Loira`tik-Ebro egoalderarte; Auñamendi guztia Sortalde, Eki-alde edo Eguzki-aldetik; eta Burgos ta Gaztelarrak Sartalde, Ospel-alde edo Mendebaldeko lurraldeetan gu izan giñelako, bai Afrikan eta Europa osoan bizi gintzazan guztiak, oso ondo ezagutzen gintzalako. Gaur ikusiko dogun lez, alegin eta indar ikaragarriak egiten diran lekuan berezitasunezko erri-arteetan ezagunak ez gaitazan izan; iñork jakin ez daian nortzuk diran benetako arduradunak.

Gaur, zelan ostondu leike berezitasunezko Mundu au....., eurak, menperatzaileak, nai dauena egin dagian ?.

" ORDUA DA MUNDU ONETAN ZUZENTASUNEZKO ERABAGI-ON  
ETA SENDO BAT ARTZEKO ". BESTELA, GAURKO ZIBILIZAZIOA:  
"NEGARGARRIZ, BARREGARRIA IZANGO DA ".

- MAURITARRAK -

Gure erriaren askatasunarentzat, eta ez guretzat be, arabiarrek ez eben euki gal-zori edo ezetako galbiderik, nai-ta leenengoetan Iruñean zeozer en asmoak euki, baiña gure alegiñekaz gogo ori laster joan jakien.

Nik esango neuke askoz geiago artu genduela eurogandik guk emon baiño; danez gain jakituria, eta ez gaitazan aaztu, gure Nafarroa`ko erreiñua sortzeko, Banu-Qasi sendi mozarabe aldetik, Ebro-ibai ur-bastarrean kokatuta egon ziranak, nolako laguntza artu gendun 824`an.

Eta emen ikusten doguna, Europan bakarrik ez gintzala izan oso ezagunak Iparraldean Loira`tik-Ebro egoalderarte; Auñamendi guztia Sortalde, Eki-alde edo Eguzki-aldetik; eta Burgos ta Gaztelarrak Sartalde, Ospel-alde edo Mendebaldeko lurraldeetan gu izan giñelako, bai Afrikan eta Europa osoan bizi gintzazan guztiak, oso ondo ezagutzen gintzalako. Gaur ikusiko dogun lez, alegin eta indar ikaragarriak egiten diran lekuan berezitasunezko erri-arteetan ezagunak ez gaitazan izan; iñork jakin ez daian nortzuk diran benetako arduradunak.

Gaur, zelan ostondu leike berezitasunezko Mundu au....., eurak, menperatzailleak, nai dauena egin dagian ?.

- GURE ASKATASUN`aren AZKENEKO DENPORAK -

Orain arte ikusi doguna: nai-ta len Frankoa`k aipatu ez, eta Godoa`kaz batera, amaitzen dala Europa`ren ikas-ekitaldi bat Kromañon`en Euskal denboratik asita eta Europa guztitik zabaldua. Euskal berezitasuna zutik agertzen dala, beren guztizko demokraziagaz, edo askatasunaren ametsarekin, ainbeste borrokaldi ta leiaren ekintza bidetik.

Orain ikusiko doguna, gure erreñua sortu zanetik, norarte iraun eban gure askatasunak, eta gaur zergaitik gabiltzan guztiz borrokan sartuta, batzuk kendu gura dauskuen askatasuna ostera be berrezkuratzeko.

Baiña gaiñera konturatu bear garena, erromatar`ekin asita gaurko egunerarte, borroka bat bakarrik izan dala, eten-bako ari bat bezela Europa`ko edestian datorrena apurtu barik, gaur Mundu guztira zabaldu dana: Menperatasunezko indarrak, berezitasunaren askatasuna apurtu gurean.

Eta ekintza orrek esangura dauana: gizon/emakume batzuen asmoak, JAINKOA`ren LEGE`ak kontuan artu barik, eurak agindu edo beartu gure dabela "sasi-jainkoarenak eginda, Mundu onen antzoki edo ezin besteko agertokiko antzerkian gizarte guztiari da.

Baiña danez gain begitu bear doguna, gure erreñua sortu zanetik, Euskal-Nortasuna zelan joan dan berakada txiker batetik lenengoetan asita, eta malda-bera aundi baten borboi`en ezarpenetik, Euskal gizartea oso bananduta geratuz, gaur ikusten dan lez. Ta karlistadaren ostetik, Sabino`ri esker, zelan joan garan gure izatasuna berrezkuratzen, gaurko egunean agertu arte.

Nik esango neuke zalantzarik gabe, Mundu`ko irugarren borroka nagusian sartuta gagozela daukagun "Berezitasunezko eta Menperatzaileen" artean, betikoa dan eztaibadarekin.



781`an, Karlomagno`k bere iru urteko semea " Luis el Piadoso " Akitania`ko errege izendatu eban, bere eskuetan geratu daiten, Euskal-berezitasuna desagertzekoaren naian, baiña Euskaldunak euren Nortasunagaitik tematsuak izan ziran lez, beti berrezkuratzen eben eurena zana.

Gure erregetza, 824`an Aritza`tar Iñigo`rekin Nafarroan asten da. 852`an " Dukado de Baskonia " argiratu zan Mitarra`tar Santxo leenengo dukea izan da. 870`an, Bizkaia`k Leon`eko erreñutik aske geratu gura dau. Leon`eko erregea orduko denboratan Ordoño izan zana, Bisigodo`aren aginpidea edo kaizar-jauntza (centralismo) berrezkuratu gura ebana, eta beren gudalozte indartsuagaz etorri zan Euskaldunak menperatzeko asmoakaz. Oneik Padura`raiño sartzen itzita, bertan ikaragarrizko triskantza egin eben euren gudalozteagaz, Ordoño bera be ilda, andik aurrera "ARRIGORRIA" ga deitukozan erritxoan ixurikatu zan odolarekin.

999-1036`an III`garren Santxo Aundiaz agertzen gara, eta beraz gure izaeraren aundienean, Euskal izkuntzagaz lotuta egon ziran leiñu guztiak batera agertzen diralako. Loira ibai`tik, Akitani ta Gaskuña guztiaz, gaurko Euskalerrriagaz, Gaztela`tar eta Aragoi`tar en duke-lurrakaz, Iparraldetik Egoaldera, eta Leon-Asturias`etik eurak be barruan dirala, Ilertarrakaz Lleida`ren amaierararte, Mendebaletik Sortalderaiño. Baiña kontuan euki bear doguna: beragaz eta bertan asten dala gure etenbako malda-beerakoa, nai-ta lenengoetan txikerra izan bazan be, gero esango dodazan gauzakin aundiagotu egiten dana, ia, ia, gure Nortasuna desagertu arte.

III`garren Santxo Aundiaz, Europa`ko erri aundiena Euskalerrria izan zan, eta 1034`an erregea " Waskonun Gens " " Waskonun Nationen " edo " Nacion Baskona " ren " Imperator " edo Kaizar-Jaun izendatu eben.

Baiña III`garren Santxo Aundia 1.036`an iltzen da, eta orretarako 1.035`an erreñua bere lau semeen artean banatzen dau: Iruña`ko erreñua III`garren Garzia Santxez`eri; Gaztelarren kondetza Fernando`ri; I`go Ramiro`i Aragoi`ko kondetza; eta Sobrarbe-Ribagorza Gonzalo`ri, ostean danak erreñuak egin ziranak eta Euskal-izkuntza guztiaren batasun-politikua andik betirako apurtu ebana, Euskal-legea ez ebalako kontuan euki. Errien gaiñetik euren izaera zala aunditasunean sinisten asi ziralako. Europa`ko erreñu guztietan aundikerien asmo ori, erriaren gaiñetik eurak zirala, bardin bardiña zan, Katolikotasunaren itzak euroi emoten eutsielako arrokerizko aundikeri ori, eta gero ikusiko dan lez ikaragarritzko kalteak Europa`ri emon dautsozenak, gaur be ez garalako gai orko zulotik urteteko, naaste onetan guztiz zikinduta egonda, bakotzari berea emon ez arren.

Gure Nortasun eta Izkuntzarentzat, emendik aurrerako denborak dira maldan-beerako aldapa geiago okertzen asten diranak.

XII`garren gizaldian eta 1.150-1.194 urteetan Santxo Jakintsua`ren errege denboran, gure izkuntza aunditasun guztiaz "Lingua Navarrorun" izendatu eben, eta Iruña`ko erreñua`ri "Reino Navarrorun", baiña Euskaraz sekula be ez zan idatzi Nafarroa`ko gorte edo erregetxean aolku edo argibide bat bera esanda be, lateraren indarraz erromantzeraz idazten zalako, latera berezitasunezko izkuntzaren gaiñetik ezarrita.

Or ! geratu bazan, ez zan izango gauza aundirik, gure Euskara`ri sortuko jakona, Gaztela`tarrengandik asita Euskera izan zalako danon izkuntza, baiña laterazko izkuntza eta kristautasun ugaritasunen jakintza batera joan ziralako, eta kristautasun erlijioaren siñezbidea danean ezartzeko, premitasun edo ikaragarritzko leia egon zan lez (begitu bestela zelako astokeriak gurutz-gudaldietan egin ziranak, eta gero ta gogorratuagaz inkisizio edo fede-zainengandik ezin besteko zigortasunakaz ezarrita egin ziranakaz), berezitasunezko izkuntzak eta

batez be Euskera, siñezgaitzaren izkuntz-lez artu ziran, MARI sinezgaitzaren izkuntzak ziralda esan da.

A ta guzti be, Euskeraren sendokuntza galtzen joan arren, ez zan izan errian, goortetan edo erregeetxetan baiño galtzen joan zala, eta errian beranduago, XIV`gizalditik aurrerantza: Euskera , Ebrai-izkuntza eta Mauritarrena sinezgaitzazkoak ziralako, euren ta kristautasun egokitasunagaitik erregeetxetik bialduta. Ortik agertzen dira, geroago guk be ainbeste bider entzun doguzan gure Euskeraren kalterako azpizkerizko bai maltzurkerizko iruzurtiko esaerak: " HABLE USTED EN CRISTIANO ".

Gauza onekin apurbat kontuan jausteko esan bear dogu: 1.200`engo urtean Gaztela`ko erregeak Ojakastro`ri, Fuego`ak emon eutsozela, epaiketa guztietan Euskara erabiltzeko, beste izkuntzarik jakin ez ebalako Ojakastro`ko erriak.

Emendik aurrera, gero ta argiago ikusiko doguna gure Europa maite onetan, Euskaldunak oso ezagunak ziralda leenengo, eta erriak erregeakaz itzarmen edo elkargo baten antolamenduagaz euren babeserako eratu egiten ziralda, nai erregea nor-beren errikoa edo atzerrikoa izan, bigarren.

Orregaitik, Araba 1.200`ean guda`ren bidez Gaztelatarren gaitik menperatua izan bazan be, 1.332`an Araba`tarrak beartu ebezan Gaztela`ko erregea euren Jauna izan daiten (Señor).

1.224`an Bizkaia Nafarroa`ko elkargotik banandu zan. Baiña zoritxarrez, 1.379`an gure Jaun Aro`tar Juan`eri buru gaiñean Gaztela`tarren koroia ezarri eutsoen, eta andik aurrera eurak ziran Bizkai`ko, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa`ko Jauna`k, baiña ez lege-egilleak, 1.839`an Agorrilla`ren 31`n Espartero`k Bergaran, Euskalerrria oinpean mendekatuarte.

Emen aitatu egin bear doguna, Gaztela`tarren erregetzak, Nafarroa`ko erregetzak baiño obeto aituten ebala Euskal Askatasunaren egarria, Nafarroa`koak beart-erazle`en batzangotasunezkoak ziralako; orregaitik

Nafartarren erantzuna erregeari: " NI ZURE BESTE, DANOK BATERA ZU BAIÑO GEIAGO ". Eta ez gaitazan aaztu, orduan danak Euskaraz egiten ebela. Orregaitik gure Laterrietan " FORUA`k ", Euskalerrian batzangotasunezko babesak eta Jaurkintzak, beti izan diralako elkargoaren bidez, gure erriaren berezitasunezko jokabidearen " UNE " beti askatasunen bidezkoak izan diralako.

Baiña Kristau-erlijioa gero ta indartsuago joan zalako, gure erregetza, jauntza, gorte eta jaurkintzaren gizon/emakumeak Euskal giza-barrena guztiz galtzen asi ziran, norkerietan ibili ziralako eleiztarrak bultzatuta, erritarren baiño beste goragoko mailla baten kokatu ziran, Europa osoan bardin sortuta, erregetza guztia senitartetuta geratu zalako, eta errege katolikoetan ikusiko dana, ots-aundiko edo fazakerizko katolikotasun itz ori, aundikeri ortarako ipini eutsielako. Orregaitik, Fernando`ren ekintzan Nafarroa`ri buruz, ikusten da, berak oraindiño euki ebala Euskal arima`ren nortasunezko izaera, Nafarroa menperatu eban ostean, lotsagizunezko ekiña`gaz zaindu ebalako bera bizi zan artean.

1.504`an Isabel katolikoa il zanean, Fernando Aragoi`ko beren erreñura bigaldu eben, Juana bere alaba Austria`ko Felipe " el hermoso" rekin ezkondata egon zana Gaztela`tar en erregetzara igonda.

Oneik, Nafarroa`ko erregeakaz 1.506`an Agorrilla`ren 27`an adiskidetasunezko alkargo bat sinatu eben, Fernando`k ezer jakin gabe, eta ortik ikusiko dogu zelakoak ziran bere asarreak.

Fernando bitartean Foix`tar Germana`rekin ezkondu zan eta seme bat euki eben. Oneik, Frantzia`ko erregetzaren oiñordezkoak ziralako, ortik aurrera, Espaina`ren aberrikoari ikaragarritzko urduritasuna sartu jakiela, Felipe " el hermoso " ur apur bat edanda il zan, Juana zoratu eta Germana il zalako, bai semea be, Fernando`ri deitu eutsien Gaztelarren erreñuan errege ordezkoa izateko.

Eta emen, garrantzi aundiko galdera bat agertzen jaku: Zergaitik ez eutsoen Zizneroz Kardinalari deitu ?.

Felipe erregea il da, Frantzez eta Gaztelartean gudaren keiñadura sortu zan (alan esan eben beintzat), eta Fernando`k orren egoeraren unetxoan gozatu eban Naparrak zigortzeko. 1.512`an Uztailla`ren 21`an Alba dukearen guda-indarrak Iruña aurrean geratu ziran, eta iñungo borrokarik gabe 25`ean uri`ko giltzak Alba`ri emon eutsoezan.

Fernando`k, nai-ta guda eskubideakaz ezarri beren ekintza, Done Fransizko Xabier`en aitari, legezko Nafar-erregearen aldekoa gorputz eta arima guztiaz izan zanari, euki eban aginpideko lan errege-aolkularitzari, lotsagizunez il arte itzi eutson. Nafarroa`ko Forua`ri zinegin eutson 1.513`an Epailla`ren 23`an, eutsi egingo ebala Nafartarren jaurkintza guztia, gero 1.515`an Tudela`n sinatu zan alkargoarekin, Nafarroa`ko erregeari andik aurrera antolatzeko bideak moztuteko.

Fernando, 1.516`an Urtarrilla`ren 23`an il zanean, Nafarroa`ko erregeak osteran be gudarako leiatsu agertu ziran, baiña aurrean Jimenez de Zizneros`tar Fransizko, Toledo`ko kardinal nagusia, fede-zain (inquisidor) aundiena eta orain errege-ordea zana agertu jakien, eta atzera egin bear eben. Zisneros`ek koronel Villalba`rekin Nafarroa`ko gaztelu, eleiza eta dorre guztiak moztu ebazan, ainbat Nafar ilda eta ereiñeko lurak kiskilduta. Triskantza au eginda, Villalba koronelak Zisneros`eri idatzi eutson: " Navarra està tan baja de fantasia después de que vuestra señoria reverendísima mandò derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza ".

Zisneros, 1.517`an Azaro`ko 8`an il zan, eta Nafartarrak osteran be gudarako aupatu ziran, Noain`en 1.521`ean Bagilla`ren 30`ean guztiz apurtuta geratu ziranak. Andik aurrera, Espaina`ren I`go Karlos, Alemania`ko V`garrena eta Nafarroa`ko IV`garren errege izango zanaren eskuetan geratu zan dana. Onek, Beenafarroako`ak bertan itzi edo ukatu ebazan, eta Auñamendiak berezko muga baten antzera geratzea lortu eban.

Eta emen argi ikusten dana, erregeak elkargokoak izan arren, azpikeriko joko baten bidez, erri-berezien urtutasuna edo suntsitutasuna gura ebela, baiña erri guztiak iltea lortu ezin leikelako..., alkargoan iraun gendun Austria` tarren erregetzaldi guztian. Eta nai-ta denboraldi orretan Euskal gizon/emakume askok nortasuna galdu, apur apurka Madrille`ko jauregiaren lorio-bideetan (pasillos) zatika jausten jakielako eta aundikeri edo norkerizko jokoa batzuentzat atsegiñezkoa izan zalako, Euskal erriaren berezitasunezko izaera XVIII`garren gizaldian gorputz oso baten agertzen da, sinatutako alkargo edo itzarmenaren bitartez Espaina`ko erregeakaz gure jaun lez.

Eta aspertu ziralako itxaroten, berezitasunezkoak ez gintzalako urtzen, V`garren Felipe borboia ipini eben, ia gudaren bidez, Ugarte-erdi onen berezitasun guztia desagertzen eban. (Gaur be, ori asi dira egiten alkarteko legearekin, Batasuna`ren aitxakiagaz).

Ortik aurrera indarraren bidez gura eben, berezko erriak eta izkuntzak desagertu daitezcan, eta ekimen orreri laguntzeko, Frantzesak 1.789`an iraulpen gogor bat egin eben, izen bereziak elburu lez ipinita, Europa`ren berezitasunezko erri ta gizartearentzat, azpikerizko edo iruzurrezko joko aundi bat izan zana.

Erregetzaren lillura ta indarra ortik aurrera galdu zalako XIII`garren Alfonso`gaz amaitzen da 1.931`an Jorrailla`ren 14`an, nai gaur ordezeko erregetza euki arren, gudaloztearen indarrak erriaren buru gaiñetan espatak ezarri ebezan Europa guztian, eta ainbat borroka, eriotza, espetxe, negar eta egon-eziñaren bidetik, gaurko egunetan be arazo bardiñekin gagoz, menperatzailleakaz irugarren Munduko borroka nagusienean, ikaragarrian iruzurrezko Batzango edo Globalizazioarekin.

XIX`garren gizalditik gaur-arte, erri berezien askatasuna guztiz menperatuta dago, eta daukiezan izen bereziak ostonduta, oial edo errezelpe antzeko baten. Baiña nai-ta izena ikusi ez arren, " guzurrezko ESTADUA" ren estalkipean dauan mugialdia eta ataraten daben

arrabotsagaz Europa guztian erkidetu egiten gara, eta ekimen orrek, nai izenak apurbat aitzuta euki arren, ez diralako ikusten, gogora beti etorriko dira.

Orregaitik European, Euskaldunak eta erri-berezi guztiak oso ezagunak gara, Europa`ko erri berezitasunezkoak lez.

Baten batek esan dau...., Euskalerrria European ez dala bizi ?.

### - LABURPENEA -

SARRERAN: ikusi dogu, zelako zentzutasunaren gogo-zabalean idatzita dagon idaz-lan au, itaun arrigarrizko bat askenean egin bearrezkoa izanda: " gaurko egunean, zelan egia izan leike, Euskalduna`k Nortasunezko Berezidunak izanda, Europa`n beti danik bizi dirala, esanbearra izatea ? ".

Bai-ta gure aldetik edo berezitasunezko erriaren seme aldetik salatuaren edo erakutsiaren bearra, gizon ta emakume batzuen sasi-jainkotasunaren norkerizko jokua asieratik asita, apurka apurka igoten dauala mailladunezko menperatzaillak biurtu arte. Eta zelan euren guzurrak edestian zear lotuta dagozan eten-bako eritzi bategaz gaur arte, leenengo guzurrak gaurko guzurrarekin bardiñak eta bat dirala, lotuta dagozelako esan bearra: JAINKOA`ren LEGEA`k len eta gaur bardiñak diralako.

Eta bide onetatik iraun ezkerro, gaurko Mundua`ren egoera edestian zear barregarritzkoa izango dala.

Bai, erri baten Ariman, zelako garrantzi aundia daukan bere izkuntzak, Nortasuna sendotzeko.

- KROMAÑON DENBORAK -

Zelan European, oiñarrizko gizartearen geneetan, %`etik 75 Euskaldunak dirala, oiñarrizko izkuntza Euskara izan da. Eta Kromañon giza deituten jakonari, Europa guztitik gezaltze denboratan zabaldu ziralako izotz-oreiñak eta mamutzar`en atzetik, gaur Europa`ko izkuntzetan agertzen diran " Aran, Ur, Ibar " eta abar asko itzak, Euskal izkerakoak dirala.

Eta Arrinda`tar Anes`ek zelan esaten dauan egia dala: " edesti- aurre, odola ta geneak ", gaur gaia`ren inguruan dakigunagaz ikerketaren bidez, alan emoten daualako.

- ERROMATARRAK -

Emen ikusi doguna, Keltiar eta Iberoak aienatu, aldendu edo urtu egin ziralako, erromatarrak etorri ziranean, eta oneik desagertu ziranean gure artean ainbeste denbora egon da gero, bereala berrezkuratu genduzala gure Euskera ta Nortasuna.



- BISIGODOAK -

Oneik, etorri ziran orduan, naiko lan euki ebala leenengoetan, erromatarren menperatzail aztarnak edo oiñatzak gizarteko jaurkintzaren antolamendurako legeak ziranak arlo guztietan ezeztuten, euren berezitasunezko menperatzail eritziagaz xabartu edo gain-marratu arte, Euskalduna`k bitartean gure sedokuntzan aleginduta.

Eta gure borrokak eurekin iraun ebala, Godo`en erregetzak iraun eban aldian, nai-ta " ET DOMUIT VASCONES " esan, erregetza amaitzen eben bakoitzean.

- KRISTAUTASUNA eta ERLIJIOA -

Emen ikusten doguna, erromatar menpekotasunaren izaera, izatez-kontrako edo jatorriz besteko oso gogorra eta zakarra izan zanak, Kristautasunezko moral edo ekandua`ri, asko lagundu eutsola.

Baiña zelan IV`garren gizaldian, Konstantino erromatar kaisar-jaunak Eleiza eureganatu eben Mundu onen gizartea indarkeriaz eta beldurrez euki eben menperatzail asmakizunagaz, andik aurrera batzangotuta bizi gaitazan gai-katolikotasunaren itz-erreñuan. Non geratzen dira..., JAINKO sort-arazlearen LEGEA`k eta Kristau moralala ?.

Orregaitik kristautasuna, erri ta izkuntz bereziaren aurkakoa biurtu ebalako, beti danik daukaguz eten-bako borroka latzak.

Oraintsuarteko gudak, beste asmo batzuen gandik sortutakoak zirala gogoratzen giñan, baiña ez da egia, beti izan diralako sasi-jainkotasunaren menperatasunezko indar-aginpideagaitik. Orregaitik " POR LA GRACIA

DE DIOS " " DESTINO EN LO UNIVERSAL" en ametsak eta " HABLE USTED EN CRISTIANO " bai abar asko be, MENPERATZAIL-ERITZI " orren LORAK baiño besterik ez dira, berezitasunaren aurka.

- MAURITARRAK -

Emen ikusten doguna, oneik be menperatzail zaleak zirala, baiña gure Euskalerrrian ez ebela kalte aundirik egin. Euregandik mesede geiago artu gendulako ikasiakaz eta gure Nafar`tar-erreñuaren sorkuntzarako Banu-Qasi sendi gandik artu gendun laguntzagaz.

- GURE ASKATASUNA`ren AZKENEKO DENBORAK -

Emen ikusten doguna, zelan gure erregetza jausten dan katolikotasunaren sare-artean eta erriagandik urrunduta, ortik aurrera Europa`ko erregetzaren kaisar-jaunen aundikerietan ezarri zalako, Euskal-Nortasuna galtzen joaten dala, gero III`garren Santxo Aundiak Euskal legearen aurka egin eban astokeriagaz.

Austria erregeakaz, gure alkargo ta Foruak zaindu genduzala, baiña XVIII`garrengo gizaldian Espainola`k V`garren Felipe borboia erregetzan ezarri ebenetik, zelan alegindu ziran, Frantzian 1.789`ko iraultzaren eredia artuta eta izugarritzko guzurra izan zana: "Frantzia`ren erregea , Frantzesaren errege biurtu zalako", bere muga barruan euki eban erri berezitasunezko guztia frantzez biurtuta; gogortasun guztiaz erdi-ugarte au mendekatzen gudaloztearen bidez, gero 1.839`an Espartero`k guzur aundi bategaz oinkatu ebana.

Ortik aurrera Europa`ko berezitasun guztia daukagu estalki aundi bat gure buru gaiñetan, berezitasunaren Nortasuna ostontzeko.

Eta jakiteko leenengotatik asmakizun bat dala, erregetza desagertuarren, nai-ta oraindiño zeozer geratu, espatak gure buru-gaiñetan ezarrita dagozala " ESTADOS DE DERECHO " estalkipean ostonduta eukiteko.

Euskalerria ortik aurrera eta orren estalkipean, borroka bizian irauten dau, bere gizon/emakumeen ta erri arduradunaren askatasuna lortu arte.

- IZKUNTZA -

Erri baten ekanduzko eraikintza da !, bere azalpenean Erria`ren siñismena erakusten daualako.

Orregaitik, Itza, Arimaren otsa biurtzen danean, JAINKOA`ren seme-alabak berba egiten dabe edozein izkuntzetan, eta batez be Ludi onen Euskera izkuntz zaarrenean, bere mamian ikas-bide aundiena daukalako beti JAINKOA`ri begira.

Ortik aurrera, ARDURAK zentzunezko egi-zendotasunean bete egiten diralako, dator: " EUSKALDUN`en ITZA ". JAINKOA`ren ABERRI`rako bideak zabaltzen dauana gizarteko erri-berezien ekintzatik.

JAINKOA`ren LEGE`en bidetik: " NEURRIAN ARDURADUN IZATERA BEARTU GAITULAKO ".

- EUSKALERRIA BETI DANIK BIZI DA EUROPA ONETAN -

ORREGAITIK EZAGUTU BEAR GAITUE EUROPA`N GURE IZAERA BEREZIAN, BORROKA BARIK, BAIÑA INDARTSU, ELBURURA BEGIRA, JOKO-ON BATEN BIDEZ.

- ATUTXA`tar PAUL: ZORNOTZAN 2.002`an URRILLA`ren 12`an

- DEMOKRAZIA`ren DENBORA`k -

Denbora oneik dira berezitasunaren aldeko giza-semeak edo JAINKO SORTZAILLEA`ren aldeko seme/alabak, atsegin aundiz gozatu bear daben denborak askatasunaren alde Ludi onetan, indar eta borondate guztiaz jokatuta.

Beragandik nai-ta nai-ez artzen doguzan ardurak leenengo beteteko, eta bear dogun bakea lortzeko bigarren, leen aldiz ezin-bestean artzen doguzan ardurak, bakean eta lotsagizun aundiko giroan, zeaztasunezko arrazoian bete daiguzan.

Zentzuz bete bear dogun ingurua da, nai-ta teenta-bereko edo bizitzeko doñu bakarra dala baten batzuk esan, euren legezapaltzailleak aurrera eroateko.

Orregaitik emen agertzen jat ikaragarritzko itaun bat: denbora gutxiko epe baten jaio ta il egin bear dauan gizon/emakume batek..., Ludi onek daukazan legearen aurka..., beti jokatu bear dabe ?. Iñozotasunaren denborak ete dira ba..., Ludi onetan JAINKOA`k ipinitako legeari, ainbeste iruzurrezko iseka eta txantxa egiteko ?. Baleiteke !.

Euskalduna beti danik bete dau bere eginkizun guztia JAINKOA`ri begira, asieratik konturatu zalako Ludi onen izaera Beren Legeakaz erperatuta dauala. Orregaitik Euskalduna antziñatik ordezkartzaren neurrian oso arduraduna da: " Beren Askatasunezko Oiñarriaren UNE dalako ".

Orrela jokatu ez-gero, ulertzeak ez eban eukingo zailtasunik kontuan jausteko: " guk ez dakigun zeozerretako dala, gure nai-ta naiezko, garan, neurri andiko bizitz onetan agertzea, ain epe laburrean.

Leenengo eraiki genduna, izkuntza zan, gure artean ulertzea bear-bearrezkoa izan zalako. Eta eraiki be, eurak Ludi onetan

aituten ebenakaz sinismena aundiagotuz, ulermeneko zer-  
ikusiarene zendotasunean.

Eta oiñarte zaindu dogulako daukagu, asieratik eraikita dan  
izkuntz-zaar eta ederrena. Bere mamian, gizartearen  
arremanetan eginkizun-on eta txarrentzako itzak izenduta, Ludi  
onen legeakaz berdintasunean ezarrita, benetan burutakizun edo  
gogai ederrak dirala.

Beragaz ikasi gendun elkartasuna edo batzangotasunaren  
(globalizazioa) nausitasuna gizartearen babeserako, norbera  
gandik asita, sendi, auzo, leiñu eta Erria izan arte.

Ararte ondo joan zan gizart-ulertzearen arreman guztia,  
bakotzaren eta danon ardurak lotsagizun aundiz eta bakez  
zaintzen ziralako. Baiña erromatarrak agertu ziran arro !, bai  
ikaragarritzko antolamenduaz borrokarako eta euren latiñegaz  
izkuntz guztiak menperatzeko, esaten ebanak: " eurak zirala  
naikoa danon ardurak zainduz bizitzea aurrera eroateko ". Eta  
alan alegindu ziran JESUKRISTO be erioztuta.

Oneik be joan ziran, berezitasunaren aurka ezin dalako  
borrokatu denbora luzean, oso makalak garalako beren aurrean  
eta JAINKO SORTZAILLEA`ren aginduaz, guretzat egin  
ebalako Ludi-berezi au; orregaitik da Mundu onen gaia bizitzaren  
sortzaillea eta betikoa dana, gu ordezekoak izanda denboraren  
epe labur baten.

Eta emen geratu gaitazan unetxo baten, ikusi daigun zelako  
itz-berezi ta ederra daukagun gure aurrean; bai sinismenean  
daukan gogai-aundi ta zentzuan edertasuna ikasi daigun.  
Berezitasunaren itzak, alkartu egiten daualako ezangura  
bardiñean JAINKO SORTZAILLEA`ren LEGEA gure bearrezko  
antolamentuan, zuzentasunezko ordearen eginkizunagaz; batera,  
bide bakarra dala erakutsiz.

Baiña gizon/emakume artoa, buru gogorrekoa da eta beti egongoda asmatzen, beren ameskeriko sasi-jainkotasuna zelan lortu.

Orretarako Kristautasunezko erlijioa beraganatu eben, kaizergoaz batera JAINKOA`ren ordezkoak dirala esanez, eta mendekotasunezko ameskeri orren bidetik, eten-bako borroka baten agertzen gara orain-aldiko denboretan.

Kaizar-erregetza desegiñeko denborak dira, baiña izena euki ez arren, gudaloztearen indarrak euren eskuetan dagoz, eta espatakaz beartuta ESTADOS DE DERECHO estalkipean Europa guztiko berezitasuna oinkatu eben.

Fazizta, edo gogorkerizko menperatzaileak euki eben indarraren aurrean, berezidun eta eskertiarrak izendatzen ziranak aurka agertu jakiezan, ikaragarritzko estanda sortuz, Munduko gizartean izugarritzko biotz-gabeko triskantza eginda.

Munduko gizartea billurtu egin zan, eta zuzentasunezko erabagia artu zan, andik aurrera berezitasunezko gizartearen eskubideak babestu egin bear zirala esanez.

Baiña denbora igarota, eta arrokeria or dago lez: or dabiz gizartea klonatu gurean, eurak agintzeko sasi-jainko lez. Askatasunaren bide guztiak moztu gurean, izatasun-gabeko edo berdintasun-gabeko inguratutako globalizazio baten, danori sartu gurean. Gudaren keiñadura ausartak egiten dabez lapurrak, txerif`en izarrak paparrean dindilizka daroiezala, baiña gaurko egunean dan guztiori alperrik, danok ikaragarritzko bildurra dautsagulako 3`garren borroka nausi bateri leenengo, eta bigarren: gaur Mundu onetan esan eta egiten diran gauza guztiak, danak ulertzen doguzelako gertatzen diran unetxoan, bai Mundu onen eskututako tokian gertatuta be, albiste orrein barriak unetxoan jakiten diralako.

Orduan zer egin ?.

Ba...., berezkoa izan bear dana: " ARDURADUNA IZAN !!, guda-gabeko eta eten-bako leiaketa baten, arrazoia danok dakigulako non dagoan, eta gaurko egunean neurritz kanpoko gordetzaillea izateak ez daukalako zentzurik, berezitasunaren ardurean jokatu ezkerro. Mitxeliñetan batutako moltzo aundiak, ez bakarrik berez geiegian dagozelako, arazo aundiak diralako baizik, zentzunezko ordezkari-tza-bizi batek ibiltasunean iraun dagian.

Begitu non agertzen dan Mundu onek daukan berezitasun guztiaren oreka.

Alperrak, leloak, salduak, saltzailleak eta menperatzailleak: "ori ameskeri utza" dala esaten dabe. Baiña lortzen ba-dogu, ez dogu lortzen gure Erri Berezien askatasuna bakarrik, bai Mundu onen arazo geienak desagertzea be, berezitasuna, berezko eta bearrezko ordezkari-tzaren bidetik " bizitzaren oreka " elburuaren billa dabilrelako.

Orregaitik gaur EUSKALERRIAN ez da bear izkillurik ASKATASUNA lortzeko, eta xautzailletasunezko mendekutzak alboratuz, danok aberkideak izan ABERRIA elburu daukagula, ordezkari ardura-sakon bategaz lan eginda, gure LENDAKARIA dabilen antzera, eta ziur egon gure EUSKALERRIA laster EUROPA`ren IZAR aundienetariko bat izango dala zalantzarik gabe.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.002`AN AZILLA`REN 20`AN

Denboralditxua da, Olazar`tar Martin`ek esan eustala Euskalerritik ibili zan Milian edo DONEMILIANE`ren edesti-  
elebarria idatziko ebala, Mungialdea`ri eta Euskalerria`ri  
ezagutzera emoteko, gure errian zelangoak ziran Euskal giza-  
mendarteentzat Kristautasunaren leenengoko zortzi gizaldiak.

Martin, ez da txantxetan ibiltzen bere abade ta gizon  
eginkizunetan, beti JAINKOA`ri begira dagoelako Izadi onetan  
dauan beren BEREZITASUNEZKO EUSKADI dan EUSKALERRI  
maitegarri onetatik. Eta alango egun batean: " or daukazu " esan  
eustan, liburua mai gaiñean ipinita.

Ezkerrak emonagaz batera, zelako sal-neurrian kaleratuko  
eban liburua itandu neutsonen: " erriarentzat oparia da " esan  
eustan, eta liburu batzuk eskatu neutsezan Zornotzatik be  
zabaltzeko.

Elebarri baten antzera idatzita dago, eta ikusi neban orduan  
Gazteleraz be idatzita dagoela: " zergaitik Gazteleraz idatzita ?"  
itandu neutsonen, " jakintza danontzat dalako ", batzuk ez  
dakielako Euskararik, beste batzuk ez daukie Euskeraz  
irakurteko oiturarik, baiña orrelan giroa sartu eta oiturea  
artuko dabe, erantzun eustan

Leenengoa ez da liburutxu au, eta azkena be ez daitela izan;  
ERRIA`k beti bear daualako beren semeagandik jakintzaren  
arloan ardurak betetea: " gu eta gure eginkizunak zentzuan  
ezarri gaitzan leenen, eta lotsagisunean benetakoak garalako,  
merezimenduzkoak izan gaitzan bigarren ", EUSKADI`ren  
ASKATASUNA lortu gura ba-dogu.

Euskalerriak asko zor dautso beren semeak diran: " abade,  
lekaide/lekai me abertzeleai ", ori baiña, beste idaz-lan baten  
mamia da, urrengo baten argitaratuko dodana.



Egun baten eta liburua agertu orduko, Mungi`tik Bilbora joan bear gendun Martin`ek ta ni`k, eta urten orduko: Bilbora joateko, nirentzat ez ezaguna zan bide barri bat erakutsi bear eustala esan eban. Gamiz`ko bidea artuta eta bertara eldu orduko, erdi inguruan dauan eskubi aldetik bidea artu gendun.

Bide ortan sartuaz batera, Done Milian`en bizitza azaltzen asi jatan, eta aurrez aurre begitan agertu jakun mendia aipatu eban: " a da Berriaga mendia ", ez aztu !, or bizi zalako Done Milian eta bertan jaso ebalako beren baseliza, gaur lur-jota dauana.

Nik, bertara joan bear gendula, ikusteko zelan eta nun dauan kokatuta esan neutson, berak iziltasunagaz erantzunda.

Azilla`ren 18`an, Latiegi`tar Bizente`k argitaratuta daukazan bederatzi (amargarrena amaitzen dabil) liburuak Kristautasunaren sorkuntza`tik asita, Derio`n dagoan Labairu`ren Iraspeneko liburutegira eroan bear genduzan. Bertan, Manterola`tar Ander`ekin alkartu giñan eta Iraspenaren liburutegi ederra ikusi gendun alkarren arteko solasean.

Ander agurtuta eta denbora naikoa euki gendulako: zer egin bear dogu ?, Martin`eri itandu neutsonen, beren erantzuna " Berriaga`ra joan " izan zan. Laukariz`ko bidea artuta eta Arrituganeko bidetik sartuta, etxe barri batzuk egiten dagozan toki batera eldu giñan, Berriaga`ra igoteko bidea bertan dagoelako.

Zelako izena euki eban inguru arek galdetu neutsonen "Bilbo`tarren landetxe batza " auzoa zala inguru guztia esan eban.

Ariñagoko egunetan euria egin ebalako, bidea neurri aundi baten lupetztuta egon zan, baiña erabagia artuta gendulako, naita kaleko zapatakaz jantzita egon arren ta eguraldia aldagaia izan aurrera egin gendun, sarrera kateatuta egon zanen albotik mendiaren bidera sartuta.

Mendia igoten asi giñanean konturatu nintzan, arri batzuk gorriz eta beste batzuk urdiñez margoztuta egon ziralda eta Martin`eri esan neutson: bidea, ikastetxeak eta mendigoizale taldeak ezagutzen ebela, arri ganeko margo areek egoteko.

Martin`ek, bide au, lau gauzarengaitik ezaguna izan ditekeena da, esan eban: mendiaren bizkarretik ikuspegi aundi eta politak dagozelako leenengo; mendi gaiñean Keltiarren kastro edo erria egon zalako, bigarren; Done Milian`ek Keltiarren erri gaiñean, beren baseliza eraiki ebalako, irugarren; eta Larrabetzun dagoan Gaztelumendira joateko bidea dalako, laugarren.

Baiña ingurua ikusita beetik goraiño, lau izakizun orreitatik bat bera esanda be ezin leikena ganoraz bete, mendi onetan basurdeak bizi ezin leikezelako eta gutxiago ibili, dagon sasi, sastar, aien-bedar eta sinetsi ezin dan basalarrakin zuaitzari be gaiñezka egiten dautsienak eta ito, usteltasunera bideratuta eguzkirik ez dabelako ikusten eta gutxiago sartzen, basalarragaz mendi guztia menperatuta dagoelako. " Odoldiaren atseginezko baratza ".

Ez dakit nun dagozan gure Bizkaiko baso-zain arduradunak eta gutxiago itandu gura-be ez jabeagaitik, gure Euskalerrri maite onetan, askatasunaren lege bereziko oiñarrian " ordezkaritza " erperatuta daukagulako gure arduradunetzko eginkizunetarako. Eta or! dagoelako Euskal jabetasuna, Berriaga`ko mendiak ez dabe merezi alako jabe edo arduradunik, Euskalerrriaren lotsagarria dalako.

Ez bakarrik mendi polita dalako, bere mendi gaiñean, gaur Berriaga bizkargunea deitzen jakona: Keltiarren erria, gaztelu edo gudal-etzauntza egon zalako, eta baleiteke beren ondamen gaiñean Done Milian`ek beren baseliza eraiki ebala, lenago egon ziran ondamen gaiñean jaso egiten ziralako etxe-leku barriak. Eldu giñan antxiñako Kelten erria zan lekura. Dana sasiz estalduta egoan eta eta Martin`ek ara sartu nai izan eban, baiña

sasi artean jeusi zan eta bere deia entzunda laguntzera joan nintzan: urrutu batzuk eta odol apur bat izan ziran ondorenak.

Azterketaren ikusketa eginda bidea aurrera joian, bear ba-da 300 metrora egoan San Bartolome (EZKURRA) Baseliza edo ermitara, baiña sasi asko egoan eta ezin joan izan giñan. Tamalgarria ain gauza zaarrak eta ikusgarriak dagozan lekua orrela eukitea.

Gure edestiaren astarnak azterketaren bidez argituta ezarri daiguzan, Europa ta Mundu guztian jakin dagien, Euskaldunak beti danik bizi garala lur onetan, askatasunaren ametsgarrian JAINKOA`ri begira.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZAN 2.002`an Abendua`ren 3`an

- LUR-GORRI NOR DOGU ? -

(EUSKERAZAINTZA`K EZ EBANA BETE/ ERAGILLEA  
IZATEZ GAIN BASTARTUA IZAN ZALAKO UDALA ETA  
AZKARRAGA`TAR SENDIAGAITIK - AZKARRAGA`TAR  
JOSEBA ETA BELEZ MENDIZABAL`TAR JOSE MARI, AU  
ANTOLATZAILLEA IZAN DA.

- ARAMAIONA`N 2.002`AN OTSAILLA`REN 11`AN  
EUSKERAZAINTZA`K EGINDAKO 36`KO GUDALDIAN  
SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTE`EN LIBURUAREN  
AURKESPENERAKO

- AURKEZPENA.

BERE GURASOAK:

Azkarraga eta Urmeneta`tar Joxe Mari, Araba`n  
Agurain`eko erritxoan jaioa, eta Errenteri`ko Mozo ta Ozio`tar  
Juana ziran beren aita/ama, benetako abertzaleak.

Guda`ren larri-aldian, euren etxea guda-eritegi bihurtuta euki  
eben, seme bi eriotz-galdura zigortuta eta alaba biak gaiso-zain  
guda-eritegietan.

Aita, bera be, Eusko Gobernu`ren zerbitzura eta Ama, danak  
kidekatzen, maitasunezko indarrakaz. Danak !! Euskadi zan  
euren etxe nagusia`ren zerbitzura.

Orain badakigu, zelako bularra zan Joxe Mari`k zurgatu ebana, Abertzaletasunean ainbeste indarra eukiteko. Baiña..... LUR-GORRI nor dogu ?.

### NIRE POZA:

Esan bear dot, poz aundia artu nebala gai au ezarri eustenean eta benetako biotz-ikara emon eustala, ikusiz, gazte areik LUR-GORRI`gandik asita euki eben Euskalerrigaitik ainbeste "SINISMENKO MAITASUNA ", eta zelan maitatzen eben oiñarrizko senditik asita, Euskalerriak daukan senidetasun guztia.

Kontuan euki bear doguz, maitasunean ain malla aundia lortzeko, bera bete egiten daben osotasunezko oiñarrian....., osagarriaren izaerak, sinismenean neurri bardiñean euki bear dirala, leenengo ulertuta eta bigarren on-artuta, euren borondateagaz ainbeste eta ain ikaragarritzko ekintza egitean, beren Erri-bidetik JAINKOA`ri eskeintzeko.

### ABERTZALETASUNA:

Nortasunezko izaeran, ikaragarritzko zentzua eta zeaztasuna ikusi dot euren borondateetan. Eta kontuan euki bear dogu ABERTZALETASUNA ez dala: " MAITASUN " orrek daukan indarraren zabalkuntza baiño besterik ez !, nor-beraren ekintzetan.

Bakarrik ?, esango leuke ez dakian batek.

BAI !, BERA dalako dana !.

Gaur, menperatzaileak apurtzen dabiltzana. Eta eurak daukien indar guztiaz nai dabena..., gure gazteak naazte orretan sartzea

da, eurak garaille agertzeko, daukien sasi-jainkotasunezko asmakuntzak iraun dagien.

Menperatzaille orreik eta batez be Espainola`k, legearen erak! sorotasunezko aldakuntza baten dabiz naaspiltzen, baiña dan guzti ori alperrik, Mundu onek bere EGILLEA`gandik daukazan LEGEA`k ez daukielako aldamenik.

Gure gazte gizartea, bai gazte ez diranak be, gaur naaztetasunezko era orretan errez jausten dira, gezi pozoitzu orreik,era askotan mozorrotuta datozenak, eta zeaztasunezko ardurak itxuragabetu egiten dabezanak, geien, iruntzi egiten dabzelako, eta olan dala ikusteko....., ez da besterik begitutea baiño, gure senidetasunari.

### XAUTZALLETASUNAREN BIDEAK ALBORATUTA:

LUR-GORRI....., ez zan jeusten xautzailletasunean (konsumismoan) eta itxuragabeko LEGE orreitan. Ori erakusteko, liburuan datorren adibide batzuk esango dautsuedaz: 1934`ko urte orretan, Espaina`ko gobernuak, leiaketara atara eban legebildumaren talde teknikoetan lan egiteko tokia, eta 4.000 naikideren artetik leenengoa izan zan LUR-GORRI.

Danak !, arrituta geratu ziran...., Madril amets-garriaren leen-maillako lan-bideak alboratu, eta Oñatira zan, bigarren maillako ikastetxera etortea eskatu ebanean, bere aberriko ardurak maite ebazalako.

## ALDERDI JELTZALEAGAZ:

Beren etxeko ardurakaz guztiz bat eginda egon zalako, ez eban euki atsedetik, Euskal Alderdi Jeltzaleak bear eban guztirako: barriak zabaltzeko, batzarretarako, ainbat aldizkarietan beren idaz-lanak argitzeko, aolkari eta lagun lez..., eten-bako ekintza baten.

Ondo baiño obeto jakin ebana, Mundu eta Euskalerrri onetara, ez zala agertu eten-bako opor, ikast-arte, edo lan-iztera, izan zan. Ain MAITASUN aundiko mutil onek JAINKOA`gan sinismen osoa euki ebalako, eta ondo baiño obeto ulertu ebalako, Mundu onetan JAINKOA`ren LEGEA`k beteteko etorri zala BERA`gana igon gura ba-eban, beren etxetik asita EUSKALERRI zan bere etxe nagusiaren ardurak beteta .

Eta ori benetan erakusten dau beren azkeneko mesuan guraso eta anai/arrebai, eriotzara joan orduko.

## BEREN AZKEN ITZAK:

Gurasoa`ri idatzitako azken eskutitzetik artzen dogu zati gogoangarri au:

" Zuen semearen azken agurra irakurteko.... kemena izan. Gudari-taldearen aurrean lasai, geldi, espaiñetan dar-dar txikienik euki gabe, ez eta neure taupadan be. Erru-gabeko barru garbiak emoten dauan lasaitasuna da.

Leporatzen daustiezan erruakaz... EPAILLE NAGUSIA`ren gana noa, au-da egizko AGURRA !.

Ez negarrik egin nire eriotzari; zuen arimetan.... poztasuna bizi daitela , nire bizitzan unetxo oneitan bizi dan lez. " ZELAKO EDERTASUNA ".

Nire eriotzagaitik ez dot-nai APENTZA edo BENGANTZARIK bat ere. ABERTZALETASUNA eta ADOREA. ABERTZALETASUNA !. Ori da neuk ! eskatzen dodan APENTZA bakarra !.

Betirautasunera-arte, AGUR, gaur, iñoz-baiño geiago maitatzen zaituen zuen seme.

JOXE MARI`k "

### AZKEN-ITZ edo ONDORENA:

Espainolak izkillatu ebenean, 21 urte euki ebazala kontuan artuta, arrituta geratu bear gara gaur guztiok, mutil onek euki eban kemenezko MAITASUNAGAZ. Orduko Abertzaletasunaren antzekoa euki bear dogu: gaurko Gizon/emakumeak, zaar eta gazteak, abade, lekaide/lekaime`ak. Eta urrezko denbora aiek berrezkuratu bear doguz....: gure gazteak izan dagien LUR-GORRI, LAUAXETA, AITZA, AITZOL, OTAÑO eta ainbat abar`en antza, EUSKADI`ren ASKATASUNA lortu gura ba dogu.

Eta orretaz konturatuko gara...., kontuan jausten ba-gara, iñoren arduratik kanpo !, gure ardurak bete egin bear doguzala.

Ni, arrituta geratu nintzan LUR-GORRI`rekin.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZAN 2.002`an ABENDUA`ren 28`an



## - GAURKO DEMOKRAZIA -

Baten baiño sarriagotan gogoratzen naz, ainbaten irakurrita oiñarrizko esaerakaz: " Menperatzailtasunaren ostean DEMOKRAZIA euri-lez agertzen da ".

Zergaitik izango da ?.

Itaun oneri erantzuna emoteko, ikusi daigun, beti danik zer gertatu zan edestiari ikus-labur bat eginda.

Edestia, lau zatitan bananduko dogu: Kromañon, Erromatar eta Godo`en denbora; Eleiza eta Errege`en denbora; Borroka naguzien denbora; eta Gaurko DEMOKRAZIA`ren denborak.

### KROMAÑON DENBORA:

Berezitasunaren denbora izan zan antza !. Aldebatetik: bizitzaren babeserako alkar-ekintzan, itzak eraikitzen ekandua eta sinismenaren kare baltzagaz, ezerezetik izkuntzaren gaztelu ederra eraikitzeke ulermena babestu naian....., naiko lan izango zalako. Eta bestetik: ikas-bide orretatik, sendia`ren ugaritasunagaz, ordezeko ekintza ugaritasunaren neurrian goratzen joan zalako.

Bizi orretan, senidetasun mailla, gizeli, erro edo leñuen baitan agertu zan. Sorreratik, ekintzaren ordezkartizan orretako eratan gorpuztu zalako, Berezitasunaren Nortasunak sendotuta, alde batetik. Bestetik, Ludi onen berezitasunezko legeak, ez eutsoelako emoten beste aukerarik.

Orduko denborak, ez ziran izango guztiz loratsuak, giza-jaleak be izaten ziralako. Balekite, gure zimino denborak urbil egon ziralako izatea eta aberetasunezko ekintza aitzu barik euki. Baiña Ludi onen gizartea benetan konturatuko zala Nortasunezko Berezitasunean oiñarrituta egon zala Mundu au,

eta ondo ikasi ebalako, gaur ametsgarri gara lenagoko JAINKOA eta LEGE ZAARRAKAZ.

Gizarte arteko erkidetasunean, bikaintasunezko maillara eldu ziralako ?. Ez dakigu ori ziurtasunez, baiña asi gara jakiten Europako Mendebal guztia Euskalduna zala (KROMAÑON) demokrazia aundi baten, eta nai leiñu askotan bananduta egon arren Euskal izana, izkuntza, ekanduak eta sinismen bakarra euki ebelako, berez, eta berezitasunean batzangotuta agertu ziran, denbora auek baiño askoz aberatzagoak izan bear ziranak, gaurko egunetan guk orduko LEGE ZAARRAREN ekanduagaitik ainbesteko gogotasuna eukiteko.

Ortik agertzen da Mundu onen gizartearentzat denbora guztiak bardiñak dirala, daukazan LEGE`ak bardiñak diralako beti. Guk bizitzako epe labur baten, LEGE orren agindu garbiakaz ekanduta jokatu daigun ordezkarrizako ekintza baten, nai-ta gure gogoetan oldoztu arrigarriko gauzak egiten gagozela, leenengoena guztiz aiztuta eukinda " BAKOTZARI BERE ".

Zertarako ?.

BERAK bakarrik daki.

### ERROMATARRAK:

Arro agertu ziran oneik sasi-jainkotasunaren ameskerian, gudaren antolamendu aundiagaz. Europa`ko gesaltze ostean erri aundiak izan zirenak eta sortu ziran barriak, danak ! menparatzeko naian.

Ararte Europa`ren gizartea, ulermen aundiaz danon babeserako eroan eben berezitasunezko antolamendua elburu lez batzangotzeko, guztiz apurtu eban, ikaragarritzko naazpiltasuna eginda errien izkuntzetan eta giza`ren ekanduzko gogapenetan.

Ortik aurrera Europa onetan gaur arte, asko izan dira sasi-jainkotasunaren ametsak euki dabezanak, eta eten bako kate baten antzera, bakotzaren porrot`en ostean, besteak era ezbardin baten artu dabela agindu-gurearen amets gaizto ori, euren zerbitzurako.

Noraiño izango ete da ameskeri orren indarra ta itsutasuna, gaurko egunean Ludi onetan dakigunagaz, Mundu`ko irugarren borroka nagusian sartuta egoteko, berezitasuna mendekatzeko naian. Gaiñera, gaur, Europa`tik Ameriketara joan ziranak babestuta, Mundu onen sasi-jainko barriak deitzen diranak, ango berezien artean ikaragarrizko triskantzak eginda ta gero.

Baiña berezitasuna BEREIA eta BETIKOA dalako, ezin da beren aurka egin, ikaragarrizko muturrekoa artu barik bealdera jauzita. Eta alan gertatu da bakotzaren ameskeri usteltasunean; gizartean ainbeste oiñaze eta nekaldi aundiak danetan sortuz. Eta Amerikar oneik be, lortu eben ekanduzko bizkarrean egotea, irurogeiko amarkadatik aldaz bera asi zirenak, gaur abiadura ori aundiagoa artzen dabizela.

### GODOAK:

Oneik be, erromatarren eredia artuta, agindu gura eben Europa guztian, bananduta egon ziran Ostrigodo`en eta Bisigodo`en bitartez, baiña areik baiño arazo geiago aurkitu eben, erriak, Euskaldunen antzera, gudako antolamenduaz asi ziralako apaintzen euren babeserako. Kontuan artu barik, Mauritarren eraso gelditzeko ez zirala izan gai.

Baiña Erromatarren eta Godoen arteko ekintzatik, gertakizun bi artu bear doguz, oso garrantzi aundikoak direzenak eta asken baten gogapen bat dana, aurrera begira menperatzaillari indarra emoteko. Leenengoena: Erromatarren kaisar-jaun Konstantinok, Kristautasunaren talde bateri emon eutson

KATOLIKO`tasunaren itzekin indarra, Arriano`ak bastartuta, Jainkoa`ren ordezeko eta egian bakarrak zirala esanez, 325`an, beren aginpidean batu eban Nizea`ko Eleiz batzar nagusian.

Godó`ak be, eredu ori artuta burutakizun ona izan balitz bezala alan egin eben, Leobigildo`k beren seme Rekaredo`ri aginduta. Onek 589`an Eleiz batzar nagusia batu eban bere agindupean (gaurko egunetan Aznar`ek egin dauana gotzaiña`kin), eta ortik aurrera datoz zoritxarreko Toledo`ko Eleiz-Batzar nagusiak (concilios de Toledo), demokrazia`ri ainbeste kalte egiten dautsoenak.

Gauza bi oneik kontuan euki bear doguz geroko irakurgaietan, jakiteko nundik agertzen jakozan arazorik aundienak gaurko eta betikoa izan bear zan DEMOKRAZIA`ri.

### ELEIZA eta ERREGE DENBORA:

Katolikotasunaren Eleiza, Konstantino`k Eleiza`ren batzar nagusia batu eban 325`etik aurrera dator, eta ia beragaz batera inkisizioa eraiki eben, eurengandik kanpo ibiltzen zana zigortzeko, euren eritziz JAINKOA`ren ordezekoak eta beragaz egian bakarrak ziralako.

Amaika`garren gizaldian (1.095-1.099) eta II Urbano Aita Santu`ren buruz leenengo kruzada antolatu eben, gudaren bitartez Mauritarren eskuetatik lur-santuak eskuratzeko.

Tresna bi oneikaz, Eleiza eta jaurkintza`ko jauntxuek, ikaragarrizko triskantzak eta lapurketak egin ebezan euren jauntxutasunagaz guda-indarraren bitartez Europa zabalean. Eta olan iraun eben Eleiza, 1.820`an Inkisizioa indar gabetu-arte.

Denbora guzti oneik, danak izan dira berezitasunaren aurkakoak, Eleizak latiñegaz beste izkuntz guztiak desagertu edo menpean eukitea gura izan daualako, eta erregeakaz batera

gizarte guztia euren kontrolpean euki, daukiezan ameskeriak iraun dagie.

### ERREGEAK:

Jauntxo oneik, leiñu edo erriak eraikita izendatu ebezan danon babeserako, beti !, askatasun guztia eukinda jauntxo bategaz edo besteagaz joateko iñungo arazo barik.

Antolamendu orretan, jauntxoak ez eben euki iñungo eskubiderik, babeseko alkartean ziran leiñu edo errien legeak eraikiteko, bera ez zalako iñor leiñu eta errien antolamentuetan sartzeko. Baten-bat burrukalari agertzen bazan, danon artean emondako gudaloztearen idarragaz, a, bakeratzeko baiño.

Gure Napar erregeak be, katolikotasunezko sare ortan asieratik jausita egon ziran latiñen bitartetik, eta Europa`ko erregetza guztian ezkontz-aidetuta egon ziran lez, esan leike gure malda beerakoa bertan asi zala.

Begitu bestela gure III Santxo Aundiak egin ebana Euskalerrri osoa bere semeen artean lau zatitan bananduta, Euskal-legearen aurkakoa zana. Eta ainbat adibideakaz argiratu leikena.

Gaur egunean erregeen irudia desagertuta dago, baiña "ESTADOS DE DERECHO "en izenpean batera agertzen dira, gudaren espatak berezitasunaren buru gaiñetan ezarrita Eliza`ren bedeinkapenagaz (or bestela TOLEDO`ko KONTZILIOAK). Espaina`ko Gotzaiñak Euskalerrria, Kataluña eta Galizia`ko Nortasun bereziaren aurka, Munduko gizatasunezko erri artetan, izugarrizko genozidioak egiten. Erromatarren ametsa gaur be bizi-bizi daualako, orduan artu ziran erabagiarekin.

## EDESTIA`ren ONDORENA:

Edestian begituta ikusten dogu, eleizak eta erregetzak beti danik asmo onak euki dabezala, jaiotzatik danak eroaten dogulako JAINKOA`ren berezirasunezko legeak askatasunerako oiñarrituta, baiña iraspenezko izatean sekula ez dabela indarra euki sasi-jabetasunak daukan erakartze zirikitasunengandik alde-egiteko. Beti euki dabezelako batzutariko legeak oiñarrituta Sasi-jaunkeritan bizitzeko, eta ez diralako izan gauza edo gai lege orreik aldatzeko, batzuen naikeriagaitik, edestiko gauza guztiak indarkeriaren eta zigorraren bidez egin diralako, ainbat bildur, negar, goibelaldi, neke, lotsa, izu-ikara, sasi-jainkoaren zigorragaz eta espataren keiñuaz.

## GAURKO DEMOKRAZIA:

Gaur, Mundu onen gizartean, izugarritzko leer-gaillu baten gaiñean gagoz ezarrita, laterri-eskubideen oparotasunean bizi diranak, euren eskuetan indar guztia eukinda edestian zear lez, ez diralako gai, orren zirikatasunen bidetik gogoak aldatzeko, danon ardurak eurak eroanda, beste gizarte guztia arima-gabeko utsaltasunean itzita eta txirotasunera bideratuta, alde batetik.

Bestetik, arima bizkor eta ausartak diranak, gudaren bidez gura dabelako ordezkartzaren oreka lortu. Eta ori eziñezkoa da, besteak indar guztia daukielako, eta betiko lez, ez dautsielako ardura aundirik emoten gizarteari beste muturreko aundiaz jota, eurak gure daben lekuan eukiteko. Orain arte be, daukien indarragaz eta arau-bidez eurak nai daben xautzailetasunezko bidean kokatzen gaituelako.

Baiña gaur egunean ez dira lenagoko denborak, gaurko argibidearen billakuntzak oso azkarragoak diralako eta jakintzaren aldetik ulermen aundikoak. Indar oneik dira gaur

erabili bear doguzanak, benetako indarra or dagolako. Tresneriak ez dauka indarrik norberak erabili ezik, eta lotsa danok oiñarrituta daukagu, orregaitik danok eldu gara BEREN berezitasunak muga egiten dauskun lekurarte, geienak asi garalako konturatzen Mundu onetara arduradunak izateko jaio garala.

Or ! dago indarra, eurak baiño askoz geiago garalako, eta gure ardurak betetan badoguz Munduko gizartea orduan izango da gai gaurko gogapena 180° tan itzultzeko, Ludi onen oreka lortu daigun.

Orko bidetik joateko, Euskalerrriak iñork baiño gogoetako tresneri ohea dauka askatasunari bultz egiteko, Euskal genetika askatasunean oiñarrituta dagoelako, eta ziur nago Euskalerrriak lortuko dabezala EUSKADI`ren ametsak benetan eta lotsagizunezko ardura aundiagaz jokutzen ba-dogu.

" DEMOKRAZIA " " BAKOTZARI BEREN ARDURA EMOTEA DA ZALANTZARIK GABE ", eta Mundua, arlo orretan, gaur ankaz-gora dago.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003`an ILBELTZA`ren 5` ean

- ALDERDI ABERTZALE EUSKALDUNAKAK -

Gaurko denboretan badakigu xautzailletasunezko denboretan bizi garala, ainbat lelokeri egiteko bultz egin eta bideratzen gaituna, errez edo geinetan bere besoetan jauzita.

Baiña, ez neban uste ainbestekoa izango zanik. ESAU`k egin eban antzera: txilista edo dilista`ren plater bategaitik ERRIA`ren arima salduko geunke.

Eta ori uste dot asi dala gertatzen gure denbora onetan. ERRIA gero ta ardura aundiagorekin asi danean betetan etxe nagusiko egin bearrak askatasunari begira eta arlo ortan aberastasun geiago lortzen asi garalako, dana jan gure daben MAMUAK asi dira agertzen, ia zein zati aundiagoa dan, norberarena izan daiten.

Bide orretatik, gure ERRI barruko izatean bereizketaren banakuntzak, amets-etenak, alegiñaren uts-egiteak, gure artean abertzaletasuna artzen asi dan indar argigarria iluntzea eta abar asko lortzen dira. Geiegi dala esan gura neuke.

Ez dago ESKUBIDERIK !! ERRIA`ren ardurazko ametsak apurtzen dabezan gauza orrek egiteko, eta lotsarik be ez dagoala esan leike.

ERRIA, bere askatasunezko ametsaren indarrak lortzen asi danean, asi garan antzera, EUSKO ALDERDI JELTZALEA`ren babes da ! bear dauana. Eta ekintza ori bideratzeko, gure arteko lotsagizun aundia ta zintzotasuna bear dira, ELBURUA`ri aurpegi garbiakaz begiratzeko, gure askatasuna lortu gure ba dogu. Bestea, ELBURUA gure naikeriaren oinkapeetan eukitea da; eta berezitasunaren askatasuna lortzeko, ekintza orreik guztiz aurkakoak dira.

Beste alde batetik begituta, nortasuna galduta dabizen Euskal gizartearen seme/alabak, beste alegin indartsu bat bear dabelako, dagozan galderan geratu ez daitezcan; arrokerizko naikeri oiek indar



aundia daukielako, bide oneko ekintzak ezeztuteko eta gaur jokatzen gabiltzana irabaziaren ametsetik ERRIA`ren osasuna dalako.

Aita Santi, Joxe Mari Latxaga eta Olazar`tar Martin`ek beti! esaten eusten nire benetako ulermen bidera sartu nintzanetik: " Erriak eta euren seme/alabak bizitzan daukien egoera, euren alegiñagaitik merezi daben bizi-egoera dala ". Eta Ludi fisiko onetan egi aundiagorik ez dago, ikerketaren azalpenak argi erakutsi egiten dabelako, gaia dala gure ametsaren elburua, JAINKOA eta LEGE-ZAARRAREN ikaskizunak alboratuta, naikeriaren alaitasunean bizitzeko. Batera, beti damuko bizi baten jarraituz, gaia`ren mozkorrak izaerazko arimaren ardurak garrastu egiten dabazelako.

Egia da berezitasunaren izaera bereiztasun utsa dala, batera, bereiztasun askorekin osotuta dagoelako, bai ta egokitasun orrek naastu ta arritu egiten gaitula, gure giza-izaera maitatzen dogulako. Baiña egia da maitasunean euki bear dogula, gure arimak gaiñean daukan gai ori JAINKOA`k ipinitako jantzi bizia dalako agindu dauskun ordezkoi neurketak egiteko.

Eta emen sartzen gara ikerketaren ikasgai oso baten, badakigulako banatzen arima eta gaia zer diran, eta Mundu onetan zertarako gagozan egokituta.

Guzti ori alkartuta, azken baten be gauza bitan geratzen da "ORDEAN eta MAITASUNEAN" ordezkariaren bizitza dalako egokitasun au, eta JAINKOA`k gozotu egin daualako maitagarria izan daiten gure eginkizunetarako.

Orregaitik..., gure ARBASOAK ordezkarietako ekintzan neurrikoak izan ziran ? Oso gatz-da orduko denboran " NEURRIAN " alderdi-gabeko izatea, kontuan eukin da edesti guztian euki dabean menperatzail-etsaiak berezitasunean urtu edo ezeztatu egin daitezana. Baiña emen gagoz bizirik eurori esker eta beti askatasunaren ametsean, bereiztasunezko legeakaz eta menperatzail guztien ikusi-ezinezkoak diranak, benetan alderdi gabekoak diralako askatasunari begira.

Eta kontuan euki bear dogu, gure NORTASUNAREN aldatz-bera sekula ez dala egokitua izan erri-xumeen bidetik, antziñatik gure jaurkintzan ezarrita etorri ziranengandik baiño, erri-barruan ikaragarritzko banakuntzak eginda euren gai-ametsari amore emon dagigun.

Guzti onek esan nai dauana, gure ordezkartzaren arloan zor aundikoak gariela. Aldebatetik: euren denborak, ordezkartzazko bizi-ekintza baten alderdi gabekoak izateko, ikaragarritzko gose-denborak ziralako. Bestetik: gure denborak ugaritasun eta aberastasunezko denborak diralako.

A ta guzti, ez da erreza naikerizko koipekerietan ez jaustea, tentaldia neurri aundikoa dalako. Baiña gure zori-larrian..... olan jokatu... aita-ama dan erriaren itxaropenekin ?. Orretarako inork ! ez dauka eskubiderik, nor-beren etxetik asita ABERRIAREN askatasuna leenengo ELBURUA dalako JAINKOA`ren bidea jorratzea azkeneko, elburua lortu nai ba-dogu.

Mundu onetan, giza seme-alabaren ta erria`ren ABERRIA lortu bear dogu, JAINKOA`rena dalako, eta Euskaldunak konturatu bear gara, ezin obeko tresnak ARBASO`en gandik egin ta zainduta daukaguzela ASKATASUNANEZKO ELBURUA lortzeko, benetan, ordezkartzaren lotsagizunezko zentzu aundi baten jokutzen ba dogu, zintzotasunezko borondateakaz lortzen dan gauza dana.

Ia ba Euskal anai-arrebok gure begiak zuzenean begituten daben iñoren naikeri gabe EUSKADI dan gure ELBURU nagusiraño, JAINKOA`k emondako ASKATASUNA lortu arte.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003`an URTARRILLA`ren 28`an

-  
-  
- GIZA - IZTIA -  
- (antropologia) -

Gure bizitzan norberaren nai-gabeen une batzuetan galderak sortzen dira. Oso pozgarriak dira batzuk. Alde batetik galdera oneik zintzilizka itzi ba nebazan be ustekabekoak izan zalako, bestetik, poztasun aundiaz artzen dira galdera arduradunak direnean.

Zornotzako koralekoak garenok (S.A.C.Z.), egunero edo beintzat sarritan lagun taldea joaten gara elkar ikusteko eta karta-jokuan egiteko, abes-taldearen saioaren ordua elduarte, geienak abeslariak diralako.

Esango neuke alkartean gure-arteko arremanak onak dirala lotsagizunen aldetik, asieratik baimenezko legeak, guztiz demokrazian ondo ezarri ziralako.

Kartetako mus-joko betean egon giñela " URIBIONDO`tar PABEN " agertu zan niri begira, eta esku-artean Euskerazaleak egiña eta BBK argitaratua dan tako-egutegiaren orrialde bategaz daukala niri itanduteko zeozer, esan eban:

Paul ! jakidezun idazten dauzuna nik irakurten dotela, GIZA-IZTIA zer esan gura dau ?.

Eta nik erantzun orduko berak esan ustan, orritxoan ipinten eban gaztelerazko izkuntzan itzulita "Antropologia ? " .

Nik buruagaz baietza emon neutson, baiña astirik ez eban emon, bereala abes-saioaren gelara joan zalako, Giza-izti itzarengandik daukan edesti labur bat azalduko dautzuet.

Orain urte bi dirala, Joxe Mari Latxaga eta ni, sarritan joaten giñan idaz-lan egitera, berak Lizarra`ko etxean daukan liburutegi ederraren laguntzagaz, eta an egon nintzan idazten "EUSKAL-ERRIAREN

IZAERAN " RH " DALA TA..... ". Idaz-lan au egutegian 2.003`an Urtarrilla`ren 29`ko egunean agertzen da.

Antropologia`ko itza bear-bearrezko idaztea izan zan lez, Latxagari itandu neutson, ia zein izango zan itz onen itzulpena Euskaraz idazteko, eta berak batera itaundu eustan: " iztegi orrek zer esaten dau ?. Nire erantzuna: " Antropologia besteri ez ! eta nik uste dot Euskera elderdu egin orduko, danok beste itxura bategaz lan ta ikasi egin bear geunkela ez ?, nai itz barria izan.

Latxagak esan eban: artu egik Mugika`ren iztegia gazteleraz`ik Euskerara ia zer esaten dauan.... .

Ez dakar ezertxo be esan neutson.

Eta berak ostera be esan eban: artu egik Euskeratik-gaztelerara itzulten dauana eta begitik " IZTI" itzak zer esangura dauan.

Artu neban iztegia, eta " IZTI " itzarengana eldu nintzanean: " tratado, curso de, escrito logia, -nomia: " izar-izti, ortz-izti = astronomia ". Orregaitik, nire itzulpena gizartearen arloko bidetik bear zan lez " GIZA-IZTIA " antropologiaren itzulpena.

Olazar`tar Martin`eri be itandu neutson eta bardin esan eban. Or ba nun dagoan akatza berba barrien itzulpenak aurkitzeko.

Baiña ni geien arduratzen egiten nauena " bi-2.000-mila, ELKAR " iztegi espainiera-Euskara, Euskara espainiera artuta, gazteleraz eta Euskaraz itz bardiñak dirala. Oneik bai iztegi aundia egin eta denbora gutxian. " Iru-3.000-mila " iztegia artu neban eta onek be bardiña, ez eban ekarten. Alangoko erabagiak artu ez gero denbora elduko da Euskalerrian baten batek itandu egingo dauana, ia euskaldunik badagoan lur onetan.

Ni burdinezko lantegitik nator, eta badakit makiña batek, berak bear dauazan gauzakin tresnatuta joan bear dauala eta jatorrizko atalakin antolatuta; amarka-neurriko kiribil edo biurkin arra, Ingelesen beatzeko (pulgada) zorro (tuerca) baten sartu ezker "BABEL`eko DORREA " bertan daukazu tresnamenduta, ezertarako balio ez dauan langaillua. Eta zori-onez gai onetan sortzen dan guztia lege bardiñakin gauza guztiak egin bear dirala, beste naikerizko legerik ez dagolako.

Gure Euskal-izkuntzaren gaztelua zeaztasunean antolatzen badogu, etsaiak ez dabe botako errez eta nik esango neuke, ez dabela botako. Baiña guk bideak zabaltzen badautsaguz, errez sartuko dira eta bota be bai, gure gazteak ikasiko daben izkuntza etzaiarena izango dalako.

Euskaldunak ez dogu aaztu bear sekula ! " EUSKEREAK, EUSKAL ARIMAREN SINISMEN OSOA DAUKALA ".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003`an ZEZEILLA`ren 4`an

## - GAURKO ARAZOAK -

Euskalerriko seme/alaben artean urduritasun aundia ikusten dot, Espainolak dabizen indar edo zapaldiaren alegiñak aundiak diralako, zeintzuk izango ete diran erak ! euroi aurka egiteko.

Geiago, illak egoten diran bitartean, eurak, ilketa orrein bidez Mundu zabaleko jendarteari erakutsi egiten dautsoelako, Euskaldunak basatiak garala, alango astokeriak egin ezkerro, eta orretan arrazoirik ez daukagula.

Espainolak erakusten daben asmo-azterpen ori, guztiz guzurrezkoa da, ez-daukielako arrazoi tantarik be. Euskalerrria 1.839 urtearen eskeroztik oinpetuta daukielako, izkilluak gure buruetara kiñatuta daukiela. Eta len aipatu dogun tiro-ilketak lez, kiñu orrek ! berak bakarrik esan nai dauana !, guztiz arrazoiaren ezean dagozela da.

Ikusten dan lez, izkilluaren indarrak, menperatzaillaren argibideak bakarrik dirala eta orregaitik geiegian dagoz, Mundu onen arrazoiak ezartzeko.

Gaur ta aurrerantzean geiago, Mundu onen erri ta giza seme/alabak, arrazoiaren egarri garalako, bakea danon artean ezarri daiten.

Guztiok, gure gorputzetan tirabirakatuak izatea, edo, gagozan xautzailletasunezko bizi-usteletan gaizki-artuak izatearen bildur garalako ?.

Gaur egun Mundu zabalean, edo Mendebaleko Mundu onetan, argi geratu dana, jendarte milloika kaleratu dala, guda ta onen inguruko estaibadak geikerian ta mende orreik garaituta dagozela esateko, eta gaur gagozan jakintasunezko talaia edo begira-tokitik ikusita barregarriak geratzen diralako.

Orrek esan gura dauana, gure barruko gogo-biotzetan egozten dan asmoa ez dala ori bakarrik ; arimaren barruko egarria JAINKOA`ri begira dagoelako eta BERE Legearen agindutik (BEREZITASUNA) gure

gaurko ekintzak jokoz-kanpo geratzen dirala. Argi-Argi ikusten da, berezitasunak berak ! salatzen daualako.

Orregaitik, gaur iñundik iñora-be ezin leike asmatu, arrazoia gudaren bidez konpondu leikenik.

Antziñako etorkizunetik oraintsurarte edo gaur-arte bai !, jaurlari diran gizon/emakumeak, erriak eta erritarrak morroi lez , kontuan artu barik, eurak ziralako, xautzailletasunezko sasi-jainko bizi-naikeriak aurrera eroateko gudartean ibiltzen ziranak. Erritarren artean jakiturizko arloa oso txirotasunean egon zalako, eta erlijioaren aldetik sartzen zan bildurraren bitartez, eurak euki ebelako arrazoi guztiaren jabetasuna.

Gauza guzti oneik kontuan artuta, Euskaldunen artean askoz gogorragoa da, asieratik eta etorkizunean menpetu-bako Nortasun eta sinismen aundikoak garalako. Eta orregaitik, Euskal gogoaren zentzuan legezko arrazoi-artean joan-etorrirako oso aztunak izan da, bein, zeaztasun eta sinismeneko-berbea emon ezkerro aldaketa oiek egitea.

Jaurkintza eta erlijiozko nagusiakaz sinismen osoan jokatu gendulako beti, ez gendun jakin eta gutxiago sinetsi zelako jokotan ibiltzen ziran oneik, eta gutxiago erromatar, godo ta erlijioak ekarte-bazan alako guztiztasun-menperatzail gogamenezko sare-artean jausita egongo zirenik. Ta zoritxarrez, osin ortan, ia lenengoetatik jausita egon ziran geienak.

Orregaitik eta gurentzat zoritxarrez, eurentzat oso erreza izan da edestian zear guzurraren bitartez, ain sinismen aundikoak izateagaitik, gure artean banaketak lortzea. Baiña zori-onez, JAINKOA`ren Lege-Bereziak etenbako berrizkuntza-bizi baten iraun egiten daualako, jakintasuna erreztasun aundiz barriztu egiten da, eta len guzur astunak ba ziran eta ez ikusteko lekuan ostonduta joan ba-ziran be, gaur bitzaren antzera danon ikus-begitan joaten dira.

Edestian zear badaukie bai ! Euskalerriko seme/alaba soil`ak merezimendua, gaur Euskadi bizirik agertzen dalako.

Arana eta Goiri`tar Sabinok azaldu edo on-adierazten eban Euskalerrriaren egoera ori: " Euskalerrria gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik arazo-aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasuna izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera, esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA`ren eskuari begiratzen ba`dautsagu, BERA da eutsi dautsona; Nor-berak itauna egiten dau: " izango da JAINKOA`k gura ez dauana erri au desagertzea ?.

Baiña solasean egindako itz-aurre au alboan itzita, goazen idaz-lan onen arira, edo ikertu gura doten mamira.

Esan leike, gure Euskal gizartea bildurtuta dagoela, eta batzuk-andik asmatuta, gaur Euskalerrria ABERRI lez ez dagoelako on artuta, atzerako pausoak emon gura dabez, edo beintzat alegiñetan dabizela bai, eta eginkizun ori ezin leike ontzat artu, beldurra azaltzea dalako batetik, eta bestetik erriartean zalantza sartzen daualako.

Bildurra eukitea ona da, zuertasuna edo zentzutasunezko neurriagaitik izaten bada, eta ori ez da bildurti izatea zentzu aundia eukitea baiño.

Dana dala, ekintza orrek egiten dauana da, aurka urten Ibarretxe lendakariak eskaiñi dauskun egitamu-saio eder oneri: " askatasunezko-alkargoan " (de libre asociaciòn). Ala..., 1.839 urtearen eskeroztik eurak gure dabelako gu ez gara iñor ?.

Ibarretxe`ren egitamua, ausarta, aurrerakoia eta asmo-azterpen guztiz demokratikoa da, danon eskubideak lotsagizun aundiz batzen dauzalako.

Ori, igarotze aundi bat da gure etorkizunerako, eta kikiltasun orrek ez dauka iñungo zentzurik; batez-be Europa osoak dakialako, demokrazi on bategaz ezik, ez dagola konpontzerik. Bakotzari beren arduraren " JABETASUNA " emon barik esan gura dau orrek. Eta nik ez neban ibiliko "JABE "aren itza, batez-be neurrian, arrotasun apur bat kentzeko, eta itza beren lekuan itziteko " ORDEZKARI "baiño, azken



baten, JAINKOA`k eginkizun orretan bialduak garalako, eta ez geiagorako.

Orregaitik Europa`ko gende asko, milloika kaleratu da, eta geiena demokraziaren egarriak eraginda, kokoteraiño gagozelako edestitik zear, len egiaren izenean eta gaur demokraziaren izenean egiten diran astokeriak egiten diralako, beti gudartean; oiñaze, min eta nekean bizitzea indarkeriaren bidez datorren mozkiñaren aberats-asmoaren arduragaitik.

Mundu onen gaurko benetako gogoak orreik dira, eta jaurkintzako arduradunak kontuan artu bear ko dabez erritarren eskaerai, eskubidedun laterriak izan gura ba-dabe. Ba-dira ?. Ez ! eta orregaitik betiko esta-baida oneik. Leenengoko sasi-jainkotasunetan dabizelako, eta gaur nazkagarria dalako eginkizun ori.

Mundu`ko irugarren borroka nagusia ori da, eta irabazi egin bear dana gerra barik. Gerra sortu balitz, atzerakada aundia izango zalako.

Euskalerrriak badaki zer diran egoera oneik, larriagoak be euki dabezelako, eta beti zentzu andiz aurrera egin dau beren NORTASUNA zainduz.

Euskalerrriaren seme/alabak zentzu aundiz gaur egin bear dauana lelokerietan ibili barik, leenen "EUSKADI dan ABERRIA`ren EGUNA" batera ospatu, alkar-urbillago egon gaitez, batera, bakotxaren ardurazko ordezkartzaren lekutik lasaitasun ta zentzunezko zuurtasun aundiz, Euskadi`ri zor dautsaguzan ardurak beteteko, autezkundetan zalantzarik gabe irabazita, indartu daigun gure NORTASUNEZKO izena, eta batez be, Europa eta Munduko gizartean biztuten dabizen benetako DEMOKRAZIAREN gogapenak indartu daitez.

EKINTZA ORRETAN  
EUSKADI`ri IZARREN LEKUA EGOKITZEN JAKO.  
ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZAN 2.003`an OTSAILLA`ren 20`an



eben be, eta laster maltzurkerien besoetan jauzi ziralako, bata-bestien aurkakoak eginda dagoz geienak Kristautasuna ezarri zanetik.

Adibidez, Espainol gotzaiñengandik: "salatu egiten dabe" ERRI BEREZIEN BIDEA " euren arduraren jabeak ez daiten izan, Euskalerrriari egiten dautsien antzera, eta gaur asi dan guztiz legez kanpoko eta lotsagabeko gudari isiltasun guztia emonda (Aznar`en agintera dagozelako ?) nai-ta AITA-SANTUAK ain gogor salatu ?. Badaukie bai ! nundik nora euren sinismenak aztertzen asi, "KATOLIKOAK DIRAN CONCILIOS de TOLEDO "-tik asita; "DEMOKRACIA INTERNACIONAL CRISTIANAGAZ " sortu dana, agerbide bat bakarrik izan da. Laterriak dabizen indarkerien alde dagozelako, JAINKOA`ren LEGE`tik agertzen jakun berezitasuna alde batera utzita.

Erromatarren ostetik, Europa ontan beintzat, agintarien arloan dana izanda " errege, kaizar-jaun " eta ainbat izen nagusi Eleizaren babesarekin, indarra eta eskubidearen almenak euren eskuetan eukiteko, ERRIAK ta ERRITARRAK kontuan euki gabe eta gaiñera zigorraren keiñuagaz, bai batek espataren meatxuarekin, eta besteak JAINKOA`ren zigortasunagaz, baiña biak ! gizartearen askatasuna murrizten eta giza`ren gorputzak zigortzen, euren sasi-jainkotasunezko asmakeriak goratzeko.

Gaur iñoz baiño geiago, Munduko gizartearen eskubideak, berez agertu eta argi geratzen diranak dira, Mundu guztian jakiñaren arloa askoz aundiagoa dalako.

Egoera orrek, gure GAI`tutako-ARIMA`ri,beren "gogoko-gertarian " (comprensión psiquica) asko laguntzen dautso arrazoiaren elburua lortzeko, aurretiko edo leenengo ezaugarriak zeaztasunezko jakintzan gero ta garbiagoak diralako. A ta guzti be, jakintasunean, baliteke beste goragoko mailla batera eldu bearra, Nortasunezko berezitasunean naiko naastuta gabiltzalako DEMOKRAZIA-ON baten bakotzari berea emonaz bakea lortzeko.

Orrek esan nai dauana, giza`ren berezitasunezko eskubideak, gero ta garbiago ikusten dirala, eta argi gaiñera, Mundu onen ekintzarako, gizon/emakumea ez dalako agertu, beste gizon/emakumearen morroia

izateko, danok Izadiak daukazan legeen larderia bizi baiño. Leen, bardiñak garelako eta bigarren, gure gaiñetik "ZEOZER" geiago dagoalako.

Izadi onek daukazan LEGE`ak be.... ezin doguz aldatu bata !. Gure arrokerizko ekintza guztiak, aize-artean ibiltzea lez bardin-antzekoak diralako; nai leergaillu gogorraz ilketa aundiak egin, legearen zentzuak ardura ta lotsa-gabeko eratarra ibili, bai beste giza- seme guztiak menpetuta euki, denbora gitxi barru aizea lez gauza guztiak euren ordezeko lekuak oster a be beteko dabzelako. Eta edestian zear begituta, gero ta azkarrago lortzen dan gauza da, gure arteko barrikariari ezker, gero ta argiagoo dalako.

Joan gaitez a ikustera ba, gaur Ludi onetan zer gertatzen dan. Eta leenengo begitu bear doguna, Mundu onen gizarteetan ze-eginkizunak izan diran ain jazarraldizko mugi-aldiak milloikada jendeen artean aitortzeko.

Leenengo esan bear doguna: Munduko bigarren guda amaitu zanetik, gizarte guztia bildurtuta geratu zala ikusi gendun ondorioaren ondamenagaz.

Bereala oiuzkatu ziran, Mundu onetako giza-semeen izabide guztiak babestu egin bear ziral a DEMOKRAZIA on-baten egikuntzagaz.

Baiña benetako gogamen orrek eskatzen ebana, guztiz erdi-erdikoak, alderdi-gabekoak edo ez-aldekoak izatea zan, Munduaren erri edo Laterrizko jaurlari guztien artean osotuta eta euren gaiñetik, beste antolamendu berezi bat ezarrita, Mundu`ko legearen arrazoi-elburuak babesteko.

O.N.U. (erri-guztien arteko antolamendu nagusia) zan bigarren tentaldian agertu zana, eta guztiak ikusi eben benetako bidea izan zala. Baiña bereala agertu ziran benetako ordezkariaren bidetik, norkerien gogotik ibiltzen ziran alenginduak, dirudun eta xautzailletasunezko bidean antziñatik kokatuta egon ziranak, eta onen indarrak beti egon dira oitura-gabeko indarrean, errien agintaritz a lortu arte.

Ortik apurtu dira beti mundu onetako eta gizarte guztiaren ametsak. Eta gaur be, ori da gertatzen dana. Berezitasunetik kanpo, bestiak baiño

geiago dana asmatzen dabenak, euren legeak ezarri gure dabez, gaur Ameriketara sortzen dan lez.

Orren aldera, beti elkartzan dira gaia`ren bidez txiroak izan eta baiña ametsetan oso aberatsak diranak, asmakizun bardiñak daukiezelako, eta ez dautse ardura iñungo erri berezizko legeen ardurak betetea, euren aberats elburua lortzeko.

Begitu bestela, Munduko bigarren borroka nagusian, nortzuk egon ziran HITLER eta Japoniar menperatzail-faziztaren alde, nai-ta Franko`k erdikotasuna erakutsi " GUDARI-TALDE URDIÑA " (divisiòn azul) Errusia aldera bialdu eben Estalingrado`ri eraso egiteko. Eta Italia`tik asita zenbatu egin leikezan erriak dira.

Estatu Batuak... Munduko bigarren borroka nagusiaren ostean... zelako asmakizunakin agertu ziran ?. Irurogeiko amarkadan Errusiakin guda-otz baten burukatu ziran, nor-geiago izateko, biak, azaleko ikusketararen demokrazian edo gizartearen-konponketarako, bealdean, xautzailletasunezko andikitasun bardiñak euki ebezelako; bata eskomaldetik eta besteak aurkako aldean, ezkerrean esaten jakonean.

Errusia`k, porrot egin eban, guzitasunezko asmakuntza ori, denbora gitxian bakarrik iraun leikelako berezitasunaren aurka. Bestea, Amerikarrak, beti erdi-purdika ibili dira, eta orregaitik iraun dau luzeago.

Baiña aberatsen asmakizunetan, andikitasunen egarriak beti bardiñak diralako, denbora guztian gura dabe euren betiko nagusitasuna goimailan egon daiten, eta neurri ortan ezin danean, mundu onek daukazan mozkin edo ontasun guztiak euren eskuetan gura dabez euki lotsagabeko edozein eratara.

Nun agertzen da Irak, beren eskuetan Munduan dauan olio-kopuruan bigarrena dana, eta Saddam Hussein (Amerikarraren laguntzaz jaurkintzan ipinia) izaera menperatzail-aberats-fazizta dalako eta erritartean ainbat astokeritan, ilketa kopuru-aundian eginda daukazelako`en aitzakiagaz, euren babesera joan gura ez dabelako... Irak`eko erriak eta bai berak bere aundikitasunean, nortasun bereziak daukielako...., menperatzailtasunezko indarraren bidez gure dabe lortu Irak`eko olioaren jabetasuna.

Emen agertzen dira Estatu-Batuak oiturazko zeaztasunean ipurdi agirian, eta bai beren mai-azpira joaten diran Laterrien legez-kanpoko agintariak, jausten diran ogi zatiak arrapatzera.

Amerikarren babesera joaten diran Txirotasunezko Laterrien agintariak, Ingelesen aldetik Blair eta Espainol aldetik Aznar dira. Eta txiroak dirala esaten dautzet, euren guzurrezko Laterrietan, biak ! erdi-ugarte onetan eta euren ugarteetan, berezizko erriak daukiezelako zapalduta. Euren antolamenduko ezker-eskomakoak menperatzaillak izanda.

Orren bildurragaitik joan dira Amerikarren babesera. Onek O.N.U.`ri uko egin dautsolako eta bere aundikeria erakutsi gura daualako Munduan dagon indarkeri nagusiaren bidez, daukien menperatzaill txirotasunak iraun dagien.

Baiña batera, Mundu`ko erritar guztiak jazarraldian kaleratu egin dira guda onen astokeriaren aurka, lege guztiaren aurrean zentzun-bako eta basatia dalako.

Nork irabazten dauan gaurko gerla au, ez dauka ardura aundirik, egin bear dan kaltea eginda geratuko dalako. Baiña O.N.U.`ren babesa gura daben erri guztiak eta erdizka dabizenak (beste biderik ez dago), oituraren zuurtasunezko neurrian jokutzen ba-dabe basati-ekintza orreik salatuta, Amerikarren azpiko lotsaren margoak agirian geratuko dira, danon begiak euren gaiñean egongo diralako zalantzaren jazarraildi baten.

Aita-Santua`gandik asita, Munduko giza guztiak guda-basati onen aurka agertu dira, eta ori da BEAR GENDUANA !, " BAKOTZAK BERE ARDURAZKO EGIN-BEARRAK BETETEA " ortik aurrera danon artean erreztasun aundiagoagaz lortu leikezelako giza-berezitasunaren eskubideak ordezkatzera eta orko bide-bakarraren orde, danon bakea lortzea.

Euskaldun guztiak eta ez diranak be bai, emen bizi diran guztiak askatasunaren amets-bizian eskubide bardiñak daukaguzelako, benetako eta zuurtasunezko alkar-joko baten bideratu bear doguz gure ekintzak, oraindiño alderdi-kidetasunean ezberdintasun aundiak daukaguzelako.

Orregaitik joko orren zeaztasunak bi izan bear dira: bakoitzaren ardurak zeaztasun aundiagaz betetea leena, eta bigarren, danon artean LOTSAGIZUN AUNDIA ibili daitela, billur barik ASKATASUNAREN ELBURUA, zelan doan urreratzen begi garbiakaz ikusi daigun.

Badaukagu LEEDAKARI on bat eta jaurkintza betetan dabenak ordezeko legez garbitasun guztiaz eta zuurtasunean ausartasun aundiz jokutzen dabenak. LOTSAGIZUN AUNDIZ BEGITU DAIGUZAN.

Ez da bear tirorik, danok gorrotoan daukaguzelako, eta gaur konpontzeko ez dalako bear, arrazoiaren bide onetarako.

EUROPA TA MUNDU GUZTIA, BAKEAREN EGARRI DA, ETA GAUR IÑOZ BAIÑO GEIAGO. EKINTZA ORRETAN , EUSKADI`RI IZARRAREN LEKUA EGOKITZEN JAKO.

ATUTXA` tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003` an EPAILLA` ren 21` an

- ZERGAITIK O.N.U.? -  
( EUSKALDUNAK GAUR )

Erromatarrak ziranetik XVIII`garren gizaldirarte, Erri-bereziaren legeak onein Nortasunezko ardurapean egon ba ziran be, errege-kaizar`en jauntza irasi edo ezarri zanetik, onen alegiñak legearen argitasunak beti illuntzea izan zan, euren jauntzutasunezko alkargokoan egon ziran erriak menpean eukiteko.

Beste aldetik, erlejiñozko eleiztarrak IV`garren gizaldirarte aurrera Jainko-Kristau legeak gogortzen asi ziran, erregearen gizarteko almenak indartzeko eta eleizaren Kristautasuna Mundu guztiko jendaratean ezarteko. Or ! asken baten, nun eta zergaitik agertzen garan bereiztasunezko erri ta erritarrak bereizitasunaren aurkako legeekin inguratu ta oinkatuta.

Gaur be, orren erdi-aro asmakizunaren alegiñetan gabiltz, menperatzaille artean lenagoko eta gaurko arauak bardiñak diralako. Gaiñera, gaur ikusten dogun lez ekintzaren erak be bai, nai-ta lenago guda ta arteko borrokak, batzuk egunerokoak eta besteak denbora labur baten egindakoak ba ziran be eta gaurkoak urte batzuen barruan..... danak ! odol-zale ta odol-ixurlari ziran ta dira, erritarrak ainbat neke, negar, zoritzar, goibelaldi, samintasun ta eriotza sartuta.

Gure gogoetan iruditu genduzan denbora orreik, lauki-bardin antzeko baten barruan obeto geratu daitezkan eta ikusi daiguzan zelako itxuran agertzen diran alde bietako antzerkilariak.

Europa`ko erregetza guztia senitarteratuta egon zan asieratik laster. Euren izaeraren jaurkintzara erritu ziran leñuakaz batera "Askatasunaren Alkargo`ko legedian." osotu eben erria`ren antolamendua. Asieran danak erri batekoak ziralako. Baiña goian esan dogu lez, Europa`ko erregetza senitarteratuta eta jaiotzatikoa garatu zalako, laster arrotzaren eskuetan geratu ziran gure jaun-erregetzak.

Aunditasunezko asmakuntza aurretik etorrita be, ortik aurrera ezberdintasuna aundiagotu egin zan, jaun-erregetzaren asmakuntza goretsita eta erri-soilla beti lez aitaren izkuntza ta etxea zaintzen.



Erdi-aroko legedi guztia olan izan zan, orregaitik erregearen ta jaunaren izenak agertzen ziran: V`garren Karlos Alemania`ko kaizar-jauna, Espaina`n leenengoa, Bizkai`ko jauna, Gipuzkoa`ko erregea, Araba`ko erregea, Naparroa`ko erregea, eta abar, alkartuta.

Arremanaren babesak lortzeko, erriakaz elkargo`ko legedian batuziran be, eleizak ekarten eban katolikotasunezko asmakuntzagaz erregetasunaren jabetza indartzen joan zan, nai-ta errien eskuarteko lege-tresneriakaz jaun erregetzagaz zer ikusirik euki ez, erritarrak euren batzarretan bete egiten ebalako alde batetik, bestetik, jaun-erregetzari babes orren jauna izateko, guda-taldea eta dirua emon bear, jauntasunak beren antolatzaile edo artekariaren lanak bete egizan.

Baiña lege areik ondo eginda egon ba ziran be, zoritxarrean beste lege gaizto bategaz erantsi eutzen legediaren kopuruan, erregearen lana beteteko, bakearen oreka izan zanaren gain, berak guda-taldea bear eban gauzatarako ibilten ba`eban, jaun-erregeak berak ordainduta ibiliko ebala, lege orregaz erregearen indarra aundiagotuz.

Ortik aurrera menperatzaille biurtzen asi ziran, jaurkintzetan latin eta Euskeraren bitartean sortutako erromantzea ibilita, gero gure batzarretan gaztelera sartuta indarraren bitartez eta Euskal ordezkarien artean ikaragarritzko zigorrak eta banakuntzak sortuta.

Errege eta gizon/emakume jaurlariak ekintza orren bidez, geiegian indartzen joan ziran, batez be, erri soil artean jakituria eta argibideak guztiz txiroak izan ziralako. Eta gaiñeratu ezkerro jaurkintza eta eleizaren zergak, bai euren borrokakaz naastauta, beti txirotasunezko bizi batera bideratuta egon zirala kontuan eukinda, leñuak edo erriaren jabetasunezko alegiñakaz, leenengo alditan edozein unetan agertzen zirala errege-jaun ezberdiñen alkargoan, nai-ta aurrerantzean kristau-katolizismoak ekarten eban erdira-nai edo bateraren naia, gure jauntxutasunagaz bide ortatik naaztauta.

Jaurkintza eta erritarren artean giza-bideko oso ezbardintasuna batera joan ziran zabal-arazten, errege-jauntza ta eleiza euren Jainkotasun ordeak betetan eta erria oso naaztuta, bai Ipar-erdi galduta, Nortasuna, Etxea, Erria eta Aberriari zelan eutsi.

Bide orretatik XVIII` garren gizaldian agertzen gara, eta emendik aurrera ez dabe balio erdi-txantxak. Erregetza eta eleiza jaingotuta, ez dabelako ontzat artzen gizon/emakume ta errien Nortasunezko eskubidea.

Frantzi`an 1.789`ko azpikerizko-iraultza saltzaile baten bidez asten dira, erri-berezien Nortasunari egin jaken isekarik aundienagaz, Frantzia`ko erregea frantzesen erregea biurtuta, bertan bizi ziran erri-berezi guztien nortasunak desagertzeko beartuta, klonatu gurean edo erritar bereziak alangoko egoera baten geratu daitezana. Bereala izkuntz-berezien aurka joan ziran zigor aundiakaz.

Europa guztitik, menperatzail-lege ta nerekeri orren bitartez, aitor-seme askok, euren eskuetan erregeak baiño diru eta indar geiago eukiten asi ziran, eta ortik asi zan erregetzaren malda-bera, euki eben indarra suntsitu edo urtu arte. Diruaren buruzpide aldaketak alan eskatzen ebalako, lantegi-gintzaren trebetasun barriak bultzatuta.

Baiña indarra eta diruaren jabetza, jaun-aberats orrein eskuetan geratu zan, eta Frantzia`n egin eben 1.789`ko iraultza`ren eredia artuta, erregeen ordezkoko gudal-nagusien meatxuagaz, gaur daukaguzan eskubide-gabeko laterriak Europa guztian ezarri euskuezan, naizta menperatzaille barri oneik laterri eskubidekoak dirala esan.

Gudal-nagusien laguntzagaz, menperatzaillearen lantegiko-zalakeriaren (industrialismo) eta diru-gosearen (mercantilismo) bitartez, euki eben anditasuna zaindu gura eben, eta ori lortzeko, arrazoi-bako gudal-indarra bakarrik euki ebezan, eta gogor erabili eben Europa`ko jendarte guztia ondo astinduta, oinpean eukiteko.

Menperatzaillearen ezin-egoneko naasgarri egoera orrek, askatasunari begira asmakuntzak aukeratzeko, bide barriaren alegiñak ekarri ebazan, eta ortik asi ziran Munduaren jaurkintzarako era barriak agertzen: Hegel, Marx, ezkerraldeko eritziarekin, Lenin`en komunismoagaz, langilleen babeserako alkargoak (sindicatos), eta abar. Bai, Mundu onek menperatzaille asmakuntzan iraun dagian be gogor ibili ziranak : Hitler, japoniarrak, Franko, Mussolini eta abar. Eleizatik asita, iñork ez eban kontuan artu edestitik datorren eta Nortasunezkoa dan erri Bereziari zor jaken ordezkatzea, naizta oneik, eten-bako borroka baten iraun

askatasunaren billa. Gizarte-langilearen babeserako sortu ziran alkargoak be, nazioartekoak egin ziran, oiñarrizko naziñoak edo erriak kontuan euki gabe, eurak be gaur menperatzaille biurtuta, Mundu onentan JAINKOA`ren LEGE`rik ez balitz bezela.

Tira-bira larri orretatik, Mundu`ko gerra nagusia sortu zan eta danak bildurtuta geratu ziran. Bereala artu zan erabagia, gerra geiagorik ez zala bear, eta arrazoi demokratikoak erabiliz, Gizatasunaren eskubide guztiak zaindu bear zirala.

Erabagi orren bidez, aurrera begira daukagunzan odei-ertzeko (horizonte) lañuak, garbitzen apurka apurka doaz, menperatzaille kolonigilleak edo erri-irasleak aienatu edo urtzen doazelako, baiña oraindiño menperatzaille-laterritarren oinpeetan gagoz, eta orregaitik menpetasunaren arazo bardiñakin. JAINKOA`ren LEGEDIA ez dalako aldatu alde batetik, eta BERE LEGEA`ren bidetik, askatasunezko demokraziaren zentzuak, bakoitzari berea dana edo ardurapean dauana ordaintzea eskatzen daualako, bakea lortu daiten bestetik.

Laterri menperatzaille oneik, jaurkintzan, goitik beerako agintaritza daukie gaur eskukotasun (autonomia) antzeko baten egon da be, erri-bereziari zor jakon askatasuna ez-emotearren, eta ekintza orren ondorioagaitik Mundu onen ekonomia edo buruzpidearen banakuntza menperatzail goitik beerako joko baten ezarrita agertzen jaku dirua esku bakar batzutan batuta. Mundu fisiko onetan, leku batetik kentzen ba-dozu bestea gabetasunean geratzen da. Orregaitik,erromatarrak leen ekarri ba`eben menperatzaille-gogapena, gaurko menperatzaille laterrienak bardiñak dira, nai-ta bigunagoak izan.

Egoera orretan, edestian zear gazteak diranak, estatu-batuetako amerikarren antzera, euren aberastasun indartsuaren bidez, menperatzaille-tentaldira jausten dira errez, Mundu onetan danon ardura izan bear dana euren eskuetan egon daiten, eta zapalkeri ori legeztuteko, menperatzaille diran laterrien agintari maltzurak ondoratuta.

Menperatzailleak, gaurko egunean, guda-borrokaren laguntza bear dabe, euren legezkanpoko agintaritzak iraun dagian, demokrazi baten arrazoiaren bidez beti, jokoza kanpo agertzen diralako.

Eta Munduko asken borroka latz eta odolkoien ostetik, bakearen egarriak aleginduta eta jakintsu guztien aolkuagaz, jaurleri diran gizon/emakumeetan argi bizi-bizi bat biztu zan " Mundu guztian dagozan Laterri edo Nazio guztien arteko antolamendu bat bear zala (O.N.U.) ", demokrazian ezarrita, guztien baimenarekin, berezitasunezko erri ta gizadiari zor jakozan eskubideko ardurak, lotsagizun aundiz emon dakiozan.

O.N.U. sort-arazi eben lege-gabeko laterriakaz, eta gaur ikus-agirian agertzen jakun lez, amerikar-menperatzaille barriak, euren aberastasuna ta indarra erakutsiz, Irailla`ren 11`ko izubidearen deiarekin, euren jabetasunpean gura izan dabe Irak menperatzea eta SADAM HUSSEIN nausitzarra agintzatik botateko aitzakiz.

Baiña, gizartearen jakintasun ta berrikariari esker, iñork ez dau guzur ori iruntzi. Munduko jaurkintzatan nagusitzar asko dagoalako, baiña gutxi euren agintaritzaren lurpeetan ainbeste arrolio (petroleo) dauken lekurik.

Mundu`ko gizarte guztia kaleratu da jazarraldi aundi baten, eta danon aurrean menperatzaille lapurraren izaeran geratu dira, ikus-argitan ori erakutsi dabelako, eta orretan bakarrik joan diralako.

O.N.U. ez dau lortu, gaur egiten dabezan zapalketak lege barruan sartzea, eta gauzak arduraz betetan ba dira, ez dakit zenbat denboran izango dan, baiña iru agintaritzar orreik baliteke epaiketara joan bear izatea, berezitasunezko erriai esetsi edo odol-zaleko eraso egitea-gaitik, batak, Mundu onek daukan indarraren jabe ta agintaritza aberatsaren eskuetan jarraitu dagian, eta beste biak menperatzaille laterrietan iraun dagien jaurkintza, aberats-menperatzailleen eskuetan egon daitezcan dirua eta agintaritzaren indarra.

O.N.U.`ren Jaurkintza benetako argia ta itxaropen aundi bat da Ludi onen berezizko jendarteentzat, onein Jaurkintzarako ez daualako beste bide-obeagorik, danon artean daukaguzan arazoak, danon artean konpontzea baiño. Eta asken baten ori da O.N.U., JAINKOA`ren babes-LEGE`an, ardurak berezitasunezko ordezkari-artean banatu dagizan, bakea lortzeko eta gure ostean etorriko diran ondorengoai, erromatarrengandik gaur arte daukaguzan menperatzaille arazoak gabe

utzi daiguzan alde batetik; eta bestetik, gaurko giza-gainetako jakintzaren gogamenean, arazo oneik garaituta dagozelako eta daukagun ulertzari irain edo aokaldi (insulto) laidotsuak (insultante) diralako.

Menperatzaille aberatsak, orregaitik ez dabe gura O.N.U.`ko jaurkintzaren agintaritzaz, beren bidetik eurak daukien menperatzaille agintaritzaz eta diruaren jabetasunak suntsitu (desvanecerse) egiten diralako, eta oiñarteko antolaketa berezitasunezkoa biurtzen dalako.

### EUSKALERRIA`RI BEGIRA:

Euskaldunai eta Euskal-Lur onetan bizi diranai askatasunaren ametsean diñotsegu, ez dirala tiroketaren garaiak, arrazoiarenak baiño eta Europa`ko aolkularitzara eroanda O.N.U.`n berezitasunezko erri bat bezela artuak izan bear doguela. Europa`ko ZAARRENA`k gara gaiñera, eta izate orregaz emendik aurrera ! alde guztietatik begituta ikertuak izango garalako.

Gaurko Munduaren agintari eta jakintsuak arrituta geratuko dira, kontuan jausten diranean gure LEGE ZAARRAK euren lege-egarriak osotzen dabezala Ludi onetan bakea lortu eta ezartzeko.

Eta geiago, konturatzen diranean, IBARRETXE`tar JUANJO gure LENDAKARI jaunak aurrera egiteko erabiltzen dauan legearen itxurazko egitaraua O.N.U. ber-beraren egitaraua dala.

Erromatarren gandik asita edestiaren etorkizunean menperatzailleak agindu-naian Euskalerrian egon diran jaurkintza guztiak Eleizatik asita danak ! Nortasun Bereziaren aurkakoak izan dirala, gure arbasoak JAINKOA`ren LEGEA`ri begira egiten ebezalako euren itxurazko egitarauak, eta ez aberats-menperatzaillezko asmakuntzan ibili diran orrein sasi-jainkoaren gogoak beteteko.

Orregaitik esaten dabe, Erri Berezien Nortasunean dagoela erru guztia, eta ABERTZALETASUNEAN geien.

Ez dira konturatzen Ludi oneri JAINKOA`k emondako LEGE-BIDEA berezko berrikuntza baten ezarrita dagoela, gu ordezkari batzuk bakarrik izanda. Orregaitik daukaguzan berez berezizko NORTASUNAK berezi-ezinezkoak dira, Berezko legean agertzen garalako, eta gure

artean NOR-BEREN eginkizunetarako " LOTSAGIZUNAREN ORDEZKO  
ARDURAN ESKUBIDEDUN " jaioten garalako, bakoitzaren  
ordezkaritzak beteteko, JAINKOA`ren LEGEAK erakusten dauan lez.

Jo-ta ke, ibiliko dira berezitasunaren elburua apurtzen, baiña  
ezinezkoa da, gure eskuetan ez dagoalako aalmen ori.

Orregaitik Euskaldunak eta Euskal lur onetan askatasunaren  
ametsean bizi garenok, fazizten azkeneko ostikada orreik, datozela,  
jakinda artu bear dira, zapladaren indar txikerrena artzeko, espataren  
indarra euren eskuetan dagoelako, eta eten-bako ardura baten salatu  
egia`ren arrazoia azaltzeko. Beti dabiz espataren arrazoiak ezartzeko,  
baiña guk ez badautseguz emoten ibiltzeko arrazoiak, ariñago irabaziko  
dan gauza da oiturazko jakitearen borroka irabazita daukagulako.

Egin bear dan gauza, IBARRETXE LENDAKARIAK agertu dauan  
moral, ekanduzko edo " JAINKOA eta LEGE ZAARRAREN " oiturazko  
itxuran " ASKATASUNEZKO ALKARGOAN " (de libre asociaciòn)  
egitarauari eutsi ta arrazoiaren indarragaz sendotu, gure ABERRIA`ri  
zor dautsaguzan ardurak bizkortu daitezcan, guztion poztasunean  
ASKATASUNA lortzeko.

Ez litzake izango asiera makala ASKATASUNEZKO ABERRI-EGUNA,  
danok alkartuta ospatuko ba` gendu.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003`an EPAILLA`ren 31`an

Baliteke alan izatea. Euskalerria Mundu onen etorkizunean zaarrenetarikoa dalako eta gure Europa onetan zaarrena. Bere gizartearen ikas-bidetik, askatasunaren eskubideak neurri aundienean zainduta euki dabezenak guztien ardurazko ordeak bakoitzak eta danon artean zaindu daiguzan; bat ! bera esan dabe, edo banakako gizon/emakume zar edo gazte izan arren alboratu barik, eta guzti ori beti ! JAINKOA`ri begira.

Bizi luze onetako ikas-ekintza orretan eta antziñatik gauza aundi bat neurrian zeaztu egin ebelako " NORTASUNA "ren itza nabarmentasun guztiaz agertu jakon. Itz onek bakar, atal-gabeko edo bakuntasunezko itxura baten agertzen bada be, beren berezko izaeran bera da Mundu onetako esangurea mugatzen dauan itzik ederrena, giza, gizarte eta gauza guztiak diran ezberdintasunezko maillatan izaerazko egokitasunagaz osotuta, bakoiztasunezko itxurapenak edo eginkizunetan daukien ordezkotza, itzez zeatz mugatzen daualako.

Nortasuna berezia da Mundu onen nai-ta naiezko bizitzan, arima bakoitza itxurazko gai-zorro baten azalean sartuta agertzen garalako. Ortik aurrera, bera da Munduko gai guztien eskubide-zorduna, berarekin eta gizarte guztiekin, gai onek daukazan LEGEA`k betetako. Orregaitik Euskalduna antxiñatik konturatu zan JAINKOA`ren LEGEA`k zirala bete bear ziranak gure bizitzaren epe laburrean.

Ortik, berez agertzen dana, bakotzaren ARDURA da, NORTASUNA`ren itz ederragaz neurtzen doguna.

Orregaitik gure baserrietan gaur arte beintzat, tokirik ez da egon izendaturik gabe, leize edo etxeko azken baztarretik asita, mendi eta ibaiak osotzen dabezan nabarmenezko berezitasun guztiakaz: nekazaritzarako lurrak eta danetarako esku-artearen ibili bear ziran tresneriak, landara, lore, belar, abere, egazti, narrastarien arteko suge-motak, bai giza`ren ezberdintasunak eta abar. Bakoitzaren izenean, gure bizitzarako daukiezan on edo txarrerako berezitasunak izen-itx orren izaeraren barruan ezaugarria emonda.

Ikas-bide onek, gizon/emakumeari berak ! erakutsi eutson Mundu onen ezberdintasunezko giza, abere eta gai-guztien motak, osagarritzko ordezkarrizaren ardurapean sartuta dagozela elburu bat lortzeko, JAINKOA`k Beren LEGEA`ren bidez beartuta.

Orregaitik, Kromañon`eko leenengo Leiñuetatik asita zaarren artean batzartu egin bear ziran, bizitzak, daukazan arazoak konpontzeko eta beren legeko erakutsien irakaspenetik eredia artuta, eginkizunezko gauza guztietarako NORTASUNEZKO izenak on-artu eta jarraian ezarrita, etorkizunean danon ezaugarrian oituratatu daitezcan.

Kromañon gizartearen ugaritasunagaz, leiñuaren ugaritasuna be sortu zan, baiña oitura eta izkuntz baten oiñarrituta.

Gaurko jakintsuak esaten dabe, Europa`ko izotz-urtzean, izotz-oreiñak (Reno) eta Mamutzar`en iges-aldian edo atzerakada egitean euren atsegiñezko giroan egoteko, Euskal eiztariak eizan euren atzetik Europa guztitira zabaldu zirala, orregaitik Europa`ko jendearen geneak % 75 Euskaldunal dirala eta beren baztar guztiko izkuntzetatik aurkitzen dirala Euskara`ren oiñarrizko itzak: " Aran, Ibar, Ur eta abar asko.

Dana dala, gure arbasoak berezko ikas-bide orretatik: izkuntza, erligio, errijakintza arlo guztietan eta izaerazko oituran, demokrasi aundi baten batzangotuta (globalizaciòn) agertu ziran bakoitzari berea emonda danon babesean, gure LEGE-ZARRAK adi-erazi egiten dauan lez. Nai-ta gaurko demokrasiaren eta gure menperatzaille diran etsaiak euren erasoetan esaten daben lez: " Euskaldunak sekula ez genduala laterrizko giza-mailla bat antolatu " eurak daukien lez. Orduko bizi denboretatik ez zan izan giza-mailako antolamendu naikoa ulermeneko-batzangotasun bakezko eta askatasunezko demokrasi on bategaz gozatzea ?.

Baiña etorri ziran Menperatzaille-Erromatarrak bai ! JAINKOA`ren LEGEA`k aintzat artu barik, eta euren sasi-jainkotasunezko legeak ezarri gure ebezan.

Euskaldunak ortik aurrera gabiltz borrokan, euki genduzan eta daukaguzan gure oituran askatasunezko demokrasiaren LEGE-ZARRA`k babesteko. Jarraian ikusiko doguna, edestiak okerrean marratzen



dabilen oso zabaleko bide-biribilla, leen ezaupenezko demokraziaren zeaztasunetan ostera be ezartzeko.

Euskaldunak ikusi ebenean erromatarrek zelako indarra ekarren eta nolako kalteak egin ebezan gure erriaren biotz-erditik urrun edo Añamendiaren babeseko bizkarretik urrun inguru-aldean egon ziran Euskal gizeli edo leñuakaz, eurakaz bat eginda geratu ziran.

Euskaldunak erromatarren porrotaren ostean, ostera eta laster berrezkuratu eben euren erri-gorputzaren izatasun guztia, baiña gauza bi geratu ziran Euskalerruari eta erri-berezi guztiari kalte asko egingo dautsozenak: bata, euren izkuntza edo latiña eta bestea, Kristautasunezko erlijioaren eleiz-gizonak eta iraspena bera be, menperatzaille burutakizun orregaz lotuta geratu zalako Konstantino`k 325`an Nizea`ko Kontzilioa batu ebanetik aurrera, eleizari ainbeste indar emonda.

Batera kontuan euki bear dana, Kristautasunezko irakatsiak alboratuta, kristau erlijiozko eleizak latiñegaz batera joan dirala erri-berezien aurka, onein izkuntzak ta Nortasunak kontuan arturik-gabe, danak kristautasunezko batzango baten batuta, gaur egunean Ameriketan sortzen diran alderdi-galgarri oneik lez eta beti egon dala jaso ziran erregetzaren erispen guztien gaiñetik.

Mundu onen gizartea..., antolamendu on baten billa antziñatik dabillelako ?. Egia da, eta kristau eredu ori gura eben, baiña konturatu bear garana da, beti zikintzen dauana, sasi-jainkotasunak gaiñean ezartzen dauskuezanean izaten dala.

Goiko JAINKOA sinisten dogulako ?

Orregaitik gabiz alde batetik bestera joanda buruak apurtzen, Mundu`ko gizartearen NORTASUNETAN ainbeste naaskeri, oiñaze, min, neke eta gaur diran barregarritzko ekintzak lotsarik-gabe egiten.

Ez gara gauza izango....., egunen baten Izadi onek daukazan LEGEA`k onartzeko ?. BEREN LEGEAK DIRA !!

Godomenperatzailleak agertu ziran berriz Euskal-Erria menperatu naian eta laster konturatu ziran erdi ugarte au euren agindupean gure ba eben euki, erlijioagaz bat eginda izan bear zala. Orregaitik eleiz-gizonak errege Godoari keñua eginda edo alderantziz izan, oneik ekarten

eban Arriano`ren kristautasuna 587`an Rekaredo`k bertan alboratuta 589`an katolikotasuna besarkatu eben Toledo`ko eleiz-batzarrerako deituta.

Ortik aurrera indartzen asi zan euren erregetza, baiña batez be euren ustez Toledo`ko eleiz-batzar inguruan menperatzaille eleiztarren artean alako ameskeriko naikunde antzeko bat euren gogakizunetan geratu zana, edestian andik ona minbizi baten antzera sartuko dana European eta batez be erdi-ugarte onetan eraikiten diran erakunde guztietan, nai erregatzaren, guda-gizonena ez dan jaurkintzatan.

Godon porrotaren ostetik eta mairutarrak indar geienez egon zirala Pelayo`k 718`ko urtean Asturias`eko erreñua eraiki eban 910`ean Leon`eko erreñuan geratuko zana, eta Euskaldunak Banu-Qasi sendi mozarabearen laguntzagaz 824`an Aritza`tar iñigo`rekin Napar-erregetza sortu ebenean.

Eleiztarrak, onartu eben Euskera eta latiña`ren bitartetik agertu zan naaste borrazteko izkuntz baragarri bat gero " latinkume " (romance) deituko jakonari eta beranduago Gaztelera.

Eta gure Napar-erregetzan, gero Gernikako batzarretan sortu zana gertatuko zan, erregearen ordezkioak ez ebelako Euskeraz jakin eta indarkeriz erdera ezarri zan.

Napar-erreñuan ez zan sartuko indarkeriz, baiña bai eleiztarrak euki eben eragipenagaitik, jaurkintza eta eleiza oso lotuta egon ziralako, bai erri gaiñetik aldakuntzazko goiko mailla ezberdiña erakusteko on artu zalako. Orregaitik gure berezko Euskal izkuntza Santxo Jakintsuak " LINGUA NAVARRORUN " izendatuta be, Euskeraz sekula ez zan idatzi gorte edo erregetxetan aolku edo argibide bat bera esanda be.

Gure erregetza guztian Austria`tar II Karlos il arte beti jaurri edo eraendu gara gure arauzko legedia batzar nagusietan eraikita, baiña 1.700`ean V`garren Felipe Borboia erregetzan ezarri zanetik eleiztarren laguntzagaz guzizko agintaritza gura eben Europa guztian antzekoa izanda, eta ortik asi ziran iru gauza miragarriak agertzen, parean joan ziranak: bata, erregetzaren malda-bera egia eurenagutzen asi ziralako eta euren al-osokerien bitartez sasi-jainkotchara eldu ziralako, ainbat zapalkuntza eginda.

Bestea, Espainol eleiz-gizonak erregetzaren astokerizko zapalkuntzari jaramon edo kasu egin barik, euren al-osokerizko siniskaien bitartez, alegin guztiaz eutsi gure izan dautsolako berezitasunaren aurkako burutakizun oneri, eurak eta eleizak euki dauan sinismena ezerezean itzita.

Irugarrena, erritarrak 1.800 urtetik aurrerantza Arana`tar Sabino`ren irrintziari ezker eta ikas-bidean beste aurrerakuntzako jendekuntza batean sartu zalako, eta batez egiaren osotasuna beteten daben ezaugarriak erreztuten joan diralako, gaurko egunean argi ikusten da berezitasunaren oiñarria berreskuratu egin bear dogula Mundu onen eta gizaren babeserako, danok ardurazko ordezkartizan sartzen gaituelako.

1.789`an Frantzi`ko iraulpenetik aurrera ainbat borroka egon dira Europa`n bata bestea baiño gogorragoak, menperatzailleen eritzian ordezeko al-osotasuna berezitasunaren ordezeko euren eskuetan eukiteko; eta erri-bereziak Mundu onen legedia zaintzen, berezko nortasun biotz baten ez diralako ulertzen zapalkuntza oneik.

Danak borroka latzak izan ziran, eta izkilluen tresneria egokitzen joan ziran 1.914-1.918`ko saio aundira eldu arte.

Ikaragarrizko triskantzak eginda gero, ez ziran ados geratu irabazlerik ez zalako argi geratu. Eta ostera be asi ziran izkillu eta legeak egokitzen askeneko ta ikaragarrizko triskantza egin arte 1.940-1.945`eko borroka nagusiaz.

Or bai agertu zala irabazlea, baiña baleiteke iñork ez ulertzea zetan ibili ziran, erri eta gizartearen eskubideak leen eta edozein gauzaren gaiñetik zaindu egin bear zirala esan eta sinatu egin ebelako, baiña ezkerreko alkargotik asita erri berezitasunezkoak on artu barik, erri-arteko politikan ezarri dira. Danak gurako dabe mozkin bardiña ?.

Eleiza be, borroka guztietan menperatzaillearen alegiñetan beti ibili da, Irak borrokan izan ezik, baiña laster argi geratu da, Toledo`ko eleiz-batzarrak maitetasun aundiagoan daukozela Munduko berezitasun guztiak Euskadi edo Euskalerrria artean dana baiño.

Lasa eta Apalategi`tar Jose`k, berak argitaratutako liburuan "EL PUEBLO VASCO DEMOKRACIA TESTIGO DE EUROPA ", esaten dauan

antzera: " bizitzarako legean, edozein denbora gaurko denborak baiño obiagoak izan dirala " enoa esaten, baiña bai asieraren etorkizunezko millaka urte diran denbora areik, gaurkoak baiño obiagoak izan bear zirala bai.

Eta nun agertzen garan erabagia artu bear dan ordura. Izadi onen gizartea eta batez be Mendebal onetan, noren eskuetan geratuko diran Mundu onen ordezeko ardurak. Munduaren aberastasunezko banaketetan izugarrizko ezberdintasunak ordezkutzen gabiltzelako, gizarte guztien iru laurenak txirotasun edo ustel bizitzatik eriotzara bialduta, bai bera maldan bera doalako ikaragarritzko ariñeketa baten eta fisikoki naaste geiegi asi garalako moltzotuten, beti borrokan ezindalako ibili, gaurko jakintzak ez dauelako iñundik iñora on-artzen.

Munduko bigarren borroka nagusiaren ostetik, zorionez, arrazoiari edo DEMOKRAZIA`ri keiñu galantak egin jakozan erri guztien alkargo bidez, O.N.U. (erri guztien arteko antolamendu nagusia) izan gure dauan iraspenagaz babesteko, baiña Mendebal onetan menperatzaille nagusien artean norkerietan asi ziralako, laster aztu ziran ariñagoko bioz-belzkeriarekin eta bide orretatik laster eldu gara ostera be ormaren aurka buruagaz jotera.

Leenengo, ibili ezkerro daukaguzan atomo-leerkaiekaz...., danok goazelako JAINKOA` rengana ganora barik.

Bigarren, erri ta gizartearen ardurak diran eskubide-ordezko zak menperatzaille-arrazoiakaz zapaltzen asten ba dira gaurko lez...., millaka gizon/emakume zutituko dira NORTASUNAREN arrazoiak babesteko.

Orduan....., norena dala esan bear da gaur dabillen ikarabide (terrorismo) au ?.

Iztegiak, argien salatzen dauana: " ikarabidezko-azpiratzaillearen legea`ri ". Eta lege guzti orreik gaur, espataren bidez ezarrita eskubide-bako Laterri menperatzailletan dagoz. Orduan nor da.... Izutzaille (terrorista) ori ?. Argi dago.

## ONDORIOA:

Edestitik zear ibili dogun ikus-oroipen onek, leenen erakusten dauskuna, agintaritzagaz burutu diran gizakiak izan barik asto-utsak izan eta dirala esan bear da, beti sasi-jainkotasunera jo dabelako.

Orregaitik, len esan doten lez aldaketako ordura eldu garala egia da, gizaren arimak gaur, ezin dabelako danon begibistan doiezan ainbeste maltzurrezko-indarkeri giza-barnean bakez eroan, NOR-BERA`gandik asita danon baitan kalte aundiak egiten giza-lez dauskuzalako.

Tirabira asko izan bear ditugu arrazoia orekan ezartzeko, batez be, xautzailletasunaren amets-aberats edo aukerakerizko bizi baten bete betean sartuta gagozelako.

Mundu guztian DEMOKRAZIA eskatzen dogu eta eskaera ori, bai bidea be ondo ulertuta daukagu. Ez Amerikar, Ingeles eta Espainol menperatzaillak esaten dauan lez demokrazi aundi baten bizi garela, len eta gaurko zapalkuntzak bardiñak diralako, eta gaurko antolamenduari erdi-inguruan itzuli egin bear jakolako.

Baiña merezi dau, ordezeko arduraren bide ori sarigarria dalako, JAINKO semearen edo arrazoizko gizaren izena irabazten dogulako.

## O.N.U.:

O.N.U`ren babesa eskatzeaz gain, erri guztien arteko antolamendu nagusia eskatzen dogu, demokrazi aundi baten ezarri gaitzan, al izateko danon ardurazko zor-eskubideak bete daitezcan Mundu onen gaisikotik asita.

Begitu nundik nora itzuli bear garan, erdi-mendean itxitako KROMAÑON berez batzangotasunezko ikas-bidera. Ikas-bide ortatik urtenda dan guztia arrazoitik asita ganora barik naastu egin dogulako, eta bide onetatik jarraian iraun egiten badogu JAINKOA`ren izadi au BERE itxura barik geratuko dalako.

## EUSKAL LEGE-ZARRAK:

Eta Mendebal onetan zein da NORTASUNEZKO GIZA areik millaka urteko ikasketak bizi egin zituena ? Emen EUSKALERRIA beren LEGE-ZAARRAKAZ ! zalantzarik gabe. Betiko beren bizitzan babestu dabezanak izatasun guztiaz, berentzat eta emen bizi diranentzat JAINKOA`ri begira eta askatasunezko ametsean sinismen ikurragaz eginda dagozelako.

Orregaitik daukaz EUSKALERRIAK ainbeste etsai ?. Baleiteke, menperatzaille guztiak diralako, eurenak ez diran eskubideko jaurkintzak itzi bear daben erri-berezitasunezko eskuetan (asko dira), O.N.U`ren antolamendu baten sartzen ba-gara. Eta sartu bear gara, gaur egunean berezizko-arrazoiak garrazika eskatzen daualako.

EUSKALERRIA... EMEN DAGO !! IZAR AUNDI BAT LEZ.

ETA EZ DOGU ARTU BEAR IZKILLURIK ASKATASUNA LORTZEKO, BATEZ BE, DEMOKRAZIAREN ARRAZOI-BIDEAK ARTUTA DAGOZELAKO.

BENETAKO JAKINTZA BEAR DOGU GURE IZAERAZKO " LEGE-ZAARRETAN " SINISMENA ZENDOTZEKO, ETA BERAK EMOTEN DAUAN INDARRAGAZ, " DANON ASKATASUNA LORTZEKO ".

IPARAGIRRE`GAZ DANOK ABESTU DAIGUN " GERNIKA`KO ARBOLA SANTUA ".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.003`an ORRILLA`ren 20`an

Olazar`tar Martin`egaz sarri egoten naz aldizkarirako nire idazlanak zuzentzen edo bear dogun guztirako. Eta noz bein gauzea tentaldiarloro eroanda: " ia noz egiten dogun egun baten alaitasunezko osteratxo bat Euskalerrria obeto ezagutu daigun " esaten dautsetenean, berak ezer esan barik, urrengo alkar-eguneko tentaldira arte itxaro dau, eta orduan atara egun orretarako egitaraua.

Oraingoko egitaraua irakurten asi zanean, bidean esango daustela esan neutson, eta ondo dagoela esan ondoren Solozabal`tar Paulin be, gugaz etorriko zala esan eban.

Alkar-eguna Zornotzan Bagilla`ren 1`ean goizeko 10`etan non eta noizko egun-orduak ezarrita, irurak Zornotza`tik urten gendun Kexana`runtz, bidean Luxaondo`n geratuta " Zugatz-Malato "ren oroi ingurua ikusteko.

Irugarren edo laugarren apainketako aldakuntza da Larunbatean ikusi genduna, eta ez dabe egin ganorazko oroi gaillu bat, Euskalerrriko zanean legean " Zugatz-Malato "k gogora dakarren oiturazko legeen erakusmena jendarteari ezagutzera emoteko.

Arrespalditza`ko bidea artuta Kexana edo Kexaa`ra joan giñan an dagozan dorreak eta erakus-tokiko ingurua ikustera.

Aiala`ko ibarra mendi aundien artean mugatuta dago, bere Ego aldean " Tierra Salvada ", bere bizkarrean 1.185 m.`ko goieraz Eskutxi mendia luzetzen dala. Eta Iparraldean Mena eta Aiala`ko ibarrak zarratzen dauan 998 m.`ko Ganekogorta aundia.

Kexana edo Kexaa inguratzen daben erriak, Iparraldetik: Beotegi, Billodas eta Ibarquen; Egoaldetik: Ozeka, Menoio eta Izoria; Mendebalean: Erbi eta Luxu; eta Eki-aldean edo Eguzki-aldetik: Arispaldiza 1.095 urteko agirian agertzen dan antzera, edo Arrespalditza gaur izendatuta dagoan lez, dira.

1.095`eko urteetan Lekaidetxea aipatzen da, baiña daukazan babeserako dorre aundiak ez dira egiten XIV`n gizaldi amaiera arte.

Aiala Ibarra`ren eleiz, baseliza eta lekaide/lekaimetxe askotako arduradunak izan ziran bere abatak.

1.257 urtean, Aiala abade-nausigo edo abadeburu-mende (arciprestazgo) agertzen da, beste 10 apaizburu-lurraldegaz batera: Orduña, Zuia-Barrutia, Kuartango, La Ribera, Trebiño, Bitoria, Ganboa, Leniz eta Egilaz`ekin antziñako Araba osotzen ebenak. Onen oiñarritik Araba`ri IX gizaldian Gotzaintasuna emon jakon eta Araba`ko konde guztien indarra ezertzen zan bere magalean.

Oroigarri ederra da Kexaa`ko inguru ori, edestian zaarra eta oso aberatsa dalako. Aiala`ko jauntxutasunak Nafartar, Leoneko leenengo eta gero Leon-Gazte`ko erregeakaz arremán aundiak euki ebazan.

Araba`ren eta batez be Aiala`ko edestian muturra apur bat sartuta ikusiko dogu: zelan, Ispania`ko I Karlos, Alemani`ko V<sup>a</sup>, Bizkai`ko Jauna, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa`ren erregea-gandik asita, Cisneros kardinala aaztu barik, Espaina`ko kaizergotzaren ametsdunak azten dira erdi-ugarte onen barruan dagozan erriak batzangotuten, maltzurtasunean, zuurtasunezko lege eta guda-indarrak erabiliz. Baiña Habsburgotarrak ez eben lortu ori, erri berezien legeak iraun egin ebelako 1.838`ko urtean gudako izkilluakaz eta guzurakaz Euskalerría menperatu eben. Alde-batetik, Aiala`tarrak leen Euskaldun berezko erri-legearen aldekoak ziralako, nai-ta euren jabetasunezko Murga`tar leiñukoak, I Karlos`en aldekoak izan.

Dorretzar barruan dagoan " Virgen del cabello " otoiz-tokira sartu giñan leenengo, eta bertan dauan erretaula edo aldare-buru ederra ez da sortzezko edo jatorrizkoa aldatua baiña, kantziller`en aldare-burua Txikago`ko erti-eder`en ikastetxean dagoelako.

Bertan, eliz-mai aurrean Lopez de Aiala`tar Pedro eta Guzman`tar Leonor`en illobi-irudi ederrak dagoz kokatuta.

Lekaimetxe`ko (bebarrukoak diran " clarisas ": argi-zaleak ?) eleizara joan giñan gero, eta nundik-nora ikusi neban, guri txikitan ainbeste atsegin emoten euskun izena Sarmiento`tar Maria`ren illetako soingaiña alde batean, eta bestean Perez de Aiala`tar Fernando`rena.



Geiena ikusi gendunean, liburuak erosi genduzan. Bat ederra beintzat, Kexaa`ko dorrea egin zanetik 600 urte bete ziranean argitaratutako oroit-arazle edo gomutagarritzko liburua.

Amurrio`ko bidea artuta Orduña`ra Antigua`ko Amaren eleiza ikustera joan giñan. Ango edertasunak ikusi ondoren, bertako liburua erostera, baiña txirrina jota ez zan agertzen iñor.

Orduña`tik Espejo`ra joan giñan bazkaltzeko, eta ezeren premiña barik an egon giñan solaseko izketaldi eder baten Pauliñ`ek txokor ederra erre-arte.

Angosto`ra joan giñan Ama Birjiña`ren leize-zulo edo koba ta erreka ikustera, lekaidetxe ederra, eleiza ta inguruak ikusita Balpuesta`ko Done Maria`ren Kolejiata (zelan euskeraz ?) Gotzain-Eleiza izan zana Autrigoi`en Gotzaiña an egon zalako, Nerbioi-ibaitik Balpuestara`ko lurrak kontuan artuta. Guztiz ardura-gabean dago ain garrantzi aundiko eta oroimengarria dan eleiza, dorre eta inguruko etxeak. Gure eskuetan egon bear ziran zaintzeko, Espaina menperatzaillaren eritzikoari ez dautselako ardura Euskalerriko edestiak. Alpertasuna errepideetan be argi ikusten dala.

Balpuesta`tik Basabe`ra joan giñan Pauliñentzat iru urtean leenengo apaiz-erria izan zana eta irurogeita iru urte andik urten ebala.

Eleiz ondora joan giñan eta etxe baten aurrean ezarrita andra-gizon zartsu bi egon ziran.

Gurditik beratu gintzazenean Paulin euroi begira adarra joten asi jakien.

Pauliñek itandu eutsoen ia eurak nungoak ziran, eta erantzun ondoren eurok be alegindu ziran ia gu nungoak giñan itanduten.

Martin`ek, Mungia`koak garela esan ondoren, gizon zarra Ortiz de Zarate eta Urtaran`tar Angel deitzen zanak: Mungia.....(eta ezarlekutik jauzkada egin eta beragana joanda), Paulin !! esan da besarkatu eben.

Olan egon ziran zati baten eta Angel`ek beren andreari Oribe eta Kinkozes`tar Sokorro deitzen zanari Alberto`ren billa joateko esan eutson.

Alberto ez zan egon eta eleiza ikustera joan giñanean Paulin`ek aldare aurrean erdi ametsetan geratuta, Martin`eri esan neutson: " zenbat arpegi ibiliko ote da gogoratzen unetxo onetan ". Martin`ek irripartxu bategaz erantzun eustan, eta laster Paulin`eri gogoratu eutson gure ostera ez zala amaitu oraidiño.

Martin eta ni eleizatik urtenda gurdira joan giñan, eta birritan gurdiaren txirrina jo izan bear gendun bizkortu daitezcan.

Ez da gutxiagorako, irurogeita iru urte geroago leen, euren gaztetasunaren arreman-miñako gertakizunak gogoratzen asi ez gero. Kontuan artuta: 1.936`ko guda ostetik 1.940-1.944`ko denbora latzak izan zirela.

Senar-emazteak agurtu ondoren Kinkozes`era joan giñan Artziniegako bidea artzeko, eta bertan Intziña`ko Ama Birjiñaren Santutegia ikusteko.

Eleiza ikusi ondoren lekaidetxearen atea jo gendun bertako liburua erosi gura gendulako, baiña an ez eban iñork atea zabaldu.

Lekaidetxe ederra eta ondo apainduta dagon ingurua da, danok ikusi bear doguna. Bide batez beren edestia ezagotuta, jakin daigun zelako edertasunak daukaguzan gure Euskalerrri maite onetan.

Gordexola`ra joan giñan eta ostera amaitzeko Somorrostro`ko burni meaztegi ingurua ikustea egon zan lez Martin`ek asmatutako ibilbidean, txirringa baten gaiñean etorri zan gizon bateri itandu geuntson ia bide labur bat ezagututen eban ara joateko. Ezetz esan ebanean eta berandu ta bide-luzea izan zan lez..... gizon aregaz denbora apur baten alkar adarra joten egonda etxerako bidea artu gendun.

Egun ederra ospatu gendun, batez be, Euskalerrria gaurtik aurrera obeto ezagutzen dogulako beren arimaren izaera eta irudian, benetan ederra dana.

Zornotzan agurtu gintzazanean, ostera au ez dala azkenekoa izango`ren asmoakin bakoza beren etxera joan giñan.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.003`an BAGILLA`ren 9`an

Errusiatarrak antziñatik, kaizargo menperatzaille`en denboratik, baiña batez be Staliñ`en deboratan, " iru U`en gaitz-zantzuak " azurretaraiño sartuta euki ebezan: " UGADAT, UGODIL, UTSELET ".

Au

Onein itzulpena izan leike: " USAINKATU edo USMATU, KOIPEKERIETAN adi ibili edo AO-ZURIKERIETAN eta BIZIRIK GELDITU ".

Orren esangurea bakarrik argi azaltzen dauana: Errusia`ko gizartean, leen kaizargoaren menpeko eta gero komunismua`ren batzako lagun-arteak, guztiz ustelduta edo satiegituta egon zala, euren oiturazko arremanak guztiz barregarrituta geratu ziralako, eta orregaitik iñor konturatu-bako unetxo baten bea-jo edo erroiztu ziran.

Gaur, or dabiz borroka latzetan, berezitasunezkoak zentzunezko bidera eroan naian, eta menperatzailleak, eskuetan izkilluen indarrak daukiezelako, lengo menperatasunera eroangura.

Gaur, zuriak eta gorriak, danok dakigu berezko bidea zentzunez ta edertasun guztian beteta jokutzen ba-dogu bide bakarra dala JAINKOA`rena dalako, baiña a-ta guzti be gure ordezkarietarako dakargun diruen jaurritasuna aldetzeak bildurra edo izu-ikara emoten dausku, aldaketaren era barriak beldurra emoten dauskulako gure on-biziaren babes-ziurtasunerako.

Orregaz poztuten direnak, menperatzaileak dira, ekintza orrek gure gizartea zatitu edo banakatu egiten daualako, eurak garailari agertuz.

Etorkizunezko bide ori da benetan apurtu bear doguna, bizi onen zentzua ez dalako xautzailletasunarako bakarrik, oituraren arloan daukaguzan beste gauza aundien artean, ordezkarietako ardurak berez eta berezko LEGE`tik agertzen jakuzenak dira leen bete bear doguzan baldintzak, bakotzari berea emonda, bakotza beren ardurazko ekintzan al izan daiten pakez eta lotsagizun aundiz ordezkarietaren arloa zaintzeko.

## GAURKO DENBORAK:

Gaur daukaguzan eskubide-bako laterri menperatzailleak, goian aipatutako iru U`en gaitz-zantzuak (sintomas patològicos), gure Europa`ko erri ezberdiñetaren jendartean ostera be ezarri gura dabezala esan leike, eurak danon ardurak bideratzeko: " USAINKATU edo USMATU; KOIPEKERIETAN ADI IBILI edo AO-ZURIKERIETAN; eta BIZIRIK GELDITU.

Baiña gaur, dana birrindu egiten daben atomo-leerkaiak ezin diralako erabili, balekite azkeneko esaldi onek: " BIZIRIK-GELDITU " beste aldaketa bat eukitea euren menperatzaille jokabideak indartzeko eta Errien jendartean pakean ta orekan adostasuntzeko bear diran arrazoizko ekintzak apurtzeko jokoak asmatu: " ERAMAN-EKARRI`koak edo NUN-ZEBARRIKO`ak " erabili eta sartu, lotsagabeko aundienak sasi-jainkotasunean ondo-bizi daitezcan euren zapalkuntzak babesteko.

Ori da gaur, argi, bai garbi be ikusten dogulako agertzen dana, adibidez: " Espaina`ko epaitegi nagusiak laterri`ko jaurkintzagaz daukan gezurrezko indar guztian, EUSKAL-LEGE BILTZARRA`ri eta JAURLARITZA`ri egiten dautsozan legez-kanpoko ekintzakin euren aurrean belauniko agertu daitezcan, mende-gabeko edo biurrikeriak leporatuta ".

Eta PP-PSOE nai-ta etsaiak izanda be, Espainol jaurgo-zaletasunean (konstituzioan) ezarrita, naaztetasunezko bideak zabaldu egin dabezelako, zelan galdubideko oiartzun aundian, euren artean (Madril`en) lapurketak aurrera eroaten alegintzen diran, alderdi batetik bestera, PSOE irabazlearen ordezkari bi`en judaskeriko jokoaren bitartez PP`ri Madril-erkidegoko agintea emoteko. onei...., autatzailleak arduratzen dautsee ?.

Baiña gaur oinkapetuko eta galbideko ekintza orrek ez dira errezak aurrera eroatea, batera, morroi lez beargiñaren laguntza bear dabelako, beti euren agindutara gauza guztiak egin daitezcan, eta ekintza orretan ikaragarizko akatza agertzen da, asken baten ordezeko arduratan, euren ezar-lekuetan bakardade utzean agertzen diralako danon ardurak euren

menpean artzeagaitik. Eta Nortasunezko Erri-berezi ezberdiñak menperatu naian izaten ba-dira okerrago.

PP eta PSOE`k euren ikarabidearen itzarmenakin zelako arrazoiak erabili dabez EGUNKARIA`ren aldizkaria eta AuB`ren alderdi abertzalea, bata berriaren lan-bidetik bastartzeko eta bestea Euskal auteskundeetatik desagertu daiten, eurak autarkian Abertzaleak baiño geiago izateko ?.

Churchil`ek, Staliñeri bialdu eutson eskutitz baten be alan argitzen da, berezko edo jatorrizko erri ta erritarrai " jendetza aundien " (masas) antza aitatzen dabelako. Oneik be Erritarrakaz arduratzen ziran ? ala..... euren arteko jokoaz ?.

Irak`era zelako egiakaz joan dira..... arrolioa (petroleo) lapurtzera ?.

Gaur egunean olako oinkapetasunezko jaurkintzak eroan ezker arazoak errez agertzen dira eta epotxak edo ezaziak (enanos) ugari azten jakiez: "Alpertasunaren edo indarrik-ezaren aukeran agertzen diralako arazoak ".

Oneik, gauza guztiaren ordezkko-arduratan kontuan ez eukiteagaitik: batzuk ardura-gabetasunean eukiten dabelako; beste batzuk gertu-gabean berri asko diralako; beste batzutan berriak ainbaten aaztuta geratu diralako; beti jaurkintzaren lekutik urrun dagozelako eta geienetan nik agintzen dodalako; aitortu-ezin diran irabazkiak ostontzeko.

Gauza guzti onein bidez gero ta ugariago agertzen dira gaiztasunak, eta gaur ikusten dogun lez gero-ta geiago latzgarriaren arriskuan, ardurak lekus-kanpoko jokabidean dabizelako.

Ori da EUROPA onetan Ingelesak, Italiarrak eta Espainarrak EE-UU`en babesean gura daben DEMOKRAZIA`ren jokua ?.

Gaurko egunetan dabilzan demokraziaren arrazoizko jokoak negargarriak dira ikusten dogunagaitik, ugarte-erdi onetan pakezko oreka lortzeko jaiozan gizartekeria edo sozialismua menperatzaillaren aurka, bat eginda dabelako, berezko edo berezitasunezko erri ta erritarrai arduraren bideak zarratzeko. Gaurko Sozialismuak jakingo dau....., zertarako jai ziran ?.

Joko onetan barregarria dana, askeneko auteskundetari biak autarki gitxiena eukinda be, biok bat eginda, berezko erritarrai autesle geiago eukiteagaitik, Espainol-iraspen izenean Euskaldunai erasoan jaurkintzako bideak zarratzea. Gaiñera biak jaurkintzaren agintea gura izanda, bata besteari esan " ZELAN ITXIKO DAUTSIEN JAURKINTZAREN BURU IZATEA (ARABA`n) AUTARKIAN IRUGARRENAK BA DIRA ?

ETA LEENEGOA DANARI ?

Ori ez da DEMOKRAZIA, ori MENPERATZAILTASUNA da !!

PP`ko alderdia berez menperatzailea ba da....., Sozialismuak nun galdu dabez beren Euskal-alderdikidearen NORTASUNAK eta oneik bete egiten dabezan berezitasunezko jaurkintzak erri bat osotzen dabelako izkuntzan, erlijioan, oituran eta jakitean bat eginda dagozelako en NORTASUNAK ?

Ori ez da Demokrazia, ori Fazismo utza da, Fazismo`ko lapur ameskeritan dabizelako, ez dakit JAINKOA`k eurei emonda zelako aginduaren aitzakiakaz.

Orregaitik dira errez ikustekoak eta barregarriak egiten dabizen zikinkeriak, goitik beerako menperatzaile aginpe baten arduraren arlo guztiak, ezin eta ez diralako gai ordezkatzeko.

Mundu`ko jendarte guztia Demokrazion baten egarri da, eta batez be Europakoa, bizitzeko gaiztasunak, gero ta geiagoko erreztasuna eskatzen dabelako, eta ekintza ori sekula be ez da lortuko, ordezkartzaren ardurak ez ba-dira banatzen ordezkari guztien artean.

Euskal Errian pozik egon bear geunke, apurka apurka eta demokraziak eskatzen dauan argitasunezko neurrian PP eta Sozialismu alderdietan dagozan Euskal-Semeak, etxeko arduratara asi dirala erantsten, gure jaurkintzan daukaguzan gizon/emakume eta Alderdi Abertzaleai esker, euren ardurazko ordezkartzan, edertasunez jokatzen dabelako zentzuzko zeaztasunean, argitasunaren eragikortasunerako.

Orretarako ez dira bear izkillurik ez ilketarik, amurru guztiak bastartuta, jakintasunaren abertzal-zentzuzko lan bikaiña baizik. Eta laster konturatuko gara, gure Errira atzerritik etorri diran gizon/emakumeak gure-beste demokraziaren egarri dirala, gure errian ao-betean azaltzen dalako, nai-ta eurak NORTASUNEZ`ko jakin-arloan

atzeratuak ibili, menperatzailleak arrazoia naazte-borrazte aunditan erabili gure dabelako euren lapurketetan garailari geratzeko. Baiña kontuan euki, gurean dagozan atzerritarrak askatasunaren egarri dirala, itz orren barneko izaera: jakintasuna, arduradun izatea, maitasuna eta demokrazian osotuta dagoelako. Eta gure Erri ta Erritarrai zeozer en maitasunezko atsengintasunean eukiten ba-gaitue, gure demokrazizko askatasunaren amets ta egarria ikusten dagoelako da. On-zentzuzko gizon/emakumeai izugarrizko deia egiten dautsona.

Orregaitik gaurko jokoak borroka bastartuta, jakin eta ardurazko bidetik izan bear dira: " menperatzailleari arrazoia naaztuteko aukerak dezagertu egiten jakozelako leenen, eta euren aurka egiaren aurrean gu askoz geiago garalako. Eurak beti joango dira guzur aundi baten gaiñean, gezurrezko zaldiketan iraun egiten dabelako.

Euskaldunak, " bide ori " ELBURU " lez benetan ta erruki-gabe artzen ba-dogu, EUSKADI iñungo zalantza barik EUROPAN IZAR AUNDIENA IZANGO DOGU ".

ATUTXA` tar PAUL  
ZORNOTZA` n 2.003` an BAGILLA` ren 18` an

AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zareen guztioi , eta on-egin daigula danoi beren mamitik ulertzen dogunak.

Azkenean, zuek galderak egitea gura neuke, nik be zeozer geiago ikasi neikelako eta danok batzar onetatik al dogun zeaztasunezko ulermen ederrenean urten daigun.

Zergaitik Askatasuna ?

- a).- Euskaldunaren bizi guztiko jokoa ardura aundiz oinpeko morroitasunaren aurkakoa izan dalako. Ainbeste milla urtetako ikas-bidean lur onetatik JAINKOA`ri begira sinismenaren egarrian, Nortasunaren askatasuna... ELBURU izan dalako beti.
- b).- Mundu onetan gaur gagozan jakituri-denboretan Demokrazi eder baten egarritz,ezin diralako on-artu espataren keñuagaz ipinitako laterri menperatzaille oneik. Guzur aundiakaz Mundu onen gizarteari debekatu egiten dautsoelako Nortasunezko adostasun eder bat danon artean ezartea, bear doguzan ordezeko ardurak bakez orekatu daitezcan. Ez dakit zelako sasi-jainkoari begira.
- d).- Eta Olazar`tar Martin`ek, gai onen azalpena, nik egin bear nebala esan ebalako.

Asi gaitzezan ba, Askatasuna, Menpekotasuna eta Bizkaiko Askatasuna aztertzen. Gogoan daukaguzan okerrak Euskaldun lez zuzentzeko, eta bizi-bidean Euskadi`ri zor dautsaguzan ardurak, egokitasun guztian ordaindu daiguzan.

Arrazoi-bide ori zortzi zeaztasunezko ataletan bananduta eskaiñiko dautsuet. Lenengo, Euskal izaera argitzeko gure edestiaren laburpen bat egingo dot . Azkenean, gaurko arazozen egoera ikertuta, ondorio labur bategaz amaitzeko.



## LENENGO ZATIA

### 1.0.- Sarrera

#### 1.1.- Zer ikasi eban Kromañon gizakiak leizan bertan ?

Kromañonetik, biziaren ikas-bideko ainbat milla urtetan, gizartearen gogapeneko asmakuntzetan, demokrazizko batzangotasunaren askatasuna oiñarri zala, ondo baiño obeto ikasi ebelako, Nortasunaren ordezeko-ardurak babesten ez ba-ziran: amurruak, zalapartak, burrukak eta naspiltasuna berez agertzen zirala.

Gaur, guzti ori ikerketaren bidez argitzen diran arloak dira, erri-zaarrari begituta Euskalerriri lez: Izkuntza, Jakintza, Erlijijioa, Oitura, Edestia, eta legeak egokitzen joan ziran arlo guzti orrekin jakintzak oiturtzeko. Moral-Etika da ori.

Baiña, gagozan denboretan, ordezeko-ardurak antolamenduzko egitarau baten sartzeko, nun geratzen dira demokraziaren askatasunak ?

#### 1.2.- Zer nai eben erromatarrak Euskalerrira aurreratu ziranean ?

Erromatarrak Europatik zabalduz etorri ziran Euskalerrira, Mundu onen gizarte guztia menperatzeko naian, eta euren indar agindutara danak ipinteko alegiñean.

Gure erri ta erritarrak eurak ekarren oinpeko antolamendua babesteko, erregetza, guda-indarra, morroitasunezko legea, euren zergak, eta euren sasi-jainkoak ezarri eutsoezan.

Leñuak euki eben Askatasunezko Jaurkintzan kendu eben euren menpetasunezko indarrakaz:

Izkeran latiñagaz.

Erlijijioan euren JAINKOA` kaz.

Erri-Oituretan ikaragarritzko naasketak sortuta.

Erromatarren malda berakoan bereala bir-eskuratatu gendun ori dana.

#### 1.3.- Zer ekarri eban godoen katolikotasunak ?

Godoak etorri ziran urrengo, eta orduko, Kristautasuna eta batez be kristau-katolikotasuna indartzen joan zan, eta oneik, ekarri eben kristau-Arrianismoa baztartuz, katolikotasuna besarkatu eben euren ekintza Jainkoaren agindua zala esateko, eta euren ameskeri koldarra Euskalerrian ezarteko.

Baiña erregetza, menpetasunezko guda-indarrak, eta jaurkintzaren legeak erromatarrekandik artu ba-ebezan, itxuran guztiz bardiñak ez ziran, erromatarren sasi-jainkotasunetik kristau-katolikotasunera bizi-legean geiago zeaztu ebelako. Eta menperatasuna lortzeko era-bidean bardiñak ba ziran be, zin egin eben euren asmoak aurrera eroatea, denboraren etorkizunean, irabazlearen sinismen osoan egon ziralako, katolikotasunaren babesagaz batera jokatuta.

Olan izanda 1.453 urte luzeetan, fede ta borroka-latz ugarien bitartez ibili dira Mundua`ren kristau-batzangotasuna lortzeko katolikotasun aginpe baten, erromatarrak malda-bera osoan egon zirala, Konstantino`k IV gizaldian euki eban ikuspenean ezarrita.

Onek eleiza katolikua indartu, eta antolamendu orretan sinismen osoa euki ebala. Eta....., aren ondorengo diranak oraindiño daukielako.

#### **1.4.- Zer egin eben Euskaldunak jokabide orreri aurre egiteko ?**

Denbora orretan, gure Euskalerrri maite onen arbasoak ikusi eben, gure araudietan menperatuta geratuko giñala, Euskal-antolamendu on-bat ez ba gendun ezartzen, eta gure leiñu-lurraldeetan batzar nagusiaren aginduz JAUN`en irudia ezarri gendun, arazo orrei aurre egiteko.

Euskalerrrian eta Europa`ko erri berezi guztietan Zori-txarrez..., kristau-katolikotasuna zan " kaizar eta jaun-errege guztien gaiñetik ezarrita, gure jaun-erregetza aukeratu ebana, eta euren erregetza erritarrena baiño urriñeko goiko mailla baten ezarri ebena " euki ebezan amets-aundi orreik lortzeko.

#### **1.5.- Zer ekarri euskuen mauritarrak ?**

Mauritarrak etorri ziranean, Godoa`k azpiratuta geratu ziran eta Euskaldunak aukera aundia euki gendun gure legediaren-batzarrak antolatzeke eta Jaunaren irudia sendotzeko Nafarroan erregetza on artuta.

Baiña Godoa`k eta Euskalduna`k kristauak giñelako, katolikotasunezko eleiza kristau-moralaren indarragaz jokatzuz, jaun-erregeen gaiñetik ezarrita geratu zan, IV`garren gizaldian Konstantino`k asmatu eta agindu eban lez ezarrita.

#### **1.6.- Mauritarrak botateko ber-eskuratzean (reconquista) zer egin gendun ?**

Mauritarrak botateko alegiñetan, Pelayo`k 718`an Asturias`eko erregetza sortu eban eta III`garren Alfonso`k Zamora irabazi ondoren, bere seme I Garzia`k 910-914`ko urte bitartean Leon`eko erreñua sort-arazi eban. Bere anai II Ordoño`k 914-924`ko urte bitartean, Asturias eta Leon`eko erreñu biak alkartuta ebazan.

Antzeko bidea artu eben Euskalduna Pina`ko Done Joane`ren lekaide-etxean asita.

#### **1.7.- Gaztela`gazko gure elkartea eta frankoakaz artu-emonak. Eneko Aritza ta ondorengoak.**

Geroago eta denbora luzean Leon-Asturias`eko ereñua Nafartar-erreñuaren menpean egonda, 1.230`ean Gaztela`ko erregetzaz alkartu ziran.

Pelayo`k, Asturias`eko erregetza sortu eban denboretan, eta Euskaldunak Frankoa`kaz Orreagan euki genduzan borroka nagusi bien inguruan, 824`an Mauritar-Euskaldun Banu Qasi`ren laguntzagaz, Nafarroa`ko erregetza ezarri gendun, Aritza`tar Iñigo`rekin.

Au erdi-Ugarte onetan, denbora askoan aundiena izango zan.

Eta III`garren Santxo Aundiagaz goitasunean agertzen dan, Euskalerrriko lurralde guztiak Akitania kontuan artuta eta III`garren Bermudo`ri guda-legez irabazita Galizia

izan ezik, Asturias eta Leon`eko erreinua beren eskuetan egon ziralako, bai Bartzelona`ko konde-erria be.

### 1.8- III Santxo`ren okerkeria zein izan zan.

Baiña III Santxo aundi onek, Euskal legearen aurka, Euskalerriko lurak bere lau semeen artean banandu ebazan: gaur gure Euskalerrria dana III Garzia Santxez`eri; Gaztelarren Kondetza Fernando`ri; I Ramiro`ri Aragoi`ko kondetza eta Sobrarbe-Ribagorza Gonzalo`ri, laurak erregearen izenakaz.

### 1.9.- Erromantze izkuntzen indarra nondik etorren ?

Erromatarrak ekarri eben latiniagaz, Godo ta Mauritar izkuntzarekin eta euskeraren bitartez, izkuntz barri bat sortu zan " Erromantzea " nai Godo`ren errondoko ziran Espainol erregetzak eta Euskal erregetzak be ontzat artu ebena, euren eta eleiz-gizonen artean konpontzeko aitzakiagaz.

### 1.10.- Zein eragozpen ekarten dausku Eleiza katolikuaren batasunak ?

Eleiza katolikuak erri bereziaren aurka, bere latin aundiagaz latin-kumeak babesteko, gure egunetararte iraun-erazi dau, Nortasunezko erritar berezidun guztiak konturatu arte, euren katolikotasunean, guztiz alderdiketakoak dirala.

Nik uste dot, Euskaldun-erregeak ez zirala guztiz konturatu: eleiza-katolikuak Kristautasunezko moral sinismenarekin, erromatar eta Godo`en menperatzaille jokoagaz, ze asmakuntza ekarren bere eskuetan, nai-ta leiñu-lurraldeetan Jauntasuna eta Nafarroan Banu Qasi`ren laguntzagaz erregetza ezarri, euskal erregeak euren antzera menperatzaille-katolikuak biurtu ziralako erri-sinismenaren aurka.

### 1.11.- Jaun euskaldunen arriskua zein izan da beti ?

Zoritxarrez, Bizkaitarrak gure jauntxutasunagaz, Espainol aundikitasunezko aramuresaretan sarri jausten giñan.

Gure jaun Tello ondorengo barik il zanean 1.370`ko Urrilla`ren 15`ean, gure jauntza jabegai-bidetik, Juana`ren eskuetan geratu zan.

Trastamara`tar Enrrike Espaina`ko erregearen emaztea zan, eta onek Gernika`ko batzarrari adierazi eutson: nire jabetasunen eskubideai bertan uko egiozue eta Bizkai`ko jauntza nire seme Juan`en eskuetan ezarri.

Gero 1.379`ko urtean Gaztelarren errege egin eben, eta bera izan zan 1.388`an Asturias printze-erria sortu ebana, bere seme Enrrike, Lankaster`eko Katalina`gaz eskontzeko egon zanean.

Eta or birreskuratzen dabe Godo-Menperatzaille aria, Espaina`ko errege guztiak errege izan orduko Asturias`eko printzeak izan bear diralako.

Euskal sinismena euki eben?.

Orreik Espain`tar benetakook ziran !!.

Ortik aurrera gure jauntza Gaztelarren eskuetan egon da.

### 1.12.- Jauna erbestekoa izan danean, legegintza eskubidea galdu zan ?

Dana dala, Euskal erritarren eskuetan, beti egon zan legeak egiteko eskubidea: leize-zulotik leenengo, auzoak zugazpeetan batzartuta gero, eta bas-eliza aurrean Etxeko Jaunaren ordezkioak batzar nagusietara bialduta.

Baiña..., nai jaun-erregeakaz arazo naikoak euki euren ordezkioak Euskerea ez ebelako jakin, edo ez ebelako ezer jakin-nai, Gaztelera aundiagotzat euki ebelako, Gaztelera batzar nagusietan indarkerizko zigor aundiakaz 1.614`garren urtean Abenduko 10`an sartu zan barria.

Gureak legegintza-eskubidea aurrera eroan eben XIX`ko gizaldirarte.

V`garren Felipe lotsagabe eta ixilkeri barik asi zan eskubide ori, goitik-bera ezereztu naian indar guztiagaz.

### 1.13.- Europa`ko Laterriak sortu ziranean, zer geratu jakun ?

Europa`ko errege guztiak alkartuta egon ziran, erregetzaren lurraldeak laterri lez ezarri daitezkan. Berezko erriak gaitz-etsita ta kontuan artu barik, erritarrak: Espainol`ak, Ingeles`ak, Aleman Nortasunezkoak eta abar agertu ziran.

Baiña JAINKOA`k emondako Nortasuna, ez da gizonak aldatzekoa, berezia dalako.

Bakoitzaren ardurapekoa, nai-ta erregeak eta eleiz-gizon aundiak etorri esaten: aldakuntza ori egin bear dala jainkoa`k esan daualako. " NOREN JAINKOA DA ORI.... ?.

### 1.14.- Frantzia`ko iraultzak aldatu eban gauzea: guri zer ?

Europa guztian 1.789`an Frantzia`ko iraultza-saioaren bidez, errege-jaurlari guztiak alkartuta egon ziran, eta euren menperatzaille-asmoak bete egiten ebezalako, eredutzat artu eben: Frantziaren errege Frantzesen errege biurtzen zalako.

### 1.15.- Euskaldunak gudaketan: Karlos`tarren guda biak.

Ortik aurrera, Euskaldunak Espainol`ekin guda-latzgarri bi euki genduzan: bata 1.833`tik 1.839`ra iraun ebana eta guzur ta saldukeri baten bidez amaitu zana, Bergara`ko Maroto eta Espartero`en arteko bezarkadan.

Bestea 1.872`an asi zana, Espaina`ko errege Italia`ko II Bitor Manuel`en semea, Amadeo de Saboya izendatu ebenean, eta Lizarra artu ebenean 1.876`an amaitu zana. Martinez Kampos izan zan gudal-nagusi irabazlea, Borboi erregetza birreskuratu ebana XII Alfonso izendatu eta gure FORUA`k ezeztatu ebazana.

### 1.16.- Errepublikak eta Euskaldunak.

Euskaldunak beste ikaragarriko menperatzaille borroka-saio bat euki gendun, errepublikaren denbora laburrean, Gernika`ko-Estatutua lortuta: 1.936`an asi eta gurentzat 1.937`an amaitu zana.

### 1.17.- Lenengo Araudia edo Estatutoa eta gudea.

Errepublika` gaz, Euskal-Nortasunaren eskubideak estatutoagaz lortzen joan arren, eta Euskaldunak borroka ortarako 1.876` ko urtearen menpekotasunetik urteten asi giñelako, ez gendun euki gudarako antolamendurik ez izkillurik, baiña beti agertu gara askatasunaren edo demokraziaren alde kokatuta, ori dalako Euskalerrriaren berezko sena.

Menperatzaille-Faziztak garaile agertu ziran, Europa` n, euren benetako saio bat izan zalako.

Guda zikin onetan, ez Errepublikak, ez Euskaldunak ez gendun euki borroka ori irabazteko iñungo aukerarik, Europa` ko laterri- Menperatzailleak ondo ikusten ebelako Espaina` ren Errepublika menperatzea, bere barruan erri-berezien bizkortasuna ikusten zalako, espataren keñuagaz ezarritako erregearen-laterriak edo errege-gabeko laterriak iraun dagian. Orregaitik Frantzes` en eta Ingeles` en aldetik sekula ez gendun artu laguntzarik, Errusia` ren ondar batzuk baiño.

### 1.18.- Fazismoak, euskaldunak eta beste laterriak zelan jokatu eben ?

Laterriak ez eben ikusten zelako asmoak euki ebezan fazismoaren menperatzailleak, Errusia artean dala, sozialismuaren izena euki arren menperatzaille biurtuta egoalako.

Baiña demokraziak eta erdira-naiko zaleak, konturatu ziranean, urbiltzen egoana izugarritzko oinpetasuna zala, Mundu onek izugarritzko astinketa artu ondoren, danak guztiz ikaratuta ezetza emon eutsoen alango beste borroka bateri, eta bereala asi ziran gizartearen eskubide guztiak ezartzeko alegiñetan.

### 1.19.- Mundu` ko guda-ostea ta eskubideak zelan agertu ziran ?

Eskubide orreik sinatu be egin ziran, baiña ez dira izan gai sekula Nortasunaren arloa benetan artzeko.

Bide onetatik, euren nagusitasunezko arrokeria ta diruak emoten dauan betiko sasi-jainkotasunak ezereztuten diralako.

Mundu onetan bearrezkoa da orde-zko-arduraren onura.

Gaur danok dakigu, erabagi ori bidezkoa dala, mundu onen oreka bakean lortzeko eta gizartearen zentzuzko ardurak bizkortzeko.

Orregaitik zorionez, Europa onetan asi dira gaur mogimendu bizi-bizirik, ardurak arduradunaren artean banatu egin bear dirala esaten.

Oraindiño zoritxarrez, eta orregaitik ez da egia, gure gaurko giza-legeak edo gizabideak erdi-mendeko gizabidetik urten dauala, menperatzaille katoliko ari ori Europa ta Mundu guztian indar aundiagaz dagoelako, nai Europa guztian beste bide batzuk asi, ondo daki danon arteko ordezkartizan benetako arduradunak bear dirala billatu bear diranak.

Eta nun aurkitu, berez arduradunak diranen artean izan ezik !.

Orregaitik, gaur ez da bear ETA` ren eta iñoren guda-borrokarik, arazo eta larritasun geiagotan sartzen gaitulako askatasuna lortzeko.

Illuntasunezko Itsutasunak baztertu bear doguz, eta jakintzaren indar Argi-Garbi guztiagaz, danon alkar laguntza ederrean, Euskadi` n eta Europa` n berezko arduradunen ordezkotzak ezarri bear dira, erri ta erritarrak askatasunean bizi gaitzean.

Gaiñera, Europa guztiko arazoa dala ikusita gero, goitik-beerako agindu gurean dabizen erdirakoiak, beti ibili dira batera. Gaurko borroka ez da batzuen borroka, errien borroka baiño, eta ori izkillurik gabe !, danok politikan sartuta edo erri-yaurgoan arduratuta izan bear daualako. Era orretan jokatzeko ba-dogu, ez daukie zeregiñik gure arerioak, arrazoia guran dagoalako, Mundu onek daukan arrazoizko legea, berezko edo berezitasunezko Legea dalako.

### 1.20.- Ori ikusita, zer diño Aznar`ek gure askatasunari buruz ?

Atzo, 2.003`an Bagilla`ren 30`an, ikusi gendun menperatzaille Erromatar eta Godo-katoliku ari ori argitasun guztian, Espainia`ko Biltzarrean Aznar`ek nazioaren egoera aurkeztu ebanean, ao txikerragaz eta azeri begiakaz, guzur eder eta aundi baten gaiñean zaldikatuta azaldu ebana, ez ebalako nundik-nora oratu guzur guzti ori.

Argi azaldu eban onek, beren indar ta amurru guztiaz esan ebalako: Euskaldunak askatasuna ez gaur ez biar ez gendula lortuko.

Euskaldunok, 1.936`an piztu zan borrokatik, gorri-zikin saltzaille lez Franko`k izendatuta zigor aundien artean geratu giñan, Europa`ko erri berezien Nortasun guztiak lez zapalduta.

### 1.21.- Olako egoeran aurrera egingo dau gure demokraziak ?

Baiña demokraziaren atea beti zabaltzen dira, eta gaur geiago, esku gutxi batzuen goitik-beerako aginduetara dagozan danon ordezeko ardurak, porrot edo ustel urtetan dagozanean.

Eta ori da gaurko gertakizuna, erromatarretik erdi-mende guztian gaur arte egin diran saio guztiak, agintaritzak goitik-beerako agindu baten egon daitezaz, eta ordezeko ardurak esku gutxi batzuetan bakarrik egonda gaurko lez, arduraren ezean ustelduta agertu daitezaz.

### 1.22.- Sozialistak gaur zetan dabiliz ?

Munduan, Europa ta Euskalerrian daukaguzan arazoaren artean, beste arazo aundi bat be badaukagu : jakingo dabe ezker aldeko " Gizartekoak edo Sozialistak " izendatzen diranak... zertarako edo zelan jaiotzen ziran ?.

Nazio-arteko edo erri-arteko sozialismokoak dirala esaten dabe, baiña nungo erritan oiñarrituta...: " Berezko Errietan ? " ala...aurka jaiotzen ziran espatakaz beartutako "Menperatzaillearen Laterrietan ?". Nik uste dot, or beste gogoraldi gogor bat egin bear dabela sozialistak.

Gaur, ardurak danen artean banandu bear dira, eta ori NORTASUNEAN bakarrik aurkitzen da. Gaurko jakintasunagaz argi ikusten dogu, JAINKOA`k BERE LEGEAZ AGINDUTA, bera dalako berezko arduradun bakarra.

Bestela..., urte oneitan goitik-beerako erdira-naien menperatzailleari sortu jakena, danon ardurak euren eskuetan euki dabezelako, eta guztien ardurak gogoan ezin diralako euki: epotxak edo ezakiak, ugaritasun guztian azten jakiez, alpertasunaren edo indarrik-

ezaren aukeran agertzen diralako arazoak, eta geien diranak, baztartu egiten diralako nausigotasunean.

### **1.23.- Nortasuna galtzen danean, zorabioa dator.**

Orregaitik dabiz zoratuta, gizon/emakumeak eurak gura daben Godo-nortasunaren lekuetara eroan ezinik, nai-ta beartuta edo indarkerizko alegiñetan ibili arren, guztien ardurak euren eskuetan dabizen bidetik, ikasle-gazteak be ardura-gabekoak agertzen diralako.

Eta goian esanda dagoen lez: guzurrak, amurruak, zalapartak, burrukak, naasteak eta saldukeriak ugari dagoz.

Nik uste dot argi dagoala, ardurak NORTASUNEZKO arduradunen artean bananduta egon bear dirala, danak arduradun jaio garalako, Mundu onen egokitasuna, errez ta zentzuzko itxura onean lasai aurrera joan daiten.

Joan gaitazan ba, zeaztasunetara.

## **2. Zeastasunak**

### **2.0.- Leizak eta Batzarrak:**

#### **2.1.- Noiz asi zan foruen edo gure askatasunaren edestia ?**

Gure batzarren edestia, Leizetatik Gernika`ko batzarretara aipatzea, gure Foruen bizitza 30.000 (ariñagotik ?) urtetik ona bere edertasun guztian aipatzea da.

#### **2.2.- Gure bizierak guk aukeratu bear doguz: leizetan naiz zugazpean.**

Europa`ko Mendebal Euskal lur onetan, orduan askoz zabalagoak izan ziranak, eta bere gaiñean aberetan aberatsa izan arren, gizartea lurragaz eta abereakaz izan-gaitasunean parean edo buruz-buru egon ziran. Baiña leia orretan aukeradun bakarrak gizon/emakumeak ziran, gure arimak bakarrik diralako arrazoibidearako edo argibiderako aukeratuta dagozenak.

Gaurko Euskaldunak gure arbasoen yarauntsiak, ondorezkoak edo oiñordezkoak izkuntza, odol, leinu edo endan ba gara..., zergaitik ez gara izango bizitzeko eratan eta arauetan ?.

Orregaitik, lenengoetatik asita antolamenduak egon bear ziran arremanetarako, izkuntza ezerezeretik sortzeko, leizetan bizitzeko, eizaren tresneriak egokitzeko, jazteko eta bizitzaren babeserako bear ziran gauza guztiakaz apainduta, leñuen oroimenean oituratzeko.

Danen arteko antolamendu orreik beteteko batzarrak: leizeetatik asita zugazpeetan gero (Aretx edo Aritza, Artea eta Leizarra ziran zugatz santuak), Kristautasuna sartu zanetik, bas-eliza`ren aurrean egiten ziranak, gero bakoitzaren ordezkariak batzar-nagusietara bialtzeko.

### 2.3.- Jauna sortu aurreko giroa zein zan ?

Gure batzarretan ondo aitu bear diranak, gauza bi dira: gure oiturazko legedia edo arauak jauna eta erregeak euki arte, eta ortik aurrera gaur arte.

Orregaitik gure seneko foruak, Bizkaia`ren foru orokorrak eta beren errepublikak daukiezanak dira.

### 2.4.- Uriak zertarako sortu ebazan jaunak ?

Baiña Bizkaia`ren Uri edo Billa`k daukiezan foruak, erbestetasunezkoak edo arrotzak dira, Logroño`ko foruan oiñarrituta dagozelako; nai-ta aldakuntza orreik gure legearen araudira eratu batzuk egin.

Eta kontuan euki, gauza orreik egin ziran denboran danok logroñotik asita Euskaldunak giñela. Bestela..., Ojakastro or dago, Aragoi`ko erregeak baimena emon bear eutsona epaiketa guztiak Euskeraz egin dagiazan erritarrak ez ebelako jakin beste izkuntzarik.

Gipuzkoa`n bardin: 1.150`ean Santxo Jakintsua`k itsas-bazterreko Donosti eta geroago Zarautz, Oiartzun eta abar, Jaka`ren foruan ezarri ebazan eta barruko Billa`i: Bitoria`ren foruak, XI`garren gizaldian Logroño`ko foruetan oiñarrituta dagozenak.

### 2.5.- Uri`en eta errien artean sortu zan arazorik ?

Emendik aituten dira, Billen eta berezko errien artean abertzaletasunean euki genduzan desberdintasunak. Gaur berrezkuratzen gabizenak: Aide nagusi orreik, danak ez ba-ziran be, beti egon ziralako jaun-erregearen inguruan, gaur Bizkai`ko eta Bilbao`ko oligarkia deritxon menperatzaille-eskumatarren antzera.

1.452`ko urterarte, gure batzarretan ez ziran idatzi legeak. Erriaren gizartean oroimen bakarra izan ez-gero, oiturazkoak ziralako (Ingelesa`k be, sekula ez eben idatzi oiturazko legerik).

Geroago eta denboraren aldakuntzeagaitik 1.526`an Jorrailla`ren 5`ean Batzar nagusiak erabagia artu eban 1.452`ko Foruak edo lege- zarrak egokitu egin bear zirala. Eta Bizkaia`k beren irarkolarik ez ebalako euki, Burgos`en ezarri edo irarri ziran.

### 2.6.- Zelan ikusten dabe gure erriaren jokabide au kanpoko jakintsuak ?

Gure batzarrak euki eben Nortasunezko Askatasuna azaltzeko, Euskalerritik igaro ziran gizon jakintsu batzuen esanak adierazoko dautzuedaz: XVII`ko gizaldian Tirso de Molina mesedeko lekaidea eta antzerki-idazle edo drama-idazlea, bere oso ezaguna dan "EMAKUME`en ZURTASUNA" (LA PRUDENCIA EN LA MUJER) antzerkian onelan diño:

" El árbol de Guernika ha conservado la antigüedad que ilustra a sus señores, sin que tiranos lo hayan deshojado, ni haga sombra a confesos y traidores ".

XIX`garren gizaldian Willian Wordsworth, olerkari eta filosofu edo jakin-zale izan zanak, gure Gernika`ko zugatz-saindua`ri onelan abesten dautso:

" Bajo tu augusta sombra, aquellos legisladores de espíritu elevado, señores y menestrales entremezclados, ocuparon sus escaños, como fieles guardadores de las libertades de Vizcaya ".



XIX`garren gizaldian F. le Play frantzesak eta gizarte-iztitan jakituna danak, Euskal-baserria ikertu eta beren izaera zabaldu eban, Europako sendiaren enborretik eredu nagusia zala esanez:

" Despuès de haberlos estudiado detenidamente, creo que los fueros vascongados, por la admirable sabiduria que los inspira, son muy superiores a las leyes suizas, cuya bondad està probada por una duraciòn secular ".

XIX`garren gizaldian Victor Hugo Frantzesak, olerkari, izneurlari eta ospe-aundiko nobelari izan zanak beste au esan eban:

" Quien ha estado en el pais eùskaro, desea volver a èl. Es una tierra bendita ".

Askenez, ezin aaztu W. Humboldt alemana, Mundu onetan jakituri aundiko gizona, Berlin`en ospe-aundiko ikastetxe-nagusiaren sortzaille, idazle, izkuntzalari entzutetsu eta laterriko-gizon aundiak Euskalerrigaitik esan ebana (Bergara`ko Aranzadi`tar Telesforo giza-iztilariak Aleman`etik Gaztelera`ra itzuli eban): " Apuntaciones sobre un viaje en primavera del año 1.801 ".

Idaz-lan onen bidez argi ikusten da, gizon aundi onek Euskalerrinari begira euki eban sinismena: Euskalerrian giza- seme/alabak daukiezan legeen azpian, pozik eta aurrerapidekoak senditzen diralako, eta daukiezan ertzain-onak ta aberriko antolamenduaren azpian bakez eta begipekoan iraun egiten dabela, erriak beren babeserako ezarri ebazan legeakaz.

Lasa eta Apalategi`tar Jose`k argitaratutako " EL PUEBLO VASCO- DEMOKRACIA TESTIGO DE EUROPA " liburutik artuta dagoz aipamen oneik, eta berak esaten dauan antzera: " gure erriaren igarotako denboretara begituta eta gaurko denborakaz berdinkatuta, olerkari aundi onegaz esan bear dogu..., JOANDAKO EDOZEIN DENBORA OBEA ZALA ".

## 2.7.- Zeaztu geinke len aitatu dogun Bizkaiko jaunen jokabidea ?

Bizkaia`ren edestiko izena beti izanda "SEÑORIO" eta XVIII`garren gizaldian Bizkaitar bateri itaundu ezkeren NUNGOA ZARA ? SEÑORIOKOA esango eban.

Bizkaia, askatasun osokoa zan, beren erri-yaurgoko jaun ta jabe bakarra izan zalako.

Antziñatik agertzen ziran arazoak, baiña erromatarrek, godotar eta mauritarrek etorri ziranean, Bizkaitarrak, antolamendu bat egitea bearrezkoa zala ikusi eben eta JAUNTasunezko jaurkintza baten laterritu ziran 888 urte inguruan Arrigorriaga`ko gudaren ostean Jaun Zuria izendatuta. (Or ! nun dagon estadia edo laterria).

Euki genduzan jaun guztiak leenengo jauna aukeratu gendunetik, danak izan ziran aukeratuak askatasun osoagaz bizkaitarren baimenagaz.

Jaun barria aukeratzen zanean, erriak iru gauzatarako artzen eban: a) gudar-buru izateko; b) zuzenbidearen buru-nagusia izateko; eta d) Bizkai`ko ondore aundiko lur arloak zaintzeko. Jauna, ain zabaleko aalmen eta ondasun orrekaz jantzi eben, bere buruzagitasuna lasaitasunean joan daiten. Baiña kontu aundia eukita, berea ez dala ezer, daukon guztia Bizkaitarrak emondakoa dalako, beren antolarazia (arbitraje) babesteko.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko, "erabakitasunean" piska bat; beste apur bat "egilletasunean"; eta beste ataltxo bat "legegilletasunean" bakarrik emoten eutsoen.

Jauna, bere aldetik jaurkintza aurrera eroateko, emen ipinten dodazen baldin batzukaz beartuta geratzen zan: 1`go.- Bera ez zala iñor lurraren forua aldatzeko, batzar nagusi baten eta Bizkai`tar guztien baimenarekin ez bazan izaten. 2`gn.- Bizkai`ko aitor- seme baten oiñarrizko ondasunak sekula ezin dirala kendu, nai-ta gaiztakeria garrantzi aundienetarikoa izan. 3`gn.- Ez eskatu eta ez kendu ezelango zergarik fogerarena baiño. 4`gn.- Ez irasi edo ezarri billa`rik, Bizkaitar batzartuen baimenik gabe. 5`gn.- Bizkaitar guztien bizitzak, lurak, etxeak eta ondasunak babestu, edozein jaun, errege edo erriak mindu edo naigabetu gure dabezanean. 6`gn.- Jauna`k beti babestuko dauz gure lur onetan dagozan legeak, askatasunak eta oitura onak.

Jauna, baldintza orreikaz beartuta geratzen zan Bizkai`ko bost-merindadeetan: Busturia, Uribe, Arratia, Bedia eta Zornotza.

## 2.8.- Jauntza betiko artzen zan ?

Bizkaitarrak..., jauna bere jaurkintzatik kendu leikien....., ziñ egindako baldintza orreik bete edo lotsakortasunean ez ba-ebezan eukiten.

Bai ! Bizkai`ko batzarrak, eta Gernika`koak batez be, agintaritzan ez eban euki mugarik, berena izan zalako berezko jabetasuna. Orregaitik Bizkaitarrak eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauntza ipinteko eta kentzeko.

Ori da 1.137`an IV Lope`gaz egin genduna, VII Alfonso Gaztelako erregearen alde egon zalako Nafarroa`ko errege VI Garsea edo Gartzia`ren aurka borrokan egiteko: bera kendu eta Nafarroa`ko erregeaz alkartu.

Eta Gaztelako errege IV Enrike`gaz 1.454`an Epaila`ren 4`an: Errege onen jaurkintzazko leenengo denboretan, gure forua`ri ziñ egin barik bere jabetasuna artu gurean ibili zan, egia da, edo mandio urdiñenak egiten (haciendo el remolon) bai baintzat, gudarlean ibili zalakoen aitzakiaz.

Azkenean eta iru urte geroago 1.457`an Epaila`ren 2`an foruak zindu ebazan edo gure batzar nagusiak beartuta zinpetu ebazan.

Gerta-egun orretan, Gernika`n Antigua`ko Ama`ren Elizan lur-zelaiako erriaren foruak zindu ebazan eta ille beratako 10`ean Billa`koak Bermio`n.

## 2.9.- Zer jazo zan jaun eta errege zanak uri`ak eta erria`k saldu nai ebazanean ?

1.469`an surrumurrua zabaldu zan, erregeak Bizkai`ko billak eta lurak saldu ebazala. Bizkaitarrak surrumurru orrein azalpenak eskatuta, erregeak guzur aundiak zirala esanda, bakeztu eban urduritasuna.

Eta erregeak oster a be guzurtu egiten dauz beren eskutitzan Bizkaitarrak, andik denbora gitxi barruan Señorioa zatitzea edo ataletan alokatzea Gaztela`ko erregearen asmo oso-osoa izan zalako.

Bizkaitarrak batzartuta erabagi au artu eben: Jaun-txar ori bereala kendu. Eta olan egin eben, beren ugaz-arraba (hermanastra) Isabel jaun lez izendatuta, gero Isabel "katolika" izango zana.

IV Enrike`k ez eban on-artu erabagi ori, leenengo maltzurzasunez jokatuta, larderieaz gero eta Mungian 1.470`an Epaila`ren 4`an gure aurka galdu eben guda`ren bidez azkenean beren jauntasuna bir-eskuratzeke.

Eziñean eta guztiz minduta beren errege-aundikerian, Enrrike berak on-artu eban bizkaitarren agindua beren gaiñetik egoala eta euren eskuetan bakarrik jauntzaren ipini-kendua.

Argi ikusten da Bizakaia`ren jabetasuna eta Gaztelarreko erregeakaz, arreman guztiak itzarmenekoak zirala.

### 3.0. - FORUEN EDESTIA

#### **3.1. - Zelan egiten ziran gure foruko legeak ?**

Gure betiko legeak: Euskal sendiaren eguneroko arazoak bideratzeko izan dira beti. Orregaitik berezko Nortasunaren izaeran, beti ordezkatu eta ospatu ziran leize-batzarretik asi-ta, zugatzpeko auzo-batzarra, bas-elizen edo eleiz-ateko erri-batzarrak eta erri-arteko batzar-nagusiak.

Olantxe egin ziran millaka urtetan Euskal-alkargoa bakezko batzangotasun baten zaintzeko, eta Euskal-izkuntzaren etxagintza sinismen guztiagaz, jakintzaz eta trebetasunezko maixutasunean eraikitzeko.

#### **3.2. - Errromatarrak zer ekarri eben ?**

Baiña errromatarrak etorri ziran gure Euskalerrira, eta gure izaera euren nortasunagaz jantzi gurean ibili ziran.

Euren malda-berakoan ekarten ebezan leenengoko sasi-jainkoak desagertu ziran, baiña sekula be ez goitik-beerako menperatzaillaren jaurkintzazko erak. Nai-ta guk denbora guztian gure euskal-gorputzaren Nortasuna birreskuratu, autsaren azpian itzi ebezan txingarrak ez ziralako amatau.

#### **3.3. - Kristautasunak zein arrizku ekarri euskun godoakaz batera ?**

Kristautasuna sartu zanean, onek-be beren nortasuna ekarri eban latin menperatzaillagaz batera. Eta Konstantinok emon eutson indarragaz alderdi-kidetasunean ezarrita geratu zan.

Godoak etorri ziranean, auts-azpian egon ziran menperatzaill txingarrak ostera be biztu ziran, nai-ta onein aurka guk ondo babestu.

#### **3.4. - Mauritarrak zein eredu ekarri euskuen ?**

Mauritarrak etorri ziranean, guk akatz galanta euki gendun, euren laguntzaz erregetza ezarri gendulako, Nafarroan eta Euskal lurralde guztietan jauntasuna ipini bear izan gendualako.

### 3.5.- Eleizaren jokabidea nundik nora joian ?

Mauritarrak atzeraka asi ziranean Godoak be desagertu ziran, baiña Eleizaren agintari batzuk katolikotasuna gura ebelako, Konstantino`gandik euki eben alderdikerizko indar-dogmatikoagaz, goitik-beerako aginduak eta ordezeko ardurak esku baten bakarrik euren ustez egon bear ziralako, menperatzaille txingarrak ostera be berbiztu ziran, ta geien gure jaun-erregetzan eleizaren agintari orrein bitartez, Europa guztian ondoren bardiñakaz geratu giñan.

### 3.6.- Noz amaitu ziran gure foru-batzarrak ?

Gure batzarrak askatasun guztian joan ziran ospatzen XIX`garren gizaldirarte. Orduan ikusi eben izkilluakaz indar aundian egozala eta 1.876`an batzar eta Euskal-Nortasunaren buruak moztu ebezan.

A ta-guzti, ez eben lortu Euskalerrria menpetzea, Europa`ko erregetza Eleizak euki ebazan agintari erdirakoi batzuekaz batera itzarmenduta egon arren, geienean beintzat.

Orregaitik ikusi daigun noz asten diran benetako borrokak eta maltzurkeriak gure foruen aurka.

### 3.7.- Zer jazo zan Padura-Arrigorriagan 888`n urtean ?

#### PADURA - ARRIGORRIAGA 888`an III Alfonso`ren aurka:

Asko izan dira godoak eta Mauritarrak desagertu arte eta ainbeste ostean, gu garaille eta Nortasun osoan agertuta, baiña Pelayo`k Asturias`eko erregetza ezarri ebanetik, batera asten dira zirikatzeak.

### 3.8.- III Alfonso Bizkaia`n eta Araba`n.

Asturias eta Leon`eko erregetza bat eginda geratu ziranean, III Alfonso errege zala. Onek Euskalerrria menperatu gura eban Araba`tik asita. Arabarrak euren jaun Elion`egaz guztiz asarratuta egon ziran lez...., III Alfonso`k borroka barik eskuratu eban Araba.

Gero Bizkaia menperatzera etorri zan. Gaur baiño, askoz aundiagoa zan Bizkaia: Sartaldetik asita Kastro Urdiales eta Mena ibarra Bizkaitarrak ziran; eta Sortaldetik: Deba errekek ureztatu egiten dauzan lurak; bai Eguerdi edo Ego-aldetik Aramaiona eta Ayala ibarrak.

Bizkaitarrak aurre egin eutsoelako, Alfonso`k beren anai Ordoñori deitu eutson, eta guda-indar askogaz Orduña-Amurrio eta Luxaondo (Luyando)`ko bidetik Bizkaia`ra sartu zan.

Bizkaia`ren guda-indarrak gure Jaun Santxo Etegiz (Jaun Zuria)`en aginpean, Ordoño`ren gudalozteari Padura`raiño itziten dautso sartzen, eta bertan birrindu egin ebazan Alfonso`ren guda-indarrak, Ordoño bera-be an il zan eta Padura`ko eleizaren sarreran illobiratuta dago. Santxo Estegiz be bertan il zan eta beren gorpua Durango`ko Tabira`n San Pedro eleizan dago illobiratuta.

Borroka au 888`an Azaro`ko 30`an San Andres egunean egin zan, eta orregaitik ortik aurrera Bizkai`ko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzeta.

### 3.9.- Beste borroka batzuk, Oñaz ta Ganboatarrak

Asko izan dira borrokak espainolakaz, eta asko gure arteko borroka latzak nagusitasuna lortzeko menperatzaillaren ereduari begira, Oñaz eta Ganboatarren artean.

Gure Jaun eta Espainol`en erregeari ikaragarritzko aukera emon jakon Billa`k eraikitzeke, gure arteko borroketatik babesteko, eta batez, euren bardin-gabeko lagun-koipetsua aundiagotzeko. Baiña gauza eder-bat beti gertatu zan: Etsaiaren aurka, beti alkartzen zirala.

### 3.10.- I Pedro Gordexola`n eta Otxandio`n. Jaun txar au zelan kendu gendun.

#### Gordexola`ko borroka I Pedro`ren aurka 1.355`ko Urtean:

1.355`ko urtean Gordexola`ko borrokan, Ganboa aldeko Abendaño`tar Iban, eta Oñaz aldeko Muxika`tar Peru`k, ankerra deritson I Pedro biotz-gogorrekoari eta D. Tello`ren anaia zanari, izugarritzko astin aldia emon eutsoen, bere guda-taldean ikaragarritzko ondamena egiñaz.

#### Otxandio`ko borroka I Pedro`ren aurka 1.355`ko Urtean:

Baiña onek ez eban gura gure askatasuna, eta ostera be 1.355`ko urte berean Otxandio`ra etorri zan, eta bertan ostera be Abendaño`tar Iban eta Muxika`tar Peruk beste ainbeste egin eutsoen.

1.366`an I Pedro bere sasiko-anai Trastamara`ko Enrike`gaz borrokan ibili zalako, Tello ostera be Bizkaira etorri zan eta jauntzat artu gendun, gure aldetik Jaun-txar ori kentzeko eta Gaztelarren erregetzatik alde egiteko aukera aundia eukinda.

### 3.11.- III Enrike eta bere seme txikia zelan egin zan jaun ?

#### Foru-Baimena (Pase Foral):

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa`ko batzar nagusiak euki eben jabetasunezko aalmena, Jaun-erregeak bialdutako legeak aztertu eta gero, forua`kaz adostasunean egozan ala ez esateko.

III Enrike gaxoa edo atsekabeduna deritxona 1.406`an il zanean, urte-bi bete barik euki ebazan bere semea II Juan, gure jauntzan IV izango zana, izendatu eben Gaztela`ko errege.

Gure arbasoak bere aitordea zin egitera beartu eben, eta IV Juan be bai bere aundiagotasunean.

### 3.12.- Foru baimena zer zan eta zelan beteten zan ?

Dana dala, urte inguru orretan, Espaina`ko gortekoak gure FORU-BAIMENA ezerezteke edo baztertzeke alegiñetan ibili ziran, baiña gure batzarraren asarrea ikusita

gero, Jauna Bizkaia`ren batzarrean 1.452`an Uztailla`ren 21`ean Gernika`ko zugazpean batzartuta, gure oiturazko legeak idatzi eta legedia egin bear zirala erabagia artu eben.

Ondo eta argi ezarrita andik aurrera: " Jauna`k Bizkaia`ri bialdutako agindua edo eskutitza gure Forua`ren aurka ba`egoan menpekotasunean artua izan daitela, eta ez betea".

Arazo guzti orreik ikusita, 1.526`an kontu aundiagoaz ibili ziran Bizkaitarrak, Foruen berrizkuntza egin eben orduan, gure FORU-BAIMENA`ren gora-beran , ondo, argi ta garbi itzita zalantzarik ez daiten egon: "gure Berriztutako Forua`k diñoen lez beren XI`garren legean, I izen-buruan".

1.839`an Urria`ren 25`an Espaina`ko gorteak Espartero buru zala, gure Forua`k Ikaragarrian murriztu ebazan, eta 1.841`ean FORU-BAIMENA kendu eban.

### 3.13.- Mungia`ko gudaldia zergaitik egin zan ?

#### Mungia`ko gudaldia IV Enrike`ren aurka 1.470`ko Urtean:

IV Enrike`gaz gure jauntzaren II izan zana, 1.470`an Jorrailla`ren 27`an Mungian euki gendun borroka latzgarrian, Espaina`ko gudaloztea Aro`tar kondea Fernandez de Belasko`k bideratuta, eta Euskaldunak Abendaño`tar Peru ta Muxika`tar Iban`ek.

Borroka onen bidez IV Enrike ergelak Bizkaia oinperatu gura eban, baiña ia gudalozte guztia ilda bertan itzita, Aro`tar kondeak buztena ankapeetan daroala Espaina`ra joan bear eban, Bermeo`ko abade batek eroan eban Laredo`ra eta orregaitik jauntzatik kendu gendun, bere arreba Isabel`en eskuetan itzita, gero Espaina`ko I Isabel katolikua izango zana.

### 3.14.- Zelan jokatu eben errege katolikuak Euskalerrriaren askatasunagaz ?

Isabel 1.473`an Urrilla`ren 14`an Bizkai`ko Jaun (andra) izenpetu eben, eta 1.476`ko udan, V Fernando Katolikuak Fueroak zindu ebazan emaztearen ordezkokoak beteten.

1.481`an errege katolikuak fede-zaindi edo inkisizioa`ren bildurgarrizko auzitegia ezarri eban, eta Bizkaitarrak itsu-itsuan ontzat artu eben auzi-epaile orrein menpean babestea, kontuan artu-gabe, euren askatasunarentzat aurrera begira ze negargarrizko ondorioak ekarriko ebazan.

1.512`an Fernando`k Nafarroa menperatu eban, eta Nafarroa`ren oitura ta legea`ri lotsa aundia erakusten dautso, baiña 1.515`an Nafarroa`ko errege bereziaz bide guztiak moztu egiten dautsoez errege-aulkian ezartzeko, eta Gaztela`ko erregetzaz alkartu egin eban Nafarroa.

### 3.15.- I Karlos`ek eta II Felipe`k ?

I Karlos`ek ondo ezagutzen eban gure Nortasunezko-legedia, itxuran beintzat, lotsagizunezko arreran artzen ebalako. Baiña kontuan eukinda, Nafarroa`ko erregea ez dauala bere jar-lekuan ezartzen, Be-Nafarroa arbuiatu, eta Auñamendia berezko muga antzeko baten itzi eban.

Itxura baten diñot, 1.521`an I Karlos`ek Billalar`ko guda-lekuan erkidetasunen (comunidades) buruzagiak (comuneros) menpetu eta il ebazanean Gaztelatarren foruak desegin ebazalako, artean Araba`ko buruzagia (erkidetasunaren aldekoa izan zana) Gonzalez de Baraona il eban, Gazteiz`ko plazan burua moztuta.

II Felipe`k be esan leike, foruak itxura baten ardura aundiz zaintzen ebazala, baiña zergaitik esan orduko, kontuan eukin bearda Aragoi`ko zuzen-zain nagusia il ebala.

### 3.16.- Oñateko Ikastetxe-Nagusia nork eta zertarako sortua zan ?

#### Oñate`ko Santi-Spiritus Ikastetxe Nagusia:

Benetan aipatzekoa da Oñate`ko Santi-Spiritus ikastetxe nagusia, Santxez de Merkado eta Zuazola`tar Rodrigo, Avila`ko Gotzainari, zor dautsagu ikastetxe nagusia, bere 1.533 urteko azkenaiari esker.

III Paulo Aita Santua`k, ikastetxe nagusia egiteko bulda, 1.540`an Jorrailla`ren 23`an emon eban, Salamanka, Bolonia, Paris eta Alkala`ko ikastetxe-nagusiak euki ebazan Foru ta lege-bereziak emonda.

Eta emen aipatzekoa dan zeaztasuna.

1.545`an Dagonilla`ren 31`n, Ikastetxe-nagusia erregea ta bere ondorengoai utzi jakien lez, II Felipe`k 1.569`an Epaila`ren 27`ko errege-agiriaren bitartez, Ikastetxe-nagusiaren ikusketa bat agintzen dau, Hernan Suarez de Toledo Dotorea bialduta: "etxe orren legeak eta oiturak ez dirala gordetzen aitzakiagaz". Dana Goitik-beerako ta erdirakoia dan Bisigotikoaren Fuero-juzgo`agaz adostasunean ipinteko, larogeta amazapi lege barritan ezarrita, eta maixu biltzarraren aurrean irakurrita, 1.569`an Loraila`ren 23`an.

### 3.17.- Azaldu egizu zer jazo zan gatzaren zergaren arazoan ?

#### Gatza`ren zergea:

1.581`an II Felipe Lisboa`n egoala, beren gobernuko ministru edo serbitzariak, Bizkaia`ko gatza zergapetu gura eban. Beren ezaguerara eldu zanean, bereala agindu eban Bizkai`tik agintza ori kentzeko.

1.590`an bai erakusten dau lotsagizun eta neurri aundi baten zentzutasuna. "Servicio de millones"ekin Espaina zergapetu ebanean esan ebalako: " zerga ori Espaiña`ko errege lez ipini ebala, ez Bizkaia`ko Jaun lez ", Felipe`k ondo jakin ebalako, zelako eskubideak euki ebazan Espaina`ko errege lez eta Bizkaia`ko Jaun lez.

Baiña, 1.598`an III Felipe errege-aulkira igon zanean (beren gobernuko zeregiña Duke de Lerma`ren eskuetan itzi ebana), berak ezer jakin barik (edo alan aitzenda beintzat) eta ezer aldarrikatu edo oiuzkatu barik, beren gobernuko ministruak indarkeriz Bizkaia`ra etorri ziran (Bizkaitarrak denborarik ez dagian euki euren babeserako) "servicio de millones"ko zergak eskuratzen.

Bizkaitarrak: eurakaz zerga orreik ez daukiela zer ikusirik esanda, besteak gogorkeriz asi ziran, eta Jauna`ri bialdutako mezuak beren lekura ez ziralako eltzen, Bizkaitarrak 1.601`an Loraila`ren 10`an Gernika`ko zugazpean batzartuta eskutitz au bialdu eutsoen:

## " Muy alto Padre "

Señor:

Visto por Nos esta antigua è honrada Señoría de Vizcaya lo mal que V.M. està informado, por orden del Consejo de Castilla, en querernos agraviar y tratar mal tan al descubierto, en recompensa de los muchos y grandes y leales servicios que esta antigua Señoría de V.M., en mandarnos que pagásemos ciertos pechos à Derechos como los demás buenos hombres de esos Reynos de Castilla pagan; hicimos Junta General de Cavalleros è Hijos-dalgo de esta Señoría en esta nuestra Villa de Gernika, que los reyes antepasados de V.M. nos dieron por nuestros honrados servicios, hallamos que queriendo usar V.M. de tanta riguridad con nosotros y quebrantar nuestros honrados Privilegios (Bizkaitarren artean orduko denboratan itz onek ez dau esan gura Espainolaren artean gaur esaten dauana, beren berezitasunezko erri ta legeak zirala baizik) y la authorityad que nuestros honrados padres han tenido: que debiamos de suplicar y pedir humildemente à V.M. sea servido de mandar que se borre, teste y atilde de sus Pragmáticas Reales lo que à nosotros toca, pues es justicia lo que pedimos; y, suplicamos à V.M. no hubiese lugar de hacernos, *nosotros quedamos obligados à defender nuestra muy querida y amada Patria, hasta ver quemada y assolada esta Señoría y muertos mujeres è hijos y familia, è buscar quien nos ampare y trate bien.*

Esta lleva D.Pedro de Gamboa, Diputado de esta Señoría, gran servidor de V.M.; no sea èl solo culpado por ello, antes V.M. le haga merced, porque fue importunado para ello.

Dado en nuestra Villa de Gernica en 12 de Mayo de 1.601.

Vuestra antigua y leal Señoría de Vizcaya, que al servicio de V.M. queda."

1.601`an Loraila`ren 24`an III Felipe`k beste eskutitz bategaz atzeraka egiten dau, eta Bizkaitarrai esaten dautse: "nire aurreko erregeak zer egiten eben ikusita, zuekaz nik be alan beteko dot".

1.602`an urrengo urtean, Fueroai ziñezko-itza emon eutson.

IV Felipe 1.621`an errege-aulkira igon ebenean (onek gobernuko zeregiñak conde-duke de Olivares`en eskuetan itzi ebazan), ostera be asten dira Foruen aurkako ekintzak, gatzari zergak ipinita.

Olibares`en gogamenean ez ziran egon gure Foru-legediaren jabetasuna ta onein esku-bideak, ez ebalako jakin, eta leenengoetan berak esaten ba eban: beste lurraldearen ezberdintasunean eta gure zor-gabetasunaren eta berarizko legearen aurka dagoela.

Gero beren ezagutzara jakintza orreik eldu ziranean, bera izan zan gure Foru ta jabetasunak babestu ebazana goi-mallako arrazoiak erabilita Espaina`ren laterrizko aolkularitzan.

Berak egiten ebana sinis-betean egiten ebala aitortuta, gure eskubideak, gureak bakarrik zirala jakin ebalako.

Erriko kaleetan ikaragarritzko borroka egin zan, eta ez gutxiago Bizkai`ko batzarrak erregea`ri bialdu eutson guda-zibillaren keñua zan eskutitzagaz:

" que el monarca no tenia poder ni fuerza para conquistar Vizcaya, respeto de que, aunque fueran gruesos ejèrcitos de mar y tierra, la naturaleza de ella era tal que todos habian de perecer, como les habia sucedido a todos los reyes que habian enviado armas contra ella".



Bakeztu zan larrialdia, baiña erregetzak erritarrak egin ebezan borrokagaitik, ordain edo mendekuak artu ebazan, eta borrokaren aintzindariak espetxean sartuta 1.634`an Loraila`ren 24`an, espetxean bertan eta garrote-bil`ean il ebazan: lizentzidun Morga eta Sarabia; de la Puente eta Urtusaustegi`tar Juan; eta Otxoa ta Ojarabide`tar Martin Señorío`koak. Beste irurak: Larrabaster eta Amuñarri`tar Juan; Bizkaigana`tar Juan eta Domingo anaiak, erriko enparantzan gargaillez ito edo urkatu ebezan.

Eta Aberri baten judas edo saltzailleak beti egoten diran lez, oraingoa: Juan Alonso de Idiaquez eusko-mazal edo zalduna (caballero) zana, erregeak Ciudad Real`eko Duque`aren aundiki-izenagaz jantzi ebana zan, espetxe ta ilketa orrein aurretik ibili zana.

Lasa eta Apalategi`tar Jose`k beren liburuan esaten dauan lez: "Euren gorputzak illobian eustuta egongo dira, baiña euren izpirituak gure artean bizi-bizirik dagoz".

### 3.18.- Lau urteko jaun-gaia eta onen ama Mariana nortzuk dira: V Felipe.

Sorgindutako II Karlos`ek 1.665`an errege-aulkira igon ebanean lau urtegarz bakarrik, beren ama Mariana de Austria`k artzen dau gobernuaren ordetza, 1.675`an D. Juan de Austria`k gobernu aolkulari lez artu arte, eta II Karlos`ek ez ebalako ondorengorik euki, bere arreba nagusia Frantzia`ko XIV Luis`egaz (rey Sol) eskonduta egon zan bir-semearen V Felipe Borboien eskuetan erregetza itzi eban. Austria`tarren errege-leiña amaituta.

V Felipe onek, agintaritzan eta banakuntzaren eratan beste irudi barri-bat ekarri eban, erdira-naien absolutismu edo al-osokerizko eta berdinzalea izan zana.

Onegaz sortzen diran arazoak, ez dira Austriakaz Fuero`en gora-beran adostasunezko neurrian euki genduzan zalantzak, ez !. Onegaz..., jokoan egon ziranak, gure Euskal izatearen Foruak, Nortasuna, Jabetasuna eta Askatasunak izan ziralako.

V Felipe 1.700`ean, Espaina`ko errege-aulkira ondorengoaren edo " sucesiòn " gudaren bidez igon eban, 1.714`an Irailla`ren 11`n Bartzelona artu eben orduan amaitu zan gudea.

Guda orren ankerkeria zelakoa izan zan jakiteko..., ezta besterik, Katalanak " DIADA " izenagaz zer ospatzen daben ikustea baiño.

1.936`ko Franko`ren guda ostetik Katalanak debekatuta euki eben egun ori ospatzea. 1.977`an emon eutseen baimena ospatzeko.

Eta "Irudi Barri " (Nueva Planta) baten erabakiaz Aragoi eta Kataluña`ko fueroak kendu ebazan.

### 3.19.- Mugen edo Aduana`ren arazoa: itxasoan ala Ibero ibaian ?

Euskaldunak, Kataluñan gertatutakoa ikusita, belarriak tente euki ebezan arrazoi guztiaz, gurera laster etorriko zala bildurragaz. Eta bereala agertu zan, gure zerga-mugak (aduanas) barrutik itsaso`ko mugara eroan ebazalako.

Erritarren artean, ikaragarritzko arrabots, zalaparta eta istillu "MATXINADA"ren izenagaz gogoratzen doguna egin zan, Begoña`tik asi ta Bilbora beratuta. Uribe eta Busturia`ko merindadeen errepublika askok artukizun aundia euki eben MATXINADA orretan.

Billa`tan gauza asko apurtu ziran sarraski aundiak eginda, Bilbao`n, jauntxoan jauregietan eta batera edo erdirakoi lez aipatuta egon ziran etxeetan.

Ez zan il ta zauritu bako Matxinada, Bermion Udaletxeko balkoitik gizon eskubidedun aundi bat plazara bota eben; Bermion eta Portugaleten agintarien serbitzuko kabarra edo gabarra erre egin eben; Otxandion Bergaratik igeska etorri ziran Rokaberde`ko markesa eta beren laguna il ebezan; baita gitxien merezi ebanak olako azkena emotea, Bizkai`ko ordezkari nagusia izan zan Arana`tar Enrike be.

V Felipe`k atzera eginda, zerga-mugak ostera be beren lekuetan ipini ebazan, baiña matxinadako buru izan ziranai auzi-bideak zabaldu jakiezan, eta 1.719`an Urtarrilla`ren 18`an espetxeratuta, Bilbao`ko espetxean il ebazan 15 Bizkaitar eta Eskoriatza`ko bat, gero Plaza-Barrira ekarrita, buruak moztu eutsoezan señorio`ko ainbat lekutan zikaitan (picas) buru orreik sartuta, Euskalerriko seme-alabak ikusi daiezan.

### 3.20.- Soldaduzkaren arazoa eta V Felipe.

1.734`an Urtarrilla`ren 31`n, V Felipe`k Espaina`ren lurralde guztietarako nai-ta-naiezko soldautza agindu eban, Euskal lurraldeak izan ezik, euren erriaren jabetasunezko legeak euki ebezalako eta orregaitik Euskalerriak bear ebanerako bakarrik soldauzka egiten ebalako.

### 3.21.- Zamakolada zeri deritxo ?

#### Zamakola`ren arazoak:

Gure Fueroen aurka, XVIIIIn.`go gizaldi guztian eten-bako auzitaldi liskarzialearen ekintza bat izan zan Gernika`ko batzarrak Bizkaia`ren Jauna`gaz euki ebena, Fuero`aren kilikolotasunak orekan iraun dagian.

1.804`an Zamakolada aipatzekoa da, baiña bakarrik esango dot Zamakola`tar Simon Bernardo, Dimatarra bera, eta Arratia`ko merindadearen Fuero`ko Alkatea zana, jakituri aundiko gizona eta Euskal-Abertzale aundia izan zala.

### 3.22.- Napoleon`ek zelako artu-emonak izan ebazan gure askatasunaren bide luzean ?

Napoleon 1.789`an, Frantzia`ko iraultza asi-ta, Versailles`en Dagonilla`ren 4`an lege-gaiaren autapena egin zan, eta onek gure Iparraldeko foruak ezereztu egin ebazan.

Frantzia`ko lurralde`en jauna izatetik, Frantzia`ko errege izatera aldatu ziran, erri berezi guztiak iruntsi ta menperatuz, Frantzes izkuntzara danok beartuta.

Esan bearrekoa da, Euskaldunak ez genduzala jakin Napoleon`ek guretzako euki ebazan egin-naiak, beren asmakizuna Euskalerrri guztia batera eukitea zalako.

Garat Senatoreak Napoleon`eri bigaldu eutson idaz-saio bat, Frantziagaz bildu daitezkan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, Euskaldunen artean babes-lurra osotu dagien "NOUVELLE PHÈNICIE" deituko zana.

Or euki gendun Euskaldunak parebako aukera ederra lurrak eta senitasuna batera agertzeko.

Baiña beste aldetik 1.790-1.791`n gogor asi ziren zigortzen Euskal gizon/emakume, apaiz, gotzain`ari gillotinagaz lepoak mozten eleizak erretan eta lapurretan, 1794`an izu-

ikara negargarri au goi-maillakua egin arte. Orregaitik Euskalerrria beren apaiz eta erritar`ekin Inlaterra`ren aldetik kokatu zan.

### 3.23.- Ondorengo ekintzak Espaina`gaz eta Frantzia`gaz.

Ortik aurrera Euskalerrriko zazpi lurraldeak Espaina ta Frantziatarrak euki ebezan borroka guztietan sartuta egon gara. Eta gerra bilduma orren artetik aurrerantza gure nortasunari egindako erasoak: aundiak, zitalak eta eten-bakoak izan ziran Euskadi`ren izaera desagertu daiten, Espainol ta Frantzez biurtzeko.

Baiña Espainol`akaz be 1.808`ko Uztailla`ren 7`an, negargarritzko eginkizun bat sortu jakun Euskaldunai: VII Fernando`k beren aita IV Karlos`i erregetza emoten dautsonean eta onek Napoleon`eri, Euskaldunak Baiona`ko batzarrera itun-ordezkarria bialdu eben, eta onek Espaina`ren beste probintzi edo eskualdeko ordezkariakaz batera, an egin zen araudi barria apur-bategaitik ez eben on-artu, bai beren baimena emon be 1.808`ko Uztailla`ren 7`an egin zan konstituzio barri orreri.

Gure ordezkariaren jardun-aldi ori, bada-ezbadakoa edo zalantza aundian ezartzekoa bai beintzat izan bear zan, Frantzesakaz berak egin bear ebana, gure señoioaren jauntza eskeintzea izan zalako beti danik egin zan lez, Gernika`ko batzarrak eta beste Euskal batzarrak agintzen eben antzera, gure legegintzaren eta askatasunaren eskubideak babesteko, Espaina`ko gorteetan Euskaldunak sekula ez ebelako euki ordezpenik eta Euskalerrrian euren erregeak jaun lez, beti izan diralako ordezkoak bakarrik.

Lau lurraldeko Euskaldun-ordezkoak, sekula ez eben joan bear Baiona`ko batzar orretara, gero Espainol ordezkariak ez ebelako iñungo tiramenik on-artuko, euren gogamenean gure Fueroak Espaina`ren erregeak emonak ziralta uste ebelako.

Baiña zorionez, gure lau lurraldeko ordezkariak bereala konturatu ziran egiteko egon ziran astokeriagaz, eta Napoleon ta erregea`ri euren eskaerak bideratuta, erabaki-au artu eben: gure Foruak ikertu edo azterkatuak izan daitezala leenengo batzarretan, lurralde onein eskubideai erabagiak egokitzeko. Eta ekintza orregaz desegin ebezan, bertan egon ziran leenengo asmoak.

Napoleon`en etorkizunean, gure foruen aurka ibili ziranai beste aukera eder bat agertu jakien gure legeak espainola`kaz naaztu egiteko: 1.809`ko Epailla`n, Bizkai`tik Franzisko Antonio Amoros agertu zan Jose erregeak Espaina guztientzako egin ebazan legeak ezartzeko, baiña " oiz besteko edo neurriz-gaiñeko errudun-batzarra "k ezarri ebazan legeak, Euskal legearen guztiz aurkakoak ziran.

#### Kadiz`ko Korteak:

### 3.24.- Kadiz`ko korteetan zer kendu euskuen ?

Euskalerrriarentzat barriri agertzen dira mamuak edo txakur ametsak: 1.812`an Epailla`ren 18`an Euskalerrriaren aurka eta beren sumin edo asarraldi osoan, Bizkai`ko ordezkariak Kadiz`eko gorte edo batzarretan agertu ziran Euskal jabetasunaren aurkako legeak ziñatuteko.

Batzar onetan, argi ikusten da gudaloztea erregearen gaiñetik ezartzen dala, eta erdi ugarte onen barruan dagozan lurraldeak eta erriak, gura nai-ez, lege orren barruan sartzen dabezala 1.809`an Epailla`ren 19`an, Euskal lau lurraldeko batzarrak ezereztuta.

Argi ikusten da au be: Euskal eskuma`ko giza-semeak zelan ibiltzen ziran Euskal-etxearen kalterako, gure Nortasuna desagertu daiten. Konturatuko ziran., euren Euskal-izaera il daiten alegiñetan ibili zirala ?.

1.812`ko Dagonillan, Mendizabal gudal-buruak Frantzesen gudaloztea kanporatu egin ebanean, batzarrak batu ebazan aurki guztietan Euskalerriko askatasunaren aurkakoak ezarrita, Kadiz`ko batzarretan ziñatu zanari, bir-baietza emoteko.

Euskal-etsaiak gauza onekaz gura ebana: euren esanak " Bizkaia`k on artuta euki ebazala Espaina`ko iraspena " eta " Espaina`ko gudalozteagaitik bir-eskuratua izan zala ", danon gogamenetan betirako on artua izan daiten.

Ori gura eben eurak, baiña..., nai-ta Espaina guztian Kadiz`ko batzarrai ikaragarritzko amurrua euki, 1.808`an Uztailla`ren 26`an erregeak Frantzitik agindu bat oiuzkatu eban, eta nai-ta bera ez-baiezko agindua izan, Kadiz`ko gorteetan egin ziranak ezereztuta geratu ziran.

Euskaldunak Fuegoak bir-eskuratuta, erregeak 1.814`an Uztailla`ren 29`an Fuegoak zinpetu eta baieztu egin ebazan.

Bizkaia`k une orretatik beren askatasunak berrezkuratu ebazan, eta Bidasoa-ibaian egon ziran zerga-mugak (aduanak) ostera be Ebro-ibaian kokatu ziran. Baiña laterri-lege orretan artu gendun lenengo "provincias vascongadas" izen baragarria.

### 3.25.- Foruak eta lege-eskubidea kentzen.

Baiña Euskalerraren aurkako arazoak ez dira amaitzen emen, asi baiño ez diralako egiten.

1.819`an: Euskal-lurraldeetan berriztutako batzarra, errege-aldeko diru-arduradunak egiten ebazan geikeriaren aurka, eta Fernando berak eraiki ebana ta egite-ebazan itaunak guri begira, argi ikusten da gure Fuegoaren aurka alde-biko eginkizunak betetan zirala eskintza orreitan: gure zergak eta gudaloztearen legeak ezereztu edo aldatuaz alde batetik, eta Euskal-legeak egiteko euki gendun jabetasuna kendu edo aienatu bestetik.

Mugak, ostera be aldatu ziran itsasora eta Auñamendietara Kadiz`ko Laterri-lege nagusiak agindu eban lez, eta Rafael de Riego gudal-buru nagusiaren matxinadaren bidez, 1.820`an gure Foruak ezereztu.

Euskaldunak emendik aurrera, alderdikerrizko naaztetasun eta borroka aundietan sartu giñan, 1.820`tik 1.823`ko bitartean, eta Frantzesak Nafarroan sartuta geienagaitik askatzaille lez eta gitxiengaitik etsai lez artuta, bakeak lortu ziran.

San Luis`en 100.000 semeen eraso-aldi onek, liberalkeriaren aurkako yaurpide edo gobernu bat ezarri eban, eta 1.823`an Foruak ostera be bir-eskuratatu genduzan. Baiña VII Fernando 1.833`an Irailla`ren 29`an il zanean, Karlistadaren borrokak asi ziran, ortik aurrera gure ondamentia sortuta.

### 3.26.- Karlostarren gudak ondamendirako bidea eta Iparraldeko erasoak.

Euskalerrian Karlistadako guda aituteko, Frantziko iraultetako politikako zentzuan zabaldu ebazan bide biak kontuan euki bear dira. Bata: erregearen muga-gabeko aginduan, jaurkintzan aundikiak egon zirala elizagaz batera beti lez; eta bestea: aurrerakoia zana esaten eben lez, agindua errian ezartzen ebana, errege edo errepublikako jaurbide bategaz eta eleizagaz guztiz bananduta.

Leenengo ezarpen au, guztiz okerrekoa izan zan, bai Euskaldunentzat eta bai Europa`ko erri berezi guztientzat, lege bakar baten menpean sartzen genduzalako, erri berezien nortasunak, izkuntzak, jabetasunaren eskubideak eta oiturak ezereztuta. Eta bigarrena be bai, 1.789`ko urte orretan gure Euskal Iparrean dagozan Benafarroa, Laburdi eta Ziberotarra bardintzailezko lege orrekaz Foruak kendu eutsoezalako.

### 3.27.- "Ley Sàlica" eta Euskaldunak. Karlostarren gudak zer ekarri eben ?

VII Fernando il edo zendu zanean, semerik ez ebalako euki guda sortu zan, liberalak II Isabel`en aldekoak batetik, eta antziñatar (tradicionalistas)`en aldekoak bestetik V Karlos errege izendatu gurean.

Euskalerrian liberaltarren alboan egon ziranak: gure irudizko eta dirudun gizon/emakuneak, ta batez be sal-erosle-arloan aundikiak ziranak, zerga-arauzko mugak amurratu egiten ebezalako, eta Napoleon`en aurka borrokatu ziran euskal gudalburu geienak.

Antziñ-zaletasunezkoen edo Tradizionalisten alderdian: erriko apaiz geienak, ospetsu ziran gizon/emakume batzuk ta Napoleon`en aurka borrokatu ziran gudalburu batzuk, Zumalakarregi artean zala, eta erriaren gizon/emakume geienak, V Karlos`en aldetik gure Foruen babesa euki gendulako borrokatu giñan.

Gure lau lurraldeko Foru-Aldundiak, Madril`eko liberal-jaurkintzaren alde egon ziran "FUEROAK eta KONSTITUZIOA bardiñak zirala esaten ebanak". Eta erriak, apaiz ta buruzagi gutxi batzuen aolkuari erantzun da "ANTZIÑ-ZALETASUNEZKOAK (TRADIZIONALISTAK) edo KARLISTAK, JAINKOA eta LEGE-ZARRA`ri besarkatuta egon ziran"en artean, ikaragarritzko borroka bi sortu ziran: 1.833-1.839 eta 1.872-1.876`arteko urteetan.

1.837`an Irailla`ren 11`n Madril`eko jaurkintzak esaten eban: " EUSKALERRIKO IRU LURRALDE ta NAFARROA`ko FORUAK BAIESTATUTEN DIRA, baiña ! ERREGETZAREN BATASUNEZKO-JAURGOARI KALTE EGIN GABE ". Lege onegaz, gure Foruen jabetasuna ezereztuta geratu zan.

### 3.28.- Ondorenak.

1.841` an Urrilla` ren 29` an Espartero` k gure babesle nagusia izango zala esaten ebanak Euskalerriko lau lurraldeen Batzar-Nagusiak debekatu ebazan, Espaina`ko lurraldeen neurria beratuta.

1.843` an Espartero` ren gobernuja jausita, 1.844` ko Uztailla` ren 4` an Foruaren lege batzuk berrezkuratu egiten doguz, baiña zerga-mugak itsasoan eta Auñamendietan geratuta.

1.848` an Madril` eko gobernuaren agiri batek Euskalerriko Alkateak, eurak izendatuta izan bear zirala agindu eban.

1.853` an Iparagirre` k, Madril` en " Gernika` ko Arbola " abestu eban, eta denbora gitxi barru erdira-naieko gobernuak galbidezkoa zala-ta Portugal` era erbesteratu eban. Gero Ameriketara joan zan.

1.860` an Uztailla` ren 7` ko aginduagaz, gure batzarrak egiteko, erki-jaurliaren edo bardiña zana guda-jaurliaren baimenagaz bete bear zirala agindu eben.

1.864` an Espaina` ko lege-biltzarrean, gure Egaña` tar Pedro` k bere itzaldia egin eban orduan eta " NACIONALIDAD VASCA " esan ebanean, an egon ziranen artean gorputz-ikara aundia sartu eban.

### 3.29.- Arana ta Goiri` tar Sabino` ren jaiotza.

Eta borroka bi onen bitartean, Euskalerrarentzat zoragarritzko egun aundi bat: "1.865` ean Urtarrilla` ren 26` an ARANA eta GOIRI` tar SABINO jaio zan EGUNA".

### 3.30.- II Isabel erregiña potolak zelan jokatu eban ? Amadeo de Saboya. 1º Errepublikoa.

1.868` an erregetzaren gobernuja aipu-galtze edo malda-berako osoan egon zalako, II Isabel beren alderdiko liberalak erregetzatik kendu eben, eta 1.870` ean Azilla` ren 19` an I Amadeo de Saboya izendatu. Errege onegaz 1.872` an Jorrailla` ren 21` an Nafarroan asita bigarren Karlisten borroka asten da eta erregetzatik 1.873` ko Otsailla` ren 11` n kendu eben egun orretan, Errepublika sortu zan.

### 3.31.- XII Alfonso` k Somorrostro` n zer esan eban ?

1.874` an Abendua` ren 31` n, gudalozteak errepublika kendu eban gobernutik eta XII Alfonso Borboia erregetzan ezarri, 1.875` an Urtarrilla` ren 1` ean izenduta.

1.876` an Otsailla` ren 28` an borroka amaitu zan, eta 1.876` an Epailla` ko 13` an Somorrostro` ra etorrita, gudaloztea berba onekaz biztu eban XII Alfonso` k: " Fundada por vuestro heroismo la unidad constitucional de España, hasta las màs remotas generaciones llegaràn el fruto y las bendiciones de vuestra victoria ". Jorrailla` ren 6` an Euskal Aldundia` k Madrillen batzartu ebazan gudal keiñaduragaz esateko: Espainol-gudalozteak borroka irabazi ebala " sin pactos ni concesiones previas ".

### 3.32.- 1.876 urte negargarria: zergaitik ? Sagarminaga`tar Fidel. Nafarroan zer ?

1.876`an Uztailla`ren 21`an gure foruak ezereztu egin ebazan, Euskaldunak Espainol biurtuta. Sagarminaga`tar Fidel`ek lege onen aurka urten eban beste Foru`ko alderdi-barri bategaz " GUZTIA edo EZER-EZ" esaten ebana, baiña dana alperrik izan zan. Lege oneik Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa`ri dagokiozanak bakarrik ziran, Nafartarrak 1.841`eko "ley paccionada"gaz beratuta egon ziralako. Egun orretan euren aldeko Kastelar`ek esan eban: " Algo grande muere hoy en España ".

### 3.33.- Lenengo deia soldaduzkarako.

1.877`an, gure edesti guztian, Euskal-gazteak beartuta, leenengoz deitu jakien soldauzka beteteko.

### 3.34.- " Ekonomi itunak ezarri ziran ?

1.878`an Otsailla`ren 28`an zenbateko diru-kopurua ordaindu bear eben Euskal-lurralde bakoitzak " conciertos econòmicos " ezarri ziran, leenengoetan zortzi urterako ziranak.

### 3.35.- Gureak egin dau ? Larrazabal`en itxaropena.

Eta gureak...., ia ia egin ebanean, Arana eta Goiri`tar Sabino Larrazabal`eko irrintziaz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa`ko abertzaletasuna bizkortzen asi jakun, Nafarroan Kanpion`tar Arturo`k bardiña eginda. Berton eta guraso bi`onekaz batera aipatzekoak dira Iturralde eta Suit`tar Juan, Aranzadi, Oloriz, Etxaide eta Ansoleaga.

## BIGARREN ZATIA

### 1.0.- Gamazada`n zer egin eben abertzaleak ?

1.893`an, Gamazo`k Espainol erraltxor-zerga`ren ministrua`k, Nafartarren zerga`ko jabetasuna ezereztu eutsoen, eta Nafarroa`ko Aldundiak beren jabetasuna ez eban lez utzi, tirabira asko ondoren (Donostian illa`k be bai), Gamazo beren ministru arduratik kendu eben eta beren egitamua ezereztu.

Bizkaian sortu baiño ez zan egin abertzaletasunaren ekitaldia Nafarroako Fueristakaz batu ziranean, Gamazada deritxon ekitaldean. Bilbao`n eta Gernika`n batzarrak eginda, ostean Espainol ikurriña erreta, Donostia`n Sagasta`ren aurrean Euskal asarrea gogor agertu eben eta Gazteiz`en izkanbil gogorrak egon ziran.

Onen ondorioz, Iruña`ko abes-batzagaz Gernika`ko Arbola`ri zin-egitera etorri ziran, Euskaldunak alkartzeko naian. Eta onen berotasunagaz 1.893-1.895 " BIZKAITARRA " asteroko aldizkaria argitaratu zan, eta " BIZKAI BURU BATZARRA " irasi eben.

Sabino`k Euskaldun guztien buruzagi-lez artuta 1.897`an " EL PARTIDO CARLISTA Y LOS FUEROS VASCO-NAVARROS " argitaratu eban.

### 1.1.- Euskalduna, nora arte jausita egozan ?

Ondo konturatu gaitazan, norarte izan zan gure Nortasunaren berakada eta naaztetasuna, gure agintari, jakitun ta dirudunen gizon-emekumeen artean beintzat, ulerpide au ipiniko dautsuet; Bizkai`ko Foru-Aldundian zortzi talde-politiko`en artean osotzen zan jaurkintza: Katolikuak iru talde.- karlistak, integristak eta fueristak; monarkiko liberalak bi.- gordetzailleak eta fusionistak; eta iru errepublika zaleak.- radikalak, federalak eta posibilistak. BAT ! bera esanda be ez ziran izan Euskaldunak, danak ! ziralako espainolistak.

Geien igartzen dan Euskal-beerakada au, Sabinok Arantzadi`tar Ingartzi`ri 1.901`an Urtarrilla`ren 5`an idazten dautson eskutitzan dago. Amaieran olan diño: "Euskalerrriak Gaur arte egin dauana, ara ez da eldu oraindik arazo-aldia, bere duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA`ren eskuari begitzen badautsagu, BERA da eutsi dautsona, Nor-Berak itauna egiten dau...: JAINKOA IZANGO OTE DA..... AU DESAGERTZEA GURA EZ DAUANA ?.

### 1.2.- Guda-artearen eta geroago zer ?

Emendik 1.936`era, gora doa Eusko-abertzaletasunaren indarra, ezin besteko lotsagizun aundiko ekintza baten, baiña Europa guztian espatakaz ezarritako Laterriak urduritu egiten dira, Madrille`n gorri-mamuaren aitzakiagaz erasoan asita, eta nai-ta Frankotarrak eleizagaz batera iltzaille-fazista aundiak izan, Europa, Amerika eta Afrika`ko laguntza guztia euki eben Euskalerrria dan Berezitasunezko ikurriña menperatzeko. Berezitasunezkoai ez dautsielako itziten Mundu onen bearrezko ekintzak



ordezko-berezian eroaten, " eurak dana jan-gura dabelako ". Lur guzti au... Zerura eroateko naian ? " .

1.978`an egindako Espainol konstituzio barrian, eta gudal-indarra euren eskuetan keiñuka dagoala, legedi barria sinatu barik egoala eta esan leike era-bat Euskaldunen alde; oraindiño ikusten dodaz Irujo ta Ajuriagerra`ren aurpegiak, Abril Martorel bien aurrean agertuta esan ebanean: " PERO TODO DENTRO DE LA CONSTITUCIÓN ESPAÑOLA ". Irujo ta Ajuriagerra`ren ostean PP`ko Olarra eta Ugartemendia`tar Luis egon zan, eta onek esan eutson: " D. Manuel, aqui puede haber un camino ", eta Irujo`tar on-Manuel`ek alakobat esan eutson: " haber, haber chaval dõnde lo encuentras " .

Konstituzio edo Espaina`ko Laterri-lege nagusi ori Euskaldunak ez gendun on-artu, eta eurak PP`koak, gure autonomia edo askatasuna be, ez !.

Olan gagoz oraindiño, eurak gudal-indarra keiñuka eskuetan daukiela, eta gu menperatuta noz askatuko.

Gaur, beste gauza bat da, Ondorioan eta gure Lendakaria`ren Esondapenean ikusiko dogun lez.

### Gernika`ko Lenengo Araudi edo Estatutoa:

#### 1.3.- Gernika`ko lenengo Araudia zelan gertatu zan ? (Agirre`tar Jose Antonio)

Leenengo araudi onen zeaztasunak, gaur Euskalerriko seme-alaba guztiak irakurri bear-eben liburutik artuta dagoz " ENTRE LA LIBERTAD Y LA REVOLUCIÓN " gure gogoetan beti euki bear dogun leenengo Euskal-Leendakari AGIRRE ta LEKUBE`tar JOSE ANTONIO`k, ager-toki berean, bero-berotan eta zeaztasun guztian idatzita dagoena.

Liburu onetan eta Espainol`aren aurpegira botata dira beren azkenetako berba oneik: "Ezer ez edo gutxi dakie Euskalerriko seme/alabak JAINKOA`gan daukien sinismenean eta zuzentasunezko bizi-bidean abertzaletasunaren garbitasuna, begirune ta zintzotasunagaz; 1.931`ko urtea eurentzat jazarpenekoa izan bazan be, ez ziran izan gutziagokoak 1.932, 1.933 eta 1.934`koak, euren betiko eginkizunak duintasunezko demokrasi baten egiñak ziralako; gaur bizi garan Mundu onetan gogoratuak merezi dabenen etsaiak, demokrazian, sekula be ez eben euki eurakaz alderatzekorik edo berdinketarik " .

Gureak, Larrinaga`ko espetxeari denbora onetan " BIZKAIKO BATZOKIA " zala esaten eutsoen.

Beti danik oraiñarte eta gaur ikusten dogun lez, JAINKOA`gan eta berezitasunezko DEMOKRAZIA`n daukagun sinismena apurtu ta naastatu gure dabe, euren dogmazko sasi-jainkoa eta jauntxo-arauzko menperatzaille-demokrasi baten ezartzeko beti lez. Baiña Euskalerraren sinismena beti danik ederra ta sendoa da, deabruaren ikasle oneik Euskal-buruak makurtzeko.

#### 1.4.- Bigaren Errepublika`k zelan jokatu eban gure askatasun-bidean ? Udalen agiria.

1.931`n Jorrailla`ren 14`an, Espaina`n Errepublika ezarri zan. Getxo`n egun onetan; 1.839`an Espaina`n ezarri ziran gure Foruaren aurkako legearen ezeztatzea eskatu zan; 15`ean ontzat artu genduna eta 16`rako Batzar-Nagusiak deitu ziran 17`an beteteko.

Egun orretan Gernika ta beren inguruak, beldurra sartzekotan gudalozte ta guardia-zibilla toki berezietan azkar-izkilluak inguratuta agertu ziran.

Baiña a ta guzti eta al eben eran: Udalerrikoaren eskubidedunak idatzi eben agiria onartu zan, eta 18` an zabaldu.

Bizkaitarrengandik eta Euskalerrri guztiagaitik agiri-ori berotasun guztiaz on-artu zan, eta ez eutsoen euki beldurrik Espaina`ren Errepublikako gobernuak azaldu eben guda-keiñuari.

### **1.5.- Udal-etxeen ordezkariak zelan asi eben lana. Erantzuna.**

1.931` ko 19` an Bizkaiko Udaletxearen ordezkariak esaten eben: agiri orrek, balio izan bear ebala, " Euskalerrri osoa beren oiñarrizko sinismenaren inguruan alkartzeko ", gure demokrazizko borondateari alegintzen dautzagunean, JAINKOA ta askatasunaren gogo-ametsak elburu-lez gure begi-aurrean kokatu daitezaz. Agiria, Euskalerrri guztiko Udaletxetan zabaldu eta bereala erantzuna izan zan eta oitu-gabeko gorputz ta indarra artu eban.

Jorrailla`ren 21`erako, Bizkaia`tik bakarrik ba-eukan 60 onespren baiño geiago, eta ainbat Gipuzkoa`n. Gero Azpeitia`ko Udaletxean egin zan Agiriaren baietzaz, Gipuzkoa`ko Udaletxe guztiak ekarri ebezan baietzara.

Eta Udaletxeak zergaitik izan ziran ?. Euskadin, demokraziaren oiñarria eta Euskalerrri guztiaren ordezkotza izan zalako antolamendu ori. Bestela, alderdi-kidearen eskuetan itxi ez-gero, autsi-osoak edo desberdintzak baietzuta geratuko ziralako.

Jorrailla`ren 29` an, Bizkaia`ko erki-jaurleriagaz " Sr. Martinez de Aragon " batzartu ziran, eta oneri eskatu eutsoen: Euskalerrriko lurralde bakotzetan, Udaletxeak batzartu daitezala, gure Laterri-zarren Batzar-Nagusiak berriztu daitezaz, eta gure askatasunaren yaurpidea edo Estatutoaren legeak ezarrita, Errepublika`ko gobernuan agert-arazteko.

Agintariak, goi-bultzarekin on-artu eben gogamen ori, baiña beti, berari itz-eman gendunen eskaintza barruan.

### **1.6.- Bilbao`n zer egin eban Erkoreka alkateak ?**

Bigarren ikusketa, Bilbao`ko Udala`ren Alkate zan Erkorekari egin jakon, eta onek, ezer ez eban ontzat artu.

### **1.7.- Eta Donostia`koak ?**

Lorrailla`ren 1` ean, Donostia`ko Alkate zan Sasiain` egaz bidez buru egin eben, eta au-be guztiz aurka agertu zan.

### **1.8.- Eta Gazteiz`koa ? Eta Araba`rrak ?**

Gazteiz`eko Alkate zan Ortiz de Zarate` gana joan ziran Alkateak, eta onek gogo beroz artu ebazan.

Araba`ko erki-jaurleri izan zan " Sr Martinez de Aragon`gana (Bizkaia`ko erki-jaurleria`ren Aita zana) joan ziran, eta onek, alkateen beroak gogotu ebazan, euki eben

ekiñaldiagaz aurrera egiteko esanda. Onen borondatea ikusita, Alkateak berai eskatu eutsoen: Bilbao eta Gipuzkoa`ko Alkateakaz bitartetza bete dagiala.

### 1.9.- Eta Nafarroan zer ?

Loraila`ren 2`an Nafarroa`ko erki-jaurleri zanagaz egon ziran, eta oneri euki eben agerbidea aurkeztu eutsoen.

Iruña`ko Alkatea Bilbao`n egon zan Loraila`ren 2`a ospatzen, Indalezio`tar Prieto`k baietz antzeko itzaldia emon eban lekuan.

### 1.10.- Alkateen idazkia Naparrai.

Alkateak, Noain`eko zubi gaiñetik aldatu ziranean, Iruña`ra urrut-idazki au bialdu eben: Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa`ko erri-zaleak Noain`eko zubitik aldatu egiten diranean, Nafarroa`ren kalte-ordaiñean itz-ematen dabe " Nafarroa`ren barruraino sartuko dabezala Arana eta Goiri`tar Sabino`ren irakatsiak, gizaldiaren iraunean iñoz ez daitezcan gertatu 1.512`an gertatu ziranak arbasoen erruagaitik.

Nafarroa`rentzat 1.931`ko Loraila`ren 2`a, Alkatea`ren eginkizuna garrantzi aundikoa izan zan, Nafarro`ko erri guztian sutauts`en antzera zabaldu zalako Alkate`en egin-bidea, Euskalerrriaren aldeko zaletasuna, unetxoetan indar-berrituta.

### 1.11.- Lau uri nagusietako Alkateen eta Aldundien azken erantzuna zein izan zan.

Lau Uri-Nausien Alkateak, gure aurkako leian, negargarrizko eginbearra iruditu eben, baiña erriaren Udaletxeak alkartasunezko mokor aundia osotzen joan ziran lez, 1.931`n Jorrailla`ren 21`an lau Aldunditan izendatu ziran arduradunak eta gure aurka gogotsu alegintzen ziranen egin bearretan ezereztuten joan ziran. Gaiñera, nausitzar-aldian sinatu ziran alkargoa zapaldu ta apurtzen joan ziran.

Gizon oneintzat, Euskal-Araudia orduz-kanpoko (gaur esaten daben antzera) eskabidea izan zan, Espainol`aren jauntxokeriagaz morroi lez lotuta egon ziralako.

Ala ere, Araba`ko erki-jaurleria " Sr. Martinez de Aragon ta Urbistondo " zinegotzien gogoak berotzeko alegiñetan ibili zan, gure Foruen adostasunean bildu daitezcan, anaidien (cofradias) arduratsuak izendatuta gero.

Loraila`ren 8`an, Udal-Etxe`en Alkateak, lau Aldundi`ko arduradunen ordezkaritza erabat aginte-gabeen utzi eben.

### 1.12.- Alkate guztien agiriak zer iñoan ?

Loraila`ren 9`an Alkate guztiak on-artutako agiri-bat idatzi eben oneik, bertatik ateraten dodan lerroaldi au adibidez: " Euskal Ikaskuntzaren Bazkunari eskatutako araudia artu dagiela, datorren Domekan Donostian, Euskal Lurraldean diran erdi ordezko arduradunak (subcomisiones) idatzi dagien Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia`ren buruz bakoitzaren araudiak, gero, euren arteko alkar-adostasunetik Euskal-Araudiari

(Estatuto Basco) eraikiteko ". Ekintza orregaz Aldundien arduradunak aginte-gabeen itzi ziran.

Kontuan euki bear dogu, len Euskal-Ezkerrekoakaz batera Euskal-Araudiaren aurka alengintzen ziranarekin, gaur edesti bardiñean egertzen garala. A ta guzti ! Euskadi, aberriaren larritasunezko dardarian alegintzen zan. Balekite, sekula ez dala egin ainbeste lan eta ainbesteko gogo-berogaz.

### 1.13.- "Principe de Viana"n zer egin eben Alkateak ?

Loraila`ren 27`an arratsaldeko 4`retan, Nafarroa`ko Aldundia`ren Principe de Biana`ko gela nagusian, lau Lurraldeko Alkateak batzartu ziran, izendatutako Alkate zaarrenaren (Elorrio`ko Ariño`tar Julian) mai-buru-pean, orduko Nafartarren Forua aojakintzan eskatzen eban lez, Loraila`ren 28`an beteko ziran Araudi-Batzarretan (cortes constituyentes) aurkezteko.

### 1.14.- Nok idatzi bear eban Araudia ?

Loraila`ren 29`an Alkateak, lau Aldundi`ko arduradunakaz batzartu ziran, eta aurkeztu ziran asmo-agiri guztiak baztartuak izan ziran, Aldundiko arduradunak eurentzat gordetzen ebelako beren eginkizuna, arratsaldean zabaldu eben au esaten eban agiria: "Euren ardura zala Euskal-Araudia idaztea, Eta ardura ori beteteko eurak adi-eraziko ebezala beren idatziaren txostenak".

Loraila`ren 31`an, Euskal Ikaskuntzaren Bazkuna`k Alkateai emon eutsen Euskal-Araudia, gero "Estatuto General del Pueblo Basco" deituko zana. Bagilla`ren 1`an irarri ta Alkateen artean banandu zana.

### 1.15.- Lizarra`n zer erabagi eban E.A.J.`k ?

Lizarra`n, Euskal-Udaletxe guztien Batzar-Nagusia ospatzeko 8 egun geratzen ziranean, E.A.J`ak lenengoetatik artu eban erabagia beren ardurazko egin-bearrak aurrera eroateko, 1.931`an Bagilla`ren 7`rako, beren Batzar-Nagusirako deitu eutsen Udaletxetako arduradun guztiai, E.B.B. aurrean dala.

Batzar orren ardura, Euskal-Araudiaren aurrean Euskal-Abertzaletasunaren kokamena zan, eta artu ziran erabagiak oneik ziran: 1<sup>a</sup>.- Alderdia, beren oiñarrizko erri-yaurgoan legeztatzen dala: "Euskadi`ren jabetasun osoa bere jabetasunerako". 2`n.- Orren burubidearen zintzotasuna zainduta: "on-artzen dabezala Euskal Ikaskuntzaren Bazkuna`k egindako asmo aurrea (anteproyecto) lerro-orokorrak". 3`n.- Guztiengaitik onartuta datoza lau zuzentasunak: a).- Euskal-izatasuna artzeko dagokiona: "arroztasunetik etorritako guraso ta seme/alabak, gaur bear daben urte-bi`ko auzotasunetik, amar urteko epera zabaltzen dala". b).- Euskalerrriaren jabetasunai dagokiona: "Espaina`ko Laterriari bere borondatez emon ez dautson gauza guztiaren jabetasuna". d).- Irakaspenaren izkuntzai dagokiona: "Euskera edo Gastelera ibiliko dala, umea edo gaztearen arauz bata edo bestea izaten ba-dira beren ama-izkuntzak. Jakin-gai lez ezarrita ikaslearen ama-izkuntza ez dana". e).- Eleiza eta Euskal-Laterriaren artu-emonai dagokiona adieraziko-da: "Espaina`ko Laterriaren ardurapean ez dirala itziten, Euskalerriai gauza guztietan

datorkiona, Euskal-Laterriak berentzat gordetzen dabela ". Eta Euskalerrriaren batasunagaitik beti begituta, oarkizun zorrotz-bat egin eben, E.A.J`ko arduradunak gogoan euki bear ebena. 4`n.- Ala ere, eta erriaren batasunari begituta, alderdiak adikortasunean begituko dabezala, Bagilla`ren 14`an Iruña`ko Batzar-Nagusira joaten diran Euskal-Udaletako Alkate guztiak, eta ango unetxoaren gora-berak ikusita, bai beste alderdiakaz ariñagoko adostasunean jarrita: " on-artu dagiezala batasunezko-araudira doazen erabagiak, Euskalerrriari emon dagioen bear dauan batasuna ". Beti lan egiten eben tinkotasunezko erabagiakaz, baiña batera biguintasunean.

#### 1.16.- Zar-zaleak edo Tradizionalistak zer diñoe ?

Bagilla`ren 10`an, lau Lurraldetako Antziñatar edo Tradizio-Zaleen buruzagiak Donostin batzartu ziran, eta onein erabagiak berdiñ-antzekoak ziran: " 1.837, 1.839, 1.841 eta 1.876`ko Espainol legeak, Euskal-Askatasuna espataren indarrez oinpetu egiten ebenak ezereztu gura ebelazako, au esanda: " foru`en itzul-aldia bear dan ondorioagaz ez bada lortzen, tradiziño-zaleak ez dirala aldenduko Euskal Ikaskuntzaren Bazkunak egin dauan Euskal-Arauditik ".

#### 1.17.- Orduko Sozialistak zer ?

Sozialistak, Bagilla`ren 7`an " Federaciòn Socialista Vasco-Navarra " biltzar-orokorrean batzartu ziran, eta onein eritziak oneik ziran: 1<sup>a</sup>.- Euskal-Araudi`ren gogoari lagundu egin bear jako, Errepublikaren garaipenak ez ikututen dauzan bitartean. 2`n.- Euskal Ikaskuntza Baskuna`ren xede-gai`en aurka: " nai-ta, Euskalerrriko lau Lurraldeak politikan ta erlijijiñoan oitura bardiña euki, euren ustez arauak, Lurralde bakoitzarena izan bear dauala, Lurralde bakotzak Espaina`ko Laterriagaz itzarmenak eginda ". 3`n.- "Txostenlaritza gai onetan, ontzat artzen dau Euskal Ikaskuntza Bazkunak asmatu dauana, kontuan eukita euren artean banatuta egon da-be, beti batuko dirala bizitasunezko alkar batasun baten. 4`n.- Sozialistak araudiaren asmo-aurrean (anteproyecto) aurkitu dabena, esku-zabaleko irizpide baten eginda dagoala, orregaitik uste dabela " Federaciòn Socialista Vasco Navarra"ri aolkua emotea datozaan aldaketetan, legearen langilleak eta erri-ikasteko antolamentuan egiña " ulertzen dabela. Arlo ori Espaina`ko Laterriari egokitzen jakola ". Beste zuzenbideak ardura gutxiagokoak dirala, eta geiago dagozela izentasun batzuen eratara edo araudiaren barruan doan itunerako (composiciòn).

#### 1.18.- A.N.V.`k zer iñoan ?

Euskal Abertzaletasunen Ekintza`koak (Acciòn Nacionalista Vasca), Madrillen zer gertatzen zanagaitik, oso asarre agertu ziran eta errege-jatorriaren aurkako alderdi ziranai eskatu eutsen, Euskal Ikaskuntza Baskuna`ren asmo-egitamu osoa artu bear ebela, ezker-aldeko alderdiak, A.N.V., eurakaz batera joatea gura ba`eben. Oneri ezer esan barik Madrillen Sozialistak artu eben erabagiakaz.

#### 1.19.- Beste alderdi Espainatarrak zer ? Ezker eta eskoia batera.

España`ko beste alderdi Errepublikano guztiak, ez eben jakin-gura ezer Euskadiri dagokionagaz.

Adigarri ikustea da, len bezela gaur-be, ezkerralde ta eskumaldeko alderdiak zelan batzen diran gudu-antzez Euskal Askatasunaren izan-gaitasunak apurtzeko.

## 1.20.- Iruña`ko batzar nagusia: Iruxo`k zer egin eban. Giroa eta erabagiak.

Iruñan, Bagilla`en 14`an egin bear zan Batzar aundiari, judaskeri bidez egozki edo utstuazo egin jakon Antziña`tar edo Tradizio-zaleen eta Diario de Nabarra`ren kidegotasunagaitik. Eta emen A.N.V`koak konturatu ziran, zelan salduta geratuko ziran E.A.J.`k esaten eutsoen lez.

Baiña bereala konturatu ziran, eta Bagilla`ren 12`an Gobernu-zibillaren baimena artuta, Irujo`tar Manuel`ek beren azkartasunagaz Lizarra`ra joanda Udaletxeen baimenak eskuratuz, antzoki nagusi ta zezen-tokien itz-artu eban Lizarra`n Bagilla`ren 14`an Batzar Nagusia ospatu al izateko.

Lizarra`n 1.931`an Bagilla`ren 14`an Batzar-Nagusia egin zan jakiña zan lez.

Eta ikusgarrizko Eleiz-biraren antzera, gazte ta zaar txistuaren alaitasunagaz abestuten " Askatasun-Eguzkia basotik urtenda - beren argia edonun zabaltzen da ", joan ziran Lizarrara, ainbat berebil txiki ta aunditan.

Batzarra, 12`ak ogei minutu gutxiago ziranean asi zan, eta bere sar-arazleak, Lizarra`ko Alkatea Agirre`tar Fortunato eta Getxo`koa Agirre`tar Jose Antonio ziran.

Legediaren gai geienak on-artuak izan ziran, 2`n gaian bakarrik zuzentasun bat ezarrita: " bereiztu edo banatu al izango dira, adostasunera batu diran era berdiñean ".

Irugarren gai`an, politikako eskubideari dagokionean, Azpeiti`ko Alkateak, danak ontzat artuta adierazi eban: " errian berezko ta kanpokoak diranentzat, eskubide oneik amar urtean bertan bizitzeaz irabazi bear dirala ".

8`n gaian, Euskadi`ren Leendakaria`ri dagokiona eta erriak aukeratutako 80 arduradunak izendatuta izan bear dauana. Azpeiti`ko Alkateak danak ontzat artuta adierazi eban: " leenengo Lendakaria Nafartarra, bigarrena Bizkaitarra, irugarrena Gipuzkoarra eta laugarrena Arabarra izan bear zirala, araudiak esate eban ordez ".

9`n gaian, danoen baimenagaz aukeratu zan, Iruñan kokatuta egon bear zala ekintza-agintea. Baiña Zangotza`ko Alkateak, bere ustez larregi zala Nafarroa`ri egiten jakon begiramena, adierazi eban: " ekintz-aginte ori Lurraldeetan txandakatu egin bear zala " eta Batzarrak ez eban onartu.

Altube`tar Sebero Gernika`ko Alkateak adierazi eban: " Gipuzkoa`ri esker oneko eskeintza egitea Azpeiti`ko Batzarrean Nafar`tarrentzat euki eben senidetasunezko biotz-aldikoagaitik, danon artean on-artuta beren armarritik kañoiak kentzea erabagi ebelako Belate`n izandako anai-arteko guda ain odoltsua gogoratuten ebalako ". Sebero`k adierazi ebana, Batzar-kide guztiak zutituta txalokada aundi baten artu eban.

14n. gaian on-artu zan: " gaizkin-auzitako gelatan, lege-gizonak Euskeraz jakin bear ebela ".

15n. gaian, Azpeiti`ko Alkateak adierazi eban: " Euzkadi izan bear zala arduradun bakarra Eliz-itun bidez Batikano`gaz alkartzeko".

Ondoren, Soraluze`ko Alkateak Euskadi`ko Laterriarentzat eskatzen dauz: "sindikato-eskubideak". Maien Lendakariak erantzun eban: " Espaina`ko Laterriak bermatuta dagola, eta Euskal Laterriak neurtua izango dala ".

16 ta 17n. gaiak, izkuntzaren arloan berba egiten dabe eta Mallabi`ko Alkateak adierazi eban, bitarteko Gobernuai bialtzea urrut-idazki bat, irakaskintza ele-bikoa izan daiten eskatzeko.

18 eta 19n. gaiak on-artuak izan ziran eztaibada barik. Leenengoa, Euskalerrian Espaina`ko gobernuak daukan ordezkotzagaitik, Euskal Aolku-Orokorreko Lendakariak emendik aurrera eroango ebana, eta neurri-emaille bigarrena: bitariko taldea (comisión mixta) Errepublikak`ko lendakariak bideratua izango zala, Euskal-Laterriaren ta Errepublikaren bitarteko arazoak zuzendu daitezcan.

20, 21 eta 22n. gaiak eta beren bein-beiñeko erabagiak (disposiciones transitorias) on-artuak izan ziran.

Basterretxea Bermio`ko Alkate jaunak berbea eskatuta, au adierazi eban: Batzarrak on-artu daiela " sort-araudi onek ez dauzala betetan Euskal naikundeen elburuak, Euskadi`ren eskubideak aske itzita Foruen lengoratzeraíño, 1.839`ko espataren-legeak eta beste areik Euskalerriko eskubideen askatasunak oinkapetu dabezanak kenduta ". Gero, on-artua izanda, Arau-legediaren buruan ipinteko eskatu zan.

Gernika`ko Alkateak, Euskalerriko Udal guztiai ots egin edo deituta adierazi eban: "Euskal Araudiaren ospakizuna, bere eguna eltzen danean, Gernika`ko Zugaitz-Santuaren azpian ospatuko dogula. Danon txalo-zarta aundi batekin artua izan zan.

### 1.21.- Batzar aundi ta luze ori bazkaldu bagerik ? Gero erri-batzarra.

Agintarien-bazkaria, Lizarra`ko Udaletxearen batzartegian egin zan, danon alaitasunezko-irakin aldi baten. Eta arratsaldeko 4`retan asiera emon jakon erriaren-batzarrari Lizarra`ko zezen-tokian. Au guztiz txikerra izan zan 12.000 gizon/emakume bakarrik sartzen ziralako bere barruan, eta beste 18.000 kanpotik kide izatea al- izan zan, megafono`ren antolamendu on-bateri esker.

Lizarra`ko Alkateak emon eutson asiera, Batzarraren erabagiak irakurrita. Gero Zangotza`ko Alkatea Blanco Armentia Jaunak, bere itzaldi aberatsa.

Urrengo Andoain`eko Alkatea Euskeraz Gipuztarren izenean. Laudio`ko Alkatea izan zan ostean Araba`tarren izenean.

Gero Getxo`ko Alkatea Agirre`tar Jose Antonio, Bizkaitarren eta Euskalerriko Alkateen buru ziran arduradunen orde. Euskeraz asita, Euskalerraren batasunerako eta Euskadirentzako egun garrantzitsua dala bere nortasun berezian, bere ikur aundienetariko bat izanda berak berba egiten dauan izkuntza. Goizeko Batzarra gogoratuz, beren gogapenak, egaz egiten ebala esan eban antziñako askatasunezko batzarretara.

### 1.22.- Egun aundi onen azkena zelan izan zan ?

Askenez, Euskal Ikaskuntza Batza`ren leendakaria eta Gipuzkoa`ko Aldundia`ren buru izenekoa Elortza`tar Julian`ek berba egin eban, eta itzaldiaren amaieran au esan eban: "Euskadi`ko Lurraldeak zutik ! gure araudiagaitik, gure amaigabeko Foruak eta legearen

ikurragaitik JAUNGOIKO ta LEGE ZARREAN " GORA EUSKADI !!. Lizarra`ko ekitaldia amaituta Gernika`ko Arbola ta Eusko Abendaren Ereserkia abestu ziran.

### 1.23.- Euskalerrria Gernika`ko zugazpean eta plazan: nortzuk berba ?

1.931`n Uztaila`ren 12`an, Euskalerrria bere Zuaitz Santu-pean batu zan, bere ordezkari zaintzailleak agurtzeko.

Gernika`ko Udaletxean goizeko 10`etan asi zan gorteko Aldundiai ta Alkate guztien buru ziranaren artzea, Udaletxeko Uri-Batzar osoagaitik beren Alkate Altube`tar Sebero aurrean dala, eta berba oneik esanda: " Gaurko egunetan olangoko egintza-ederrak bear geunkez, JAUNGOIKOA eta ABERRIARI ainbeste maitasun eskeiñita ".

Gertakizun-eder orretan, 5.000 Euskal seme/alaba egon ziran gitxi gora-bera eta bertan, Agirre`tar Jose Antonio`ri Gernika`ko Alkatea zen Altube`tar Sebero`k agintaritzaren makilla emon eutson, Euskadi`ko Alkate ta Abertzale guztien izenean.

Mitin edo biltzarra, arratzaldeko 4`retan asi zan, Elorrio`koa zan Alkate zaarrenak zabaldu eban. Gero Azpeiti`ko Alkateak berba egin eban Euskalerrriko Alkate-talde arduraduranaren, buru zalako.

Orexa`tar Martzeliño mintzatu zan Euskeraz Bizkai`ko diputaduen ordez, Euskal endaren arimari abestuta JAINKOA`ren eta LEGE ZAARRAREN barruan.

Oriol jauna gero Araba`ren ordez, Itzaldi argitsu bategaz.

Pildain`tar Antonio, Gazteiz`ko Eliz-nagusiairen eleiz-gizona eta Gipuzkoa`tik aldun aukeratua zanak berba egin eban.

Nafarroa`ren ordez, Rodezno`ko Kondea.

Urrengo, Altzeta`k iztokira igon eban. Au, Euskeraz izen aundiko Izlaria ta Gipuzkoa`ko mendigoizaleen antolatzailea zan, eta gazteri guztia irikitan ipini eban.

Ta askenez, Agirre`tar Jose Antonio`k, itzaldi taldea amaitu eban eta gero AGUR JAUNAK abestu zan.

Ekitaldi onegaz amaitu zan garrantzi aundienetariko leenengo aldia, JAUNGOIKOA eta Mundu onen aurrean, gure arduradunak barkaeziñezko arrazoiakaz beteta, Espainola`k daukiezan maltzurkerien aurka borrokatu zirala.

### 1.24.- Araudia Madrid`ek korteetara.

1.931`n Uztaila`ren 15`ean, II errepublika`ko lege-nausirako batzarrak zabaldu ziran, eta gure talde txikiak euren ezar-lekuetan ezarri ziran. Gure arduradunak ez eben itzik artu Uztaila`ren 29`rarte. Beunza, taldeko buru zanak, itzaldi ederra egin eban.

### 1.25.- Iruña Euskadi`ren uriburua ?

Dagonilla`ren 10`an, Beunza`ren itzaldi ostean, Euskalerrriko Udaletxeen ordezkari guztiak Nafarroako jauretxean batzartu ziran, eta bertan Beunza, Aizpun, Kuntxillos eta Oroz, txoztenlaritzako (ponencia) ordezkariak ziranak, egon ziran.

Txoztelaritzak, Euskal Ikaskuntza Bazkuna`ren xede-gaia ontzat artu eban eta batzarrean eztabaidan ipinita, geienak ontzat artu eban. Iruña aukeratu zan Euskadiren



Uri-nausitzat. Andik aurrera danak batera joanda, Euskal Araudia edo " Estatuto Basco-Nabarro " ren askatasuna lortzeko.

### 1.26.- Sozialistak zergaitik aurka ?

Errepublikatarrak eta Sozialistak espataren bidez lortutako eskubideak legeztu gura ebezan, eta ori da gaur sozialistak daukien doña. Beti jaurgortiarrai edo konstituzional menperatzaillai, demokraziaren izena emon gura. Ezker aldeko demokrazia ?. Ori alderdikeriari demokrazia emotea da, zekula ez ! izatearen lotsagizunari.

Euskalduna errepublikar-demokratikoa da, " baiña Euskalduna !! " ez dakigula aztu sekula ori.

## EUSKALERRIKO ALKATEAK MADRILLERA:

### 1.27.- Alkateak Madrid`era zertarako ?

Ez eban beste zentzurik, Euskadi`ko alkateak baimendu eben sort-araua Espainol Errepublikako agintarien aurrean aurkeztutea baiño, Euskalerrriak erri-eritzi edo erreferendun bidez onartuta gero.

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroatik 420 Alkate ziran su-gurdian Madrillera joan ziranak, erria ago batez aupaka.

### 1.28.- Agirre ta Alkala Zamora: Baztartuak !!!

Getxo`ko Alkate zan Agirre`tar Jose Antonio`k, Alkala Zamorai irakurri eutson 1.931`n Irailla`ren 22`an idatzi zan eguneko arau-agirian ekarren esaria. Onek artu eutson arau-agiria, Euskalerrriaren iriz-kidetasunean eginda egon zana, Espaina`ren Errepublikako gobernu aurrean aurkezteko, eta ez eban on-artu. Baztartua izan zan.

### 1.29.- Geroko ekinaldiak zertarako ?

Urrilla`ren 6`an Espaina`ren gobernuaz, Euskalerrriaren lau Lurraldeko aldun (gestoras) arduradunak, oneik euki eben lengo gogoaldiaren egoera aldatuta Euskalerrriaren alde, Madariaga jaunari esker.

Urrilla`ren 7`an Madrillen Euskal talde txikia ziranak batzartu ziran eta erabagi garrantzizkoak artu ebezan.

Urrilla`ren 15`an, gutxiengoko Euskal-Nafarrak Espaina`ko lege-biltzarrean, lege-etxe ori jazarraldian bertan itzita alde eben bertan egon ziran katoliko ordezkariekin, konstituziko 26`n gaia guztiz alderdikemizkoa izan zana onartu zalako. Euskal katolikoentzat gaitzi-arazle edo gogai-eragille izan zana eta apaiz, erlijio ta lekaidegoen jazartzaillea zana, eta erriak eskubide oneik ez ebazala ezagutzen iñoana.

### 1.30.- Araudia amar ataletan zergaitik ?

Abendua`ren 8`an Espainia`ko gobernuak Manuel Azaña buru zala eta Santiago Casares Quiroga gobernari zala, agintza bat emon eban, Euskal-Araudia 10 ataletan egiteko.

### 1.31.- Aldundien batzarrean zer esan eben ?

Abendua`ren 15`n, Garrantzi aundiko batzarra egin zan Aldundian. Lau Aldundiko arduradunak eta ia Euskalerriko Alkateen buru ziran guztiak batu ziran. Bertan artutako erabagiak: alkateen artetik iru ordezkari aukeratu ziran eta lau aldundiaren aldetik, lau eta bat geiago banakaren aldetik, danon artean azkeneko Euskal-araudia apaintzeko, gero Udaletxe guztien baimena artu dagian.

Asken baten, euren egin bearra, Euskal Ikaskuntza Bazkuna`ren egitasmoa egokitzea baiño ez zan izan.

### 1.32.- Referendun edo eritzi-batzea Euskalerrian ?

1.932`an Urtarrilla`ren 31`n izan zan eguna, lau Lurraldeetan Euskalerrriaren eritzia-artu orduko itauna egiteko, Euskal-Araudia Euskalerrri osorako izan bear zala ala Lurralde bakoitzarentzat bakarrik. Eta 1.930`ko autarki-errolan artuta 1.236.709 boz-emaille ziranetik, Euskalerrri osorako izan daiten, 1.100.000 aitezlek baietza emon eben. Zalantza barik itzita eben, Euskaldun guztientzat oiñarrizko-leggedi bat gura ebala, nai-ta Lurralde bakoitza beren eskukotasunagaz zuzendu ta Udaletxearen askatasuna ezarri.

Emen ez doguna aztu bear, Lizarra`ko araudia (estatuto), Euskalerrrian eskumaldeko espainolista ziran guztiak on-artua izan zala.

### 1.33.- Sozialistak zergaitik pozik ?

1.932`an Joraila`ren 18`an, sozialistak Euskal-araudia irakurri ebenean, Basterretxea ta Madariaga`k aurkeztuta, arrituta esan eben: " Au gure irakaspidea da ba`ta !! ".

### 1.34.- Gaiarre antzokian batzarra.

1.932`an Bagilla`ren 19`an goizeko 11`k ta erdietan Gaiarre antzokian batzartu ziran, eta Aldundiaren arduradunak Udal arduradunai aurkeztu eutsen Euskal-araudia on-artu dagien.

Lan asko egin eben nai-ta ain gutxi izan Bergara`ko saldukeria egin eben ondorengoak, Euskadi`ko seme/alaben Aberriagaitik euki eben maitasuna apurtzeko edo beintzat era bat lotu egiteko. Orregaitik Nafartarrak ez ziran egon an, Nafarroa Euskalerrriaren sorterrria dalako. An egon ziranak Nafartarren gezur-izenekoak ziran, Nafarrarentzat ezer onik gura ez ebenak, ez eta Euskadirentzat be. Orregaitik itxaron eben batzarra egin orduko egun-bi ariñagoarte, kalteak aundiagoak izan daitezcan Nafartarrai Euskaldun izateak eta askatasunezko bideak moztuteko.

### 1.35.- Agertutako eritxiak.

Bizkaia, Araba ta Gipuzkoa`n alde aundiagaitik irabazi eben autezkundera, baiña Nafarroan azpikeri onein bitartez: Euskal-araudiaren alde 109 eta aurka 123, 35 autarki utsak egonda. Eta len geienak baimendua izan ba`zan be, Nafarroaren aldetik zoritzar-lez artu zan.

Egia ez zana guztiz, gero jakin zalako zelan Nafar Alkate batzuk guztiz ipar-galduta ibili ziran eta naaste zikin orreitan euren aginduaren aurkako bozka eman eben. Bestela autezpena olan geratuko zan: 127 Euskal-araudiaren alde eta 115 aurka.

### **1.36.- Oriol Araba`n: bildurkeria.**

8 egun beranduago Oriol`ek Araban berba egin eban, eta zoritxarren aurrean beren elburua, aurrerako antolamendu bat egokitzea zan. Baiña erakutsi ebana, beren bildurkeria izan zan, Batzarra babesteko ez zalako joan. Gitxi baiña ez ziran eta Nafar-zoro, maltzur ta saltzailleen eskuetan itzi eben.

### **1.37.- Kataluña`ri baietza, baiña euskaldanai itxaropenaren poza.**

1.932`an Irailla`ren 9`an Espaina`ko gobernuak Kataluña`ko Araudiari baietza emon eutson.

Espaina`ko gobernuak erabaki eban, bere lendakaria Euskalerrira joan daitela eta bertan, Gipuzkoa`ko Aldundian Kataluña`ko Araudia sinatu dagien 1.932`an Irailla`ren 15`an.

Irailla`ren 14`an, Katalan`ak arrera garaitsuz on-artuak izan ziran, erria eziñ-esaneko zoramengaz pozaren-pozez, askatasunaren arloan garrantzitsua zan zati ori lortzeagaitik. Orregaitik, Karner Katalana eta orduan gobernuko erri-diruaren ministru izan zanak esate eban: " Lege-araudi au ez da bakarrik Katalana, Euskalduna be badalako eta onen atzetik etorriko diran beste araudi-lege batzuen be bai". Uste dot Katalana`k eta Euskalduna`k pozik egon bear geunkela.

Araudi-agiria, Alkala Zamora eta de Macia`ren ordeiz Gassols`ek sinatu eban, ostean danok eta Donostiko abes-batzak lagun zale " Gernika`ko Arbola " abestu zan. Azkenean Katalunña ta Euskadi`ko ereserkiak abestu ziran. Prieto ez egoan oituratuta beren ikurriñari olango omenaldiak egiteaz , ainbeste bider zapalduta, Euskal ikurriña ta Katalan ikurriña esku bietan artuta, biak erabilia alde batetik bestera kurutzatu ebazan.

### **1.38.- Iru Lurraldean batzarra nai Nafartarrak: zertarako ?**

1.933`an Uztaila`ren 23`an Arabako arduradunak batzartuta, iru Lurraldean batzarrerako dei egitea erabagitu eben, Dagonilla`ren 6`an bizibideko ikastetxean ospatu zana, Araba`ko Aldundiak ez ebalako lekuri.

Iru Lurraldeetan guztiz 282 Udaletxe ziran, eta an egon ziranak 271 eta iru Lurraldean Aldundiko ordezkariak.

Nafarrokoa be joan zan, eta Gazteizko batzarrean danokaz bat ez ba eban egin, iru Lurraldean artean erabagi zan: Nafarroa gertu egon arte danakaz bat egiteko, sei lege-ataleko geigarri (disposición adicional) bat egitea.

### 1.39.- Autaketa aundia: "Plebiscito".

Udaletxeen batzarrean aukeratutako 18 ordezkariak, bereala asi ziran lanean Euskalerriko-autaketa aundia antolatzeke, Euskal-araudiaren alde 1.933'an Urrilla`ren 15`an ospatuko zana.

Ikaragarritzko lan ara ta onako mugi-aldian egin ta gero, 18`ko batzordeak Azaro`ko 5`erarte atzeratu eban autarketa (plebiscito) aundi ori, Urrilla`ren 15`a gauza batzuen gora-beran lar ariña izan zalako.

Itaun bat aurkeztu zan: " Ezkertiarrak zer ziran ? ". Ba.... urte bi terdiko batzar eta luzapen erabagiai be eldu jakien ordua.

Abertzaleak aitu eben, euren ordua be eldu zala, eta Azaro`aren 5`ean danak ezagutuko zirala, gero garbitasun aundiagoaz lan egiteko. Erriak danon egikerai garbitasuna eskatzen eutsen, marro ziri, azpikeri, iruzur ta maltzurkeriakaz goraiño beteta egon zalako.

Azaroa`ren 5`eko erri-autarketan (plebiscito) Euskal-Araudiaren alde 459.255 baiezko iritziak egon ziran, eta 14.196 aurka. Emen leenengoz, emakumeak autatu eben edo autesleak izan ziran.

1.933'an Azaroa`ren 5`an, Euskalerrriaren koroatzea zan, urte-bi terdian etenbako lana, egoarri ta neke-bako alegiña, Erriak goi-bultzarekin saritu ebana.

### 1.40.- Gernika`ko batzar nagusia: autarkien zenbaketa.

Gernika`ko batzar nausiko gelan, Azaroa`ren 15`ean Erri-autarkiarene boz-azterketa ospatu zan. 18 arduradunen artean erabakita, Errepublikako Uri nagusira joatea, Euskal-Araudia, euren agintariai emoteko.

Azaroa`ren 19`an, Euskal-Abertzaleak Aldundiko ordezkariaren auteskundetan, aldi aundiz irabazi eben, aurkako alderdi guztien beste ordezkari atara ebelako Nafarroa be artean sartuta. Bilbao izanda arrigarriena, Azaña ta Prieto`ren feudo edo jaunpekoa izan zalako, euren izendapenak gitxigandik lortuta.

### 1.41.- Kortetako lendakariagaz eta geroago ezetza.

Abendua`ren 21`an gorteetako lendakariene gelan, Espaina`ko lege-biltzarrai Euskal-Araudiaren eskuratzea egin jakon, eta urrengoko egunean, Errepublikako lendakaria zan Niceto Alcala Zamora`ri Euskal-Araudiaren idatzia.

1.931`ko Dagonilla`n, Errepublikako lendakaria Niceto Alcala Zamora`ri, Euskalerrriko Alkateak, Lizarra`n sinatu zan Euskalerrri geienak onartutako Euskal-Araudia eskuratu eutsoen. 1.933`an ainbeste eguneko berriak, lan eta ara ta ona ibili beren askatasunezko eskaeran, Niceto Alcala Zamora`ri beste Euskal-Araudiaren idatzi bat emon jakon, Laterri-legearen (constitucionales) legeak bete dirala agertzeke, alan eskatzen ebalako biotz-gabe beartutako lege onek.

Eta emen da, marrokeriaz, gezur eta erdi-egiakaz gaurko egunetan gertatzen dan antzera, Araba beren izatasunezko etxetik atara gure dabela, eta Euskaldunei geien iraki-

erazi eutsena: euskaldun saltzailleak izatea eraso amorratuakin egiten ebena: Oriol, Goikoetxea eta abar.

#### 1.42.- Katalanakaz Madrid`era: zertarako ?

Baiña geiago dago, 1.934`an Bagilla`ren 12`an Kataluña ta Euskal ordezkariak Madrillera joan ziran, Katalunña`ko eskubideak zalantzan ipinten asi ziralako eta Espaina`ko lege-biltzarra bertan izteko prest egon ziran.

Eta Euskaldunak gogoratzen eben urrengoak eurenak izango zirala, gauza bardiñak izan zirelako, diruzko-ongunari (concierto economico) egin eutsoen antzera.

Lurraldearen aldun-arduradunaren laguntzaz. Udaletxeak asarratuta 1.934`an Uztailla`ren 5`erako Batzarrera deitu eben, danak joanda, iñoz baiño geiago Euskalerraren eskubideagaitik arduratuta, eta danak erabakita, Espaina`ren gobernuak jauntxokeriaren aurka joatea erabagi eben, eta aundikiro mintzatu ziran: "onek (Espaina`k) ez dala aurkitzen bai-emaille naikorik gobernuak izendatzen dauzan Aldundiko ordezkarietan, Erriaren borondatetik urrun dagozelako".

#### 1.43.- Poliziak eta soldaduak Euskalerrian.

Euskadi, polizia eta gudaloztegaz artua izan ta gero, Udaletxeko arduradunak asarre ta goretsita, Nafarroako arduradunak errepublikako lendakariari urrut-idazki bat bialdu eutsoen gogoia adieraziteko: "Fuero`en aurka egiten ba`ziran zikinkeriak zigor-gabe (irabazi`en zergak, apainkeriai, ardo, antolamentuan eta osasunerako zergak eta abar ), gobernuak ipinitako Aldundiko arduradunak kentzea eskatzen (exigiendo) ebela".

Baiña..., gudalosteak lau Lurraldeetan gaizki egiñako astokerietan, Alkateak eta zinegotziak bai erri askotako Udaletxe osoak espetxeratuta 100.000 pzta zigorrakaz eta 500.000 pzta Euskadi ta La Tarde aldizkariak, errirentzako on-alegiñetan batzartu egiten ziralako erabagi oneik artzeko, eta bere gogoz beste gobernuak egiten eban lau aizetara zabalkundeagaz Dagonilla`ren 12`ko Batzarra ez zala egin, Udaleko arduradunak al izan eben lekuetan batzartuta 100 Udaletxe baiño geiagok Dagonilla`ren 12 - 18`ren bitartean bialdu ebezan agiriak baieztuta.

Orren ordezkotza azkenean 451.603 biztanleak alde izan zirenak eta 30.945 aurkakoak, azken baten autoeskundearen atzeratu egin ziranen kopurua izan zana. Udaletxearen adierazpena gogo bat egin da baieztu zan.

#### 1.44.- Zumarraga`ko batzarra katalanakaz. Ondorenak: dimisiñoa Udal-etxeetan es-petxeratua.

A ta guzti be, gobernuak ordezkariak batzarra ez zala egin esaten eban.

Garrantzi aundikoa izan zan 1.934`an Irailla`ren 2`an Zumarraga`n egin zan batzarra, nai-ta gobernu aldetik gudalozteak jendartean eten bako erasoak egin. Katalan arduradunak etorrita, sarreran eta agurtzean eziñ-esaneko pozaren pozez egin zan batzarra.

Geiago, ainbeste astokerizko ertz-bideak (metodos represivos) eginda Sukarrieta eta Gernika`n jendarte pilloak urten eban Katalunña eta Euskadi`ko arduradunak agurtzen, oneik be ertsaldi orretan sartuta, 1.934`an Irailla`ren 4`an Udaletxeko arduradunak

batzartuta, lau gaien erabagi bat zabaldu eben Euskadi`ren Udaletxe guztien itzieragaz (dimisiòn).

Ez ziran geratu pozik egin ebazan astokeriakaz, eta ia 1.500 Udaleko zinegotzi diruagaz zigortu ta espetxeratuak izan ziran. Bilbao`ko zinegotziak, geien izan da, 11`n Larrinaga`ko espetxean sartu ebezan eta 18`an Igande`ko gaba-erdian kamioietan Burgos`eko espetxera ebezan.

### 1.934`ko iraultza Euskadi`n:

#### 1.45.- Errepublika marxtarra sortu zanean zer ?

Espaina`ko errepublikan Marxista`ren iraultza 1.934`an Urrilla`ren 5`an leertu egin zan, eta Espaina`n greba-orokorreraño eldu zan, ikaragarritzko ondorioetara igonda Asturias`en antzera, borroka latz, odolti ta basatia egin zalako.

Bizkai`ko erki-jaurleri Balerdi`ri eta guda-legearen aurretik, elkarte, batzoki eta gizon/emakume ta ume abertzaleen erakundeak itxitea agindu eutsoen, itz-gaizto zakarren artean, itxaroten eta ia sinestuta Bilbo`tarrak asarre bizian goikoak eta bekoak jotzen itzuliko zirala, euren osteko eginkizunak santutzeko.

Baiña erri-eldu bat aurkitu eben, eta onek zentzu aundiagaz, euki eban asmakuntza guztia deseginda geratu zan.

Nai-ta mendekatuak ta espetxeratuak izan, abertzale asko ezeren garbitasun gabe.

Or ! zergaitik Euskadi`n Marx`en mugi-aldiak ez eban euki ezeren ondoriorik. Nai-ta 6`an Mondragoi`n Orexa ta Elozegi`tar Martzelino Rezusta`gaz izkillatuta il eta gauza guztien errua, gaur egiten daben antzera, abertzaleai bota.

Eta Agirre, Azkue`gaz ukarai-burdiñakaz lotuta joan ziranean esaten eben: "gizon/emakumeai makurtuazo egingo dautse, baiña Erriari sekula ez!. Berak egunen baten irabaziko dau.

#### 1.46.- Kataluña`ko Araudia ezereztu ?

1.935`a be meatxua asi zan, argitaratu egiten diralako, Kataluña`ko Araudia (estatuto) ezereztu egiten daben legeak.

#### 1.47.- Araudia onartua.

1.936`an Otsailla`ko auteskundetan baiño ariñago egin zan zabalkundea ikaragarritzko gogorkerian egin zan, urte orren zenbakia izendatuta " garratz ta gorri " lez.

Euskal abertzaletasunak, legez... Espaina`n sortu zan gobernuari lagundu eutson, eta beragaz beartuta, 1.936`an Urrilla`ren batean askatasunezko Euskal-Araudia on-artu zan.

#### 1.48.- Ezkerrak irabazi ezker, Araudia kendu ?

Eta emen kontuan euki bear dogu, ezkerraldeko gudalozteak irabazi ba eben, bigarren ekitaldia Euskalerriko Abertzaletasunaren aurka izango zala. P.N.V`ko alderdikide asko, oso-osoan sinestuta egon ziran eritzi orregaz . Nai ezkerraldekoak nai eskumakoak, berezko izatasunaren aurka, guztiz beretukoak izan ziralako. Kaizar domutsuak izan ziralako argi esanda.

#### 1.49.- Erri bereziren aurrerakuntza ebagita.

Emen, ebagi zan indarka aurrerakuntza bat. Izadi berezi onetan landarak nabaritasunean aziten diran lez, indar berriztuten joan zana alde bat eta besteko menperatzaillan moral-arauz izugarritzko beerakadan joan ziranen aurka, egiagaz eta sinismen aundiagaz demokrazia on baten itxaropenagaz, danoen artean erkidetu bear doguna. Baiña, ekin-aldi orrek, menperatzaillan ezereztu egiten dauan lez, erromatarrengandik gaur arte egin daben antzera, indarragaz ebagi eben ekintza eder ori. Gaur, 67 urte geroago, ikaspide ori berriz-egin bear dogu, garaipenaren arrazoiak, euren garaitzaren ostetik, irakatsi ustel emoten dabelako.

Gaurko Euskal seme/alaba ondo jaioa, gure atzoko arbasoen antzera, gazteak ikas-jantzi ederrakaz soiñekotu bear doguz gure askatasunak lortzeko, gaur gure izar ta elburua dan Ibarretxe`tar Juan Jose beren esondapenagaz " Euskalerrria, Laterria ta Europa alkartu gaitazan, Euskal JABETZA GALDU BARIK ".

#### 1.50.- Gaur,Ibarretxe`ren Esondapena zer da ?

**" EUSKALERRIA TA LATERRIA ALKARTU, BAIÑA GURE JABETZA GALDU BARIK, GURE NORTASUNA ONDO ZAINDUTA ETA ASKATZEKO AUKEREAGAZ ".**

Euskalerrriak gaur arte, erromatarrengandik asita, beti euki dau borroka bakarra, beren berezko izatearen Nortasuna JAINKOA`ren sinismenean zaintzea. Euskalerrria dalako arduradun bakarra beren ager-tokian.

Beste aldetik, kaizar-jauntzaren atzean dabizanak ez dabiz JAINKOA`ren ardurapean, eurak, euren eratarra asmatzen dabezalako sasi-jainkoak JAINKOA`ren izenagaz mozorrotuta, mundu onetan aundikerian bizitzeko.

Euskalerrria ia lortu eben gudal indarragaz menperatzea, 1.839`an eta 1.876`an gure Foruak ezereztuta, Gaztelarrak edo Espaina`k euki eben " fuero juzgo " bisigotikoak sartuta gure Euskal-izatasuna ezereztuteko desagertu gaitazan.

Baiña Euskalerrria sinismen aundikoa dalako, indartsu, zangar eta aurrerakoia da, orregaitik ez da edozelako azur ! nolana birrindu leikena, nai indar aundia eukinda be. Or ! ikusten da nor dan sinesduna.

Euskaldunak, beren izatearen arrazoiari burua sekula ez dau makurtu, eta errepublika denboran zutitzen asita 1.936`an Franko`ren guda latzagaz ostera be meperatuta geratu giñan, baiña mundu`ko beldurgarritzko bigarren guda nagusiegandik aurrera konturatu ziran, Mundu onetan JAINKOA`ren arrazoizko giza-semeen arteko bizitza ezin leikela aurrera eroan azkeneko bi gizaldi-odoltsu onein antzera.

Orregaitik beste era-bateko antzoki baten agertzen gara, borrokak arrazoiaren bidez argitu bear diralako eta ori " DEMOKRAZIA " ren itzagaz izendatu dogu.

DEMOKRAZIAK erritarren jabetasuna esan gura dau, eta olako berbakaz bizitzaren ekintzak neurtzen ba-doguz, IZATASUNAREN NORTASUNA dala-ta berba egiten dogu, arlo orretan BEREZITASUNAREN NEURRIAN mintzatzen garalako, MUNDU onetan BEREZKOA dan bizi guztia JAINKOA`ren legetik ardurazko zor-eskubidedun bakarra dan lekua dalako.

Euskalerrria demokraziaren bidez, buru gaiñean daukazan espatai bultz eginda, ostera be zutitu da, Mundu, Europa, Espaina ta Frantzesen aurrean beren Izatasunezko Nortasuna argi ta bizi-bizirik ikusi dagien, eta konturatu daitezcan ez dogula eskatzen geiagorik gure bizitzaren arduradunak izatea baiño, JAINKOA`k emonda gureak diralako daukaguzan zor-eskubide guztiak.

Ori da gure leendakari dan Ibarretxe`tar Juan Jose`k argitara azaldu dauan esondapena.

Ibarretxe jauna`k eskatzen dauana, gure izatasunaren nortasuna da, EUSKAL-NORTASUNA, bizi diran beste gogamen ezberdiñakaz: Katalan, Frantzez, Galiziar, Espainol, Irlandar, Ingelez eta abarrekaz, ardura aundiz zentzunezko itzarmenak egiteko, gure errietan ta Europa onetan betirako PAKEA lortu daigun.

Eta ori da....BEREIZTIAR (separatista) IZATEA ?.

Norberaren edo bizi dan edozein gogamenen ASKATASUNA`k ez dau gura esan BEREIZTIAR izatea, Nor-Beraren biziko ardurapean dagozan zor-eskubideen egille izatea baiño, jaiotzak berak jazten gaitulako jantzi orreikaz.

Eurak esaten dabelako gu BEREIZTIARRAK garela kikildu egin bear gara ?.

Eurak, guzur utsarekin dabiz, ez daukielako ezeren arrazoirik, kaizar amets orreik, berezko edo JAINKOA`ren legea zapaldu egiten dabelako. Noren baimenarekin eskuratzen dabe gure ardura guztia ?. Orrein asmakuntzan....., klonazioa ez dago urrun !.

Orreri aurre egiteko gagozan demokraziaren alegiñetan, gure lendakariak jaurkintzagaz eta erriagaz batera, etxean eta erbestean dagozan Euskaldun guztiak, beren esondapenaren ulermenagaz ezagutza osoan ipini bear ditu, bera dalako bide bakarra. Gogamen-lez bizirik iraun bear dauanak eriotzaren aurka jokatu bear daualako.

Eta beste ainbeste Mundu onek daukazan erri guztiakaz, Europa, Amerika`ko laterriak eta bai O.N.U. be ondo adi-erazota.

Ezkerraldeko abertzaletasunari, Euskal-Askatasunari bidean arri-koskorak ipini barik, Euskadi elburu eukita, benetako politika egin, danon indarrakaz, ez dagolako indarrik Euskalerrria geratzeko.

Alderdi Espainatarren erantzuna oso gogorra izango da, beste gauzarik ez badabe aitzen, baiña beti geratuko dira agirian, guzur aundi baten gaiñean zaldikatuta dabizelako. Ez dira izango gutxiagokoak mundu guztiaren begiratzeak eta aserreko zentzaldiak.

Kontuan eukinda, Ibarretxe`ren esondapena Europa`ko laterrietan ezaguna dala eta Europa`n erritarrengantik ia onartuta dagoala demokrazian beste biderik ez dagolako, Euskaldunak zuurtasun ta zentzutasunezko neurri aundiz jokatu bear dogu, European eta Munduan Euskalerrria dalako izarrik aundiena edestiari begiratuta.

Gure lege-biltzarrak ez dau eukiko arazorik erriak babestu egiten ba dau.



## 8`gn. - ONDORIOA:

Demokrazia..., berezitasunezko izatasunean oiñarritzen da, eta ori da Euskalerrria bere " JAINKOA eta LEGE-ZAARRA " rekin, berez demokratikoa dana, izatasuna berezitasunezko ikaskizunean oiñarritu dauana.

Asieratik edo erromatarrak sartu ziraretik, eten-bako ari menperatzaille bat ikusten dogu goitik beeraño datorrela, gure errian gero ta astunagoa egiten jakuna, gure artean erri-nauskeria ez dalako izan euki dogun borroka nagusia erria egokitzeko, nai-ta oligarkia beti izan gure demokraziaren etsairik aundiena.

Menperatzaillearen astuntasuna, gure Jauntasuna Espaina`ko erregearen eskuetan itziten dogunean asten da sendotzen, gure ordezkariak apainkeriaren lilluragarritasunezko sareetan jausten diralako, gorteko arlo guztien dirdirak erakarrita.

Onek esan gura dauana, zentzunezko gauza bat ezeztutea askoz errezagoa dala, gauzak bear daben lan onagaz egitea baiño, edozein gogamen on baten bizitza orekan zaintzeko, gorteetan erdirakoen arrokeriakaz aundikerizko lilluratasun zirikada aundiak diralako. Ez erritartean, Euskalerrriaren Nortasunezko askatasunean sinismen aundikoak ziralako, eta alan eskatzen eutsolako len eta gaur euren ta gure arbasoen oiñordezkoak izatea.

Euskalduna bere izaeraren sinismenean zentzun aundikoa izan eta dalako, amurrugabekoa (ingenuo) izan da beti bere edertasunean, berentzat emandako itza sakratua dalako. Baiña Espainol`akin berba egitea gure arazoan gora-beran argi dago, sinisgaitzekoa izan da be ! labur geratzen zarala.

Orregaitik, benetan ikusten doguna, menperatzaille alderdikeri orreik zelan asten diran sendotzen eta zelako maltzurkeriakaz ibiltzen diran daukiezan oinpetasunaren asmoak lortzeko.

1.981`ean Espaina`ko errege dan I Juan Karlos`ek Gernika`ko zugazpean esan eban: "Euskalerrriaren arazo guztien iturria da, Espaina`ren erregetzak ez ebala ta dauala beteten bere itzarmeneko antolakuntza". Euskalerrriko laterriak euren jabetasunezko lege egillearen eskubide bakarra euki ebalako, erregea Euskalerrrian antolatzaillle bat bakarrik izan zalako.

Orregaitik, Frantzia`n egin zan 1.789`ko iraultzaren ondorioak ustelezko emaitzak emon dauzalako, gaurko laterri menperatzailleak guztiz legez kanpokoak dira, giza berezidunaren ardurak esku gutxi batzuegan batuta dagozelako eta ekintza ori arazo guztien iturria dalako. Mundu onen bigarren guda-nagusiaren ostean ikusi zan lez, eta erabagia artu ! andik aurrera demokrazian ezarrita, Ludi onen berezko legean arazoak epaituko dirala.

Eta orregaitik gure gaur eguneko Euskalerrri onetan, espata ta izkillurik ez da erabili bear, legez kanpoko tramankuluak diralako eta legez-kampoan itziten dabelako erabilten dauana.

Euskalerrriak gaur egunear bear dauana, zentzutasun edo zuurtza ta neurri aundiak dira beren seme-alabengan, eta nai-ta alderdietan bananduta egon, senitasunezko kidegotasunean billur barik jokatu askatasuna lortzeko.

Aurrerantzean eta askatasuna lortuta, esker-eskumako gogamen orreik ez daukielako zentzurik, demokraziaren benetako legean edo ordezkartzaren zentzuzko ardurapean jokatu bear dogu, gure JAINKOA eta LEGE-ZAARRAREN irakasbidean guztiz sartuta, ori

dalako berezko berezitasunean JAINKOA` k bakoitzari emoten dauskun bizi onetan erabil  
bearrezko tresnak ordezeko arduratarako, demokrazia oiñarria dala.

ATUTXA` tar PAUL  
ZORNOTZAN 2.003` an DAGONILLA` ren 15` an

- OPARITXO`en EGUNA`k -

Ni lagunakaz solasean, geienetan tentalari agertzen naz eta Euskerazaintzaren batzarra amaituta Olazar`tar Martin`eri esan neutson. ia noz egingo gendun ostera bat beti-bardiñeko bidetik urtetako.

Ez eban ezer esan, baiña sarri alkartzen garan lez egun baten Liebana, Kristo il eben kurutzearen zati bat, garrantzi aundikoa eta antziña eskuz idatzi eta ondo margotutako liburu zaar-ederrak ikustera joan bear gendula esan eban. Liebana`ra Liburu onei " beatoak " deritxe.

Ez neban aitu gauza aundirik, baiña Kobadonga aipatu eban lez..., orrek beste atsegintasun bat emon eustan, mendi-kate orretan sekula be ez nintzelako egon.

Euskerazaintza`n Uztaila`ren 30`an egindako batzarra amaituta, Martin`ek: asmatutako oparitxoan eguna ta orduak ipini bear doguz, berba egiteak bakarrik ez daualako balio. Eta Mungia`n, Dagonilla`ren 4`an goizeko bederatziatan urteteko eguna ta ordua ipini genduzan.

Mungia`n bederatzi laurden gutxiagotan egon nintzen eta Martin ta Paulin be prest.

Egun ederra agertu jakun iruroi asmakizun ederrak gogoratuta. Geien Paulin`eri, gurdira igon aurretik an egon zalako arpegia irripartsu buru-lepo kuskor dauala, eskuak lasterka igurditzen atsegingo goz-artu baten eta batera: " au bai opari eguna !! " esan da gurdira sartu giñan.

Santander`eko bidea artuta, ez gendun arazo aundirik euki eta gurdia gidatzea gogokoa egiten jatan.

Itsas ertzetik joanda edertasun guztian agertzen ziran kastro-Urdiales, Laredo, Santoña, Beranga, Solares, Santander eta mendi-itsasoak Unkera`raiño.

Santander`en apur-bat galduta ibili giñan, baiña ez gendun damurik euki, Santander alako egunagaz ikusteak gure eguna edertu baiño ez ebalako egiten.

Unkera`n ezkerretara artuta, Panes, Ermida`tik beldugarritzko eta ederra dan mendi-lepo batetik ia iruntsita Deba-errekaren baster bide estu-estutik joan giñan 24`kilometru`an Potes`en eguerdiko amabiak eta laurdenetan agertu arte.

Artez joan giñan Fuente De`an (Deba ibaia) teleferikoa dauan tokira geratu barik.

Martin eta Paulin`ek ikusita euki eben, baiña ni mirets-erazita geratu nintzan mendi-eder kate aiek eta ainbat gurdi ta giza-sume ikusita.

Martin`ek teleferikoen txartelak atarateko esan eustan, bera Paulin`en billa doianen artean.

Txartel bakotzak 10 euro balio eben eta txartelaren goiko bastarrean ipinte eban 2.003`ko urte onetan, ni izan nintzela andik igaro eban 139.435`garren ikuslea.

Bereala deitu euskuen teleferikora igotera, eta igoten joan giñanean, nik esango dautsuet bildurtia ez nazela eta edozein gauzak ez daustela beldurrik emoten, baiña gorantza joan giñanean beti mendiaren aurka joteko biotz-ikararekin beera begituta eztarrian estutasun bat igerri nebala bai.

Ikusgarria ta ederra da egun garbi bategaz andik ikusten diran deritson Europa`ko Mendi-zorrotzak, oraindiño gu egon giñen lekutik (Fuente De`ko ikustokian) goratxuago urtu-gabeko elur zatiak egon zirala, gagozan uda berotsu onetan.

Arrastiko ordu bi ta erdiak ziran eta nire sabelaren asmoak agertzen asi jatazan. Martin`eri esan neutson ia zeozer artu gura ba-eban eta ezetza emon ondoren nik ogi-tarteko txiki bat arda zuriagaz lagunduta artu neban.

Etxegintza sendoa eta ondo apaindutako babes-toki ta teleferikoaren gel-tokia da, neguan, an egingo dauzan otzakaz beste gauzarik ez daualako balio, bai diruaren iturri galanta ondo apainduta eukiteko.

Etorkeran, Jateko berandu zala-ta, gorantza ikusi gendun ostal-etxe batera joan giñan. Goiko ostatuaren edaritegitik etxearen osteko bealdera bialduta. Ondo apaindutako lekua eta gerizpe ederrean bazkaldu gendun eta gure solaseko berbaldia, ango edertasunari ikust-arin bat eginda Euskadi`n Espainol ta Frantzesakaz daukagun Nortasunaren gora-beragoko arazoan ezarri gendun, askenean adostasunezko erabagi batera elduta: " Batasuna`koak ainbeste estukuntza barik eta ETA`k izkilluak alboratuta benetako politika baten asten ba-dira Euskadi elburu-lez on-artuta Eusko Alderdi Jeltzale eta EA`gaz batera zuurtasunezko neurri aundi baten, gure NORTASUNA`ren arazoa irabazita dago " gure Erria`ren erabagia on artu bear dabelako. Ez bakarrik Espaina`n eta Frantzian, bai Europa ta Mundu osoan, ori dalako daukagun arazo bakarra NORTASUNEZKO MAILLAN gure lege-biltzarrean berba eta erabagiak artzeko iñorengo elkar-naaste edo menpetasun barik.

Bazkal-ostean monastegia ikustera joan giñan: kurutzearen zatirik aundiena eta " Beatoak " ikusi genduzan.

Torrelabegatik etorri giñan, eta Mungia`ra eldu giñanean Paulin`ek irrintzi batzuk bota ta gero, Martin`ek ZER`erako idaz-lan baten gaurko egunaren azalpena idatzi bear nebala esan eustan eta etxe barrura sartuta " LA LIÈBANA - PAIS ENCANTADO " liburua emon eustan.

Liburu au, ondo apaindutako liburua da: argazki ederrakaz irudituta, nai-ta ni, dakarren inguruko edestiagaz adostasunean egon ez.

Deba ibaia, Astur eta oraindiño daukazan Euskerazko berba asko, Asturias`eko oiñarriak dira, Espainol-asmatzaille zaleak esaten dauana baiño, beste gauza eder baten oiñarrituta dagozelako.

Europa`ren oiñarriak jakiteko zeintzuk direzan, ikertzailleak zeaztasunezko iker-sakonetan sartuta dagoz, eta balekite Espainol ikertzailleak egin daben lana Euskal-aztarnak naaztuta galdu daitezcan, danak batera eta argi-garbiko ikustokira igotea esnearen koipe-bitzak gora igoten dauan lez.

ATUTXA`tar PAUL

Zornotzan 2.003`an Dagonilla`ren 25`ean.

- ZORNOTZA`ko JAKITZA eta EDERTI-GIROKO ALKARTEA`REN ETORKIZUNA -  
-(PORVENIR DE LA SOCIEDAD ARTISTIKO KULTURAL ZORNOTZA) -  
( KORALA )

Errian, Zornotza`ko Jakintza eta ederti-giroko alkartean (Koralean) garrantzi aundiko egoera bat sortu da, gazteen urduritasuna alkartearen etorkizunari begira agertzen dauana.

Orrek esan nai-dauana, gazteak, gurasoen eredia ontzat artzen dabela, eta erritarrentzat egoera ori poz aundikoa izan bear leuke, zorrontzarrentzat korala, erritarren gurasoakandiko (patrimonio) etorkizuna dalako.

Niretzat poz aundia da jakitea , gaur egunetako egoera kontuan eukin ezkeru, erriaren sena nortasunezko zentzuan jarraitzen dauala, gure erria asken baten, zornotzatarren sendia dalako.

Gure erriko Koralak, edesti aundi ta ospetsua dauka, beren gizon/emakumeak erriko edertasunagaz arduratuta, ikaragarritzko ta eten-bako lana egin daualako, zintzo, ausarti ta eskeintza ederrenean, bere berrogeta amabi urteetan. Egin dauan lanak merezi dau, bai !, bikaintasunezko irabazpidean ezartzea.

Baiña, edestian ederra izan bada-be, gaurko denborak aldakuntzak eskatzen dauz, gero ta neurri aundiagoetan erak erreztasunezko askatasunera bideratzen diralako gizartearen jakintasunak bultzatuta. Eta egoera orreitan, nai-ta Korala arloan jakintsuak izanda be, barriztasunezko ezean jarraitu ezkeru, aulduradunezko doñu-bakarrean amaitzen dira elkarteak, edozein jan-edateko biltoki baten antzera biurtuta.

Gaur Zornotza`ren erriko gazteartean, iñoz baiño geiago dagoz eresi edo musikan, ederlanetan eta beste trebetasunezko arloetan jakitun direnak. Or ba, nun dagoen altxorra, leenengoetan egin zanen antzera Korala apurka apurka eta ondo bideratuta, gaztetasunaren goi-argian indar-berritu daiten.

Esan dodan guztiagaitik, Koralean zuzendaritza gaztea eukiteak, ez dau esan gura eurak arduratu egin bear dirala guk agindutako alkartearen zuzendaritza, antolamendu, zabalkunde ta bear diran lan guztiekaz, or zeozer geiago bear dalako korala bir-loratzeko. Kidetasunen arteko ardurean... aozko-lana tartekatu egin bear jakolako or. Nai-ta nai ez, gure arlo guztietako kidetasuna beren arduragaz jantzita jaioten dalako. Bestela nun kidetasuna ?.

Zornotza`ko erria aundia izan arren, guretzat txikerra ta polita da, danak alkar ezagutzen dogulako. Orregaitik, danon artean zuurtasunezko gogo apur-bat ipini ezkeru, gure Korala errez biztu leiken gauza da, gazte argi ta ederrakaz.

Ni egitarauen asmo onegaz baikor edo usteontsu agertzen naz, zornotza jaiotzatik ezagutuaz batera maite dodalako. Orregaitik dakit elkartearen kidetasuna ardurazkoa dala, Korala eta Zornotza`ko erria beren gauzatan... maite dogulako, beti ! arduraduna izan dalako.

" GORA ZORNOTZA`ko GAZTEDIA !! ".

ATUTXA`tar PAUL  
Zornotza`n 2.003`an Iraila`ren 9`an

- SASIJAINKOEN ARIA -GUZTIOK ARDURADUN

Ludi onetako gizakiaren etorkizuna ikusteko, goiko begira-toki batetik begitu bear jako.

Leenengo jakin bear dira mundu onek daukazan berezko eta alda-eziñezko araudiak. Gizakiaren gaitasunak (posibilidades) zeintzuk diran jakiteko bigarren.

Gaur egunean, goi-maillako jakintza au ikusten dau argi: Mundu onen izatasuna, bereiztasunezko bilduma bat dala, bakoitzak, bere zeregiñak lasaitasunez eta eten-bagerik euren ardurazko lana betetea.

BERE EGILLEA`k agindu ta mugi-aldian ipini eban ori.

Mundu onetako gizadiak, utsetik, ori ikasi bear izan dau: JAINKOA`k, gure arimetan bakez ta arduraz bizi al-izateko, orren berezitasunezko arduran ipini gaitula.

Baiña batera, askatasunezko naimen edo borondate osoan.

BESTE-EN ARDURAK

Or ! asten dira gure bizitzaren gezatasun, naigabe eta zentzun-gabetasunak, gure nerekoitasunean ardura-gabekoak agertzen garelako.

Naiz ardurak beste esku batzuetan izten doguzelako edo besteen ardurak lotsarik-gabe eta baliteke indarragaz beartuta, gure arduran artzen doguzelako.

Mundu onen adimen-gabekeriaren barruan agertzen garanean, gure arrazoipidea, zentzunezko neurtasunean kokatzen da.

BERA`k bialdu dauan neurrizko bizi-tokira, garoaz ardureak.

ARDURA BAKOAK

Gaur, ondo dakigu zer gertatzen dan, ardurazko neurritik kanpo gabizenean: naiz gure osasunean minbizi, sida eta ainbat gaixotasunegaz, janariak eta gure arteko ekintzak faltsotu ta naastetu, ondo bizitzeko naian, ordezeko diruak arduragabekerira garoaz.

Bardin jasoten da itsasoko urakaz eta euren bizitasunagaz: aizeagaz, zeru zabalagaz eta lurragaz.

Geiegi lortu gura dogu denbora gutxian obeto bizi al-izateko, eta ariñeketa orreik, ikusten dan lez, guztiz ezinezkoak dira.

Begitu bestela zelan daukagun gaur Mundu au: Ia, ia esan leike adimen-gabekoak garela.

EDESTIRA

Orregaitik, Munduko lurra`ri, ura`ri, aizea`ri ta onein bizitz-biolojikoa`ri, ainbeste kalte, lapurketa ta kutsadura egiten dautzaguzen artean, gizartearen artu-emonetan bardin-antzera ibili bear dogu, edozein gauzarako ekintzan.

Gogamen guztiak BERA`k emoneko lege-bakarra daukie.  
Orregaitik, edozein gauza eta gauza guztiak egiteko lege bardiñakaz jokat bear da.  
Ludi onen zentzunezko legea, BERE ZENTZUZKO lege bakarra da, guri agindutakoa.  
Giza-bide ori ikusteko, nai-ta-naiezkoa da, edestiari, azalezko begitu bat emotea. Jakin  
daigun zeintzuk diran zuzen naiz oker bideratzen gaituen gogapenak.  
Gero, gure Euskalerrri maite onen arazoan sartu gaitезan.

### LEGE ZARRAK ETA EUROPA

Kromañon gizartea Mundu`ko Mendebal deritxon alde onetan sartu zanetik, bere giza-  
bideko jardueran, erri-aginte eta ikas-bide eder baten bizi bear izan eban bere etorkizunerako.

Or daukaguz Euskerea eta beragaz egin ziran, eta gaur egun be egiten diran berdingabeko  
Euskal LEGE ZARRAK.

Euskal gizarte tronkala, gaur gagozan Euskal lurraldeetan geratu bazan be, izotz-urtzean  
zabaldu ziran Mamut ta izotz-orein edo elur-auntz`en atzean.

Gero lur-toki ta bitarteko bereiztasunean kokatuta, beste erabateko izkuntz ta nortasun  
ederrakaz jantzita geratu ziran.

Orregaitik Europa guztitik aurkitzen dira Euskal oiñarrizko itzak.

### ERROMATARRAK

Baiña erromatarrak etorri ziran, eta lenengoetan euren jaurkintza Jaun-Erregena izan bazan  
be, gero ardurak banatzeko egarriaz, Errepublikak baten kokatu ziran.

Sekula, jauntasun ori kendu gabe, Zesar`en asmoa Mundu onentzako, Erregetza bakarra  
ezartzea izan zan.

Kaizergoaren jaurkintzara eroan eban mundua, eta orren bidez sasi-jainkoak, JAINKOA`ren  
maillako kaizer-gizonak agertu ziran.

395`an Mendebaleko eta Sortaldeko kaizergoak etorri ziran.

Mendebaleko kaizergoa 496`an izugarrizko porrot edo blaustada eginda, aienatu edo  
desagertu zan.

Eta Sortaldeko Kaizergoa beste milla urte luzatu bazan be, 1.453n. urtean Konstantinopla  
Turko`en kaizergoak menperatu eban.

Baiña erromatarren menpetasunezko agintea ezereztu egin bazan be, sasi-jainkotasunaren  
ariak aurrera jarraitzeko Konstantino arduratu zan.

Orretarako kristautasunak ekarren demokrazia ekanduzko era-barrian indartu eta zabaldu  
zan.

Or batu ziran katoliku izenagaz, 325`an Nizea`ko Eleiz-Batzar nagusian asita.

Godok laster konturatu ziran, ekarten aginte menperatzaillaren asmoa ezarteko bide  
egokia zala.

Rekaredo`k alan ezarri eban 589`an III`garren Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusian, berak  
bere burua, Espaina`ren leenengo errege katoliku lez agertuta.

## GODO`AK ETA ISLAM

Erri-bereziak, Godo`ak ekarren menperatzaille asmoaren aurka agertu ziran.

Euki ebezan Nortasunezko Askatasunak, baiña izkuntza ta bizitzan izatezko ikas-bidean, samurtasunezko konorte ta euren ulermeneko bereiztasunak, ezereztu egin ziran.

Afrika`tik, beste indar aundiko asmo menperatzaille bat agertu zan: Islam`eko erlijioaren ikurragaz eta berezko-errien aurka.

Oneik, godoak eta orduko erri bereziak batera ezereztu ebezan, eta orrelan sartu ziran katolikotasun ta Islam`eko ziñezkintzazko alderdikeri arroak, gaur be daukaguzenak. Noiz arte ?.

## ERREGE TA JAUNAK

Orren aurka antolatu ziran berezko erriak. Errege ta Jaunak agertu ziran bestien eredu ikusita. Beti, berezko Erri-Batzarraren menpean agertzen zirala.

Baiña batera, 718`an Pelayo`k Asturias`en, Godo-menperatzaille asmo katoliko ori ezarri eben.

Geroago, gure jauntzan IV Juan ta Gaztela`ko errege II Juan`en izenagaz, 1.388`an Asturias`ko printze-erria sortu ta izendatu zan, aurrerantzean sendo izateko asmakizunarekin.

Nor izan da etorkizunean.... ari orren gordetzaille ?.

## LATERRI BARRIAK

Europa guztiko kaisar-jaun-erregetza`k sortu ziran.

Euren artean senditasunean naastu, eta beste goi-maillako gizarte bat eraiki eben.

Baiña beti katolikotasunezko dogmaren arauz.

Eta betiko menperatzaille alderdikide ari-ori artuta, berezko-errien batzarrak alboratzeko. Ortik aurrera gurari erria dago.

Europa`ko gizartea, ekonomi edo burubidearen arduran, eurak jarri dira gaiñean sasijainko lez.

## EUROPA

Europa, ekintza orren sorburuak eraginda, antolakuntza bat ezarri eben.

Gizartean, nagusitasuna alde batetik, eta jabetasun-gabeko zori txarra bestetik daukaguz.

Berez diran erriak eta erri orren gizarteak, beti agertuko dira menperatzaille asmoaren aurka.

Gizon/emakumea Nortasunezko ardura-gabea, ezer ez izatearen sendimenduan geratzen da.

JAUNGOIKOA`k jaiotzan emondako aginduan, ardurak, lotsagizunez beteteko, utsean itziten dabe. "Biziera, samin baten geratu da".

Eta JAINKOA`k, gizon/emakumei euren jaiotzan, emon dautsen ORDEZKO ARDURAREN BEARTASUNA ta BETETEKO INDARRAK, kikilduta geratu dira.



## ERDI-AROA

Erdi-Mende guztiko etorkizunean eta azkeneko gizalditan, aginte-era ori malda berakadan doa.

Trikimailuz ezin dabe lortu sasi-jainkotasun oneri eustea.

1.789` an Frantzia` n saio bat egin eben, samea ebagiteko tramankuluaren ekintzagaz.

## INDARREZ NAGUSI

Ortik aurrera daukaguz jokoz kanpoko Laterri oneik, indarkerizko batzangotasunaren bidetik aberri-barriak sortu gurean. Baiña orretarako, berezkotasuna ezereztu egin bear dabe eta or ! betiko borroka latza, ezin dabe lortu. Berezko erriak bizi-bizi jarraitzen dabe.

..... 0 0 0 .....

Menperatzaileen jokoa, beti izanda bardiña, besterik ez daualako: Eskubideak kendu, ordezkartzako-dirua lortu, gudaloztearen indarrak gaiñean ezarri, erlijioa eta abarreko buru diran indarrak eskuratu, berezko erriak zapaldu eta ardura-gabean itzi.

Erriaren dirua neurri estuz eskatzen dabez eta argibideetan egi-erdi ta geienetan ( betiko itza parkatuta) guzurak agertzen dabez: endaren naasketak, ezjakintza, bildurra, illuntasuna, aundiak izateko eta erriak zapaltzeko.

## GAUR ZER !

Gaur, kaizar-Jaun ta erregetzaren izateak ezereztuta geratu dira, Mundu ta Europa` ko gizartea batez be.

Bizitzaren ikas-bidetik, mailla aundia artu dabe, eta euren ekintza orretatik, naaztatzaillearen guzurra agirian geratu da.

Kaizar, jaun, edo sasi-jainkoaren errege-talde orreri gorputzetik burua ebagi dautsoe. Baiña gorputz orretan, oraindiño geratzen dira maixukeri aundi batsuk eta Europa` n, Berezko-Errien buru gaiñeetan, gudalozteak izugarrizko keiñuakaz ipini dira.

Barregarria iruditu jatan telebistan ta aldizkaritan ikusi nebanean Aznar, Aita Santua` rengana joan dala, Europa` ko Elkargoaren Buru izateko eskatzera.

Ari-ori or dago ! ta gogor gaiñera !.

Baiña esan leike, beste buru jakintsu batzuk, aldatzeko prest dagozela. Daroagun bidea Mundua` ren ondarena dala, oiñarrizko Nortasunaren ardurak zapaltzen dauzalako.

## USA`ren JOKOA

Argi ikusten da gaurko Amerikarren ekintzan, zer egiten daben mundu`ko ondasunak eurenaganatzeko guzuraren aitzakiakaz (IRAQ).

Baleiteke, buru gabeko menperatzaile orren azkeneko ostikadak izatea.

Euren barruan, azkeneko auteskundeetan, asmo orretan dabizenai itzi egin dautziee aurrera egiten, konturatu daitezkan, zuzentasunaren zeaztasunak ezin dirala joan bide orretatik, guzurrezko bidea dalako.

Eta alan asi dira agertzen, gezurra dariola agiri-agirian dabizela.

## ESKUMATARRAK ETA EZKERTARRAK

Onez gain, badaukagu beste arazo aundi bat ezkertaldeari begitu ezker, guztiz galduta dabizelako.

Eskumatarren jokora, oso-osoan jauzi dira.

Zertarako jairo ziran aaztuta, batzangotasun aundi batera joan gure dabe, oiñarrizko Nortasun ta bereiztasunak kontuan euki gabe. Beste sasi-jainkotasunezkoakin batera ?.

Euren jaurkintzan alkar-zale edo federalak dirala esaten dabe. Baiña konturatuten dira... Espaina`ko leterrian Erri-Berezi ezberdiñak beartuta dagozela, euren Nortasunak galbidera galazota, eta gure Euskal izaera Frantzia ta Espaina`ren laterriak erdibituta ?.

Gizartean, ekintza ori ez da alkargo edo lagun-arteko jokoa, lagun edo kide guztien Nortasunak kontuan euki bear diralako. Eta gaur gizartekeria edo eurak aitzen daben sozialismuan dabizenak, menperatzaillearen jokuan jauzi dira, eta euren joko nastetsua erakusten dabe.

Ez dira konturatzen, euren jaiotzako asmoak zeintzuk ziran. Nortasunaren arloa ez dabe ezagutzen, eta ezagutzen badabe okerragoa da, elkar-zaletasunaren aurka kokatu diralako, egiazko sozialismoaren aurka.

### KONTURATU BEAR DIRA

Nik uste dot, DEMOKRAZIA`ren jokoa zein dan konturatzen asten diranean, laster asiko dirala Nortasunaren bereiztasunak neurtzen.

Europa ta Mundu onen gizartea, berdintasun ordezeko ekintza baten ezarriko dabe, eta berezko oiñarrietatik asi jasotzen.

Mundu onek, guztion artean beronen osasunerako bear dau, alkartezko edo adostasunezko Batzangotasuna.

NORTASUNAREN BEREIZTASUNEAN OIÑARRITU bear da, benetako ordezkariaren arduradunak or dagozelako.

JAUNGOIKOA`ri gure biotzetan bakez eta guzur-gabeko aurpegi alai ta garbiakaz begitzeko, Beren legeak al-danik ondoen bete bear doguz norberagan eta errietan.

..... 0 0 0 .....

### EUSKALERRIA`n

Euskalerria`k, edestiari begituta, badaki, EUSKADI`ko ABERRIA`ren gorputzak artu dauzan eta artzen dabillen astinketak zergaitik eta zertarako direzan.

Eta Euskadi`ren babeserako, gaur iñoz baiño geiago abagune edo aldion berdin-gabekoa agertu dala.

Eldu jaku ordua, danon arteko bear-bearrezko dan antolakuntza bat sortzeko.

Asmo-azterpen onetan, zer ikusi leenengo ?:

Erromatarrengandik asita, erdi-mende guztian gaur arte, ikusi dogun goitik-beerako menperatzaille arian azterpide-on baten bidez zeaztu, ostean jakiteko, zelango jokoa erabili

bear dogun Euskalerria`ren seme/alabak Europa ta Munduan. Gure Euskadi maite au EUSKALDUN-ABERRI lez kirian-kirian ezarriko beste Aberrien artean.

### DANA EURENA !

Gaur, argi ikusten dana euren betiko ta eten-bako eragiñagaitik, beti izan dirala lege bideetan naaztatzaillak iñor agertu ez daiten, eta gizartean izan bear diran gidariak eurengana daroetz, daukiezan sasijainkotasunezko asmoak indartzeko, diru ta maltzurkerien truke.

Baiña gaurko egoera ez da orain gizaldi bat eta erdiko egoerea, gaur lengo aldiko berba bat be ez dalako oartu-gabekoa, danontzat agiri-agirian dakazelako esangurea, asmoa ta elburua.

Eta len ezin ba-eben lortu azkeneko gudaren indarragaz izan ezik, gaur gutxiago.

Berriaren zeaztasunagaz askatasuna ta alkartasunak ostondu ta eten egitea ezinezkoa dala, naiz ta eurak daukiezan berriak emoteko tresnak, asko izan eta eurak, alegiñak egiten ibili.

Gaur be ikusten dogu euren barruak ez dautseela oarkizunik egiten, naazte-borraste orretan guzurra dariola ibilteko.

Daukien amurruagaz azkeneko mugaraño dabiz jokutzen.

Eta len, Eleiz-gizon batzuekin katolikotasunagaz ibili ba ziran be, gaurko gizarteetan talde oneikaz ez dira fidatzen.

### MERKATARITZA

Len, sal-erosketako merkataritza euren eskuetan egon da. Erri-berezien mugen-zergak geiegizkoak izan dira, baiña orren aitzakiagaz ta gudaloztearen laguntzagaz Laterri menperatzaillak zaindu dabez.

Ainbat bider aldatu euskuen mugak Ebro ibaitik itsasora.

Baiña gaur daukagun ugaritasunezko aukeran, merkataritzaren buruzagi geienak, Eskalerría`ren seme abertzaleak dira, erriaren alde jokatu dabenak.

Menperatzaillak gure erria ainbeste guzurrekin josi dabe (lantokiak alde egingo dabela; eurakaz izan ezik itxarotasunean jausiko gariela, eta abar asko) Euskal gizartea bildurtzeko asmotan, baiña alperrik.

Danez gain, batzuk bestien arduran dabizelako eta gaiñera indarrak eraginda, mundu onen gizartea arduragabekotuta agertzen da. Ortik aurrera ikaragarritzko arazoak sortu dira.

### ZELANGO JOKOA IBILI BEAR DOGU ORAIN ?

Indarkeri-gabeko ekintzan, daukaguzan alderdi guztiak politikako jokoan sartuta.

Mundu guztiko erri-berezi abertzaleak alkartuta, indar ta aukera geiago daukielako eta maltzurkerian maixuak diranen aurka.

Gaur guzurra ezin dabe ostondu, eta guzurragaz izan ezik daukien asmakuntza ezin da aurrera eroan.

Pare-gabeko aukera au, Mundu ta Europa`ko gauza guztiak beren lekuan kokatzeko agertzen da.

## EUSKEREA

Euskal seme/alabak gure Jaurkintzan buru diranakaz batera, eten-bako ardura baten ezarri bear gara, eta SABINO`k esaten ebana eredutzat artuta, gure Errian Euskerea izan daitela bere seme/alaben Izkuntz-Ama, aberkidetasunean alkartu egiten gaitulako.

Batez be, egi bidean beti kokatu gaitzean, eurak gure aurka aldarrikatzen dabean salakuntzak lotsaz beterik izteko. Gure ardurazko ekiñaldia ez doa, eurak griñaz beterik esaten daben lekutik, Nortasunaren bidetik baiño.

Baiña orretarako, txautzailleen arrokeriak alboratu bear doguz, gure Nortasunezko etxe-bizitza ondo-landu ta obeto kokatu arriakaz eraikitzeke.

Gure arbasoen antzera. Euren ezin-besteko sinismen eta edertasunezko Izkuntz ta LEGE ZARRA JAINKOA`ri begira euki ebezalako Euskal-Nortasunaren etxe-bizitza osotzean.

## ELBURU BAT

Danak ELBURU batera begira arduratu ta lan egin bear dogu, norberaren gogokoak bigarren lekuan itzita, gure ekiñaldiak ez daitezcan izan oarkabeak edo adi-gabeak.

Beste berezko erriakaz arremanak estutu, ARRAZOIAK gorputz-aundia euki dagian, eta ARDURA bere lekuan kokatu daiten: "ARDURADUN JAIIO DIREN`en ARTEAN" da au. Mundu onetan ez dauka beste tokirik.

Iñor ez da Nor, beste baten ardurak beteteko eta gitxiago bere borondatearen aurka.

Gaiñera iruzurrezko isekarekin: " GUK DIRUA ORDAINDU BEAR BA-DOGU, EZ DAUKAGUZAN ESKUBIDEAGAITIK DALA ORDAINTZEN DOGULA ? ".

Euskalerrriak, asko dauka erakusteko Nortasunezko Oiñarri bidean. Orregaitik, ezagutu egin bear gaitue, eurak be gure arrazoiak arduratu daitezcan.

Nik uste dot, ori dala bidea, gure EUSKALERRI MAITE AU ASKATZEKO. Eta batez be, Laterri menperatzaille oneri esan: " EGINKIZUN ORI EZ DALA ERRIAGAZ JOKATZEA, EZ NORTASUNAREN OIÑARRIAK BERE LEKUAN KOKATZEA, EZ MUNDUKO GENDARTEA ARDURADUN AGERTZEA.

MUNDUA BERA, GAIZPIDETIK ASKATZEKO TA OSASUNTSU BIURTZEKO, ERRIEN ALDE DAGON BIDEA DA BAKARRA ".

ATUTXA` tar PAUL

Zornotza`n 2.004`an Zezeilla`ren 5`an

## - BUSH, IPAR-AMERIKETA`ko LENDAKARIA -

Ez neuke gurako, idaz-lan onen bitartez emoten doten barria edo nire barria, Euskalerria`ren arazoagaz zer ikusi aundia daukalako, sendimenezko iritzitik eginda dagoela ulertu daiten, bai minkortasun edo sentikortasunen bidetik, Euskalerrinari Nortasunean ipinten dautsoezan eragozpenak, gure arteko sendientzat, erria`ren-miña`n, sendimendu orreik esku-luzeak daukiezelako.

Bush`ek, azkeneko lau-urte oneetako agintaritzan, Mundu onen Erriak eta Gizartea ankaz gora ipiñi dauz, Mundu onetan oreka bear dalakoaren aitzakiagaz.

Arrigarritu egin gara Ipar-Ameriketa`ko auteskundeetan sortu danagaitik ?.

Ainbesterako ez leuke izan bear, Mundu onetan gaur, kontuan eukiten ba-doguz, zeintzuk diran erabiltzen doguzan arauak gizartea orekatzeko.

Ez dogu zetan arrigarritu bear arrazoiaren lojikazko aritik ikertzen ba-dogu.

Orregaitik, Europa`ko Edestia arin baten begitu daigun, jakiteko, erriak eta gizartea orekatzeko erabiltzen doguzan arauak erabili ez gero, berezkoak dirala agertzen diran ondorioak agertutea.

Eta, gaurko Ipar-Amerika, Europa`ren luzagarri bat baiño ez dalako, emendik joanda, bertakoak geienean suntsituta geratu zirenak menperatuta, Europa`ko lege bidetik oiñarritu ta jaurtuta dagozelako.

### EDESTI LABURRA:

Erromatarrak, ameskerian ezarri ziranetik Mundu guztia euren agindutara ipinteko, Grezia`ren ta kromañonen demokrazia suntsitu gurean, naspildu ta banandu ebezan. Eta ekintza ori aurrera eroateko erabili zituen tresnak, Latiña, Grezia`ren jakintza, gudaloztea eta Erromatarren legeak ziran.

Eta azken baten erlijioaren Kristau-morala euren alde eukiteko, katolikotasunaren alderdia, euki eben menperatailleko tresneriari gaiñeratu eutsoen.

Erromatarren ostetik Godo`ak etorri ziran, tresneri bardiñakaz ezarri ziranak, erromatar- legeak euren menperatzaille asmoakin gogortuta.

Baiña, Mauritarak agertu ziran, euki eben Kristautasuneko ekandu gaiñean 622`an Maoma`k Islam`eko alderdia gaiñeratuta katolikotasunari aurre egiteko.

Godo`ak suntsitu ziran, eta Mauritarrai aurre egiteko, Europa`ren berezko-erri arteetan bearrezko gauzak egin bear ziran antolamendu barrietatik, Jaun-Erregetzak sortu ziran.

Berezko errien artean, barriztu egin ziran "LEGE-ZAR DEMOKRATIKOAK" Kromañon gizartearen etorkizuneko ikas-bidetik lortu ziranak. Baiña Jaun-Erregetzak, apurka, Erromatar ta Godo`en menperatzaille arrokeri-ustel asmakizunagaitik arrapatuta geratu ziran, Erromatarren izkuntz-latiñean, katolikotasun alderdian eta legeen dogmaren-arauzko arrokerian ezarri ziralako.

Jaun-Erregetzaren maldaberan, Frantzian 1.789`an guzurrezko iraultza egin zan, Frantzia`ko errege izateagaitik, Frantzesen errege biurtzen ebalako laterri-lez, berezko erriak suntsitu daitezcan, aberri barriak sortuta. Gaur Europa guztian daukaguzan laterri menperatzailleak dira orreik.

Sortu ziran teknologi-barrien langintzan, langilleak ondasundunai aurre egin eutsoen, oneik menperatzaille asmakizun gogamen orren gaiñean ezarrita egon ziralako, laterri barrien babesean.

Ezkertiarrak deritxon iritzia urriñ joan zan, Estaliñ` egaz menperatzaille biurtu arte, eta egi-billa joan ziranak menperatzailleen antzera berezkotasunetik kanpo ibili ziralako blaustadan porrot egin eben. Oneik be, berezkoasunaren gaiñetik joan ziran errien artekoak egin ziralako, berezko erriak kontuan euki gabe. Zentzunezko arloan zelako erriak ziran laterri orreik ?

Asken baten nai batak eta besteak, asmakizun orrekaz, gizartea, xautzailletazunezko bizi ustel-batera eroan gura dabe, mozkin, dirua ta indar guztiak ikur-lez euren eskuetan eukiteko eta sasi-jainko asmakizunean ARRO bizitzeko.

Baiña Laterri oneik be, eziña nabarmen erakusten asi dira, JAINKOA`k izadi oneri ipinitako legeak gaiñean daukiezelako.

### EDESTIAREN ONDORIOA:

Zer da edesti-laburpen onen mamian ikusi doguna:

a).- Sasi-jainkoen Asmakizun orreik, erriarteko gizarteak sekula ez dauzala kontuan euki (ez gaur be, nai laterrien jaurkintzak egia dala esan, berezko errien gaiñetik jokutzen daualako), euren eskuetan euki dauan indar guztien keñuagaz beartuta, euren asmakizunetara erabili baiño.

b).- Edesti guztiko menperatzaille asmakizun egipide orreik, beti zalaparta edo porrot egin dauala JAINKOA`ren Lege kanpotik ibili dalako diru-zalekerian ezarrita.

d).- JAINKOA`k, danak billuzik bialtzen gaitula Izadi onetara, eskubide ta ardura bardiñekin.

Eta zer da gertatzen dana:

a).- Izadi onen bizitza, bereiztasun gaiñean ezarrita dagoela, azken baten JAINKOA`ren asmakizuna beteteko.

b).- Iñork ez daukela iñungo eskubiderik, iñoren ardurak nor-berak eroan edo beteteko, danak ordezkartzazko bizi baten jaiio garelako. Eta lege orrek danok beartzen gaitulako.

d).- Eta aundiena dana, ao zabalakin esaten ba-dabe DEMOKRAZIA`n gagozala, ez da egia !!. Egia dana, DEMOKRAZIA`ren atetik sartzeko beartzen gaituenak IZADI ONEN LEGEAK dirala. Eta ate ori estutu egiten dabenak, guzurrean jokutzen dabenak dirala, sasi-jainkotasun onek geiago iraun dagian.

### AMERIKETAN:

Ameriketara Europa`tik eroan eben gogamenezko iritzia, Europa`n ainbeste borrokaren bitartez oiñarritu gura eben sasi-jainkotasun ori zan. Baiña jaurkintzaren antolamenduan utsetik asi ziralako, demokrazi-antzeko baten edo lokatzezko ankak daukezan laterrietan oiñarritu ziran.

Zergaitik esaten dot demokraziaren antzeko baten ?:

a).- JAUNGOIKOA`k Amerika zaindu dagiala eskatu egiten dabe zerura begira. Euren iritiz JAINKOA izango ete da... bestien urriñeko senideen antzeko bat edo bestien JAINKO-atzerritar-bat ?. Or ! dago daukien zantzu bat.

b).- Diruan: Munduko gertakizunen bidetik, DOLARRA, gizartearen zor-eskubidearen elburu gaiñetik ipini dabe, euren kontrolpean egon daiten.

d).- Edesti guztiko asmakizunean, gaur menperatzaille tresnak euren eskuetan egonda, ez dabe eukingo zirikadarik..., Erromatarrak, Godo`ak, Mauritarrak, Napoleon, Hitler eta Staliñ`ek euki ebazanak ?.

### BUSH:

Bush, nire eritzian, eta ikusten dodan lez Mundu onen gizarteko geienengoen eritzian, betiko menperatzaille asmakizunen nausigai edo oiñordezkoa da. Izango ete-da gai, Munduko bigarren guda ostetik, erri ta gizartearen ordezkaritzarako eskubideetan artu ziran erabagiaren gaiñetik ekintzeko ?.

Ba-dakigu, Bush Ipar-Ameriketako Eleiza Ebanjelikoan oso onartua dana, eta Eleiza orreitan zabalkundea egin dautsoela, gero diru-laguntza be artzeko ustez.

Mundua`k bere lepo-gaiñean dauka zalantza ori, Damokles`en espataren antzera, iñoz ez dotelako ikusi ollo-toki baten azeria olloak babesten.

### EUSKADIN:

Euskalerrriak, gaur badaki zer daukan gaiñean. Eta gudalozteko pelikuletara aurrerantzean jokutzen ba-dogu, Munduan sortzen asi diraren antzera, menperatzaille asmakizunezkoak gaur eta beti berezkotasuna madarikatutzat eukiten dabena euren betiko asmakuntz orreik ebagi egiten dabezelako, gai dirala Munduko gizarteari beste aztinketa gogor bat emoteko, eta Espainol`ak guri, orren aitzakiagaz. Nai azken baten Demokrazia`ren ate erditik danok sartu bearra, aztinketa orren ostetik, bizitza iñorentzako ez zan izango zorionezkoa.

Demokraziaren politikazko joko bidetik bideratu bear doguz gure ekintza guztiak, arrazoa gure alde edo berezkotasunaren aldean dagoelako.

Gaurko Lateralmenperatzaillearen guzurrezko asmakizunak berezko LEGEA`k beartuta eta abertzalearen alegiñakaz maldaberan dagoz, gaurko ordezkaritzazko ekintzan, gero ta geiago danon ardura eskatzen daualako.

Orregaitik Euskalerrian, lortu gendun DEMOKRAZIZKO LEGE-ZARREN senean zuzen, zeatz, zentzuz eta zuertasunezko neurri onean politikazko arloan jokutzen ba-dogu, Euskal-Nortasunaren Askatasuna geurea da, berezkotasunaren egia gero ta bearrezkoagaitik aundiagoa dalako.

Euskadi`k, izar dirdiratsueana izan bear dau, Europa berezkotasunera bideratzeko, danon askatasunak lortu daiguzan.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.004`an ZEZEILLA`ren 7`an

Berba ederra benetan arduraren itza, gure eginkizunak bere irudi on-barruan ezartzen ba-  
dira.

Arduraz beteta, bizitzaren egian ezartzen garanean, goi-maillako jakituritzan ezartzen  
gara. Ekintza on-orren ondorioak, berez eroaten gaitulako goi-maillako jakiturira.

Asken baten, arduraren itzak, berezitasunaren zeaztasunezko neurrian kokatzen gaitulako.

Baiña, badauka beste alde-bat bai ! bere alde-on asmoagaitik urruntzen garanean, ain  
egokitasunezkoa ez dana, gure ekintzak gai`en buruz edo Arimaren buruz bideratzen  
doguzenean.

Or ! dago muga. Gure egikizunak gai`en bitartez egin bear doguzelako, baiña beti ! Arimaren  
irizpideari begituta, bere berezko bidea mundu onen SORTZAILLE ta LEGEA`ri begira  
dualako.

Ori da ! JAINKOA`ri begitutea, eta ori arrazoizko gizon-emaumeak izatea.

Gure arbasoak euren bidetik irakatsi euskuena JAINKOA eta LEGE-ZAARRA`rekin, gu gaur  
Askatasunaren egarri ederrean agertzeko.

Orregaitik atzera begitu bear dogu, ikusteko leenengo eta jakiteko bigarren, zelan eta  
zergaitik diran, gure Euskalerrri maite onen arrazoiak, aurrera begira, arrazoiaren egi-bidean  
jokatzeko.

Eta esango dautsuet, ez dagoala bide obiagorik, gure Nortasunezko Arimaren bakea  
lortzeko. Eginkizun orrek baikortasunezko bidean kokatzen gaitulako.

Adibide bi ipiniko dautsuedaz, zeaztasun osoan ikusteko, zelako ondorio ezberdiñak ekarten  
dabezan batak eta besteak.

Leenengo adibidea, Euskalerrriaren oraiñarteko bizi-jokua zer izan dan, gu, gaurko egunean,  
JAUNGOIKUA`n eta ASKATASUNA`ren sinismen betean, Erri lez bizirik eta Nortasun aundi-  
baten agertzeko.

Bigarren adibidea, erri asko, zelan eta zergaitik agertzen diran naastuta eta noraezean,  
euren Nortasuna eta bizi bidea burutu ta argitu ezinik.

### LEENENGOA:

Euskalerrria`k, kromañonetik ona, milla-urte askoko biziaren egokitasunerako, Ludi onen  
Legeak nai-ta naiez irakatsi egiten dauskuna, on artuta, garrantzi aundiko gauza bat ikasi eban,  
Nortasunezko batzango (globalizaciòn) aundi batera eroan ebana.

Ortik aurrera, ez zira joan iñor menperatzera, jakin ebelako, danon eskubideak bardiñak  
zirala.

Baiña danez gaiñ, konturatu ziralako: Ludi onetan "ASKATASUNA"ren zentzuak, muga baten  
barruan eukala beren izatasuna.

"Ardura" da muga ori, ez garalako bat, asko baizik, eta izatasun orrek berez erakusten  
dualako, beren barruan banakuntza baten, danon "Eskubide ta Egin-Bearra" edo "Eskubidearen  
Egin-bearra" gaitik beteta dagoala.

Berez eta egi-bide orretatik, beste itz-eder bat agertzen da: "LOTSAGIZUNA" edo  
"GIZON/EMAKUMEEN`arteko LARDERIA".



Itz eder onein erabiliak, Ludi onen Lege`ak, berez erakutsi egiten dauskuzanak dira, gure Arima`ren arrazoizko irizpideak on-artuta, ikasi, eta berak erakutsitako zentzuan, Lotsa aundiagaz, gure eginkizunetan erabili bear doguzanak.

Mundu onetan, non agertzen gara ba ! BERE EGILLEA`ren LEGE-BIDETIK Nortasunezko bizi baten izan ezik !.

Gaurko Euskalerrian, egi-bide luze orretatik, lur-eskubidean, askoz txikiagoak agertzen gara, gure artean be, Europa onen sasijainko-maixukerizko denboretan Norkerietan ibilikoak garalako.

Baiña Euskalerrriaren sinismena aundia dalako eta nai-ta gure artean borroka latzak euki, atzerritarren norkerizko menperatzail-eredua Euskal-Nortasunaren barnean ez daiten ezarri, gaur bizirik gagoz.

Eta ori da asken baten, Mundu onen giza`ri, Euskalerrriak emon bear dautson eredia, Askatasunaren bidea ikusi dagian eta Nortasunaren egokitasunean ezarri daiten.

### BIGARRENA:

Erromatarregandik aipamena artuta, asiko gara oiñarritzen noztik asi ziran norkerizko naasketa oiek, European eta munduan, ainbeste kalte egin dabenak gaurko noraesean agertzeko, gaur gabiltzan lez.

Ortik asita, edestitik zear dator, eten-bako asmo-menperatzaille bat, laiñu-goibel bezala, gaur, Mundu onetan lortutako jakintza-demokratikoagaz erabaki bear doguna, mundu`ko irugarren guda nagusia izan bazan bezala.

Menperatzailleak edo erroma`ko "ZEZAR"en antzera, indarren bidez, batzango aundi baten naastuta, gizarte guztia, aginpide baten sartu gure dabe.

Eta ekintza ori, Ludi onek daukan Legearen guztiz aurkakoa da, norberen Nortasunagandik asi-ta, Lege Berezitasunezko Erriaren Nortasunak ezereztu egiten dauzalako.

Sasi-jauntasunezko bizi ori lortzeko, menperatzailleak, beti ibili bear izan dabe guzurrezko arrazoiarekin, Ludi onek daukazan lege-guztiak zapaltzen dabezelako.

Eta ekintza ori gaur, argi ta garbitasun guztian ikusten dan gauza da.

Bestela begitu Madrillen zer gertatu zan atzo 2.004`an Epailla`ren 11`n. Goizetik gaberarte Aznar`ek, beren jakifien gaiñera, zenbat guzur esan bear ebazan, Madrillen, Alkaidak egindako gaiztakeri ikaragarri ETA`ri leporatzeko. ETA`koak izan ba-ziran, 14`ko auteskundeetan berak irabaziko leukelako, geiengo autarkia lortuta.

Baiña Alkaida izan da, Espaina`k IRAQ`eko gudan artukizuna euki daualako, Espaina`ko erritar guztien aurka, eta erriko-ulermen orretatik auteskundeak galdu egiten dabezelako, gezur alegiñetan ibili dira.

### ONDORIOA:

Gaur daukaguzan Laterri-menperatzaille oneik, espataren keiñuagaz gure buru gaiñetan keiñuka daukaguzela, ez daukie zentzurik, eta Europa guztian malda-bera doaz arintasun baten.

Gaur daukagun gizarte-maillako jakintzan, eta bizitzaren ekintzan egokitasuna lortzeko, arrazoizko lasaitasun batera eldu bear gara, gaurko ekintzaren berezitasunezko zeaztasunak "DANON ARDUREA" k eskatzen daualako.

Eta kontuan euki, Ludi onen Legearen bidez, danok arduradunak jaio garela.

Orregaitik gaur gure Errian ez da bear gudarik, danok alkartuta, demokrazizko arrazoian kokatu baiño. Menperatzaillak, guzurra, dariola ibili bear dabelako.

Eta gure Lendakariari bere esanetan ez bota ezeren errurik, beartuta egon zalako.

Alderantzizkoa izan da, edo euren erritarrai esan eutsezan guzurrak, on-artuak izan ba ziran, gure erriaren gaiñera etorriko-zan ekaitza negargarria izango zalako, gure Euskalerrriaren Askatasuna ostera be, igaro diran orain 165 urte morroipean geratuko giñalako.

" EUSKADI`K BEARTZEN GAITU "

ATUTXA` tar PAUL

ZORNOTZA` n 2.004` an EPAILLA` ren 12` an

## - GAURKO GERTAERAK -

Mundu onetan, gizon/emakume batzuen eginkizunetan, baragarri ta negargarrizko gauzak asi dira sortzen.

Gaur eguneko ulermenean, eta billaketarako daukagun tresneriagaz, argi ta garbi azaltzen dalako, guzurrarentzat bide onik ez dagoela.

Gaur eguneko Mundu ta Europa guztian bide ori ikusteko, leen begitu bear doguna, gauzak euren ager-irudirako zelan eratu egiten doguzan, euren ondorioan ain etxura txarrezko gauzak agertu daitezcan bigarren.

Zergaitik...?

Ludi au..., fisikoa dalako ! iturburuen ondorioak kontuan ez eukiteko.

Gaur, gogoratu bear gara, Mundu onetan eta European batez be, berezitasunezko errien aurka, edestitik etorri zan asmakuntza, eta XIX`n gizaldian, espatakaz ipini ziran gaur daukaguzan Laterri-Menperatzaille oneik, gizarteak euren agindutara morroi bezela egon gaitezan, ez daukala zentzurik.

Asmakuntza ori, beti izan da sasi-jainkotasunezko kaizar`en jauntxukeria eta ez dakit zelako "EL DESTINO EN LO UNIVERSAL"en gaitik, asmakuntza ori babesteko diruaren iturriak euren eskuetan eukin da.

Asmakuntz-orren iturburuko ondorioak, berez.. gizartean, nortasunak ezereztu egiten dauz, gizon/emakumeak izatasun-gabeko ondamendi ondorio batera eroanda.

Or dago ! oraiñarte betiko borroka, eta... Ludi onen lege-bidetik, gizartea barriztu egiten dan lez Nortasunezko bizi batera beartuta..., beti borroka baten jarraitu bear dogu ?

Ori..., gizon/emakumeetan gaur, daukaguzan arrazoibidezko Nortasunaren almenean ez dauka zentzurik.

Orregaitik, bideratuta gagozan leize-zulotik, nai-ta naiez urten bear dogu, gure adimendunezko Nortasunak garraxika eskatzen dauskulako.

Ezin besteko aukera eta tresneria daukaguz, eta arrazoiaren izakizunak azaltzeko, iru adibide aurkeztuko dautsuedaz.

a).- Mundu onetan, ez da gauza ona, gizartearen bizitza bideratzeko`en aitzakiagaz jauntxukerien maixutasunean, ordezeko diruaren kontrolak eukitea, Nortasunean..., zentzuzko naimen edo borondateak beartu egiten dabezala, norkeriaren aberats-tentaldi ateak guztiz zabaltzen dabezelako.

Eta bide ori ez da egokiena, gaur gure gizartean ikusten dan lez, lapurketa eta guzurrezko bidean kokatzen gaitulako.

Gizarteentzat, oso txarrak dira orren ondorioak, ezberdintasun aundiak sortzen dabenez. Batzuk aberastasunera goralduta eta geienak onbear ta txirotasun bizi baten gaitz-etsita.

b).- Ez da gauza ona be, XIX`n. gizaldian asi-ta, gaur, oraindiño gudaren keiñuagaz beartuta daukaguzan Laterriak Europa guztian eukitea.

Arduraren arloa, erdirakoi edo baterakoien eskuetan diralako, argi ikusten dan lez.

Laterri onein jaurkintzazko asmakuntzaren sorburuak, ordezeko diruaren kontrolagaitik datoz, sal-erosle aberats-jautxuen gogoetan, beti izan diralako errien arteko zergak ez ordaintzea, euren aberastasuna indartzeko.

Orren ondorioak, Laterrizko-aberri aundiagoak egitera beartu ebazan, berezko errien Nortasunezko izkuntzak, oiturazko jakintzak eta sinismenak guda-indarrean zapalduta.

Eta onen ondoriorik negargarriena, Mundu onen gizartean asieratik Nortasunera beartuta dagoena, Berezko Nortasuna babesteko, edesti guztian borrokan ibili bearra.

Nortasunezko gizartearen antolakuntzan, beste goi-maillako elburuak lortzeko, danon babesera begira, adostasunean egin bear diran gauzak dira. Danok zeaztasunaren egi-bidean, berbearen borondatea daukagulako, Nortasunik galdu gabe.

Ardurazko lotsagizun aundian lortzen dira gauza orreik.

Ludi onen izatasuna, Nortasun-gabekoa izan balitz, Sortzaillearen beste burutakizun bizi-arau baten egokituta; bizi izango giñalako.

d).- Asken baten, berezitasunaren babeserako, menperatzaillearen naaztutako joko-bidez eta berezko erritarren artean banakuntza lortuta, ezberdintasunezko alderdiaren antolamenduan ezarri gara.

Geienak, Nortasunaren edo berezko Aberriaren alde. Norberaren etxeari begira.

Gitxienak, eta ezberdintasunean margoztutako inguruko arau baten, erdira-nai edo baterako jaurgo-zale diranak (constitucionalistas). Geienean menperatzaillearen guzurrak ta amurrukerien bidez nastuta.

Arrazoia, berezko nortasunaren alde kokatuta dagozan gizon/emakumeetan egongo da beti, Ludi onen lege-barruan jokutzen dabelako.

Baiña guzurra, erdira-nai zaleen artean kokatuta dagoana, eta gaiñera, besteak beartzen dauzan sinismena da.

Orregaitik, euren berekoi griñagaz alegintzen gaitun siñeskeria iruntziteko, nai-ta gozokituta egonda, oso latza da.

Or daukaguz, Rouko Barela, Aznar, Oreja, Iturgaitz eta PP`ko talde guzti ori, beti zaunka, txakurak egiten dabezan keiñuen antzera. Euskalerrria`ri keiñatzaille,

ez dakit zelango zori-txarrak agertuko jakozan, 1.839`an eurak zapal dutako Nortasunezko askatasunaren billa ibiltzen ba-gara.

Baiña gaurko denborak, lenagokoak ez dira, demokraziagaitik era-bat lotuta dogozelako.

Mundu onen gizarteak, BAKEA lortu gura dau, eta Euskalerrriak zetan esanik ez.

Orregaitik, diruaren ordaiñetan, ekonomia, eleizaren gizarteko arauetan, Laterriaren jaurkintzan eta gaurko legeak bakerako aurkezten dabezan arazoak, euren lekuetan ezartzeko, Europa ta Mundu`ko gizarteak, "Demokrazia" elburu lez artu dau.

Ez daualako gura beste ikaragarritzko munduko guda-nagusirik.

Orregaitik gaur Europa`n eta Euskalerrrian batez-be, ez dira bear eta ezin dira izan, gudak edo ikarabideak.

Euskaldunak badakigu zer dan etenbakoak izatea, bear dogun gauza bat lortu gure dogunean, eta geiago gure NORTASUNAREN ASKATASUNA lortu gura badogu.

Badaukaguz bear diran egokitasunak EUSKADI`ren ASKATASUNA lortzeko. Baiña danok alkartuta, norkeriak eta lotsagabekeriak urrunera botata, EUSKAL-NORTASUNA ABI-ARAZIAN IPINI DAIGUN.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.004`an EPAILLA`ren 24`an

AURKEZPENA:

Europa ta Espaina`ko Laterri onetan, gogo edo asmo barri bat esan leike asi dala urduritasun guztiaz mugia-aldian.

Gizartean, urduritasuna egotea ez da arrigarria, gizarteak berak, artu dauan erabagiaz, ez dakialako oraindiño, noraiño eroango dauan, artu dauan ardurazko ezkeintza barri orrek.

Dana dala, artu dauan erabagia ona da, eta garai egokienetako baten. Baiña..., zergaitik Urduritasuna...?.

Español sendimenduan dagozenai batez-be, erdira-zaleko guzur aundietan, batzuen egokitasunerako irakatsita dagozelako.

Eta sendimendu orren guztiz aurka, izatasun onetan agertzen dalako demokrazian sakondu egin ezkerro, gero ta geiagoko zeaztasunak eskatzen dabezelako, danon arduratan lotsagizun aundiz, arrazoiak eskatzen dauan bereiztasun arteko ordezkartzaren eskubide ta bete edo egin bearrezkoak, ondo zeaztuta geratu daitezcan.

Eta eginkizun orregaz, erdirako zaletasun ori ezereztu egiten dalako. Orduan..., zergaitik onartutako erabagia...?.

XVIII`n gizaldian Europa guztian, bereiztasunaren aurka espatearen indar guztiagaz ipinitako, diran menperatzaille ta erdirakoi Laterri oneik, gaurko gizartean eta jaurkintzazko arau onekaz, ezin dalako aurrerantza egin, bear dan zuzen eta zeaztasunezko arloan.

Askeneko lau urte oneitan, lar ikusi dogu, jaurkintza orrek euki dauan gaieztasunagaz. Danon ardurak indarkeriz, esku batzuetan bakarrik lotu ezkerro, besteak, ardura-gabekoak agertzen diralako.

Joan gaitzean ba ikertzen, zer sortzen dan Europa ta Espaina`n, gero, Euskadi`ren arazoetan sartu gaitzean.

EUROPA`n:

Europa`ren barruko gogoan, demokraziaren sakontasunak beartuta, ba-dago aspalditik oldozmen edo gogapen bat, arduraren arloak zabaltzeko, Europa`ren zeregiñak erreztu daitezcan.

Gogapen oneik, nai-ta naiezko bide bakarra daukie demokrazian jokatu gura dan ezkerero. Bereiztasunaren arloa da ori.

Nortasunaren arlora esan gura dau orrek, ez dagoelako beste lekurik, berezko errietan izan ezik.

Europa ta Mundu onetan, Eurak bakarrik diralako legezkoak, edo Nortasunean norbait ! legezko maillan, berez-izatezko gizakitan, bazkunean ta errietan.

Etsai aundiak daukaz oldozmen orrek, XVIII`n gizaldian ezarri ziran Laterriak, gaurko Laterrien bizi-bidea lez, eginkizun bardiña daukielako.

Diruaren kontrolagaitik egiten dabe guzti ori. Eta geienean, esku gutzitan egon daiten.

Beste goi-maillako gizaren betiko ameskeritan ?

Edesti guztian egin dabe bardin, antolamendu on-baten aitzakiagaz, jaurkintzak, erlijioa, dirua ta gudaloztearen indar guztiak eskuratuta.

Azkeneko goi-maillaraiño eldu dira, Laterriak, berezko erri-maillan ezarri gurean.

Baiña...? Laterriak Erriak dira...?. Noren borondatez onartuak...?. Or ! daukaguz erromatarrengandik asi-ta, betiko menperatzaille ta berezitasun arteko borroka latza.

Giza, arduradun jaiotzen da, eten-bako berrizkuntza baten, eta ez dau onartzen, batzuk oparotasunean eta beste batzuk txirotasunean bizitzea.

Orregaitik, gizartearen berrizkuntzako arduran, gero ta indar geiagorekin agertzen dira, bakearen egarriak. Ez daukalako iñungo zentzurik gabiltzan eztaibadakaz. Mundu onetako diru ta mozkin guztia, batzuen kontrol-pean eukitearren.

Alan dala, atzoko Deian (2.004`an Jorrrailla`ren 18`ko igandean) irakurri neban "EFE" albiste-bidetik batuta Europa`ko batzordearen (Comisiòn Europea) lendakaria dan Romano Prodi`k esandakoa: " en el dia de ayer advirtiò Prodi, de que las regiones que dejen de pertenecer a un pais comunitario y se convirtieran en un estado independiente, cesarian de formar parte de la U.E ".

Asi, explico Prodi, " que el territorio independiente, pasaría inmediatamente a ser considerado un tercer país con respecto a la U.E. y los tratados comunitarios dejarían de ser de aplicación".

Ori ez da PP`koak guri esaten dauskuena.

Guri, PP`koak keiñuka esaten dauskuena: " U.E`gandik kanpoan geratuko giñela " askatasunaren aginpidea artu ezkerro.

Eta esan-ori, betiko lez, guzur utsa da.

Guk, Laterriaren erkidetasunetik urten ezkerro, eskubide osoko erri artean edo sorterrien antolamenduan sartuta geratuko giñalako. Euskadi Europa`koa dalako eta zaarrena gaiñera.

Orregaitik, zeozer asi da mugi-aldian, eta ez da gitxi, daukaguzan Laterri erdirakoi oneik, berezkotasunaren guztiz etsaiak diralako.

Begitu bestela, Amerikarren gandik asita ta beste Laterri-menperatzailleakaz batera, zelan gura daben Munduko mozkin ta diru guztia euren kontrolpean euki, Mundu guzti onen erri-arteko buruan O.N.U.`ren jaurkintza ipini gure dana, Munduko erri-artean antolamenduzko epaiketetan lan egin dagian bakea lortzeko. Zelan urruntzen diran, eurak gaiñetik geratuta, indar geien daukielako.

Amerika`n, dagozan amerikarrak Europa`tik joanekoak dira, eta Europa`ko Laterrien legearekin, orregaitik berezko legearen aurrean daukiez gure arazo bardiñak.

Alkartu egiten dira, baiña ezin dabe lortu, guzurak nun-nai agertzen jakiezelako, berezitasunezko legeen kanpo aldetik ibiltegitik.

### ESPAINA`n:

Espaina`tarrak, erdi-aro`ko denbora luzetatik ibili dira beste erriak ezereztu naian eurak izateko.

Eta eziñean, XVIII`n gizaldian gudaren bidez asi-ta XIX`n gizaldian lortu eben espatakaz laterrizko menperatasun ori.

Europa`ko erriak eta Euskaldunak batez be, ez eben alboratu, euren askatasunezko demokraziaren egarria, eta iru guda-latz-garri ostetik, ostera be gagoz eskaera bardiñarekin.



Gaurkoak, ez dira lenagoko denborak, billakuntzan, barriztatzerako argi-bideak, ezin besteko azkartasunean, Mundu guztiko gizartea, bereala ipinten daualako jakin-arazian.

Eta begitu, erritarrak zelan konturatu diran azkeneko atezkundeetan, Espainia`ko jaurkintzatik PP`ko guzurtiak atarateko.

Denbora barri-baten esan leike gagozela, Zapatero`ren berbakaz, itxaropenezko atea zabaltzen diralako. Nai-ta berak esan arren, Espainia beren aberria dala.

Ikusi bear..., Laterri-menperatzailearen indarrak aundiak diralako.

A-ta guzti, ni itxaropentsu agertzen naz, Sozialismua`ren jaurkintzak Zapatero buru dala, U.E ta O.N.U.`ren demokrazizko antolamendu barriagaz jokatu gure daualako, eta beren esanetan: " oso osoan, demokraziaren zeaztasunetan sinisten daualako ".

### EUSKADI`n:

Gaur, iñoz baiño geiago, alderdikeri ta gizon/emakumeen arrokeri ustelak alboratu egin bear doguz, danon arteko zuertasun ekintza baten.

Danok, Euskadi`ren elburuari begitu bear dautsagu, gure indarrak, benetan onbidezkoak izan daitezcan.

Eta ezin dogu lotan geratu, iñoz baiño geiagoko lan aundia daukagulako aurrean.

Gure askatasunaren arazoak, erria jasotzea, gazteak jakintza aundian ezartzea, espetxeratuak etxera ekartea eta abar, ezin diralako lortu, gure lana, zeaztasun ta zuertasunezko ekintza baten ez bada ezartzen.

Emen, Agirre ta Lekube`tar Jose Antonio`ren jaurkintza gogoratzen dot, egin eban zeaztasunez zuertasunezko ta eten-bako lana, arrigarrizkoa izan zalako. Danak ! erri ta jaurkintza buru-belarri alkartuta elburua`ri begira, ezin beste sinismeneko ekintza baten.

EUSKALERRIA BETI BIZI DA EUROPA ONETAN, BERA ZAARRENA IZAN DA:

Orregaitik erakutsi bear dautzagu bakezko gizon/emakumeak garala, borroka barik, baiña indartsu eta ezereen gorroto barik.

Gure Jose Antonio`k esaten eban antzera. Bai-ta gure Gazte izkillatuak esaten ebazanak eriotzaren aurrean askeneko berbatan, "LUR-GORRI`k" adibidez:

"EZ NEGAR EGIN NIRE ERIOTZARI; ZUEN ARIMETAN BIZI DAITELA POZTASUNA, NIRE BIZITZAN BIZI DAN-LEZ, UNETXO ONETAN. NOLAKO EDERTASUNA!"

" NIRE ERIOTZA-GAITIK EZ DOT-NAI GORROTOZKO APENTZARIK BAT-ERE. ABERTZALETASUNA TA ADOREA, ABERTZALETASUNA!. ORI DA! NEUK ESKATZEN DOTEN APENTZA BAKARRA "

" BETIRAUTASUNERA ARTE. AGUR. GAUR, IÑOZ BAIÑO GEIAGO MAITATZEN ZAITUEN ZUEN SEMEAK "

Or ! daukagu Ibarretxe`tar Juan Jose`k, bere jaurkintzagaz atara dauan esondapena, " EBATU DAIGUN INDAR GUZTIAGAZ " GURE ERRIAREN NORTASUNEZKO IZENA, MUNDU`ko ta EUROPA`ko ERRI GUZTIAKAZ IDATZITA EGON DAITEN IÑUNGO ZALANTZA BARIK "

ATUTXA`` tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.004`an JORRAILLA`en 19`an

Bidai ona eta ezkertzekoa Bizkai`ko Aldundia`k beste erriak ezagutzeko emoten dauskun aukera ta laguntza adiñekoak garenai.

Ezker ona, ezereen bereizte barik eginda dagozelako, eta gizartearen ezberdintasunari aukera aundia emoten dautsoelako, nortasun arloan obeto konpondu gaitazan, lotsagizun aundiz, danon izaeraren ardurak zainduta, ostera orretan ondo baiño obeto ikusten dana.

Bidai onen izaera, orain urte bi, Europa`ren Beko-Errietara egin gendun ostera ederretatik ezagutzen gendun.

Eta beti lez, Lourdes nire emaztea arduratu zan eskabideak betetzeko.

Non agertu ziran gure izen abizenak sarituak izan zirala, Portugal, txangolari ikusteko !.

Orrela, Loraila`ren 9`an goizeko zortziak eta amar ziranean, Donostiko berebil-bus batera igon gendun, Portugal`eko Kaskais uri politara joateko.

Berebil-bus orren Xabier eramaille-ona, Euskalduna izan zan, Kiputza eta jatorra bera, eta txantxetarako zaletasun aundikoa.

Eta gure taldearen gidari-zuzentzaille Estefania izan zan, Galizia`koa (Lugo) bera.

Berak adi-eraziko azalpenaren xeetasunak gozo ta argi agertzen ziran gure belarrietara. Eta ondo baiño obeto jakin eban zelan jokatu gulako talde baten.

Gure taldea, adiskidetasun aundi baten agertu zan, alai ta gogaldi onean. Danak irripartsu, bear ebanari laguntza ezkeintzen eta abeslari ta gordinkeriak esanaz alaitsuak.

Estefania`ren antolamenduzko aolkuetaren bidez, bus`ean artu genduzan leenengo ezar-lekuak, bidai guztian gordetzeko alegindu euskun.

Bai, mai-biribillaren jar-lekuetan be, beren ardurak obeto zaintzeko, eta olan bete genduzan ezereen arazorik gabe.

Baiña bidai onetan, nai-ta artu-emonak ezberekoitasunezkoak izan gura nai-ez, beti alkartzen zara zugaz antz geiago daukenakaz.

Eta olan alkartu giñan Etxegarai ta Etxebarria`tar Maite eta beren senar Gaston eta Olazaran`tar Jesus, Urduliz`en bizi diranak; Biruete ta Aurtenetxe`tar Jose Ramon eta bere emazte Redondo ta Martinez`tar Mari Paz, Bilbao`n bizi diranak; Arregi ta Astarloa`tar Mari Karmen eta bere senar Aizpuru eta Erauzkin`tar Jon, Bilbao`n bizi diranak; Karbon`tar Andres eta Mariano Santutxu`n bizi diranak; Zarraga`tar Isidro ta bere emazte Olabarri`tar Asun, Basauri`n bizi diranak; eta Marisa ta bere senarra Santutxun bizi diranak.

Elkarte polita egin gendun, danak bardin antzean benetakoak agertu giñalako alde batetik, eta iñungo zalantza gabekoak bestetik, beste guztiak be, or inguru beten agertuta.

Bilbao`tik Kaskais`era ia milla kilometru dagoz, bitarte aundia benetan, baiña erreza da ordu-bitik ordu bira, ordu erdian geratu ezkerro.

Bidaia, ez zan guztiz ondo asi, lau edo bost 24 zenbakiko geltokian itxaroteko idatzita euki gendulako, eta besteak 11`garrenean. Orregaitik 10 minutu beranduago urten gendun.

10`k eta ogei minututan, Palentzia`ko lurraldean geratu giñan, Kintana del Puente erritxoan gosaritzeko, eta 11`etan Salamanka`rantza urten gendun.

12`ak amar minutu gutxiagotan, guardia-zibillak geratu ginduezan eta bertan egon giñan ordu bete, ezeren ganora barik.

Ordu-biak amabost minutu gitxiagotan Salamanka`ra eldu giñan, eta bertan bazkaldu gendun.

Bidai onetan, neska arduradunak ez eban berbarik egin Salamanka`ra eldu arte, eta bide guztian, or joan gintzazan musika edo eresiarenean, doñu-baragarri-bat entzuten. Kontu apur-bat euki bear leukie arlo orretan.

Bus`aren eramalleak eta txangolarien gidari-arduraduna`k aldatuta, aurrera egin gendun ordularia ordu bat atzeratuta.

Portugal`era, Izar`en menditik Fuentes de Oñoro`tik sartu giñan, eta Kaskais`en "Ciudadela ostatura" 8`terdietan eldu giñan.

Afaltzera joanda, leenengo, katillu-bete porrusalda (sopa verde) atara euskun. Gozo egon zan, baiña bazkal-afari guztietan lenengo artu

bear gendun janaria itxura ezberdiñetan bera izan zan. Gero arraña, patata-egosi, karrakatxa edo azuntz (espinacas), perretxiko`en zuku edo saltseagaz apainduta. Gaiñean, sagar ta madari egosiak eta igalinaste goso bat albimeratuta. Janari guztiak ondo egon ziran.

### 10 ASTELEENA:

Jan-gela, goizeko zazpirak lauren gutzietatik zabaltzen eben. Lourdes ta ni zortzi terdietan joan giñan, eta an danetatik gura gendun beste egon zan jateko.

Bederatzi terdietan urten gendun bus`ean Sintra`rantza.

Itsas-bazterretik joanda, Estoril`en, berebillak lasterketetako itzulian ibiltzen diran tokia ikusi gendun.

Ikusi genduzan erritxoetan, alkar-ondoan banakako etxeetan bizi dira, eta orren esangura, nortasun aundikoak izatea esan gura ba-dau, euren etxe-gintzako lanean alderantziz beste gauza bat erakusten dabe, tellatuan aterpe-bako etxeak eta oso motel eginda dagozelako. Balekite ango egu-giroagaitik izatea.

Beste gauza eder bat daukie, eta leku guztietan ikusiko genduna, jauretxetatik asi-ta: Buztin-gintzan, ondo margoztutako artzabalak (baldosas pintadas) egiten dabezala. Mauritarren jakintzatik artutako oitura ?

Dana dala, Sintra, U.N.E.S.K.O`gaitik Mundu`ko yarauntzi-lez izendatuta dago (patrimonio Mundial).

Sintra`ko jendartea ona da, baiña badaukiez bai ondo ikasitako iruzurkeriak dirua lortzeko.

Gero, erregeen-jauretxea ikustera joan da, ainbat gela-eder ikusi genduzan: Lepazailu`en (cisnes) gelatik asi-ta, laparxori edo Sugextxori`en (Urraka) gela, goiko aldean erregiña`ren andere-lagunak adierazian (simbolizando) 136 Laparxori margoztuta daukazenak; erregeen lo-gela; Julio Zesar`en gela; Bas-auntzen gela, eta gela-goian, bas-auntz bakotzatik eskegita 72 armarri margoztuta euki ebana; eta abar.

Arabiar` en gela ederrean be egon giñan, erdian iturri bat eukana, eta beren onura, inguruan bazkaltzen egoten ziranai, eskuak garbitzekoa izan zan.

Sukaldean be egon giñan, eta jakin eben bai, zelango antolamenduzko apainketak egin bear ziran, askorentzat janari ederrak egokitzeke.

Tximini aundi bi daukaz, kanpotik ederto ikusten diranak, su-kaldi guztien keiak atarateko. Nafarroan, Berastegi`ko erritxoan dago baserri bat, gela erdiko-zelaian lauki aundi barru baten sua egiten dan lekua dana, eta goi-aldea, lauki`en neurri bardiñetik asi-ta, biribillean, gero ta estuago doana, goiko zilloa, oizko tximini`en antzean amaitu arte.

Ordubaterdietan bazkaltzera, eta lauretan "Kabo de Roka" ta "Boka de infierno" ikustera joan giñan.

Itsas-ertzeko toki onek, ez dauka garrantzi aundirik, daukazan itsas-argi edo argi-dorrea, bas-eliza txikerra, itsas-ertzean daukan zilloa eta bertan egoten dan azoka, guretzat oso ezagunak diralako. Baiña badauka bai, garrantzi aundiko gauza bat: Europa`ren Mendebaleko azken muturra dala.

Gero Kaskais ikustera joan giñan, eta andrak saltokiko dendatatik ibili ziran artean, gu kai-alde edo portua ikusten ibili giñan, eta an, iñoz ikusi ez dodazan ainbat arrantzaleen kaiolak, otarrain (langosta), txangurru (centollo), ezkarrek eta nekora`ren arrantzarako ikusi nebazan.

Arrantzal-anaitegien sal-erosleko lekura joan giñan, eta an ikusi genduzan zer artzen daben itsasotik: Olagarro, Tajo errekaen ur-gezan dagozan 35-40 kiloko Julio`ak, Berdelak, txitxarroak, zigalak, eta ainbat arrain-mota ezberdiñ.

Gure arrantzaleen ontziak, obeto zainduta dagoz, eta or, utzitasun edo alpertasun bat ikusi neban.

Bideetan, berebillak bizkortasun aundiz eta ugaritasun aundian dabiz, berebil bakotzean bat bakarik joanda.

Orrek, gure antzera esan-gura dauana, minutu bateri, azkeneko txakurtxikiraiño atararte dabizela.

Balekite, itsas-ontziaren egoera, orregaitik izatea.

Beti-lez, zortzi-terdietan afaldu gendun, eta onarte danon-arteko lotsagizun aundiz ibili ba-giñan, asi giñan muga ori apurtzen eta bakoitza bere izaeran agertzen.

Asierako alkar-izketak, beti asten dira, nor-berak aituten dabezan gauza garrantzizko zeaztasunetatik, eta gure maian leen agertu zana, gure Euskalerrriak daukazan arazo-politikoetatik.

Aukera euki neban, eta erdi-ugarte onen edestitik asi nintzan gauza zeatzak azalduten, ia jateko denbora guztian, ardura aundiz artzen ebezalako nire berrien xeetasunak. Gero, elkarteen arteko gogoetan agertzen jakien itaunari, erantzunak emon bear nebazan, baiña pozik egin neban guztiori.

Emaztea asarratu egiten jatan, baiña....., zer egingo neutson nik ba !.

Danok, neurriz ibili giñan, eta afaria amaituta, Lizarra`koa dan Gaston ta Olazaran`tar Jesus asi jakun abestuten.

Abestia, ondo aldi-bateratuta urten ebalako, Zarraga`tar Isidro`k beren lekutik Jesus`eri esan eutson, beste bat abesteko, eta Maite`k, Jesus`en emaztearen erantzuna: "Berotu ! berotu !" eta gero ikusiko dozue. Gure maian, arrigarritasunezko abesbatza agertu zan.

## 11 ASTEARTEA:

Goizeko 6`1/2`etan jagi giñan, 7`retan goizaldu, eta 8`retan Lisboa`rantza urten gendun.

Egun eguzkitsu ta oso argiak euki genduzan bidaieko egun guztietan, eta egu-giro ezinbesteko onak

Lisboa`n, Rodrigez`tar Amalia`ren (fadista) ospean eginda dagon lorategi aurrean ordu erdian geratu giñan, argazkiak atarateko eta inguru-polita ikusteko.

Estefania`k, lapur ugari egoten zirala esan euskun, baiña guri ez jakun olangorik sortu.

Bai-ta, Lisboa`tik egunero eten-barik, zelan igaroten diran bi-milloi giza seme/alabak ikusketari. Arrigarria.

Bigarren geldiketa, Rozio`ko enparantza aundian egin gendun, urdu-bat ta erdiko askatasunagaz, eta ango ikusketak egiteko batera urten ba-gendun, banandu gintzazan.

Gu bere goiko aldean dagon San Jorje gaztelu-errira joan giñan, Lisboa bere edertasun guztian ikusteko eta argazkiak atarateko.

Leku polita benetan, bertatik Lisboa osoa ikusten zalako, euki gendun eguraldi eguzkitsuagaz.

Tajo ibaiak, bere urak itsasoratu egiten dauzan ibai-ondo edo ao`an oso zabala da, galtzuaren itsasoa deitzen dautsoena, eta beren gaiñean zubi aundi-bi dagoz: Belen`en, Zalazar`en zuba 2 kilometru ta erdi daukazenak, eta Basko de Gama`ren zuba 16 kilometru ta erdi daukazenak.

Belen`eko zubien goiko aldetik berebillak dabiz, eta be-aldetik trenak.

Belen`en, Jeronimo`en lekaidetxea ikustera joan giñan, eta ezin leiz sinistu an eginda dagozan eder-lanak ikusi ezik.

Itsas-ertzean dagon dorrea eta egazkiñaren argazkiak atara eta gure ostal-etxera joan giñan bazkaltzera.

Arratsaldean Lourdes kaskais`era bajatu zan Mari Karmen, Mari Paz, Jon eta Jose Ramon`egaz erosketak egiteko eta ni gelan geratu nintzan irakurten.

Afaria amaituta danok asi giñan kantari eta ostean arrigarrizko jaiia egin zan jantza-gelan.

## 12 ASTEAZKENA:

8`retan urten gendun ostatutik Nazaret`eko errira.

Erritxo onek ez dauka gauza aundirik ikusteko, Eleiz-poli bat ez ezik eta be aldeko ondartzan inguratutako sarrera polita mutur bietan itsas-argien dorrea bakoitzak eukin da, barru aldean itsas-untziak gordetzeko.

Gu goi-aldean egon giñan, eta an egon ziran andrak zazpi gonakaz egon ziran jantzita, gizonak itsasora urtetan ebenean zazpi egunerako



joaten ziralako, eta eurak egun bakotza igaro egiten ebenean gona bat kentzen eben, azkeneko gona egalunezkoa izan da gizonari oparitzeko.

Lanperna`k edo itsas-piru`ak (percebes) eta igali sikuak saltzen ebazan. Ondo dakie dirua zelan atara.

Nazaret`etik amarterdian urten gendun Batalla`rantza, eta erri onetara amaikaterdian eldu giñan. Bertan, Santa Maria de la Bitoria`ko Gotzai-Eliza ederra ikusi gendun, I Juan eta bere emazte Lankaster`tar Felipa`k egiña.

12`ak eta laurenetan Fatima`ko bidea artu gendun, eta bidean San Mames`eko erria uste dot zala, Gomez ta Beira`tar Antonio`ren kupeldegia edo ardandegian sartu giñan, bertan Oporto`ko ardo-zuria, ardo-baltza eta Oporto`ko moskatela 1.883`ko ixurgaia (licor) zana.

Geienak iru botella erosi eta kartoizko boltzatan eroan genduzan.

Fatima`ra ordu-bietan eldu giñan eta "Kinta du Castelinho"n bazkaldu gendun eta iruretan urten Fatima ikusteko.

Lau-terdian Mesa Santua ospatu eben Portugeses, eta Lourdes`en antzera ainbat kandela erretzen dabez txikerrenak 0`40 txakurtxikitik asi-ta ez dakit zenbateraiño.

Eliz-Nausiaren aurreko zabalgunean beste Eliz-Nausi bat asi dira egiten lenagokoa baiño aundiagoa izango dana.

12`aren gabaerdiatik 13`ko eguna argituarte ospatzen dabe agerpenaren jai aundiena. Nik telebistatik ikusi neban eta arrigarrizko jaia ospatzen dabe, aurreko zabalgunean jende geiago sartu ezinik.

6`retan urten gendun eta bidean goazela, Gomez ta Beira`tar Antonio`ren upeltegiko sarreran emon euskuen txartela. Erdia erosketak egiterakoan emon bear gendun eta beste erdiagaz, zenbaki bat euki ebana, Estefania`ri emon eutsoen ikusari-berezia zozkatu zan, eta 1.047`ko zenbakia izan zan saritua urten ebana. 8`retan gure ostatura eldu eta zortziterdian afaltzera joan giñan.

Afari-berezia euki gendun, eta amaitu gendunean abestuten asi giñan eta ostean jantza-gelan izugarrizko jantzaldia. Ni beste iru lagunakaz Andres, Mariano ta Bizente`gaz, kartetako jokuan ibili giñan. Denbora ondo neurtu gendun eta bai galdu-be bai, gaiñera Lourdes asarratu jatan.

### 13 EGUENA:

Seiterdietan jagi giñan, zazpi-terdietan gosaria jan-da zortziretan Keluz`era joateko.

Emen Potugal`eko erregeen jauretxea ikusi gendun, arrigarrizkoa dana, XVIII`n. gizaldian arrian eginda daukazan eder-lanakaitik.

Dorre bi amaitubarik dagoz, eta ez da miraria.

Inguruan daukazan lurak 8.000 ektarea daukaz.

12`etan urten gendun, ordu-batetan bazkaltzeko.

Irurak lauren gitziagotan Setubal-Sesinbra`rantza urten gendun, eta laurak lauren gitxiagotan Sierra da Rabida`ren goiko aldean egon giñan, Setubal eta daukan 17 kilometruzko beso luzea Sado ibaiaren irtenlekuan ikusteko.

Bertan zabalean eta banan-banan dagozan bas-eliza edo ermita txikerrak, bakotzean ermita-zai bat bakarrik eukiten ebana ikusita, berantza joan giñan.

Sesinbra`ra bostetan eldu giñan. Erri aundia da eta Kai polita dauka, baiña guk eroan genduzan asmoak, arrain erregosiak eta maskulu erreak jateko, Estefania`k esan euskun lez, beste ordu batzuk dira egokienak ango zalegarritasuna arrapatzeko, egu-erdia eta arratsaldeko zortziretatik aurrera, eurak asten diralako ordu orretan arrain ta maskuluak erretan.

Sesinbra`tik sei-terdietan urten gendun zortziretan afaltzeko, eta afal-ostean Euskerazko abestiak. Oso Euskal usai-goza emoten dautso taldeari. Gaiñera, Isidro`ren urte eguna egun bat ariñago ospatzen badogu.

### 14 BARIKUA:

Zazpi-terdietan jagi giñan zortziretan gosaltzeko, eta goiz guztia aske euki gendun lez, erosketak egitera joan giñan.

Arratsaldeko iruterdietan urten gendun eta osterara labur-bat egin gendun jai nagusia gabaz euki gendulako.

Zazpiterdian afaldu gendun gero Lisboa`ra joateko eta an "FADO - FLOKLORE" a ikus-entzuteko.

Artean, Estefania`k Lisboa`an dagoan arrigarrizko Kasino`a ikustera eroan genduzan.

Sartu gintzazanean, danon arteko diru apur bat batu gendun makiñatan jokatzeko, eta txanponagaitik aldatuta jokoan asi giñan.

Baiña ez genduelako jakin olgetan, parean egon zan Txina bateri eskatu neutson laguntza eta diru guztiak galdu orduko, berari emon neutsozan azkeneko bost txanponak, bai mosu bi be agurtuaz batera.

Fado - Folklorea bederatzi-terdian asi zan, eta danok ezarrita bakoitzak iru edari artzoko aukera euki gendun.

FADO, Portugal`eko erritarren-abestia esan gura dau eta FOLKLORE jantzaldian errien-jakintza.

Iñok ez eban ulertzen, baiña a-ta guzti batzuk disketak erosi eban eurak izenpetuta.

Jantzak, gureakaz antz aundia daukie, bai-ta euren jantzieta be.

Amaitu ebenean Atleti ta Realaren goratzarre ereserkiak abestu genduzan eta tira-bira apur-bat urten eban, baiña atsegingarria izan zan.

Estoril`era joan giñan, eta an gabeko argazkiak atara genduzan ordu erdi baten gitxi gora-beran, zugatz guztiak argi txikerrakaz beterik egon ziranen artean.

### 15 LARUNBATA:

Gosaria artuta bederatzi ta laurenetan Obidos`erantza urten gendun, eta an, XVI`n gizaldian iru kilometruan egindako ur-bidea ikusita San Juan Bautista eta Santa Maria eleizak XIV ta XII`n gizaldikoak eta benetan ederrak diranak, ikustera joan giñan.

Erriaren goi-aldeko gazteluan egonda gero berantza joan gintzanean, daukazan kale-estu guztietatik ibili giñan, eginda dagozan kaleak, ainbat gizabide-ezberdiñek eginda dagozelako.

Obidos txikerra baiña polita da, oso zaarra bera, eta gaiñera antziñatik datozan ao-jakintzak naaztu ta alkartu egiten dan tokia da, gaurko egunean, Portugal`eko bitxi garrantzitzuenetariko bat da.

Portugal`eko kale-egal guztiak eta giza/semi guztiak oiñez ibili bear daben leku guztietatik, arri-soltuakaz margotuta lez eginda dagoz.

Lenengo aitz-ondarra botaten dabe azpian bost zentimetroko lodieran eta gaiñean arrobietatik ataratako beste ainbestean lur-arri txikerrakaz naasia, eta gaiñean leenengoko aitz-ondarra beste ainbestean. Eta orren gaiñean ipinten dabez arri-txiker orreik marrazki politak eginda.

Gizon asko daukiez lanean arri-arlo orretan.

### 16 IGANDEA:

Goizeko seiretan jagi giñan, seirak eta ogeierako eroan genduzan bide-kutxak eta zorroak bus`ean egokitzeko, gero gosaria artu eta zazpiretan ariñagoko domekan egin gendun bidaia, baiña alderantziz.

Bilbao`ra, arratsaldeko zortzi-terdietan eldu giñan, Zorrontza`ra bederatzi ta ogei minututan.

### ONDORIOA:

Ezker onak emotekoa da Euskadi`ren jaurkintzari asmakizun onengaitik, adiñeko erritarren bizitza alaitu egiten daualako, eta zartzaroaren nekea bizkortu, argituaz batera.

Nire emazte Barroeta`tar lourdes`ek eta nik, poz aundiagaz egin dogu bidai eder au.

Atutxa`tar Paul

Zorrotza`n 2.004`an Orrill ren 26`an

AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zareen guztioi, eta on-egin daigula danoi, onen mamitik ulertzen dogunak.

Azkenean, zuek galderak egitea gura neuke, nik be zeozer geiago ikasi neikelako, eta danok batzar onetatik, al dogun zeaztasunezko ulermenik ederrenean urten daigun.

Errezago gaiari jarraitzeko, Martin`ek itaunak egingo dauz eta ni erantzun.

1. - Zergaitik sartu bear gara Europa`ra Euskaldunok ?

a).- Europa sortu zanetik, Euskalerrria izan dalako orainarte demokrazizko askatasunaren ikurra ekarri dauana.

-Ainbeste milla urtetako bizitzan JAINKOA`ri begira, sinismen aundia lortu ebalako gizon/emakumeen NORATASUNEAN.

-Eta Ludi au, dabillen bizidun izakia dalako: bas-aberetatik asi zanetik, borroka asko euki dauz bere bizitzan, inor ez dala nor, besteak baino eskubide geiago eukiteko konturatuarte.

-Ikas-bide orretatik, Nortasunaren arteko Demokrazi ederrenean kokatu zalako, or daukaguz gure LEGE-ZARRA`ren oinarriak, bear doguzan antolamenduak bideratzeko.

2. - Zein izan zan Erromatarra ekarri eben bidea ?

b).- Erromatarrak, arinagoko eredu. batzuk oinarri lez artuta, menperatzaille-erdirakoiien sasi-jainkotasunean ezarri ziran, ararte erri ezberdinen artean lortu ziran demokraziak apurtuta, danak euren zorpeko morroitasunera bideratzeko.

-Andik aurrera, menderatze orreik lortzeko, Zezar`en atalburu bat ikur lez artu eben " VENI, VIDI, VICI ".

-Len, batek bakarrik ezin ebalako Mundua`ren gizartea bere kontrolpean aurrera eroan, berezko erriak ezin ebazalako ezereztu, sortu ziran jaurkintzarako era barrien gogapenak, erromatarrak euki eben sasi-ametsaren asmakizunakaitik menderatuta geratu ziran.

Munduan, eta Europa onetan batez-be, ainbat negargarrizko borroka latzak sortu ziran eta sortzen dira, norkeri orren eragozpenagaitik.

-Menperatzailleak beti erabili dabe atzalburu "VENI, VIDI, VICI" ori, berezko errien artean daukien oiturazko antolamenduetan erritarren jaurkintzarako, maltzurrezko guzur orreik, naazketak eragin daiezan, eurak daukien sasi-jaintasunezko ametsetan garaille agertzeko.

-Orregaitik, edestia zeaztasunaren bidez banandu egingo dogu, aldi ezberdinetan beartuta sortu ziran jaurkintzaren era barri orreik gaurko egunerarte, zergaitik izan ziran jakiteko, eta bide batez, beren jarraitasunezko azalkuntzan ikusi daigun, Izadi onen legean eta babeserako borondate aundi baten, berez jaio ziran erriak bakoitzaren bereiztasunean nortasunezko zentzu aundi baten, norkerizko amets-gaizto orreik, andik ona edesti guztian eta gaur be zergaitik menperatu gure dabezan.

d).- Eta gure Euskalerrian, Euskadi`k Aberri-lez daukan Nortasunezko arazoak ulertu daiguzan leenengo, gure gogapenak eta Euskalerrian bizi diran guztienak, Lotsagizunezko ardura ederrean sartu gaitazan bigarren. Askatasunaren ezaugarria ulertu, lortu ta gero, sortutako errien-arte, Bakez bizi gaitazan Europa onetan.

e).- Eta Olazar`tar Martin`ek, gai onen azalpena, nik egin bear nabela esan ebalako.

### 3. - Azaldu egizuz zure azterketaren bost zatiak.

Asi gaitazan ba, Euskalerria Europa Alkartuan aztertzen. Gogoan daukaguzan okerrak Euskaldun lez zuzentzeko, eta Euskadi`ri zor dautsaguzan ardurak, lotsagizun aundiz bete daiguzan.

Arrazoi-bide ori, bost zeaztasunezko zatitan bananduta eskainiko dautsuet. Leenengo Europa`ren aurkezpena, sarrera labur baten eginda. Eta azkenean, gaurko arazoan egoera ikertuta, Euskadi`ri buruz, ondorio labur bategaz amaitzeko.

1`go Zatian. - Sarrera labur bat Europa sortzen aurkezteko.

1.2.- Euskalerria.

1.3.- Grezia.

1.4.- Erroma.

1.5.- Erroma, Ele-Eder ta Eder-Lanetan.

1.6.- Erroma ta Laterazko Izkuntza.

1.7.- Erroma ta Legea.

2`gn Zatian. - Erroma osteko Europa Sortzen.

2.1.- Erromatarren osteko Europa Sortzen.

2.2.- Mauritarrak.

3`gn Zatian. - Godo`en osteko, Europa`ko Erreinuak Sortzen.

3.1.- Europa`ko Erreinuak Sortzen.

3.2.- Erreinuak eta Jauntzak Sortzen.

3.3.- Nafarroa`ko Erreina Sortzen.

3.4.- Bizkaia`ko Jauntza.

3.5.- Araba`n, Arriaga`ko anaitegia (cofradia).

3.6.- Gipuzkoa.

3.7.- Zer gertatu zan Errege-Jauntzak sortu ziranetik ?

- 3.8.- Araba`n.
- 3.9.- Bizkaia`n.
- 3.10.- Gipuzkoa`n.
- 3.11.- Nafarroa`n.
- 3.12.- Zergaitik esaten dot nik, Errege Katolikuak ez ebela euki gogorik, Godo`en kaizar menperatzaille ariagaz edo Espaina kaizar-zaletasunagaz jokatzeko.
- 4`gn Zatian.- Europa alkartzeko jokabide okerrak.
  - 4.1.- I Karlos.
  - 4.2.- Napoleon.
- 5`gn Zatian.- Europa Alkartzeko Bide Barriak eta Ondorenak.
  - 5.1.- Jaurkintzan Zelako Ondorea Geratu Zan Erregetza-  
ren Ostetik ?.
  - 5.2.- Arana eta Goiri`tar Sabino.
  - 5.3.- J.E.L., Agirre`tar Jose Antonio eta Europa.
  - 5.4.- Errien Europa ala Laterrienak ? Zelan Alkartu Biak ?.
  - 5.5.- Gaurko Egoerean Zelan Sartu or Laterri ez diran  
Erriak ?.
  - 5.6.- Zelan Sartu Ibarretxe`ren Esondapena ?.

- LEENENGO ZATIA -

1.0. - SARRERA

4. - Europa-aurreko gizakiak.

1.1. - EUROPA SORTZEN:

K. a. orain 500.000 urte inguru, Europa`ra sartu ziran leenengo gizarteak egin eben. Eta Neardental`ak ziran, azkeneko izotz-aldi ostean, bakarrik geratu ziranak.

Gero, Magdalenense eta Aziliense arteko denborak dirala, 15.000-10.000 urte Kristo baino arinago, gaur daukagun itxuran edo giza-izaeraren azkeneko aldaketakaz "Kromainon-giza" agertu zan, Neardental`ak baino askoz geiago aurreratuta egon ziranak, eta oneik urtsutu egin eben aurrekoen Europa.

Gaur, Europa`ri buruz goi-maillako ikerketan dagozanen artean: "Hamel`tar Elisabet, berrien idazlea; Wennemann`tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratiko); eta Foster`tar Peter, Kambridges`ko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea" dira. Eta "Spectrun Wisenschf " Aleman aldizkari jakintsuan argitzen dabe euren ikerketaren emoitza. Eta ezagutzera emoteko, au dinoe:

" Europa`ren oinarrizko gizartean, edo gizartearen genetan %`tik 75 Euskaldunak dirala, eta euren oinarrizko izkuntza Euskerea dala ".

Eta " Orduko Europa`ren izotz-urtzean, eiztariak urtze orren ondorioz, izotz-oreinak eta Mamutzar` en iges-aldian edo atzerakada egitean, euren atseginezko giroan egoteko, Euskal eiztariak Europa`n zabaldu zirala ".

Orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik Euskara`ren oinarrizko itzak: " Aran, Ibar, Ur " eta abar asko.

Eta Arrinda`tar Anes`ek dino: " Jakin aundiko gizon bi onein eta emakumeen esanetan, ez dagola adimen edo ezagumenen gabetasunik " EDESTI-AURREA, ODOLA eta GENEAK, gaur gai onen inguruan ikerketaren bidez ekarri dozkuenak, alan emoten daualako ezagutzera.

Alan sortu zan Europa...?

Itxaron egin bear, Mundu onen goi-maillako jakitunen azken eritziari.

Dana dala, Europa`ren edestia, 1.000 urte Kristo aurretik gitxi gora-bera asten da. Eta leenengo kultur-mail edo jakin-maillazko gunea Grezian agertzen da.

Orregaitik, lan onen asmoak beteteko, goian azaldutako zeaztasunetara joan bear dogu.

## 5. - Euskalerrria sasoi aretan.

### 1.2. - EUSKALERRIA:

Euskalerrria, Kristo baino 1.000 urte arinago, jakituri aundiko gizartea izan zan, ordurako ikas-bide luzea euki ebalako bizitz onetan.

Babeserako, eizarako eta larru-jantziak egokitzeko arria lantzen, gain-gaineko maixuak izan ziralako bear eben tresneria lortzen.

Baina danez gain Izkuntzan, eta beragaz batera gizarteko antolamenduan.

Or ! daukaguz, eurekandik etorrita JAUNGOIKUA ta LEGE ZARRAK, gaur be paregabeko oiturazko-legeak diranak demokrazia on-baten bizitzeko.

Gizarteko antolamenduan euki eben jaurkintzazko eraek, euren bizitza pakezko egokitasunean irauteko, erkalderriko edo errepublika-zale baten antolamenduan bizi ziran. Bizente Latiegi`k esaten dauan lez: Laterribako erri sendimenduan eta errepublikako zaletasun baten, danon nortasunak ondo babestuta (ANFICTIONIA) edo ELKARTASUN eder baten.

Ez eben geiago bear, eta BASATIEN izena baten batzuk ipini ba-eutsoen, oneik, agertutako menperatzalleak ziran. Menperatzeko aleginak alperrekoak ziralako, eta euki eben izkuntza, basati-izkuntza zala esaten ba-eben, naaste-bako eta zeaztasun aundiz eraikitako izkuntz-berezia zalako.

Gaurko-lez, gaia, sasi-jainkotzat elburu artuta daukien Menperazale-ak, ez eben aitzen, Euskaldunak euki eben Nortasunezko Izaeraren Sinismenean. Beti indartsu, nortasunaren askatasunezko egarrrian JAUNGOIKOA`ri begira.



## 6. - Grezia`ren ikutua Europa sortzeko.

### 1.3. - GREZIA:

Europa`n, Kristo baino milla urte arinago, Kreta`tik asi-ta Grezia izan zan jakintzaren arloan zilborra edo erdi-gunea, gero, lurrarteko itsasotik (mar mediterraneo), ta Erdi-alde edo aurreko-Ekialde guztitik jakituria zabaldu ebana: Eder-Lanean, Filosofi edo Eraman-Onean, ta Ele Ederretan. Bere jakintzaren goi-maillako gunea Kristo aurretik V`n gizaldian lortu eben.

A ta guzti be, Grezia`k, bere barruan eukazan guda-indarraren zaleak, baina beti geratu ziran jakintzak menperatuta, nai-ta kalte aundiak erriari egin.

Eta bere askeneko denboratan gizon aundiak euki ba-eben be Alexander-Aundia bezela, K.a. 356-324 urtetan bizi zana, erromatarrak lagunduta, ez eben euren batasuna lortu, eta erromatarrakaz euki eben askeneko borroka K.a. 149 asi zana eta 146`an amaitu, Korinto guztiz apurtuta, Errroma`k menperatuta geratu ziran. Andik aurrera Mazedonia`ko erri-alde edo lurralde lez izendatuta geratuko zana.

## 7. - Errroma`ren ekintzak eta bideak.

### 1.4. - ERROMA:

Errroma`ren sorraldia K.a. 753`tik 510`era egin zan, Sabino`ak, Iszeres`ak eta Etrusko`ak elkartuta.

K.a. 715`an Pompilio`tar Numa`gaz asi zan eta lenengo zazpi errege euki ebazan, azkenengoa 510`an Tarkino`tar Luzio, arroputz deritxona.

Etrusko`aren erregetzak, Erromatarren ekonomizko ta jakintasunez-ko aurrerakuntzan, zer ikusi aundia euki eban.

Oso jardunak ziralako, Griego`en izkitegia artu eben, eta eraberritzen ibili ziran Latinezko iztegia lortu arte. Gero, Mundu guztian ibiliko zana.

Iparralde`ko Etruskoa`k eta Egoalde`ko Griegoa`k, zer ikusi aundia euki eben Latin`ezko jakituriaren eraikintzan.

Errepublika K.a. 509`an sortu zan, erregeen agintari indarrak, urtero aukeratzen ziran lege-gizon bien eskuetan ezarri ziranean. Pretorak ziran, gero Kontsulak deituko ziranak.

Errepublika`ko leenengo denboretan, sendi aberatsen aundikiak edo gurasoak ziran Uria`ren jaurkintzan agindu leikenak, senatoreen batzarretan batuta. Jabe-bide ori bizi guztirako izan da.

K.a. 240 urte inguruan, asi ziran Errroma`ren barruko arazoak, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, erri-guraso`en (patricios) sendiakaz alkartu ziranean, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko.

Jaurkintza guztia euren eskuetan eukinda, andi-mandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin besterarte, euren arbasoen osotasunezko oiturak eta ekanduak lortuta eben goi-maillako neurri aundia galduta.

Orren ondorioa: Berezko baserritarren zuntsitzea edo ezeztatzea izan zan, eta lur-zabalen etxagunak agertu ziran, menpetasunezko joputasunean.

K.a. 106`an, Erroma`n, gudalozte antolamenduan eta indarrean, izen aundia artu eban Kayo`tar Mario`rekin, eta K.a. 27`ko urtean Octabio`tar Augusto`rekin Erroma kaizargoan edo agin-zalekerian ezarri zan.

I Konstantino`k, Kristo ostean, 306`an igon eban kaizar jauntzara.

Galeno`k 311`n Sardika`ko legearen bidez, askatu ebazan Kristautasunaren jai-arauak. Gero Konstantino`k 313`an Milan`eko agindua emon eban, Balerio`k baieztatu ebana.

324`an, I Konstantino geratu zan Mendabaleko ta Ekialdeko kaizargoetan agintari bakar-lez.

### 8. - Katolikotasuna onartua eta ondorenak.

325`an Konstantino`k Nizea`ko Eleiz-Batzar nagusia batu eban bere agindupean, eta bertan Arriano`ren irakaspidea baztartzuz, katolikotasuna aukeratu eban.

Ekitaldi au ez dogu galdu bear ikusmenetik, gero Godo`en aldian Toledo`ko Eleiz-Batzar nagusiekin sortu zana VI`n gizaldian zergaitik izan zan, eta XV`n gizaldiko katolikotasun izenagaz zer gertatu zan jakiteko. Oraindino gaurko askatasunaren bideak, arlo aundi baten beintzat orrek debekatzen dauz.

Konstantino`rekin, kaizartzan eta Eleizan JAINKOA`ren ordezkotza zala Ludi onetan erabagia artu zan, eta ortik aurrera or ! ibili dira sinis-egiakaz gora ta bera dana naastuten.

Bizanzio izendatu eben kaizargotzaren Uri-nagusi lez, gero 330`an Konstantinopla deituko zana.

I Konstantino`ren eriotza 337`an gertatu zan, ostean erritarren arteko gudak sortzeko.

Guda orreik irabazi-ta, II Konstantino`k 351`an kaizar-aulkira igon eban, eta Mendebal ta Ekialdeko kaizargoak bateratu ebazan.

II Konstantino il zanean, 331-363`rarte Flabio ta Klaudio`tar Juliano, zinkukatzaille deritxona ezarri zan kaizar-aulkian.

Au 363-364`an Flabio ta Klaudio`tar Jobiano Persa`k menperatu eban.

Eta Erromatarren kaizargotzan azken ezarri zana 384 ? 395-423`rarte Flabio`tar Onorio izan zan.

Emendik aurrera, eta 410`an I Alariko`gaz asi-ta, Godo`ak sartzen dira kaizargotzaren jokoan. Onek, Erroma saskildu eban.

Eta Mendebaleko kaizargotzan asken ezarri zana Balentiniano izan zan.

Balentiniano il eben, eta beren ilketatik 476`era, kaizargotzaren aulkian, bederatzi agintari ezarri ziran. Nai-ta ostonduta egon-arren, benetako kaizarra Suebo`tar Rizimer jenerala izan, berak izendatzen ebazalako kaizar guztiak.

Mendebaleko kaizargotzan askeneko agintaria Romulo Augustulo izan zan, Julio Nepote kendu ebenean, eta Odroako`k Irulo`en (herulos) errege zanak kendu eban, eta bera 476`an izendatu eben Italia`ko errege.

Ekialde`ko kaizargotzak, Bizanzio`ko kaizartza deritxonak 1.453`rarte iraun eban, Turkoa`k menperatua izan arte.

Griegoen jakintza, erromatarrek batuta, euren legedian aberastuta geratu zan.

Erromatarren artean eta onein muga barruan, Kristautasuna sortu ta zabaldu zan.

Irugarren elementu onegaz, oinarrituta geratu zan Mendebaleko jendekuntzaren gizabidea. Eta nai-ta Grezitarren jakintz-aundia demokrazizko gizabidean oinarrituta egon, erromatarrek euren lege-menpekotasunean oinarritu ebenetik, eta katolikotasunezko alderdikerien laguntzagaz, oraindino be gaur, gure lepoetatik ezin dogu aldendu joputasunezko (esclavitud) izaera ta izen madarikatu ori.

Barbaroak deritxoenak eta berezko erriak, erromatarren erri-yaungoa edo politika ezereztu ba-eben be, derrigortuta egon ziran, joputasunezko demokrazi-katoliku ori onartzeko. Eta orregaitik, morroitasunezko jokuan ezarrita geratu ginan.

Berezko erriak, Nortasun guztiagaz aurka egin eutsoen menpekotasun orreri, eta nai-ta Europa`ren erdi-mende guztian erregetzaren-erakundean mosaiko baten antzera geratu jaun-errege-kaizartzagaz, eta Grezi`tarren izaera ta oinarritzko-jakintza Anfictionia edo itzarmen legedian ezarrita egon bazan be, azpitik beti egon da erromatar-Fazismoaren ta katolikotasunezko menpekotasun eritzi orren beso luzeakaz lotuta (Mundu onetan, guztien erreinua), katolikotasunaren sineskintzazko alderdikeria orretarako jaio zalako, eta bere indar guztiaz babesa emon dautsoelako.

Euren joko bakarra beti izan-da guzurraren jokoa, len esan dogun "VENI, VIDI, VICI" gaz, besterik ez daualako, Ludi onek daukan legediaren aukeratan. Eta agintaritzta ori, lortu ezinean ibili ziralako, azkenean XIX`n gizaldian asi-ta, gudaloztearen indarragaz sendotu ziran.

Gaur ortxe dagoz, berezko erriak geratu ezinik, arrazoi utzean dagozelako. Eta Laterri aundiak sasijainkotasunezko eritzia aurrera eroateko, or dabiz guzur utza ostondu ezinik.

Barregarria da gaur, eurak berezko erritarrai egiten dautsen asmo-agertzea: " utzetik astea ". Gai-zale faziztak eta sozialistak esan dabelako ?. Nun ostondu gure Arima ta gorputzaren bereiztasunezko Nortasunak ?. Gainera gureak ez diranak, guk ordezkariak bakarrik garalako !.

Eta eritzi ori onartuta be, jarraibide orretan, gure ostekoak euren Nortasun barriakaz beti egongo ziran borroka bardinean, NORTASUNA berez, beartutako edo menperatzailezko batzangotasunaren aurkakoa dalako. Gaur Amerikar-faziztak Europa`ko beste batzuen laguntzagaz egiten daben antzera: " borroka betirako ? ". Abereak be, ez dabe egiten ori.

## 9. - Erroma`ren ekarpena Europa`ra.

### 1.5.- ERROMA, ELE-EDER ta EDER-LANETAN:

Erromatarrek, Grezia K.a. 146`ko urtean menperatu ebenetik, gizartearen antolamenduzko arlo guztietan, garrantzi aundiko ondorioak ekarri ebezan.

Baina, erromatarrak kaizar-Laterri menperatzailezko legean ezarri ba-ziran, Grezia`ko POLIS`en antolamenduaren guztiz aurkakoak zirenak, beti izan ziran Grezia`ko jakituriaren dirdirazko zabalkundea.

Latinezko ele-ederrean edo elertian, garrantzi andikoa izan da, erdi-aro guztian, latina izan dalako jakintzaren ibilgallua.

100 urte K.a., Augusto kaizar zala artu eban audienezko sendotasuna latinezko elertiak. Urrezko denborak esaten jake.

### 10. - Erroma`tar idazle ospetsuak.

Erromatarren artean, gizon ospatsu asko egon dira, Lukrezio`ren "De rerun natura`tik" asi eta Erroma`ren gainberan Petronio`k idatzi ebazan "satirikoiak" eta Apuleyo`ren "Urrezko Astoa" orduko oiturak gogoratu.

Teokrito, K.a. 316 ?- 260 ? urtetan bizi zana, Sirakusa`n jaioa baina Grezia`tarra bera. Beren olerkiak Birjilio`ri indar asko emon eutson bere "Georjika`k" egiteko.

Erromatarren ziri-sartzailleren antzerkian:

Plauto`tar Tito Mazzio K.a. 254-184 ?`ko urtetan bizi zana, eta laterezko komeri-gille ospetsua.

Marko ta Porzio`tar Katon, K.a. 234-149 arteko urteetan bizi zana. Erromatar politikari ta izlari aundia izan zana, eta "Katon-begiralea" ta Katon-aundiena`ren izenakaz ezagutzen ebena. Bere "nekazarizko-iztia" (tratado de agrikultura) ospetsua izan zan.

Eta bere eren-illoba (bisnieto) Marko`tar Porzio K.a. 95-46 urtetan bizi zana. "Utika`ko Katon eta Katon gaztea"ren izenakaz ezagutzen ebena. Erromatar Filosofua ta Estoa-zalea (estoico), izlari ta gudalburu ospetsua izan zana.

Terenzio ta Afro`tar Publio, K.a. 185-159`ko urtetan bizi zana. Plauto`gaz, laterazko antzerkian komeri-gille aundiena.

Marko ta Tulio`tar Zizeron, K.a. 106-43`ko urtetan bizi zana. Politika eta ele-ederretan maisu gain-gainekoa izan zana, eta jaurkintzaren tribuno lez pare-gabeko izlaria, artean Filipika`k eta Katilinarria`k goi-maillakoak dirala.

Kayo ta Julio`tar Zesar, K.a. 100-44 urtetan bizi zan. Erroma`tarra bera, gizon aundienetariko bat izan zan, eta Salustio ta Tito Libio`rekin, laterazko eder-lanari bultz aundia emon eutsoen. Idazle zeatza, bizkorra, dotorea ta edestilari ona izan zana.

Kayo ta krispo`tar Salustio, K.a. 86-35 urtetan bizi zan. Edestilari ta politikua, Erroma`ko ele-ederrari bultz aundia emon eutson, bere idaz-lan zeatz-sakonarekin, eta edesti-idazle

Katulo ta Kayo`tar Balerio, K.a. 84 ?-54 ? urtetan bizi zan, eta pare-gabeko olerkaria lirika arloan, Orazio izan ezik.

Maron ta Plubio`tar Birjilio, K.a. 70-19 urtetan bizi zan, eta ainbat gauza askoen artean "Eneida"ren sortzailea. Munduko ele-ederrenen artean aundi-bat da.

ORAZIO`TAR Flako Kinto, K.a. 65-8 urtetan bizi zan, eta Mundu onen ele-ederretako arloan ainbat indar euki eban, batez be pizkundeko (renacimiento) denboretan.

Tibulo` tar Albio, K.a. 54 ?-18 ? bizi zana, Erroma` tar olerkaria Orazio` ren laguna, eta olerkarien artean begirunezko aundienetarikoa.

Libio` tar Tito, Erroma` tarra bera, K.a. 59` an jaio eta gure denborako 17` an zendu. Bere denboran, edestilari aundienetarikoa eta Zesar` en begipekoa. Errromatarren ele-ederrari bultz aundia emon eutson.

Seneka` tar Luzio Anneo K.a. 54` an jaioa eta gure denborako 39` an zendu. Laterazko-ispaniar idazle ospetsua. Seneka "zaarra ta erretorikoa"ren izenakaz ezagutzen eben.

Eta bere seme Seneka` tar Luzio Anneo, K.a 4` ko urtean jaio ta 65` ean zendu zan. Filosofo ta idazle ospetsua izan zan, eta "filosofua" ren izenaz ezagutzen eben. Kaizar denboratan, estoizismuaren (estoicismo) arloan aundiena izan zana, eta aundiena laterazko-ispanian ele-ederrean.

Properzio` tar Sexto Aurelio, olerkari erromatarra. K.a. 50-15` eko urtetan bizi zan, eta Tibulo` gaz batera illetazko-eresian aundienetarikoak izan ziren. Obidio` ren laguna izan zan, eta Augusto ta Mezenas` en begipekoa.

Obidio ta Nason` tar Publio, K.a. 43` an jaioa eta gure denborako 17` n. urtean zendua. Erromatarra bera eta Latinezko olerki gintzan aundienetariko bat izan zan.

Marzial` tar Marko Balerio, gure denboraren 43 ?-104` ko urtetan bizi zana. Espainak ko-erromatarra, Bilbilis` en (gaur Kalatayuz izendatzen dana) jaio ta zendu zan. Latin` ezko ele-ederretan Epigrama-gille edo ziri-bertsolari aundiena.

Tazito` tar Publio Kornelio, gure denborako 55 ?- 117 ?. Edestilari, izlari eta Erroma` tar politikaria. Laterazko ele-ederrari bultz aundia emon eutson. Ezin bestean antolatutako idaz-lanetan, bere idazkera erreza ta aberatsa izan zan.

Jubenal ta Dezimo` tar Junio, 60 ?-140 ? urtetan bizi zan. Erroma` tar olerkaria. Latin` ezko ele-eder isekaritzan, aundienetariko bat, eta Domiziano kaizar` en gogokoa, nai-ta bere olerkietan erromatarren ekandu-baragarriak argitara azaldu.

Kintiliano` tar Marko Fabio, gure denborakua eta Kalaorra` n 40` an jaioa eta 100` eko urtean Erroma` n zendua. Laterazko-ispaniarra, erretorikan edo ele-ederrean maisu aundia izan zan.

### 11. - Erroma` tarren eta Grezia` tarren alde bat.

Grezia, erromatarren bultzadagaitik menperatuta geratu zan gudalozte ta politikarloan.

Greziarrak sekula ez eben artu nazioa` ren izena, eurak gogoan euki ebalako, Ludi onetako bereizitasunaren indarrak zelan jokatzen dabe Berezko-Nortasunean, eta mailla aundiko ulermena lortuta arlo orretan, antolamenduzko-jaurkintza itzarmenekoa edo elkargokoa izan zan, sekula Laterrizko-Uri` tik gora ez ziran joan, danoren nortasunezko ardurak zaintzeko. Denbora areitan ez eben geigorik bear. (Errepublikak).

Denbora orretan, Erromatarrak sortu eben sasiainkotasunezko eta menperatzaille erdirakotasun ori, danok, banaka eta erritartuta euki genduzan Nortasunezko ardurak, ezereztu egin ebezan.

Gaurko gizartean be, bera da, daukagun borrokaria andiena, bakoitzaren ardurak beren lekuan kokatu daitezcan.

Orregaitik Grezitarrak gai-lez menperatuta geratu ba ziran-be, erromatarrak, euki eben be-maillako jakintzagaitik menperatuta geratu ziran.

Eta oraindino, Greziatarren jakintza aundiena bada, Nortasunaren ardurazko arloa, zentzun aundiz ondo zeaztuta euki ebalako da, beartutako erdirakotasun (Batzangotasuna-Globalizaciòn) orrek, inoren askatasunezko giza-lotsaria ez daualako on-artzen.

Erromatarrak ele-eder eta eder-lanetan, Grezia`tik Erromara jakintzaren gauza asko eroan ebezan, baina eroanakaz ez ziralako etsipentzen edo gogoan bakez jarri (emen ikusten da erromatarren jakintza be-maillakua izan zala, nai ta ametsa aundia izan), Emilo Paulo`k 2.000 grekotar Erromara atzerriratu ebazan. Eta Mumio erromatar gudal-nagusi ta politikua izan zanak, Grezia`ko antze-lan eder guztiak Erroma`ra eroan ebazan.

Erromatarrak gudalari edo borrokalari aundiak izan ba-ziran be, sekula ez ziran izan erri bat eskolatzeko gai.

Eginda egoten zana, eurentzat artzen eben, (gaur be, olantxe egiten dabe begitu bestela Afrika`ko Egoaldea edo Irak`eri) gudalozte aundietan ezartzen ebezalako euren arrazoi guztiak. (Erromatarren bakea ?).

Eta ekintza orrek asken baten erromatarren amets ta indarrak suntsitu ebazan, gizon/emakumeai olako bide guzti orreik, nor-beraren gaitzberako-baituaz (ostracismo vicioso) kokatzen gaitulako.

## 12. - Latera zelan zabaldu zan orduko Mundu aretan ?.

### 1.6. - ERROMA ta LATERAZKO IZKUNTZA:

Argi dago, Etruskoa`k, Iszerez`ak ta Sabinoa`ak alkartuta, Grezia`tarren izkitegia artu ebenean Latinezko izkitegia lortu arte, euki eben asmakuntza, ez zala berezko izkuntzak lotsagizunez babestea.

Euren gogoetan beste gauza bat egosten zan.

Eta asmakuntz orreik, beti sortzen dira, gauza bien artean aukeratu bear dogunean: " Gai onetan sasi-jainkotasunean aundiak izan, ala JAINKOA`k Ludi oneri ipinitako Legeetan lotsagisunez bizi ".

Leenengoa artu eben, eta asmakuntz orregaz, gudalozteak indar aundiko antolamenduan eraikita, Munduko lurak eta gizarte guztia menperatzen asi ziran. Danok, errege ta jainko baten azpian euren agindupean egon gaitzezan.

Andik orainarte, bidean aurkitu daben indar guztia, nai berezko edo egindakua izan, indarrez eta amurrukerian jokatuta, eurak eskuratu dabe eta katolikotasunagaz sendotu, betirako iraun dagian.

Baina antza, Ludi onentzako Egillea`ren asmakuntzazko agindua ez da ori, Lurraldeetan len baino zati geiagotan bananduta inork ez dauan aituten naaste-borraste baten agertu garalako, nai erri-lez bai izkuntz-lez.

Zergaitik ?.

Izkuntzak eta erriak euren berezkitasunean diralako daukaguzan tresneri onenak JAINKOA`ri ulertzeko eta gizarte onen babeserako, berezitasunezko ekintza on-baten.

### 13. - Zein da batzangotasunaren bidea ?.

Bide ori onena da, Mundu onen gizartea danon borondate aundi baten BATZANGOTASUNA lortu daiten, erdirakoien indarkerizko ekintzak kakaztu baino ez daualako egiten, danoen ardurak menperatu egiten dabazelako.

Orregaitik gaur, latina, katolikotasuna eta indarkerian sortutako Laterri oneik menpekotasunaren asmakuntzan ez daukie zentzurik, JAINKOA`ren legearen kanpotik eginda dagozelako, ikusten dan lez.

Argi ikusten jakie bai, itxurara bakarrik begituta ez dirala zuzenezkoak, berezitasunezko legeen kanpotik dabizelako, norkerizko gai-amets utzean.

Berezko izkuntza altzor aundia da gizarte batentzat, bere egikeran daukazelako bidearen sinismenak, irakatsiak, maitasunezko jakituria eta batez-be oiturazko ekintzan, nor-bera`gandik asita elkar-ulermenean sortzen diran maillak nazio-arteko osotasun guztia lortu arte, lotsagizun aundiz on-artuta, Nortasunik galdu-gabe babestu gaitzean.

Zergaitik NORTASUN`ik galdu gabe ?.

Bizitza onetan NOR ! izateko jaio garalako.

Danon gogapenetan bizi au....., zelako burutasunagaz artu leike NORTASUNEAN bizi-gabe ?.

Ez da urrin joan bear, eta gure inguruan begitu bakarrik, zer gure dabe danoen Nortasunakaz egin.

Gure eguneroko ekintzaren jaun da jabe izateko jaio gara, batzuentasun artean lotsagizun aundiz izateko.

Alan dala, Ludi onetako IZKUNTZAK, arimaren tresnak dira, elkarren ulermenerako.

Euren barnean eroaten dabelako ikas-bidearen sinismena eta lotsagizunezko jakituri-aundia gure eguneroko ekintzaren giza-bidea zuzentzeko.

### 14. - Zer dino Arana`tar Sabino`k Euskerari buruz arlo onetan ?.

Arana ta Goiri`tar Sabino`k, Euskaldunagaitik jakituri ta igarkuntza aundiz esaten eban: Euren arteko Euskeraren alkar-izketak, zuentasun, zeaztasun eta zentzun aundira bideratzen ebazala, Nortasun aundia erakutsiaz. Alderantziz: Ez beste izkuntza baten berba egiten ebenean, sasi edo naasteko (romances, màs la incultura literaria-ilustrativa del momento) izkuntza orren ulermeneko neurrian kokatzen zalako, beren nortasunaren izaera neurri aundi baten beratuta.

Latina, goi-maillako sineskintzara igon ba-eben be, eta munduko gizarteetan gurdia izan jakituria erabiltzeko, ez da izan tresneri ona, guzurraren garaitza lortzeko eginda

dagoelako, egiaren zati bat eta alderdikeria bakarrik zabaldu daualako menpekotasunaren morroitasuna iraun dagian.

Grezia`ko jakintsuak euren itaun-erantzunakaz, biribil inguru bat osotu eben, eta ortik, ez dau balio nor-berak gura dauan zatia artzea bakarrik.

Bardin berezko izkuntzakaz, erritarren Nortasunezko-Izatasuna eroaten dabelako bere zentzunezko zabelean. Eurak diralako Eskubidearen Jabeak.

Orregaitik, Batzangotasunak gizartearen babeserako lortu bear ba-dira, Nortasunaren borondateetan oinarritzen da artu bear dan erabagi ori. Ez Sasi-alderdikerritan dabizenen artean, onek edo beste orrek esan daualako. Indarkeriz egiten diran erdirakoitzasunezko alegin denborak joan diralako.

Erromatarren gandik, edesti guztia daroagu alderdikerrizko ekintza orrekaz, amaitu ezinezko borroka-latz baten.

Inoz..., ikasiko dogu ?.

Berezko erriak eta Euskalerrria batez-be, Izkuntza sendotu bear dabe Nortasuna sendotzeko, bakez ta arrazoi aundiz sasi-nortasunak alboratzeko.

### 15. - Zein da izkuntzaren arloan gaurko politikuen jokabidea ?.

Gaurko politikuak eta Erdira-zaleak batez-be, nai eskumatarrak edo ezkertiarrek izan, berezko izkuntzak suntsi-arazi eta endak naastekatu egin bear dirala esaten dabe.

Nun onarrituta ?.

Uste dabe..., Mundu onetan egin bear diran edozein gauza neurri-barik egin leikezala ?.

Nortasuna galdu dauana, noraezean dabil, JAINKOA`ren Iparra galdu daualako, eta politiku orreik batez be.

Gaur, Bagilla`ren 13`an Europa`ko auteskundeetan adibidez: Gaurko Politikuak, ustekabeen artuta eta arrigarritasun aundiz ikusten dabe, Europa`ko gizon/emakume geienak ez dauala autarki edo bozkarik emon.

Ez dira oraindino konturatzen, ez-jakin denborak joan zirala, bakotzak beren nortasuna agertuta.

Eta betiko lez, Nortasunaren ardurak, eurak (Laterriak) daukiezela menperatuta.

Orregaitik: "Zelan agertuko dira arduradun, euren arduraren jabe ez ba-dira ?".

Guzurtiak dirala ez dabe on-artzen, nai-ta indarkeriz ipinitako Laterri oneik guzur-utzean babestu bear izatea. Ludi onetan beste biderik ez dagoelako.

Erromatarrekandik sortu zan sasi-jainkoen antolamendutik oraindino ez dabelako aldatu gure, batzuk kirkillerian, ospe edo ots-aundiko sasi-jainkotasunean bizitzeko.

Eta gaur, Demokrazira bideratuta gagozan denboratan, GUZURRA`k... BIDERIK BADAUKA ?.

Belaun-aldi bakotzari arduratzen jako, beren aukerak jokatzea, Nortasunaren askatasunak bideratzeko.

Eta gaurko Euskalerrria`ren Belaun-aldiari, EUSKADI ASKATZEA, izugarrizko aukera dagoelako Euskaldunen betiko ametsa beteteko.



IZKILLU eta BORROKA barik !, demokrazizko-bideak eskatzen dauskuzan zentzutasunezko ta zeaztasunezko ekintza-on eta eten-bako alegin baten baino.

Orretarako badakigu zer bear dogun: JAKITURI AUNDIA, ARGIAK ta AZKARRAK eta TREBEAK BERBETAN, kontuan eukinda EUSKALERRIKO SEMEAK BARDINAK GARALA, eta onen esan-gura, alderdikierietan jokatu barik, eta "EUSKADI ELBURU DALA".

## 16. - Zelako legeak egin ebezan erromataak ?.

### 1.7. - ERROMA ta LEGEA:

Erromatarren izaera legeen gora-beran, guztiz alderdikierizkoa eta menperataillea izan zan, ekintza orretarako gogoratuta egon zalako.

Lege ona izan daiten eta gizarteak eritzi bat emon orduko, kontuan euki bear dauazan gauzak, nun gaituta gagozan eta bizi onetan beartzen gaituen baldintzak leenengo.

Konturatzeko bigarren, landarak, aberetasuna eta gizartearen izatasuna, amaibako bereiztasun baten eginda dagoela, Ludi onena bezala.

Eta amaibako Bereiztasun orren barruan, Egillearen gogaimenekoak alkartzen diranean ipinitako baldintzarekin, izatezko gorputzak sortzen dira, gizan, aberetan, landaretan, arrietan, lurra, ura ta aizeetan.

Orduan..., nor da Egillea ?.

Gizon/emakumeak ezin leike legerik egin, beartzen-gaituzan baldintzak kontuan ez-badoguz eukiten. Laster kokatzen gaitulako entrabalotasunean, txoriburu edo goi-arintasunezko asarre ta borroka latzetan, gaian sortzen diran aurk-ekintzaren antzera, ikaragarritzko eztandak eginda.

Eta ori da egin dana Erromatarrengandik gaur arte, gudalozteen indar aundiakaz, gizaren aberetasuna ondo erakutsita.

Gaur nai-ta borroka latza izan beti-lez, azkeneko borrokak izugarritzkoak izan diralako eta izu-arritu egin garalako, arrazoizko borroka baten bideratuta gagoz, demokrazia on-batera eldu gurean.

Orregaitik, legeak egiztu egiten diranean, Ludi onek daukazan legezko baldintzatan oinarrituta egon bear dira , danontzat bardinak izan daitezcan.

Gaitasun onetan, bizia sortzeko, bizitzeko eta bizi orren babeserako sortzen diran gorputzak ez dagozelako gure aukeratan, berezkotasuna kontu aundian artuta jokatu bear dogu. Guk ezin dogulako beste gauzarik egin, bizitzaren ekintzan oreka zaidu baino.

Orretarako, egiztu bear diran legeak, berezko legeditik artuta izan bear dira, danontzat bardina dalako, eta danak arduradunak garalako, arduradun bizi gaitezcan.

Berezkotasuna gure gaisetarik dagoelako, berezko errien izatasunagaz arduratu ta zaintzen alegindu bear gara, berezko legeak zaintzea gura ba-dogu.

## 17. - Zein da lege orrekin ondorena Europa osotzeko ?.

Ori da erromatarrek eta euren gandik sasi-jainkotasunean bizi gura dabena apurtu gura dabena, gaitasun onetan, bizitza gero ta latzagotasunezko larritasun batera eroanda.

Barregarria da, gaurko eta betiko espainol asmakuntzan, bai beste menperatzaille eritzietan be, berezkotasunari ardurak kenduta edo arduratik kanpoan itzita, arduradunak izan daitezkan gura izatea.

Ekintza orreik, badaukie bai, izena iztegiatan eta gizartearen esaeretan, barregarritzkoak edo bada-ezbadakoak diralako.

Norberkerian dabizenentat, beti izanda elburu " VENI, VIDI, VICI " ori, guzurraren naastetasunagaz garaille agertzeko, bizitz-au betiko izan balitz.

Orregaitik dira ain apurkorrak, berezko legea oinkatu edo zapaldu egiten dabelako. Eta danoren barruan, Egillea`ren legeak oinarrituta gagozelako, atsekabetuta agertu bear dira, euren-beste edo geiago dakienakaitik, benetako arrazoiakaz erantzun ezkeru. Danon arimaren borondateetan min egiten daualako, berezko edo oinarritzko arrazoiakaz ikutu ez-gero, berezko legetik kanpo gabizenean.

Europa osotzen dauanak, daukan gizartea da, eta onein izatezko itxura, berezko erri-iruditan osotuta dago.

XVIII ta XIX`n gizaldietan indarkeriz ipini ziran laterriak, gaur be menperatzaille asmakizunean bizi diranak aurrera eroan gure dabe. Eta orretarako berezkotasuna ezereztu egin bear dabe.

Nortzuk dira oneik..., JAINKOA`k emondako bereiztasuna, nai-ta nai-ez suntsitzeko ?.

Buru-zalekerian bizi gura dauan gizon/emakumeak, sekula ez dau bakerik ekarri, alderdikariak diralako.

Eta ori da asken baten argitasun guztian erakutsi bear jakiena, eta erakusten jakin bear doguna. Legeak, dana eta danok erperatuta daukagun oinar-barnetik egiztu daiguzan, bakea lortzeko.

### - BIGARREN ZATIA -

## 2.0. - ERROMATARREN OSTEKO EUROPA SORTZEN:

### 18. - Kaizartza ta Eleizea ete dira nagusi bakarrak ?.

#### 2.1. - ERROMATARREN OSTEKO EUROPA SORTZEN:

Erromatarren kaizargoa maldaberan egon zala, gizon aundi bat euki eben, Konstantino aundia, gure denboraren 280-337 urteen artean bizi zana.

Gudalozteak eskatuta igon eban 306`n urtean erregetzara, eta ez zan izan Mendebaleko ta Ekialdeko kaizartzaren jabea 324`n urterarte. Bera`ri gerizpea egiten

eutsoen leikideak kendu arte: 310`n urtean Maximiano; 312`n urtean Majenzio eta Lizinio 324`n urtean.

Konstantino`k Kristautasuna besarkatuta, Galeno`k 311`n urtean Sardika`ko legearen bidez, Kristautasunaren jai-arauak askatu ebazan, gero Konstantino`k 313`an Milan`en emon eban aginduagaz eta Balerio`k ziurtatu eban.

325`n urtean, Nizea`ko Eleiz-Batzar nagusia batu eben bere agindupean, eta Arriano`ren irakaspidea baztertuta ta zinauskerian gaitz-etsiratuta, katolikotasuna aukeratu eben danontzat. Urrengo urtean, erromatarren Uri-nagusia Bizanzio`ra eroan eban, andik aurrera Konstantinopla deituko zana.

"Katholiko, latinaren bidez datorren itza da, eta "orokor" edo "guztientzako dana" esangura dau. Jatorriz, Grekoera`ren Kata= "Norantza", eta Holos= "dana" edo "dan guztia" da.

Erabagi au artu ebenean, erromatarrak asieratik eta Zesar Augusto`k batez be, Mundu onetan erregetza bakarra egon daiten, euki eben asmakuntza batu ta indartu eben, Eleizari eskubide aundiak emonda.

Urrengo oinkadan artu zan erabagia: Ludi onetan kaizartza ta eleiza JAINKOA`ren ordezkari bakarrak zirala izan zan.

Erabagi orren ondoren eta asmakuntz ori sendotzeko, berezkotasuna suntsitu edo ezereztu daiten, or ibili dira sinis-egi gogorrekaz ta indarkeri aundian gora ta bera gaur arte, gero ikusiko dogun lez.

I Teodosio aundia, 346 ?-395 urteetan bizi izan zan. 379`n urtean Graziano`k kaizartzara igon eban, eta Augusto izendatuta, bere agindupean Ejipto ta Ekialdeko agintaritza artu eban Godo`en gandik babesteko.

Danubio`ko lurraldean, Bisigodo ta Ostrogodo`akaz bakea lortuta, 380`n urtean bateatu zan eta Kristautasuna izendatu eban laterri guztiko erlijio bakarra.

Ortik aurrera, sinis-gabekeria lotsarik-gabe eizatu eban. Eta bere bizitzako azkenaldian, Ambrosio Deunak autortzan zigortuta, guztien aurreko damuaren nekea-artu dagiala agindu eutson, Tesalonika`n egin eban ikaragarritzko odolkerizko erailketa gaitik.

II Teodosio 401-450`eko urtetan bizi izan zan. I Teodosio`ren biloba izan zan. Persiarrak eta Uno`ak menperatu ta baztertuta, eta itsasoan Bandalo`en itsaslapurketatik garbituta, Teodosio`ren lege-bilduma (kaizartzaren jaurpidean agindutako lege-sortaren laburpena) argitaratu eban.

Baina 410`n urtetik aurrera, nai-ta Ekialdeko kaizargotza 1.453`n urterarte iraun, Mendebalean Godo`ak I Alariko`gaz sartzen dira kaizargotzaren jokoan.

Eta II Alariko 484-507`n urte bitartean Bisigodo`en errege izan zan. 506`n urtean Romana-Bisigotorun legearen laburpena (breviario de Anniano) argitaratu eban Mendebaleko Bisigodo guztientzat.

### 19. - Justiniano`ren jokabidea bilduma: Betika menperatzea.

A ta guzti, Ekialdetik agertu zan beste garrantzi aundiko gauza bat emen aitatu bear doguna.

Erromatar Justiniano kaizar`ek egin ebanagaz dator ori.

Au 483-565`n urteetan bizi zan, eta Mendebal ta ekialdeko kaizarra 527-565`n urte bitartean eskuratu eban.

Indar asko egin ebazan Lurrarteko itsaso guztia, ostera be egon daiten erromatarren menpean.

Lortu ebazan guda-garaipenak, bere biziaren denboran be ez eben iraun. Baina betirako balioa artu eban garaipena, berak erromatarren legeak (Erromako Eskubidea) bildumatutea izan zan. Gaurko gizartearen legeak be, bere oinarriaren gainean eraikita dagoz.

Batera, Godo`en errege 551-567`n urte bitartean Atanajildo izan zan, eta Justiniano`ren laguntzagaz, ararte Godo`en errege izan zana Ajila erregetzatik kendu ta Toledo`n ezarri eban bere jaurkintza.

Justiniano`rekin egin eban bakezko itzarmenagaz, Betika`ko zati bat Bizanzio`ren menpean itzita jaio zan Spania`ko Bizanzio`ren Lurralde (provincia).

## 20. - Atanajildo ta bisigodo`en eleizea Toledo`n.

Atanajildo`ren ostetik, Leobijildo izan zan Godo`en urrengo errege 568-586`arte, I Liuba`gaz batera 568-573`n urte bitartean eta gero bakarrik.

Ermenejildo Santuaren ta I Rekaredo`ren aita izan zan, eta bere seme Ermenejildo il eban Arrianismoa ez ebalako besarkatu gura. Konturatu egiten da azkenean (berago ikusiko dan lez), Konstantino`ren katolikotasuna dala bidea, kaizartzaren ametsak garaitzeko.

Godo`ak, erromatarrak euki eben jaurkintzazko legedian egokituta eta denbora guztian euren gogamenera eratu edo aldatzen ibilita, laster konturatu ziran espataren indarragaz bakarrik ezin zala kaizargotzarik zaindu.

Orregaitik Leobijildo`k bere seme Rekaredo`ri emon eutson aolkua, katolikotasuna besarkatzeko kaizartzak iraun dagian. Eta onek 587`an Arrianismoa baztartuz eta katolikotasuna on-artuta 589`an Toledo`ko Eleiz Batzar Nagusia bere agindupean batu eban, eta ortxe emoten jakon indarra ostera be, erromatarrak, Mundu onentzako errege ta katolikotasunezko ekandu bakarra euki eben asmakuntzari Europa`ren Mendebaleko erdi-ugarte onetan, iru baldintza oneikaz: Grezia`ko Jakituria, Erromatar`en Legea eta Eleizaren Katolikotasuna.

Ortik aurrera datoz zoritxarreko-Toledo`ko Eleiz Batzar Nagusiak (concilios de Toledo), demokrazia`ri ainbeste kalte egin dautsoenak. Europa guztia eritzi bardinean ezarrita.

## 21. - Zer ekarri eben Mauritarrak edo arabiarak Europa`ren alkartasunera ?.

### 2.2. - MAURITARRAK:

Ez gure erriaren askatasunarentzat, eta ez guretzat be, arabiarak ez eben galzori edo ezetako galbiderik, nai-ta lenengoetan Iruñean zeozer en asmoak euki, baina gure aleginakaz, gogo ori laster joan jakien.

Aldez beste bai, euki eben jakituri auditik asko artu gendulako, eta Godo`en kaizargotza ezereztu egin ebelako.

Nor-geiagoko borroka latza, katolikotasun eta Maoma`tarren edo Islam`en artean geienez geratu zan, kontuan eukita IV gizalditik germano-indoeuropeoarren eraso.

Europa guztia nor-geiago orretan pil-pilean egon zan mairutarrakaz, kaizargotzaren asmoak alderatu edo luzapide baten sartuta.

Orregaitik euri esker, eta nai-ta erdi-ugarte onen zati aundiena eurak azpiratuta euki denbora aundi baten. Iparraldean berezkotasunera barriz sortzeak, berpiztu edo gora egin eban, Europa osoa beste bereiztasunezko sor-ekintza batera aldatuta. Euskalerrian, Nafarroa`ko erregetza euren laguntzagaz sortu gendun.

### - IRUGARREN ZATIA -

## 3.0. - GODO`en OSTEKO, EUROPA`ko ERREINUAK SORTZEN:

### 3.1. - EUROPA`ko ERREINUAK SORTZEN:

Europa ta Munduko kaizargotza erromatarrengandik asita edesti guztian gaur arte, beti joanda aurrera berezko erriak eta erritarrak kontuan euki gabe. Gudalozte ta erlijioaren indarrakaz, legeak euren asmakuntzaren gogoetan ezarrita, Izadi onen legeak kontuan euki barik.

Berezko erritarren buru gainerik, jaurkintza guzti orreik aizearen antzera aldatu dira, gura eben betiko garaipena lortu barik eta eten-bako eginkizun okerrekoagaitik beti utsegille, erri bereziak euren lekuetan beti geratuta.

Beti agertu dira gizon/emakume eta berezko erriak euren bereizian, nai-ta borroka orrenkaitik batzutan erri ta gizon/emakume batzuk galdu ta batzuk besteak baino zauri aundiagoan edo adimenez nazte geiagorekin agertu, ekintzazko bizi onetan itsasontziak bezela, ez diralako itzultzen, urten eben eder-begikunezko itxuran... Baina bai jaio garan bizitasunezko gai onetan ordezkartazko ardurak beteteko, eten-gabeko berrizkuntzazko aukera baten.

Orregaitik, berezko erri ta gizarteari eltzen jakiez, bete bear dabean ordezkartazko arloan arduradun egunak, JAINKOA`gandik eta euren legetik agertzen diran aukerak alan eskatzen dabelako.

Orretarako VIII`n eta IX`garrengo gizaldi areek gogoratu bear doguz, edestiko etorkizunean legearen gogoak obeto ikusten diralako, eta gaurko lez kontuan eukiteko.

Mundu onen gizartea on-bideratzeko aitzakiagaz JAINKOA`ren ordezkari-lez ibili diran arauak edesti guztian, alderdikerizko sasi-jauntxuen arauak izan dira.

Konturatu bear gara, bizi onen edesti guztian, gure aukera bakarra ordezkariartzeko ekintzan, bizitasunezko ludi onek daukazan jatorrizko-legetatik bereztuta artzea izan dala, danoen borondatea lortzeko eta gure arteko legeak berezko bereiztasunean ezarri daitezcan, gai-bizi onen legeak alan eskatzen daualako. Eta ori dalako Legearen-Eskubidea Egiatzko arloan ezartzea.

## 22. - Europa erreinetan zatitu eben basatiak (barbaroak).

### 3.2.- ERRENUAK eta JAUNTZAK SORTZEN:

Mauritarrak etorri ziranean Godo`ak ezereztuta geratu ziran, eta nai-ta goialdetik Karlomagno`k mauritarrak Auñamendiko bealdera bota, bere kaizartza Eleizgizonakaz eta Katolikotasunagaz sendotuta, erdi-ugarte onen berezko-Euskalerriko leinu-gizarteetan, paregabeko aukera sortu zan, oitura zaarren itzarmenezko babeslegetan antolakuntzak apaintzeko.

Eta emendik aurrera erritar gizarte guztiak, beti zaindu ta babestuko dabaz euren LEGE-ZARRAK gaur arte, eta aurrerakuntzaren asmoakin be bai, Nortasunean, berez DEMOKRATIKOAK diralako. Emendik aurrerako edestian argi ikusita, zelan joan zan menperatzaille asmo ori ezartzen Europa guztian, gagozan eskubidegabeko-laterri (estados) onein eskuetan jausi arte.

Kaizar-menperatzaille ariaren berrikuntza, 718`an Pelayo`k Asturias`eko Godoerregetza sortu ebenean ezarri eben, gero X`n gizaldian II`n Ordoño`k erregetzaren uri-nagusia Leon`era eroan ebana, Leon-Asturias`eko errenua sortuta.

Eta emen zeaztasun bat, gero kontu aundian euki bear dana: "XV`n gizaldian, berezko demokraziaren (Comuneros) alde kokatu ziranak".

Urte-inguru onetan asten da Nafarroa`ko erregetza asmatzen.

Euskaldunak, beti borrokatu ziran, Godo, Franko eta Mauritarrak ekarten eben asmakizunaren aurka, ekintza orretan Euskal-Nortasunaren askatasuna egon zalako jokoan.

**OARRA:** Leenengo, Euskal-Lurralde bakotzeko Nortasunaren Jauntasunezko eskubideak azalduko dodaz, gero, andik ona gaur arte euki dogun maldabera zeaztuteko.

## 23. - Euskaldunen Laterriak: NAFARROA.

### 3.3.- NAFARROA`ko ERREINUA SORTZEN:

Iruña`ko erregetza, Orreaga`n Karlomagnoaren aurka euki genduzan borroka 778-824 bien artean sortu zan, baina zeaztu daigun apur bat, jakiteko zelan izan zan.

716`an Iruña mauritarrak menperatuta egon zan, baina euskaldunen aleginak beartuta 734-740`n urtetan guda-zainpean ipini bear izan eben.

755`an Iruña`ko jendartea eta Euskal sendi-sendo batzuk alkartuta islan`en aurka kokatzen dira.

Geroago, indar askoko Euskal-sendi eta erria, Muzkaria`n (Tudela) bizi zan euskaldunduta eta Bisigodo agintari batengandik sortuak ziranak Islan sinismenera aldatuta Banu-Qasi sendiaz, Ebro-ibai inguruko lurretan aginduten ebanakaz alkartu ziran.

778`an Karlomagno, mauritar`en eskuetan egoan Zaragoza artzera joan zan, eta Iruñatik aldatu zanean, Uri onek eukazan babeserako ormak bota ebazan. Eta ostera etorri zanean Zaragoza`tik Soliman Ibn-al-arabi`k botata, Euskaldunak Orreaga`n, gudaloztearen atze-alde guztia ezereztu egin eutsoen.

Denbora oneitan, Iruña`k Franko ta Mauritarren erasoak izan ebazan, eta 798 urte inguruan, Banu-Qasi`ren sendikoa izan zan jaurlaria (gobernador) il eben, eta euskaldun bat aukeratu Banu-Qasi sendiaren baimenagaz.

Eta emen zeaztasun bat, kontu aundian euki bear dana.

800`n urtean III`n Leon Aita Santuak agosto-kaizar Karlomagno izendatzen dau, eta ortik dator Eleizagaz batera Erromatar kaizargo-Sakratua (Sacro Imperio Romano). Gero, VII`n Klemente Aita Santua`k 1.530`ean Espaina`ko errege I Karlos izendatuko eban, andik aurrera kaizar`en izena artuta.

Arista`tar Eneko izan zan Euskal-jaurlari barria, eta 803`an Banu-Qasi`ren sendiaz alkartuta, Cordoba`ko erregearen aurka borrokatu ziran eta Muzkaria`ko (Tudela) gazteluagaz jabe egin ziran.

812`an Karlomagno Iruña`menperatu gura eban eta bera 814`an il-ostean, 824`an Ludobiko Pio`k euskaldunen aurka bialdutako gudaloztea, Euskaldunak ezereztuta geratu zan, Arista`tar Eneko Nafarroa`ko errege izendatuta 852`n urtean, zendu zan arte.

Ondorengoak, Arista`tar Eneko 824-852; I. Garzea`tar Semeneitz 852-860; eta 860`n urte onetan, Nafartarrak Asturias`eko erreinura urbiltzen dira, Nafar-erregeen alaba bat III`n Alfonso`gaz eskontzen danean, Banu-Qasi`ren senditik urrunduta.

Gero, II Garzea`tar Iñiguez 860-882; Fortuño lekaidea 882-905.

Eta 905`n urtean asita 926`n urterarte beste errege-leinu indartsuago bat asten da I Garzez`tar Santxo`rekin.

Gero, 926-970 urte bitartean III`n Garzea`tar Santxez; 970-994 urteetan II`n Santxo`tar Abarka; IV`n Garzea`tar Santxez 994-999 urteetan; III`n Santxo aundia 999-1036`n urterarte; V`n Garzea`tar Santxez 1036-1054 urtetan; IV`n Santxo 1054-1076; V`n Santxo`tar Ramirez 1076-1094; Santxez`tar Pedro 1094-1104; I Alfonso gudalaria (batallador) 1104-1134; VI`n Garzes`tar Ramirez 1134-1150; VI`n Santxo Jakintsua 1150-1194; Eta VII`n Santxo Azkarra`gaz amaitzenda Euskal-Nafar`tar erregetza.

## 24. - Euskaldunen Lateralriak: BIZKAIKO JAUNTZA.

### 3.4. - BIZKAIKO JAUNTZA:

Bizkaia VIII`n gizaldi aurretik, errepublika`ko edo askatasunezko batzar ugariak osotuta egon zan. Gero kristautasuna sartu zan ezkeroztik Eleiza-Aurreko Batzarrak deituko ziranak.

Baina Jaun`en antolamendua, Astur-Leon`eko erreinuagaz euki genduzan borroka ostetik asten da, eta batez be 888`an III`n Alfonso`gaz Padura`n (Arrigorriaga) euki gendun borroka odoltsuaren ostetik.

Borroka orreitan Durango`ko Jauna (Nafarroa`ko erregearen ordezkoa izan zana, Nafarroa`ko erregeaz itzarmeneko alkargoan babeserako egon ziralako batera) Eztegiz`tar Santxo il zanean, Bizkaitarrak, Busturia`ko gazte bat borroka orretan egin-ebenagaitik aukeratu eben. Bere abizena Lope izan zan, eta Eztegiz`tar Santxo`ren alabagaz eskondu zan. Bera izan zan Bizkaia`ren leenengo Jauna "Jaun Zuria" ren izenagaz ezagutu zana.

Batzar nagusiak, aide nagusiak deituta izaten ziran, Ganekogorta, Gorbea, Kolutza, Oiz eta Sollube goiko-mendietan suak iziotuta, eta ordezkariak adar-otsa jota.

Bizkaia`ko Jauntasuna (Señorioa), Arratia, Bedia, Busturia, Markina, Uribe eta Zornotza`ko merindadeak osotuta egon zan.

Enkart-erria eta Durango`aldea, Bizkaitik bereziki ibili ziran. Durango, XIII`garrengo gizaldian Bizkaia`ren Jauntasunagaz bat egin zan, eta Enkart-errikoak, bederatzi ibar ziran, Artzentales, Galdamiz, Gordexola eta Zalla`rekin osotuta, Urreiztieta`ko (Juntas de Abellaneda) batzarrerera bialtzen ebezan euren ordezkariak XVI`n gizaldirarte. Gero Gernika`ko batzarretara etorri ziran.

## 25.- Euskaldunen Lateralriak: ARABA`n ARRIAGA`ko KOFRADIA.

### 3.5. - ARABA`n ARRIAGA`ko ANAITEGIA (COFRADIA):

Araba`n, Arriaga`ko anaitegia deritxona, urte guztietako Bagilla`ren 24`an Arriaga inguruan, Lakua`ko ibarrean batzartzen zan ekinaldiari, Eztibaliz`etik Ama-Birjina eliz-biran ekarrita eta Abendaño`ko erreka ondoan dagoan San Juan`en bas-elizan otoiz eginda gero.

Erri guztien aurrean aukeratzen ziran lau alkate nagusi, artetik zuzen-zaina eta gudalburua aukeratuta, urte bateko epean agintzen ebenak.

Eta nai-ta 1.200`n urtean Gaztela`ko errege VIII`n Alfonso`gaz itzarmeneko alkartean alkartu, 1.332`n urterarte iraun eben Batzar oneik, ortik aurrera Gaztela`ko errege X`n Alfonso`gaz itzarmeneko alkartean batu ziralako, kontuan eukinda, Gaztelarrak Euskal-onarrikoak ziralak.

Gastela`ko erregeaz itzarmendu ziranean, 23 gai-bereziak osotzen eben agiria. Itzarmen orren bidez, Gaztela`ko erregea Araba`ko lurak saldu, inorendu edo besteganatu ezinik eta zergaren ezarpena kenduta geratu zan.



Arriaga`ko Anaitegia izan zan Araba`ko lur guztien jabe, eta berak bakarrik banantzeko almena euki eban.

Geroago Gaztela`ko erregeak, sarritan betegabe itziten ebazan baldintza orreik, bere gizartearen goi-maillako Eleiz-gizon gudal-buru eta jauntxuen zuzentasunak usteltzen joan ziralako.

## 26. - Euskaldunen Lateralak: GIPUZKOA.

### 3.6. - GIPUZKOA:

Bere gizarteko jaurkintza, Bizkaia`ren bardin-antzekoa izan da, bere gizartearen antolakuntza artzaintzaren ekonomia edo buruzpidearen arduratik lurgintzara aldatuta.

Baserri batzuk osotzen eben ibarra, arduraren dagokion aide nagusia bideratuta.

Orregaitik Gipuzkoa`ren jaurkintza auzotasunean oinarritzen da, ibarra, goi-mallazko arduraren geratuta.

Gipuzkoa, 1.076`urterarte Nafarroa`ren erregeagaz agertzen da alkartuta, urte orretan Gaztela`ko VIII`n Alfonso` gaz itzarmenduta 1.123`ko urterarte. Gero, ostera be Nafarroa`ko errege I Alfonso gudalariagaz itzarmenduta 1.200`go urterarte. Azkenean eta VII`ngo Santxo Azkarra Afrika`tik gudalari ibili zalako katolikotasuna nagusitzen, eta Gaztela`ko errege VIII`n Alfonso`k Nafarroan zarraskiak egin ebazan eta Gazteiz inguratuta euki eban, baina ostera be babeserako itzarmendu ziran.

### 3.7. - ZER GERTATU ZAN ERREGE-JAUNTZA`K SORTU ZIRANETIK ?:

## 27. - ARABA: babesaren billa.

### 3.8. - ARABA`n:

Nafarroa`ren antzera, Araba`k bearrezko babesean bizi bear izan eban Asturiar eta mauritarren aurka VIII`n gizalditik XI`garreneraino.

Araba asten joan zan beste euskal-lurralde guztien antzera, eta bere izaeran antolamenduzko jaurkintzak egokitzen, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoa`kaz ezberdinak ziranak, baina Euskal-izaeraren askatasun guztian eginekoak.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa berezko muga baten kokatzen dira, eta Burgos ta Logroño atzerritarrakaz.

Euren babeserako guda gazteluak euki ebezan eraikita Zaldiaran, Ezkibel, Olarizu ta Mendotzan, eta ego-aldean, Ebro-ibaiagaz beste aurrez-aurreko ainbeste. Konde`ak bideratuta egon ziran gaztelu oneik guda-jaurkintzaren antolamenduan, eta Asturias-Leon ta Nafartarra ainbat mokokaldi emonekuak dira.

Arabako gizartea naiko mailletan ezarrita egoan (estratificada), bere buruko gizarte-maila, lenengoetan Arriaga`ko Anaitegiak aukeratuak ziranak, Jaunak edo kondeak, guda-agintariak eta lekaide-arauz.

Araba, iturburu orren egikereak, lur zabal (latifundio) zaletasun gogor batera sartu eban, erri-gizon jauntxuak eta lekaideak bideratuta. Nagusitasun orren erdiguneak, agintariak bizi ziran Eleizak, Gotzai-Eleiza eta gazteluak ziran.

Beste inaurketa edo mailla (estrato) sendo bat be sortu zan askatasunezko Arabatar lur-langilleen artean, jaurkintzaren ezaubidegabekoa eta demokrazia aundi baten Arriaga`ko Anaitegiak aukeratuta. Arabatarren aunditasuna erakusten ebana.

Baina, gauza-garbi guztietan sortzen dan antzera, Arriaga`ko Anaitegian eta gizarteko mailla guztietan, norkerian, jauntxukerian eta aberats-amesetan ibili ziranak, baten-baten ainbatetik baimena artuta, asi ziran loitzen, euren eskuetan bear eben ardura baino geiago artuta.

Gure batzar nagusiak, arinkerian sekula ez eban artu erabagirik, ondo ezagutzen ebalako gizartearen bardintasuna eta askatasunak ezkatzen eban ordezeko saria.

Beste iru gauza-txar sortu ziran gure Araba`ko Euskal-lurraldean. Leenengoa: Nafar ta Gaztela`ko Erregeak sort-arazten ebazan billa`k, Arriaga`ko Anaitegi jabetasunetik kanpo egon zirala. Bigarren: Erritarren zentzuzko alkartasuna banatzen joan zalako, Aide-nagusiak alderdietan banandu zirala: Mendotzatarrak Gaztelaren alde eta Gebaratarrak Nafartarraren alde. Arabatarrai min aundia egin eutsen jarkera onek eta 1.332`an Gaztela`ko errege X`n Alfonso`gaz itzarmendutzea erabagi eben. Beti, Euskal-Arabatarren jabetasunagaz. Eta irugarrena: XVII`n gizaldian, Araba`n erritarrengandik asita eta ebraitarrakaz amaituta, Euskera zala danoen izkuntzatik, goi-maillako andiki, Gotzain, lekaide/me ta abadeak erabagia artuta, Gaztelera`ko izkuntza artu eben legezko izkuntza lez.

Eta emen gauza on-bat: Araba`ko edestian, nai bertoko ta atzerritarrak erdirakoi-menperatzaileak izan, euren sasi-asmakuntzaren aleginak aizea-lez errien gainetik beti utsegiten ta ondore txarrakin joan dira, borrioka asko ta odoltsuak izan diralako. Bereztasunezko Euskal-Araba`r erria bere lekuan zutik agertuta. Nai-ta bere Nortasunean zati baten zaurituta ta naastuta egon, osatzen gabizenak.

### 28. - Bizkaia`n, jauntzak ekarri eben okerra.

#### 3.9. - Bizkaia`n:

Bizkai`ko jaun barria aukeratzen zanean, erriak iru gauzatarako artzen eban: a) gudal-buru izateko; b) zuzenbidearen buru nagusia izateko; eta d) Bizkai`ko ondore aundiko lur arloak zaintzeko.

Jauna, ain zabaleko aalmen eta ondasun orrekaz jantzi eben, bere buruzagitasuna lasaitasunean joan daiten. Baina kontu aundia eukita, berea ez dala ezer, daukon guztia Bizkaitarrak emondakoa dalako, beren antolarazia (arbitraje) babesteko.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko, "erabagitasunean" pizka bat; beste apur bat "egilletasunean"; eta beste ataltxo bat "legegilletasunean" bakarrik emoten eutsoen.

Bizkai`ko batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna. Orregaitik, Bizkaitarrak eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauntza ipinteko eta kentzeko.

Baina Bizkaian, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Europa`ko erri guztietan sortu zanaren antzera Aide-Nagusien alderdikeriak agertu ziran eta eurokaz gure arteko borroka latzak.

Oiñaz eta Ganboa`tarrak ziran aurkariak, gauza eder bat-batera eukita, atzerritar-menperatzaillera zapaltzera etortzen zanean, euren indarrak alkartu egiten ebazala kanpora botateko.

Zelan ulertu ori ?

Kromainon`etik berezko Erriak eta Euskaldunak batez-be, euren ikasbideko bizitzatik ekarten ebazan legearen egokitasuna, Nortasunaren bardintasunezko askatasunean gero ta demokratikoagoak izan gaitzean, Euskal gizarteetan oinarri-lez erperatu zan, Euskaldunak beti egarrituta geratuz, Lege-zaarretan utsunen bat agertzen danean.

Beste aldetik, Erroma ta Godotarrak eredu-lez ekarten eben erdirakoi-menperatzailletasuna, batzuk gai onetan sasi-jainkotasunean bizitzeko eta geinenak euren morroketan edo serbitzura, azkenerarte inaurkeritutako (estratifikada) edo mailletan dagoan gizarte baten, gure Euskal-itzarmeneko bizitzan tentaldira eroaten ebazalako aukerak eukiten ebezanai.

Tentaldi orreik indar aundia artu eben, Aide-Nagusi, Jaun eta Erregetzaren artean senitartzen asi ziranean.

Eta okerrago, kontuan eukinda, gure jauntza jaiotzetiko edo etorkizko sareetan jausi zala, Lopez de Aro`tar Kondea il zanean eta bere seme IV`n Lopez de Aro`tar Diego, gure Bizkai`ko jauntzan IX`n izan zanaren eskuetan jausi zanean.

Orko aritik gure jauntza, Gaztela`ko errege. I Juan`en eskuetan geratu zalako aurrerantzean.

Ortik aurrera Bizkai`ko jauntza eta Bizkaitarrak euren sinismenaren eginkizunezko asmakuntzan Euskalerrri guztia-lez, aurrez-aurrezko bizi bizkiak (paralelas) eroan dabez: Jauntzak, katolikotasunezko zinezkintzan indartuta, errien ta gizartearen Nortasunak kontuan euki gabe, erdirakoitasunezko alegin aundi baten. Eta Bizkaitarrak, JAUNGOIKOA eta LEGE-ZAARRAREN oituran, Nortasunaren ordezeko-ardurak sinismen guztiagaz zaintzen.

### 29. - Gipuzkoa`ren erabagia.

#### 3.10. - GIPUZKOA`n:

Gipuzkoa, Euskalerrriko beste lurraldeak bezela, itzarmen demokratiko oitura zarrean sinisten ebalako, Nafarroako erreinuagaz batera 1.076 urterarte agertzen da alkargotuta, gero, 1.123`n urterarte Gaztela`ko erregeagaz, osterabe Nafarroa`ko erregeagaz 1.200`n urterarte, eta Nafarroa`ko errege VII`n Santxo Azkarra, Afrika`n katolikotasuna indartzeko borrokan ibilita, emen Jaurkintzarako itzi ebazanak

erdirakoiak izan ziralako eta itzarmeneko Alkargoa lotsa-gutxian eukiten ebelako, Gipuzkoa`ko Aide-Nagusiak Gaztela`ko errege VIII`n Alfonso`gaz itzarmendu ziran. Kontuan eukinda Gipuztarrak aukeratu ziralako, VIII`n Alfonso`k Nafarroatik indarka eta Gazteiz inguratuta euki ebanean, izan zala.

Orren kontura berba asko egin dira, baina erabagi ori artzeko Giputzak aspertuta egon bear ziralako bai.

### 30. - Nafarroa`ren nagusitasuna, gaztela`ko erregearen menpean.

#### 3.11.- NAFARROA`n:

Nafarroako erreinua aundiena izan zan III`n Santxo Aundiagaz, erdi-ugarte onen kristau-erreinu guztiak eta Euskal-Izkuntzagaz lotuta egon ziran leinu ta lurralde guztiak batera, bere ardurapean egon ziralako, Galizia izan ezik.

Baina III`n Santxo aundi onek, Euskal legearen aurka, Euskalerriko lurrak bere lau semeen artean banandu ebazan: gaur gure Euskalerrria dana III`n Garzia Santxez`eri; Gaztelarren kondetza Fernando`ri; I Ramiro`ri Aragoi`ko kondetza; eta Sobrarbe-Ribagorza Gonzalo`ri, laurak erregearen izenakaz.

Eta emendik aurrera asten da Nafarroa`ko erregetzaren eta Euskalerrriaren maldabera, ortik aurrera anaien artean eta gero erreinuen artean ez dagoalako egiten borrokak eta berekoikerizko elkargoak baino.

I Alfonso gudalariak, Borroka asko egin bear izan eban mauritarrakaz, euren eskuetatik Muskaria kenduta. Akitania`ko Dukeagaz be bai, Euskalerrriaren Iparraldea beraganatu gura ebalako.

VI`n Garsea, barritzailleak, gaztelarrakaz, aragoitarrakaz eta Katalanakaz gogor borrokatu bear izan eban, oneik Nafarroa`ko erreinua euren artean banandu gure ebelako.

VI`n Santxo Jakintsua`k, bere aitaren etsaiakaz borrokatu bear izan eban, eta orretarako beste anaiakaz Bizkaia, Gipuzkoa ta Arabarrakaz, alkartu zan.

Onen erregetzan, gure izkuntza "Lingua Navarrorun" izendatu eben, eta Iruña`ko erreinua "Reino Navarrorun", baina euskaraz sekula be ez zan idatzi Nafarroa`ko gorte edo erregetxean.

VII`n Santxo Azkarra, Aritza`gandik etorri ziran erregeetatik azkenengoa izan zan, eta astokeri galantak eginda gainera.

Afrika`tik, katolikotasuna ezartzen ibili zanean, VIII`n Gaztelar Alfonso`k, Araba kendu eutson eta Gipuzkoa beragaz batu zan.

Ordurako, Europa guztiko erregetzakaz senidetuta egon zan, eta gorago esango dan lez, erregetza guztiak euren erdira-zaletasunezko gogoaren asmoakin erritarrak kontuan euki gabe jokatu eben, ekaitzezko aize baltz-bat bezala erriaren gainetik artu ebezan, gaur arte irauten dabena.

Emen esan leike, berezkotasunarentzat beste aukera on bat agertzen dala, Eleiztarrak ezin ebezalako geratu ta lotu, ekinaldi batean ibili ziran euren arteko eta

kruzadatak o borrokak, erritarren eskaera gogorakaz, inork ezin ebalako geratu ainbesteko zoraldia.

Orregaitik, erregeak euren arteko asmakizunakaz joan ziralako eta erritarrak erriaren eta gizon/emakumeen askatasun ta eskubideak babesten ebezelako, alako berbak esan eta entzun bear ziran orduko denboratan: "NI ZURE BESTE, DANOK BATERA ZU BAINO GEIAGO" eta Obanos`eko ANDIZURENA`ren irrintzia: "Pro libertate patria gens libera siat" "ASKATASUNAREN SEMEAK, ZUTIK, ABERRIAREN ASKATASUNAK BABESTEKO".

1.237`an Lizarra`n, biltzar`en arduradun ziran errege ta zaldizkoen artean garrantzi aundiko eta orokorrean bete-bearrezko antolabidea egin zan: "Nafarroa`ren Euskal lege zarrak" idatzita ipintea Nafarroa`ko guztientzat.

Legea`ren idatzi bearra, gauza asko esangura dauz, eta nagusietariko bat, Euskal-oitura`ren aurka alegin aundiak egiten ziralako, erregetzaren erdirakoi berekoikeriagaitik.

Gizaldi onetan be, erritarrak eskatuta, jaurkintzaren ardurean aldakuntza bat egiten da eta Nafarroa merindadeetan bananduta geratu zan.

Nafarroa`ko I Enrike il zanean, Frantzia`ko errege III`n Felipe zanari, aukera aundi bat agertu jakon, Frantzia`ko lurraldeakaz Txanpagne ta Nafarroa`ko lurraldeekin bat egiteko.

Asmo orrek, Gaztelatarrak ikaratu ebazalako, Aragoi`koakaz batera Nafartarren artean zirikatuta, Aide nagusien banaketa lortu eben, eta orren ondorioan alderdikeria sortuta, Nafarroa`n gizarteko guda (guerra civil de la Nabarrerria) egin zan.

1.348`ko Irailla`n Izurri (peste) baltza edo artzaien gaixotasuna agertu zan, Nafarroa`ren gizartea, eunetik irurogeta amarrean murriztu egin ebana.

Orren ondorioa, lurgintzaren lanerako besoaren eza zan, eta gizartea gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsen.

II`n Karlos`ek, neurri gogorak artu bear izan ebazan gauza orreik baketzeko, baina batera, baserritarrak zirikitu ebazan aundiki batzuen aurka, bere seme III`n Karlos ezereztuta Aundikiak goraldtu ebazalako, eta batez be euren sasiko-seme ta onen semeak, euren artean bata bestien bekaitz (envidia) aundia eukinez batera, beti borrokan ibiltzen ziran. Onein eta benetazko seme edo legezko semeak euki ebezan arrokerizko norberkerien bitartez Agramonteses eta Beaumontesen Alderdikeriak sortu ziran. Oso gaiztoak ziran Nafartarrentzat eta European bardin sortu zalako, Europa`ko berezko-erri guztientzat.

Adibidez: III`n Karlos il zanean, Zurine (Blanca de Nabarra), bere alabaren eskuetan geratzen da Nafarroa`ko erregetza, Aragoi`ko errege II`n Juan`egaz eskonduta egon zana.

Zurine il zanean, bere senar II`n Juan`ek, bere seme Karlos`eri Nafarroa`ko erregetza ostu egiten dautso, ekintza onek gizarteko-guda piztuta.

Guda onetan, Beaumontesak benetako erregearen alde agertzen dira, eta Agramontesak Aragoi`ko erregearen alde.

Guda amaituzanean eta II`n Juan ilda, I Leonor bere alabak, Lerin`go Kondea`ri lurrak kendu ta erbesteratu egin eban.

Aragoi`ko errege Fernando, I Leonor`en anaia zana eta Isabel Katolikoaz eskonduta, Beaumontes`en alde argi kokatu zan, Lerin`go kondea beraganatuta.

Fernando`ri, Lerin`go kondeak emendik aurrera gauza guztietan lagunduko dautso, eta beren abertzaletasunerako garrantzi aundikoena danean be bai, 1.512`an Gaztelarrak Nafarroa menperatzen dabenean euren alde egon zalako. Emen arrigarritzko gauza bat ikusita: len Beaumontesak izan ba-ziran Nafarroa`ko legezko erregearen alde egon ziranak, orain, Agramontesak diralako Nafarroa`ko legezko erregearen alde dagozanak.

### 31. - Errege Katolikuaren gogoia zein zan Nafarroarako ?.

3.12. - Zergaitik esaten dot nik, Errege-Katolikoak ez ebala euki gogorik, Godo`en kaizar menperatzaille ariagaz edo Espaina kaizar-zaletasunagaz jokatzeko.

Leenengo esan bear dot, Armando Besga Marroquin, egi aundi bezala eta ondo apaindutako beren askeneko liburuetan (ET DOMUIT BASKONES) esaten dauala: Euskaldunak, Asturias`eko erregetzatik asi-ta, menpean egon garela beti. Sekula ez dogula euki askatasunik !.

Denbora aretako antzezlarriak ez dauz kokatzen alde batetik: errege-katolikuen aundikerizko asmakuntzan. Eta bestetik: Erritarren sinismeneko antzez-tokian.

Egia, Errian eta erritarrean dago, orregaitik eurak bakarrik azken baten agertzen dira JAINKOA eta LEGE ZAARRAREN oituran, ainbeste egipide-ustel ondoren, or dagoelako JAINKOA`ren borondatea.

Gai onetan, beste guztia, sasi-jaikotasunaren norkerizko-antolakuntzak diralako, Berezko-Nortasunak zapaltzen diranean.

Erritarrak, JAINKOA`k emoten dauskun eguneroko aukeran, betil agertzen gara prest, Nortasun-artean erritarteko antolamendu demokratiko on-bat egiteko.

Lotsagizun aundiz esan bear dot: edestilari asko dirala aundikerira urbiltzen diranak, mai-pera jausten diran ogi-zatiak arrapatzeko, erritarren arteko gertaera-lazgarriak adirazi barik.

Noiz-arte ?. Betiko borrokan sartuta egon bearra ?.

### ERREGE KATOLIKUAK:

Zergaitik esaten-dot nik, errege katolikuak ez ebela euki gogapenik Godo-menperatzailleen ariagaz ?.

Nai-ta gure jauntza 1.370`an, gero Espaina`ko errege izango zanaren Juan`en ardurapean jausi, eta onek 1.388`an Asturias printze-erria sortu Godo-menperatzaille ari-ori baten batek eraginda ostera be ezarri daiten, ez zalako izan besterik katolikotasunaren erdirakoitasunezko asmakuntz-aleginak eraginda baino.

Marraztatu daiguzan orduko antzezlarriak euren antzokian: Gaztela, Sobrarbe, Ribagorza eta Aragoi`ko aginterriak Nafarroa`ko erregetzatik sortuak ziran, eta guztiz sendi-giro baten sendituta egon ziran. Beste aldetik, erritarrak Euskeraz

mintzatzen zirala, lurralde geienez beintzat ekarten ebazan oiturazko lege-zarrarekin, ainbat borroka eginda Erromatar, Franko, Godo ta Mauritarren menperatzaille asmakuntzari.

Isabel erregina il-zanean, Fernando bere Aragoi`ko erreinura bota eben, Juana eta Felipe Gaztela`ko errege izendatuta.

Baina Fernando Germana`rekin eskontzen danean, seme bat euki eta Frantzi`ko erregetzaren jabe-gai-bidean ezarri, Gaztela`ko erregetzan gauza baragarriak sortu ziran, Felipe ur apur bat eranda il, Juana zoratu, eta ostera be Fernando`ri deitu Gaztela`ko erregetzaren ordezkotza aurrera eroan dagian.

Zizneros`ek, asko zirikatzen eban Fernando Nafartarrak menperatu dagiazan, baina onek sekula be ez eutsen jaramonik egin.

Bestela bai, Nafarroa`ko erregeak zigortu ebazan, bere lepotik Juana eta Felipe`gaz itzarmendu ziralako erri-bien arteko bakearen buruz. Fernando`k Nafarroa eta Nafartarren eskubide osoak lotsa aundian zaindu ebazan.

Fernando il zanean, arremenezko setsua indartzeko, larregi artzen ebazan belarrak (Aita Santuaren belarra: "El Maro" Kanarias`eko ugarteetan egoten diranak) il zala esate eben, bere emaste Foix`eko Germana`gaz, beste seme bat geiago euki gurean ibili zalako.

### 32. - Zelan jokatu eben Zizneros kardinala eta I Karlos`ek ?.

Gero ! Zizneros`ek Nafarroan eta Nafartarrakaz egin ebazan azken bako sarratskeriak, Nafartarrak euren legedian geratuta.

Eta I Karlos ezezaguna eldu zanean Toledo`tik zirikatuta, Gaztela`ko erreinuaren erritarrak sinismenez euki ebazan oiturazko lege zarrak kentzen alegindu ziran, itzarmeneko oituraren alde (comuneros) egon ziranaren buruak moztuta. Euskalerrria`ren legezko oiturak lotsean artuta, "guda geiegitan sartuta egon zalako ?". A-ta guzti, Araba`ko buruzagia Gonzalez de Baraona`ren burua Gazteiz`ko Plazan moztu eban.

Konturatu gaitazan orduko denboran, erritarren sinismena noraino egon zan erperatuta Lege-Zarraren oiturakaz, gogoan euki bear dogu Asturias eta Leon`go erritarrak, I Karlos`en aurka ibili zirala, nai erritarrak eta nai-ta erregeak be ! LEGE-ZARRAK sinismen aundian eukiten ebezalako.

Eta or aurkaldi (contradicciòn) gogor-bat dago, kaizargotzaren edestilaritzatik esaten dauskuzenak ez daukielako zentzurik, kaizargotzaren menperatzaille katolikotasun asmakuntzaren alegin-ori..., asieratik utsegille joan dalako, ainbat zorigaiztakeri eginda, morroitasunean oinarrituta egon zalako, erritarrak eta euren Lege-Zarrak kontuan euki gabe.

Gaztela`ko erreinuaren lurraldean lortu eban menperatzaille erdirakotasun ori, eta orregaitik gaur berezko Nortasuna galdu dabelako edo euren ardurak buruzagien eskuetan dagozelako noraezean dabiz.

I Karlos "Erroma`ko Kaizertza Sakratuaren kaizarra" izendatu eben, eta or agertzen dira berriz menperatzaille ari guzti orreik.

Nork erabilia ?.

Argi dago, guzti orren azpia katolikotasunagaitik marratuta dagoela.

Aurrera joan da, Austria`tar errege guztiak lotsan artu ebezala Euskalerrriaren oiturazko lege zarrak. Bildurragaitik ?. Ba-dagoz Euskal-erantzunen gogorrak Espaina`ko erregeari.

Borboia`kaz bardin, nai-ta oneek alegin gogorrak egin, baina Euskaldunak beti geratu gara gure legearen babesean.

Eta emen: uste-gabekeri bat ?.

Espaina`ren karlistadako guda, inoren lurraldean egin bear eben: "EUSKALERRIAN" adibidez ?.

Erregeak eta Katolikotasunak joan ziran, sinismen guztiak galdu dabezela.

Eta emen milloiko itaun: "Noiz arte ainbeste guzurrarekin ?".

Euskalerrriko erritarrak, jakituri aundiz, euren ardurak zaindu bear dituz, beren ordezkaritzari inork ez dautsolako ordezkorik egingo, euren ardurakoak ez diralako.

Mundu onen legeak, ordezkaritzaren arduran oinarrituta dagoz, eta au da Euskalerrriaren paregabeko aukera, berezkotasunaren etsaiak dakarsten guzurra, esneak daukan bitzaren antzera, goian eta agiri-agirian ikusten dogulako.

## - LAUGARREN ZATIA -

### 33. - I Karlos`ek artu eban bide okerra Europa alkartzeko, zein izan zan ?.

#### 4.0. - EUROPA ALKARTZEKO JOKABIDE OKERRAK:

##### 4.1. - I KARLOS:

1.516`an I Karlos`en aitaaita V`n Fernando katolikua il zanean, bera izendatu eben errege.

Ekarten eban erdirakoitasunezko asmakuntzari Gaztela, Balentzia`ko jermaniak eta Asturias-Leon`eko erritarrak baino nagusiak aurka agertu jakozan, bereala eta odolkerizko sarraski-gogor bat eginda bakeztu eban.

1.519`an bere aitita Alemania`ko kaizarra Maximiliano il zanean, bera izendatu eben, V Karlos izenarekin.

Frantzia`ko errege I Franzisko`gaz lau guda nagusi egin ebazan "Erroma`ko Kaizartza Sakratua"ren kaizarra izateko.

Lenengoa: 1.521-1.526`n urte bitartean egin ebana, Milan`eko lurraldea eskuratu eban eta I Frantzisko Pabia`n atxilotu, Bizkai`ko gudaria zan Urbieta`tar Juan`en bidez.

Turko`akaz be borrokatu zan Kristautasunarentzat keinadura edo zemakuntza aundia izan zalako.

Baina zelan aituko eben kristau-katolikotasuna kaizar oneik, Frantzia`ko erregeak I Frantzisko`k Turko kristautasunaren sinis-gabekoakaz bat egiten ba-eben beren aurka borrokatzeko, Tolon`eko kai-barrua euroi itxita itsas-ontziak eskutatuzeko ?.



Zeozar aitu leike, orduko denboratan Frantzia`k jaiotasunezko abertsaletasunaren ordezkotza iruditzen ebalako, Mundu osorako kaizartza baten billa ibili ziranaren aurka.

Bigarrena: 1.526-1.529`n urte bitartean sortu zana, Roma`ri eraso, arrapaka ta saskildu egin ondoren, Aita Santua VII`n Klemente`ren atzetik arrapetan joanda Frantzia`ko erregeagaz bat eginda egon zalako, onek Sant`Angelo`ko Gazteluan ostondu bear izan eban.

Zelan aitu emen., VII`n Klemente`k katolikotasunagaitik euki ebazan gogamenak ?.

Argi eta ots-aundiekin agertzen dana beti: Ludi onen berezko gizartea lotsagizunezko berdintasunean edo orekan oinarritzeko, danon bakea ordezkotza-arduran iraun dagian neurritz, larderialdiak bide-gabekerizkoak dirala.

Kristautasuna eta Katolikotasunaren ametsak..., elkargarriak dira ?.

1.530`an, Aita Santuak "Erroma`ko Kaizartza Sakratuaren" kaizarra izendatu eban, baina Frantzia`gaz borrokan iraun eban.

Irugarrena: 1.535-1.538`n urte bitartean.

Eta Laugarrena: 1.542-1.544`n urte bitartean, Niza`ko gudu-arte egin zanarekin geratuta, eta Krespy`ko bakeaz amaituta.

1.547`an Lutero`tarrak menperatu ebazan, gero 1.555`an bere anai Fernando`k, Augsburgo`n Erlijioaren bakeak egin ebazan, jaurleri edo agintariak aukera euki dagian Lutero`tarrakin naiz katolikotasunean jarraitzeko.

1.556`an ardurapean euki ebazan laterriak, bere anai Fernando eta II`n Felipe semearen artean banandu ebazan, eta 1.558`an il, Yuste`ko lekaide-etxean.

Emen argi ikusten dana da au be. I Karlos`en denboran Espaina ez zala izan erri edo Laterri bat, itzarmeneko aginduaren eginkizunakaz lotuta egon zalako.

Sekula be, gura eban menpekotasuna egizkoa ez zan biurtu, nai-ta Ameriketara ainbeste urre-gorri Amerikatarrai ostu, beti Nortasunaren lepotik, norkeriaren bitartez borrokatu ziralako, eta asmakuntz onein denbora oso neurtua dalako, diruaren amaieran eta erriak gogaitu egiten diranean ainbeste odolkerizko borrokaren bitartez.

Orregaitik Europa`ko kaizargotzaren ametsak, sekula ez ziran biurtu benetazko egi-bat, betiko edestian ametskeri utsa izan dalako, berezko erritarrak, ez ebalako euren Nortasunak gal-bideratzen.

Emen argi ikusten da, zelako zorotasunezko denborak ziran areik Mundu osoa kaizar-katoliko sasi-jainkotasunaren menpean eukiteko, Mundu onen indar ta mozkin guztia, gizon/emakumeak kontuan eukinda, lotsagabeko borrokak egiteko eta eurentzat gaztelu ta ezin aundiagoko jauretxeak eraikitako. Izkilluaren obekuntzakaz aztu barik, bata-bestearen artean aurka..., obeto astintzeko.

18 giz-aldi geroago..., konturatu ez, ezinezkoa zala !, edo alperreko ametsak zirala ?.

Eta lau gizaldi geroago (gaur)...., konturatzen gara ?.

Or ! gure gaurko borroka.

Lortuko ete-dogu..., ordezkartzen ardurak..., berez Nortasunezko bear diran lekuetan ezartzea ?.

Orretarako, gauza eta emakume/gizon bakoitzari berea emon bear jako, eta bidean len bait-len ipini bear gara, arrazoitasunezko izena ondo ezarrita eroan gura ba-dogu.

### 34. - Zein da orretarako Napoleon`en bide okerra ?

#### 4.2. - NAPOLEON:

1.769`an Dagonilla`ren 15`an Ajazzio Korzika`ko ugartean jaio zan zortzi nebarrebaren artean.

Bere sendia Korzika`ko aundikitasun artekoa izanda, lenengoetan Frantzia`ren aurka borrokatu ziran, oneik 1.768`an XV`n Luis`ek Genoba`ko errepublikari Korzega erosten dautsonean. Andik aurrera Paoli izan zan menperakaitz-taldearen burua.

Napoleon`en aita, Korsika`ko ordezkari lez joan zan Frantzira, eta ikaste-saria eskuratuta, Briene`ko gudari eskolan sartu eban, eta ikasketak amaitzeko, Paris`en Kanpo de Marte`ko gudari-eskolara bialdu eban.

Bere ikasketan ez zan izan argitsua, baina bere edestiko maisuak au esan eban: "Biziko gora-berak laguntzen badautsoe urrin joango da".

Jose, bere anaiak, Kortzega`ko jaurkintzan, orokorrezko-aolkularitzan ordezkari urten eban eta bera guda-teniente koronela izendatu eben. Baina Jose`k Korzika`ko Paoli, aberriko gizon ospetsuagaitik esan ebazan gauzakaitik 1.793`an asi-ta, ies ibili bear izan ebaen biak, Paolistarren mendekuari bildurrez. Andik aurrera, Korzega`ko askatasunaren kanpotik ibili ziran.

Frantzez abertzale biurtuta, Dugommier`en guda-taldeko kanoidun-arloa bere aginduan artuta eta Tolon menperatuta, 1.793`an Abendua`ren 17`an guda-nagusi egin eben.

1.795`ko Urrilla`n, Baras`ek, erregetzaren aldekoak matxinatu egin ziranean, deitu egiten dautso aurka egin dagiotzen, eta lortu eben garaipenagaitik, Frantzia`ren barruko guda-nagusi izendatu eben.

1.796`an Epaila`ren 9`an, Paris-matxinadaren gela-aundietan esku luzekoa izan zan Beauarnais`tar Josefina`gaz ezkondu zan.

1.797`an Italia`ren eta Austria`ren aurkako borrokan, Frantzia`ren guda-lozteko guda-nagusi egiten dabe, eta menperatu ondoren, Austria`tarrai galazo eutsoen Kanpoflorido`ko elkargoa sinatzea.

1.798`ko udan Ejipto`ra joan zan, ortik asita Ingalaterra`ri bear ebazan bideak zarratzeko eta azken baten India`tik botateko.

Malta ta Alejandria artu ondoren Uztailla`ren 21`an Piramides`eko borrokan, mamelukoak menperatu ebazan. Emen aipatu bear dana, Nelson`ek, Napoleon`en guda-ontzi-taldea ezereztu egin ebala 1.798`ko Dagonilla`en 1`ean. Eta bai esan bear da, Napoleon`ek 167 jakintsu eroan ebazala Ejiptora, euren oiturak goitik-bera ikertzeko. Ejipto`ko ekitaldiak, 1.798`ko uztailla`tik 1.799`ko Dagonilla`rarte iraun eban.

1.799`an Azaroa`ren 9`an Frantzian nausitzargoa (dictadura) ezartzen dabe, buruan iru nagusi dirala: Sieyes, Dukos eta bera. Gero Napoleon, Kontsul-ordezko izendatzen dabe, nausitzargoaren buru izan- da.

Napoleon`ek, jaurkintzaren nagusitasuna artuta, jaurkintzaren lanak zortzi taldetan banandu ebazan.

Lan orretarako, gizon jakintsuenak aukeratu ebazan, euren politikako alde-gogoak kontuan euki gabe.

Komuna`k edo Udal-Etxeak ziran Laterrien oinarrizko erpeak, eta lan aundia izan zalako eurak bideratzea, lenauko jaurkintzaren Feudal-Arauakaz aurrera egin eban, Udal-Etxearen arrazoiak bastartuta.

Orretarako, jerarki-arauz giza-mailla antolatu eban: Erri-Buru zaintzatik asita (prefectura), Buru-ordego (subprefectura), eta diru-zainak (sindicos). Danak barneko ministruaren agindupean. Goitik beerako agindu gogor baten sortu eban bere jaurkintza arlo guztietan.

Izendapen oneik, ez ziran izan demokratikoak, baina bere asmakizuna beteteko oso eraginkorrak. Gero, Frantzia`ko jaurkintz guztiak erabili ebazan, ia gizaldi baten bai beintzat.

1.799`an Napoleon kontsul egin ostetik, euki ebazan arremanen arrazoakaitik, jaurkintza gudu-jauntzar-aldi biurtu eban, eta eleizagaz txarto egon ziralako frantzezak, VI`n Pio Aita Santua Eleizaren agintzatik kendu ebelako eta aldikada baten utzik egon zalako San Pedro`ren jar-lekua, Frantzia ta Espaina`ren alde-kide zan Bernabe Chiamonti Kardinala Imola`ko gotzaina izan zana, 1.800`ean Epaila`ren 17`an VII`n Pio izenagaz Aita Santua izendatu eben arte. Ar- ezkeroztik, katolikotasuna indartzeko aleginetan asi ziran (inok ez dauana sinisten, bere aldera jokutzen ebalako. Eta ori izan zan berentzat Kristau erlijioa eta katolikotasunezko alderdia. Kaizartzangoa edesti guztian jokatu eban antzera).

Italia`tik etorri zanean eta apaiz-gizonak eliz-batzarrean batuta, auxe esan eutsen: "Gaur, Frantzia`ren agintaritza neure eskuetan dago eta gertu nago bear diran aukera ongarri guztiak ipinteko, erlijio au gogortu ta jabetu daiten".

Eta Jaurkintzan egin ziran aldaketakaz..., eta Erlijioari berpizten asko lagundu eutson lez..,Eleiza ekinaldi orregaz, bere egikeraren laguntzaille aundiena biurtu zan VII`n Pio Aita Santua`gaz, nai-ta geroago Napoleon`en aurkari aundiena izan. Baina ekinaldi onek, Eleizaren ta Frantzia`ko iraultzaren artean bakeak egiteko balio eban.

Lenengoetan, Eurpa`ko errege geienak bere alde ego ziran, bizitzak, euren menperatzaillaren arauetan iraun dagian.

Balekite bildurragaitik izatea.

Baina, konturatu ziranean euren menpekotasuna zala (Hitler`egaz bardin), Danak aurka kokatu ziran.

1.800`ean Austria ta Ingalterra`ren bigarrenko alkarteari aurka egiten dautso, Austria`gaz Marengo`n Bagilla`n garaipena lortu eta Lunebille`n bakeak sinatuta, eta Ingalterra`ri Hohenlinden Abenduan irabazita, Amiens`en bakeak sinatuta. Ingalterra`k Frantzia`ri, atzera eman bear eutsozan Frantzia`ri artuta euki ebazan koloniak.

1.800`an Napoleon`ek Frantzia`ko diruaren-kutxa sortzen dau eta beragaz, diruaren banaketazko-jaurkintzan erdirakuntzaren agintaritza.

Emen artzen dau menperatzailletasunezko bidea, jaurkintzaren arlo guztiak erdiratuta, eta berezkotasunaren aurkari amorratu biurtuta.

1.801`an Uztailla`ren 16`an sinatu zan Eleiz-ituna, Napoleon`ek baldintza-bi auek ipinita: a) Frantzia`ko Gotzai guztiaren ardurak berari uztea, berrizkuntzazko aurrerapen bat asteko, eta b) Eleizaren ondasunak saltzea, jaurkintzak abadeai, lan-zari bat ordezt emonda.

Ortik aurrera Napoleon`ek berak izendatzen ebazan Gotzainak iraultzaren aurretik egon ziran arauakaz, Aita Santuak bereinkatuta.

Kaizar eta Aita Santuaren arteko arremanak, oso bekaiztiak ziran, kaizarrak bildur aundia eukiten eutsolako Aita Santuaren aalmenari. Aita Santua`ri, Batikano`ko Laterrien jabetasuna guda-indar eta arau-bidez debekatuta, 1.929`an Otsailla`ren 11`n Mussolini`k XI`n Pio Aita Santua`ri Batikano Laterriaren jabetasuna emon arte.

1.802`an Epaila`ren 25`an Ingalaterra`gaz Amiens`eko itun edo egiunea sinatzen dau. Eta Loraila`ren 8`an omenezko lejioa (legion de honor) irasi egiten dau.

Dagonila`ren 3`an bizi-arteko kontsula egin ondoren eta jaurkintzarako beren urrengoa aukeratzeko eskubide osoa emon eutsoelako, ostera, erregetzaren jaurkintza berrezkuratu eban, nai-ta erregetzazko gudu-jaurkin bat izan.

1.803`an Jorrailla`ren 7`an, 12`ko Germinal`eko legeakaz, diru-banaketaren arauak ezartzen dauz.

Loraila`ren 13`an Frantzia eta Ingalaterra`ren arteko guda asmatzen asten da. Ingalaterra`k Malta`tik ez dau urten gure, eta Frantzia`k, Olanda, Suezia eta Piamonte`tik ez dau gura alde egin.

Loraila`ren 16`an Ingalaterra`k Frantzia`ko diru-kutxak gerazi edo baitzen dauz, Napoleon Ingalaterra`ri erasoaldi edo sarraldia egiteko prest agertuta.

Napoleon`en goraldian Europa`ko errege geienak lenengoetan bere alde dagoz. Erregetzaren maldaberan, menperatzaileak, Frantzia`ko iraultzagaz itxaropen aundia eukin ebelako Europa guztian gaur daukaguzan Laterrien asmakuntz barria ezartzeko, Europak ta Munduak arau bardinetan iraun dagien. Baina, balekite euren menpetasunaren bildurragaz ikusiko dan lez bere maldaberan, danak beren aurka alkartuko dira.

1.804`an Epaila`ren 9`an, Kadoudal atxilotu egiten dabe, Napoleon iltzeko asmoan zeletazko-antolamenduan ibili zalako. Bonzennes`en, Epaila`ren 20`an Enghien`eko Dukea il eben.

Epaila`ren 21`ean gizarteko lege-sorta jardueran asten da.

Napoleon`ek onen buruz esaten eban: " Nire benetako ospea, ez dago berrogei guda-nagusietan garaipena lortzean, gain-marratu ezerk ez dauana egingo eta betiko bititza eukingo dauana, nire GIZARTEARENTZAKO LEGE-SORTAK dira.

Loraila`ren 18`an, Napoleon`eri Senatore-Batzarrak, kaizartzaren burestuna edo koroia eskeini eutson.

Abendua`ren 1`ean Frantzia`ko ordeztako kardinalak, Napoleon ta Josefina Eleizatik ezkondu ebazan, ararte erriko epaitegitik bakarrik eskonduta egon ziralako, beste lekuko aitorle aurrean egon barik.

Abendua`ren 2`an VII`n Pio`k, Napoleon ta Josefina kaizar Sakratu bedeinkatu ebazan.

Napoleon`ek, bere burua eta bere emazte Josefinaarena koroatu ebazan, Aita Santua`ren eskuetatik koroiak kenduta.

Napoleon`ek keinada orregaz, Mundu onetako guztien ulertzera emon gure eban, gai onetan bere ginetik ez dagoela inor, ez da gogoaren edo arimaren arloan be.

1.805`an Jorrailla`ren 11`n, Ingalterra, Austria eta Rusia`k irugarren alkartasuna osotzen dabe Napoleon`en aurka.

Loraila`ren 26`an Milan`en, Napoleon, Lonbardia`ko erregearen burdinezko koroiaz Italia`ko errege izendatzen dabe.

Onen ostetik asten da Napoleon`en ospea maldaberan, Europa`ko Laterriak alan erabagitu ebelako, VII`n Pio Aita Santuarena gorantza eginda, nai-ta oraindino beren gudalozteakaz Europa`n ainbat garaipen lortu.

Urrila`ren 21`an, Trafalgar`go itxas-borroka aundian, Nelson Ingelezak, Frantzia ta Espaina`ko itxas-ontzidiari irabazi eutsoen. Nelson bera be il-zan borroka orretan.

Borroka orren garaipenagaz Inglesak itsasoaren ugazabak egin ziran, Napoleon`ek euki ebazan asmoak Ingalterra indarrez artzeko, Boulogne`n apaintzen egon zan gudalozte aundiagaz, ezereztuta.

Abendua`ren 2`an, Napoleon`ek Txekoeslobakia`n, Austerlitz`eko erri inguruan, Rusia ta Austria`ren aurka egin zan iru kaizarren odol-zalezko borroka deritsonari, ezereztatu egin ebazan.

Abendua`ren 26`an, Austerlitz`eko guda ostean Bratislaba`n, Napoleon`ek eta Austria`ko I Frantzisko`k alkargo bat sinatu eben, Napoleon`en alde Beneto Italia`ko erreinuagaz bat eginda geratu daiten eta Alemania`ko Babiera ta Wütenberg erreinu lez ontzat artu bear ebezan. Ekinaldi orregaz Austria`ri itsasorako bide guztiak moztu eutsozan.

1.806`ko Urtarrilla`n, Willian`tar Pitt`ek, Napoleon`en aurka 1.793 eta 1.798`an elkartasun bi lortu ebazanak, politikari aundia eta Irlanda`ren benetako abertzalea il zan.

Urtarrilla`n, Napoleon`ek, bere anaiak Luis eta Jose izendatzen dauz Olanda ta Napoles`eko errege.

Uztailla`n, Napoleon`ek Alemania`ko 16 Laterriakaz Rin`eko alkartasuna lortzen dau Frantzia`gaz gudarako elkartean, bera urgazle edo jagole izendatuta.

Dagonilla`n, Germania`ko Erromatar Kaizar Sakratua ezereztu egiten da. II`n Frantzisko Germania`ko Kaizar-jauntzatik, Austria`ko I Frantzisko Kaizar`era aldatuta.

1.806-1.807`ko urte bitartean, Napoleon`ek, Austria-Ungria, Prusia eta Rusia`ren osotutako laugarren alkarte ezereztu egiten dau, 1.806`ko Urrilla`ren 14`an Jena ta Auerstedt`eko borrokan Prusia azpiratuta, Zemendi edo Azaroa`ren 21`ean Polonia`n sartzen da eta Europa`ren esi-aldi edo Ingalterra inguratzea agintzen dau. Bertan, Walewska`tar Maria, Polonia`ko konde-andrea ezagutzen dau, eta beragaz seme bat euki eban. Eta Rusia`ri 1.807`an Kaliningrado`ko lurraldean Eylau errian, Alemania`rena 1.945`eraino izan dana eta ordutik ona Bragatiovsk deituten dana, Otsailla`ren 8`an leenengo borrokan, eta Bagilla`ren 14`an Friendland`en, Tilsit`eko bakea sinatuazota.

Bagilla`ren 24`tik Uztailla`ren 9`ra Napoleon, I Alejandro Errusia`ko kaizarragaz Tilsit inguruan alkartzen da, eta onek on artzen dauz Frantzia`ren guda-garaipenak, eta Napoleon`ek on artzen dau, Errusia`ren mugak zabaltzea Finlandia barruan sartuta.

Wesfalia`ko erreinuan, Geronimo Bonaparte egiten dau errege, eta Barsobia`ko duke-erria Sajonia`ko erregeari.

Azaroa`n, Portugal`ek, Napoleon`en aginduari Ingalaterra inguratze-ko aurka agertzen danean, onek Junot guda-nagusia Lisboa`ra bialtzen dau.

1.808`an Otsailla`ren 3`an, Frantzia`ko guda-lozteak Miollis guda-nagusi buru dala Erroma`n Sartzen dira, VII`n Pio Aita Santuak Ingalaterra inguratzeari ez dautsola laguntzen aitzakiagaz.

Epailla`n, kaizartzaren Ikastetxe-Nagusia sortzen dau, ikastetxe-jabedunak zainpenean ipinita.

Epailla`n, Murat`ek guda-nagusia Madrill artzen dau.

Espaina`n, Jorrail-Lorailla`ren illeetan erritarrak matxinatzen dira, IV`n Karlos beartzen, erregearen koroia VII`n Fernandori emoteko. Napoleon`ek Baiona`n, biak daukaz atxilotuta eta bere anai Jose egiten dau Espaina`ko errege.

Frantzesakaz, Marian Luis de Urkijo eta Jose Mazarredo`k artu-emon onak euki ebezan, eta Bizkai`ko Batzar Nagusia`n Mazarredo buru izanda, Jose Bonaparte`k itz eman eban Bizkaiko Jaun lez.

Garat anaiak, Lapurdi`ko izatasunagaitik gogor jokatu eben. Eta Garat`tar Josep`ek Napoleon`i, bein eta berriro eskaini eutson Euskalerriko Laterriak bateratzea "Fenizia Barria" izango zan Frantzia`ko Lurralde baten.

A ta guzti, Napoleon`ek Euskal-Nortasuna on-artu ta be, berak Europa`ko Laterri guztiak lez, Euskal izaera be Frantzez biurtu gura eban.

Uztailla`ren 23`an, Dupont`eri Espainolak Bailen`en irabazi egiten dautsoe.

Dagonilla`ren 1`ean, Wellington`ek guda-lozte ingelesak Portugal`en legorreratzen dauz.

Iraila`n, Napoleon I Alejandro`gaz Erfurt`en alkar ikusten da.

Azaroa`ren 5`ean, Napoleon Espaina`ra etortzen da eta Madril beraganatu egiten dau.

Espaina`n Frantzesaren aurka, ordurarte ez ziran ezetzen gudu-arauetako antolamenduan, asten dira sasi-gudak.

1.809`an, Napoleon Frantzira itzultzen da, Austriarrakaz euki eban elkartea apurtzen dala jakin ebenean, eta bai-ta Foutxe ta Talleirand ixilka, beren aurka alkartu dirala.

Lorailla`ren 13`an, Napoleon Biena`n sartzen da.

Bagilla`ren 5`an, Napoleon Biena`n ondoan dauan Wagan erritxoan, Austriarrak menperatzen dauz. Napoleon, ango sarraskia ikusita: "Emengo eriotzea Paris`ek bakarrik konpontzen dau gaba baten".

Bagilla`ren 10`ean, Napoleon`ek Roma eta Aita Santua`ren Laterriak bereganatzen dauz, eta Aita Santua erbesteratu.

Urrilla`ren 14`an, Napoleon`ek Biena`ko alkargoaren bitartez, Prusia bakantzea eta Europa zatitzea lortu eban.

Abendua`ren 16`an, Napoleon ta Josefina`ren arteko eskontza ezereztu egiten da. 1.810`an Jorrailla`ren 2`an, Napoleon Austria`ko Maria Luisa printzeagaz eskontzen da.

1.811`n Epaila`ren 20`an, Erroma`ko erregea jaiotzen da, arrano-kume deitzen eutsoena.

1.812`an Jorrailla`ren 25`ean I Alejandro`k Napoleon`i azkeneko itza emon eutson Prusia`tik alde egin dagian.

Bagilla`ren 24`an Napoleon`ek Bielorrusia ta Lituania`ren artean dagon Niemen ibaia zearkatu egiten dau eta Rusian sartzen da 600.000 gudarigaz. Errusiarrak atzeratu egiten dira, lur-errearen antolabidea egin da, frantzesak janari barik izteko.

Dagonilla`ren 17`an Smolensko menperatzen dau.

Irailla`ren 7`an, Napoleon`ek Borodino`n Errusiako gudalozteagaz aurrez-aurre kokatuta, Kutuzov`ek bideratzen ebana, odol-zaleko borrokan baten bidez menperatu ebazan, Mosku`n sartzeko bidea aske itzita.

Irailla`ren 14`an, Napoleon Mosku`n sartzen da, eta alperrik itxaroten dau Errusiarrak bere aurrean agertu daitezcan.

Urrilla`ren 19`an, Napoleon`ek neguaren bildur Mosku`tik alde egiten dau.

Urrilla`ren 22`an, Frantzia`n Malet matxinatu egiten da eta egun bateko garaipena lortzen dau, Napoleon`en eriotza zabalduz.

Abendua`ren 18`an, Napoleon`ek Gudaloztea izten dau eta Paris`era doa.

Errusia`tik Frantzia`ko gudaloztearen atzerakadan, otz aundiko neguaren bitartez eta Errusiatarrak Frantzia`ko gudaloztearen atzea eten barik murrizten joan ziralako, joan ziran 600.000 gizon`etik 120.000 bakarrik eldu ziran.

1.813`an Otsailla`ren 28`an, Prusia eta Rusia elkartzen dira.

Loraila`ren 2`an eta 20`an, Napoleon`ek Rusia eta Prusia`ko gudaloztea menperatzen dauz, leenengo Lützen`eko errian, eta bigarren Bautzen`eko errian.

Bagilla`ren 21`an, Wellington`ek Araba`ko Gazteiz`en Frantzia`ko gudaloztea menperatzen dau.

Dagonilla`ren 10`an, Austria gudan sartzen da.

Irailla`ren 16-19`ra, Leipzig`en Laterrien borroka nagusia egin zan, Prusia, Rusia, Austria eta Suezia`ren alkartea, Stxwartzenberg, Blutxer eta Bernardote`ren aginduetara, Napoleon`en aurka. Alkartea garaipena lortu eban, eta ekintza orren garaipena Alemania`ren askapena esan- gura eban.

1.814`an Urtarrilla`ren 25`ean, Napoleon`ek Paris`etik urtetan dau eta azkenez ikusiko dauz bere emaste Maria Luisa kaizar-andrea eta bere seme Erroma`ko erregea.

Otsailla eta Epaila`ren bitartean, frantzesak irabazi egiten dautso alkarteari: Txanpaubert, Montmirall, Bautxanp eta Montereau`en, baina elkarteak aurrera egiten au.

Epaila`ren 31`n, Errusia`ko kaizarra eta Prusia`ko erregea Paris`en sartzen dira euren gudalozteakaz.

Jorrailla`ren 1`ean Talleyrand`ek bitarteko jaurkintz bat sort-arazten dau.

Jorrailla`ren 2`an, senatore-batzarrak, Napoleon`en itzaltzea aldarrikatzen dau.

Jorrailla`ren 6`an, Napoleon`ek bere uzte-agiria beteten dau.

Jorrailla`ren 20`an Elba`ko ugarterantza urtetan da.

1.815`an, Napoleon`ek Jakinda bonapartistak eta errepublikanoak zelako azpikeri-asmakuntzan dabizen, Frantzia`ra itzultzea erabagiten dau.

Epailla`ren 1`ean, Juan deritson itsas-golkoan lurra artzen dau.

Epailla`ren 20`an Napoleon Paris`era eltzen da eta XVIII Luis`ek alde egiten dau.

Bagilla`ren 16`an, Ligny`n Prusia`ko gudalozteia menperatzen dau, Blützer`en agindupean egoana.

Bagilla`ren 17`an Wellington`ek arineketan alde egin bear dau Napoleon`en gudalozteia atzean inguratzeko aleginetan dabilela.

Bagilla`ren 18`an Wellington`ek Napoleon`i Waterloo`n aurrea emoten dautso, alkartearen gudalozteak agertu daitezcan itxaropenarekin, eta alan sortu zan arratsalde inguruan, Napoleon eta bere gudalozteia menperatuta gudaldi-odolkoi aretan.

Bagilla`ren 22`an, Napoleon`ek osteria be beartuta izte-agiria bete egin bear dau.

Uztailla`ren 15`ean eta Ameriketara ezin ebalako alde egin, Bellerophon itsas-guda-ontzian, Inglesaren aurrean menpekotu egiten da.

Emendik, Santa Elena ugartera eroan eben, eta 1.816`tik 1.821`eko Loraila`ren 5`ean pozoindua il-arte, bere oroimenak Kases`eri astiro esan eutsozan idatzi dagizan.

Gaur, bere gorputzaren auts-kondarrak, Paris`eko "Los invalidos" ostal-etxean 1.840`garrengo urte ezkerotzik dagoz.

### 35. - Zer geratu zan Napoleon`en ondorio lez ?.

#### NAPOLEON`en ONDORIOA:

Bounaparte`tarrak izatez Lonbardoa`k ziran, Sarzana`tarren sendi aikoa edo besanga baten buru izan zana Bounaparte`tar frantzisko 1.512`an Korzega`n kokatuta.

Karlos bere aita, Korsika`ko ordezkari lez Frantzira joan zanean abizena Frantzez biurtu eban "Bonaparte", eta Lenengoetan Korsika`ko aberriaren abertzale edo erri-zaleak izan ba-ziran be, Napoleon 1.789`ko iraultzagaz bat eginda egoan eta Frantzes aberri barriaren kide egin zan oso osoan.

Napoleon`en antolamenduzko lege-bilketaren lana, erabagi-bi onen bitartez ulertu leike: 1.804`ko lege-sortan, Europa`ko errege geienak euren jaurkintzarako artu ebenak, eta 1.806`ko Kaizartzaren-ikasbideak.

Lege onekaz berrikuntza asko asi ziran egiten gizarteak bear dabezan arlo guztietan, aurrerakuntza aundia zalako, eta bide batez, erritarrak bere jaurkintzaren oiturazkoak egin-gura ebazalako.

Erria, ez 1.789`ko iraultzak, ez da Napoleon`ek be, eukiten eban kontuan, erritarren baimena garaitu egiten ebalako eta bere gainean egin.

Baina bere norberia gorantza joan zan lez, neurri orretan gudak be bai. Bere naikundea Karlomagno`rena baino aundiagoa izan zalako, Errusia ta Austria Europa`ren Lurraldeko arauetan sartu gura ebazalako.



Mundu-fisiko onetan, gazteak, gero ta guda geiagotara eroaten badozuz nekazaritzatik, lurra lantzeko eza berez agertzen da, nai-ta Frantzia`ren aberastasuna bere gizartean eta nekazaritzaren lan egiteko almenean egonda.

Baina berak esaten dau zer gertatuko dan: " Neure al-izatea, neure ospe aundiagaitk mantendu egiten da, eta nire ospe-aundia, lortu dodazan guda-garaipenetatik. Jausi egingo da neure al-izatea ez ba dot garaipen geiagorekin elikatzen. Naizena, garaipenak egin nabe, eta nire goigorengo malla orekatzea, garaipen barriakin bakarrik lortu leike". Edesti guztian, goi-maillako kaizarra izateko ametsak askok eukin dabez eta asko izan dira goiko mallan ibili diranak, danak jakinda noz dan amets orrein amaiera. Napoleon`ek ondo jakin eban amets ori ezinezkoa zala.

Nekazaritzan baserritarrak oso arduratuta bizi ziran, gero ta beso gitxiago egon zalako lurra lantzeko, eta askori emon bear..., orregaitik baserri`tar bateri itaun egin ondoren: ia berak zer eskatu legokio orokorreko laterriari (estados-generales) ?. Bere erantzuna ez zan guztiz berak gure ebana, baina auxe erantzun eutson: " ezeztatu daiezala untxiak, usakumeak eta abadeak. Lenengoak garie loran dauanean jaten dabelako, bigarrenak gari-bikor edo gari-aleak eta irugarrenak azao edo ezpaletan".

Napoleon "Errroma`tarren Kaizar Sakratuaren" billa ibili zan. Ez eban lortu Frantzia`ren kaizartza baino, eta ezin-geiagoan beldurgarrizko etsipen-odoltsua.

Sort-arazi ziran laterriak gogamen orregaz, bide zabala eta almena itziten dautsez urrengo Aleman-Hitler ameslariari, eta danok dakigu zer gertatu zan.

Eta gaurko erdirakoitasunezko Laterri oneik, beti beartutako batzangotasunaren billa dabizenak, Mundu onen mozkin eta indar guztia euren eskuetan egon daiten, sasijainkotasunera jokatzeko, zein ameslariri emongo dautso urrego txanda ?. Amerikarrai ?.

Berezko erria beti geratzen da bere lekuan. Ez da izango ordua...  
BEREZKOTASUNEAN edo JANKOIKOA`ren LEGEAN JOKATZEKO ?

Nik uste dot, Mundu onen erri ta gizarteari bein-baten aukera ta Almena emon bear jakola, beren borondatez BATZANGOTU daiten, beti aurretik ibili barik mozkin eta ospe guztia jan gurean. Ekintza orregaz erri ta gizarte guztia ARDURABAKO-XAUTZAILLETASUNERA, gaurko-lez bideratzen dalako.

NORK BIZI GURA DAU NORTASUN BARIK....?.

### - BOST`GARREN ZATIA -

#### 36. - Agertu egizuz Europa alkartzeko bide zuzen batzuk.

#### 5.0. - EUROPA ALKARTZEKO BIDE BARRIAK ETA ONDORENAK:

#### 5.1.- JAURKINTZAN ZELAKO ONDOREA GERATU ZAN ERREGETZAREN OSTETIK ?:

Europa guztian gudako arau bardinakaz ibili ziran, baina Euskalerrria`ri begira asiko gara.

Gure lege-biltzarretan Gaztelera sartzeko, alegin aundietan ibili ziran, eta 1.614` an Abendua`ren 10` ean indarkeri aundiz lortu eben gure Batzar-Nagusietan Gaztelera sartzea.

1.700` etik aurrera, V`n Felipe indar aundiakaz eta lotsarik gabe asi zan gure Nortasunezko legeak egiteko eskubideak ezereztuten, baina Euskaldunak aurka eginda aurrera eroan eben askatasunezko eskubide ori XIX`n gizaldirarte. 1.876` ean espataren bitartez Euskaldunak menperatuarte.

Emen itaun aundi bat agertzen da: "Alabearrezko edo ustegabekoa izango zan....., Espaina`ko gizarte-guda...(karlistadak), Euskalerrian erabagitzea ?". Ori ez dau sinisten inork-be. Gaur danok dakigulako, len Europa`ko erregetasun guztia, eta gaur euren ordezko laterriak alkartuta egon dirala beti, Europa`ko gizartea on-bideratzeko aleginean. Baina beti (eta emen utsa) gizartea kontuan euki gabe.

Bizitzazko Mundu onetara, danok jaiotzen gara ordezkaritzaren arduradunak izateko, eta ez dago gure eskuetan izaera ori aldatzea.

Orregaitik, Europa guztian eta Espaina`ko laterrian batez-be, erregetzazko jaurkintzaren sinisgarritasuna guztiz maldaberan egoalako, Ameriketatik ostuten ebazan urre-gorriaren iturriak amaitu ziralako, eta erritarren jakintza gorantza joanda askatasunaren bideak besarkatuta, erregetzaren gaiezatasuna agiri-agirian geratu zan.

Ori ikusita, eta Europa`ko laterrien jaurkintza oraindino erritarrak erabagiaren arloetan ez ebelako kontuan eukiten, Europa`ko Jakitun erdirakoi-zale ziranak Eleiz`tar batzuen katolikotasunagaz batera, Frantzia`ko iraultzaren ondorengoari begituta, Frantzia`ko lurraldean bizi ziran erri-bereziak frantzesak biurtu ebezalako, aukera orren billa asi ziran, Europa guztiko erregetzaren ordez gaur daukaguzan laterriak ezarri daitezcan, berezko erriak ezereztuta.

Eta saio-aldi orretan ez zalako egiten euren naia edo arrazoiaren argiak ez ziralako biztuten euren alde, Espaina`n beintzat, nai errege atzerritarra (Amadeo de Saboya) ekarri, jaurkintza gudarien menpean ezarri, bertoko erregea (XII`n Alfonso) ipini nai Errepublikak`ko jaurkintza sort-arazi, berezkotasuna naspilduta bere nortasunezko osotasunean uts-egin dagian eta laterri-berri orreik on-artu daiezan, erabagi gogorak artu ebezan.

Negargarrizko erabagi orreik, Mundu`ko 1`go oso-mingarri ta odol-zale izan zan guda-nagusia 1.914-1.918`ko urte artean ekarri euskuen, ezertxo-be ez ebana erabagi.

Gero preminak aleginduta, Espaina`n asi ziran 1.936`ko gizartearen oso-mingarrizko gudan, Franko-Mola buru zirala, Frantzia ta Ingalterra`ren bildurrezko ixiltasunagaz, eta Alemania-Italia`ko gudaloztearen laguntzagaz, erdirakoi-zale eleiz`tar Katolikuak bedeinkatuta, lortu eben erdirakoitasunezko menpekotasun ori erdi ugarte onetan ezartzea.

Baina edesti guztian sortu dan antzera, Mundu`ko kaizartzaren al-gabekeria geratzen zan lez lortzeko eta Gai onetan, sasi-jainkotasunaren asmakizunezko leize-zulo orrek ez daukelako amaierarik, Espaina`n menpekotasuna lortuta, Alemania, Japon ta Italia joan ziran Mundu onetan erdirakoitasunezko menpekotasuna ezartzera (Erromatarren Katolikotasunezko-Kaizar Sakratua).

Asmakizunezko ekintza orreik, Mundu onetan ezin-besteko, 1.940-1.945 urte bitartean, negargarrizko bigarren guda-nagusia ekarri euskun.

Ez zan erabagi gauza aundirik, arinago espataren indarrez ezarri ziran laterriak oinarri-lez iraun ebelako, berez-legezko errien gizarteak menperaturik geratuta.

Gizatasunen eskubideak sinatu ziran, baina espatakaz ipinitako laterrien menpean.

Nun geratzen dira...., gizatasunaren ordezkarietzako bear-bearrezkoak diran ardurak, Laterri orreik euren eskuetan artzen ba-dabe ?.

Gaurko Berezitasun onetan ezin lei urletu, nor-berak danon ardurak eskuratu, eta diru edo espetxearen zigorrez erritarrak beartu, ardura orreik bete dagiezan.

Gainera, Menperatzailleak diruaren indar guztia euren eskuetan eukiteko, xautzailletasunezko bizi batera bideratzen gaitue, gizartearen borondate-on guztia lupeztuta.

Ekintza orren ondorioa zein da ?. Begi bistan dagoena: Gizartearen bizitzako borondatean "Arduragabearen Xautzailletasunezko eta Zorotasunezko Lokatza".

Zelako giza-barnean ezarri-gura gaitue ?.

Betiko "Erromatarren-Kaizar-Katoliku-Sakramentuan", batzuk Sasi-Jainkotasunezko bizia egin dagien ?.

Ludionen Legeak, bizitasunari eta batez be arrazoidun gizarteari, beste soiltasun edo jokabide soil-batera agintzen dautsoz beren oinkadak bideratu dagiezan, "Gizartearen Askatasunezko Argiak: Ordezkaritzaren Esku-bideak danon aldetik eta Lotsagizun aundiz ondo zainduta Biztuten Diralako".

Erregetza ta Laterriaren edestian, euki doguz zeaztasunezko Nortasun eta barne-garbiko gizon/emakume batzuk, eta gaur be. Euren borondate onean sinestuta, etorkizunean berezko izatasuna lortzeko, borondatezko gizaren Arima-barnea JAINKOA`gandik datorrela jakin daualako, eta benetako izaerari lotsa aundia eukin dautsielako. Baina beti geratu dira xautzailletasunezko menperatzaille orren arauak menperatuta, ainbeste denboran, egindako inguru-giro oker orrek, erpe sakonak daukazelako.

Orain, borroka gogorrean gagoz daukaguzan laterri-arau orrein aurka, gizakiren eskubideetatik asi-ta, laterriak txarto sortuta dagozelako. Izkillu-barik izan bear dauana, arlo orretan eurak diralako geiago eta alegin aundiak egiten dabezelako guda arlo orreik piztu daitezcan garaille irauteko.

Danon Nortasunean, zeaztasunezko arduraren lotsagaz jokatu ez-gero, beti agertuko da berezko bereiztasuna garaille askatasunaren bakea lortuta.

Eta ekintza ori mugatzeko ESAKIZUN zaar sakon ta ederra daukagu aberkideak: "DANOK BATERA, baina NAASTU GABE".

### 37.- Zer aldarrikatu eban arlo onetarako Arana`tar Sabino`k ?.

#### 5.2.- ARANA eta GOIRI`tar SABINO:

Gure Euskaldun nerekoiak edo buru-zaleen arteko aundikerietan ibili ziranak, kaizar-menperataille asmakuntz ori onartuta eta bizitzarako bear dan ordezkariak

eureganatuta, gai onen atsegingarritasunean ondoen bizi al-izateko, Europa`ko berezko erriak eta Euskalerrria batez be, izatasungabeko maldaberan euki eben bideratuta.

Gainera, erdirakoitasun orreri laguntza aundia emon eutsoen, Europa`ko laterri guztiak 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren ostetik erregetza maldaberan egon ziralako, bat eginda gudarako alkartu ziralako berezkoitasunaren demokraziari aurre egiteko, eta lortu eben espataren indarragaz, gaur oraindino daukaguzan laterri-menperatzaille onein indarra ezartzea.

Gure Erria`ren il-zoriko orretan eta Euskal- seme guztien artean, bat agertu jakun indartsu ! biotz guztiaz esaten ebana: "EZ DA EGIA ORI", "EUSKADI DA EUSKALDUNEN ABERRIA !!".

Sendimen eta Ulermen aundikoa izan zalako eta orregaitik begi zorrotzekoa, laster agertu jakon etsitasunezko gogamen au: "JAIOKO NINTZAN NI ZEURE IL-ORDUBAN ELTZEDO ?".

Baina laster emon eutson erantzuna: "BEDEINKATUA IZAN DAITELA, NIRE ABERRIA EZAGUTU NEBAN EGUNA, eta BETIRAKO EZKER-ONAK, ARROZTASUNEZKO ILLUNTASUNETIK ATARA NABENAI".

Ortik aurrera eta il-arte, ikaragarritzko lana egin euskun lumaz ta mingainez.

Or erri baten bere goi maillako semeak. Kontuan eukiten dituenak, bizitz au, ez dala bakarrik jaiotza ta eriotza, artean zeozertarako agertu gariela baizik. Eta ori gatx ulertzen da, benetan demokrazizko ordezkartzaren arloan jokatu ezik.

Sabino laster konturatu zan, demokraziaren legeen gaintik, erdirakoi-zaleen askakuntza, danon ardurak ta diruak euren eskuetan eukinda-be, guzurraren arrazoia ardurabakoa dalako laburra dala, eta nai-ta Ludi onetan errezena izan, gatx luzaro ondoen bizi al-izateko, JAINKOA`k ipini gaitun neurritzko ardurari begitu barik. Egiaren bidea ardurazkoa dalako, apurka eta gauzak ondo eginaz JAINKOA`rengana garbi igoteko.

Euskalerrria, eriotzako gaixotasunetik atara eban, bere maitetasun eta zentzunezko egikerea erakutsiaz.

Urrin ikusten ebalako, E.A.J. Espainol-Laterriaren demokrazizko antolamenduan sartu ezker (Europa`ren demokrazizko antolamentu barrian, guztiz bearrezkoa ta egarritzkoa zana, sartzen ebalako errien arteko bakeak lortu daitezkan): Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa, euren antolamentuakaz ikusten eban. Eta askatasunaren arrazoian aurrera egiteko, erri nagusieri mezu garbi ta zeatzak emoteko alegindu jakun, bai Katalana`kin artu-emonak sakontzeko bion elburuari buruz, ta Galizia, Aragoi, Balentzia eta abar`en Lurrealdeko zaletasunak, danak on-artuak izango ziranak bizkortu, Espaini guztian alkar-zaletasun aundi bat sortu dagian, askatasunezko bide ortatik Euskalerrria`ren giza-barrena osatzen alegindu gaitezkan.

Sabino`k, lau Lurrealdeko Aldundi artean arremian estuak gura ebazan ezarri, Euskalerrriak erri baten itxura artu dagian.

Bera zan lendabizi Euskaldun bakoitzari esaten eutsona "EUSKALERRIA ZURE ABERRIA DA".

Sabino ez zan bakarrik EUSKALERRIA`ren AITA, ERRITARGO`en AITA be izan zalako zalantzarik gabe.

### 38. - Zer egin eban Agirre`tar Jose Antonio`k Sabino`ri jarraituz ?

#### 5.3. - J.E.L. AGIRRE`tar JOSE ANTONIO, eta EUROPA:

1.893`an Bagilla`ren 3`an, Arana`tar Sabino`k, Larrazabal`etik bota eban irrintziagaz asi zan deituten Euskalerrria`ren seme zintzoak batu daitezana, Euskal-Etxe Nagusiaren Nortasuna berrezkuratzeko.

1.894`an Uztailla`ren 14`an "EUZKELDUN BATZOKIYA" zabaltzen da, lenengoz gure Ikurrina argitaratuta, eta an egon ziran 94 batzarkide`en artetik, Sabino`k 1.890`an "JAUNGOIKOA ta LAGI ZARREAN" gertu ebazan araudi-sortari baietza emon jakon.

Uztailla`ren 31`n, eskutuan leenengo B.B.B.`rra osotu zan, eta au da "EUSKO ALDERDI JELTZALEA" ren asiera, gure Lege-Zaarretan oinarrituta.

Denbora orretan, Euskaldunen Nortasuna ia makurtuta egon bazan be, Sabino`ren irrintziaz laster bizkortu zan, Mundu onetan Euskalerrria baino ez daualako egon beste erririk Askatasunagaz ain kidetuta egon danik.

Arana eta Goiri`tar Sabino 1.903`an Azaroa`ren 25`ean 38 urtekoa zala il zan, eta Agirre ta Lekube`tar Jose Antonio 1.904`an Epailla`ren 6`an jaio.

Euskal-berrezkuratzeko giro eder orretan jaiota, Primo de Ribera jauntzargoko indarkeri aundienean egon zanean Euskal-abertzaletasunaren aurka, Jose Antonio gazte-gazte zanik Luis`tar gazte-Katolikuak antolatu ebazan eta Eusko Alderdi Jeltzalea`ren kide egin zan, ortik aurrera bere ardatz nagusienetako bat izanda.

1.931`n Jorrailla`ren 12`an 27 urtekoa zala Getxo`ko alkate eta 1.936`an Urrilla`ren 7`an Euskalerrri`ko Lendakaria egiten dabe.

Sabino Erritargo`en aita izan zan zalantzarik gabe JAUNGOIKOA ta LAGIZAARRAREN ikurra artuta, euki ebazan indar guztiakaz, Mundu onen berezkotasunaren babesean urten ebalako, Euskalerrria erri-berezi-lez babesteko.

Orregaitik eta jakiteko Jose Antonio zelango gogamenekoa izan zan Sabino`ren ikurra artu ebenetik, Madrilleko jaurkintzan esku-artu ebanean eta berezitasunagaitik egin eben babesa, Azaña`ren erantzuna aurkeztuko dautzuet.

Agirre`k: "Guri ez digu arduratzen gure erria ta erritarren aurka egiten dozuen ertzaldiko indarkeriak, gurentzako zabal-bide ederrena dalako".

Eta Azaña`ren erantzuna: " Bai jaunak, abertzaletasunaren aurka ezinda egin borrokarik. Erri guztien Abertzaletasuna berezko landara baten antzekoa da, bere tokian jaio ta il egiten da. Berezko eginkortasuna eukiten ba-dau loratuko da, berezko barne-bizia eukiten ba-dabe loratzen diralako gauzak, eta ilgo da barneko bizirik ez badabe eukiten. Alperreko gauza da bera eizatu edo inguratzea, ekitaldi orrek indartu bakarrik egiten daualako".

Agirre`tar Jose Antonio elerti-ikasle ta giza-zale aundia zan. Inogaz ez eban euki bereizpenik eta danokaz egikera onak eukiten ebazan, bere erriagaitik azkeneko arnasa emon arte, eten-bako ezkeintza baten.

Orregaitik, E.A.J` eak alako eta ainbat gizon/emakume eder ta begi-zorrotzekoak eukin-da, demokraziagaz guztiz arduratuta egon ziranak, oso jakintsu egon ziran, gure askatasunaren borroka Europa guztiaren arazoa izan zala, gure askatasuna lortu arte, Europa`ren jaurkintzan, Laterriak ezereztuta, bereiztasunaren jaurkintza bideratuko zala, eta orregaitik ainbat ekintzaren artean eraiki eben Europa`ko beste erri-gizon ospetzuakaz batera "Erriarteko Kristau Demokrazia".

Gaur, Erdira-zaleak bultz eginda ortik kanpo gagoz, faziztak, Europa guztian dagozan espatakaz ipinitako laterrigaitik, su-ta-garrezko babes a egiten dabelako.

Baina Mundu onetan eta JAINKOA`ren Legeak gure Nortasunetan beartuta, gaur argi ikusten da, esku baten danon ardurak egon ezker, lege orren azpian dagozan guztiak, arduragabea agertzen dirala, eta diruaren kontrola eukiteko gizarteko xautzailletasunera bideratzen ba-dira, gaur jazoten dan antzera, arduragabeko-xautzailletasun baten agertzen garela, gizartea beti-lez morroituta.

Euskalerriko E.A.J`zaleen artean, beti agertuko dira Sabino, Kanpion, Agirre, Irujo, Ajuriagerra, Landaburu, Polixene eta ainbat seme/alaba bikain, gure Nortasunaren askatasunezko erpeak, eurak-lez JAINKOA`ren LEGEA`n ezartzen ba-doguz.

Eta ortxe dagozelako gure Euskal-bizitzan ondo ikasitako LEGE-ZARRAK oinarrituta, ekintza orreik berez, Nortasunezko Askatasunean kokatzen gaitu, Euskal zuaitzaren gerri-sendo ta indartsutik besanga luzea emonda eta bere adar ugaritatik gerizpe ederra eginda, zentzun aundi eta sendotasunezko Nortasun osasuntsua erakutsi daigun.

Agirre`tar Jose Antonio eta bere jaurkintzako kideak, beti jakin eben, Euskalerraren arazoa Europa`ren arazoa zala.

Bai jakin-be, 1.936`ko guda ezkertiarak irabazi egin ba-eben, gure askatasunaren aurka etorriko zirala, ezkerri ta eskomatarren JAINKO gabekeria erdira-zaleak diralako. Eta ez daukie lotsarik euren asmoak lortzeko guda-indarrak erabili bear ba-dabez, euren arrazoiak guzurraren gainean eraikita dagozelako. Orregaitik erdira-zale lege ori epe laburrean, beti jausten da, oinarrietan indarrik ez daukalako edo guzurrezko legeak diralako.

### 39. - Zelan alkartu leikez " ERRIEN eta Laterrien " Europa.

#### 5.4. - ERRIEN EUROPA ala LATERRIENAK ? ZELAN ALKARTU BIAK ?:

Edesti guztian erakuspidetuta dago, Erromatarren gandik datorren erdirakoitasunezko kaizar jaurkintza, eta gaur daukaguzan laterrietan espatakaz beartuta oinarritzen dana, ez dala egokiena, beti-lez, gizartearen ardurak eta indar egiteko garrantzizko mozkin guztia esku gitxi batzuetan bakarrik geratzen dalako, ez dakit zelakoen "Ludi onen Alanbearrean jokatzeko" (destino en lo Universal).

Aundikerizko ekintza orrekaz, beti odol-jariozko borroketara bideratzen gaituelako aldebatetik, eta bestetik, JAINKOA`ren Legez jaioten diran

gizon/emakumeak aukerarik ez daukielako, jaiotzak berak emoten dautsen ordezkariaren beartasunagaz arduratzeko.

Ludi-Fisiko onetan izki-batek be, besteagaz ez dauka ezeren bardintasunik bereiztasunean eginda dagoelako, eta danak batera ondo aldi-bateratuta, Mundu onen edertasuna aurkeztzen dausku.

Or dago legea, eta inork ez dauka eskubiderik, nai mozkina edo giza seme-alabak beren apeltadi edo kasketaldi-naikerian pillotuta edozein modutara ibiltzeko. Bide orretatik beti ! dana okerrean edo ankaz-gora agertzen da.

## ZELAN ALKARTU BIAK ?:

Berezko bereiztasunari, arduran bear dauan aukera emonda.

Gaur ardurak berezko errietan jabetu egin ezker, erritarrak arduradunak agertzen diralako, eta ondorengoaren ekintzak, demokraziak eskatzen dauan bere leenengo gaian ondo baino obeto beteta agertu litzakelako. Ortik aurrera, gizartea berez batzangotuko zan, Ludi onek eskatzen dauzan ordezkariatzako Legea`n ordezkatzeko, danon ardurazko zor-eskubideak aldi berean beteta.

Gaur, Europa`ko gizarte guztiak daki, bearrezkoa dala daukagun jaurkintzazko antolamendua aldatea, erabiltzen dogun egikereagaz gizartea morroitasunean maillatuta agertzen dalako, eta gizaren eskubide guztiak, nai gora nai berantza aldi aundiz neurriz-kanpo agertzen diralako.

Baina..., or goialdean betiko sasiainkotasunezko asmakuntzan bizi diranak eta gitxi baino ez diranak, erdira-zaletasun orretan bizi gura dabe, eta daukien guzurrezko maltzurkeri ta amarrukeri guztia erabiltzen dabe sasiainkotasun ori babesteko.

Ezin dabez babestu, ezaziak nai-nun agertzen diralako, danon ardurak batzuen artean bakarrik ordezkatzeko ba-dira, geiegizko lana dalako, eta sasiainkotasunean bizi gura dauana, ez dago lan asko egiteko, ondo bizitzeko baino, eta Izadi onen legeak, ez dagoz edozeinek daukazan kasketaldi edo naikerirako.

## 5.5.- GAURKO EGOEREAN ZELAN SARTU OR LATERRI EZ DIRAN ERRIAK ?:

Begi-bistan argi ikusten dana, eginkizun guztia arrazoi bidez izan bear dala, euroi diru, mozkin, gualosteak eta euren eskuetan daukiezan gizartea menperatzeko tresna guztiak, indargabeen itxita.

Borroka gura dabe eurok ba !, beti-lez garaille agertzeko, eta baleiteke, gaur orren billa ibiltzea, beste negargarrizko denbora aldi bateko aukerak euki dagiazan ikertzeko eta erabakiak artzeko, zelan gizartea euren serbitzu edo morroiketara bideratu.

Arrazoiaren bidez ez daukielako ezeren aukerarik, Mundu onetan gaur dakigunagaz guzurrezko arrazoiak, nai maltzurkeri-izkutuenak izan-da be, esnearen bitza-lez agiri-agirian geratzen diralako.

Kontu andia euki bear da, gizartean "DEMOKRZAZIA" arrazoiaren doitasuna edo egokitasuna dala, danon egarriak autsi edo amatau daitezana.

Len esan dogun lez, Mudu au gogamen aundi bat izan da, gogamen (conceptos) txikerrak osotuta dago, danak LEGE bardineko antolamenduzko-tolesgabetasunean.

Orregaitik, guk bizitzeko egin bear doguzan, nai antolamendu, eskontza, makina edo tresneri guztiak, Izadiak daukan Lege barruan egin bear dira, gaur-lez, zoritxarreko utstasunak ez daitezak izan.

Eta or nagusitasuna daukagu. Berezkotasunean egiten ba-doguz gauza guztiak, Ludi onek daukazan arauen zentzuan egiten doguzela, beti egongo dira ondo. Baina norkearian egiten ba-doguz, beti izango dira norkearizko ekintzak, Ludi onen berezko-bereiztasunagaz ez daukienak zer ikusirik. Or ! negarra ta etsimena.

Europa ta Mundu guztia dago erabagi orren itxaropenean, eta or alegindu bear gara, berezkotasunaren antolakuntza ezarrita gero, askatasunezko bakea lortu daigun.

Gaur egun, Mundu onek eskatzen dauan gauza bakarra aurrerakuntza da, aurreko antolakuntza Erromatarren-gandik ona, zar-utzi bear dan eragozle antolakuntza dalako. Eta gure errua izango da, beste denboraldi baten irauten ba-dabekz menperatasun orreik.

Orregaitik gaur, itxi ta bota bear dira izkilluak, xautzailletasuna ta alako tresneri-txar guztiak, arrazoizkoak ez diralako.

E.T.A`k, paregabeko aukera dauka gaur, izen goragarrian egiteko ori. Eta gerokoak, gero.

Europa, Munduaren izar nagusia izan bear dau, eta Euskadi beren NORTASUNEZKO zati indartsu ta dirdaritsuena, zentzuz jokatzek badogu demokrazizko jokoan sartuko garalako. Eta kontuan euki, ekintza ori arrazoi bidez jokatzek dogunean izango dala, Euskalerrri eta Munduan jaio diran bereiztasunean berezko erriak Laterrituta ezartzeko.

#### 40. - Nondik nora doa arlo onetan Ibarretxe`ren esondapena ?.

##### 5.6.- ZELAN SARTU IBARRETXE`ren ESONDAPENA ?:

Ibarretxe`k, bere esondapenean esaten dauan ardurazko gauza garrantziduna auxe da: " Euskadi edo Euskalerrriak, daukan NORTASUNEAN erabagi bear dauala, Espainola`kaz zelako alkartasuna lortu bear dauan, edo alkartasunean jokatu bear dauan Europa`ren izatasunezko ibilbidean ".

Miraria ez da, Espainol`ak arritzen diran bestean arritzea, Mundu onen iztegi guztiak gauza bakotzari, beren bereiztasunean ipinitako izenean deitzen dautsoelako. Adibidez: " Errege-sagar edo Errezil-sagarra ez da makatz bat eta madaria gitxiago ", zuaitz orreik, antza bardin-antzekoa izanez-gain, lurretik gauza ezbardinak ataraten dabezelako edo ezbardintasunezko ulermen baten ezkeintzen dauskuezelako euren sagar-motak eta madariak.

Gu, Euskal izkuntzan egindakoak gara, eta eurak ezbardina dan izkuntza baten, Gaztelaren izena artu ebana.

Guk, Euskal-askatasunezko oinarritik aitzen eta egiten doguz gauzak.

Eurak naste batetik.



Eurak, ia bost gizaldi dira menperatuta eta ipini eutsoen izen barria on-artuta dagozela, I Karlos`ek euki ebazan oitura zaararak buruak moztuta kendu ebazalako.

Guk, millaka urte daroaguz Euskal-Askatasunaren babesean gure NORTASUNA jokoan egon dalako beti menperatzailearen aurka, eta ori da gaur egiten doguna.

Bereiztiar izatea da ekintza ori ?.

Joko ori, Euskalduna izateaz gain, bizitzaren ekintzarako NORTASUNA`ren askatasunezko sinismena da, eta orretan gu eurak baino aurrerago gagoz.

Orregaitik, lagunduko dautsegu gu gagozan askatasunezko maillara igoten, baina ez sekula be, eurak daukien menpekotasunaren maillara.

Ori da Ibarretxe jaunak esangura dauana, eta Europa`k ulertu bear dauana.

Eta guk, kontuan euki bear dogu, 1.936`an Urrilla`ren 1`ean Lizarra`ko Euskal sort-araudia aurrera atarateko, Agirre`gaz Euskal-eskomatarrak be sinatu egin ebela.

Len ikaragarritzko lana egin eben ulermenaren arloan. Gutxiago izango ete-gara ba ?.

Or ! daukagu eredia, eta ginda gainean ipinita, jakin, ARROPUTZTASUNEZKO NORKERIRIK-GABE LORTU GENDUALA.

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.004`an Urrilla`ren 6`an

- EUSKALERRIA - EUROPA -

Gaurko Laterri menperatzaille agintariak, berezko erriaren izenean artzen dabezan agintaritzazko tresnak, beti erabiltzen dabez erriko agintaritzaren gaiñetik, euren irudimenezko arrouzkaritzan.

Zergaitik..... buru-gogorkeri ori ?.

Argi ikusten dana gaurko Laterrien agintaritzetan, ezin dabezala gaiñetik kendu, edestitik datozen Erroma-Godo`tarren erdirakoitzasunezko menperatzaille ez-bear ta aundikerizko oitura txarrak. Ez dakit nolako elburuak lortzeko.

Eta JAUNGOIKOA`ri.....zer !! eskeintzeko ?.

Ala....., sasi-jainkotasunean jarraitzeko ?.

Dana dala, erdirakoitzasunezko Laterri oneik demokrazian kokatuta gagozela esaten dabe, demokraziaren zentzua asmatzen asi garenean bakarrik.

Demokraziaren jokuak eskatzen dauan leenengo araua, ordezkari guztientzat bardiñ izan dadin, danoen eskubideak zaintzea da, bakotzaren ordezkaritzak zaindu daitezkan.

Eta....., berezko oiñarri-ori zergaitik ?.

Danok bardiñ jaioten garalako, Norotasunezko borondate-onenean eskubidearen-zorrak bideratzeko (gestionar).

Berezko lege orren bidez, Mundu onen gizartea gai-lez bereiztasunean agertzen dalako, eta Mundu-zabal onetan gizartearen babeserako, giza`ren seme/alabak urbillean kokatzen diralako, or !! berezko leñuak eta erriak, bakoitza bere zentzuzko ulermenean.

Oraiñarte berezko erri ta erritarrak (menperatzaille agintariak kontuan euki gabe), ikasbideko lojikan oituratuta, bizitzaren babeserako ekarri daben jakintza, bai Mundu onen

berezko baliokizunak amaitzen doazela, eta gizartearen ugaritasunean, lurrak emoten dauskuzan aukerak edozein motazko mozkin bereziak ugaritzeko ikusiz. Bear diran sal-erosketako ordezkariaren bidez, erri ta erritarak berez eta bakez, alkartasunezko batzangotasun (globalizaciòn) on-batera bideratzen gaitu.

JAUNGOIKOA`ri, lora-sorta ederreneko eskeintza izango zan, gizartearen bereztasunean eskubide-zor ordezkariako egibide-on orretan egiten diranak. Azken baten gaur, BERA`k Nortasunari emondako Askatasuna EUSKALERRIA`ri lez, erri orreik diralako geratzen diran erri bakarrak euren Lege-Zaar sinismeneko ametsean, Nortasunaren Askatasuna babesteko.

Baiña zoritxarrez, Erroma-Godo`tarren gandik oraiñarte edesti guztitik datorren menperatzaille pentsakera ori, geratzen diran azkeneko bereiztasunak ezereztu gura dabe, beti, berezkotasunari aurrea artuta eta gizartea beartuta, beste batzangotasun aundiagotan ezartzeko.

Eta emen iru galdera:

- a) Zer ikasi dogu edesti guztian datorren menperatzailletasunezko irakaspide orretatik ?
- b) Zergaitik ainbesteko estukuntza edo premiña ?
- d) Nun geratzen dira gizarteko Nortasunaren eskubideak ?

Leenengoari erantzuna: Ikusi dogun gauzarik aundiena, menperatzailletasunezko norkeri ori, muga bariik gorantz egiten ebanean, negargarrizko gudak, norkeri orren neurrian aundiagotu egiten zirala, erri-gizarteak oiñaze ta ikaragarrian etsimenezko miñ aundietan mendetuta.

1.789`an Frantzia`ko iraultza egin zanetik eta Europa guztian menperatzaille Laterri oneik ipini ziranetik, bai-ta norkerizko andi-nai izate orrek ez daukalako amaierarik, menperatzailletasunezko oiñarrian erperatuta dagoelako, Sasi-

jainkotasunaren atea zabaltzen dauz, gaur lez aukera daukanentzat (Amerikarrak adibidez).

Ekiñaldi orren bidez, Erri-gizartearen Nortasunak ezereztuteko alde dagozanak, erri-gizarteak naastekatu egiten dauz, danok morroitasunaren mendera bideratzeko.

b) Zergaitik ainbesteko estukuntza edo premiña ?  
Antziñatik, Menperatzaille agintari eta lotsagabeko merkatariak: Bata bere arrokerizko aundikerian, berezko errien gaiñetik agindu gurean, eta bestea berezko erri ta erritarren neurrizko mugaren zergak kendu gurean, diru orreik euren partikan edo zarpelean euki naian, beti ibili dira, erri ta erritarrak morroitasunera bideratu gurean eta Nortasunaren neurriuzko mugak, lotsarik-gabe ezereztuteko alegiñetan, mugak, euren irudipenezko neurritan kokatzeko.

Orregaitik, ekintza orren bidez, beti ibili dira berezko errien aurretik euren legeak ezartzen, Ludi onek daukazan legeak kontuan euki gabe.

Sasi-lege orreik ezartzeko, berez edo gizarteko etorkizunean, Nortasunezko bereiztasunean oituratuta etorten ziran lege ta elkarteak, eurenaganatu egiten ebezan eta orain be egiten dabez, erlijio, bizitzarako jakiteak, asmakundeko aurkitzeak eta abar. Azken baten jendekuntzaren gizabidea, daukien maltzurrezko sasi-asmakuntza biurtzeko.

Baiña ekintza orren bidetik eta kontuan eukita, bizi au giza`ren berrezkuntza labor bateko epean joan-etorrikoa dala..., beti borrokan ibili bearra..., JAUNGOIKOA`k bizi onetara bialdutako Nortasun barriak menperatzeko ?.

Sekula be ezin da lortu ori, JAUNGOIKOA`ren LEGEZKO giza-barnean bizi onetara agertzen garalako.

d) Nun geratzen dira gizarteko Nortasunaren eskubideak ?:

Morroitasunezko giza-bide joko orrek, Mundu onek daukazan legeak eta norkerizko asmakuntzaren legeak naastekatu egiten dauz, gizartea ezinezkoa dan egi-guzur erdiko alkarbide batera eroanda

Eginkizun orrek, gizarteko noraezak konpon-eziñagaitik beti bideratu gaitu guda edo borroka lazgarritara.

Eta elkar-aurkako guda guztien edo borroka lazgarrien ostetik, ikusi dogunean zelako triskantzak geratu diran eginda, danok damututa, beti (1.940-45` an Mundu onen azkeneko borroka lazgarrien ostean bezala) joan gara berezko legearen laguntza eskeintzera, danak zor daukaguzan Nortasunaren eskubideak lotsagizunezko ardura berezi baten ezarri daitezana.

Eta ori da gaur, Mundu onen gizarteak daukan egarria.

Eta bakearen billa daukagun borroka, menperatzaille asmakuntz orreik aldatzeko. Gure legeak, Izadi onek daukan legean ezarri daitezana.

### EUSKALERRIA - EUROPAN:

Euskalerrriaren edesti guztiko gizon-emakume, JAUNGOIKO zaletasunean eta aberrikoi zintzoaren bidetik ibili diranak, baiña batez be SABINO, KANPION, AGIRRE, IRUJO, AJURIAGERRA, eta ainbat seme/alaba-on euki dauazan, bai gaur daukaguzan seme-bikaiñaren bidetik, beti jakin dau EUSKADI`ren arazoa, Mundu guztiko arazoa dala. Baiña batez-be, Europa`rena. Bere ekimenetik sortu ziralako arazo guzti orreik. eta gaur beti-lez bera izan dalako Mundu onen gidaria edo etika arloan indar geiago euki dauana.

Europa`n gaur agintzen dabenak, espataren bidez daukaguzan Laterriak dira.

Eta euren jaurkintza uts asko euki arren, guzurrak maldaberan bideratzen gaitulako, arrokerizko norkeri ta indar utzean aurrera egiten dabe.

Europa`ko Laterri auek, etorkizunean bada-ezbadako oitura txarrean datorren erdi-guzur lege-bide ori, eta diruaren jabetza beren benetazko ordezkartzan ezarri ezkeru..., daukien sasi-jainko mailla galzorian ipintzen da, eta orregaitik ez dira ausartzen benetazko aldaketa egiten, bear dogun demokrasi on-baten ezartzeko.

Euskalerrria gaur, Eropa`ko ikus-tokia da. Emen gertatzen diranakaitik, beste erriak aleginduko diralako alde batera edo bestera egiten.

Orregaitik Euskadi, aukera paregabeko baten dagoelako, gaur, iñoz baiño demokratizko zentzun aundiagoenean bideratu bear dauz bere eginkizunak.

Europa`ko erri ta gizarte guztiak ikusi dagian, Nortasunezko eskubidearen zorrak zaindu ta lotsa aundiiko arduran euki ezkeru: Bakearen adiskidetasunak; seme/alaben ardurak, ikasketaren goi-maillako jakintzan kokatu daitezkan; indarrizti (dinamica) orren asmakunde aurkimenak lortzeko eta ausartasuna erria askatasun osoan aurrera eroateko; eginkizun orren bialako, berez agertzen diran ondorioak edo ordezkooak dirala.

Europa`k, eginkizun bikaiñ ori ikusi ezkeru, Euskadi`ri eta Euskalerrria`ri, zalantzarik gabe lagundu egingo dautzela, daukan askatasunezko NORTASUNA erri guztien artean ezarri dagian, bere egarria be badalako.

Len, gure arbasoak gai eta ausartasunezko lan-bikaiñagaz ezeren arrokeri barik alegindu ziran, baiña ez ziran denborak ezer lortzeko, guzurraren laguntzailleak ez ziralako argi ikusten.

Gu, aalmen gitxiagokoak al izango ete-gara...., gaurko aukeran dauan, guzurra ta maltzurkeria begi-bistan agiri agirian itziteko ?.

EUSKALERRIA`k, or !! dauka erronka, bere lan bikain eta Ibarretxe`ren esondapenekin.

ARROPUZTASUNEZKO NORKERIRIK- GABE LORTU BEAR DAN GAUZA DANA.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.005`an URTARRILLA`en 11`n

Euskalerria edo Euskadi`ren askatasunezko biribildua zabaldu eta bere argitasunezko dirdai guztian adierazteko, bere izaeraren bereiztasunetan xeeatu edo banakatu bear dogu. Jakiteko azken baten, askatasunagaitik daukagun ardura aundi au zergaitik dan.

**LEIÑUAK:** Euskaldunak, leiñuetan errotzen asi ziranetik, berez eta euren babeserako lurraldeetan batzangotzen (globalizando) asi ziran.

Eta nai-ta oiturazko sinismen arloetan bardin antzekoak izan, ba-euken lurralde bakoitzaren mendizti (orografia) gaitik bere bereiztasuna.

Euren antolamenduan, auzuneko batzarrak euki ebazan, aukeratutako arduradunak lurraldeko batzar nagusietara bialtzeko.

Orrek esan nai-dau, Nortasunaren arloan oso arduradunak zirala, eta eginkizun orren ondorioan, askatasunaren babesle aundiak zirala.

Azken baten, odol, gorputzen bereiztasuna, sinismena, oitura, erlijioa eta abar, bardiñak izan-da, babeserako berak emon eutsozan berezko erriak izatea.

**LEIÑUA`ren AURKA:**

Europa`n eta Mundu guztian, bardin gertatu zan, berezkotasunari jarraituz, berezko legeetan bizi ta oituratu egin ziralako.

Gero agertu ziran aundikerizko naiak, norkeriaren edo nor-geiagoko jokuaren bitartez sasi-jainkotasunean bizi al izateko.

Ortik aurrera, menperatzaille ta sasi-asmakuntzeko arauarekin, indar aundiakaz beti eureganatu egin dabez sasi-arrazoiak, erri-gizartearen antolamenduzko legeak menperatuta.

**MENPETASUNA GAUR ARTE - EDESTI`tik ZEAR LORTU GUREAN:**

GUre denboretako Bi-milla ta zazpiren urte dira asi ziranetik, sasi-jainkotasun amets ori lortu gurean.

Berezko erri-gizarteak, ekaiztsu aize orreri aurre egiteko, euren babeserako eta antolamenduzko bearrak eraginda, itzarmeneko buruzagiak aukeratu ebazan. Beti, erri`ko batzarraren jabetasunezko menpean. Baiña asken baten, kaizar eta katolikotasunaren guzurrezko sareetan jausi-ta, gure aukeratuak be, aundikerizko menperatzaille asmakizunetara jausi ziran.

Ortik aurrera, izen aundi askorekin ibili dira, menperatzailletasunezko ekintz orreri sinismena emoteko: Kaizartza, erregetasuna, Erroma`tarren katolikotasunezko kaizartza sakratua, Godo`ren ondoriotik datorren Toledo`ko eleiz-batzar sakratuaren ametsean España ta laterrien larderiatuagaitik, eta ainbat abar.



Zalaparta utsean joan dira oraiñarte egipidezko alegin guzti orreik, Europa eta Mundu onen erri-gizarteko edesti guztitik, danon ardurak esku gitxi batzuetan euki gura debezela, eta berezko lege kanpotik eginda, izugarritzko zori-txarrak eragindituez. Gai onetan neurri zeztak bear diralako, eginkizunezko gauzak ardurazko lotsean bakez iraun dagien.

### 1.789`an FRANTZIA`ko IRAULTZA:

Kaizar-erregetzaren maldaberan, asmakizunezko errien agintaritza aurrera eroateko, berezko erriaren zerbitzuan egon bear diranak eta ez norberekerien zerbitzuan edo mirabetzan, beste aldaketa baten alegin gogor bat egin bear zala gogoratu ziran eta, Frantzia`ko errege frantzezen errege biurtu eben, berezko erriak ezereztuta.

Nortzuk izan ziran orreik...erria ta erritarren jabetza zuntziteko ?

Argi dago, JAINKO-BAKO menperatzailearen zaleak izan zirala, bestela zelan ulertu, berezkotasunaren legeen-jarraitzalleak zirala ?

Asken baten, 1.929`an, nok eta Mussolini faziztak Batikano`ri be emon eutson Laterriaren izaera ta izena, berez askatasunaren egarrizko ziran erri ta erritarrak, Europa`ren legez kanpoko Laterri guztien izaera barri zan legean sartzeko.

Andik ona, espataren indarragaz ibili dira Europa`ko lur-nagusian, nai ezkerreko edo eskumakoak izan, laterri fazizta orreik legeztu gurean, eta Españian ta Euskalerrian batez be.

Euskalerrria, 1.839, 1.841, 1.876, 1.936`ko gudakaz menperatu gura eben, Euskaldunak beti aurka egin da, Ludi onen lege orreitan ez dagolako lojikalzko arrazoian egiaren asmo-okerra baiño.

### DAMUA:

Eginkizun orreik, beste borroka aundi batera eroan ginduezan, Europa ta Mundu`ko gizarte guztia damu aundi bateko sumintasunean agertuta.

Eta damu orregaz, gizartearen eskubide guztiak babestu egin bear zirala aldarrikatu eben Mundu`ko jakintsu, agintari ta erritar guztiak.

Baiña damu ori, nai-ta fazizmoaren aurka izan, laterrietan ezarrita egon ziran faziztak (Franco adibidez), euren lekuetan itzi ebazan bakez, osterabe, erri-gizarteen itxaropenak suntsituta.

Erabaki orren arrazoia, baleiteke arlo aundi baten beintzat, ekonomi edo diruen buruzpideko erreztasunagaitik izatea.

Baiña eginkizun orreik, Mundu onetako arrazoizko eta lojikalzko lege-aurrean, diruaren jabetzagaitik menperatuta izten gaitu. Eta diru-jabetza orren bidez-mende egon ezkerre egiten direz, erri-gizarteetan egiten diran enda-erailketak (genocidios).

Laterri orreitan erri-gizartearen ardurak esku batzuetan erdiratuta egon ezkerro eta beste aberri batzuk sort-arazita, edesti guztian gertatu dan antzera, aurretiko menperatzaille asmakizunean ezarrita ardura-gabean geratzen garalako.

Norenak izan bear dira ardurak ?.

Guztiok..., ez gara jaioten arduradunak izateko ?.

Mundu`ko gizarte oneri, okerreko mesedeak egiten dautsoez ardura gabean itxi ezkerro. Eurak, Mundu au xake-taula (tablero de ajedrez) baten antzera artuta jokatzeko.

Erri-gizarteak eta Laterrizko erri barri orreik, orregaitik agertzen diralako xautzailletasunezko-ardugabe aundi baten. Danak, berezko legearen aurrean, naastebateko noraezean gabiltzala.

### ORDUAN....., ZELAKO DAMU DA AU ? :

Ortxe dabizenen artean be, damu orreri ez dakie zelan oratu edo aurre egin, diruaren mendekuak izan da, erabili bear dabezan arrazoizko legeak, Mundu onen berezko ta bereiztasunezko legeen aurka kokatzen diralako.

Bestela ikusi daiguzan, Espaiña`ko Laterri-zale jakintsu ta euren ustez agintari aundiak direnak zer esaten daben Lege-Biltzar ta Auzi-tegi aundietan:

PECES BARBA`k: Gaur 2.005`an Urtarrilla`ren 31`n, eta Euskaldunari begira: " Euskaldunak, lenago erregeakaz egiten eben itzarmeneko alkargoari begira dagozela " esan eban. Eta ori Ibarretxe`k Euskal Lege-Biltzarrean agertu eta on-artu zan eskeintza da. Baiña gaurko erregeak, ez dirala len errege izan ziranen antzekoak be.

Peces Barba`k, egia zer dan ondo daki. Baiña....., zergaitk ez dau esaten zelako alkargoak ziran areik, eta.... Nork ta Noren jabetasunagaz egon ziran idatzita.... leenengo jauna`k eta gero erregeak sinatu dagiezan ?.

Bildur dira egia agertzen ?.

Argi dago erdira-zaleak ba-dakiela, or beste astuntasunezko arrazoi aundi bat dagoala. Baiña ez dabe esan gura, Mundu au bideratzeko daukien asmakuntzazko aukerak ezereztu egiten diralako. Edo egia esaten bildur dirala, menperatzailleak baztartzen dabezelako. Adibidez: Gaur Zapatero`ri sortzen jakona, amerikarrak Aznar`en laguntzagaz, lotsagarritu egin gura dauala eta baztartu, euren asmo-aginduetara ez dalako bideratzen.

JOSE BORREL`ek: Europa`ko Lege-Biltzarrean.

" Euren edestiari lotsarik erakusten edo lotsea artzen ez dautsoen Erriak, edesti-ori berriz egitera zigortuta dagozela " esan eban.

Nungo erriagaitik itz egiten dabil ?.

Laterri bat ez dalako Aberria: " Gizaki` en edo Gauza` ren egoera dalako, eta euren izaeran aldatu leikena, beste goragoko egokitasun bat lortzeko ".

Nor da or... eskubidearen Nortasuna daukan Jabeduna ?.

Berezko erri-gizartea zalantzarik gabe.

Orregaitik, Espaiña`ko erdira-zaleak ez daukie iñungo arrazoirik Euskalerrria eta erdi-ugarte onen barnean dagozan beste erriak menderatzeko.

Zergaitik....., Berezko erri ta erritarai ez dautsee izten, bereztasunean egin bear diran itzarmeneko elkartasun onakaz bakerako bidea artzen ?. Argi ikusten da or !! Bakea ez dala euren naia edo elburua.

Aitzaki orregaz, Ludi onetan dirua elburu dala eta bear dogun mozkiñaren kontrola eurak eukinda....., lendik datorren JAINKO-bako asmakerian jarraitzeko ?.

Mundu onetan...., zer egin gura dabe...., daukezan legeetatik kanpo ibili ezkerro ?. Gaur egun sortzen dan antzera, gaia zikindu eta gizabidea bizi ezin dan kutzapenezko larritasun batera bideratu !!.

Or !! argi dago ARRA dagoela.

### RAJOI`tar:

Rajoi`k esaten dau: Ibarretxe`k Espaiña`n bere esondapena aurkezteko ez daukala legezko arrazoirik.

Legea bakarrik daukagula, euren erdirakoitasunezko iraspen barruan aurkezten geranean.

Euskalerrriko Nortasunaren jabetza ukatu edo ezereztu egiten dalako, espaiñolak garella esanda.

Eta... Kadiz`eko jaurkintzan argi geratu zala, espaiñolak garella.

Ez !!, ez dago guzur aundiagorik !!. Kadiz`ko gorteetan ez zalako erabagi ezer, VII`n Fernando`k ezereztuta geratu ziralako.

1.808`an Uztailla`ren 26`an erregeak, Frantzi`tik agindu bat oiuzkatu eban, Kadiz`ko gorteetan egin ziranak ezereztuten. Eta Euskaldunak Fueroak bir-eskuratuta, erregeak 1.814`an Uztailla`ren 29`an zinpetu eta baieztu egin ebazalako.

Eta egiten dauan guzti ori, gudaloztearen keiñuagaz.

Onek ez daki, eurak 1.839-76`ko urtetan jaio orduko, gu millaka urte ariñagoatik gabizela Euskalerrriko Nortasunaren ardurazko askatasunak babesten, berezko ta bereiztasunezko etsaiaren aurka.

### ZAPATERO:

Onek, Rajoi`k esaten dauan bardiña esaten dau, nai-ta beste erabatera esan.

Erri-gizarteak, leenengo " Uritarrak " (ciudadanos) dirala esaten dau, eta izatean, demokrata erritargotasunaren aurretik, ainbeste astokerien artean, Nortasunezko legearen neurri ta arauak, naastuta.

Baleiteke...., oneik amaren zabelean demokratak egiten dirala.

Nora joan gure ete-dabe....., gogamenezko (concepto) antolamenduan edo antolamenduaren egipideetan, edozein lekutatik asita ?. Eta gaiñera, gogamen ori eraikitzeke, lekukoak ez diran zatiakaz eraiki gura ba-dabe?.

Orregaitik orain ikusiko dogu Europa`k zer eskatzen dauan bere kidesasuna osotzeko.

### EUROPA:

Europa, aurrera begituta, itzarmeneko alkartearen egarrion agertzen da, ikusten daualako, bere barnean dauan gizartea babesteko, nai-ta nai-ez aurrerazko beste pauso demokratiko aundi bat emon bear dala, denboraren egokitasunakaz bat egin gura ba-dogu.

Gogamen ona eta aurrerakuntza aundia da, baiña orretarako XVIII`ko gizalditik datozen erdirakoitzasunezko menperatzaille laterrien loturak be lokabetu edo ezereztu egin bear dira. Eta or dago gaur daukun borroka aundia.

### ZER DIÑO EUROPA`K ARAZO ORREIK KONPONTZEKO ?:

Europa`k badaki arazo orreik konpondu ezik, ardura-bako Europa izango dala. Erdirakoitasunaren eritzikoak edozein gauza egiteko gai dirala, eta nik esango neuke, artean, gizarteko klonaziokoan aldekoak dirala, eurak daukien ametsak aurrera eroateko.

Bide ori ez da ona, eta eurak-be badakie, ardurabako bide orretatik aurrera egin ezkeru, gai`ezkoa dan Mundu onen ondamendia ikusten dabelako.

Orregaitik, Europa`k esaten dauana, laterri bakoitzak bere eztaibadak konpondu daiazala, bere barnean egin bear diran egipideak erreztasun guztiaz egiteko, eta aurrerako emoten diran oinkadak guztiz egian oiñarrituta emoteko.

Europa`k, ago zabalagaz ez dau esaten emen esan dodana, erdira-zaleak egiten dabezan indarrezko estukuntza edo premiñagaitik, baiña egia da bere egarria dauala. Azken baten, gure barnean danak dakigulako arrazoia eta bide-egokia zein dan.

Europa`ri, arrazoia ta baietza orregaitik emon bear jako, iñora eroaten ez daben arrouskeriko-arrazoiakaz ibili barik.

Euskaldun guztiok, zeaztasun ta zuertasunazko ekintzan bideratu bear doguz gure borondateak Euskadi askatzeko. Eta ez sekula aaztu, Mundu onen agintariak, nai menperatzaille eta berezkotasunaren arrazoiaren bidetik

dabizenak, erri-arteko goiko maillan dabizela. Eta laguntza edo baimena, oneik Euskal sinist-arazoan sartuta eta limurtuaz gureganatu egingo doguzala. Euskadiren askatasuna euren baimenezko laguntzagaz agertuko jakulako.

### EUSKALERRIA`ren EKINTZA:

Euskalerrriaren edestia, milla urte azkokoa da eta egoera larri au, len ainbat eukita, unetxo kaskar batekoa baiño ez da.

Eta ain txikerra izan-da be, garantzi aundikoa bera ! euki dogun askatasunaren bide luzean, Euskal-Nortasunaren zati aundiak itzi doguzelako.

Orregaitik, berriztu edo berrezkuratu egin bear doguz, bidean itzi doguzan Nortasunaren zati aundi orreik: Izaeran, izkuntzan, jaurkintzan, erri-laneko elkar-gintzan eta JAINKOA`ren sinismenean. Azken baten, benetazko atal orreik borondate aundian eraikita dagozelako, Erria argitasunezko osasun aundi baten dirdiratsu agertzen da.

Baiña ezer aundirik (nai-ta txikerra izan arren) ez da sortzen edo berrezkuratzen, alderdikerizko arroutskerian eegiten danean, edo bai-ta azpian bonbak ipinten doguzenean. Aldebatetik, ganorabakokeri asko erakusten dogulako. Eta bestetik, Europa`n iñor ez dogulako sinist-arazian ezarriko orren eginkisunagaz.

Euskalerrrian badaukaguz borondate aundiko emakume/gizonak. Jaurkintza be-bai.

Borondate onenean alkartu daiguzan indarrak ba !! menperatzaille asmakizunari aurre egiteko eta EUSKADI ASKATZEKO.

" Gaur, itxaropidezko egoera ori lortzeko, JAURKINTZAREN egorera sendotu bear dogu, eta ori esaten dotenean, daukagun JAURKINTZA` gaitik IBARRETXE-JAUNA buru dala berbetan nabil, aurrerapenezko emaitza ona, ETXERA ekarriko daualako "

ATUTXA` tar PAUL

Zornotzan 2.005` an Zezeilla` ren 7` an

1.876` rarte Euskalerrria bere legediaren eragilletasunean jabetasun osoa euki eban, eta alan erabakiten zan.

Zergaitik ebagi euskun jabetasun ori ?.

Erregetzaren jaurkintza, berak sortu eban erriak bitartean-jarritakoa edo epaiketarako artekariaren lanezko izatasunean (arbitraje) ipinitakoa da; gaiztotu edo okertu zanean norkerizko jokoan alpertu ziralako erdikari-menperatzailleen alegiñakaitik zirikatuta, menperatzaille zaleak beste aukera baten billa aldatu ziran.

Aukerazko era barri ori, erregetzaren jaurkintza ospe-gabetuko maldaberan asi zanetik artu eben, eta 1.789` an Frantzia` an egin zan iraultzaren ondoriotik etorri zan. Erdira-zale eskumatar menperatzailleak gudalostearen laguntzagaz jabetu ziralako, ekonomiaren banakuntza, euren sasi-asmotan iraun dagian.

Orregaitik gaur eta andik ona espataren indarragaz daukaguzan berezkotasunaren aurkako Laterriak ezarrita daukaguz.

Nik ez euke esango Zesar erromatarrengandik asmatutako Mundu onen batzangotasuna, eta Kristautasuna sortu ta gero, Konstantino`k 325` ean Kristautasunaren gain, katolikotasunezko alderdia asmatuta, gizarteko jaurkintz-legea eta bear dauan oituraren gogoko-ekandua ondo ordezkatzuta joan daiten, Mundu onen gizarte guztia kirian-kirian edo urrenez-urrien antolamenduzko erabide on-baten oiñarritu daiten, txarto egon zanik.

Baiña estukuntzazko edo premiaren lasterkazko bide-jarraiketari oiñarritu ziran, Mundu onen bizitza egun birako bakarrik izan balitz bezala.

Eta egitura orrek, gero ta geiago premiazko indarra bear dauan lez, or asi ziran, bata gudalozteagaz eta bestea ziñeskintzaren arauakaz jota-ke beartzen.

Iñork ez dauka eskubiderik, JAINKOA`k Bere legearen bitartez emon dauskun agindua, ekintzazko bizi onetan gaia zeaztasunean ordezkatzeko, premian edo beartasunaren bidean jezartzeko.

a) Danak arduradun jaioten garalako.

b) Azkuntzaren Ikas-bideko ulertza, danoengaitik onartua izan bear-dalako.

d) Danok eta bakotzak daukaguzan bereiztasunak (characteristikas) gardaiñatu, buztartu edo ordezko antolamendu on baten egokitu daitezana.

Or ! dagoz Mundu onetako gizartearen eskubidezko zeregiñak.

Eta beartasunezko ziñeskintzan artu ziran beste bide orreik, JAINKOA`k bakotzari emondako giza-barneko (conciencia) zentzuaren bidez, erri-gizartearen ordezko ardurak borondate onean bete daitezanaen aurka, bereiztasunaren arrazoizko eskubideak sendotzen dira. Orregaitik gagoz eten-bako gero ta borroka lazgarritasunetan sartuta.

Gaur, beartasunezko ziñeskintzetan dabizenak, indar guztiak euren alde batu gure dabez. Nai-ta gaurko Mundu onetan gizaren on-bizitzarako egin bear diran antolamenduzko aldaketak gizartearen eskubideetan oiñarrituta egin bear dirala esan, Mundu onen antolamenduzko batzangotasuna aginpe baten lortzeko, guzurra esaten dauskue. Azkuntza, espatakaz ipinitako Laterri menperatzaille onein bitartez egin gure dabelako. Eta gaiñera, katolikotasunaren alderdikerizko asmo ori moral-arauz indartzeko, aukeratu dabena Aita-Santua, ziñeskintzaren aldekoa izanez gain, gordetzaille zutsua da.

Orregaitik, ez da egia esaten dabena: "Gizartearen eskubideetan oiñarrituta egin bear dan aldaketa izan bear dala". Leenengo: Dagozan sasi-jainko laiñu ortatik, ez dabezelako gura oiñak gai onetan ezarri. Eta bigarren: JAINKOA`k gizarte guztiari emonda daukagun giza-barne au (conciencia), Erri-gizaren borondatea dana, beti-lez kontuan artugabe egin-gura dabelako.

Non JAINKOA ?; Non DEMOKRAZIA ?; Non GIZAREN-ESKUBIDEAK ?.

### EUSKALERRIA:

Euskalerria, bere bizi guztian borroka orreitan sartuta dago, eta bera da Europa onetan izar aundienetariko bat: "Giza-Barruko Nortasuna; Gizaren-Eskubideak; Egizkoak dirala Bakoitzak daukaguzan Bereiztasunak eta Bere Ondorioz emoten dauskuzan Izatasunak; Bai, Mundu onetako gizartearen urreratzeagaitik, ordezkotza danon artean ondoen banatu daiten, gaiak daukazan ankerkeritik babesteko eta abar", aipatu dodan gauza guztien alde alegiñ aundiak egiten dabelako. JAINKOA`k emonda GIZA-BARRU orren ASKATASUNA dalako. Eta beren ondorioa dalako asken baten, gure bizitzazko ordezkartizan "ASKATASUNEZKO EGARRIA".

Badakigu orduan, Mundu onetan berezkotasunaren gauzatik kanpo, dana guzurra dala: Nai belarki-saldoan, giza-arloan, nai meatzeko arloan. Gauza guztien nortasunezko izatea bereiztasunezkoa dalako, eta gauza guzti orreik naastu ezkerro ez-dakigu zelako maillararte agertuko jakuzan orren aurk-ekintzazko ondorio latzak. Orregaitik esaten da: "DANAK BATERA BAI, BAIÑA NAASTU GABE".

Eta or katolikotasunezko alderdiaren pekatua, ziñezkintzaren bidean joatea gaitik, ez dauzalako onartzen, aztura-bideko ikerketan lortzen diran jakintzak.

Badakigu ba gaurko EUSKALDUNAK, EUSKALERRIAREN NORTASUNEZKO ASKATASUNA lortu gura ba-dogu, GURE izatasuna ELBURU edo IKUR-LEZ ipini bear dogula, arrokerizko norkeri eta alderdikerietan ibili barik, EUSKALDUN GUZTIEN arazo aundiena ASKATASUNAREN-EZA DALAKO.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.005`ean JORRAILLA`ren 20`an

Leenengo zatian ikusi doguna, erdira-zale menperatzaileak edo espataren bidez ipinitako Laterri onein jaurgo-zaleak, zelako jokuak erabiltzen dabean indarrak euren alde batzeko, Mundu onetan daukien sasi-jainkotasunaren asmakuntzak berezko erritarren gaiñetik iraun dagien.

Baiña Mundu au fisik-arauzkoa dan lez, beartasunaren aurka berezko aurk-ekintza bereala agertzen jako eta aldi onetan sozialismu-erkidetasunaren jokia ikertuko dogu.

Sozialismoaren erkidetasunezko alderdi-gogoak eta bere egoarri edo eraman-onaren (filosofia) asmakuntzak XVIII`ko gizaldiaren azkenetan asten dira, Ingalaterra`ko Trade-Unions langille-elkartasunezko bidetik, aberats-gordetzaille eta menperatzailearen esku-osodunetatik babesteko.

Gero, langilletasunezko gizarte-egarriaren antolakuntzari erantzuna emoteko agertu ziran Aleman jakin-zale (filosofo) Georg Wilhelm Friedrich (HEGEL) 1.770-1.831`ko urte bitartean bizi zana, eta beren eragipenetik: Ludwig`tar Andreas (FEUERBACH) 1.804-1.872`arteko urteetan bizi zana eta Marx ta Engels`en jakin-zaletasunean (filosofia) eragipen aundia euki ebana.

Marx 1.818-1.883 urte bitartean bizi zan, eta Hegel`en gaitik eragipenduta, Alemania`ko "Langilleen-Elkargoa" antolatu eban. 1.864`an leenengo "Erritarteko-Langilleen-Elkartasunaren"(primera Internacional) sortasunean esku-artze aundia euki ebana.

ENGELS`tar Friedrich, 1.820-1.895`eko urte bitartean bizi zan. Marx`en lagun eta kide aundia, bigarren "Erritarteko-Langilleen-Elkartasunezko" (segunda-Internacional) zuzendaritzan artu-emon aundia euki ebana.

Eta, LASSALLE`tar Ferdinand 1.825-1.864`ko urte bitartean bizi zana. Onek, Marx`en Sozialismuko-eragipenetik, "Sozialismua eta Abertzaletasun edo Errikotasuna" antolatu eban. 1.848`an Marx ta Engels`ekin Alemania`ko iraultzan zer ikusi aundia euki eban. 1.863`an "Alemania`ren Orokorrezko Langilleen-Lagundia edo Elkargoa" irasi edo sortu eban. Eta orren ondoriozko eragiñean, gero, "Europa ta Alemania`ren Gizarteko-Demokrazia (social-democracia)" izango zana sortu .

Gizon aundi onein ikerketa guztiak gizartearen gora-beran eta lortu eben jakintza filosofu bide ortatik, gizarteko eskubideetan oiñarrituta egon ziran eta orregaitik berezko erritarren eskubide artean.

Baiña, Frantzia`ko iraultzaren asmakizuna onarttuta, Laterriak izan daitezcan berezko erri ta erritarren jabetasunen gaiñetik: Diru-zaletasunezko merkatariak; erregetzaren inguruan odol-garbikoak edo andikitasunezkoak ziranak, gudalozteak euren alde eukita eta katolikotasunak lagunduta, Errroma`ko Eleizak Mundu`ko



gizarte guztia euren erlijiozko antolakuntzapean gura dabelako euki, daukaguzan Laterrietan oiñarritzeko alegindu ziran, Batikano be Mussolini`ren baimenagaz 1.929`an Laterrituta.

Orregaitik, asmakeri orren bidez agertzen jaku gaurko uste-bitxi edo ustegabekeri au, guzur-antzekoa emoten dauana, guzurra dalako, JAUNGOIKOA`k emonda danok daukagulako GIZA-BARNE au oiturazko eraginkizunean jokatzeko eta SASI-ASMAKERI orreik, danon GIZA-BARNE ori euren agindutara menperatu gure dabelako, ainbeste borroka-latz eraginda.

Gaur, Sozialismu edo Gizartearen babes alderdian jokutzen dabizenen artean, ez dakie noren aurka jaio ziran, danok, Europa`ko erritarrak garela esaten dabelako, bakoitzaren eta erri-gizartearen NORTASUNAI narda egin edo ontzat ez dabelako artzen.

Orrek esan nai-dauana, eurak be gai-zale arrapaillu edo domutzezko-menperatzaillak biurtu dirala, gizartearen-barnean, Izatasunezko-Nortasunak diranak alboratu egiten dabelako eta Laterri menperatzaillak on artzen dabelako.

Eurak be.....gizartearen klonazio-zaleak ?. Bestela zelan aitu gizartearen babesle izan eta arima-gabeko gizartea izan dadilla ?.

Argi dago Laterri menperatzaillak jaurgotiarrak (constitucionalistas) biurtu dirala, eta guzur aundi baten gaiñean oiñarritu gaitezen alegiñetan dabizela, Espaina`ko Laterriari aberri edo sorterrizko mailla emoteko.

Eurak be ez dakie buruan daukien korapilloagaz, daukien ametsan gogoratzen ba-dira.... ARIMA-GABEKO EUSKALERRI-BATEGAZ.

### EUSKALERRIA:

Euskaldunak, begiratoki ederrenean gagoz Espaiña`ko Sozialismuaren guzurrak eta Erdira-zale menperatzaillan guzurrak gure sinismenerako ziñeskintzakoak biurtu gure dabezela ikusteko.

Orregaitik, guzti orrei jakiñezko arrazoi aundiagaz aurre eginda zeaztasunezko zentzu aundi baten, gure Euskal-Nortasuna aldarrikatuz lortu. Erritarren artean gurasoaren-ondorea galdu dabenezat, euren giza-barneko arrazoiaren aurrean latz agertu jakiela, daukien izatasunaz gain beste gauza bat dirala esan dadin.

Orretarako, Euskalerriko Abertzaletasun guztia apal-apalik eta politikazko zuurtasun guztiaz ERRIA ELBURU DALA, zintzotasunean eta DANOK BATERA JOKATU BEAR DOGU.

" IBARRETXE`ren ESONDAPENARI EUTSI !! "

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`an JORRAILLA`ren 28`an

## -EUROPA`ren ERKIDETASUNA (I) -

### SARRERA:

Europa, erri-gizarte arduradun lez bideratzeko, 2.005`an Otsaila`ren 20`an aukera barri bat euki dogu, gure bozka edo autarkien aburumenagaz (opiniòn), baietza edo ezetza emoteko.

Eta baietz edo ezetz ori ondo ulertuta emon ba-dogu jakiteko, jakin bear doguna, zelako aukeran emon bear izan dogun gure autarki da.

Euskaldunak orretarako egin bear doguna, bananduta eta mai-gaiñean zabalik, aurkeztu gure eskubidearen tresneriak zeintzuk diran, eta zelako tresneri artean beartzen gaituen autarki ori emoteko.

Eta emen garrantziko gauza aundi bat esan dot: "BEARTUTA".

BEARTUTA esaten dot, daukaguzan laterrien erabagia, erritarren borondateagaz edo borondaterik-gabe aurrera eroango dabelako. Erromatarrengandik oraiñ arte egin daben antzera.

Baiña gauza orreik gaurko denboratan ezin dira egin ainbesteko lotsagabekerian, guzurra ta marrukeri aundiak argi argi ikusbegian geratzen diralako.

Orregaitik, gaur berezko erritarren gaiñetik egiten doiazan alkartasunezko erabagi orreik, Mundu onetan dagozan aldaketak, Europa`ren egoera beartu egiten dabelako oinkada orreik emoten dira, eta laterrien agintariak era-bat beartuta dagoz itxura on-antzeko bat emoten, oraindiño erri-gizartearen demokrazizko arrazoiaren eskubidetik, aiñ urrun dagozan erabagi orreri.

A-ta guzti, ni uste onekoa naz gero esango dotenagaitik. Eta nai-ta gaur arte esan ba-dogu: " Txarto gogoratu zaitetz eta igarriko dozu "; Eta orain esaten ba-dogu: " Txarto gogoratu zaitetz eta labur geratzen zara " !! Ni itxaropentsu agertzen naiz, gizartearen demokrazizko egarrian sinisten dotelako.

Dana dala, baiezko edo ezezko autarkia emon arren, beartuta egon gara ipini-dauzkuen autamen ori beteten, gure arazoaren tirakizunak batera joan daitezcan. Utsunean itzi ezkerro, batzuen arrazoigabekerian urriñago joango ziralako, gure arazoak aundiagotuz.

### EUSKALERRIA:

Euskalerrriaren tresnak: Berezkotasunean egindakoak dira, NORTASUNAREN ASKATASUNEZKO ARDURAK zeaztasunezko neurri aundiz elburu dirala, JAINKOA`ri begira.

Euskaldunak Batzangotasunari, sekula uko ez dautso egin, Nortasun bakoitzaren ardurak on-artu eta zaintzen diranean. Bestela gogora ekarri daigun zer esan gura dogun Iparagirre`ren "GERNIKA`ko ARBOLA" abestuten dogunean.

Euskaldunak, guztien askatasuna on-artzen dau, ori dalako bere Endaren izatasunezko sinismena, danontzat bardiña izan dadin.

Eta eginkizun ori dalako gure dauana Mundu ta Europa osoarentzat.

### EUROPA:

Europa, Demokraziaren egarrion agertzen jaku gaur. Eta konturatuten da, XIX`n gizaldetik erritarren buru-gaiñetan daukaguzan Laterri oneik espataren indar eta guda keiñuakaz ipinita, ez dirala egokienak pozoituten gabizen lurra, aizea ta urak garbitasunean egokitzeko, eta batez be Europa`ko erritarrak bakez batzangotu daitezcan.

Eta nai-ta erdira-zale Laterri-menperatzaille onen bidetik bearrezkoa dalako, gaur eguneko batzangotasun au egin, legeak euren alde egokitu gura dabzelako, guretzat ez da ametskeri uts-bat guzti au, Europa`n oinkada orregaz arrazoiaren ulermenerako, beste goi-mallako antzoki zabal baten kokatzen gaitulako, eta mugi-gabeko lekutik urten ezkerro, aukera aundi ta barriak agertzen dira, ate asko zabaldu leikezanak, danon arduran Europa`ko erritarren bizitza egokitzeko.

Konturatu bear gara, guda-barik egin gurean dagozela batzangotasun au, gudaren bidetik egin ezkerro, Europa zoritzarreko amiltegian sartuz gain, gaur gagozan xautzailletasunaren-ardurabako menperatzailletasunean ostera be geratzen garalako. Eta oinkada-ori, oinkada lluzea da demokraziaruntz.

Aldebatetik, edesti guztian txarto eraikita dagoena aldatzen joan bear dalako, eta Laterrien jabetasunetik asten dira, Europa`k, jabetasunaren indarra euki dagian.

Bestetik, lurralde bakoitzeko egipidearen eskabideak, zuzentasunezko bideak eskatuko dabezalako. Ekintza orreik bakarrik, berez, utsean izten dabez gaurko Laterrien zeregiñak.

Eta Europa arrazoi-bidean doala konturatzeko, ez da besterik kontuan artu bear, PP`koak nai baietza emonda-be Europa`ko iraspenari, eurak Amerikarren menperatzaille batzangotasunaren atzetik dabizela baiño. Eta nai-ta buru belarri eritzi orrein atzean ibili, ezin dautsoe Europa`ri ezezko autarkirik emon, euren asmakizun erdira-zaleak agiri-agirian geratzen diralako.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.005`an ZEZEILLA`en 16`an

Europa`ko batzangotasunaren edestia:

Europa`ko batzangotasunaren edestia antziñekoa da. Bata, berezkoa izan zana, eta bestea, orain ia 2.700 urtetik onantza.

Askenekotik ona Europa, era askoko egipide bitartez batzangotu gura izan dabe, baiña danak gudako indarkerien bidetik eta erritarrak kontuan euki gabe, ain-bat astakeri eginda.

1.789`an Frantzia`ko iraultzatik asiko gara, berak edestia muga baten antzera marraztu egiten daualako, antziñetik etorten ziran batzangotasunaren ametsak kaizar-erregetzaren maldaberagaz eta denbora barriko jakin-ekintzakaz.

Baiña aldaketa guztiak, erromatarren indarrezko ametskerien egipidean egin da, 325`an kaizar-Konstantino`k Kristau erlijioarentzat katolikotasuna aukeratuz gaiñera, ziñeskintzako arauetan ezarri ebalako.

Eta Europa`k, Erroma`tar ta Godo`en zalapartako ezereztasunagaz eta Mauritarren atzerakadan, nai-ta 8-9`n gizaldietan berezko erritarrak aukera aundiak euki, euren jabetasunezko eskutik jaun-erregetzak sortu ziralako, ezin izan dau menperatzailetasunaren egipideko ari-era ortatik urten, Grezia`ren jakintza aundian, Erromatarren legedian eta erlijioaren Katolikotasunean ezarrita geratu ziralako.

Argi dago, geiegian dagozela Erroma`tar legedia ta Konstantino`ren katolikotasunezko alderdikeriak menperatzaileak diralako, eta andik ona dana zatitu baiño ez daualako egin.

Europa`ren ondorengo edestia:

kaizar-erregetzaren maldaberan eta 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren ondorioz, Europa guztian indarkeriz, daukaguzan laterriak ipini ebazan Europa`ko erritar-Nortasunaren buru gaiñetik.

Eginkizun orreik ez eban besterik egin, bereztasunaren egia dana ostondu baiño, eta Europa`ko errietan laster asi ziran agertzen gizon/emakume abertzaleak, konturatu ziralako, giza-eskubideko arrazoiaren gaiñetik eginda egon zirala, legezko egipideok.

Euskaldunak, beti egon gara arduratuta Europa`ko erri artean sortzen ziran legeakaz, eta batez-be SABINO`k itzarttu genduzanetik.

Orregaitik N.E.I`ekaz asiko gara (Nouvelles. Equipes. Internationales démocratiques d`inspiration chrètieene. (D.C.), ortik aurrera andiagotu egiten diralako Euskaldunen artu-emonak Europa`ko barne-legeetan.

Zeaztasun oneik, Landaburu`tar Jabier`en (obras completas) liburutik artuta dagoz.

### N.E.I :

Errien-arteko alderdi-kristauen leenengo batzarra Paris`en 1.925`an Abendu`ko 12-13`an egin eben. Eta bertan Alemania, Belgika, Polonia eta Frantzia`ko ordezkariak batu ziran. Artu eben erabagia: Errien arteko iraspenaren idazkaria aukeratzea, Paris`en kokatuta geratuko zana eta Bruselas`en egingo zan urrenngo batzarra.

1.926`an Loraila`ren 22-23`an, Bruselas`eko Batzarrean: Aleman`ak, Belga`k, Italia`rrak eta Frantzesak`egon ziran. Eta aitzaki baten bategaz joan ez ziran ordezkariak: Polonia, Suiza`r, Lituania, Txekia eta Austria`rrak ziran.

Kristautasunezko Demokraziaren kideak, Fazizta eta komunisten eritziari aurre eginda, au esaten eben: " Demokrazia`ren egizko gogamenean, jendartearen ezberdintasuna eta belaun edo leiñu baten nagusitasuna ez dabezala on-artzen ". Demokraziaren oiñarriak: " Ekanduzko edo oiturazko indarrean lankidetasuna, askatasunaren arau-bide onak, gizarteari lotsagizun osoa eukitea eta Kristautasunezko jendekuntzaren garaipenak " elburu diralako.

On artu zan beste burupide edo erabaki baten, auxe diño: " Laterrien arremanetan, bakeari dagokion begira Kristau demokrata alderdien ikuspegiko ulermena: Ekanduzko edo Oiturazko indarrak, politikazko jaurkintzak eta diru-banaketa arduraren arteko ondoriotik agertzen dan zuzentasunezko orekatasuna dala ". Bertan egon ziran ordezkariak "Naziño`en Elkargoari " (Sociedad de Naciones) euren baietza emonda eta orokor erri bake-zale diran guztiei.

Eta azkeneko erabakian, kristau-demokratiko alderdi politikoak zer ziran zeatz azaldu eben: " Alderdien biltzea zala eta ez Nor-beretasuna ". An egon ziran ordezkariaren bitartez unetxo orretan, bere elburu edo asmoa ez zala Erritarteko bateratze-bat eraikitzea, alderdien artean jakin-arazian argibidetuta egoteko, oiturazko egitamu bat eraikitea zala, eta bide batez, bata-besteen agiriak aldatzeko.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`an ZEZEILLA`ren 18`an

- EUROPA`ren ERKIDETASUNA (III) -  
ERRIARTEKO KRISTAU DEMOKRAZIA`ren EDESTIA (D.I.C.)  
1.927`an KOLONIA`ko BILTZARRA:

Kolonia`n 1.927`an Uztailla`ren 11`n egin zan batzarra. Batzar orretan, Belgika, Italia eta Frantzia`ko ordezkariak egon ziran, eta ezin ziranak joan Polonia eta Austriarrak ziran.

Batzar orretan oarkari edo somakari egon ziranak: Olanda`ko alderdi-katoliko`en ordezkioak, Lituania`koak eta Txekoslovakia`ren kristau-jendarteko ordezkariak.

Biltzarren ekitaldiak, alkar-kideen arteko barriak emoteko izan ziran, eta egon ziran ordezkari guztiak, osterara be emon eutsoen euren atxikimendua (adhesiòn) Errien Elkargoari (Sociedad de Naciones), eta bakeak iraun dagian, antolamenduzko lana egiten eben iraspenai.

1.928`an 20-21`eko Uztailla`n, BOIS-LE-DUC`eko BILTZARRA:

Batzar onetara, Aleman, Belga, Frantzez, Ungaro, Italia`r, Luxenburgo, Lituania, Olanda eta Suiza`ko ordezkariak alkarrekin ziran.

Bakoitzak ekarri eban agiri-barriakaz danon ezagutzean ipinita, batzordea Paris`en badaezpada kokatuta egon bear zala erabaki zan, eta batzordera alderdi bakoitzak, idazkari-ordezko bat bialdu bear ebala.

Batzordea zaintzeko edo elikatzeko, urtero 15.000 franko`ko diru-kopurua erabagi eben. Eta luzaroan izkatu edo eztaibadakatu ziran, bakoitzak ze asmu euki eban erriaren alkargotasunezko izatasunaren aurrean.

An egon zan nagusitasunezko azterpidea (criterio): Errien alkargo demokratikoa (S.D.N.) zoinetzko legedian (organismo legal) ez zala eziñ-obe edo on-biribilla, baiña guztiz ongarria zala.

Batzordeak, gura eben alderdi kristau demokrataren batzarretan alkargo edo sindikatu-katolikuak be egon daitezkan, baiña ezetza emon da gero, batzarraren izatazunik kampo egon zalako, alderdi bakoitzari askatasuna emon eutsoen, erri-menperatzaileak zalakuntzazko adierazpen bat egin da gero.

1.929`an Uztailla`ren 26-28`an PARIS`eko BATZARRA:

Batzar onetan, erdikoak ziran Aleman`ak, Belga katolikuak, Frantzez demokratikak, erritar (popular) Italia`rarak, Luxenburgo`ko eskomatarrak, Lituania`ko kristau demokratikak, Olandes katolikuak, Polonia`ko kristau demokratikak, Suiza`ko erritar-gordetzailleak (conservadores populares) egon ziran, eta aitzaki baten bategaz joan ez zana Ungria`ko gizarte-kristau alderdia izan zan.

Ordezkarri bakoitzaren agiriak irakurri ta-gero, on-artu zan erritarteko idazkariak azaldu ebana.

Batzar onen gaia, batzordeen aginte-ordezkoak antolatuta: " Orain diran Laterri-barri oneitan, zelako eginkizunak euki ebezan euren antolamenduzko ekintzak " zan.

Gai onen erabagia, urrengo batzarrerako itzi eben, izka-mizka luzea izan zalako.

1.930`an Uztailla`ren 24-27`an ANBERES`eko BATZARRA:

Batzar onetara, erdikoak ziran Aleman`ak, Belga katolikuak, Frantzia`ko erritar-demokratak, Italia`ko erritar-alderdia, Luxenburgo`ko eskumatarrak, Olanda`ko katolikuak, Polonia`ko kristau-demokratak, eta Suiza`ko erritar-gordetzailleak jon ziram. Ungria eta Austria`ko arduradunak ez ziran joan.

Batzarrari asiera, Beljika`ko Heyman ministruak emon eutson, gaia "Sendiko Politika" zala. Suiza, Aleman eta Belga`k izkatu ziran gai onetzaz, eta danak aipatu eben, zelako garrantzi aundia euki eben kristau asmakizunezko antolakuntzarentzat.

Gero beti-lez, ordezkarri bakoitzak, euren Laterriko barriak emon ebazan, eta azkenez idazkari nagusiak beren agiria azaldu eben.

Ariñagoko batzarren gaia artu eben, eta gauza askoren artean ondorio oneik agertu ziran: "Kristau asmakizunezko alderdi demokratak, ondo ikusten ebala Laterrien jabetasunezko eta bearrezko erabakiak, baiña bere luzapenean ez dagoela aurrerakuntz demokratikorik". "Laterrien erabagiko erakusletasuna, naziñoaren indar bizi guztiak, lan-demokratiko ekintza baten bearrean ipintzea dalako". "Jabetasuna, politikako antolamenduetan ezarri bear dala, eta ez bizibideko erritaren eskuetan".

Baiña or, berezko erritarren Nortasunezko izaera agertzen da, Europa`ko diru banaketaren bidetik menperatu egiten dauana. Dirua Nortasunaren aurretik ipinten dabelako, gero Paris`eko batzarrean ikusiko dan lez, eta oraindiño argitu ez dana.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.005`an ZEZEILLA`ren 23`an

1.931`n URTARRILLA`ren 5`an PARIS`eko BATZARRA:

Paris`eko batzar onetan agertzen dira, goian esan doten lez, eurak euki ebezan zalantzak, zein izango ete zan leenengo: Europa`ren berezko erriak, ala Laterrien arteko merkataritzaren erreztasunerako apaintzen ziran salerosketako diruak.

Antza, bigarrenak tentaldi geiago egiten eutsen eta euren arteko eztaibada luzea euki ondoren, bukaeraren erabagia olan geratu zan idatzita: "Erri batzuetan barkatzen ez dauan (intransigente) aber-zaletasunaren itzartzeagaitik minduta; Politikan dagoen urduritasuna Europa`ren ekonomi arloa era-gabekeria sartuta astundu egiten dauana eta Mundu onen lanik-eza, gobernuen utsaldiak larri-unean izten dabelako, ziñatzen dogunak auxe adierazten dogu: " Errien arteko urreratzearen eta bakea on-bideratzeko erakundeen alde gagozela; zoraldiko okerkeri (ilketa) baten antzera gaitzetsi (censurar) ta ziñautsita (repudiando) indarkerizko edo bortizkeriaren deiari; eta euren borondateak baieztu ta aleginduko dabezala daukiezan indar guztiakaz, bai erri bakoitzaren barneko politikan eta bai errien-artekoetan, gorrikeriaren (extremismos) geikerizko bideak zarratzeko serbitzuan, erriak diru ta politikaren eritziak bakearen antolamenduzko lankidetasunera bideratu dagiezan eta Mundu ta Europa`ko bakearen bideak iraun ta zabaldu daitezcan, Errien-arteko Elkargoaren (Sociedad de Naciones) arauak eta aalmenak ibil-bidean ipinita egiten dabezan-en antzera ".

Agiria: Frantzes erritar alderdi-demokrata, Aleman erdikoak (de centro), Belgika`ko kristau langille`en batasuna, Luxenburgo`ko eskumatarrak, Polonia`ko kristau-demokratak, Lituania`ko demokrata-kristauak, Italia`ko erritarrak (populares) eta Olanda`ko katolikuak izenpetu eben.

Siñatu ez ebenak: Txekoslovakia`ko kristau-demokratak eta Austria`ko gizarte-kristauak, somakaien antzera bakarrik joan ziralako. Ungria`ko kristau-erritarrak, deiari ez eutzoelako jaramon egin, eta Suiza`ko erritar eskuindarrak deiari ezezkoa emon eutsoelako, Elbetiarren erriarteko politikan egon ziran gorabera bereziakaitik.

1.931`n 22-26`an LUXENBURGO`ko BATZARRA:

Batzar onetara: Austria`ko alderdien ordezkariak, Belga`k, Frantzes`ak, Italia`koak, Luxenburgo`koak, Olanda`rarak, Polako`ak ta Suiza`koak joan ziran. Aleman`ak, Lituano`ak eta Txekoslovakakoak uko (eskusarse) eginda. Deituta eta alderdien ordezkotzarik gabe Espaiña`ko



Mingijon maisua be egon zan, eta Errien-arteko Elkargoaren (S.D.N.) ordezeko bat, somakari (observador) lez.

Batzarraldia, Luxenburgo`ko diputaduen-gelako lendakariaren itzaldi bategaz zabaldu zan. Gero, M Boissard S.D.N.`ko idazkaritzaren ordezekoak beste itzaldi labur-bat egin eban, bera bertan egona eta zein zan bere ordezkotzaren asmoa azalduz. Azkenez, batzarraren idazkari nagusiak, Aleman`aren ordezkaritzak bialdutako eskutitza irakurri eben, zelan ezin daben bertan egon, derrigorrezko eragozpenak eraginda.

Batzar onetan, sendiak euki ebezan arazoakaz mintzatu ziran, azkenez, errietan eta erri-arteetan, sendiaren izatasuna babestu eta orekatu egin bear zala erabakita.

Batzar onetara deitua izan zan Espaiña`ko Mingijon ordezkariak, Espaiña`ko errepublikaren aurreko eta osteko egoera politikoari buruz mintzatu zan, eta Espaiña`n ez zala egon kristau-demokrataren alderdirik esan ondoren, laster beteko zala utsun-ori esan eban.

Urrengo batzarraren gaia, ekonomiaren larritasuna izango zala erabaki eben.

#### 1.932`an KOLONIA`ko BATZARRA:

Au izan zan Europa`ko kristau-demokrataren alderdiak egin eban azkeneko batzarra, Mr. Simonet`en agiriak azalduta, eginkizun onei zergaitik emoten jakon amaiera esanez.

#### EUROPA`ko KRISTAU-DEMOKRATA ALDERDI`akaz EUSKALDUN`en ARTU-EMON SAKONAK:

Frantzesakin: Erritarren Errepublikako Erakundeak (M.R.P.), 1.936-37`an ondo baiño obeto ezagutzen eban Euskal arazoa zein zan, eta 1.944`an Abendu`ko batzarra egin ebanean, Euskaldunak oorezko deia euki eben euren artean ezarrita egoteko, eta on-artzen ebezan Euskaldun bidetik artzen ebezan barri edo adi-eraziak.

Italia`rrakaz: Bardin, 1.946`an egin eben leenengo batzarrean, Euskaldunak bertan egon ziralako. Adiskidetasun aundia eukinda Luiji Sturzo taldearen idazkari nagusiaz eta De Gasperi errepublika`ko Lendakariagaz.

Beljika, Suiza, Txekoslovakia, Olanda, Ingalterra`gaz be, eta beste erri asko, Euskaldunen alegiñak menperatzaillaren aurka on ikusten ebezalako.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.005`an ZEZEILLA`ren 26`an

1.945`an Europa`ko guda nagusia amaitu-arte ikusi doguna, zelako indarrak ibili ziran Kristau-Demokratak ta Katoliko arauen bidetik lanean, Europa onetan demokrasi apur-bat lortzeko.

XVIII-XIX`n gizaldietatik, buru gaiñean espatak ezarrita ipini ziran laterriak menperatzailetasunaren zentzuaz edo ikurragaz ezarrita, menperatzailetasunezko eskubitarren indarrak urriñ joan ziran, Mundu eta Europa`ko erritarren eskubideak ezereztuta, eta beren aurka Komunismoaren iraspena sortu zan. Gaur beragaitik, Aita Santua`k esaten dauan lez "Komunismoa bearrezko gauza txar-bat" izan zala.

Mundua`ren erri-arteko indar-demokratikoak eta Komunistak lagunduta Fazizta menperatzailearen aurka, 1.936`an Espaiña`ko Errepublikak leenengo borroka galdu eben, Franko`k, Aleman ta Italiarren gudari laguntza euki ebalako, eta aurrerakuntzazko guda-tresneriak geiago izan ziralako, baiña 1.939-45`era Europa`k Amerikarren laguntzagaz gogor burrukatu eban, eta fazizta menperatzaile indarrak ezereztuta geratu ziran.

Baiña, nai erdira-zale eskuindar-gordetzailleak eta bai komunista laterri menperatzaileak geratu jakuzan berezkotasunaren errien gaiñetik, Mundu eta Europa`ko guda nagusi orrein ostean zalantza aundiko laiño baten barruan inguratuta, oiñak lurrean ezarri ezinik geratu ziralako.

Alde batetik, eskuetan oraindiño oztu-gabeko guda-tresnak euki ebalako, bata bestiaren aurka eta bakoitzak gura ebezan lurraldeak babesteko; bestetik, apurtu zan guztia berriz eraikitzeke laterri ta diru zaleentzat, zirikada edo tentaldi aundiko opil-goza izan zalako; eta askenez, daukaguzan laterriak betiko merkataritzaren sare naspilatzailek ipiñita dagozelako, aaztu edo gaiñetik eben berezko erri ta erritarrak kontuan euki gabe.

A-ta guzti be, lotsaz beterik geratu ziran, gizaren eskubideak guztiz murriztuta geratu ziralako, eta nai-ta gizartearen eskubideak demokrasiaren bidetik oiñarritu bear ziralda aldarrikatu, laiño edo eztaibada orretan irauten dogu, betiko erri ta erritarren giza-eskubideak oiñarritu ezinik.

Eta betiko arazoa dala jakiteko, ez dogu besterik bear ikuspegira ekarri baiño, ogeiko amarkadan Kristau-Demokratak Laterriagaitik esaten ebena: "Ondo ikusten ebezala Laterrien jabetasunezko eta bearrezko erabakiak, baiña bere luzapenean ez zala egon aurrerakuntz demokratikorik", eta alan gertatzen da.

Orregaitik begi-ikuspenean ipiniko doguz 1.945`eko guda ostetik giza-eskubidearen alde edestian zear emon diran pauso guztiak, gaur zelako aukeran gagozan jakiteko.

Baiña aro-aldi au amaitzeko eta "Europa`ko Alkartasunaren Edestia"rekin asi orduko, Amerikarrak 1.945`eko guda ostean euki eben irizpidea (criterio) edo aburumena argira ekarri bear dogu, Truman`ek "Bakea lortu gura ba-dogu, menderatuta geratu diran erriari be laguntza emon bear jakiela" esaten ebalako. Eta orretarako gogora ekarri bear doguz, Truman`en jaurkintzan, bigarren ordezeko idazkari nagusi izan zan Mister Atxeson`ek 1.947`an esandako berbak:

"Amerika`ko Laterri batuen aldetik alegin kaundiak egiten dabizela, gaur Europa ta Asia`ko erriak ondamen edo porrokkaldian eta ekonomi aldetik kolokan dagozenai laguntzeko".

"Guda ez dalako amaitzen, Mundu onen erritarrak ostera be Jan eta Jantzi zentzuz egin arte, etorkizunaren itxaropenean sinisteko".

Eta baieztu eban, Laterri-Batuak Mundu`ko erriak berriz-eraikitzeke eta ekonomi ta politikaren arloak orekatu daitezkan laguntzaillezke egitarau aundi bat jarraian ipiniko dauala: "Gizartearen eskubide ta iraspen-demokratikoak askatasunezke azkeran babestu daitezkan; Salerosle arlo-politikoak esku-zabalekoa izan dadin; Eta Errien-Alkartasunezke-Erakundeen (O.N.U.) jabetasuna indartu daiten.

Bai "Menperatzaillan aurka borrokan dabizen Nortasunezke-Erriak, euren ta daukiezan iraspenaren askatasunak babesteko, nai barruko eginkizunean bearrezke gauzak edo kanpokoak izan, Amerikarren laguntza artzke, muga-gabeko edo guzizke leentasuna eukingo dabela".

Amerikarrak eta Mundu`ko agintari-demokrata guztiak, 1.945`an guda-nagusiren osteko zarraskintzak ikusita-gero, guztiz damututako erabakiaren berbaldiak dira oneik, Euskadi`ko erritarrak, bai Agirre, Irujo, Ajuriagerra, Leizaola, Landaburu, Monzon eta ainbat abarreko agintariak batez-be, Katalanak eta Galegista alderdikoak aaztu gabe, itxaropen aundiakaz ibili ziran, Franko fazizta beren aurkitik bota be egingo ebelakoan. Baiña denborea aurrera doiala gero ikusiko dan lez, eta beste politikazke garrantzi aundiko gauzak sortu ziran ezkerre, berez Nortasunezke-Erriak ziranen Askatasunak ezereztuta geratu ziran gaur arte.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.005`an Epaila`ren 7`an

- EUROPA`ren ERKIDETASUNA (VI) -

Leenengo, ikusi daigun nondik asi zan Kristau Demokraziatik kanpo Europa`ren Erkidetasunezko asmoa 1.945`aren aurretik.

Etsikor (pesimista) ziran askorentzat, 1.914-1.918`ko Europa`ren guda nagusia, Europa`ko jendetasunaren (civilizaciòn) amaierako asiera zala ulertzen eban.

Gitxiago, baiña zentzun aundiagokoak ziranentzat, Europa`ren etorkizuna, bere egoera txarrari aurre egiteko, bere aalmenezko gaitasunean egon zala esaten eban. Antzezko edo guzurrezko erri-aberikide barriak sortu ziranetik, Europa sutauts`eko upel baten gainean ezarrita geratu zalako.

Onen ondorioz eta Europa`n egon ziran beste ardurazko mugi-aldi onantzera, oraiñarteko bost idaz-lanetan edestituta aipatu doguzan "Kristau Demokrazia eta Erritarteko Kristau Demokrazia" lez. Arrazoiz beterik eta arduratsu gizon bat agertu zan, Koudenobe-Karlegi`tar Ritxard kondea, 1.923`an "Europa guztiko bizitasun edo nabarduramenezko (movimiento Pan-Europeo)" mugi-aldia sortu ebana, eta 1.926`an Biena`n "Europa Guztiaren" (Paneuropeo) leenengo batzarra egin ebana.

Onek esate eban: "Europa`k ez eukala politikaren burutasunean (concepto) ezerezko izaerarik", eta antolakuntzagabeko eginkizun orreitan datoza beraldizko utsegite orreik, etorkizunerako borroka latzak baiño ez zirala ikusten.

Europa`ren irtenbide bakarra: "Europa`n dagozan erri guztien bategite edo elkartzearen bidetik egoala". Eta ez ba-eban berbarik egiten ezarri ziran Laterri menperatzaillai begira. Berezko erriak aipatzen ebasalako zan?

Dana dala, Europa`n orduko Kristau Demokratak Laterri-merkatari naspilgarrien aurka esaten ebenen antzera: "Ondo ikusten ebezala Laterrien jabetasunean artzen ziran bearrezko erabagiak, baiña bere luzapenean ez ebala ikusten aurrerakuntz demokratikorik" gaur be ori esaten dogu, or dagoelako betiko eta benetazko arazoa.

Antza, ez dabe gura ameskerizko sasi-laiñu orretatik urten eta oiñak berezko lur onetan ezarri, berezkotasunean oiñarritu gaitazan eta gizarte guztia bere bereiztasunezko ordezkariaren ardurak ondo beteta JAUNGOIKOA`ri eskeiñi.

Nor da nor... Munduko antzerki onetan, ez jakozan antzezlarizko jokaldiak egokitzen... norkerian adierazteko ?.

Mundu fisiko onetan ez dago lez "ondoriogabeko egiñik" eta gagozan suminkortasunezko (irascibilidad) eta sukoitasunezko (inflamabilidad) naasmen onetan, zelan ulertu jaurkintzarik onenean antolatuta gagozela ?.

1.929`an Irailla`ren 5`ean, Frantzia`ko leen ministrua zana, 1.926`an bakezko Nobel saria artu ebana eta "Europa`ko Erriak Elkartzeko" (federar) alegin aundiak ebana Briand Aristide`k, Erriarteko-Elkartean (Sociedad de Naciones) au esan eban: "Nere gogoan asmatzen asi naz, Europa`ko geografiaren antzera alkartuta dagozan erriak, euren artean alkartasunezko lotura antzeko bat egin bear leukela, edozein unetxotan arremanen aukerak euki dagiezan, euren onuraren gaitik eztaibadakatu daitezcan, danen artean laguntasunezko erabagiak artzeko, eta euren ustez aldi latzak agertzen ba-dira edo diranean, danon artean aurre egiteko.

Lagundi edo alkargo orreik leenen eta danez gain, ekonomi aldian eukingo dauz bere ondorioak: Galdera orreik diralako estukuntzetan sartzen gaituzenak".

Briand`eri, Erriarteko Elkarteak, oar-idaztiko (memorando) egitarau zeatz-bat aurkeztu dagiala eskatu eutson. Eta Briand`ek 1.930`an "Europa`ren Elkartasunezko Batasuna" (Unión Federal Europea) aurkeztu eutsoen.

Baiña berandu zan, ekonomiaren goiberak (depresión) laguntasunezko asmo guztiak narrastu egin ebazalako.

Gero eta 1.933`an Hitler`tar Adolfo`k Alemania`ko kantzillergotzara igon ebanean, asmo-on guzti orrein amaiera adierazi eban. Europa osterabe beste biotz-gogorkerizko oiñazetara eroan eban.

Eta emen garrantzizko gauza bi aitatu bear doguz: Briand`ek eta ariñago beste batzuk "Europa`ko Errien Alkartasunagaitik" berba egiten ebela, eta berezko errien egokitasunezko susmoa agertzen zanean, beti agertzen zala menperatzailetasunezko nausitzar-bat, batera menperatzaileen-menperatzailea zana, eta beren arrazoia aurrera eroateko norkeriaren aldeko aberats guzti orrei, makalaldiaren leize zuloko narraskerian sartuta egon ziralako zala beren eginkizuna, salatzen ebazan.

Beste aldetik eta 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren ondoriotik datozen ondo ikertuak ta egiztatuak diran indar-gabeko Laterri oneik, azken baten menperatzaileen eritzikoak diranak eutsita, beti bildurra sartu gurean, ekonomi-aldetik zoritxarrak aldarrikatuta, eta berezko erriak Europa`tik kanpo geratuko garala, euren laterrizko eritzi barrutik kanpora urtetan badogu. Ez dira konturatzen benetazko Europa gu garela daukagun bereiztasunean berezko nortasunarekin, eta ez eurak guzurraren gainean daukien ameskerizko norkeria, beti azpitik guzurra bear dauana goian eutsiteko.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`ean LORAILLA`ren 6`an

1.945` etik 1.949` ra:

De Gaulle`k, berak idatzitako oroimenezko liburuan esaten eban lez: "1.940` an jaurkintzan ibili ziran agintari guztien izugarritzko utsegitea izan zala". Eta itxura orregaz agertu zan Europa, guda amaitu zanetik.

A-ta guzti, 1.944` ko Uztailla`n guda amaitu orduko, Bretton Woods`en egin zan batzarrean, erriarteko diru-arauen arloan Amerika`ko dolar`ari emon eutsoen leentasunezko ardura aundiena, Munduan egon zan urre-gorriaren kopuruko 100`tik eurak izan ziralako 80`en jabedunak.

1.944` ko urte onetan, guda amaitu barik Belgika, Bealdeko-Erriak (Paises Bajos) eta Luxenburgo`k "BENELUX" elkartea sortu eben, euren artean eta kanporako zerga-arau (arancel) bardiña ipintekotan eta batera Europa alkarzaletasunera (federalismo) bideratzeko alegiñean.

Batera, 1.945` ko gudaren ostetik, Europa`ko erri guztietatik agertzen eta batzartzen asi ziran lendik ibili ziran Erritarteko-Kristau-Demokratak.

España`n, Franko`k danak menperatuta eta bere alde egon ziran gotzain-apaizakin eliz-bira asko egiten egon ba-ziran be, danak katolikotasunean etxura antzeko bat emoteko ziran. JAINKO eta KRISTAU-MAITASUN gabe. Utsun aundia, bete ez dana egingo nai-ta agintarien trikimañuekaz be. Eta gaur itxura orrein ezean, eleizak itzirik geratu dira.

Ori zan, Europa`n gai eta arima lez geratu jakuna.

A-ta guzti, SINISMENEAN EUSKALERRIA izango da Europa`ko aundienetariko bat, Europa`ko erri guztiak eta Franko-Belga`k batez-be, N.E.I (Erritarteko-Kristau-Demokrazia) ostera berrezkuratzeko ziranean, Euskaldunak bearrezko oiñarriak zirala esaten eben.

1.946` ko Irailla`ren 19`an Txurtxill`tar Winston`ek Zuritx`eko ikastetxe nagusian, azko aipatu zan solasaldia emon eban. Eta esan leike ori izan zala guda ostetik Europa alkartzeko leenengo pausoa.

Batera, Amerika eta Errusia`ren artean otzezko-guda asi zan, eta Truman`ek komunismoaren zabaltasunari aurre egiteko, laguntza eskaiñi eutsen apurtuta geratu ziran Europa`ko erriari.

Truman`en eskeintzari erantzuna emoteko, 1.947`ko Bagilla`n, bere bigarren idazkari nagusiak Harvard`eko ikastetxe nagusian, bostgarrengo atalean aitaturakoen mintzaldia egin da gero, Europa`ren Mendebaleko nai Ekialdeko erri guztientzat izango zan diru laguntza deritxon "Plan Marshall" aurkeztu eutsen.

Baiña Mosku`ko jaurkintzatic zirikatuta, 1.947` an amasei errik bakarrik onartu eben laguntza ori.

A-ta guzti, kontuan euki bear da, Europa`ko nagusi guztien griña edo joera artu-emoneko merkataritzazko arloan askatasunezkoa izan zala. Eta orren ondorioz 1.948`ko Urtarrilla`n larogei (gutxi gora-bera) errien artean "GATT" (General Agreement on Tariffs and Trade) sortu ebela, merkataritzaren arloa, ostopo barik izteko alegiñean. Danen artean Munduko merkataritzaren arloan, bostetik lauen kopuruzko ordezkotza euki eben.

Asken baten, 1.948`ko Jorrailla`n Estatu Batuetako batzar nagusian "European Recovery Program" autatuta, laguntzak aurrera urten eban, eta 1.948-1.952`rarte 13.000 milloiko diru-kopurukoa izan zan.

Txurtxill`ek, Marshall`egaitik esaten eban "Garaipenaren Antolatzailea" zala, adeitasunezko gizona zalako, baiña danon begirunean ez zan bardiñ ikusten, Amerikak askoren ustez komunismoaren-etsaitasuna bakarrik eskeintzen ebalako.

Diru kopuru orren laguntza banatzeko 1.948`ko Jorrailla`n O.E.C.E (Organización para la Cooperación Económica Europea) sortu eben, baiña antolakuntza onek ez eban lan ori egin bakarrik, 1.950`eko urtearen ezkerotik merkataritzazko arlo osoaren askatasunagaitik ainbeste lan egin ebalako, eta arauak ezarri be, etorkizunean ekonomiaren aldetik egingo ziran artu-emon guztietarako.

1.948`ko Abendua`ren 10`an O.N.U.`ren batzarrean onartuta "Gizartearen Eskubideak" sinatu ziran España be artean zala.

1.949`ko Jorrailla`n beste pauso aundi bat emon zan aurrerantza O.T.A.N. sort-arazita Bruselas`eko Alkargotik aurkeztuta Alemania bateratu daiten eta erantzun aundia euki eban, Kanada, Dinamarka, Islandia, Italia, Noruega, Portugal eta Amerikako Estau Batuak, berealde egon ziralako. Errusia guztiz aurka agertu zan.

George Kennan`en eritxian, Estatu Batuak obeto geratu ba ziran Europa`ren ikutu-eziña babesten, Alemania berriz-batu dagian. Baiña ez eben gura eta Errusia`k Alemania gogor banandu eban.

Emen ikusi doguna, damu aundia euki arren, gudaren ostetik, Rusia ta Amerikarren artean nork-geiagoko jokuan sartzen asi zirela, geien, merkataritzazko askatasunen diruak aleginduta, Laterri edo guzurrezko-erri oneik gogortzen zirala berezko erriaren aurka, Mundu onetan sasi-aunditasuna eta diruak elburuak ba-ziran lez.

Ludi onetako bizitza ez da berez ELBURUA, danok dakigun lez, Mundu onen legeak asarre guztiagaz ORDEZKARITZAREN bidera beartzen gaitulako.

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.005`an LORAILLA`ren 16`an

1.950`etik 1.957`ra:

1.948`an O.E.C.E. (Organizaciòn para la Cooperaciòn Econòmica Europea) sortuta. 1.949`an Europa`ko Laterri geienak Estatu Batuak eta Kanada`gaz batera, Mendebaleko babesaren alde gudarako-elkartasun aundia sortu eben Errusia`ren aurka, O.T.A.N. irasita. Bai-ta 1.949`an beste garrantzi aundiko oinkada bat emongo eben "Europa`ren Batzordea edo leendakarien batza" (Consejo de Europa) irasi zanean.

Erakunde au, gaur be bizi da, eta beren zeregiña, Europa`ren erriarteko kideetasunean politikazko lankidetasuna berotzea da.

Baiña bere araudian ez da sartzen Europa`ko Laterrien batasunik ez alkartzetik. Bere leenengo eginkizuna, demokraziaren araudia indartzea izan dalako, eta beragaz batera Laterri-arteko gizartearen eskubideak sendotu.

Gaur, Europa`ko erakunde au, guzurrezko Laterriak esaten dauskuzan gauzen aurka dago, adibidez: "euretik kanpo ez dagoela izaterik". Oraindiño esaten dauskuna: "Europa`ren Berezko Erritarentzat, atea zabalik dagozela". Euren gogo-barruan badakielako ori dala benetako bidea Europa`ren Alkartasun osoa lortzeko eta aurrerantzean, demokraziaren bakean bizi-bizian jokatzeko.

Erakunde au sort-irasita gero, esan leike 1.949`ko urtean Europa bere zeregiñetan geratuta egoala, irasitako erakundeen erabakiak guztien baimenaz artu bear ziralako, eta eragozpen orrek, danak, oiñarrizko adirazpenetara eroaten ebazalako, ezer zeaztu barik, zan.

Europa noraezko bidean sartuta egoala, Frantzesia zan Monnet`tar Jean ekonomilariak (1.950`an, "Europa`ko Galtzairu (acero) ta Ikatzaren (carbòn) Erkidetasunaren (C.E.C.A.) oiñarrizko egitamua idatzi eban. 1.952-1.955`eko urte bitartean bere lendakaria izan zan. Bere lan-lekua itzita Europa`ko Estatu-Batua`ren alde ekintzazko batzordera joan zan. Eta 1.978`an 90 urte bete ebazanean Europa`k omendu eban "Europa Batuaaren Aita" lez), Frantzia`ren kanpoko ministru Robert Stxuman`eri Europa eraiki edo jasotzeko bide barri-bat adierazi edo erakutsi eutson. Europa mugatuzko eginkizun labur ta zeatzakaz egiteko, beti "Alkartasunezko Eginkizunean" oiñarrituta.

Frantzia`ko asmo-agertze orreik, 1.950`eko Loraila`ren 9`an "Stxuman`en Adirazteetan" eratuko dira, eta eldu, Paris`en 1.951`n Jorraila`ren 18`an sinatu zan "C.E.C.A.`ren Elkargoarekin" (Tratado de la Comunidad Europea del Carbòn y del Acero), Frantzia, Alemania`ren Alkartutako Errepublika, Italia, Olanda, Beljika eta Luxenburgo`gaz.



Bera izango da tresnarik egokiena diruen aldetik Europa`ren arazo aundienak garbitzeko. Bai Ikatzak meagintza, eta Altzairuak (acero) burnigintzaren-lantegiko salerospena antolatuta.

Ekintza orrein elburuak:

a).- Kideen arteko bakea gogortu.

b).- Kideen arteko diru kontua edo ekonomia bateratu, eta euren artean muga-gabeko barne merkataldi bat sortu.

d).- Gizartearen alkartasuna berotu edo zirikatu.

e).- Luzetara jokatuta, politikaren batasuna lortu.

Oinkada aundia benetan Europa`ren Alkartasunerako, Laterrien jabetasunetik edo aginpidetik, lege asko, danon iraspenera aldatzen ziralako.

Neurri oneik, Frantzia eta Alemania`ren arteko urbiltasunaren billa izan ba-ziran, bide batez..., Europa`tik gudaren mamuak urruntzeko ziran.

Frantzia`k urte berean, "Europa`ko Alkartearen Babesa" (C.E.D.) eraikiteko asmoa agertu eban, baiña 1.954`an uts egin eban, bere legebiltzarrak politika eta gudarako indar geiegi zala esan eta ezezkoa emon ebanlako. Eta urte oneitan "Europa`ren Mendebaleko Alkartasunagaitik (U.E.O.)" aldatu eben, baiña au-be O.T.A.N.`ek menperatuta egon zan beti.

C.E.C.A.`ren ondore-onari eta politika ta gudarien-babes taldeko alkar-tearen utsegiteari begituta, laster konturatu eta gogoratu ziran, Europa barri bat sortzeko, emon bear ziran oinkadak, osotasunezko ekonomiaren arlo bidetik izan bear zirala.

1.955`ean Messina`n sinatu eben sei errien kanporako edo erriarteko-ministruak Belji`ar Spaak`tar Paul Enrri`ren lendakaritzapean batzartuta, emaitz onak emon ebazan, eta bere ondorioz, 1.957`an Epaila`ren 25`ean Erroma`ko Batzarra eginda "Europa`ko Ekonomia`ren Alkartasuna (C.E.E.)" eta "Indar Atòmiko`aren Europa`ko Alkartea (E.U.R.A.T.O.M.)" sortu ziran.

Eginkizun au, Europa`ko erri guztien urbiltasunagaitik, danon arteko merkatu bat sortu daiten egin zan, eta batera, Europa`ren Alkartasuna lortzeko bideak billatzen.

Europa ori sortu zanean (C.E.C.A.), (C.E.E) eta (E.U.R.A.T.O.M.) "Seiren Europa" deituko jakon, Frantzia, Alemania, Italia, Olanda, Beljika eta Luxenburgo`ko erriak bakarrik ziralako sinatu ebenak.

Emen be argi ikusten dana, Laterriak euren agintza edo jabetasunetik, oraindiño ez ebela gura emon ezertxo be, kaizar-zaletasuna bizi-bizian egon zalako, gero ikusiko dan lez.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`ean LORAILLA`ren 18`an

1.957`tik 1.973`ra:

1.957`an Epailla`ren 25`ean, Erroma`n sinatu ziran alkargoakaz C.E.E (Europa`ko Ekonomiaren Erkidetasuna) eta E.U.R.A.T.O.M. (Europa`ko Indar Atomikoaren Erkidetasuna) irasi ziran.

Sinatu zan C.E.E.`ren alkargoko sarreran esaten eban: Sinatu ebenak beartuta geratzen ziralako: "Europa`ren erkidetasun osobat lortzeko, etenbako oiñarriak ezartzeko ausarti dagozela". Olan, sinatuta geratzen zalako politikako asmoan Europa`ren erkidetasunezko burutakizuna.

Baiña egia esanda, euren arteko mugak suntsitu edo deuseztutea bakarrik lortu eben. Eta orregaitik deitu jakon "Europa`r Guztien Merkatua" (Mercado Comùn Europeo).

1.961`eko Agorrilla`n, Ingalaterra`ko leenengo ministrua C.E.E`an sartzeko alegiñ aundietan ibili zan. Baiña Txarles De Gaull, Amerika`r eta Ruso`en guda-otsetik kanpo, "Europa`ren Laterrizko Aberri Indartsuak (Europa de las Patrias)" sortzeko atzean ibili zan, Laterriak askatasun ta nortasun aundiz indartzeko naian. Eta Ingalaterra`k Amerikarrakaz adiskidetasun aundia euki eban lez, 1.963`an De Gaull`ek ezezkoa emon eutson.

Erroma`ko alkargoan, beste garrantzizko gauza bat sinatu zan: "Danon arteko Lurgintzaren Politika" (P.A.C.). Lurraren mozkiñak askatasun osoagaz ibili daitezkan, eta erkidetasunaren kanpotik, mozkiñaren sal-neurriari egiten eutsoen leia politikako araukaz babesteko.

P.A.C. diru arloan babesteko, erkidegoaren kutxarentzat garestiena izan zalako (eta gaur egun be, berrikuntza aundiak bear dabezanak), 1.962`an, Lurgintzaren Zuzenbiderako eta Sendotasunerako edo Baikuntza sendotzeko Europa`ko Kutxa F.E.O.G.A. irasi eben.

1.965`ean, erkidetasunaren emaitzak edo garaipenak ain onak ziran lez, leenengo eta bereizgarrizko oinkada aundia emoten saiatzen dira. Batzar orreri "Nastearen edo Batasunaren Alkargoa (Tratado de Fusiòn)" esango eutsoen. Eta ortik aurrera euki ebazan erdi-purdiko iraspen politikoak, ekonomikoak, eta zaintzaren arduran, sendotu egiten dira, iraspen barriak eta egon ziranak era-barrituta geratu ziralako, adibidez: "Aolkularitzaren Batzordea, len Europa`ren Batzarra izan zanaren orde, Europa`ko Lege-Biltzarra izango zan; Zuzentasunaren Auzitegia; Eta Gizarte ta Diru-Arduradunaren Batzordea". Erakunde orreik ortik aurrera, ez dira ibiliko bakotxa bere aldetik, euren bereiztasunean indarrak alkartu egiten dabezelako. Eta ekintza orreri esango jakon "EUROPA`ko ERKIDEGOAK (COMUNIDADES EUROPEAS)".

1.966`an De Gaull`ek EE.UU eta U.R.S.S`en aurka Guzurrezko-Laterri-Indartsuaren babesle izan arren, sekula ez eban siñetsi Europa alkartu baten Politika arloan, eta orregaitik, Europa`ko Erkidegoa illabete osoetan geratuta euki eben "Ezar Leku Utsal" deritson larri-une-gaz, azkenean Luxenburgo`ko antolabide-gaz erabagi zana. Eta Ingalaterra`ri 1.963`an ezezkoa emon ba-utson, 1.967`an Harold Wilson`eri ostera be ezezkoa emoten dautso. Itxaron egin bear zan. Frantzia`n 1.968`ko Lorailan gertatu ziranakaitik beartuta, berak 1.969`an ezar-lekuari uko egin arte, Ingalaterra, Europa`ko Erkidegokaz berbetan asi daiten.

1.968`an Uztailla`ren 1`ean, C.E.E. Erkidegotasunen arteko mugaren zerga guztiak kendu ebezan, eta kanpotik sartzen ziran saltzailleen mozkiñari aurre egiteko, erkide guztientzat bardiñ izango zan zerga-arau bat ezarrita "MUGAREN BATASUNA (Unión Aduanera)" lortu eben.

Irasi zan "Europa`ko Indar Atomikoaren Erkidegoak (E.U.R.A.T.O.M.)", C.E.E. baiño nai izen aundiagokoa izan, arduran ez eban euki "Europa`ko Ekonomi Erkidetasuna`k (C.E.E.)" euki eban ainbesteko garrantzirik, atomika arloan "lanbideko azkera indartsu ta leiatsu" baten billa ibili ziralako. Orregaitik Erroma`ko Alkargoa garrantzizko arloan aipatzen dogunean C.E.E.`ren gaitik berba egiten da.

Eta Ingalaterra`k azken baten, bere erritarren eragozpen aundiko jazarraldiak irabazita, C.E.E`an sartzeko aurkakoak arlo aundi baten beintzat ziralako, 1.972`an eztaibadak ondorio onakaz amaitu ziran. Eta 1.973`an Edward Heath`ek "Ingalaterra, Europa`ren Erkide izateko" alkargoaren atxikitasuna edo baimena sinatu eben.

Eta 1.973`an leenengo zabalpena sortuta, Bretainia-Aundia, Irlanda eta Dinamarca`ren eraspen (adhesiòn) edo baimenagaz "9`ren Europa`ko Erkidetasuna" lortuko zan.

Emen, gero-ta argiago ikusten doguzanak, iru gauza dira: a) Laterrizko kaizar-zaleak alde batetik, ezergaitik ez ebela gure euren gorentasunak galdu. b) Bestetik, berezko erritarrak, ez ebela euren eskubideko aberrietan ezarri gura, mugako zergak aundiagotuz, euren sasi-bizitza berantza joango zalako demokraziaren alde. Eta d) Baleiteke, Europa`ko Laterri guztien erabakia izan bear dala, edo geienen erabakia, orduan be, argira agertzen asi ziralako, Laterrien oro-biltzailletasuna edo erritarren beartutasunezko-erdirakotasuna, demokraziatik urrun geratzen ziralako, erritarrak gaurko lez ardura-gaberak bideratzen ebezalako, gagozan ardurabako-xautzailletasunean ezarrita.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`ean Loraila`ren 25`ean

1.973`tik 1.988`ra:

1.973`an, arrolioaren larri-aldiak, Europa`ren Laterrietan urte askotako ekonomiaren azibide eta asmaketa onari amaiera emon eutson, lan-gabezia eta diru-antura edo inflazioa sortuz 1970`eko bigarren erdian eta 1980`ko asieran. Eta nai-ta Europa`ko erkidetzaren alkartasunak utsegitezko antza artu arren, une orreitan berri-emailleak "Eurosinisgabekeria (Euroescepticismo) eta Euro-gogortasuna (Euroesclerosis) esan, egia, aurrerantza oinkada aundiak emon zirala da.

1.975`ean "Europa`ren Batzordea", Laterriko Jaurkintzaren Lendakariak aldizka, garrantzi aundiko erabakiak artzeko batzartzen ziran astapeneko batzordeetan, iraspenduta (institucionalizado) geratu zan.

1.975`an, "Errialdearen Azkerarako Europa`ko Funts edo Eskuarteko dirua" (F.E.D.E.R.) (Fondo Europeo de Desarrollo Regional), sortu eben. Lantokiak ugaritu, egitamu txikiari lagundu, lan-toki txikerraren azkera ta euren ugaritasuna berotzeko, dirua zan.

1.975`an, nai-ta 1957`an Erroma`ko alkargo edo ongunean, gizon/emakumearen lan bardiñetan zuzendu ba-ebazan egon ziran desberdintzak lan-sari bardiñak euki dagiezan, urte orretatik aurrera lanaren arlorako, lanerako-bidea eta bizibideko gorapenean bereizketarik ez daiten egon, arrera bardiñean ipini ebezan, aukera bardiñaren pozgarritasuna berotzeko.

1.979`an "Europa`ko Diruaren Bide edo Araua" sortu zan E.C.U.`ren sorraldiagaz (European Currency Unit). Europa`ko Laterri ezberdiñen diruak, euren baliozko-bidean aldaketarako, lotuta geratu ziranak gora-beragoko xingola estu-baten, eunetik bi-terdikoa izango zan.

1.979`an, Europa`ren Batzarrerako, leenengo auteskundeak egin ziran, guztien-autarkiaren arauekin.

1.981`ean Grezia sartu zan Europa`ren Erkidegoan. 1.974`an gudu-militar nausitzargoaren eragozpideak kendu ebenean.

1.984`an, Altiero Spineli`k Europa`ko Lege-Biltzarrean Erroma`ko Alkargoaren ordeaz, alkargo barri baten egitamua aurkeztu eban, batzordeak ez ebana ontzat artu. Baiña sarigarria izan zan, 1.990`ko amarkadan sortuko ziran aurrerakuntzai buruz, alkarizketak liskarrean ipini ebazalako.

1.985`ean, Benelux`eko iru erriak, Frantzia eta Alemania`k STXENGEN`eko erabagi edo ebazpena sinatu eben. Geroago, Erkidegora urbiltzen ziran erri guztiak sinatu ebena. Ekin-bide orregaz, Erkidegoa`k bere gain edo jabetasunean artu ebazalako bere barruan gizakiak aske ibili

daitezan, Erkidegoko Laterrien mugak apurka apurka ezereztuta, zendotzen asi zan ametsgarri izan zan buruzpide ori.

1.985` ean, JACQUES DELORS Europa`ko Ordezkaritzaren (Comisiòn) Lendakaria egiten dabe, eta leenengo oinkada "Europa`ko Agiri Bakarra" (Acta Unica Europea) irastea izan zan. Delors, lan orretan 1.995` erarte egon zan.

1.986` an Europa`ko Erkidetzan Portugal eta España sartu ziran, andik aurrera eta beste zabalkuntza bat egin arte "12`ren Europa" esango jakon.

1.987` an Urtarrila`ren 1` ean "Europa`ko Agiri Bakarra" (Acta Unica Europea (A.U.E.) ) 1.986` an sinatu zana, indar guztiagaz asi zan bere ardurazko ibilbidea beteten Europa`ren ametsak sendotuz. Andik aurrera "Europa`ren Erkidetasuna" (Comunidad Europea) esango jakonari. Urte orreitan, Erkidegotasunak ikurriñ urdiña 12 izar-oriekin bere irudi lez, eta abesti lez "Poztasunaren Ereserkia" (Himno de la Alegria) bere ikur artu ebazan.

Europa`ko Agiri Bakar orrek lendik etorten ziran iraspenen asmoak sendotu egiten dauz, adibidez: a) Europa`n merkataritza bakarraren ametsak bete daitezan lege-arauakaz sendotu ta antolatzen dabe. b) Europa`ko politikaren ametsak be sendotu egiten dau, politikako lankidetasuna indartu egiten daualako, eta d) Europa`ko Lege-Biltzarraren zeregiñak indartzen dabezalako.

Agiri Bakarraren garrantzi aundieneko neurriak, au esate eban: Erkidegoa neurriak artuko devezala Europa`n merkataritza bakar bat egon daiten, denbora mugatu baten barruan 1.992`ko Abendua`ren 31`n amaituko dana.

Andi-nai onen asmoa 282 legezko neurri zeatzakaz antolatuta egon zan, eta beren bete bearra, errez lortu eban mugatu eben denboran, Europa`ko Erkidetzak egizko gorputza artuta.

Emen be ikusten dogu, Europa`ko erritarren aurretik gaurko (Frantzia`ren Auteskundera) lez joaten ziralta, askenez eta egin ta gero erritarrai galdetuta demokraziaren etxura apur bat artu dagian.

Eta batera ikusten doguna, Delors eta sozialisten ingurutik irarrita "Europa`ren Uritargo" baten antzeko bat lurralde aundi onen gizartea izan daiten atzetik dabizela, erdira-zaletasunezkoak lagunduta.

Ez dira konturatzen, eziñezkoa dala Ludi onek bakotzari jasten dauskuzan soñuak kentzea, JAINKOA`k orrekaz bialdu dauskulako bakoitzaren ordezkotza beteten. " Bizitza Bera Ez Dalako ELBURUA ".

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005` ean LORAILLA`ren 26` an

1.988`tik 1.992`rarte:

Lurrarteko itsasoaren inguruko erriak Iparraldeko erriak baiño azkera gitxiagokoak ziranak, Europa`ko Erkidegotasunean sartzen asi ziranetik, Erkidegoak bir-zuzendu egiten dau bere politikazko jaurlantza, ararte ekonomiaren soiltasunetik, gorputzak bear dauan beste soin-zatietara zabaltzen dalako Erkidegotasunaren gorputz guztiaren ots-kidetasun edo goxotasunean ezartzeko, 1.987`an Europa`ko Kidetasunaren Politika A.U.E.`gaz edo Europa`ren Agiri Bakarragaz.

1.987`an sinatu zan Europa`ko Agiri Bakarragaz, Jacques Delors`ek bultzada aundia emon eutson Ekonomi eta Diruaren Batasunari osotasunezko aurrerapenean, eta onen ondorioz lantokiaren alkarteko buruzagiari emoten eutson aurrerakuntzagaz Europa`ko langilletasunaren eskubideak orekatzeko, "Gizartearen Eskutitza" sortu eben.

Baiña Delors`en politika guztia, Ingalaterra`ko Margaret Thatcher leen ministruaren aurkakoa izan zan. Onek Amerika`ko lendaria izan zan Ronald Reagan`ekin "Esku-Zabal Barrien Iraultza"gaz (revolucìon neoliberal), Laterriari ekonomiaren arloan, gizartearen babesean, ekonomiaren arloetako naaspiltzetan, sindikatu edo elkargoen indarren txikituran edo urritasunean eta zergaren laburketan, gitxiago sartzea eskatzen eutson. Gaiñera, Europa`ren Alkartasunerako beti agertu zan aurkakoa "Burdinezko-Andra" au, Europa`k eskatzen eban diruari, beti gitxiago emoten alegintzen zalako.

Burdinezko-Andra onek Brujas`en 1.988`an Iraila`ren 20`an, deritxon "Europa`ko Baltzuan" emon eban itzaldian argi ta garbi zeaztu eban bere Euro-Sinisgabekeria (Euroescepticismo), au esaten ebalako: "Laterriari sorterrien edo nazioaren izena kendu, eta alegiñak egin Europa`ko erakunde onetan indarrak batzeko, eginkizun oso txarra izango zala". "Gure Langintzako merkataritzan, ez dogulako bear arautasun barririk langintza garesteko, biguntasun gitxiagoaz eta leian gogorragoa izan daiten, guri atzeritarrak saltzen dauskun mozkiña baiño". "Bretaña Aundian, beti borrokatuko gara, Europa`ko mailla alkarganatuaren (colectivismo) edo baltzuzkoak diran (corporativismo) iritziak sartu daitezcan alegiñaren aurka. Nai-ta gizarteak euren errietan nai dauana egin, euren gauzak diralako".

Delors`en erantzuna 1.989`an Bruselas`eko toki berean etorri zan. Europa erdi eta ekialdean sortzen ziran arrigarritasunezko gertakizunakaz ikusita 1.989`ren garrantzizko urte orreitan: "Europa erdian eta ekialdean, komunismoaren arauak ezereztuteagaz". "Antziñagoko gizartearen erri-txaloak demokraziari" ikurra izan zana "1.989`an Azaroa`ren 9`an Berliñ`eko ormea botateko". "Sobiet-Alkartearen gaitz-aldia, 1.991`ean

Komunnistaren gobernu edo yaurpidea ezereztu egingo ebana, eta bai-ta bere Laterrizko jaurkintzaren atalak guztiz lokatu". Eta "Yugoslavia`k urte orreitan, Lurralde Aundi zaar onetara, 1.945`tik bakean egon zana osterabe guda ekarrita" . Delors`ek, berba oneik esanda aurrerantza egi eban: "Edestia lasterka eragintzen asi da, eta guk beragaz bat egin bear dogu".

1.989`ko urte orreitan Delors`en eskabidez, Europa`ko jaurkintzan agertu zan indar-gabetasuna argi ikustea eta Erkidetasunaren orekatasuna bakarrik zala gai Europa`ren sendotasunari erantzuna emoteko ikusiz, danon Batzar batera deitu eban "Ekonomi eta Diruaren Batasunezko" gaiaren goraberan azkenengo erabakia artzeko.

Erabaki au artzeko osterabe Frantzia ta Alemania izan ziran giltzak, Helmut Kolt eta Francois Mitterand`ek au esanda: "Amabi`ren Europa Politikoa eraikitzeko, laster-eragiñeko bidean sartzea erabagitzen dogu". "Gogoratzen garalako, Laterrien osotasunezko artu-emon guztiak Europa`ko Erkidegoan eraz aldatzeko eta bear dauan tresneriakaz apaintzeko au dala une egokiena"

Maastritx`en 1.991`n Abendua`ko 9-10`ean, on-artu eta baietza emon jakon Europa`ren Batasunezko Alkargoari. Andik aurrera Maastritx`eko Elkargo lez ezagutuko zana.

1.992`ko Otsaila`ren 7`an sinatu eta bideko lanean asi zan Alkargoa. Nai-ta Europa`ko Erkidego Batasun orrek (T.U.E.) Laterri guztien onespena artu orduko urte bat baiño geiago igaro.

Europa`ko Erkidegotasunaren Batasun au, bere aurrerabidean, Aberritarren artean zan ? Laterritarren artean zan ? (Or dago betiko zalantza) erkidetasun oso bat lortzen dau, politikan be zer-ikusi aundiagoa artuta, bere egitamuaren antolakuntza iru oiñarrietan ezarrita: a) Erkidego arloa deitzen jakonari, bere gizarte eta ekonomiaren oiñarritik, Ekonomi ta Diruaren Batasunezko alkartasunetik Ekonomia ta Diruaren Batasunera eltzen dana. Emen: "merkataritza-bakarra eta ekonomi ta diruaren batasuna batzen dira (P.A.C.) . b) Danok ziurtasunezko babesa, erriarteko politikaren bidez (P.E.S.C.). Eta d) Barrruko gauzak eta Legearen zuzenbideko lankidetasunean (J.A.I.).

Guzti au marratuta: a) Oiñarrizko Eskubideetan eta Askatasunezko Lotsagizunean. Eta b) Kidetasunarteko, Aberritasunaren Bardintasunezko Lotsagizunean.

1.995`an iru urte geroago: Suezia, Austria ta Finlandia sartuko dira Erkidegoan. Ama bost`en Europa`n, esango jakonari.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`ean LORAILLA`ren 31`n

1.992`tik 2.000`rarte:

1.992`an Europa`ren erkiegoko Batasunaren (T.U.E.) bidetik, Europa`ko gizartearen onespena artuta, oinkada aundiak emon ziran aurrerantza. Baiña Europa`ren Erkidetasunerako jakin daigun zelango atsegintasuna asi zan eragintzen, zeintzuk erriak Erkidegotasunari aurkeztu jakozan euren kide-naien eskaerak azalduz: Noruega`k, Erkidegoan sartzeko eskaerak egin da gero, 1.972`ko Irailla`n eta 1.995`an ezezkoa emon eutson Erkidegoari, errien eritzia artu ta gero; Turkia`k, 1989`an Joraila`ren 14`an; Txipre`k 1.990`an Uztailla`ren 3`an; Malta`k, 1.990`an Uztailla`ren 16`an; Ungria`k, 1.994`an Epailla`ren 31`n; Polonia`k, 1994`an Jorrailla`ren 5`ean; Rumania`k, Bagilla`ren 22`an; Eslobakia`k, 1.995`ean Bagilla`ren 27`an; Letonia`k, 1995`an Urrilla`ren 13`an; Estonia`k, 1995`ean Azaroa`ren 24`an; Lituania`k, 1.995`ean Abendua`ren 8`an; Bulgaria`k, 1.995`ean Abendua`ren 14`an; Txekia`ko Errepublika`k, 1.996`an Urtarrilla`ren 17`an; Eta Eslobenia`k, 1.996`an bagilla`ren 10`ean.

Batera, Erkidego`arentzako beste oinkada aundi bat, Ekonomia eta Diruaren Batasuna (U.E.M.) sortzea zan EUROA`ren izenagaz.

EUROA`ren Asmakizuna 1.990`an asi zan eta 1.993`ko Abendua`ren 31`n amaitu, diru bakarra izan daiten, on-artzen eben erriarteetan.

Erri-kideak, 1.994`ko Urtarrilla`ren 1`etik 1.999`ko Urtarrilla`ren 1`erarte, burutakizun batzuk lortzeko, adibidez: "Diruen antura edo Iflazioaren laburpena edo murrizketa, %`ko 1`5`tik gora igon ezin ebana; Euneko epe-luzearen irabazteetan, 100`tik ezin ebana izan 2 baiño geiago; Erri-zorrak (deuda pùblica), erriaren ondoren guztiko (P.N.B.) 100`ko 60`tik gora ez ebana izan bear; Errian sartu-urteneko diruaren agirian (deficit pùblico) erriaren ondare guztiko (P.N.B.) 100`tik 3 baiño geiago ezin ebana izan; Diruaren ordezeko aldaketan gora-beragoko eztaibadak, urte bian gitxendiz baretuta egon bear ziranak; Eta Laterri bakoitzean guztienak diran diru-utsaren ardurak zaintzeko. Antolatu edo eratu bear eben euren ekonomiaren politikak, "Itxaropeneko Irizpideakaz (criterios de confianza)" izenduta, diruaren ibilbide ori arteko sinismenean asteko. Eta lortzen eben erriak 3`n maillara igoteko al ziran.

1.995`an Epailla`ren 26`an Stxengen`eko batzarra egin zan, eta bere Alkargoan: "Gizartearen Alkargoa (acuerdo social); Erkidegoko Gizartearen Eskubideko eskutitza (Gizartearen Eskutiza esango jakona); Aurrez ikustean, Laterriak oiñarrizko eskubideak oinkatu egiten dabenezanean zigorraren politikak ezarri; Bereizkerietan ez ibiltzeko Oiñarriak (principio de no discriminaciòn) eta Danok Aukera bardiñean ezartzea; Gizon/Emakumeen



artean bardintasuna; Gizartea Erkidegotik aske ibiltea; Erkidegoan, Apurka eta eten barik, Askatasunezko Zabaldegiak (espacios de libertad), Ziurtasunaren Babesa (de seguridad) eta Zuzenbidetasunaren (y de justicia) arloak onartu ziran.

Gero, 1.995`ko Abenduan Madrillen, Europa`ko Kontseillua batzartu zan, diru orreri EURO`en izena ipinteko.

1.995`eko urte orreitan, beste iru erri sartu ziran Erkidegoan: Suezia, Austria eta Finlandia. Ortik aurrera "Ama-bost`en Erkidegoa" esango jako.

1.996`an Epaila`ren 29`an Turiñ`en erriarteko agintariak batzartuta Amsterdam`en osterara be batzartzeko erabagia artu eben.

Batzar onetan, politikarako beste arlo edo soil-bat irasi zan erriarteko politikan ibili bear ebana danon babeserako (Politika Exterior y de Seguridad Comùn P.E.S.C.), eta leenengo izendatu ebana Solana`tar Jabier izan zan, aurerantzean Europa`ren Erkidegoko leenengo "Sr. P.E.S.C." izango zana.

1.997`an Bagilla`ren 16-17`an, Amsterdam`en Erkidegoko 15 errien leen ministruak batzartuta "Amsterdam`eko Alkartea (tratado)" lortuko eben, 1.997`an Urrilla`ren 2`an danak sinatuko ebana eta bere ibilbidea 1999`an Loraila`ren 1`ean asiko zan, bere onartua ta bigarren illeko leenengo egunean askeneko kidea sinatuta ondoren.

Europa`ko Erkidegoaren Batzarrak, Amsterdam`eko Alkargoan, Legezko arloan ez eban iñungo aldaketarik egin, eurakaz indartuz gain, bat egin ebalako.

1.998`an Europa`ko Batzarra Kolonian batuta: "Oiñarrizko Eskubidearen Eskutitza" onartu ta idatzi eben, Erroma`n 1.950`ean irasi zan "Europa`ko Gizartearen Eskubideak (C.E.D.H.)" erkidegotu edo sendotu egingo ebazana.

Alkargo orren 6.2. lege-gaian au diño: "Erkidegoaren eskubideak lotsagizun aundiz artuko dabezala", 1.950`an Azaro`ko 4`an Erroma`ko alkargoan "Europa`ko Gizartearen Oiñarrizko Eskubideak" batzen diran lez, Erkidegoko kideen eskubide orokor bezala.

1.999`an Urtarrilla`ren 1`ean Euro`a ibilbidean ipini zanetik "Europa`ko Diru-Etxea" (B.C.E.) be asi zan Euro`aren zeregiñetan, eta "Euro`aren Ingurua" (zona Euro) beteten eban amaika erriak: Portugal, Italia, Beljika, España, Beeko Erriak, Luxenburgo, Frantzia, Alemania, Austria, Irlanda, eta Finlandia ziran. Eta Euro`tik kanpo geratu ziranak: Grezia, Bretaiña Aundia, Dinamarca eta Suezia. Euroagaz, jaurkintzaren arlo guztiak indartuta geratu ziran.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`ean BAGILLA`ren 6`an

- EUROPA`ren ERKIDETASUNA (XIII) -

2.000`tik 2.004`ra:

2.000`an Niza`n egin zan Europa`ko Batzar Nagusian, kide izateko itxaroten egon ziran erriari Erkidetasunaren arauak bete ta gero, toki-egunak ipini jakozan, eta 2.000`ko Loraila`n: Txipre, Eslobenia, Eslobakia, Estonia, Lituania, Ungria, Malta, Polonia, eta Txekia`ko Errepublikak Erkidegoaren kideatasunean sartu ziran. Andik aurrera "25`en Europa" esango jako. Rumania eta Bulgaria 2.007`an sartuko dira, eta Turkia`k Erkidegoaren arauak bete egiten dauzanean.

2.001`eko Otsaila`n Niza`ko Alkargoak, bere iraspeneke erakundeak antolatzen dauz, erkide barriak egokitzeko.

2.001`eko urtea ez zan amaitu, Europa`ko Batzarrak "Laeken`eko Azalpen edo Adiraztea" onartu ta baieztu ebanean. Au esaten ebanak: "50 urte bere jaiotza-eskeroztik, Erkidegoa arrotasunezko sare-arte baten atzera begitu ezinik aurkitzen da, bere bizitzaren iraunkorrezko (inflexiòn) unetxo ederrenean. Bertan dago "Europa`ren Batasuna". Erkidegoa, une onetan aukera barri baten dago, Europa`ren erditik eta Ekialdetik beste amar laterri barriekaz Erkidegoa sendotzeko, bere edestiaren zorigaitzeko gertakizun baltzagoari guztiz amaiera emoteko: Mundu`ko bigarren guda nagusia, eta bere ondorioz gizonak Europa`ren guzurrezko zatiketa eginda. Askenez, Europa`ko gizartearen odol-ixurtze barik sendi aundi bat izateko bidean dago. Benetako aldaketa, eta orain berrogeta amar urte baiño, beste aurkezpen barri batzuk bear dauzana, leenengo sei erriak aurrerakuntza au asi ebenetik bear ebezanak baiño".

2.002`ko Urtarrilla`n Europa`ko diru barria (euro) bere ordezkotzaren ibilbidean asten da, nai-ta Suezia, Bretaiña Aundia eta Dinamarka`k bein-beiñeko (provisional) ezezkoa emon une orretan.

2.003`ko Bagilla`n, Aginte-Batzarrak bere lanak idazketa bat aurkeztuta amaitzen dauz: "Europa`rentzako Jaurgo-lege (constitucional) egijune edo alkargoaren egitaraua". Europa, Batasunezko Politikan mugatzeko asmo-legeak ziranak. Eta bere bigarren zatia: "Batasunaren Eskubideko Oiñarriaren Eskutitzagaz" eginda dagoena. Niza`n "Europa`ko Batzarrak" ots-aundiz aldarrikatu ebena, eta Batasuna sendotzen daben eskubideak, askatasunak eta sorburuak errolda-zabal aundi baten batu egiten dauzana.

Egitaraua, Salonika`ko batzarrean aurkezten jako Europa`ko Batzarrari.

2.003`ko Irailla`n, Erkidegoaren Batzarrak "Gobernu-Arteko Izketaldi (C.I.G.)" bat egitera deitzen dau. Izketaldi (conferencia. "Alan esaten jakon Europa`ren batzarrari") orrein zabal-aldia, Erroma`n 2.003`an Urrilla`ren 4`an egin zan, Laterri edo Gobernuko nagusiak batzartuta. Baiña, egitamu

(proyecto) orrek zoritxarrez uts egin eban. Orregaitik gaur be izka-mizkan irauten dau.

1.995` an Epaila` ren 26` an Stxengen (Schengen) aipatu dodan lez, esan bear dot zer dan batzar ori.

Stxengenland, Alemania, Frantzia, Italia, Beljika, Luxenburgo eta Olanda inguratzen dauan lurraldeari emon jakon deitura da. Batzar batzuen ondorioz, danon edo kide diranentzako zabaldua izateko erabagi ori artu ebelako. Eta beren elburuak: erri orrein arteko mugak ezereztutea; eskiertasun edo ziurtasunaren babesa; beste errietatik datozenen antolamendua; eta euren erritarrak lurralde orreitan aske ibiltea.

1.984` an Uztailla` ko erabagiak dira oneini asierak, siñalari Alemania ta Frantzia bakarrik izanda. Gero, 1.985` an Benellux` eko iru erriak, 1.990` an Italia, 1.991` n Portugal eta España, 1.992` an Grezia, 1.995` ean Austria, 1.996` an Dinamarca, Suezia ta Finlandia, eta Islandia ta Noruega.

Orregaitik, gaur Stxengen`eko lurraldea beteten dauanak: Alemania, Austria, Beljika, Dinamarca, España, Finlandia, Frantzia, Grezia, Olanda, Islandia, Italia, Luxenburgo, Noruega, Portugal eta Suezia dira.

A ta guzti, Europa`ren Erkidegoko edozein Laterri biurtu leike Stxengen`eko lurraldearen kide.

Gaur, goian aipatu dodazan errien artean neurri oneik erabiltzen dira: a) Erkidegoaren muga barruan, kide diran erritarrentzat, ikerraldialk (control) ezereztutea. b) Egazkin-zelaietan (aerodromo) eta bere ezarkietan (aeropuerto) Stxengen`eko arauak ezarri. d) Mugaren kanpo aldetik ikerraldiak egin, muga orreik ziurtasunaren babesean zaindu daitezkan. e) Politika bat eukitea, baimenaren arloan. e) Kideen artean Lo-bedar` en eta gogoan irudizko ametsak egiten dauan mozkiñai aurre egin. f) Iges dabizenekaz ardura. g) Eta errien-arteko epaikaritzza, eskaeraren egiketak beteteko.

Gaurko egunetan zori-txarrez, Europa`ko Erkidegoa bere larri-aldi aundienean sartuta dago: España`ren Laterriko auteskundeetan autesle oso gitxi egonda, larri larri izabazi eben (Euskalerrian baietza emon jakon). Frantzian autesle asko egonda ezetza emon eutson. Olanda`n. Inlaterra`k, zer gertatu dan ikusita, bada ez pada eta eguna ipini barik auteskundeak atzerau dauz.

Euskalerrria beti egon da Europa`rekiñ, bestela begitu asieratik emon dodazan aurreak eta gogoratu 1.933`ko Aberri-Eguna "Euskadi-Europa" 50.000 gizon emakumetik gora batu ebazana.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005` ean Bagilla` ren 8` an

ONDORIOA`ren SARRERA:

Gogamen (concepto) edo gorputz guztien antzera, politikako arazoaren aurrerapen guztietan, beti azterkatu bear dogu bizkar-azurreko muiñetatik urteten daben kirioen (nervios) bidetik, buruko aginduak gorputz guztitik zentzuz banatzen ba dira jakiteko.

Beste gauza bat egitekotan, ikerraldia ondoriotik astea da eta ez sorburuko edo asi bear dan lekutik.

Baiña, guretzat esan leike, jolasketa orreik maitetasunezkoak dirala, asken baten, denbora-emeteko ganora-gabe baiño ez diranak.

Orregaitik, gure erabakiak geienetan, azken-gaizto baten amaitzen dira; ikerraldiak: Norkerien Arroputz; Buru-zaleko nerekoian; Guzurrean eta Ardurabako-zaletasunean erabiltzen doguzelako.

Esan leike, maite dogula lokazti ori.

Mundu-Fisiko onetan, nai-ta nai-ez bere bereiztasun txikienetatik asi-ta, bereiztasunezko gogai (concepto) edo gorputzara eltzen dira gauza guztiak, artean gero ondo antolatzeke.

Orregatik, gizon/emakumeengandik asi-ta, sendiko-etxea, auzune, erri, lurralde ta aberriak, danak berezko bereiztasun orreitan osotzen dira.

Mundu onek daukan legea da, eta iñork ezin aldatuz gaiñ, ez da nor ! bere burukerietan jolasteko, danon-arteko eta gai onen legeak bear dauan lotsagizuna (respeto) apurtzen dogulako.

Mundu onen edestian, askok jolastu dabe norkerizko bidetik, eta buruetan orregaitik agertzen gara guztiz korapillotuta.

Mundu onen bizitza ez da "ELBURUA" ordezkatzeko bakarrik etorri garalako.

Orregaitik bialtzen dauskuz bere gaztigu edo mezu-keiñuak: Txarto antolatuta itsasoak ustu egiten doguzanean, lurra urak ta aizeak zikindu eta gure arteko lotsagizuna galtzen dogunean. Dan guztiak oreka galtzen daualako.

Berezkotasan onetan Lotsagizuna edesti guztian, txarto antolatu dogulako beren mezu-keiñuari jamon egin gabe, larritasunezko naaste baten agertzen gara, bear-bearrezko dana zeaztasunez zuzentzea, danok, gure arimetan daukagun ordezkotzaren premiña orekan sartzea gura ba-dogu.

Gaurko iraultzaren ardura, premiñak bultzatuta, esangura dau: "DEMOKRAZIA`ren edo ORDEZKOTZA`ren bidean sartzea gura dogula.

Esker aundiak emon bear doguz, arrazoizko zentzu baten egiteko erabakia artu zalako, "AU DA MUNDU ONETAN, EGINGO DAN IRAULTZARIK AUNDIENA", al izaten ba-dogu.

## EUROPA`ko ERKIDEGOA`ren EDESTIAN:"EKANDUZKO EGINKIZUNA ?

Asieratik ikusten dogu, errien gizarteak (Euskaldunak batez-be), Kristau erakundeak eta bai-ta Laterrien agintariak (nai gitxi izan dabe), txarto ikusten ebela erabiltzen zan ekanduzko antolamendua edo oiturazko arloa, indarkerizko bidetik egiten ziralako gauza guztiak.

XVIII-XIX`n gizaldietan, ia agintari guztiak jakin eben zeozer egin bear zala, ainbeste borrokatik eta larrialditik aurrerakuntza babesteko eta Europa`ko gizartea aukera-on baten ezartzeko.

Baiña, merkataritzazko bidetik aleginduta, berezko erriak eragospen andikoak ziralako muga-zergaren bidetik dirua errez irabazteko eta euki ebezan aundikerizko ametsak laster bete daitezcan, berezko errien gaiñetik eta indarkeriz, Laterriak sortu eta ezarri ebezan. Egoera aldatuz, baiña lengo lez berezkotasuna oinpetuta.

Europa`ren 1.914-1.918`ko guda nagusiaren ostetik (alango basatikerien ostetik zentzuzko arrazoiaren egarria berez bizkortzen dalako), beste aukera barri bat euki eben demokraziaren alde jokatzeko eta berezko erriak euren askatasun edo jabetasunezko ordezkotzan kokatzeko, bear ziran erakundeak irasita (N.E.I.) eta nor beren ardurazko erri-jaurkintzak lortzeko.

Orregaitik, ondo ikertuz gain obeto adi-erazita esate eben: "Kristau asmakizunezko alderdi demokratak, ondo ikusten ebezala Laterrien jabetasunezko eta bearrezko erabakiak, baiña bere luzapenean ez dagoela aurrerakuntz demokratikorik". "Laterrien erabagiko erakusletasuna, naziñoaren indar bizi guztiak, lan-demokratiko ekintza baten bearrean ipintzea dalako". "Jabetasuna, politikako antolamenduetan ezarri bear dalako, eta ez bizibideko erritarren eskuetan".

Gero, 1.931`n Paris`eko batzarrean agertu ziran zalantza orreik: "Europa`n nortzuk izango ete ziran leenengo, Berezko-Erriak, ala Laterrien arteko merkataritzaren erreztasunerako apaintzen ziran sal-erosketako diruak.

Bigarrenak tentaldi geiago egiten eutsen, eta orregaitik aberria`ren itza mugaketa barik geratu zan: "Erri batzuetan barkatzen ez dauan aberzaletasunaren itzartzeagaitik minduta". Nori aipatuta esandako abertzaletasun ori ?. Laterriak aberriak dira.... ala egoerak ?.

Argi dago, edesti guztitik etortzen zan norkerizko sasi-ameskeriai, orduan goiko maillan egon ziranak ebatuta alegiñ bardiñetan jarraitu gura ebela. Demokrata zaleak aurrera egin da.

1.932`an Kolonia`n egin zan Europa`ko Kristau-Demokraten azkeneko batzarra.

Ez zan arritzekoa, Alemania`n Hitler`ek zelako bideak asmatzen asi zan ikusita.

1.933`an Euskaldunak Donosti`n Aberri-Eguna ospatu eben "EUSKADI-EUROPA`ren" izenagaz. Eusko Alderdi Jeltzalearen aldetik Agirre`tar Jose Antonio eta Monzon zirala izlari; Katalunya Batasun Demokratiko aldetik Karrasko eta Formigera`tar Manuel; eta Galegista Alderditik Otero`tar Ramon.

Eta konturatu gaitazan, orduko aberri-demokratikoaren zaletasunagaz kontuan euki 50.000 kideko baiño geiago egon zirala.

Europa`ko aber-zaletasun demokratikoa aurrerantza joanda, Euskalduna onartua izan da beti sortzen ziran erakundeetan, oorezko deiak eukinda.

1.933`an Hitler Hindenburg`ek kantziller egin eban, eta 1.934`an Hindenburg il zanean Hitler 3`n Reix`eko Führer egin eben.

Ortik aurrera, judu`tarren aurka asi-ta, 1.936`an Renania gudalozteagaz menperatuta, Mussolini`gaz batera Franko`ri lagundu eutson Espaiña`ko lurraldea menperatu dagian, Europa`ko berezkotasun guztia euren fazismo agindutara menperatzeko naian.

Kristau Demokrazia`k aurrera egin eban, eta 1.944`an Abenduko batzarrean, Euskaldunak oorezko deia euki eben.

Bai 1.946`an egin eben guda osteko leenengo batzarrean, Euskaldunak adiskidetasun aundia eukinda Luiji Sturzo, taldearen idazkari nagusiaz eta De Gasperi errepublika`ko Lendakariagaz.

### **EUROPA`ko ERKIDETASUNA`ren SARRERA:**

Europa`ren ondamena ikusita, Munduko agintari guztiak ikaratuta geratu ziran, eta damuak eraginda, ekandubidezko (moralmente.- segun las reglas morales) antolamenduetatik asi ziran Europa ta Mundua oiñarritzen, batez-be Amerikarrak, berba oneik esanda: "Amerika`ko Laterri Batuen aldetik, alegiñ aundiak egingo dabezala, gaur Europa ta Asia`ko erriak ondamen edo porroka aldian eta ekonomi aldetik kolokan dagozenai laguntzeko". "Guda ez dalako amaitzen Mundu onen erritarrak ostera be Jan eta Jantzi zentzuz egin arte, etorkizunaren itxaropenean sinisteko".

Geiago be esan eben: "Gizartearen eskubide ta iraspen-demokratikoak askatasunezko azkeran babestu daitezcan; Salerosle arlo politikoa esku-zabalekoa izan dadin; Errien-Alkartasunezko-Erakundeen (O.N.U.) jabetasuna indartu daiten". Eta: "Menperatzaillen aurka borrokan dabizen Nortasunezko-Erriak, euren ta daukiezan iraspenaren askatasunak

babesteko, nai barruko eginkizunean bearrezko gauzak edo kanpokoak izan, Amerikarren laguntza artzeko, muga-gabeko edo guzizko leentasuna eukingo dabela".

Benetako lanean asita, bereala antolatzen asi ziran nortasunezko gizarte eta errien eskubideak, Paris`en 1.948`ko Abendua`ren 10`ean Erri Batuen orokorrezko Batzarrean (O.N.U.) baietza emon da.

Mundu onetan itxaropen aundiak sortu ziran, danak gogoratzen ebelako menperatzailletasunaren amaiera izango zala. Baiña Errusiagaz oillaskoaren gangarra jantzi ta gorrituta, Amerikarren aurka nor-geiagoka asi ziran guda-otsarekin. Laterrietako Fazizmoa, nai ezkerraldekoa nai eskomakoa izan, lengo-lez geratuta.

### EUROPA`ren ERKIDEGOA:

Europa batzangotzeko 1.923`an sortu eta 1.926`an Europa guztirako Biena`n egin zan batzarretik datorren gauza da (movimiento Pan-Europeo).

Beren eragille zan Koudenobe-Karlegi`tar Ritxard kondeak esaten eban: "Europa`k ez eukala politikaren burutasunean ezerezko izaerarik" eta antolakuntzagabeko era orreitan aurrera begitzean, borroka latzak baiño ez zirala ikusten.

"Europa`ren irtenbide bakarra: "Bere barruan dagozan erri guztien bategite edo alkartzearen bidetik egoala".

Baiña guda ostetik, nai-ta gogo ederrenak euki, azken baten fazizta ta demokrataren arteko leian, edo laterrizko jaurgo-zaletarren eta berezkotasunezko demokrataren arteko leian geratu da, sasi-menperatzaille orreik ezergaitik be ez daualako entzun gura, berezko erri ta erritarren nortasunezko eskubideagaitik ezer.

Orregaitik, batzar guztietan euki dabezan borondate onak, diru arloetan bakarrik adostuta geratu dira beti.

Eragozpide orreik bakarrik izan ba-ziran, ikuspegi argi ta zabala eukingo gendun. Baiña eskoitiarren aurka jaiota, eurak esaten dagoen lez: "Sozialismoa gizartearen eskubide zaintzaleak dirala" . Erantzun erreza daukie esan oneik: "BEREZKOTASUNAREN AURRETIK, ERRIARTEKOAREN ZAINTZALEAK IZAN EZ BA ZIRAN GAIÑ, LATERRIEN JAURGO-ZALE, EZ BA-ZIRAN".

Fazista eta ezkertiarrek, erritarrak kontuan euki gabe beti lez, aurrera eroan gura dabez batzangotasunezko egitarau oneik, gizaren eskubideak guztiz ezereztuta, erritarak Europa`ko unitar`en (ciudadanos) antzera geratu gaitzean, bereiztasunak emoten dauskun nortasunik gabe. Baiña Europa`ko gizartea ez dau XVIII-XIX`ko gizaldietan kokatuta XXI`ean

baiño, eta asi dira agintariak ezezkoa emoten, jakin dagian gizartearen eskubideak, diruarenak baiño ariñago dagozela.

Ez da bide erreza, agintari askok jaurkintzaren aurkietara igoten dabenean, arro-uskeriak bultzatuta bereala gogoratzen diralako: "Lengo-lez gaur-be" euren naiara eroan leikezala berezko erritarren jaurkintza, eta orain konturatu dira ez dala olan, Frantzia`n, Olanda`n, eta Espaiña`n ta Ingalaterra`n ? ezezkoa emon dautsoelako.

Gaurko Laterrien erdirakoi-zaletasunean, danon ardurak bere eskuetan batuta, erritarrak arduragabeen geratzen dira. Eta gaiñera, pozik jauzika edo saltoka ibili gaitazan, xautzailletasunezko egitarau onekaz, bonba-eraso bat lez, ito egiten gaitue.

Baiña..., Mundu fisiko onek bere legeak eukinda, gogoan artzen ez badoguz, arduragabeko eta xautzailletasunezko bizi baten kokatzen gaitu, daukaguzan arimak bere zentzunezko oiñarrian, zorotasunean agertuta.

Gaurko Mundu onetan, ekintza orrekaitik ankaz gora agertzen gara, oiñak lurrean ezarri ezinik.

Gogamen (concepto) bat, bere elburuko ardura aundian ezartzeko, ez da edozein ekintzagaz lortzen, berak bear dauzan gauzak bata bestien gaiñean ondo ezarrita egokitzea eskatzen daualako.

Europa`ko gizartean gitxiago, demokrazizko lege baten bakotzari berea lotsagizun aundiz emon bear jakolako.

Gero etorten dira, erritarren borondatezko baimenakaz alkargoko batzangotasun orreik, bakeak iraun dagiezan lotsagizunezko zentzu aundi baten.

Europa`k, orma aundi baten aurka lez, bere burua beti apurtzen dau erri ta gizartearen eskubideak aztertu bear dauzanean, eta katu erre-bat bezala alde egiten dau arazo orreitatik.

Baiña, gizartearen eskubideak egunen baten edo nozedonoz esku artean artu bearrean dago, Europa zentzuz ta ondo oiñarrituta, ezarrita, geratu daiten merkataritzaren ta ekonomiaren gaiñetik.

Eta agertu diralako denbora orreik, begitu Espaiñara adibidez, gaurko egunetan faziztak zelako amorrामenduagaz dabizen, eurak edestitik ekarten dabezan sasi-aundikerizko dogma-arauak apurtzen diralako.

Europa ez dago gizartearen eskubideko iraultz onetan bakarrik sartuta, Mundu osoaren iraultza dalako, baiña Europa`ri dagokio, bera dalako jakintzan Mundu onen izarrik aundiena.



## EUSKALERRIA`n:

Euskalerrriak, Mundu ta Europa`ren arazo bardiñak daukaz, nai erabateko edo bestekoak izan, gizarteko eskubidearen arazoak diralako zalantzazko jokuan dabizenak, demokrazizko antolamendu-on baten egokituarte.

Eta Europa onetan, bera zaarrena izatez gaiñ "JAUNGOIKO ata LEGE-ZAARREKO" demokrazian oiñarrituta, bere burua sekula ez dau morroipetu askatasunaren egarrrian. Eta askatasunaren arloan izar aundienetarikoa dalako, gogoratu, berak ! daukazela etsairik aundienak, edesti guztian bizi-biziko borrokan gabizelako.

Sozialistak, gizarteko eskubidearen babestle, erdira-zale menperatzaillearen aurka jaio ziran, baiña menperatzaillaren maillara igonda borrokatzeko, berezkotasunetik kanpo geratu dira, gizartearen nortasunak kontuan euki gabe eta zenbaki batzuk bezala euren naikerira erabiltzen.

Ekiñaldi orreik, erri-gizartearen gogapenetan naazketak eragitzen dauz, argi-bide asko illunetan geratzen diranean, eskubideak oiñarrituta bear diran lekutik, nortasunik gabe beste mailla baten kokatzen dabezelako.

Begitu gure errian non zabaltzen dan kaltezko arloa, gero politikoak sartzen dautsoen amurruagaz garaipenak lortzeko, berezkotasunezkoak etsai biurtuta. Edestitik erdira-zale menperatzaillak egin ebenaren antzera.

Nai-ta bata ta bestea, gizartearen eskubidetik kanpo geratu dira, eta ori da guk aldebatetik etxeko senditarrai erakutsi bear dautseguna, demokraziaren indarrak batzeko.

Europa gaur-be (2.005`an Dagonilla`en 20`an) barrero zalaparta edo egoera-gaizto baten jauzi da, bere barruan daukazan Laterri-bidetik batzangotzen asi dalako, Laterriai oraiñarte daukiezan jaurpideko eskubideetatik kenduta Europa`ren jaurkintza indartzeko.

Or ! agertzen da korapilloa, berezko erri-gizartea nortasunik gabe geratzen dalako; Laterri-menperatzaillaren egoerak izanez gaiñ, eginda daukiezan aberri-asmoak ezereztu egiten diralako; Katolikotasunezko asmakizuna suntsitu egiten dalako; Eta merkatariak askatasun osoa gura daualako. Nai-ta Euskalerrriak baietza emon arren, Europa bere nortasunean Alkargotzeko ori dala egokitasunezko bidea erakutsiz, Frantzia ta Olandako erritarrak ezetza emonda eta Italia`rarak ostera be euren Lira`ra itzuli bear dirala esanez, Europa`ko giza-garai onek argi erakusten dau guztiz korapillotuta dagoela: "Demokraziara zabaltzen asten garanean, iñork ez dakien beartuta dagozan edozein lekutik irringaren (crujir) garraxiak asten diralako".

Gorago esan dogun lez: "Bizi au ez dala Elburua" egi argiari, gaiñeratu egin bear dautzagu: "Denbora edo Garai guztiaren izatasunak Bardiñak dirala" nai-ta atomozko lergaietan, izarbel-arteko egazkiñetan eta gure bizitza ezereztuteko ta erreztasunerako ainbesteko aurrerakuntza egin. Beti izango dala: "Guk askatasun guztiagaz, gizarte artean eta gauzakaz egunero antolakuntzazko arduran ibili bear dogun Ekanduzko Lotsagizuna" orreik diralako gure eskubidearen egin-bearrak.

Bizi au gogorra dalako, batzuk esaten dabe JANGOIKO` rik ez dagoala; Beste batzuk BERE izenean dabiltz ainbeste zentzungabeko gauza egin eta bereztasunaren garbitasuna zikindu gurean euren onurarako; Ainbeste bartolara; Danak BERA` k ipinita daukazan LEGÆA` ri jamon egin gabe edo norberen onurari bakarrik begituta; Eta berezktasunaren sinismendunak guzti-orrein ostikoak eroaten, eta asko dira, bereztasunak etsai asko daukazelako orren artean.

Egia da JAINKOA dagoala eta biotz zabala daukala, guri egunero zuzentzeko aukera barriak emonez gaiñ, aibeste eraman onekoa dala gulako pisti-zorriaren naikeriak eramateko.

Berezkoa dan Euskalerrria eta beren era-bereko erriak, etsai asko daukiez xautzailletasunezko bizi baten kokatuta gagozelako, eta ez dira gitxi gai au jan gurean dabizenak euren gozamen edo atsegintasunerako.

Euskalerrriak au da mai gaiñean daukana, eta Mundu ta Europa` ko arazoa izanda, berak bakarrik ezer egin ezin dautsona, ganorabako arrokerietan ibili gaitezana.

Eta guzti au jakinda...., eskuma-ezker-erdiko norkerizko alderdikierietan ibilikogara ba ?.

Euskalerrriko seme ta kideak argi, apal eta eten-barik, zuurtasun guztiagaz jokatu bear dogu EUSKADI` ren ELBURUA` ri BEGIRA.

Euskalerrriak bere ASKATASUNEZKO NORTASUNA zaindu ta sendotu egin bear dau daukazan indar guztiakaz, DEMOKRAZIA AUNDI BATEN JAINKOA` ri begira eginda dagoelako. Eta itxaropentsu agertu, Europa` ren gaurko gizarte DEMOKRAZIA` ren EGARRI dalako.

"EUSKADI, EUROPA` n BERE IZAR AUNDIENETARIKO BAT DA".

ATUTXA` tar PAUL

ZORNOTZA` n 2.005` an BAGILLA` ren 20` an

Izkuntzaren buruz, esaera au entzun neban lengo egun baten: "Izkuntza, mezuaren burdi (vehiculo de comunicaciòn) bat baiño ez dala besterik".

Esaera ori gatz-gabekoa izanez gaiñ, bereztasunaren egizko sinismenetik, ardurabako ollo-busti edo bildurtien gogamen baragarria da. Noren bildurra ?.

Mundu onetan Izkuntza eta Euskerea batez be, Euskal-izatasunaren tresneri audienetariko bat dalako.

Daukagun Gorputza da bestea, eta bien artean egin "al" dabe Mundu onetan gure ibilbidea.

Gai onetan biak !!, Gaia`k daukan bereiztasunezko Legean eginda dagoz, mundu onetan beste aukerarik ez dagoelako.

Daukagun gorputza bizi garan bereiztasunezko inguruan, ibilbideko aukeran indartzen da. Nai gorputzaren egokitasunean, nai trebetasunean.

Izkuntzaren aalmena, daukagun Arima gorputz onetan mozorrotuta baiño geiago izatez gaiñ, Arima-arteko ibilbide onetan ulermenean adierazteko, bera da tresneri bakarra.

Bere almenetik adierazten doguz gure Arima`ren ulermenean sendimenduzko biozkadak; Gai-bidetik lan-eraren jakintzazko egokitasuna; JAINKOA`ren aurrean bir-lotu (religar) edo alkartu, eta gure Arima`ren artean maitasunaren adierazpenean besarkatu ta inguratzen gaituna.

Azken baten, bera da Nor-beragandik asi-ta, sendi, leiñu ta aberritu egiñez gaiñ, berezko Batzangotasun orreri ta bere bereiztasunezko Nortasunari izena ezartzen dautsona: "EUSKALDUNAK" eta abar.

Orrek esan-nai dauana: JAINKOA`k bialduta gai-bizi onetan jaio gaitazan eta gure egin bearrak nortasunezko ordezkartzaren ardurapean bete daiguzan, "LORTU GENDUN NORTASUNAREN IZAERA BERA !!" EUSKARA ezerezetik sortu gendulako, dala.

Euskaldunai, gure ardurazko ordeak Euskeraren sabelean egosita ainbeste milla urtetako iker-senean, daukaguzan Nortasuna ta Izkuntza zendu jakuzan, ordeztu-ezinezkoak diranak, NORTASUNAREN ibilbidean izaeraren eza agertzen dalako euren ezereztasunean.

**NORTASUNA`K ZELAN GALTZEN DAUAZAN MAILLAZ-MAILLA BIZITZAREN NORA-BIDEAK:**

Mundu onen gizarteetan (oiñarrizko erpeetam izadiko lege bardiñak euki arren) antolamenduzko era ezberdiñetan ezartzezko, Munduak daukan gai-bizi legearen dagoneran kokatzeko beartzen gaitulako da. Antolamendua, bere inguruaren izatasunean egokitu izan bear gendulako.

Izkuntz ezberdiñetan be, bardin: Gizarteetan aalmen bardiñak eukinda, berezkuntzak emoten dauan ondorea dalako.

Izotza urtzen asi zanean, Afrika`tik Europa onetara etorrita, Kromañon senditasuna izan zan, lur-aundi au izkuntz eta ekanduzko oitura bardiñean oiñarritu ebana.

Eta janari bidean zabaldu ziranetik goian esan dodan lez, banakuntzaren ondorioz izkuntz ezberdiñetan oiñarritu ziran.

Orregaitik, Europa`ko lur zabal onetan kromañonen ainbeste oiñarrizko itz bardiñak. (zetan ezanik ez, Afrika, etorri ziran lekutik be).

Europa onetako Nortasunaren askatasunean or ! lortu zan babeserako egon dan batzangotasun aundiena ekanduzko oituraren antolamenduan.

Beti egon dira, dana jan gurean eta aundikerizko norberkeriak emoten dauan erreztasunagaitik, (errezagoa dalako jatea edo apurtzea eraikitea baiño) euki eben ekanduzko oiturak apurtu edo gaiñetik egin bearra.

Eta norberkeri ori aundiagotu egingo zan, nortasunaren askatasunezko lotsagizuna babesteko, lurraldeko muga-barruetan antolatu ez ba ziran.

Erriko antolamendu barri orreitan, Norberkeri orreik, ez eben ardua aundirik euki, erritarrak eguneroko oituan batzar-demokratikoaren aginduko lege-bidetik zuzentzen ebezalako.

Gaur egunean, Europa batzangotzeko ez zan egongo iñungo eragozpenik, nortasunaren askatasunezko lotsagizunean (demokracia) etorri ba-giñen, eta ziur egon, gaur batzangotuta egongo giñela.

Baiña guzti au, Erromatarren norberkerien bidetik apurtu egin zan. Eta Zesar`en asmotik geien, bere indarrezko gogamenean, euren lege-menpeak danok batzangotzeko elburua eukalako.

Asmo ori, Zesar baiño ariñagokoa izan zan, Latiña eraiki zanetik, baiña onek sendotu eban, bere maltzurkerizko "VINI VIDI VICI"gaz.

Zesar`ek ondo baiño obeto jakin eban erriak menperatzeko (euki eben izkuntza menperatu) zer egin bear zan, baiña zer lortu eben erdi-purdiko izkuntz-barri geiago sortu baiño ?.

Erriak or asi ziran Nortasunaren ziurtza edo nora-bideak galtzen, euren izaeraren ulermenerako euki eben garrantzi aundiko izkuntza, era-bideko azturan erreztasun aundikoa izan zana ongaizkatuta geratu zalako.

Godoa`k ezereztuta, erritarrak babes geiagoaren egarrían, askatasunezko antolemendueetan asi ziran eta Jaun edo erregetzaren irudiak ezarri ebezan.

Erromatarren berakadan, batzango-menperatzaille asmakizun orreik ezereztuta geratu daitezán bildurragaz, IV`n gizaldian Konstantino`k, erriarteetan zabalkuntz aundia artzen egon zan Kristautasun egarritasunagaz alkartu gura eben, euki eben asmakuntzak sinesmenduta iraun dagian, eta Kristau-

Eleizan norkerietan ibili ziranarekin katolikoatasunaren aukera artuta, ziñeskintzazko arauak ezartzen asi ziran.

Erromatar eta Godo`ak ezereztuta geratu ba ziran be, Eleiza katolikotasunaren antolamendutik, Erromatarren legeak eta latiñagaz jarraitu eben aurrerantza, Europa`ko Jaun Errege barri orreik sare orretan sartuta.

Nafarroa`ko errege-jaurkintzatan orregaitik ez zan ezer euskeraz idatzi, nai-ta Euskara`ri "LINGUA NABARRORUN"en izena ipini (katoliko menperatzailleen lan-aurrerakoientzat ez ebalako garrantzi aundirik euki), eleizaren guzurrezko ziñeskintzaren bidetik latiña eta erromatar legeak ta erromantzeak, berezkotasunaren izkuntzak alboratuta edo ezereztuta geratu daitezcan, ezarri gura ibili ziralako. Eta orregaitik gure berezkotasunean datozen Foru-Batzarraren legeak be, ezberdiñak dira Billa`tan erregeak eta Jaunak ezarri ebazanarekin.

Emen, Euskal Nortasunaren Askatasunerako eginkizun onekaz, aurrerako bidean, apur-bat baiño geiago galdu gendun.

Erdi-mende guztiko alegiñ orreitan, ikaragarritzko astokeri galantak egin ebezan kruzadak eta fede-zaindi edo inkizizioak dirala-ta, erritarren nortasunezko izkuntz ta sinismenak geiago naspilduta. Gaiñera, gure Jauntzaren barruan, norberkeri orreik onartuta, ibili ziran leiakaz, erritarrak naazte ortatik urtetako ez eban aukera aundirik euki.

Beste oinkada aundi batzuk be emon dira menperatzailletasunezko alegiñ orreitan: Frantzia`ko iraultzagaz, Napoleon, Hitler, Estaliñ, Franko eta gaur azkeneko Amerikarren lendakariakaz erritarrak arduragabearen xautzailletasunezko bizi batera bideratu naian.

Zer lortu dabe.... Norberkerizko lasterketan ibili diranak berezko erritarren aurka?: Gai onetan "Nortasunezko arduran bizitzeko bear dan garbitasun guztia, zikintzea", eta bizitzeko bearrezkoa dan Gaia bera be.

Zer lortu dogu berezko erritarrak menperatzailletasunaren aurka?: "Norberekerian eraikitako tresneria ezereztutea: Latiña eta katolikotasunaren asmakuntza".

Ze tresneri-txar geratzen jaku....bizitza bakera bideratzeko?: "Erromatarren gandik datorren leenengo menperatzailletasunezko-batzangotasunaren asmakuntza. Eta euren berakadan Frantzia`ko iraultzaren ondorioz, berezko erriak erregeakaz Alkargotuta, Aberri-arteko lurraldeetan bere bakezko-epaiketak antolatu dagiazan, lurralde orreik laterrizko aberri barrietan biurtzeko asmakuntzan dabizen menperatzailleak indarragaz beartuta, daukaguzan laterrizko jaurkintzak geratzen dira".

Berezko Erri ta erritarrak, zelako aukerak daukaguz norberkerizko Laterri onein indarrak ezereztuteko?: "DANAK".

a)-Gaur, Mundu onek daukazan Legeen aurrean, norberkerien lasterkak neurriaren kanpokoak dirala, argi ikusten diralako.

b)-Mundu onetan, Danoen ordezeko ardurak esku-gitxitan artzen diranean, ez diralako danoren lanak egiteko, norberekeriaren sasi-aberastasunean bizitzeko baizik.

d)-Neurritik kanpo dabillen gauza eta alegiñ guztia guzurra edo okerra dalako.

### **EUSKALERRIAN:**

Euskalerrian, Mundu ta Europa guztien antzeko arazo bardiñak daukaguz: "Berezko Erri ta gizarteen eskubideai, ezezkoaren ondoriotik agertzen diranak".

Menperatzaillak len ez ziran txantxetan ibili euren jabetasuna lortzeko, eta gaur bardiñ.

NORTASUNEAN adibidez: "Euskalerrriaren eta beste berezko errien Nortasunak makurtzeko, Europa`ko norberkerizko merkataria eta agintaria guztiak alkartuta, gauza bardiñaren atzean dabiltz, eta guri dagokionakaz Frantzia ta Españaren azpikerizko joko-arazoetan gura nai-ez sartuta, gure jauntza euren erregearen pertsunagaz lotuta egon zalako eta eleiz-katolikoan laguntzagaz sartu ginduzan ainbat guzurrezko babes-borrokaren bidetik erdi lelotuta urten gendula".

IZKUNTZAN: "Euskalerrriko ikastoletan ainbeste maisu atzerritar ipinita eta apaiz batzuen laguntza aundiarekin erritarren sinismenagaz baliotuta, Euskerea ezereztu daiten (hable usted cristiano).

SENDIETAN: "Gure etxeetan Nundik bideratuta asi ziran sartzen, gugaz ez daukien ezer ikusirik, sasi-arrazoizko ziri orreik ?. Ikastoletako gazteen artean asi-ta ametsetan ibiltzeko lo-bedarrak: Ikasleen eskubideak goratu, jakintzara eltzeko egin bear daben lanak oreka galdu dagian" eta abar ?. Emen: "Txarto gogoratu zaitetz eta asmatuko dozu" 1.970`ean asita esaten gendun.

GIZARTEAN: Ziriak "Nundik bideratzen dira..., gure buruetan ain naspillatuta agertu gaitez, arduragabeko xautzailletasun sare oneik on-artzeko ?".

JAURKINTZAN: "Gure edo berezko jaurkintzaren arduradunak izan ba ziran, ez gintzazan ain errez gal-bide orreitan jausiko, danok alkartuta benetako gudu-leku lez aurre egin-genukelako". Orregaitik, gaurko egunean ain erreza da ikustea, beartuta daukaguzan laterrizko jaurkintz oneik ez dirala gureak, berezko erritarren ardurak babestu barik norberkerian dabizenen ondasunak babesten dabizelako. Gure guda aurreko Euskal-Ordezkariek orduan be argi ikusten ebelako eta Europa`ko Kristau-Demokraziaren Alkartetik esan: "Indarragaz ezarritako Laterri orreik, luzerakuntzan ez ebela balio, menperatzaillak ziralako".

España`ko Laterriaren agintaria batzuk esate eben: "Lenago gorri laterria apurtu baiño". Noren jainko bidetik ibili ziran orreik ?. Eta emendik aurrera: "Txarto gogoratu zaitetz eta labor geratzen zara" esaten gendun.

## ZER EGIN ?:

Gaur egun, emen ez dauana balio leerkalluekaz jolasten ibiltzea da, eurak leerkailu eta guzurrekaz maisuak izanez gaiñ, Europa`ko Laterri ta Amerikar menperatzailleak aitzaki orrekaz alkartuta, gaur "defensa preventiba contra todo terrorismo" sortzen dan lez, arrazoia euren aldera bialdu gendugenulako.

IZKUNTZA geureganatu egin bear dogulako Euskalerrriaren NORTASUNA osasuntzea eta indartzea gura ba-dogu. Bizitzarem egokitasuna zaindu. Lelotuta geratu diran euskaldunak bizkortu konturatu eta generatu daitezcan, okerrezko arrazoiarekin amateuta daukien garra biztuta, eta abar.

Orreik diralako gaur eguneko leerkai zitalenak norberkerizko menperatzaille jolasketetan dabizenen aurka.

Eta Euskal izkuntza tresneri bakar-bat dala esaitten dabena, bai-ta edozelako Euskal-izkuntzaren atzetik dabenezai esan !: "EUSKAL-MAITASUNA IZKUNTZAREN TREN-BIDE EDERRENEAN BIOZTKADA INDARTSUENAGAZ ALAI eta ZIURTASUN GUZTIAGAZ GURE ARTEAN eta MUNDUAN IBILI DAITEN, BEARREZKOAK DIRALA JATORRIZKO ARGI-EDER TA GARBITASUNAK". "NORTASUNA ALAI IBILI ONDOREN IZKUNTZA BERA DANON POZTASUNENTZAT, MAITETASUNEZKO OLERKI EDERRENA IZANGO ZALAKO"

ATUTXA`tar PAUL  
ZORNOTZA`n 2.005`ean UZTAILLA`ren 13`an

AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zareen guztioi, eta on-egin daigula danoi beren mamitik ulertzen dogunak.

Azkenean, zuek galderak egitea gura neuke, danok batzar onetatik, al dogun ulermen ederrenean urten daigun.

ZERGAITIK "EUSKAL LURRAREN" GAIA ?:

a).- Leenengo Gizarteak zelangoak izan ziran, eta zelango lurraldeetan ibili ta kokatu ziran jakiteko. Munduan eta Euskalerrian jakin aundiko ikerlariak euki eta dagoz. Zeaztasun asko asi dira argitzen berezko erriaren alde.

Eta aurka, erdira-zale edo menperatzaillak, joko-bidetik dana naspiltzen edo zamartzen dabizela.

b).- Gaur-arte edesti guztian berezko-erriak batzangotzeko eten barik beartzen ibilli diralako eta XVIII`n gizaldian ulert-ezinezko batzangotasunaren asmakuntz orren erabagia on artuta, Laterri menperatzaillak oneik lurrak eurak nai dauan aldera mugatuta eta espatak gure buru gaiñetan ipinita eten-bako keiñuan dagozenak, daukaguzelako. Eta gizartearen eskubideko gora-beran, GAI-NORKERIAREN MORROIPEKO edo SERBITZURA dagozanak, egiaren izpirik iñoiz ez dabelako esango.

Esaten badabez, euren guzurrezko arrazoi orreik argitasun guztiagaz agirian geratzen diralako.

Eta erri guztietan gizakia gaur, buru-belarri borroka orreitan sartuta dagoelako gizartearen Nortasunezko eskubideak zuriketako bidean babestuaz batera zaintzeko.

d).- Euskaldunak, gaurko argibideakaz konturatu gaitazan zeintzuk ziran gure Arbasoen ibilbideko ekanduak Europa onetatik eta zergaitik berezko erriak gaur Euskalerria lez agertzen dira euren eskubidea izanda, berez euki bear daben Nortasunezko Jabetasunetik kanpo geratu barik.

e).- Eta Olazar`tar Martin`ek, gai onen azalpena nik egin bear nebala esan ebalako.

Asi gaitazan ba, Euskaldunen ibil-bideak ikusten eta zeintzuk ziran euren lurrak eta non kokatuta gagozan gaur konturatzen.



## SARRERA:

Sinistu eziñekoa da, Mundu onetako gizartea jakintzan ain-mailla aundikoa izan eta konturatu ez, guretzat asierako denborak eta gaurkoak bardiñak dirala.

JAUNGOIKOA`k ipinita, Ludi onek guretzat ez dauka asiera eta amairerarik eta gitxiago gure eskuetan bera ezereztuteko almenik.

Gure eginkizun guztia, gizartearen alkarkizun edo arremanetarako, egitarauen (proyecto) azpiegiturazko (infraestructura) antolakizunetan erabili bear dogun oitura edo ekanduzko iritzi inguruan mugatzen da.

Gizarte artean ekanduzko arremanetan gaur ikusten doguna, gorrotogarria eta ikusiaz batera naska emoten dauana da.

Zetan gabiltz ? JAINKOA`gan eta BERE LEGEETAN sinismena sendotzen, ala..... sasi-jainkoarenak egiten ?.

Ludi oneitan dana dago asmatuta, gure asmakizunetarako bere gai-kopurutik bereiztuta artu bear doguzelako gai-indarrak. Or !! dagoelako bear dogun guztia.

Mundu onetara jaiotzen garanean, gure ARIMA gai-gorputzagaz mozorrotuta agertzen da, asmakuntzaren egikerarako bear dauan zentzumen eder eta mirariakaz.

Danak bardiñ eta bearrezko eskubide bardiñakaz jaioten ba-gara ?. Gorputz ori zelan erabili bear dogu, bear doguzan gauzetarako...?. GUDAN ?. Ala..., NOR izanda, gaia eta gu BERE BEREIZTASUNEZKO LEGEAKAZ ERPERATUTA EGONDA...arimaren arrazoizko zentzumenean on-ulermenak alegintzen dauskun lez ?. Or !!, zalantzarik ez leuke egon bear.

Ekanduaren ordezkaritazko bizi batera jaio garala, argi esan gura dau guzti orrek, beste aukerarik ez dagolako.

Ordezko ardura orreik baiña..., zelan erabiltzen doguz ?.

Saiatuko naz naste-borraste au argitzen, Martin`ek ardurapean ipini-eustan gaurko itzaldiaren sail bidetik.

Oso polita dalako leenengo, eta Euskaldunen ardurazko begiak zabaltzeko oso argigarria dalako bigarren.

## I. - BESTE ERRI BATZUEN ERASOA EUSKALERRIARI:

### GAURKO IKERKETAREN BIDEZ LORTUTAKO ZEAZTASUNEZKO ARGIBARRIAK:

#### ( 1 ) - ZER DIÑO E JAKITUNAK GAUR EUSKALERRIARI ETA EUROPA`ri BURUZ ?:

Len, Barandiaran`tar Joxemiel`ek txantxetan esaten eban lez, Euskalduna bertoko perretxikoen antzera, beti bizi dala emen.

Gaur, Wennemann`tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratiko); Foster`tar Peter, Cambridges`ko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea; eta Hamel`tar Elisabeth berrien idazleak, egin dabena azteraldi sakonaren bitartez, eta "Spectrun Wisenschf" Aleman aldizkari jakintsuan argitaratu, eta bai Ingalaterra`ko iztegi nagusian esaten dauana: "EUROPA ZAAR ONEN ERPEETAN, ZER ESAN GURA DAUAN EUSKAL ENDAK ETA EUSKEREAK".

Irurak bat egiten dabe, eta baieztuten dabena auxa da: "Europa`ren oiñarrizko gizartean edo jendearen geenetan %`tik 75 Euskaldunak dirala, eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea dala".

Onen esan gurean: "Europa oiñarrituta izateko, Euskaldunak Euskal geneak eta izkuntza emon dautsozela" da.

Altuna`tar Jesus`ek, bere azterkuntzazko maixu-lan bidetik argitutako libu-ruan "Euskal Edesti-Aurreko 150.000 urteak" esaten dau: "Kromañon gizakia, gaur daukagun itxuragaz "WURM" deritxon askeneko izotz-aldiren ostetik "Magdaleni-ense eta Aziliense"en arteko denboratan, orain 15.000 urte K. a. inguruan, agertu zala.

Eta Aleman jakintsu oneik gaur esaten dabena: "Orduko Europa`ren izotz-ur-tzean, eiztariak gezaltze orren ondorioz izotz-oreiñak eta Mamutzar`en iges-aldian edo atzerakada egitean euren atsekiñezko giroan egoteko, Euskal eiztariak Europa`tik zabaldu zirala, eta orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik Euskera`ren oiñarrizko itzak: "Aran, Ibar, Ur" eta abar asko.

Or banandu ziran, eta bakardadeko denboraren igaro-bidean leiñu barriak sortu ziran, bakartasun orretan eta tronkaletik urrun, gai-gauzai bakotxak beren ulermeneko sinismenean ulertzen eben itzakaz izena emonda, eta banazeko berezitasuna gura nai-ez artuta.

Banandu bai, danak baiña ekanduaren oiñarrizko erpe-biribil batetik zabaldua.

Bizi orren azkera oraiñarte etorri bazan, gaur ez gintzazan berez batzangotuko, bizitzaren arazoai etorkizunean aurre egiteko ?.

Baiña Erromatarrak norkerien asmoz jaio ziranetik, gaur arte dana ankazgora dago: "Gizarte-Politikan; Merkatarari edo Sal-Erosle-Politikan; Erlijioaren-Politikan" eta gaurko bizitzaren ekanduzko lojikan, NORKERI`aren lojikalazko leize-zulo sakon baten sartuta gagoz, "DIRUA-ELBURUTUTA" irten-biderik aurkitu ezinda.

Ikusten joan gaitezana ba, zer gertatu dan erromatar-denboratik ona, berezko bizitzaren Nortasunak eta lurraldeak bear diran eskuetan egon ez daitezana.

(2)-EGIA DA KROMAÑON GIZONA DALA EUSKALDUNEN JATORRIA ?

Gaur ikerlari jakintsuengandik dakigu, Europa`ko azken izotz-aldia urtzen asi zanetik Kromañoen endea, gaur daukagun itxuragaz agertu zala, eta bertan egon ziran Neardental`ak, eurongan beretuta geratu ziralako.

Kromañoien izkuntza Euskera`ren lehen-izkuntza zan, eta Europa`tik zear zabaldu ziranetik izotzaldia urtzen asi zalako Izotz-oreiñak eta Mamutzar`en eizan, Euskera`ren ainbeste izen geratzen dira oraindiño gauzen izenetan, mendi, ibai ta ibarretan.

Bai, 1.868`tik aurrera ikerlariak, Frantzia`ko ego-mendebalean leenengo eta gero Frantzi zabalean, Txekoslovakian, Espaiña, Alemania, Suezia, Italia eta Polonia`n, aurkitutako Kromañoi-giza`ren azur-ondarrak.

Gaur, Wennemann`tar Theo ele-jakintzaren ospe aundiko maixuak eta Foster`tar Peter Kanbridges`eko ikastetxe nagusian genetika`ren irakaslea danak: "Europa`ren oiñarrizko edo Europa`ko gizartearen geneetan %`tik 75 Euskaldunak dirala esaten dabe.

Eta Arrinda`tar Anes`ek esaten eban: "Jakin aundiko gizon bi onein esanetan, ez dagola adimen edo ezagumenen gabetasunik" edesti-aurrea, odola ta geneak, gaur gai onen inguruan ikerketaren bidez ekarri dauskuezanak, alan emoten dabelako ezagutzera.

Or !! Europa osoa Euskal-lur lez oiñarrituta non agertzen dan.

Eizan zabaldu ziranetik baiña, leiñu barriak sortu ziran, eta danak, nai-ta asikeran Kromañoen oiturazko ekandutik sendotu, izkuntzan ezberdindu egin ziran bata bestigandik urrun egon ziralako.

Euskereak or galdu eban leenengoz izkuntzaren arlo aundiena beintzat eta beragaz lurra, izkuntzan ezberdindu egin ziralako.

(3) . - KELTIARRAK NORTZUK ZIRAN ? : EZ ZIRAN KROMAÑOIAK ? :

Orreik ziran Indoeuropear deritxenak ? Alan deitzen dautsee Europa`ko ia izkuntz guztiari; Asia`ren Ego-Mendebalekoak; eta India`ren Ipar-Ekialdeko izkuntzen artean arremant edo ikuskizun aundia daukielako.

Keltiarrak K.a. 2.000 urtean Alemania`ren erditik Europa guztira zabaltzen asi ziranean (Goidelos, K.a. VI-I`n gizaldietan Britaniko Keltiarrakaz kanporatuta geratu ziranak), K.a. XVIII-XVI`garrengo gizaldietan Frantzia`ren Mendebaleko Iparraldera (Britania) eta Ingalaterra`ko ugarteetara eldu ziran. Espaiña`ra edo erdi-ugarte onetara K.a. XII-VIII gizaldietan etorri ziran Mendebaleko Iparraldera Asturias eta Galizia ?, (gure artean be Biasterin "LA OYA", Mungia`ko Berriaga mendian

eta abar`eko kastroetan, bizi ziran), eta erdi-ugarte onen erdi ingurutik Eki-Egoalderuntz, keltiberia tarraconense deritxonari, Soria ta Zaragoza`tik asi-ta beruntz: Guadalajara, Toledo, Kuenka, Teruel eta Balentzian. Ego-Mendebalean Lusitania edo Portugaleko egoaldetik asi-ta Betika`ren Iparraldean Badajoz, Sebilla eta Kordoba`ko Lur zabal aundi batzuetan kokatu ziran.

Euskaldunak nungo lurraldeetan geratu ziran ?:

Euskaldunak bigarren aldiz galdu genduzan euskaldunduta egon ziran lurrak, bitarte orreitan geratuta, Loira ibaitik Soria ta Zaragoza`ren egoalderaiño, Auñamendi ta Kantauriko saiatsetik zear mendi kateen bizkarreko babesean.

Keltiarrak sasoi aundiena K.a. 4`n gizaldian (La Tène) lortu eben, baiña erromatarren bultzakadan ezereztuta geratu ziran, nai-ta Inghlaterra`n luzaro, Frantzia`ko Iparraldean eta Espaiña`ko Sartaldean geratu

Euskerazko lurralde oneik galtzea esaera bat da, danak ordezkartizan edo "demokrazian" aurrera joan giñelako.

#### ( 4 ) . - ZE GARRANTZI DAUKE GREZIARRAK EDESTIAN ?:

Grezian asi ziran jakiturizko demokrazian aldi argienak K.a 1.000 urte dirala. Kreta`tik asi-ta, Munduko jakintzaren arloan zilborra edo erdi-gunea izatea lortu eben, eta Lurrarteko itsasotik ta Erdi-alde edo aurreko-ekialde guztitik jakituria zabaldu eben: "Eder-lanean, Filosofi edo Jakin-Zaletasunean ta Ele-Ederretan". Euren jakintzaren goi-maillako gunea K.a. V`n gizaldian lortu eben.

Euren artean baiña, jakituriaren eta gudalarien alderdikideak sortu ziran, eta nai-ta gudalariak jakintza-zaleak menperatuta geratu, agertu ziran bai, gudalarien eredia edo ikas-bidea artu ebenak, gudak bakarrik ekarri leiken asmakizuna beteteko.

#### ( 5 ) . - ZER EKARRI EBEN ERROMATARRAK ?:

Erromatarrak ziran Esparta`ko gudaren eredu bidetik Mundu guzizko edo al-osokerizko batzangotasuna lortu gura ebanak: "Jaurkintzaren zuzentasunean, Erlijijiñoan, Oituran, Lurrez eta Izkuntzan".

Arlo guztietan ez eben lortu, dana birrintzea baiño beste gauzarik, aurrerantzean ikusiko dogun lez, eta argiago Euskalerriko adirazitan sartzen garanean, gure Euskera eta Lurrak zelako egoeran dagozan jakiteko. Gaur egun be, zabaldu eben ain sakonezko leize-zulo orretatik, urten ezinean gabizelako.

## ERROMATARRAK:

Erroma`k sorraldia K.a. 753`tik 510`era lortu eban, Sabino`ak, Iszeres`ak eta Etrusko`ak (onen izkuntza ez zan indoeuropeoa izan) alkartuta.

Etruskoa`k jakitunak ziran, Grezia`gaz artu-emon aundia euki ebelako, eta Ego-aldeko griego`rekin Latiña sortu eben. Erromatarrak Mundu guztian ezartzen ibiliko ebena.

Erromatarren batzangotasunezko asmakuntzak, Etruskoa`ren antolamenduzko jaurkintza Grezia`ren antzera "Uri-Laterrizkoarena zana" (ANFICTIONIA: "Confederación de las antiguas ciudades griegas"- "Asamblea de los anfictiones"), ez eban menperatzea lortzen, areik eta K.a. 295`an gudaren indarragaz menperatu arte.

Ortik eta K.a. 240`an ingurutik batez-be, asi ziran Erromatarren oituran arazoko bide larriak, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk, erri-guraso`en (patricios) sendiakaz alkartu ziranean beste erritarrak jaurkintzatic bastartzeko.

Jaurkintza guztia euren eskuetan eukita eta andi-mandikeriak bultzatuta: Batzangotasunaren asmakuntza, apainkeriak eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin besterarte, euren arbasoen osotasunezko oiturak eta ekanduak lortuta euren goi-mailako neurri aundia galduta.

Erromatarrak ortik aurrera asi ziran Europa`ko erriak eta lurraldeak menperatzen, eta euren naikerira lurraldeak zatituten: K.a. 222`an Galia-Cisalpinia; K.a. 146`an Grezia; eta K.a. 51`n Galia trasalpina. K.a. 27`an Zesar Augusto`k iru zatitan banandu ebana: Akitania, lionense eta La Elbezia. Frantzia`ko mendi-lerro erdi orrein (sistema central montañoso) banatzeagaz Euskaldunak Euskeraren beste lur-arlo aundi bat galduta.

Erromatarrak, Iberia`ko erdi-ugarte onetara leenengo aldiz K.a. 229-22`an etorri ziran Galia zisalpina`gaz batera Espaiña-Kartaginense menperatu naian eta K.a. 218-2`an bigarren aldiz etorri ziran Kartagotarrak botateko Anibal`egaz euki eben borrokan.

K.a. 133`an Numanzia menpetu eben orduan, Espaiña azpiratzearen sendotasuna lortuta geratu zan.

Zesar K.a. 45`an agintzale nagusia egin zanean, eta Mundu guztian erregetza bakarra sortuteko asmo naian ibili zanean il eben. Baiña, gauza bi itzi ebazan eredu lez, Erromatarren eskuetan batzangotu baiña, zatitu egingo ebana, bata: "Mundu guztiaren jaurkintzarako Erregetza, Erlijioa eta Izkuntza bakarra"; Eta bestea: leenengo asmakizuna beteteko, maltzurkerizko itz auek "VENI, VIDI, VICI".

Euskaldunak K.a. 133`an Beroitarrak Numanzian zer gertatu jakon ikusita (zer ziran oneik Keltak ala Euskaldunak ? toki-izen guztiak Euskaldunak izatez

ba-dira: "GARRAI menditxoak eta Arlaban (Arlanza) ibaia" ?) erromatarrakin alkartu giñan eta ainbat euntzako guda batalloi talde osotu genduzan euren agindutara.

Euskaldunak ekintza orregaz, lurralde eta Euskera`ren babesa lortu gendun. Beste aldetik baiña, antziñako kantabrietatik (Kastilla`ko goi-zabalduetik itsasoraiño zana eta Bizkaia-Santander osoan, eta Obiedo, Burgos, Palenzia ta Leon`en zati zabal batzukaz osotzen zana) izkuntzazko Latin-kumeak asi ziran jaiotzen. Aurrerago argiago ikusiko dogun lez

### ( 6 ) .- ZELAKO ARTUEMONA EUKI EBEN ERROMATARRAK ETA KRISTIÑAUAK ARLO ONETAN ?:

Dana dala, Erromatarren berakadan beste gauza oso kaltegarri bat K.denboratik onantza laugarren gizaldian sortuko zan, Konstantino`k Kristau eleiza alkartu ebala "Erromatarren asmakizunezko KAISERGO SAKRATURA" eta Latiña erabiliko ebana izkuntz nagusi lez oraintsurarte, sasi-kaizergo sakratu orregaz batera.

### ( 7 ) .- GODOAK ZEIN BIDE ARTU EBEN ?:

Erromatarren blaustadan edo uts egin ebenean bostgarren gizaldian Godo`ak agertu ziran asmo bardiñakin. Oneik baiña, ez eben euki denborarik ekarri eben asmakuntza beteteko, zortzigarren gizaldiko asieran Mauritarrek Tarifa`tik agertu ziralako.

Godok a-ta guzti, Konstantino`ren ereduari begituta, Arianikeria bastertuz katolikotasuna on-artu eben, 589`an Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusian, kaizergo sakratuaren asmo orreri indarra emon naian.

### ( 8 ) .- MAURITARRAK ZELAN JOKATU EBEN ?:

Mauritarrek etorri ziranean, Godo`ak ezereztu egin ziran eta asmo guzti orreik geratu ziran, naikoa izan zalako euren babesa lortzeagaz.

Danon artean Mauritarrek geratzea lortu eben, eta berezko erri, izkuntza ta lurak, gaur baiño bereztasunezko lurralde zabalagoetan geratu ziran, berezkotasunezko erriak pare-gabeko aukera eukinda, euren senitasunak babese- an ezartzeko eta antolakuntz barriak eraikiteko.

Berezko erri ta erritarrak, euki eben oiturazko demokraziaren legeetan jabetu ta sendotu ziran. Batera baiña, Latin-kumeak (Euskera, Latin, Godo ta Mauritarren izkuntz-bidetik sortutakoak) sendotzen joan ziran Eleizaren katolikotasunak babestu egiten ebazalako berezkotasunaren aurka,

Erromatarren kaizar-sakratuzko asmakuntzaren jabetasuna oraindiño berak daukalako.

Orain ikusiko doguna, batzangotasunezko asmakuntz bide orretatik, gero ta geiagoko indarrarekin aurrera eginda, zelan birrintzen diran lortutako demokrazia- ren moral-oiturak, lurralde eta izkuntzak.

Eta berezko errien erritarrak izendatuko jauntza, siñezkintzazko sare-arte orreitan konturatu barik zelan jausten dan, eta ortik, gero ikusiko dan lez, Euskalerrriaren zatiketa, eta Eleizak gaztelarrezko Latin-kumea indartuta Gaztela`ko erregetza goraldtu ta sendotuaz, okerreko bide orreitatik aukera barriak emon Kaizar-sakratuaren norkeriai ta Mundu osorako norkerizko katoliko- tasun garailletasunari.

### EUSKALERRIA`ren DEMOKRAZIA IZKUNTZA ta LURRA`k:

#### ( 9 ) . - EUSKEREA ta DEMOKRAZIA EUROPA OSORA:

Kromañoi-giza Europa`ri, bere Euskal-izkuntza ta berezitasunak emonda demokrazizko oitura baten leen zabaltasunetik, lojika barruan gauza bi ikusten doguz:

Lenengoa: "Europa guztia, berezko demokrazi eta oitura baten oiñarritu zala". Beste aukerarik ez eben euki, bizitzan irauteko Mundu onen legeakaz aurrera egin baiño.

Milla urte askotan iraungo ebana, Indoeuropearrak, Grekotarrak eta Euskaldunak bezala "ANFICTIONIA" n, eraiki ebazan antolakuntzak oiturazko oiñarri orreitan goratu ebazalako.

Eurak esaten dabe: "Gu, sekula ez garala laterrituta egon". Zelako arrazoiak daukiez eurak baiña.... indarragaz ipini eben laterri oneik eskubidekoak dirala esateko ?.

#### ( 10 ) . - GODOAK eta MAURITARRAK INGURUAN EBEZALA:

Berezko Euskalerrri ta erritarrak aukera aundiak agertu jakiezan, jaurkintzan bear ziran antolakuntz-barriak eraikitzeke, eta alan egin eben. A- ta guzti baiña, izkuntzan zatitzen asi giñan, kantabria zaarretik asi-ta Gaztelerazko erromantzea indartzen asi zalako; Galizia ta Portugalen Gallego`aren erromantzea; Asturias eta Leon`en Bable erromantzea; Nafarroa eta Aragoi`en Aragoi erromantzea; Kataluñan Katalana. Eta ugarte erdi onen Egoalde guztian Mozarabe.

Frantzi aldeko Euskal lurraldeetan bardiñ antzera sortu zan: Erromatarrak Akitania deitu eutsoen lenengoetan eta gero Nobenpopulania. V`n gizaldian Bisigodo`ak menperatu eben, eta VI`n gizaldian Franko`ak.

601`eko urtean Gazkuña ta Bazkonian`ko Dukat-erria sortu zan, eta 1.058`an lurralde geiena Akitania`ko duke`aren eskuetan geratu zan. XV`n gizaldian 1.453`an IV`n Enrike`k Frantzia`ko koroiaz alkartu ebana.

### ( 11 ) . - AKITANIA: LAU ZATITATIK BAT GALIAN:

Erromatarrak euren politikaren antolamendurako, Galia lau zati politikotan banadu eben. Akitania orren zati bat da.

Uno`ak, Erulo`ak, Eszita`k, Samata`k, Ostrogodo`ak, Gepido`ak, Boyo`ak, Turingio`ak, Franko`ak, Alano`ak eta Borgoñes laguntzarerekin, Europa`ren erdira eta Galia`rantza joan ziran.

Aezio Erromatar gudar-buru nagusiak, 451`n Irailla`ren 20`an Kanpos Katalaunikos`era (Txalons-sur-Marne inguruan, Marne-ibai ondoan) urten eta ezereztu ebazan Un`darrak.

Bizigodo`ak a-ta guzti 457`an Nobenpopulania (Akitania`ko 9 erriren lurraldea eta Erromatarrak 17 probintzietan banandu eben lurralde`etatik bat izan zana) eta Akitania Sekunda`ko (Loira-ibaia, Zebenes mendi-kateak, Auñamendi-kateak eta Gaskuñan`ko ur-kolko`ren arteko lurraldeen zati bat izan zana. Prima beste zatia zan) lurraldeak menperatu ebezan. 462`an, Narbonense (Erromatarrak emon eutsoen izen au eta Robine ibaiaren alde bietako ur-basterren lurraldeak dira) prima`ko lurralde guztia. 466`an Akitania Prima`ko lurraldea. 470`an Biennense (Poitou-Txarenta`ko lurraldeak, Txarenta, itsastar-Txarenta, Deux-Sèbres ta Bienne`ko lurraldeak osotzen dabena, eta uri-nagusi-lez Poitiers dauna) ta Narbonense Sekunda`ko lurraldeak. Eta 475`ean lurralde orrein jabetzaren onespena artu eben.

Bisigodoak, Nobenpopulania ta Akitania sekunda`n 418`tik egon ziran kokatuta alkar-zaletasun (foederati) antzeko baten.

Erromatarren Kaizar sakratuaren agindu-naiaren amaiera 476`an sortu zan, nai-ta Nepote`tar julio`gaz Dalmazian (Yugoslavian) 480`erarte iraun. 476-7`an Espainan`ko erdi ugarte au menperatzen etorriko ziran.

486`an Franko`ak Klodobeo`en (481-511, katolikoa biurtua zan) agindutara, Siagrio`ren jabetasunean egon ziran Galia`ren Iparraldean Loira ibaitik gorako lurraldeak kendu eutsozan, eta Siagrio Tolosara (Frantzikoa) joan zanean beren burua gorde naian, II Alariko`k (eta au Arrianotarra) arrapatuta Klodobeo`ri eskuratu eutson eta onek il. Frantzia`ko lurralde guztian Bisigodo`ak eta Franko`ak auzo-lez geratuta.

507`an Klodobeo, Gundebaldo (au-be Ariotarra zan) borgoñoiagaz alkartuta Boille Poitiers`en ondoan II`n Alariko`ri borroka nagusia irabazi eutson eta Alariko il. Teodoriko ostrogodoak Gundebaldo`ri 508`an



Narbona`ko borrokan irabazita, Frankoak eta ostrogodoak geratu ziran garaille.

Euskaldunak borroka orren bitartez Akitania (kontuan euki bear da Akitania`ko duke-erria Ebroraiño zala) eta Nobenpopulania`ren Euskal-lur guztia Auñamendietaraño galdu eben, Franko`ak leenengo, Bisigodoak eta gero ostrogodoak menperatuta geratu zanean.

Erromatarren antzera, euren norkerizko borroketan ara ta ona ibili ziran, erri ta erritarren demokraziaren ardurazko legeak kontuan euki gabe. Erritarrak, euren asmakerizko borroketan peoi-lez ibilteko eta zergak ordaintzeko bakarrik gura ebezan.

574`tik asi-ta, Nafarroa, Aragoi eta Kataluña`ko Euskaldunak leenengo eta Bizkaitarrak, Gipuztarrak eta Arabarrak gero, zirikitu ta oztu egiten eutseen Godo`ai, Auñamendi kateetatik zabaldua eta gorde lekura ostera be joanda.

Eta 582`an Bisigodoak erdi-ugarte onen Euskal lur batzuk menperatzen asi ziranean, Iparralde eta Egoalde`ko Euskaldunai Nafar-nekazari asko alkartu jakiezan..

Astrobaldo dukea ibili zan Euskaldunak menperatu naian, eta eziñean, 587`ren ostetik erabagi batera eldu ziran Euskal bizitza aurrera bakez eroateko: "Euskaldunak zergak ordainduko ebezala, batera baiña, bizi ziran lurraldeetan, Euskal-legeekaz zuzendu edo jaurrituko zirala".

602`an Austrasia`ko II Teodoberto eta Borgoña`ko II Teodoriko Euskaldunen aurka joan ziran eta beartu ebezan eurak agindutako kondea gure buru artzeko.

### ( 12 ) . - BASKONIA`ko DUKAT-ERRIA:

Or agertuko zan leenengoz Euskal-askatasunaren Bazkonia`ko-Dukerria, bere gorte ta guzti Merobinjio`ren erregetzatik adierazita (designada). Genial Galo-Erromatarra izan zan leenengo dukea 602-626`ko urtetan, eta aukera barri bat agertu jakun, Nortasunaren izaera, izkuntza ta oiturak zaintzeko.

Genial kondea 626`an il zanean, Euskaldunak matxinatu egin ziran bere ondorengo Aighina zanaren aurka.

629`an baiña, I Dagoberto agertu zanean Franko`en agintza sendotu egin zan lurralde guztian.

635`an Franko`en agintaritzari Euskaldunak aurka egin eutsoen denboraldi baten, eta I Dagoberto 638`an il zanean, ondorengo ziran errege fardelakaz, Franko`ai, ezereztu egin jaken euki eben Augusto`ren mugatara itzultzea, Euriko`ren erreihua ostera be osotzeko.

Baskonia`ko Dukerria indartzen joan zan Erritarren feudotasunean eta geien Gotzaitegian finkatu edo ebatu ziralako. Denbora gutxian Euskal-Dukerri`ko agintaritzaren eginkizunak, Franko`en errege-alfer orrein kanpotik eginda.

Eginkizun oneik, Akitania`ko andi-mandien eta Euskal erritarren artean ezin ohea zan ulermenean ezarrita egon ziran, eta Euskaldunentzat laster emango ebazan emaitza onak.

Ebrino`k, Franko erregetzaren etxe-zaiñak (mayordomo), denbora onen gorteko larritasunean, Felix`eri, Euskalerrri ta uri guztien nausitasuna (principatun) Auñamendirarte emon eutson.

Felix onek baiña, Franko`en alde jokatu barik, Akitania`ko Baskoi-Dukerria`ren alde jokatu eban, politika`n indartsu izateko.

Felix`en ondorengo Lupus (Otsoa) izan zan aurreratu egingo ebana eginkizun au, gero ikusiko dan lez, Franko`en aurka artez borrokatuta eta Wanba bisigodo erregearen aurka Septimania`ko (Erromatarrak 7`n lejiñoagaz izena emon eutsoen Lurrarteko-itsas bazterreko (costa del mar Mediterraneo) lurraldeari, Rodano-ibai Auñamendia eta itsas-bazterragaz osotzen dana) iraultzari lagunduta.

Gauzak alan zirala, 660 eta 670`n urte artean Toulouse`ko erreñu zarra bizkortzen asi zan, eta Akitani`ko Felix dukearen ondorengoa I Otsoa edo Lupus (670-710) izan da (Lobo. Otso oneik Iaka`koak "Jaka Aragonesa" ziran) jaurkintzaren buru ipini eben. Onen ostean Eudes (Eudon Aundia 710-735) izan zan buru.

711`garrengo denbora oneitan, Muza`ren Mauritarrek Tarik`en agindutara erdi-ugarte onetan Kadiz`tik sartuta, Rodrigo Bisigodoaren gudaloztea ezereztu eben, eta 714`n urtea orduko Salduba`ra (Zaragoza) eldu eta menperatu eben.

Ebro-ibai`en ibar inguru baten-batetik Kasio kondeak agintzen eban, eta konturatuta guda-egoera ez zala ona bere lurraren jabetasuna aurrera eroateko, 714`an Kalifa`ren zerbitzura aldatu zan. Banu-Kasi`ren mozarabe sendia ortik sortuta. Garrantzi aundikoa izango zana Nafartarren erregetza sortzeko.

718`an Eudon Aundiarekin (710-735), Euskal eragipena ta Akitania`ren jabetasuna Iparraldetik Loira ibai`raiño laterrituta geratu zan (dentro del estado franco el estado Basco). Ego-aldetik Ebro-ibai`raño, eta Mendebaleko Kantabria`tik Auñamendi`ren Eki-aldeko Jirona- Lleida`ko Aran Ibarraraiño.

Orduko denboratan Eudon`en Printze-erri au, Galia guztiko eredu-lez geratu zan, Austrasia (Klodobeo`k eraiki eban ekialde`ko erregetza, eta Frantzia`ren Eki-aldean, Alemania`ko Mendebal eta Olanda`ko lurraldeakaz osotzen zana) ta Neustria`ren (Merobinjio`aren denboran sortutako erregetza, eta Ipar-Mendebaleko Loira-ibai, Mosa-ibai ta Bretaña`ko

lurraldeakaz osotzen zana) arteko borrokan antolatzaile edo artekariaren (arbrito) lanak al-egiteko bakarra izan zalako.

Ekintza orrek, bere askatasunaren eragipenari ezkerren ta onespena balio eutson, eta bai erregearen (regnun-reino) izena.

671`tik-781`era Baskonia`ko Dukerria Franko`en agintzatik aske bizi zan eta bera izan zan leenengoz Euskaldun guztiak politikaren jabetasunean alkartu ebazana.

Euskaltasuna eta Euskerea sendotu ziran. Batera baiña, beste zoritxarreko gauza sortu jakon Euskal-Izkuntza`ri.

Euskerea sendotu bazan gitxi erromatartuta egon ziran Euskaldunen artean, Euskal erromatartuta geien egon ziranen artean "Gaskon" Latin-kumaren izkuntza sortu zan, ortik aurrera Gaskoien erritarrak agertuz. Gero, gizaldiak aurrera doiazela Gaskoi izkuntza zabaltzen joan zan, Euskerea neurri bardiñean gitxituz. Eta XII-XIII`n gizalditik aurrera Aran`eko Ibarretaraiño.

Dana dala, Frantzitik Baskonia`ko Dukerria zabaltzen joan zan, eta bere lurraldea, gaur Gaskuña-lez ezagutzen dan lurraldea osotzen eben.

Akitania`rentzat keiñadura gogorra egon zan urte oneitan, Espaiña`ko ia lurralde guztia mauritarrak artuta egon zalako.

### ( 13 ) . - KARLOMAGNO MAURITARRAK ETA EUSKALDUNAK:

720`an Mauritarrak Auñamendiak igonda Toulouse`ri eraso eutsoen. Eudes`ek, bere ardurazko lurraldea babestearren, Espaiña`ren Iparraldeko Mauritarren emirra izan zan Abinessa`ren alabagaz ezkondu zan, baiña Abd-el-Raman`ek Abinessa baztartuta eta Auñamenditik aldatuta, Autx eta Eauze menperatzera joan ziran.

Mauritarrak, Autx ta Eauze`n ikaragarritzko zarraskia egin ta gero Tours`era joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

732`an Karlos Martel Eudes`en laguntzara joan zan eta Abd-al Raman Poitiers`en geratuta, Martel`ek bultzatuta beartu eban Auñamendiak ostera be betiko aldatzen.

Eudon`ek, Franko`en aldetik ez eban iñolako nagusitasunik on-artzen, eta 735`an Karlos Martel`ek Euskalerrian sartu eta Eudon il eban. Eudon`en urrengoa bere seme Unaldo izango zan.

735`ean Eudon`en il ostean, Unald`ek Frankoa`ri zintzotasunezko ziñ-itza (juramento de fidelidad) emon bear izan eutson.

Karlos Martel 741`ean il zanean, Euskaldunak alperrik asi ziran Franko`en agintaritzaren aurka, Waifre (Wafarius), III`n Pipino Martel`en semeak 768`an il eban arte, aurre egin eutsoelako.

III`n Pipino Laburrak (715-768) Martel`en semea, Karlo Magno`ren aita eta orain Franko`ren errege II`n Otsoa`ri, Akitania`ren jabetasunezko askatasun trukez, esku-aundiko Euskaldunen artean berak aukeratzen ebazanak, beragaz baituran (rehen) eroatera beartu eban. Eta ori izan zan II`n Otsoa`k edo Lupo`k Eudes`en edo Eudon`en azkeneko semeak, Franko`ai ordaindu bear eutsona Akitania`ren askatasunagaitik.

Errege-jatorrizko (dinastias reales) bi auek. Akitania`koa: Eudon, I Unaldo, Waifre eta II Unaldo. Eta Karolinjioa`rena: Karlos Martel, Pipino Laburra eta Karlo Magno`ren arteko leian, politikan nor`geiago izateagaitk, Pipino Laburrak erabagiko eban, 9 urte luzeetan araubideko (sistemática) gudaldia eroan ebanagaz (760-768) garaille urten ebalako.

Franko`ak eta Euskaldunak geienetan kidesunean jokutzen eben, baiña beti asarratzen ziran, erabagiak Euskaldunen aurka joaten ziranean.

Franko`ak, Baskonia Dukerriaren bitartez Mauritarrekin artu-emon aundia euki eben, Karlo Magnok ardura aundia euki ebalako Mauritarrak bere erreñutik kanpo eukiteko.

Eta orretarako Espaiña`ren Iparraldeko Emir`ekin lankidetu egiten zan, oneik Kordoba`ko Kalifa`ren aurka matxinatzen ziranean.

Bide batez, Baskonia`n bizi zan, sarri izaten ziran Euskaldunen matxinadak geratzeko.

778`an Karlo Magno`ren gudaloztea, bere zaldun bioztoi Roland aipagarrien agindutara Salduba (Zaragoza) Mauritarrengandik askatzera joan zan, eta eziñean Iruñatik etxerantza aldatu zanean Iruña erraustu egin eben.

Eta 778`an Dagonilla`ren 15`an, Karlo Magno`ren gudaloztea Auñamendiak aldatzen egon ziranean, Euskaldunak Orreaga`n kokatuta itxaroten, ikaragarritzko zarraskintza egin eutsoen, eta Roland ospatsua bera be il.

Gero, 1.090`an Roland`en abestiagaz ("La Chanson de Roland") betikotu egin zan. Eta Frantzia`ko elerti-lanen artean aundienetarikoa da.

Karlo Magno (742-814) arduratuta, Euskaldunak askotan matxinatu egiten ziralako Asturias`eko II`n Alfonso nasgabeko (el casto) erregeagaz alkartu zan, baiña onek beste premitasun batzuk euki ebazan Ego aldean kokatuta egon ziran Mauritarrakaz eta ez eutson laguntzarik emon.

Eleizak, nai-ta alegin asko egin Frantzia`ko erregetzan alkartasuna lortu daiten, Baskonian matxinadak ugari ziran.

Eleiz`tarrak, eleiz-katolikoaren aldeko jokuan, errege en artean onena aukeratzeko almenekuak izan ziran, bata edo besteari indarra emonda, kaizar sakratuaren kaizarra izendatzeko. Danak baiña, azken gaiztoa euki dabe,

lenengoetatik okerreko bidean sartzen ziralako, bereztasunezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

800`eko gabonetan, Karlo Magno, Erroma`ko Pedro Santuaren Eleizan, III`n Leon Aita santuak Erromatarren Kaizar-Sakratuaren Augusto-kaizarra izendatuta etorri zanean, Iparraldeko Euskaldunak matxinatuta egon ziran.

Karlo Magno 814`an il zanean, Akitania`ko errege I Pipino`k 803-838 (Luis Errukitsuaren "el Piadoso" bigarren semea, Akitania`ko errege izendatu eben, eta beren anai Lotario`ren menpekoa zan, au kaizar izenaren ondorengoa zalako) bialduta, non agertzen dan III`n Pipino`gaitik 30 urte ariñago baitua (rehen) izan zana, Santxo Otsoa, II Otsoa`ren semea.

Nobenpopulania zaarrean, Euskaldunak Santxo Otsoa`k zuzenduta egon ziran. Gero, beren seme nagusiagaitik Aznar Santxo, eta au I Pipino`k il eban orduan, 836`an bere anaia Santxo Mitarra`k artu eban jaurkintzaren ardura.

Santxo Mitarra, beren aitagaz ibili zan Nafarroan eta Aragoi`ko goi aldean, guda eta politikarako trebetasun aundiak artuta.

I Pipino`k, Santxo Mitarra gudara beartu eban, eta onek Pipino`ren gudaloztea Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda, 838`an irabazi eutson.

68 urte Karlo Magno`ren nagusikeritik geroago, Euskaldunak osterabe antxiñako berezko mugakaz jabetu ziran.

I Luis errukitsuak (el piadoso edo Ludoviko Pio 778-840) Franko`en erregeak, Santxo Mitarra`ren jaurkintza baieztu eban, 840`an bera il zanean baiña, Frantzia`ko kaizartza beren iru semeen artean banandu eben, eta Frantzia`ko Mendebal aldea eta Akitania Karlos buru-soil`en (el calvo-823-877) arduran geratu zan.

#### ( 14 ) . - NORMANDOAK EUSKALERRIAN:

840`tik aurrera, Normandoa`k Atlant-itxaso`ko itsas-bazterretara asi ziran agertzen eta euren itsas-untziekaz ibaitik gora egiten ebezan urietan lapurketak egiteko.

844`an Toulouse`n lapurketan egin ta gero erre eben. Kondon, Eauze eta Lektoure`ko erriak izan ziran kalterik aundiena artu ebenak, gaiñera zergak ordaintzea eskatzen eutselako, eta Eleizatan ta Lekaide-etxeetan lapurketa aundiak egiten ebezalako, 854`an beren Elusa`ko bizi-lekutik, Nobenpopulania`ko Uri-Nagusi zaarrean egon zana, Autx`era joan ziran arresidun (fortificada) zalako.

II`n Pipino, beren Akitania`ko erregetzatik kenduta, bir. eskuratzen asi zan, eta lortu be bai, Karlos Buru-soil`ak euki ebazan arazoari esker.

852`an II Pipino Euskal lurraldeetan sartzeko apaindu zan, Santso Mitarra`k baiña, arrapau eban eta Karlos Buru-soil`ari eskuratu eutson.

852`ko aldi oneitan, Baskonia`ko Dukerrian asi ziran agintezko agiriak agertzen, Santso Mitarra leenengo dukea zala. Agiri oreik baiña, Latiñez edo latin-kumeetan idatzita agertzen ziran.

864`an Santxo Mitarra il zanean, Baskonia askatasun osoan bizi zan, bai-ta Espaiña`ko Mauritarren aurka igaro-ezinezko muga.

Eta bere semea gaztea izan zalako, Arnaud dukea Santxo Mitarra`ren loba izan zanak, artu eban agintaritza.

Arnaud`ekin Baskonia`ko Iparraldea naspiltasun aundi baten sartu zan, Gotzaintegi eta Lekaide-etxe geienak utsik geratu ziralako eta erritarrak ibarreko bazterretatik igeska.

Aldi orreitan agertu ziran feudal-jauntza`ren araudiak, gaztelu arresidun eta guzti.

871`n oiturazkoa zan lez, Santxo Mitarra semearen arduratan itzuli zan konderrria`ren agintaritza, nagusi egin zan orduan, Mitarra Santxo izena artuta.

Au, bere aitaren antzera gudarako bular edo ausar aundikoa zan lez, Normandoak itsas-bazter edo Adur-ibaiaren agoan euki ebezan, bere erregetzaren denbora guztian 871`tik-886`ra.

Berak erregetza itzi eban eta Beren semea, Garzia Santxo makurrak (el encorvado), 886`tik-920`ko bitartean agindu eban.

### ( 15 ) . - EUSKALERRIA ZATITUTA:

Mitarra Santxo il zanean, Iparraldeko Baskonia aundiagotu egin zan, bere seme Garzia Santxo Agen`eko kondearen alabagaz eskondu zalako eta Karlos gatz-gabekoa edo motela (el simple) Frantzia`ko erregeak, Itsas-Aundien mugaren gaiñetik Konde eta Markes bezela ontzat artu eban.

Santxo makur onek zori txarrez, euki ebazan iru semeen artean banandu eban Baskonia`ko erregetza edo dukerria, Euskal legearen aurka. (menperatzaillan artean oitura zan antza, Franko`ak be egiten ebelako).

Santxo Garzia nagusienari zati aundiena emon eutson: Bèar mendebaleko lur guztia Lomagne`raiño. Baskonia Nagusi edo Baskonia-Aundian biurtuko zana.

Gillermo Garzia bigarrenari: Erdiko lurraldea, Fezensak`az batera, Eauze eta Autx`en bitartean.

Eta Arnaud Garzia irugarrenari: Astarak`eko lurraldea, Fezensak eta Bigorre`n artean dagoena.

Zori-txarreko banaketa onegaz, Akitania`ko Baskonia aundia zatituta geratu zan.

Santxo Garzia`k lau seme euki ebazan: Garzia Santxo, Santxo Santxo, Gillermo Santxo eta Gonbaud.

Garzia Santxo oiñordeko geratu zan, baiña seme-alaba barik il zan, eta Gillermo Santxo izan zan-lez ondorengoa, printzerria bere arduran geratu zan.

Gillermo onek, Nafarroa`ra joan zan borrokan eta Gonbaud`en eskuetan itzi eban agintaritzza, eta Normandoak keiñuka asi ziranean ostera itzuli zan baskonia`ra.

982`an Tailer`en borrokatu zan eurokaz eta garaille urten zan. Normando`ak euren kanpaldiko tresnak artuta, Baskonia`ra ez ziran geiago etorri.

### **( 16 ) . - EUSKALDUNAK GURUTZA-GUDETARA:**

1.000`n urte inguruan, 400 eleiza baiño geiago eraiki ziran, eta gurutzadarako Euskaldun asko joan ziran borroka egiten Palestina`ra. Geienak Toulouse`ko kondearen irugarren gudaloztean.

Guda orreitan asko egin ziran ospetsuak, baiña Baskonia`ren Iparraldeko edo Gazkuña`ko konderrriak eta Bizkondetzak apurka apurka Akitania`ko dukerrian ezereztu egin ziran.

XII`n gizaldi osoa Ingalterra`ko arduratara aldatu zan, Akitania`ko Leonor Ingalterra`ko Plantagenet`tar Enrrike`gaz eskondu zanean.

Eta 1.453`an Frantzia`gaz bat eginda geratu zan.

### **( 17 ) . - LABURPENA: ALEGIN AUNDIAK EGINDA, EUSKALDUNAK SARRITAN GALTZEN:**

Emen ikusi dogu, leenengoetan eta denbora luzean, Akitania`ko Euskal gizarteak zelako indarragaz aurka egin eutson etsaiari, Izkuntza, Nortasuna eta Euskal Oiturak babesteko.

Bigarren: Erromatarrak ekarri eben batzangotasunaren asmakuntzak eta latiñak, oraiñarte eleizan ibili dana, zelako kalteak egin eutsoezan Euskara`ri, azken baten latin-kume Gazkoi izkuntza sortuazoteko.

Eta emen galdera aundi bat egin bear da: Erromatarrak ezeretzuta, Eleiza ez da izan sinismenaren bidez.... asmakuntzazko katoliko-erdikotasun ori.... gero Europa guztiko eta gure erregetzan sartu dauana ?

Santxo Makurrak, beren (Euskal-legearen aurka) zatiketaz zelako kalteak egin eutsozan Euskal Nortasunari.

Gurutzadaren bitartez, Euskal arduradun nagusiak Frantzia`ko gorte edo errege-etxeetan ibiliaz eta eleiz-kide`en erdira zaletasunezko aolkuakaz, nagusien artean, erdikotasunezko joko orreitan jausi ziralako, Euskal ardurea zelan joan zan galtzen.

Euskereak gizaldi geiagoan iraun eban Iparraldeko Euskalerrian Euskaldunak baiña, Lurralde aundi bateko Izkuntza, Oitura eta Nortasunak galdu genduzan. Adur ibaitik beraiño bakarrik, Benafarroa, lapurdi eta Zuberoa`ko lurraldeetan geratuta.

Euskalerrriaren kalterako aurrerabide au, Aragoi, Errioxa, Sobrarbe-Ribagorza eta Nafarroan ikusiko dogu argitasun guztiagaz.

Baiña guztiz arrigarria dana, Erromatarrengandik ona eta gaur-be, eskumatar derotxenak, 20 gizalditan erabili daben indarra berezkotasuna makurtzeko edo menperatzeko.

Zertarako alegin guzti ori ?

Zergaitik eten barik espataren indarrak erabili norkerizko arrokeri orreitan.. ain denbora laburrean bizitzeko ?

Zer egin ta Nora joan gura dabe ?

Siñetsi bear dogu Mundu eta Ludi onetatik kanpora ezin dogula urten, urten-biderik ez dagoalako, eta gaiñera berak daukozan legeetan antolatuz batera egokitu egin bear.

## II ZATIA. - NAFARROA`ko ERREGETZA

### ( 18 ) . - EUSKEREAK NAFARROAREN LURRALDE-ZATIA GALDU EBAN:

Erromatar ta Godo`en denporan Akitaniaren edestia eta Nafarroarena bardiñak ziran, gure erria beti alkartzen zalako Auñamendi`ren mendi-kateko babesean, Euskal lurraldeko gizarte guztia oitura bateko ekintzan alkartuta egon zalako.

A-ta guzti baiña, Ebro ibaia`ren lurraldeetan Nafar-Aragoi latinkumean berba egiten dabe, kristautasuna sendo sartuta egon zalako.

Iruña`ko erregetza, Orreaga`n Karlomagno`ren aurka 778-824`an euki genduzan borrokak bien artean, Banu-Kasi sendiaren laguntzagaz sortu zan.

### NAFARROA EDO AUÑAMENDIKO 17 ERREGEEN ZERRENDA:

1ª- Jimenez eta Aritza`tar Iñigo 824-852. 2ª- I Garzia Jimenez 852-860. 3ª- II Garzia Iñigez 860-882. 4ª- Fortuño Lekaidea 882-905. 5ª- I Santxo Garzez 905-926. 6ª- III Garzia Santxez 926-970. 7ª- II Santxo Garzez Abarka 970-994. 8ª- IV Garzia Santxez "Ikaratia" (el Tembloso) 994-999. 9ª- III Santxo Garzez Aundia 999-1.035. 10ª- V Garzia Santxez Najera`koa 1.036-1.054. 11ª- IV Santxo Garzez Peñalen`goa 1.054-1.076. 12ª- V Santxo Ramirez Iruña ta Aragoi`ko erregea 1.076-1.094. 13ª- Santxez`tar Pedro Iruña ta Aragoi`ko erregea 1.094-1.104. 14ª- I



Santxez`tar Alfonso Gudaria, Iruña ta Aragoi`ko erregea 1.104-1.134. 15<sup>a</sup>-VI Garzia Ramirez Berritzaillea 1.134-1.150. 16<sup>a</sup>- VI Santxo Garzez Jakintsua 1.150-1.194. 17<sup>a</sup>- VII Santxo Santxez Indartsua 1.194-1.234.

Euskaldunak, Akitania`ko agerbidean ikusi dogu, Erromatar, Godo ta Franko`en aurka, gure Izkuntza ta Lurraldeak ainbeste borrokaren bitartez eta denbora luzean, zelan gutxitzen joan ziran.

Eta emen, Nafar-Erregeari buruz esango dotena ez kontu aundian euki, naikoa egin ebelako eten-bako borroka baten, gure Euskal izaera eta Askatasunaren argibideak gaur arte iraun dagien lortzea.

JAINKOA`ren bereiztasunezko Legeak, arrokerizko norkeriaren bitartez etsai aundiak daukaz eta neurri orreïn bardiñean bereiztasunezko erri ta erritarrak

Gaur, Gure txanda da, eta ikusiko dogu, gure aalmenean ta JAINKOA`gan daukaguzan sinismenaren indarrak noraiño eltzen diran.

Jimenez eta Aritza`tar Iñigo`gaz (824-852) erregetza sortu gendunean, antolamentu orregaz indartu genduzan gure almenak etsaiari eraso egiteko gure lurraldeetara etorten ziranean, Euskal-jabetasuna ezereztuteko, bai gure elburuaren naia, Euskal Sinismena, izaera Nortasuna ta Izkuntza babesteko.

Beranduago baiña, erregetzaren arrokerizko menperatzaille eragipenean jausi ziran, naaste aundiko denborak ziralako, eta ikusiko dogu zelan eragipen (influencia) orreik, gutxituko dauzan gure zintzotasunen osotasunak.

Jimenez ta Aritza`tar Iñigo`gaz azten da gorakada, 400 urte iraungo ebana.

Iñigo, Euskal zaletasunean, egiune edo elkargo-ekoizlearen (pacto-productivo) zalea zan, Ekanduan naztetasunezko denbora oneitan.

Bere alabak, Musa mauritarrak eta Garzia Txarra`ri ezkontzan emon ebazan. Bata zin-ukatzaille senitartetik etorri zana, eta bestea, bere leenengo emaztea itzi eta bere anai Asnarez`tar Zentol il ebana.

Oneik baiña, beragaz alkartzen ebazan guda-indarrak Franko`ak Iruña`tik botateko eta Aragoi`koakaz euki ebezan eragipenak (influencia) ezereztuteko.

Iñigo`k, beren ondorengoai erakutsi eutsen, Mauritarrakin egon ziran eztaibadetan trebetasunagaz sartzen, euretatik irabaziakaz urteteko.

I Garzia Jimenez (852-860), Normandoa`k 858-859`an arrapau egin eben eta askatzeko 70.000 diru emon bear izan ziran.

II Garzia Iñigez`en (860-882) denborak be, zorigaiztoko denborak ziran. 860`an Mauritarrak Nafarroa`ko zelaietatik ibili ziran triskantzan, negargarrizko odolkeriak egiten. Ori izan zalako mairu-errege zan Moammed`ek Euskaldunak emon eutson ordea, beren aurka Aragoi`ko muladia`ri laguntzearren.

Zarraski orreitan, Fortuño eta Iñiga erregearen seme-alaba Kordobara eroan ebezan. Neskatoa, Mojammed` en seme Abd Alla erregearekin ezkondu zan, eta III Abd-ar-Rajman aundiaren amama izan zan.

II Garzia Iñigez au, Mauritarren aurkako gudan il zan.

Fortuño Garzez bere semea (882-905), Mauritarak Kordobara eroan ebana, igon zan erregetzara. Onek baiña ikusten ebanagaitik oso minduta, ukatu eban koroia, eta ekintza orren ondorioz, denborak eskatzen eban, Santxo Garzez zaldun bioztuna agertu zan.

I Santxo Garzez (905-926) izan zan au, eta leenengo egin ebana, zelaietara beratu ta Mauritarak Lizarra eta Territik (Yerri) bota ebazan. Ebro ibaiaren ezker aldea be garbitu eban, eta eskomaldetik erri asko bereganatu: Rioja, Soria eta Tarazona.

Albelda`ko lekaidetxea eraiki eban Albaida`n, Beni-Muza`ren Laterria zan uri-nagusiko ondamenen gainean.

921`an Baldejunkera`n Mauritarak irabazi eutsoen, eta Mauritarak (924) egin eben erasoan, ia Iruña`ko ateetara eldu ziran.

925`ean il zan eta Monjardin`en illobiratu eben, berak ibili eban Kurutzeren azpian, ainbat bider garaille agertzen zanean, mendi muturrean ipinten ebana. (Kurutze ori Monjardiñ`eko baselizan dago, ikusi gura dabeneztat).

III Garzia Santxez (926-970) au Baldejunkera`ko gudaldian Nafartar Kapitan bezela ibili zan, eta berak geratu ebezan Mauritarak.

Albaida`ko arresidun gaztelua bereganatu eta Albelda`ko San Martin iraspenaren eskutitza egiztatu eban.

Bere amak lagunduta (Toda Aznarez), Mauritarrai, Salamanka ta Aljandega`ko (Alhandega) gudak irabazi eutsezan.

Baiña atzerritarren gauzetan be larregi sartu zan, Leonesak eta Gaztelatarrakaz, bere loba Santxo Lodiari laguntzarren Ordoño txar errege-naiaren aurka, Gaztela`ko Fernan Gonzalez lagunduta egon zana, eta Zirueña`ko guda irabazita, Ordoño bera ta beren semeak atxilotu ebazan.

III Garzia Santxez onek, Aragoi`ko Euskal konderrria bere erregetzaz, ostera alkartu eban, Andregoto Galindez`egaz ezkondu zanean, Jimenez eta Aritza`tar Iñigo`ren aberriko-ametsak osotuta.

II Santxo Garzez "Abarka" (970-994) onek, 985`an Gazkuña`ko kondea Gillermo Santxez, bere koiñatuari laguntzen joan zanean, Normando itsas-lapurrak gogor joten asi ziralako, Mauritarak eziñezko aukera oberik ikusi eben, Iruña`n, euren mendekuak egiteko, Auñamendiak edurrez beterik egon ziralako eta II Santxo beste aldean.

Santxo baiña, jakiñean jarrita, abarka`k ipini ta beren gudalozteari ipiniazota, Auñamendiak aldatu ta Mauritarak bero-berotan arrapau eta zapuztu ebazan.

987`an San Juan de la Peña`ri egineko emaitzan, Erregea bere gaitz-izenagaz izendatzen da: "NEU SANTXO eta JAINKOA`ri ESKER ERREGE eta ABARKA IZEN-GAI".

Eta EL-Mansur`ek egite ebazan gudaldikaitik, mugak sendotu ta Tudela`ren Bardenaz`eko Gaztelua eraiki. Gaur-be gaztelu orren ondarrak oraindiño bere izena daroa.

IV Garzia Santzez Dardaritsua`k (994-999), denbora gitxian iraun eban, eta dana guda-lanetan.

III Santxo Garzez Aundia (999-1.035), benetan aundiena izan zala erdi-ugarte oneitan. Berak esaten eban "Iruña`n ta Najera`n errege naz", Gaztela`n eta Astorga`n, Araba`n, Aragoi`an, Sobrarbe, Gazkuña`n, Leon eta Asturias`en, Ribagorza`n, Pallares`en eta Espaiña`n (diploma del año 1.030), nai-ta Espaiña`ren ametsik euki ez, Godo`ak gaitz-eritzian euki ebazalako, eta gaurko zentzuan gitxiago, gure Nafar-erregeak bealdera begitu barik, Europa`ra, Iparraldera begitzen ebelako.

Obeto ulertzen da, semeak, bere il-obiko illarrian, idazteko agindutakoan: "AUÑAMENDI`ko MENDI-KATE eta TOLOSA`ko ERREGE".

1.022`an Urrilla`ren 21`ean agiri sendo ta luze baten, bir-eskuratu egiten dau Iruña`ko Eleiza, beragaz batera, bere Kristautasun zintzoa erakutsiaz Nafarroa`ko Katolikotasunari, euki bear eban dirdira barriztu gura eutsolako.

Kanpion`tar Arturo`k (zeaztasun oneik beren liburutik: "Nabarra en su vida històrica" artuta dagoz) auxe diño: erdira zaleak III Santxo`ri ez eutsola on artzen erreiñuaren banaketa, iru erreiñu barri sortuta. Kontuan euki barik erregetza aundi ori, laterrien multzo bat bakarrik zala, eta gaur sortzen dan lez, bere bizitza egoera orreitan ezin ebala iraun, erdira zaleak ez ebelako kontuan eukiten Laterri orreik euki eben abertsaletasunezko sendimendu bizi-biziak, ez-ta ortik kanporatzeko euki eban indar kemena, ez-ta egon ziran gorrotoak eta argitubako kalteak.

Orregaitik esaten dau: "Erregeak, beste seme biak poztasunean euki gura ebazala", eta banaketa ori ez dala gaitzestekoa, Euskal lurak batera itzi ebazalako. Gaitzestekoa baiña zala, Iaka, Aragoi`ko erregetzaren muin argitsuena zana Euskal lurraldetik kanpoan iztea.

Aragoi`ko erregetza, bere seme Ramiro (sasiko semea) nagusiarentzat eraiki eban; Gaztelakoa Fernandori; Sobrarbe ta Ribagorza, txikerra bezela utsala edo suntsikorra (efimera) izan zana Gonzalo`rentzat; Garzia`ri, legezko semeen artean nagusiena izan zana, Iruña`ko erregetza, Araba (bere izen barruan Bizkaia eta Gipuzkoa`ko jabetasunak egon zirala), Najera (Errioxa), Tarazona eta Soria`ko lurraldeak, Garrai (lenagoko Numantzia), Gaztela leena eta Laredo`ko Asturias`ak.

Banaketa oneik ez ziralako ondo egin, anaien artean bekaizkeriaren bidez sortu ebezan, iñorentzat onak izan ez ziran lizkarrak.

1.036`an V Garzia santxez Najera`koa (1.036-1.054) onek, koroia artuta denbora gitxian, Fernando bere anaiari (Gaztela`ko errege) lagundu eutson III Bermudo`ren aurka (Leon`eko errege zana). Eta borroka orreitan au il zan lez, Leon`go koroia, bere arreba Santxaren (Fernando`ren emaztea zana) eskuetan geratu zan. Gaztela ta Leon`eko erregetzak bat egin da.

1.044`an, V Garzia Santxez Najera`koak: (erdi-ugarte onetan lenengoa izango zan alango iraspenak sortzen) "Zapaldako Zaldunen Legedia" (orden de Caballeria de la Terraza) eraiki eban.

1.045`ean, Kalaorra mauritarren eskutik bereganatu eban,

Fernando`k, bere anai Garzia`ri ondamu edo bekaizkeria euki eutson. Bere anaia Ebro ibaiaren eskuin aldeko jabe izatea ez ebalako ondo eroaten. Anaia ikustera etorri dagian gaixoarenak eginda eta Garzia ikustera joanda, Fernando`k zitalki edo doillorkiro (villanamente) Zea`ko gazteluan atxilotu eban. Garzia`k iges egitea lortu eban, guztiz minduta mendekuak eskatzen. Eta guda apurtuta, Nafarroa`ko erregea Atapuerka`n 1.054`an Irailla`ren 1`ean il zan.

Fernando bera izan zan, Gaztelarrak burugogorkerizko politikan eroaten daben iritzia: "EBRO MUGA LEZ" (EL EBRO POR FRONTERA), eraiki ebana.

1.054`an, IV Santxo Garzez Peñalen`goa (1.054-1.076) Atapuerka`ren kanpaldiko oialpe bertan izendatu eben errege.

Au be, euren arteko eta Mauritarren aurka, borroka askotan ibili zan. 1.076`an baiña, bere seme Ramon eta Ermesenda alabak, aita eiz-aldi batera deitu eta Peñalen`eko trokarte`tik bota eben. Erritarren asarrea ikusita, mutilla Zalduba`ko Mauritarren etxean ostondu zan, eta neskatilla Gaztelako gortean.

1.076`an IV Santxo Garzez il zanean, Aragoi`ko errege Santxo Ramirez eta buru-zoildun Gaztela`ko errege Alfonso`k, Nafarroatik zear sartu siran al eben guztia ostuten. Bitartean, Nafartarrak zalantza askotan ibili ziran errege bat aukeratzeko, eta azken baten, erregearen lengusu Santxo Ramirez Aragoi`ko erregea izendatu eben.

V Santxo Ramirez (1.076-1.094) Iruña ta Aragoi`ko errege au, euren arteko eta mauritarrekin, etenbako borrokan ibili zan, eta Oska (Ueska) inguratuta euki ebanean gezi-ukaldi (saetazo)ATEGAZ il zan.

1.094`an bere seme I Santxez`tar Pedro (1.094-1.104) Sobrarbe ta Ribagorza`ko errege zana, izendatu eben Iruña ta Aragoi`ko errege, eta itz-emon eban Oska inguratzen iraun egingo ebala.

Urte bi igarota, Salduba`ko Mauritarrek Gaztela`ko Alfonso`ren laguntzagaz, al eben indar guztia egin eben inguratze ori apurtzeko. Nafartar,

Aragoi`tar eta Gaskoi`tarrak alkartuta baiña, Alkoraz`en ikaragarritzko triskantza egin eutsoen.

1.104`an I Santzez`tar Alfonso gudari edo gerlaria (1.104-1.134), Nafarroa`ko ta Aragoi`ko errege izendatu eban.

Onek, erregetzan egin eban guztia, etenbako ospagarri-bat izan zan, bere etorkizunaren ondorengoak, belaun-aldiz belaun-aldiko gudu-eresietan abestuteko modukoak.

Kristau ta Mauritarraz etenbako borrokan ibili zan, bere izaeran nagusi zana ala-ere, Gurutzearen gudalaria zan.

VI Alfonso`ren alaba Urraka`gaz ezkondu zanean, len onek indarkerian artu ebazan laterriak ostera berreskuratu eban.

1.110`an Baltierra berreskuratu eban; 1.114`an Rotron bere kapitaiña`k Pertxe`ko kondea izan zana, Tudela artu eban; 1.118`an Salduba eraso gogor baten artu eban; 1.130`ean Baiona irabazi eban. Ekintza onegaz, Akitania`ko dukearen asmoak geratu ebazan, onek Auñamendi osteko lurralde guztiak berentzat gura ebazalako.

Bere azken naian, erregetza Tenple`ko Zaldunai itxi eutsen.

Jazarraldi aundiak egon ziran, eta Iruña`ko Batzarrak VI Garzia Ramirez, Monzon ta Logroño`ko jauna, berritzaillaren izenagaz ezagun izango zana, errege izendatuko eban.

VI Garzia Ramirez berritzaillera (1.134-1.150), Ramiro Ramirez eta Bibar`tar Elbira`ren semea zan (Bibar`tar Elbira, Zid`en alaba zan), eta Kalaorra`ko Jaun Ramiro Garzez`en billoba. Nafartarrak Juan Ramiro Garzez au, Santxo Peñalen`goa il zanean errege izendatu gura eban.

Au be, etenbako borrokan ibili zan. Esan leike, batak etxetik kanpora urtetan ebanean, bestea prest egoala etxe ortara sartzeko.

1.134`an Oliba`ko lekaidetxea eraiki eban.

Gaztela`ko VII Alfonso`k, truke egin gura eutson, Salduba eta bere ingurua, Logroño eta bere inguruagaitik. Gaztelar saltzailleak baiña, Errioxa bere eskuetan geratu eban, eta Aragoi`ko lurraldea Ramiro lekaideari emon eutson. Gaztela`r eta Aragoi`tarrak, Nafarroa, euren artean erdi-banatu gura eban.

VI Santxo Garzez Jakintsuak (1.150-1.194), gazte igon eban erregetzara. Laster ikasi eban baiña, Gaztela`tar eta Aragoi`tarren artean ibili ebezan maltzur guzurrak, Nafarroa`ko erregetza euren artean banatzeko, ezerezean izten, Blanka bere arreba, VII Alfonso erregearen Santxo semeagaz ezkondata.

A-ta guzti, eurakaz borrokatu egin bear eban, beti-lez ibili ziralako.

VII Alfonso Gaztelarra il zanean, ostera be berreskuratu ebazan galdutako lurraldeak, barriz galduta 10 urterako baitegian (depòsito) itxi bear

ebazanak. Eta Gaztelar ta Aragoi` tarrak ostera gudatan asi ziranean, berak Araba` r eta Gipuz` tarrakin alkartuta aurre egin eutsen.

1.180` ko urte inguruan, Donostia jendezkatu edo bir-erritu eban, Iaka` ko fueroak emonda eta ongarriko lege-arauan erantsita.

1.181` ean Gazteiz deritson inguruan Bitoria` ko uria eraiki eban, Logroño` ren eratorriko (derivado) fuero ekartsuak emonda.

VII Santxo Santzez indartsuagaz (1.194-1.234), Auñamendia` ren berezko Nafartarren erregetza amaitzen da.

Gertakizun onek, amaitzen diran gauzen edertasuna dauka.

Albijensen aurkako gurutzadaren abeslariak ospatzen eban: "Tudela` k daukan erregea, iñoiz zaldi gaiñean eseri dan zaldunik onena" abestuz. Eta, Alfonso gaztelar ta Portuges` ai aipatuz, euren arpian gogor emoteko: "Zentzun-gabeko alfer-aundiak, berak botoi baten balioan be ez dabezala on-artzen" esan eban.

Azken baten Nafarroa` ko erregetzak ta berak txarto amaitu eben. Gurutzadetan ibili zanean VIII Alfonso` k Araba kendu eutselako, Gipuztarrak aldendu jakozan fueroak ez ebalako zaintzen, Nafarroan bertan Fueroak zaintzeko alkarteak sortuta, eta nai-ta bere koñatuak Ingalaterra` ko Rikardo` k Be-Nafarroa ostera itzuli, Zuberoa gaur Nafarroa` gaz, biar Frantzia` gaz eta etsi Ingalatera` gaz ibili zan. Lapurdi 1.193` ko urtetik aurrera Ingalaterra` ko errege zan Akitania` ko Dukea` gaz alkartuta egon zan.

Len esan doten lez, Nafartarren etsaiari (Gaztela` tar eta Aragoi` tarrak batez-be) denbora falta jakien etxeko jabea etxetik urtetan zanean eurak sartzeko. Eta umekeri ta zikiñezko gauza orreitan ibili ziran edesti guztian III Santxo Garzez Aundia` ren ostetik ona.

Nafarroa` ko erregeak, Euskaldun on-bezela berba aundikoak ziran, euren izatasunezko ekanduan beste gauzarik ez ebalako ulertzen. Eta Kristautasuna babestearren, ez eben euki lotsarik Gaztelar ta Aragoi` tar etsaiari laguntzeko.

Joko orreitan, baldintza ezberdiñekaz ibili ziran jokutzen, errezagoa dalako maltzurkerian jolastea, eginda dauan on-guztia norberaganatzeko, norberen gogameneko alegiñagaz sort-araztea baiño.

Joko orreitan, Otsoa Aundia izan arren, etsai askoren artean etzun eben.

Nafartar erregetzan egin eben beste okerkeri galanta, Nai-ta "Nabarra Baskonun" aldarrikatu, gorte` ko agiri guztiak erdira zaleen eragipenak bultzatuta Latiñez edo Nafar-Aragoi` ko latin-kumeetan idatzi.

Gaur be leku ber-beran gagoz, berezitasunaren aurkako ori, etsaitasun bardiñak daukazelako.

Esan leike, dan guztia suntsituarte edo lokatztuarte ez dirala geratuko. Eta gero zer ! Beste borroka nagusi bat, berezitasunaren..... ekandubako egoera bardiñetan ezartzeko ?.

Argi ikusten da, zelako sasi-jainkoagaz dabizen.

Europa ta Mundu guztian, Euskalerrria izar bakarra da oraindik, burua guztiz makurtu barik dauana.

Lortuko dabe ?.

Lenago "MORO" esaten gendun.

Euskalerrriak, bere gazteen artean arduradun asko bear dauz, eta ori jakintzagaz lortzen da.

Jakintz orreitan alegindu bear gara, gure izarraren dirdaira Mundu guztira zabaldu daiten gura ba-dogu.

Orretarako baiña: "Euskerea, Euskal Nortasuna, Euskal Ekandua eta EUSKAL LURRAK" berrezkuratu bear doguz.

### ASTURIAS-LEON eta EUREN ONDORENGO GAZTELA`r ERREGETZA:

#### ( 19 ) . - SARTALDEKO LURRALDEAK:

Asturias`eri izena zekula-be ez jako aldatu, eta izen ori beren erreka nagusitik "Asturias" ibai`tik ("Aitz`etik urtetan dauan ura" esan gura dauana) artuta dauka (gaur Esla ibaia esaten dautsoe).

718`an Pelayo`k eraiki eban Asturias`eko erregetza, Godo`en kaizartzagaz osterabe bir-jabetzeko eta Leon`eko ingurua (Leon`en izena bertan kokatuta egon ziran Erromatarren VII`n lejiñoaren izenetik artuta dagoena, Sil ibaitik ataraten eben urre gorria zaintzen egon zirala) Asturias`eko errege III`n Alfonso`k 882`an Mauritarren eskuetatik askatuta gero, eta beren semeak II`n Ordoño`k X`n gizaldian erregetzaren uri nagusia Leon`era eroanda (garrantzi aundia emon eutsona), lurralde biak erreñu baten alkartu ebazan , gero eta Nafar-erreñuaren menpetik alde eginda, 1.230`an biak Gaztelako erreñuagaz bat eginda geratu ziran.

Gero, 1388`an II`n Juan`ek (Bizkaiko jauna izan zana), bere seme Enrike Lankaster`eko Katalina`gaz ezkondu zanean Asturias printze-erri sortu eben, eta andik ona Espaiña`ko erregearen leenengo semeak errege izatearen aurretik Asturias`eko Printzea izena izaten dau.

Euren burutakizuna erreliziozkoa bete-betean izan barik, guztiz politikoa izan zan: Bisigodo`en erregetza berriz eraikitzea. Bide orretatik, bardin eraso eutsoen ego-aldeko Mauritarrai edo Eki-aldeko Kristau Euskal-erregetzai bezela.

Euskaldunak, Bisigodo`en Kaizargotzazko naikeriaren etsai sutsuak ziran euren askatasunak babesteko.

Eta emen gauza bi ikusten doguz. Bata: Bir-artzearen izpiritua (espíritu de reconquista), ez zala bardin ugarte onen Ekialdeko erreñuetan eta

sartaldeko edo mendebaleko erreñuetan. Asturias-Leon`eko erregeak beti, edo Pelayo`tik beintzat, Bizigodo`ak izan eta senditzen ziralako.

Gero apurka apurka Gaztelako erregetzan, Bisigodo`en asmakuntzazko Toledo`ko Eleiz-Batzar Nagusitik bultz eginda eta Asturias`eko printze-katoliko`en aritik sartuko zana, nai-ta Katolikoan erreñuan Fernando`ren adostasunik euki ez, bera Napar-Aragoi`ko erregetzaren senekoa izan zalako. Bere maltzurkerian baiña, ("nai-ta gura ez") asko lagundu eutsoen Erromatar eta Bisigodo`en izpirituzko asmakuntzari Euskaldunen aurka.

Bestea: Euskal Napar-Aragoi`ko erregetzan, kaizartzaren asmakizun ori ez zala egon, euren lurak eskuratzeko bakarrik borrokatzen ziralako. Euskal-Baskoi, Oszitano eta Ilerjete`en lurak babestuaz batera, gurea izan zana bir-eskuratu baiño besterik ez.

Mauritarrai, Euskaldunak ez eutseen gorrotorik euki, geiago begitzen ebelako Europa`ko Iparraldeari Ego-aldeko Mauritarrai baiño. Ego-alde guztia orregaitik geratu zan Astur-Leones Bisigodo`en eta euren ondorengo Gaztelatarren naierara.

Euskaldunak or galdu genduzan lurralde geienak, gaur gagozan Adur ibai eta Ebro ibai bitartean geratuta.

Euskalerrriak ortik aurrera, bere lurra, izkuntza eta Nortasunaren jabetza beti euki dauz bere ardurazko zainpean, nai-ta V`n Felipe borboiakaz mugak, Ebro ibaitik itsasora ainbeste bider aldatuz, gure arduraren jabetza ez ebalako on-artzen, areik eta 1.789`an Frantzia`ren "Libertè, Legalitè eta Fraternitè"aren guzur aundiko iraultza egin-zan arte. Godo`tarren eredua Espaiña`tarrak on-artuta, erdi-ugarte oneitan bizi ziran erri ta erritar guztien Nortasunak galtzeko alegiñetan ibili ziran, Espaiñol nortasunezkoak biurtu gaitazan.

Laster agertu jakien aukera ori euren arazozko (Ley Sàlica) eztaibadaren bidetik, 1.832`an Karlos Borboi`ari gure fueroak babesteko leguntzaren eskaintza egin geuntsonean.

Karlista guda ori 1.833`an asi eta 1.836`an guzur ta saldukeri aundi baten bidez amaitu zana, Bergara`n Maroto eta Espartero`en arteko bezarkadan.

Bigarren karlistada 1.872`an asi zan, Espaiña`ko errege Italia`ko II`n Bitor Manuel`en semea Amadeo de Saboya izendatu ebenean, eta Lizarra artuta 1.876`an amaitu zana.

Martinez Kanpos izan zan gudal-nagusi irabazlea. Borboi erregetza birreskuratuta eta XII`n Alfonso errege izenduta. Onek gure foruak ezereztu ebazan.

Euskaldunak or menperatu ginduezan, azkenean geratu jakuzan lurralde guztiak Adur ibaitik Ebro ibai`raño, Frantzia`ko errege ta Espaiña`ko erregetzaren artean bananduta.

Guda orreik, Euskalerrrian egiteak..... ustegabekoak izan ziran ?.



Euskaldunak ez gendun aukerarik borroka bi oneik irabazteko Espaiña`ko erregetzak Europa`ko erregetzaren laguntza siñatuta euki ebalako, eta euren asmakuntzan, olan geratu gurean ibili ziralako.

Euskalerrriak aurrera egin eban bere askatsunezko jabetza bir-eskuratzeke, eta Errepublika denbora laburrean 1.936`ko fazista`ren guda asi-ta Gernika`ko-Estatutua lortu gendun.

Eta nai-ta balio aundiko gizon/emakumeak euki, orduko denboran-be, ez eban balio gauza aundirik, Europa`ko laterriak, Alemania`ren aurrean billurtuta egon ziralako, eta emengo fazistak Alemania ta Italia`ko fazistaren laguntzarekin babestuta egon ziralako.

Azkeneko guda au guretzat 1.937`an amaitu zan, Euskalerrria Frantzia ta Espaiña`ren artean bananduko menpekotasunean geratu giñalako.

Mundu`ko II`n guda nagusiaren ostetik eta fazistak menpetuta, erabagi-bi gogorak artu ziran, aurrerantzean egin bear ziran giza-bideko antolakuntzetan kontuan eukiteko. Bata: "Alako odolkeriaren gudarik, ez zala egongo geiago". Eta bestea: "Gizartearen esku-bidera bideratuko zirala aurrerantzean apurka apurka egiten diran antolakuntzak".

Eta demokraziaren bide oneitan sartuta, Mundu`ko erri ta Euskalerrriarentzat non agertzen diran pare-gabeko aukera barriak, lurrak, Europa`ko izkuntz zaarrena, Nortasuna eta Askatasuna, azken baten bir-eskuratzeke.

Demokraziaren Lege-Nagusiena "bakotzari berea emotea da". Eta orren esan ta eginezko arduran gaurko jakintzaren aurrerakuntzan, berezkotasunaren aurka doiazan erdira-zale`en guzurrezko indarrak, begi-aurrean, diran-lez argi-argi geratzen dira.

Gaur, sartuta gagozan demokrazian, eta erdira-zaleen indarkerizko aukerak agortuta, daukaguzan Laterriak espataren keiñuakaz dariola ez daukie zentzurik, menperatzaillezko asmakuntzatik sortuta dagozelako.

Eta egia dalako, gizartearen Nortasunezko ardurak kentzen diranean edo esku batzuetan batu ezkeru, gizartea arduragabekerian agertzen dala, iñork ez daukalako nor beren ardurak aurrera eroaten, arduraduna ezinkizunean egon ezik.

Gaur, sozialistak esaten dabena barregarria da, bildur diralako alde-batetik edo demokraziaren zentzua oraindiño ez dabelako ulertu. Zapatero`k: Euskaldun, Katalan eta Gallegoai begira, Europa`ren uritargoak (ciudadanos) gariela esaten dau. Espaiñol`tasunaren norberia ostonduteko ?.

Nortasuna eta Eskubidearen Ardurak Berezkoak dira, JAINKOA`ren LEGEAK Mundu onetara alan bialtzen gaitulako.

Nor da Nor lege ori aldatzeko ?.

Edesti guztian ikusi dogu, nagusi asko norkerien bidetik jokatu gurean, Mundu onen gizarte eta gauza guztiak ankaz gora ipinita ikaragarritzko naaste baten.

Kontuan euki bear dogu, demokrazian sartzen asiko garela, Mundu onetako gai guztitik (gure gorputzak kontuan eukinda) gurea ez dala ezer (propio) ulertzen asten garanean, "ARDURADUNAK BAKARRIK GARALAKO". Erri ta erritarrentzat, ardurak era orreitan mukullu (molecula) txikerrenetik asita egin ezkerro, demokrazizko emaitz-onak berez agertzen dirala.

Ardurazko Jabetasuna (propiedad de ejercer-responsable) daukagu bai, eta gure ulermenean era orreitan ontzat-artu bear doguz. Gure "ARBASOAK" ikasi ta egin eben bezela

Gure eginkizun guztiak, ulermen orreitan bete ezkerro, berez agertzen diralako edo emoten dauskuzalako emaitz edo ondorio guztiz demokratikoak diranak.

### ONDORIOA:

#### ( 20 ) . - LABURPENA:

Edestiaren leenengoetatik asi-ta ikusi dogu, Kromañon-gizak edo Euskal gizak bere ikas-bidean zelan lortu eben demokrazi on batera eltzea. Eta esaten dotena ontzat emoteko, besterik ez da bear gure "LEGE-ZARRAK" begitutea baiño.

Batez be baiña ikusi dogu, zelan Erromatarrak K.aurreko 240` tik onantza, erritarren ardurak esku batzuetan bakarrik artuta NORKERIAN asi zirala.

K. o` tik ona, 4` garren gizaldian sendotu, eta gizartea ta lurak, euren naieratara banandu dira.

Denbora naspil orreitan, erritarren artean indarkerizko naaspiltasun orreik beartuta, izkuntz barriak sortu eta Euskal oiturazko lurrarteetan Nortasun barriari asiera emon, len Europa` tik Indoeuropeotarrak sortu ziranaren antzera. Oraingoan baiña, norkerizko indarragaz beartuta.

Godoa` k, Erromatar-ari ori artuta sendotzeko asmoan, zelan iraun eben borroka utzean eurak ezereztuarte.

8-9` n gizaldietan asi-ta, errege-jauntzaren antolakuntza barriak egin ziranetik, zelan gaztelarren erregetzan sartu zan "nacional-catolicismo"aren asmakuntz ori.

Gure errege-jauntzak, zelako eragipena (influencia) euki eban eta gaur be daukan, menpekotasun ori lortzeko.

Eta aundiena izan zana: "Erromatarrak eta Godo` ak, Europa ta Mundua, euren agindutara dana batzangotu gurean, izkuntza eta erlijio bategaz", eta euren "VENI, VIDI, VICI"gaz dana nazte aundi baten barruan sartu zalako,

geroago erdi-mendeetan egin eben eztandagaz, dana birrinduta, ainbat izkuntza, erri ta erlijio barri sortu ziran, iñork ez ebalako aitzen ezer, aibeste ziñeskintzaren ostean.

Azkenean, maltzurrezko guzurrakin ezin eta 19`garrengo gizaldian espataren indarkeriagaz, menperatu ebezan azken geratzen ziran Adur`etik Ebrora Euskal-lurrak, eta Europa guztian indarkeriz, Laterrituta geratu giñan.

Pozik ez ziran geratu, erdi-ugarte onetan berezko erriak ta erritarrak Euskal gizartea lez, berezko ulermenaren askatasunak aleginduta zutitu egiten giñelako demokraziaren arrazoizko bakearen billa, eta arrazoi orreik makurtzeko, 20`garren gizaldian beste odolkeri utsezko guda oso gogorra egin eben.

Europa guztia..... menperatuarte geratu ezinik, Mundu`ko eta Mundu guztiarentzat negargarri izan zan guda nagusia sortu eben.

Danok dakigu zelango emaitzak emon ebazan, eta esan leike orduko itz-emonakaitk, azkeneko guda izango zala, nai-ta erdira-zale orreik gaurko egunetan, dirua eta mozkin guztiak euren eskuetan eukiteko, osterabe naspilketan asi.

Dana dala, edesti onen zeazkuntzan argitasun guztiaz ikusten doguna, erdira-zale orreik berezkoatasunezko legeen gaiñetik, euren norkerizko sasi-jainkoaren legeak ipini gure dabezela, eta ez daukiela ezeren ardurarik, nai izkuntzak, erri ta ekanduzko oiturak zapalduarren.

Euskalerrian baiña, ikusi dogun aundienetariko ta arrigarrizko gauza: "Keltiar, Erroma`tar, Godo`tar ta Fazizta guztien ostean, beti alkartu garala, Izkuntzan, Nortasunean eta Oituran egindako kalteak konpontzeko, arduran lortu genduzan demokrazizko Askatasunetan bakez bizitzeko. Izan da.

JAINKOAK, berezitasun (originalidad) baten kokatu gaitu, berezitasunezko legeak dagozan lekuan. Eta Norberkerien arduragabeko zikintasunik ez egiteko lekuan esan-gura dau orrek. Orregaitik, Euskaldun guztiak batera jokatu bear dogu gure arbasoen antzera, bakoitza ta danon arduragaz demokrazizko berezitasun ori osterabe lortzeko.

Euskalerria, Europa`ko izar nagusia da, bera bakarrik geratzen dalako guztiz zapaldu, zikindu edo desagertu barik.

Danon ardureagaz alegindu gaitzezan ba, guztiz zikindu orduko.

(349)

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.005`an AZAROA`ren 17`an

(349)